

<b>MUNIBE</b> (Antropologia-Arkeologia)	Supl. N° 20	5-131	SAN SEBASTIAN	2004	ISSN 1132-2217
---	-------------	-------	---------------	------	----------------

Recibido: 2004-03-22  
Aceptado: 2004-04-20

# Jentilen Akabera<sup>1</sup>

## The Giants' Ends<sup>1</sup>

**GAKO-HITZAK:** Ahozko kontakizunen bilakaera, jentilak, mairuak, trikuharria, betazala, lainoa, pestea, izurritea, igarpena, akabera.  
**KEY WORDS:** Tales' evolution, giants, Hühnen, Riesen, dolmen, eyelids, cloud, pestilence, divination, extinction.

**Juan Inazio HARTSUAGA\***

### LABURPENA

Lan honen atal nagusiak honako hauek dira:

- Ahozko kontakizunen bilakaera aztertzeko metodo proposamena
- Metodoaren aplikazioa jentilen akaberaren mitoaren hamaika bertsoei. Konklusioak eta inkognita berriak.
- Jentilen akabera osatzen duten motiboak Euskal Herritik kanpo aurkitzeko saioak: Betazal jasoa, lainoa, akabera.
- Mitoaren esanahi jatorraren osaketa, Europan zehar aurkituriko elementuen laguntzaz.
- Egokitzapen arkeologikoa motiboen banaketa mapentzat eta mitoaren esanahiarentzat.

### ABSTRACT

This article's main contents are the following:

- A method proposal for analysing oral tradition's evolution
- An application of the method to the 11 Basque versions of the Giants End's myth. Conclusions and new questions.
- An attempt to find beyond the Basque Country motifs related to those appearing in the Giants End's myth: The lifted up eyelids, the cloud, the extinction.
- A reconstruction of the myth's original meaning achieved with the help of data collected all across Europe.
- An archaeological correspondence to the maps showing motifs' distributions and to the meaning expressed by the myth.

## I. SARRERA

Jentilen Akabera deritzan ale honek, euskal mitologiaren ikerketarako ikuspuntu arras berria proposatzen digu, Euskal Mitologia Konparatuan saiatutako hurbilbideetatik argiro bereizgarria: Hartan, mezu mitologien eduki eta mami ideologikoak ageriratzen eta haien ondoriozko gizakiaren irudia eta munduaren irudia aztertzen iharduten dugu: Kosmosaren irudiragarriak, naturaren indarrei dagozkien irudirabide sinbolikoak, jainkozkoen jarrerak gizakoen ihardunekiko, gizarte eredu proposamenak eta era honetako beste zenbait aztergai ukitzen ditugu. Orain berriz, honako hau, historiari soziologiari baino hurbilago dabilkion saioa dugu. Honen asmoa ez da gero ikuspegi orokorrez eta osokorrez hartutako mitologia baten hondakineta oinarritzea haren oharpe-

ko eredu ideologikoak ohartaraztearren. Honen asmoa aitzitik, sinpleki eta zehazki, euskal mitologian ugari kausitu den kontakizun baten historia berreraikitzea litzateke, alegia, honen jatorria, hedapena eta eraldaketak deskribatzea. Ikuspuntu historiazalea, jarrera berreraikitzailea, eta ia ia arkeologiko iritzi geniezaiokeen helburua. "Jentilen akabera"ren bertsoak aztertuko ditugu, eta Euskal Herritik kanpo kontakizun honen antza ukan dezaketen kontakizunak, edota apalago, kontakizunaren osakin diren motiboen antza ukan dezaketen motiboak ikertzeari ekingo diogu; azkenerako, zenbait hipotesi proposatu beharko dugu mitoaren esanahia eta bere hedapena ulergarri eta argi emaile bilaka daitezen.

\* Gernikako Arbolaren Lorategiak 8, ezk 1. 20400 Tolosa.  
E-mail: hartsuaga@euskalnet.net

1) JUAN INAZIO HARTSUAGA URANGA, -ENA 0015135-G zenbakidun-, azpian sinatzen dudan honek zera ZIURTATZEN DUT: JENTILEN AKABERAK izenburua duen lan hau ez dela bere osotasunean sekula inon lehenago argitaratu. Eta dagokion hartan aintzat har dadin sinatzen dut. Tolosan 2004ko martxoaren 27an.

Jentilen Akaberaren euskal bertsioak eta gure herri-  
tik kanpo bildutako aztergai mitologikoak elkarren ondo-  
an jartzeak, mitoaren benetako jatorria finkatu beharra  
ekarriko du, eta horrekin batera, euskaldunen jatorriaz  
aritu beharra halaber. Honelako azterpuntuak aurreko  
ikerketetan alde batera utzi baditugu ere, –ez baitzuten  
garrantzirik euskal mitologiak bideratzen dituen mezu  
ideologikoak aztertzeke garaian–, erdi erdian plazaratu  
beharko ditugu orain, horrela ezinbestekotzen duelako  
gure helburuak: Mito zehatz baten jatorriaren eta esa-  
nahiaren berreraikpen historiko-arkeologikoa.

Honelako berreraikpen saio batean gailen irten nahi  
izanez gero, tresneria metodologiko sendoa beharko du-  
gu lehenengo, ikerketa ausarta eta bizia izan dadin,  
zuhurra eta pertinentea izanik orobat. Gure lan honetara-  
ko metodologia hiru zutabeon gainean datza: Lehe-  
nengo, ahozko kontakizunen bilakaera, –mitoena tarte–,  
gobernatzun duten legeen ezaguera; bigarren, euskal  
eta indoeuropar mitologiaren arteko ezberdintasunei bur-  
uzko irudi argi bat, Euskal Mitologia Konparatuaren kon-  
klusioetan oinarrituz; eta hirugarren, arkeologiarekiko be-  
girunerik handiena, hori izanen baita aurretik gure hipo-  
tesien eraketa gidatuko duena, eta ondotik, gure konklu-  
sioen onegarritasuna erabakiko duena. Baina beha di-  
tzagun lasaiago hiru puntu hauek banaka harturik.

Ahozko kontakizunak, ahozkoak direnez gero, izaera  
egongaitza eta aldabera ukanen dute, idazlanak edo  
magnetofoiak fijasen ez dituzten artean. Gizazkoen en-  
tzumen eta oroimen mekanismoen mugak, egongaitza-  
sun iturri bilakatzen dira ahoz igorri eta belarriz jasotako  
edozein kontakizunarentzat.

Egongaitzasuna eragiten duten faktoreak, (komuni-  
kazioa uhertzen duten faktoreak) direla medio ahozko  
kontakizun batek jasan ditzakeen eraldaketan multzoa  
konplexuegia eta aleatorioegia dela pentsa daiteke alde  
aurretik, eta beraz azter ezinezkotzat jo. Halabaina, erre-  
alitatean, ahozko kontakizunen dinamika nahiko soila eta  
errepikaria izan ohi da, modu orokorrean eman daitezke-  
en zenbait arauri, zenbait aldakortasun printzipiori, obe-  
ditzen baitie beti.

Honen arabera, zenbait sailkapen eragin eta zenbait  
kategoria definitu ditugu ahozko kontakizunen munduan,  
hauen bitartez, ahozko kontakizunak jasan ditzaketen  
eraldaketa motak deskribatzen dituen modelo teoriko  
bat osatuz. Berau izanen dugu laguntzaile bikaina laster  
hasiko den ikerketan.

Modelo honek ez du, ahozko kontakizunen teoria  
orokorra izateko nahikeriarik; aski du, ikerketa lanabes  
zorrotz eta praktikoa izatearekin. Dena den, bere garape-  
na luzeegia litzateke sarrera honetan egiteko, eta beraz  
atal oso bat eskaini beharko zaio, hurrengo hain zuzen.

Bigarren puntua, hots, euskal eta indoeuropar mito-  
logien ezaugarri eta bereizgarri nabarmenenen "irudi argi  
bat" bezala definitu duguna, zutabe metodologikoetako  
bat izatera heltzen da lan honetan, zeren eta gure herria-  
ren testuinguru geografiko eta historikoa kontuan har-  
tuz, edozein mito edo motiboren jatorriari buruzko ezta-

baidek, azken finean beti hautabehar berera eramango  
baikaituzte: Euskalduna ala indoeuroparra?

Honi dagokionez, aurretik buruturiko bi ikerlanetatik  
ikasitako konklusioak izanen ditugu behar dugun oinarri  
sendoa.

Euskal kultura gaur egun irla bat delarik, bere bakar-  
dadeak bere mugakideen indoeuropar aitzineko geruza  
dakarkigu gogora. Indoeuropar mitologia luze eta zorrotz  
aski ikertu dugu honezgero zera jakiteko, alegia, ezin du-  
gula bertan bilatu, indoeuropar hizkeretaz mintzatzen di-  
ren gizarteetako gai mitologiko guztien jatorria. Hiru-  
garren funtzioari dagokionez, argitan ipini dugun egokita-  
sun ezak batik bat argi eta garbi erakusten du zeintzuk  
eta nolakoak diren indoeuroparren intereseko alorrak eta  
indoeuropar aitzineko mitologia korpus baten izanaren li-  
tekenekotasuna.

Bi mitologia hauen ezaguerak, –euskalduna eta in-  
doeuroparra alegia–, ikerketa nondik nora bideratzeko  
balio digu eskuarki, hots, zenbait hipotesi gomendatu  
eta beste zenbait baztertzeko, konklusio sendoak bota-  
tzeko baino. Ikus ditzagun esate baterako, oineztarritik  
babesteko gure herrian erabili ohi ziren bi babespede  
errito hauek: Bata zera zen, harri, brontze edo burdinaz-  
ko haizkora txiki bat ahozkoa ipintzea etxeko ate aurre-  
an; bestea berriz, erramu igandean bedeinkaturiko erei-  
notz zotzez gurutze bat egin eta ateari iltzez jostea.

Ereinotzaren indoeuropar lehen funtzioarekiko lotura  
aski ezaguna da, greziar atleta olinpikoen eta erromatar  
enperadoreen ereinotzezko koroiek erakusten dutenez.  
Bestalde, Erromako historiak zera erakusten digu, Tibe-  
rio enperadorea beti oineztarriaren beldurrez obsesiona-  
turik, ereinotz abarrez apaintzen zela ostotsa entzun or-  
duko. Beraz, hipotesirik zehurrera euskaldunen erroma-  
tarrengandiko maileguarena izango da (Erromako  
Elizaren bitartekaritzaz apika) eta ez alderantzizkoa, ze-  
ren litekeena baita, garaiko euskaldunek haien koloniza-  
tzaile indartsuen aztigoa bereganatu nahi izatea, eta al-  
derantziz, sinestezina litzateke erromatarrek euskaldunei  
ikasitako zerbait izatea, zeren, nola onartuko luke  
Zesarrek herri kolonizatu xume baten sineskeria? Lehen  
funtzioa ez da eskuarki hirugarrenaren mailara jaisten  
bertan ezer ikastera.

Halabaina, harrizko haizkora bat, –berdin brontze  
edo burdinazkoa bada ere–, ez zaio indoeuroparren le-  
hen bi funtzioetako ezeini lotzen. Ez da agintearen irudi-  
ragarri, ez eta gatazkan lehiakor litekeen arma. Indoeu-  
ropar irudiramenak ez lioke sekula aitortuko lanari eta hi-  
rugarren funtzioari lotzen zaien tresna arrunt eta saskar  
horri oineztarrien aurka, Jainko Varunantzaren armarik  
beldurgarrienaren aurka ezer edo inor babesteko gaita-  
sunik.

Indoeuropar mitologiaren mamiaren ezaguerak aha-  
lezkoa bihurtzen du kasu honetan honako hausnarketa  
egitea, alegia, haizkoraren motiboaren hedapena Euro-  
pan zehar, indoeuropar aitzineko geruzan oinarrituz uler-  
bideratu behar dela. Demostrazioa ez da erabatekoa, ho-  
nelako zenbait haizkora, betiere ahozkoa jarririk, zen-  
bait harri aroko hilobitan kausitu direla jakin arte, baina

auzitan dabilzan bi mitologiaren ezaguerak, hipotesia zuzen bideratzeko balio izan digu.

Azkenik, hirugarren zutabe metodologikoa den jakintza arkeologikoa, bi eratan datorkigu ikerketa honetan laguntzera: Lehenik eta behin, hipotesiak zuzen bideratzeko izanen zaigu baliagarri, zeren ikerketa arkeologikoei, nabarmen aurreratuak eta arrunt zehatzak teknologia berriari esker, alde aurretik hesparru geografiko zehatz eta mugatu batzuk marrazten baitzizkigu, guk bertan ikerketa lanari ekin diezaiogun. Hesparru hauen onarpena, filologoei proposatu ohi dituzten zenbait gehiegikeriatatik libratzeko aurreneko eta derrigorrezko urratsa da zalan-tzarik gabe, esate baterako, euskaldunen eta Ipar Amerikako indioekiko edota japoniarrekiko loturak proposatzen ibil ez gaitzeen hizkuntza kidetasunik nimiñoena kausitu orduko.

Arkeologiak euskal kulturaren kultur haurreak aurkitzeko horren urrun joan beharrik ez dagoela erakusten digu. Gure arbasoen kultura materialen hurrenkerak utzi

dituen aztarnak, hesparru geografiko zehazki mugatutako zenbaitetan kokatzen dira, eta beraz, hesparru horietatik at garamatzen edozein hipotesi gaitzetsi eta baztertu beharra dago.

Ondoren, "a posteriori"-ko ikuspuntutik arkeologiaren laguntza zera da, gure konklusioen onesgarritasunaren berme eta lekuko bilakatu behar dela. Edozein mito, motibo, sinesmen edo gainontzeko produktu kulturalaren jatorriaz eta horren eraginaren hedapenez landu daitezkeen edozein konklusio, ez da baliagarria izanen beste aztarna kulturalekin, –kultura materialeko aztarnekin batik bat–, bateratasunik erakusten ez badu. Arkeologia gure azken fineko bermea dugu: Honek segurtatuko digu gure konklusioak ez direla gezurrezko indoeuropar aitzineko geruzak asmatzen ari. Konklusiook beste aztarnokiko aipatu bateratasun hori frogatu beharko dute, eta honela ez balitz, edota nahiko argi ez balego, atzera bota beharko ditugu, eta azterketa berriro bideratu.

## II. AHOZKO KONTAKIZUNEN BILAKAERA

Ahozkotasuna esatea, egongaitzasuna eta higikortasuna esatea da. Ipuin eta mitoen igorpena nahiz beren harrera eta finkapena oroimenean, uherdura baten arriskupean dago beti. Uherdura hau edo hauek, komunikazio mailan edo oroimen mailan eman daitezke, eta edozein momentutan ager daitezke kontakizunaren mamia nolabait aldaraziz. Arrisku honen probabilitatea ez da beti berdina kasu guztietan, baina halere, handia edo txikia, beti hor izanen dugu.

Kontakizunak honelako zauri semantikoa pairatzen duenean, bere metabolismoa lanean hasten dela esan genezake, aurreko osasuna eskuratu nahian, hots, eraldaketaren aurreko oreka iritsi nahian berriro ere. Kontakizuna orduan, aurrekoa ez bezalako oreka berri batera helduko da, eta bertan geratuko da harik eta igorpen eta oroimeneratze prozesuan zehar oreka hori herren utziko duten uherdura berriak gertatu arte.

Ahozko kontakizunaren ibilbidea beraz, honelako zerbaitetan laburbil genezake, alegia, zenbait oreka egoera, hauetako edozein biren artean desoreka argiago edo disimulatuagoko zenbait egoera tartekatzen direlarik.

Etengabe aldatze hau dela medio, ia esan liteke ez dagoela munduan erregistratzeko garaian erabat leuna eta borobila agertu den kontakizunik. Ia denek erakutsiko dizkigute haien orbain zaharrak eta zauri berriagoak, gorabeheraz jositako izaera horren lekuko. Oreka berreskuratze batek anitz hobekuntza egoera eskatzen ditu, apurka apurka kontakizunaren egiturari herrenkeria eragiten dioten zulo eta ezpondak bete eta haitzurtuz hurrenez hurren, erabateko leuntasuna iritsi ahal izateko. Beraz, probabilitate arazo hutsa da, erregistraturiko bertso ia denetan inperfekzioak agertzen badira.

"Egitura herrenak" eta "desoreka egoerak" aipatzen ari garenez gero, egitura borobil bat eta oreka teoriko

bat badirela ari gara esaten nolabait. Baina bi kontzeptuon definizio teoriko hertsia proposatzea, bistan dago gure neurritik kanpoko lana dela. Beraz, gure ikerketa aurrera eramateko erabilgarri dakigukeen definizio arras praktikoa eta didaktikoa emateari lotuko gaitzaizkio soil soilik: Ahozko literaturan jantzitako edozeinek aztertzen dituen kontakizunetako egiturak orekatuak ala bortxatuak daudela esateko duen gaitasuna, zerarekin pareka daiteke, hiztun batek bere hizkuntzaz esandako perpausa bat gramatikala ala ez gramatikala dela esateko duen gaitasunarekin; alegia, oharkabe sentitu eta ikasitako gramatika batean oinarritzen den gaitasuna dugu hau. Beraz, gramatikaren alorrean gertatzen denaren antzera, perpausa bat gramatika horren muga mugan egonik hiztun guztien iritziak haren zuzentasunaz bat ez datozen bezala, zenbait kontakizunaren oreka ala desoreka egoeraz iritzi kontrajarriak ager ahal izanen dira halako muga mugako kasu batzuetan. Baina era berean, edozein hizkuntzako hiztunak egunero erabiltzen dituzten perpausa arruntaren %99aren zuzentasunaz bat datozen bezala, orrialde hauetan zehar erakutsi behar ditugun desoreka semantiko egoerak arrunt argiak eta garbiak azalduko zaizkio edonori. Ez goaz ez, ahozko literaturaren gramatika orokor bat proposatzera, baina bai ordea begibistako irregularkeria azalduko zaizkigun zenbait fenomeno erakustera: Hutsune semantikoak, adierazirik gabeko adierazleak, kontraesan larriak ipuin barnean, e.a.


Ahozko literatura hein zabalean, eta mitoak zehazki, ikergai bezala hartuz gero, honako hausnarketa hau erabat oinarritzeko eta beharrezkoa dugu, alegia, ohartzea aztergai ditugun ahozko kontakizunak ez direla beti orain ikusten ditugun bezalakoak izan. Zenbait aldaketa jasan ondoren gureganaino heldu den kontakizunaren jatorriko egoera, –lehen egoera–, berreraikitzea lortzen dugun

bakoitzean, aurrerakada izugarria eragingo dio ikerketari. Eta hain zuzen ere, berreraikitze optika horretatik, esanahi galduen berreskuratze asmo horretatik proposatzen dugu honako modelo hau, ahozko kontakizunen ibilbidean parte hartzen duten elementu garrantzizkoenak bertan bildu eta laburtzen direlarik.

Kontakizunaren jatorrizko egoeratik abiatzen garelarik, aldaketak nola gertatzen diren erakusten digu modeloak lehenik eta behin; ondoren, eraldaketa hauek har ditzaketen bilakabideak marrazten dizkigu, eta amaian, eraldaketa hauen bilakaeraren azken egoera erakusten zaigu, "azkentasun" edo taulak dioen bezala "egonkortasun" horiek noski, ahozko igorbidearen azkena eta errejistroaren egonkortasuna adierazten dutelarik, alegia, ikerlari batek kontakizuna idatzi edo magnetofioan erre-

jistratu duen uea. (Komentatu beharrik ere ez dago, taulako behealdeko adarrak inongo aldaketarik gabeko ibilbidea marrazten duela).

Auziaren gakoa zera da, kontakizunen atzetik ibiltzea haien bilakabideetan zehar, eta bertan gertatzen den guztiaren lekuko izatea. Honela, eraldaketa desorekatzaile eta berrerekatzaile mota guztiak lanean ikusi ondoren, edozein kontakizunetan honelako eraldaketek utzitako orbainak ezagutzeko gauza izanen gara, eta areago, zenbaitetan, horrelakorik ahalezkoa denean, orbainen azpitiko aurreko oreka egoera berreraikitzeari ekinen diogu, eta nork daki!, jatorrizko egoera bateraino ez ote garen helduko zenbaitetan. Baina oraingo, goazen hiru sail hauek banan bana astiro eta zabal azaltzera:



## II.2. Eraldaketak

Kontakizun baten mamia bi era elementaletan alda daiteke, alegia, bere osakin bat edo batzuk galtzen dituenean, edota osakin berri bat edo batzuk bereganatzen dituenean. Galera eta bereganatze hauek berriz bi mailatan eman daitezke: Testuaren mailan edo kontakizuna murgilduta dagoen testuinguru mailan. Eraldaketa mota eta mailak biderkatzen baditugu, gaineko taulak erakusten dituen kasuak ateratzen zaizkigu: Motibo baten galera, motibo berri baten bereganaketa, (motiboa mezu unitatea da ahozko literaturan), testuinguruko osakin baten galera, eta elementu berri baten sarrera testuinguruan.

Edozein ahozko kontakizuni gerta dakizkiokeen eraldaketa guztiak oinarrizko lau kasu hauen konbinaketaz ulerbidera daitezke.

Izan ere, lau kasuok bakarka harturik, errealitate praktikorik gabeko eragiketa abstraktuak baizik ez dira, zeren eta esate baterako, motibo baten galerak uzten duen hutsunea, motibo berri bat bereganatuz beteko

baitu kontakizunak; edota bestetan, motibo zahar baten desagertzea dakarren motibo berri baten bereganaketa, testuinguru aldaketa batek bultzaturik gertatzen da; eta testuinguru mailan zenbait informazio galtzen denean, mezuren zati batzuk ulergaitz bihurtzen dira, eta ondorioz, erraz gerta daiteke, motibo berri batzuk iristea zahar eta ulergaitz bihurtu diren horiek ordezkatzeko.

Errealitatean, oinarrizko kasu hauetako bakoitza guxtienez beste hiruretako bati lotzen bazaio, argi dago aldaketa mota bakoitza ilustratzeko hartu ditugun kontakizunetan, beste aldaketa motekiko loturen aztarnak somagarriak izango direla. Dena dela, ondoren datozen testuen hautapena arreta bereziaz egin da, bakoitzak ilustratzen duen aldaketa mota beste aldaketa moten aztarnen gainetik nabarmen ager dadin, eta ez dut uste benetan honen inguruan inolako nahasterik gerta daitekeenik.

Zehaztapen hauek eginik, gatozen aurreneko kasua aztertzeraz.

	Galera	Bereganaketa
Testu maila	Motibo galera	Motibo bereganaketa
Testuinguru maila	Testuinguru galera	Testuinguru bereganaketa

### II.3. Motibo Galera

Kontalariak oroimen kaxkarra duelako, entzulea gehiegizko arretaz adi egon ez delako, edota igorbidean beste edonolako uherduraren bat gertatu delako, mezu zati bat bidean galtzen da. BARANDIARANEK jasotako "Sorgin lapurraren ipuina" gertaera honen adierazgarri bikaina dugu. Hona istorioa laburbildurik<sup>1</sup>:

*Etxe bateko hiru anaiek gauero norbait sagastira sagarrak lapurtzera etortzen zaiela somatzen dute, eta ohoina atzemateko kusanetan geratzea erabakitzen dute. Anaia zaharrenak aurrena eta bigarrenak ondoren, ez dute ezer ikustea lortzen, gau osoa ezin baitute itzarririk eman. Hirugarren gauez, gaztearen txanda: Sagastia joan da igitaia eskutan, eta egunsenti aldera horra non azaltzen den irudi beltz bat harresiaren gainean. Gaztea oldartzen zaio eta eraso egiten dio igitaiaz. Argiarekin, hiru anaiek esku beltz bat eta odol arrastoa kausitzen dituzte. Arrastoa harri izugarri baten azpian amaitzen da. Hura mugituz leitze bat azaltzen da, eta hara sartzen da gaztea beste biak lur gainean utzirik. Soka batez baliatuz heldu da beheraino, eta neska gazte eder batekin egiten du topo, sorgin batek bahiturik bertan bizi den erregeren alabarekin alegia. Printzesa lurgaineratu ondoren bi anaia zaharrenek alde egiten dute harekin, gaztea leitze barranean utzirik. Honek, luze baino lehen sorginarekin topo eginen du eta borrokan gailen geratu ondoren, artean sorginari moztu dion mihia gordeaz, leitzetik irten eta salbatu duen printzesaren erresumara heltzen da. Bertan jakinen du printzesa eta bere salbatzailea omen dena ezkontzera doazela ...*

*"Gero ostatu batera sartu eta hango aposentu batean burdinazko mailu txiki batekin kax kax kax leihoa joaz zerbait egiten ari balitz bezala egun guztia pasatu omen zuen."*

*Hurrengo egunean ezkonaldiko jendeak ikusten ditu leihotik, eta hauen erdian bere anaia zaharrena printzesaarekin. Sorginaren mihiaren indarrez eraunsi bat sorrazten du eta ezteiak atzeratu egiten dira. Horren ondoren...*

*"Ostatuko mutil horrek egun guztia bere aposentuan mailuarekin kax kax kax joaz pasatu omen zuen."*

*Hurrengo egunean ezteiak berriz hondatzen ditu aurrekoan bezala. Eta berriz ere,...*

*"Ostatuko mutil horrek lehenagokotan bezala egun guztia leihoa ondoan mailuarekin kax kax kax eginez pasatu omen zuen."*

*Biharamunean, eta ezteiak hirugarren aldiz hondatu ondoren atxilotu egiten dute eta erregeren aurrera eramana. Bertan printzesak ezagutuko du eta ezkondu egiten dira.*

Ipuin harrigarriak, harrigarriak direnez gero, gure eguneroko logika ez den logika batek arautzen ditu. Gertakariak txundigarrienak ez du inolako oztoporik bertan onartua eta onetsia izateko, eta inor ez da harrutuko gure gazteak sorginaren mihia hozkatuaz eraunsiak sorrarazten dituela jakiterakoan. Noski, ipuin harrigarri bat baita. Halabaina, ipuin harrigarri batean ere ez logikoa eta ez pertinentea ez dena zera da, alferrikako elementuak egotea. Gure gaztearen iharduera horiek burdinazko mailu txikiarekin jo eta ke, "kax kax kax" egun santu guztian aritze horiek ez dute inongo funtziorik betetzen ipuin honetan: Ez dute ezer adierazten, ez dute ezer argitzen, ez daukate inolako ondorioak, hitz batez, alferrik daude dauden lekuan. Gertakari hori bakar bakarrik dago ipuinaren erdian inongo loturarik gabe, ez aurreko ez eta atzeko beste ezekin elementurekin. Eta gainera, arrunt ulertezina da. Zer adierazten du "kax kax kax" horrek?

Zuhurki jokatu esan dezakegun gauza bakarra zera da, argi dagoela testuaren zati bat galdu egin dela. Ez dakigu zer adierazten zuen, baina izan ere, bere galerak utzi duen hutsunea nabarmen azaltzen da. Mezuaren zati baten jauskerak aldaketa bat sorrarazi du kontakizunaren baitan, hau erabat herren utzirik loturabako gertakari alferrikako hori dela eta.

Halere, zorionez eta ipuin harrigarrietakoen adineko fortuna bolada bati esker ditxosozko "kax kax kax" horren benetako esanahi jatorra jakin ahal izanen dugu. Txirripaz irakurritako errusiar ipuin batean zegoen gakoa: Hona "Ivan Zakurrarena eta Basagizon zuria" deritzan ipuin horren laburpena<sup>2</sup>.

*Oraindik umerik ukan ez duen errege batek honako aholkua jasotzen du behartsu batengandik bere limosna eskertzeko, alegia, urrezko hegala dituen arraina harripatu eta bere emazteari eman diezaiola jateko. Esan eta egin, erreginak arrain harrigarria jaten du, baina ez da bakarra izanen: Sukaldariak eta sukaldeko zakurrak ere jaten berbera dastatu baitute halaber. Egun berean hiru ume, Ivan Erregerena, Ivan Sukaldariarena eta Ivan Zakurrarena jaiotzen dira. Biziki azkar hazi eta laster abiatzen dira hirurak elkarrekin abentura bila. Egun batez, Basagizon zuria topatzen dute haren larruolan, esteparen erdian eta hark Printzearena eta Sukaldariarena gainditzen ditu borrokan, baina Zakurrarenaren aurrean gaitzaile gertatzen da. Bizitzaren grazia eskatzen dio, eta Zakurrarenak barkatu bakarrik ez eta anaiatzat hartzen du. Beranduago, laurak leitze batera heltzen dira. Bertan, hiru herensugek bahituriko hiru printzesa daude. Zakurrarenak jaitsi, hiru herensugeak eho, eta printzesak askatzen ditu, bakoitzari eratzunak eskatuz ezaupide gi-*

1) J. M. BARANDIARAN. "Eusko Folklore" Obras Completas 2. alea, 62 orr. AT301.

2) AFANASIEV. "Contes russes" / 95. orria 28 zb.

sa. Irten aurretik bakoitzak egin behar duen hautua adierazten die: aurreneko printzesa Erregerenarentzat, bigarrena Sukaldariarenarentzat eta azkena berarentzat. Printzesak lurgaineraturik, Basagizon zuriak argi ikusten du berarentzako saririk ez dagoela, eta haserre, soka moztu eta Zakurrarena leitze barruan uzten du. Printzesak haien erresumara abiatzen dira ustezko salbatzaileekin. Zakurrarena leizetik irteteko modua aurkitu eta haien atzetik heltzen da erresumara. Bertan morroi gisa hartzen duten urraginaren etxean, hain zuzen ere biharamunean ezkontzen den printzesaren ezteietarako eratzun bat egiteko mandatua eman dioten urraginaren etxean. Zakurrarenak, eratzuna berak eginen duela esaten dio urraginari. Bere mailuarekin urrea jo eta jo dihardu, baina gero printzesak leitzean emandako eratzuna luzatzen dio urraginari. Biharamunean erauntsia sorraraziz ezteiak ospatzea eragozten du. Berdin beste bi printzesekin. Azkenean printzesek beren eratzunak ezagutu eta hauen bitartez beren salbatzailea ezagutuko dute. Zakurrarenak Basagizon zuria ehoko du eta hiru anaiak hiru printzesekin ezkonduko dira.

Errusiar ipuin honek, aurreko euskal ipuinarekin ukan dezakeen ahaidetasun lotura bakarra zera da, biak ipuin tipo AT301eko bertsioak direla, beste inongo lotura estuagorik gabe; halabaina, bertan aurkitzen dugu sorgin lapurraren ipuinean somatutako bitxikeria argi dezakeen motiboa, izan ere, ziur aski ipuin tipo honen eta inguruko ipuin tipoen bertsio gehiagotan ere kausitu ahal izanen dena. Urragin baten etxean morroi bezala sarturiko heroiaren motiboa, bere gezurrezko ihardun horrekin urrea mailuz jo eta jo, gero, printzesa askatu zuenean hark oparitutako eratzun jatorra emateko, Ataungo ipuinak ezagutu behar izan du noizbait, eta eratzunaren motiboa galdu ondoren, gaztearen ihardunaren argazki ulergaitz hori besterik ez du gorde: Burdinazko mailu txiki batez leiho ondoan egun osoz batek daki zer jo eta jo ari den gaztearen irudia.

#### II.4. Motibo baten bereganaketa

Motibo berri bat kontakizun batean sartzea, arrazoizko desberdinei zor dakieke: Testuinguru mailakoak izan daitezke beharbada, –moda dela eta kitto–, edota motiboak berak ukan ditzakeen zenbait baliotan, –polita edo adierazkortasun handiko izatea adibidez–, datzake. Dena dela, so egiogun nola gertatzen den bereganaketa hau xiberutar mendietako Tartalo (Polifemo) ipuin honetan<sup>3</sup>.

*Haur bat juan züzün egün batez oihaniaiat. Batü züzün Tartaro bat eta Tartaro harek eraman züzün bere etxerat. Tartaro harek egün oroz jaten züzün jente bat eta haur haren aldia ere ari züzün huilantzen. Gai batez Tartaroa einherik jin züzün eta lo jarri züzün suphazter khantian. Ordian haurrak zer ez dü egiten?*

Hartzen dizü gerren bat eta irazten diozü boronteko begi bakotxa. Gero Tartaroaren aharien artian gordatzen dizü. Bortha ez beitzian idekitzen ahal, ez zaküzün nula behar zian eskapatü. Hartzen dizü ahariarik handiena eta lahardekatzen dizü: Gero haren larriaz üngüratzen dizü eta txintxarria lepuan ezartzen dizü.

Biharamenian Tartaroa abiatzen dizü aharien kanpo igortera eta jarten dizü bortha saihexian haurra eskapa ez dakion. Haur hori egoiten dizü emeki emeki azkenetarik, bena Tartaroak hunkitzen zitüzün igaitian ahariarik oro. Haurra hunkitziareki, ezagützen dizü eta lotzen ziozü ilheti, bena larria ütirik haurra eskapatzen ziozü. Ordian Tartaroa lasterrez abiatzen ziozü ondoti, bena ez zitezün gida. Ürthikiten diozü erhaztun eder bat hura har dezan. Haurrak hartzen dizü eta ezarten erhi txinkarrian. Bena erhaztun harek oihu egiten züzün: "Ni hebe, ni hebe!" eta ordian Tartaroa lasterrez huna ziozüün haurrari eta hatzeman abantzu züzün. Nahi züzün erhaztuna ideki bena ez zirozün. Zer egiten du ordian? Erhia muzten dizü eta ürt-hekiten dizü bere erhaztunareki hur handi bat beitzen harat.

Erhaztuna ari beitzen aitzina oihuz: "Ni hebe, ni hebe!" Tartaroa hur hartarat jauzi züzün eta han itho.

Haur bat joan zen egun batez oihanera. Topatu zuen Tartaro bat eta Tartaro hark eraman zuen bere etxera. Tartaro hark egunero jaten zuen gizon emakumeren bat, eta haurraren aldia ere ari zen hurbiltzen. Gau batez Tartaroa nekaturik etorri zen, eta lotara jarri zen sutondo txokoan. Orduan haurrak zer ez du egiten? Hartzen du burduntzi bat eta iragazten dio kopetako begi bakarra. Gero Tartaroaren aharien artean gordetzen da. Atea ezin zuen ireki eta ez zekien nola alde egingo ote zuen. Hartzen du ahariarik handiena eta zintzurra mozten dio: Gero haren larruaz bildu eta txintxarria lepoan ipintzen du. Biharamunean Tartaroa abiatzen da ahariak kanporatzen, eta jartzen da ate saihetsean haurra eskapa ez dakion. Haur hori egoten da isil isilik azkenekoekin, baina Tartaroak ukitzen zituen igarotzerakoan ahari guztiak. Haurra ukitu eta bertan ezagutzen du eta iletatik heldu. Baina larrua ütirik haurra eskapatzen zaio. Orduan Tartaroa lasterka hasten zaio atzetik baina ez zitekeen gidatu. Jaurtitzen dio eratzun eder bat hura har dezan. Haurrak hartzen du eta ipintzen du behatz txikian. Baina eratzun hark oihu egiten zuen: "Ni hemen, ni hemenj", eta orduan Tartaroa lasterka bertan zetorkion haurrari, eta harrapa hurren zuen. Nahi zuen eratzuna ireki, baina ez zezakeen. Zer egiten du orduan?, behatza mozten du, eta ondoan zegoen ur handi batetara botatzen du eratzuna eta guzti.

Eratzunak aurrera segitzen zuen oihuz: "Ni hemen, ni hemen!", eta Tartaroa ur hartara jauzi zen eta bertan ito.

Eratzun hitzun hori etorri berria dugula begi bistan uzten du bere agerrera bortxatuak. Izan ere, gertakari hurrenkera borobil eta harmoniatsua, bat batean eteten da gertakari bitxi horretaz: Tartaroa, itsuturik dagoela, ezin zaio umeari jarraiki, baina hala ere zuzen jaurtitzen dio eratzun magikoa; eta umea berriz, izuak hartuta herioan bide doan arren, horra non gelditzen duen lasterra, –non-

3) M.CERQUAND. "Légendes et récits populaires du Pays Basque." Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau (BSS-LAP) delakoan argitaraturik 1881-82ko alean./ "Le Tartare et l'enfant", 505orr. 54 zb.

bait bere estuasunaz une batez ahazturik-, etsaiak jaurtitako eratzun madarikatua jaso eta behatzean ipintzeko. Kontraesan hauek alde batetik, eta pasadizoaren agerrera bortxatu eta traketsak bestetik, zera erakusten digute, alegia, pasadizo hau etorri berria dugula, ipuinari duela gutxi lotu zaiola eta beraz, honen egituraren borobilkiago integratzeko behar hainbat astirik ez duela oraindik ukan.

## II.5. Testuinguru Osakin baten Galera

Ipuina jatorriz sortu deneko testuinguruko osakin bat ez da gehiago ageri egungo testuinguruan, eta honek, mezuren zati bat gaizki ulertzea eramaten gaitu. Hauxe da, "Utsaleako zubiko laminak" deritzan kontakizunean gertatzen dena. Ikus ditzagun JEAN BARBIER-ek Senperen bildutako leienda honen zenbait pasarte<sup>4</sup>.

*Duela bizpahiru ehun urte, laminek ba omen zuten egoitza bat Senperen, Utsaleako zubiaren azpian. Bainan nahi bezenbat behaturikan ere, nehork ez omen zuten deus jakiten ahal barne hartako berririk. Behin batez halere, lamina hetarik bat hiltzera omen zoan. Haren lagunek bazakiten arras ongi orena etorria zuela, eta futxo!, ez zitekeen hil deus gisaz, gutarteko jende batek lamina ez zen batek, hura ikusi eta haren aitzinean, den otoitzik ttikiena erran gabe. Laminetarik bat joan zen beraz, -Gaazetxean baitzuten ezagun bat eta-, harenganat.*

*-Etorri behar duzu, otoi, gure etxeraino...! Gure lagunetarik bat arras gaizki da, eta ez du bere azken hatsa botako ahal, zuk ikusi eta otoitz ttiki bat harentzat erran dukezun arte. Sari ederra izanen duzu, berrogoi eta hamar liberako bat, eta gainerat oraino, ikusgarri zerbeit."*

*Gaazetxeko gure emaztekiak deliberatzen du beraz joatea, zernahi izanen bazen ere. Utsaleko zubiari buruz heldu zirelarik, laminak erraiten dio emaztekiari:*

*"Gure etxetik sarri ateratzearekin deus harramantzarik entzuten baduzu ez otoi gibelera beha! Zoazi beti aitzina zure bidean... Bertzenaz zure ikusgarria galduko duzu, zuhaur batere ohartu ere gabe."*

*-Onts da, ez dut segurki gibelera behatuko!"*

*Utsaleko zubiaren ondora heltzen dira beraz, eta heien etxean sartzeko behar baitzen urean iragan, laminak makila berezi batekin kaxk jotzen du ura, eta ura egiten da berehala bi zati. Biak gero iragan ondoan, laminak berriz kaxk emaiten dio makilarekin, eta ura, kuxean jin zen bere lekurat.*

*Gure emaztekoa sartzan da beraz etxe barnera, eta lamina hil-urrenaren aitzinean otoitz bat erranik abiatzen da kanporat. (...).*

*(Sariaren ematea eta guretzat garrantzirik ez duten zenbait pasadizo datoz ondoren).*

Kontakizunaren funtsa den motiboa, Gaazetxeko andrea hil hurren dagoen laminaren ondoan egotea eta haren alde otoitz egitea alegia, ez da haboro kontalariak ulertua eta beraz honek aitzakia bat asmatu beharrean ikusten du bere burua (laminak ezin dira hil kristau baten otoitzik ezean), bitxi samarra iruditzen zaion jokabide hori zuritzeko. Euskal mitologiaren balio ideologiak azter-

terakoan adierazi dugunez<sup>5</sup>, elkarrekiko laguntza ohiturak agindutako karitatezko jokabide onesgarria besterik ez da Gaazetxeko andreak egiten duena, hots, gaixotasun eta heriotza kasuetarako jainkozko eta gizazkoen hesparru baterakoia den auzoan legezkoa den ohiturak agintzen duena. Testuinguru gako honen hutsuneak, mezuren esanahi jatorraren jauskera dakar.

## II.6. Osakin berri baten Sarrera Testuinguruan

Datu berri bat sartzan da kontakizuna sortu zeneko testuinguruan. Bereganaketa honek zenbait mezuren interpretazio berria eragiten du. Honen adibide zehatza, Jentilbaratzako jentilak eta Agerreko baserritarren arteko hartu emanak ikusarazten dizkigun kontakizunean dugu<sup>6</sup>.

*Lehenago Jentilbaratzen jentilak bizi izaten omen ziren. Askotan gauez Agerrera jaitsi ohi omen ziren eta han jokoan aritzen omen ziren egunsentian oilarrak kurruruku jo artean.*

*Behin Agerreko nagusia gaizkitu egin omen zen eta elizakoak egitera omen zihotan. Hau jentilek jakin zutenean, kristauak ez izanagatik, urrezko sobrekama Agerrera jaitsi omen zuten, eta berarekin gaixoaren ohea elizakoak joaterako jantzi omen zuten.*

*Agerrekoek jentilen sobrekamaren gura izan nonbait ere eta hala iltzez oheari josi omen zioten, eta baita geroxeago oilarrari kurruruku joarazi ere. Jentilak oilar kantua aditu zutenean heldu beren sobrekamari eta berealdiko "errun" (ziztuan) abiatu omen ziren; baina sobrekama puska bat ohearen ertzari josita geratu omen ziztzaian. Orduan jentilek deiadar egin omen zuten, Agerre Agerre zen bitartean ez zela etxe hartan eririk edo makirik faltako. Eta harrez gero eria edo makia beti izan omen da Agerren.*

Atal honen hasieran esan dugunez, ia ezinezkoa da gainontzeko hiru motatako batekin gutxienez loturik ez dagoen aldaketa mota bat aurkitzea. Halere, horixe da kontakizun honek erakusten diguna, alegia, soil soilik datu baten sarrera testuinguruan ezein osakin zahararren jauskerarik gabe, eta testu mailako aldaketarik gabe halaber. Datu berria, jentilen kokapena dugu, alegia, gauez bizi eta eguzkiari ihes egiten dioten izaki harrigarri beldurgarrien multzoan sartzea, halakoekin parekatzea.

Bere bidean topatzen dituen erlijioak gaitzestearren haien ordezkariak deaburatu ohi dituen kristaugoak bere eragina erakusten digu hemen, jentilak gaueko izakien multzoan sarraraziz.

Begi bistako ezkortasunezko datu hau txertatzeak, mezuren esanguraren gardentasuna uhertzen du, eta baita ere eskuarki erabat aldarazi denboraren poderioz. Oroit gaitezen une batez lamientzako eta Basajaunarentzako garai bateko opariez, gero lapurretak bailiran interpretatuak, jainkozko hauek izaki izugarri bilakatu direnean<sup>7</sup>.

5) JUAN INAZIO HARTSUAGA. "Euskal Mitologia Konparatua".

6) JMB. Aip id. 24.orr.

7) JUAN INAZIO HARTSUAGA. "Euskal Mitologia Konparatua".

4) JEAN BARBIER. "Gure Herria" 1975.

Halabaina, Jentilbaratzako ipuin honetan bere lehen hazia somatzen badugu ere, jentilen deaburratze prozesua ezin izan da burutu: Oraindik ere jentilak dira bertan ohiturazko ortodoxiaren aldarrikatzaile jatorrak, eta jende kristau zikoitz esker txarreko batzuen biktima gisa erakusten zaizkigu. Testuinguruak bereganatu duen datu ezkor berri horrek ez du oraindik zentzu aldaketa sakonik eragin, baina dena den, hortxe dago txertaturik.

## II.7. Igorbideak

IGORBIDEAK	
EHEEH .....E	E: Kontalari errepikatzailea
EEHHH.....H	H: Kontalari hobetzailea
HEE .....E	

Honaino azaldutako aldaketa motak, kontakizunen igorbideetan zehar gertatzen dira noski. Igorbideak deritzen azpi-atal honek beraz, ez du asmo bezala kontakizunen igor bideetan gertatzen diren fenomeno guztien berri ematea, zeren horrela balitz orain arte aztertutako aldaketa mota guztiak bere baitan hartu beharko bailituzke. Azpi-atal honetan, kontakizunen igortze prozesuaren tarte zehatz baten ikerketari lotuko gataizkio, hain zuzen ere, aldaketa baten ondorioz kontakizun batek jatorrizko oreka galtzen duen unetik, fijatua edo errejistratua izan arte iragaten den tartearen ikerketari. Gure abiapuntua, kontakizun bat herren geratzen deneko une teorikoa da, eta hortik aurrera zer egingen ote duen galdetzen diogu geure buruari.

Adierazi berri ditugun aldaketa mota baten edo batzuen eraginez desorekatua geratu den kontakizunak, aurrera egingen du bi kontalari motaz osatzen diren igorbideetan zehar, alegia, kontalari errepikatzailea, kontakizuna entzun bezala ia hitzez hitz errepikatzen duena, eta kontalari hobetzailea, kontakizunaren baitan somatzen dituen herrenkeriak leuntzen eta borobiltzen saiatzen dena. Aurrenekoak jarrera arrunt oharkabeaz dihardu, eta ez dauka inongo erreparurik batera zentzurik gabeko mezuak igorri eta kontraesanik ikusgarrienak ere bere horretan errepikatzen. Bigarrenak aldiz, esaten ari dena aztertu egiten du eta trakeskeriarik somatzen baldin badi, kontakizunaren egitura hobetzeari ekinen dio, kontraesanak irtenbideratuz, hutsuneak betetz eta alferrikako osakinak suntsituz, kontakizunak, egitura, esangura eta itxura borobil ulergarri eta harmoniatsuak ukan ditzan.

Kontakizun bat dabilen igorbideko bi kontalari mota hauen arteko proportzioak erabakiko du kontakizun horren azken egoera, errejistratua izaterakoan erakutsiko duen itxura alegia: Zenbat eta gehiago izan kontalari errepikatzaileak, orduan eta ageriago azalduko dira jasaniko aldaketen aztarnak (kontraesanak, hutsune semantikoak eta adierazirik gabeko adierazleak batik bat).

Alderantziz, zenbat eta ugariago izan kontalari hobetzaileak, orduan eta nekezago kausitu ahal izanen dugu horietako aztarnaren bat: Kontakizuna orekatua eta boro-

bila azalduko zaigu, bere adierazmami berrian ez dugu arraildura edo pitzadurarik somatu ahal izango.

Kontalari errepikatzailea eta kontalari hobetzailea ez dira halere errealitatean aurki daitezkeen bi kontalari mota fisiko edo pertsonalak, baizik eta bi kontalari mota teoriko edo funtzionalak. Benetako kontalari errealean soma daitezkeen bi joerak irudiratzen dituzte, baina eredu mailakoak dira halere, eta ez ditugu errealitateko kontalari fisikoekin nahasi behar. Benetako kontalari errealean bat, eredu errepikatzailetik hurbil ibil daiteke, eta besteren bat berriz, eredu hobetzaileari lot dakioko. Halabaina era berean zera gerta daiteke, –eta izan ere gertatzen da–, kontalari fisiko errealean bera eredu errepikatzailearen arabera aritzea zenbaitetan, eta beste zenbaitetan aldiz eredu hobetzaileari jarraikiz jotzea, bi ereduon arteko hautapena, komunikazioan parte hartzen duten zenbait zirkunstantziak agindurik etorki, hala nola, kontakizun mota, entzulego mota, istorioa kontatzen duenak duen helburua, istorioaren kontalariarenganako helbidea, eta kontalariaren istorioarekiko jarrera asmoa eta erabilera, alegia, kontalariak bere istorioarekiko duen jarrera zein ote den, begirunez fidelki errepikatzea hala irudimen biaz eta graziaz apaintzea entretenigarri atsegina izan da. Baserritar euskaldunak ez du honako bi kasutan ber gisan jotzen, alegia, bere umeari bere zaharrendantik ikasitako leienda bat kontatzerakoan, –leku jakin eta ezagun batean gertaturikoa, etxeko arbasoak aipatzen dituelarik eta etxeko ondare mitologiakoaren zati bat dena–, edota egunaren hondarrean lagun artean bildurik horren antzeko beste bilera batean entzundako istorio harrigarria,–garai eta leku zehaztu ezinetan gertaturiko istorio harrigarria–, kontatzen duenean bere adiskideak dibertitzeko.

Aurreneko kasuan kontakizun hori berak entzun bezala ahalik eta berdinen errepikatzen saiatuko da, eta bigarrenean ordea fideltasuna bigarren mailako kontu bilakatzen da, kontalariaren abilezia eta entzulegoa liluratzen gogo nagusi direlarik.

Bi kontalari mota teoriko hauen presentziak berehala dakarkigun auzia zera da, alegia, bakoitzak duen garrantzia erlatiboa finkatzea. Hots, zein da horien arteko proportzioa igorbidean zehar? Zein dira gehienak, errepikatzaileak ala hobetzaileak?

Egin berria dugun hausnarketak erantzun bide has-tapen bat erakusten digu nolabait, alegia, esan nahi baita ez dagoela osaketa bakar bat kasu guztietarako, baizik eta, kontakizun motari eta komunikazioaren inguru eta asmoari dagokien faktore multzo batek igorbidearen osaketaren proportzio ezberdina finkatzen duela kasu bakoitzean. Baieztapen honetan oinarrituz, honako hausnarketa egin genezake, hots, erdi aroko Bagdad-eko kontu kontalari profesionalen ingurugiroko igorbideetan eredu hobetzailea zela nagusi eta alderantziz, euskal leienda mitologikoen igortze prozesuan zehar eredu errepikatzaileak osatu duela gehiengo.

Dena dela, erabateko erantzuna, "a posteriori" bota daiteke bakarrik. Esate baterako, Agerrera joan ohi ziren jentilen istorioari buruz, kontalari errepikatzaileen ahotan



ibili dela nagusiki esan daiteke, zeren eta Jentilaroko ikuspuntua gorde baitu gizarte kristautu baten baitan zenbait mendetan zehar, lehenago erakutsi dugun kontraesan larria egoskor gordeaz batere estutu gabe, alegia, jentilak alde batetik sorginak eta mamu gaiztoen antzera eguzkiari ihes egiten dioten gaueko izakiak izan, eta aldi berean, lagunbera, eskuzabal eta bihotz onekoak izateak plazaratzen duen kontraesana.


Halaber, hesparu geografiko zabal batean zehar han eta hemen bildutako kontakizun baten bertsioek elkarren antza handia agertzen badute, guztien igorbideetan errepikatzaileak nagusitu direla esan ahal izanen dugu. Kasu orotan beraz, "a posteriori" eman behar izaten dugu erantzuna.

## II.8. Kontakizunaren egungo egoera

Gure koadroaren hirugarren atala, ikertzaileak bere aurrean aztergai topatzen duen materiala da: Kontakizuna, erregistratua izan den unean agertzen duen itxuraz. Itxuraren arabera, hiru atal nagusitan bana ditzakegu kontakizunak: Jatorrizko orekari eusten diotenak, aldaketa bat edo zenbait jasan ondoren desorekatuak geratu direnak, eta azkenik, desorekatuak geratu ondoren oreka berri batera heldu direnak.

Kontakizun bat, gaur egun erakusten duen itxuraz, jatorrizko orekan dagoela susmatzea, alegia, asmatua izan zenetik erregistratua izan den arte forma eta esangura berberak gorde dituela uste izatea, hipotesi benetan arriskutsua da, izan ere. Euskal Herrian badugu, ziur aski nahiko modernoa den leienda ziklo bat (XVII-XVIII mendeetako), hain zuzen ere, baseliza zahar eta kaleko eliza berrien inguruan baserritar eta kaletarren arteko auzi eta istiluekin zer ikusirik baduen leienda zikloa.

Gizartearen kaletartze prozesuari jarraiki datorren erlijioaren kaletartze bidea gaitzesten da leienda hauetan, honako mezu hauekin: Amabirjinak edo aingeruren baten kalean eraiki asmo den eliza berria altxatzeko egunez bildu diren materialak, gauez lehengo ermita zaharra zegoen lekura itzultzen ditu, auzi honetan Zeruaeren



$K^{JO}$ : Jatorrizko orekari deuskion kontakizuna

$K^D$ : Kontakizun desorekatua

$K^B$ : Kontakizun berrorakatua

nahia zein den argi eta garbi erakutsiz: Elizak, lehenagotik egon diren leku beretan gordetzea. Ziklo honetako bertsioen larugaritasunak bere modernotasunaren hipotesia iradokitzen digu, eta beraz, kasu honetan, jatorrizko orekaren hipotesia onargarri izan liteke. Dena dela, eta honela ez balitz ere, gure koadroan gordeko genuke beti ere hipotesi hau, posibilitate teoriko modura.

Ikertzaileak beste zera ere aurki dezake, alegia, kontraesan edo hutsune nabaririk gabeko kontakizun borobila, baina borobiltasun hori aldaketaren batek eragindako trakeskeriak konpondu eta txukundu ondoren sortzen den oreka berriaren emaitza delarik. Hori ez da jatorrizko orekari eutsi dion kontakizuna, eraldaturiko eta berrorakatutako kontakizuna baizik. Honelakoan aurrean ikertzaileak egituren eta esanguren borobiltasuna eta oreka konstatatu besterik ezin du egin, kontakizunak ez baitio bere ibilbidean jasandako istripu, matxura eta ondorengo konponketei buruz inolako jakinbiderik eskaintzen.

Euskal mitologiaren eduki ideologikoaren azterketan<sup>8</sup> azaldutako zenbait lamina istorio kontakizun berrorakatuen eredu borobilak ditugu. Bertan ikusten ditugun izaki gauezkari gaiztook etxeetan sartu eta etxeoandreak izutuz gauero bapo afalduz bizi direnok, kontraesan arrastorik gabeko istorio zuzen eta poliki egituratuetao protagonistak dira. Izan ere, honelako bertsioak izan balira gure aztergai bakarrak, laminen irudi gaizto hori izanen genuke konklusio gisa, bertan ez baita inongo pitzadura edo orbain semantikorik kausitzen ahal. Baina zorionez, eta batik bat hauek baino "traketsagoa" zen bertsio bati esker, laminen benetako nortasuna asmatzeko bidea aurkitu dugu, eta baita azkenean asmatu ere, hauen benetako nortasunak sasi-sena gaizto horrekin zer ikusirik ez zuela.

Azkenik bere baitan desoreka aztarna argi edo ilunagoak erakusten dituen kontakizunak topa ditzake ikertzaileak. Eraldaketa jasan ondoren kontalari errepikatzaileak nagusi ziren bidean ibili dela eta, okerrak disimulatzeko eta matxurak leuntzeko behar hainbat astirik ukan ez duten kontakizunak izanen lirateke hauek, eraldaketen ondorioak bistan ageri dituztenak.

Lau aldaketa mota definitu ditugu lehenago, eta hauetako bakoitzak igergarri berezia uzten duenez gero, lau izanen dira halaber desoreka erakusgarriak: Mamirik eta funtziorik gabeko osakinen presentzia, egituraren gaizki ematen duten osakinena, arrazionalizaketak, eta kontraesan semantikoak.

Kontakizun baten barnean adierazmami eta funtziorik gabeko osakin bat egoteak, alegia, ezer argitzen ez duen, ezeri lotzen ez zaion eta hitz batez, alferrikakoa den osakin bat egoteak, zera adierazten digu, hain zuzen ere, osakin horri bere zentzua ematen bide zion zatia jausi egin dela. Noski alferrikako elementuek, alferrikakoak direnez gero, beraiek ere suntsitzeko probabilitate handi samarra dute, eta hori gertatzen ez bada, eta kontakizunaren baitan badirau, oharkabeki eta fideltasun osoz diharduen kontalari errepikatzaile hurrenkera bati esker izanen da. Hauxe da hain zuzen, "Sorgin Lapurra-

8) Id.

ren" ipuinarekin agitu dena, sasi-eratzungintzaren moti-boa jauzi ondoren, heroiaren iharduera "kax kax kax" eginez bere mailu txikiarekin alferrikakoa eta ulertezina bilakatu dela.

Kontakizunaren egituraren barnean gaizki ematen duten osakinak egoteak, osakin horien etorriberritasuna salatzen du, irentsi berriak eta erabat liseritu gabeak dirrela erakutsiz. Itsuturik dagoela eta, umeari jarraiki ezin dabilen Tartaroa hari eratzun hitzuna zuzen jaurtikizten ikusten dugunean, eta umea lasterrari une batez utzi eta estuasunaz ahazturik eratzuna jasotzen ikusten dugunean, ezin dugu eskenaren trakeskeria ez somatu, eta hau honen begi bistakoa izaki, ez dugu haratagoko komentarioren beharrik.

Atal honetan azaltzea luzeegia ez balitz, benetan interesgarria litzateke eratzun hitzun honen motiboaren kokapenaren bilakaerari jarraitzea, xiberutar bertasio honetatik abiaturik, gipuzkoar bertasio batean bere kokaleku borobila aurkitu artean, mugaz bi aldeetan bilduriko dozena erdi bat kontakizunetan somatzen diren liseriketara ahaleginak aztertuz.

Arrazionalizaketa, bere horretan batere ulergarri ez den motibo bati nolabaiteko zentzua ematearren kontalariak burutzen duen eragiketa da. Gertakizun hau, mezuaren zati bat galdu deneko kasuetan eman daiteke, baina eskuarki, testuinguruko zati bat jausten denean sortzen den erantzuna izan ohi da, hain zuzen ere, orain ilun eta ulergaitz bilakatu den zati horren zentzua argitzen zuen testuinguruko datuaren jauskera konpontzen saiatzen den erantzuna. Arrazionalizaketa, garai batean testuinguru gako batek betetzen zuen funtzio argiemailea betetzera datorren mintzabidea da. Sistematikoki herrenka dabilen kontakizunari oreka eta zentzua ematera datorren mintzabidea da, baina beti fideltasunarekiko arreta eta begirune bereziz. Alegia, errekurtsio hau erabiltzen duenak zera erakusten du, nahiago duela, nekez ulertzen duen baina halere horrelaxe heldu zaion motibo batentzat esplikazio bat bilatu, –nahiz eta esplikaziorik barreagarria izan–, kontakizunearan hobe emango lukeen motibo ulergarriago baina berri eta eratorri batez ordezkatzeari baino, kontakizunaren benetakotasun eta jatortasunaz arduratzen baita.

Arrazionalizaketan kausitzea nekerik gabeko lana izan ohi da, zeren eta kontakizunaren erdian arras nabarmentzen den mintzabide berezi eta bitxia baita. Zenbaitetan honako esamoldeetaz baliatzen dira kontakizunearan sartzeko: "Badirudi,...", "hau honela bada...", e.a.; baina sarrerazko esamolde hauek huts egiten dutelarik argudioa zalanzkunerik gabe irmo botatzen denean ere, bere argudiotasuna, bere esplikaziotasuna, argi eta garbi nabarmen azaltzen dira kontakizunaren benetako osakin jatorren gainetik, esan bezala, beste mintzabide mota arrunt ezberdina delako.

Senperekoko Utsalea zubiko laminen istorioaren irakurketak, berez nahiko somagarri den arrazionalizaketa eredu erakusten digu, eta are eta nabarmenagoa azaltzen da, arrazionalizaketak argitu nahi duen aspektuaren esanahia beste bideetatik jada ezaguna dugulako. Gaa-

zetxeko andrea hil hurren dagoen laminaren ondoan ikusten dugu, haren alde otoi ez eginez ari delarik, eta kontalariak irudi hau zurtzeko beharra sentitzen du. Horretarako asmatzen duen argibidea, –arrazionalizaketan maiz gertatzen denez izan ere–, arrunt bitxi eta harri-garria dugu: Laminek kristau baten otoiaren beharra bide dute azken hatsa eman ahal izateko. Asmakeria hau noski ez da inoiz beste inon agertzen Euskal Mitologian zehar.

Azkenik, kontakizunek erakutsi dezaketen laugarren desoreka igergarri mota, haien baitan nabaritzen diren kontraesanek osatzen dute. Kontraesan hauek, hurrenkera narratiboan zehar berehala eta zuzenean nabarmentzen direnetakoak izan daitezke, edota baita ere, kontakizunaren testuinguruaren laguntzaz bakarrik idoro daitezkeenetakoak.

Kontraesana, kontakizunaren borobiltasun semantikoa berrosatzearen diharduen liseriketa lanaren edozein momentutan sor daiteke. Halere eskuarki, kontraesana, bereganaketaren baten ondorio izan ohi da. Izan ere, osakin baten galera gertatu denean, edozein mailatan, ondorengo igorbideko kontalarien eginbeharra hutsune bat betetzea izanen da, eta ez da logikoa baldintza horiek kontutan harturik, bide horretatik kontraesanik sortzea.

Aldiz, aldaketa bereganaketa izan denean, bi osakinak, jatorra eta etorri berria, ahalik eta gozoen harmonizatu beharra dago, harik eta bietako bat, –zaharrena normalean–, suntsituko den arte; eta egoera honek noski kontraesanak agerrarazten ditu. Zehazkiago esanik, bereganaketak testuinguru mailan gertatzen direnean, orduan hain zuzen ugalduko dira batik bat kontraesanak sortzeko probabilitateak, zeren eta kasu horretan, kontakizunak bi bide, bi gako ukanen baititu mezu zati bat ulertarazteko, hauetako bakoitzaren arabera esanahia arras aldaturik gertatuz. Bi testuinguru-gakoen arteko tentsioak bietako bat suntsitu arte iraunen du. Aurrerantzean, gailen geratu den gakoaren arabera interpretatuko da argiro eta zalantza izpirik gabe zati konfliktibo hori, baina horraino, aipatu tentsioak, ikerlariarentzat somagarri diren bitxikeria kontraesankorrek sorraraziko ditu.

Kontakizun baten barne kontraesanok ageri edo lantutako soma daitezke, kasuak kasu. Halere, eta sailkapen teoriko trinkoa eraikitzeko asmokeriarik gabe, guk honako bi kontraesan mota berezi ditugu, hots, alde batetik, kontaturiko gertakarien hurrenkera argi eta garbi begi bistan agertzen direnak, eta bestetik, testuinguruko informazioen laguntzaz bakarrik idoro daitezkeenak.

Aurreneko motaren eredu borobila, Euskal Mitologia Konparatuan erakutsi eta aztertzen den Behorlegiko elezahar batean aurkitzen dugu, lamina itsuarenean hain zuzen. Liseriketa bidearen erdian egotea zer den hain poliiki erakusten digun istorio honetan zera ikusten dugu, alegia, lamina batek bere laguntza eskaini diola andre bati, honen lan zama arinduz, eta honek esker onez jan opari batzuk eman dizkiola ordainetan. Halabaina bat batean, –eta aldaketa ezerk ulertarazi ezin duelarik–, etxeko andreak arras aldatuko du bere lehenagoko jarrera; la-

minaren laguntzaz fisik ere aipatu gabe zera esango dio senarrari, aspertuta dagoela beti laminari eman eta eman aritu behar horrekin, eta honelako eskale temosoak jipoia ongi merezia lukeela, eta senarrak gau horretan bertan burutuko du emazteak eskaturikoa. Elkarren kontrakoak diren laminarekiko bi jarrera hauek elkarrekin eta elkarren hurrean egoteak, bi testuinguru-gako kontraesankorren presentzia somarazten digute: Gako zaharren arabera, laminak izaki adiskidetsu eta langileak ditugu, beti gizazkoei haien lanetan laguntzeko prest jan-ordain apal baten trukean; gako berriari jarraiki aldiz, laminak, gauez etxeetan sartu eta andreen beldurra eraginez gizazkoen kontura elikatuz bizi diren izaki gaizto eta malzurak dira.

Azkenik eta amaitzeko, bigarren kontraesan motako eredia Jentilbaratzako jentilen eta Agerretarren hartu

emanak kontatzen dizkigun leienda dugu, alegia, testuinguruak osakin berri bat bereganatzea zer den erakusteko erabili dugun eredu bera. Kontakizun honen testuingurua ezagutzen ez duen norbaitek ez luke agian zeran bateraezintasunik somatuko, alegia, jentilak auzoen laguntzaile prestuenak eta eskuzabalenak izan, eta aldi berean, oilarraren eta eguzkiaren beldur diren izaki gauezkari izatean. Oraingo honetan testuinguruaren ezaguerak bakarrik irakatsi diezaguke gauezkaritasuna eta eguzkiaren beldurra, jentilak mamutzar gaizto anitzen maila berean kokatzen dituzten ezaugarri ezkorrek direla, eta beraz kontraesanaren hazia ereinda dagoela, fruitua oraindik ikusgarria ez den arren, eta hazi horretatik abiatzen dela eraldabidea, aurrena kontraesanen nabarmenagozera, eta gero, –gako zaharren jauskeraz–, gako berriaren araberrako esanahi berri eta ez-jatorraren onespena daraman eraldabidea.

### III. JENTILEN AKABERA: KONTAKIZUNAREN AZTERKETA

Ikergaitzat hartu dugu kontakizun honek hamabi bertsio ditu Euskal Herrian zehar barreiaturik. Hauetatik hamaika bildu dituen BARANDIARAN maisuak proposaturiko izenburua onartu eta erabiltzen dugu ikerlan honetan: "Jentilen akabera." Hain zuzen ere, leienda honek, gizazkoen aurretik bizi izan omen ziren erraldoi hauen sunsiera nola gertatu zen adierazten digu.

Jentilen ezaugarriak eta euskal mitologian duten funtzioa hitz bitan gogoratuz esan dezagun haien funtzio nagusia gizazkoei jokabide ereduak eskaintzea dela, gizabanakoaren nortasunerako ereduak, eta gizarte harremanetarako ereduak halaber: Aurrenekoari dagokionez, langile itzelak ziren jentilak, eta bigarrenari bagagozkio, auzoekiko jarrera emankor eta lagunbera erakutsiaz azaltzen zitzaizkigun beti. Halere, definizio funtzioari honen ondoan, grafikoago litekeen beste definizioa emanen dugu irakurle ez euskaldunen laguntzarako: Jentilak "erraldoiak" dira, germaniarren "hühnen" edo "riesen"-en eta eskandinabiarren "jöturn"-en kidekoak, alegia, zenbait mendi, ibai, harpe eta haitzen formak eta egoerak esplikatzeko herriak aipatu ohi dituen indar itzeleko erraldoiak.

Gure leiendako pertsonaiak honela definitu eta kokatu ondoren, ez gaitezen berantu ikergaitzat dugun kontakizuna azaltzerakoan. Hona jentilak Ataungo Leizadi mendian kokatzen dituen aurreneko bertsioa, noski Ataunen bildua<sup>9</sup>:

*Jentilak Leizadiko koba batean bizi zirela, sekulako izar eder bat hodeietan agertu omen zen. Halako izarra ikusi zutenean, jentil horiek erabat ikaratuta munduan zer gertatu behar ote zuen ezin asmatu omen zebiltzan. Halako batean, koba barruan erdi itsututa zegoen jentil zahar bat ataka aurrera atera eta zabaldu endaeikin*

*betazalak eta hodeietara begira jarri omen zuten, hark izar hari zer zen antzemango ziola eta.*

*Baita ikusi orduko deiadar egin omen zuen zera: "Ah nire umeak: Kixmia jaioko dek, galduak gaituk oraintxe. Bota nazazue ni hemendik gainbehera!"*

*Jentilek Jesukristori "Kixmia" deitzen omen zioten, Kixmik berriz tximinoa esan nahi omen du. Berak esan bezala, mailoan behera bota omen zuten amilka, eta hala hil omen zen jentil zaharra. Gero kristiandadea munduan zabaltzen hasi zenean, jentil denak sakabanatu eta berehala galdu omen ziren.*

Leienda honetan kontatzen zaigunez beraz, izar harrigarri batek eman zien jentilei Jesukristoren jaiotzaren berri, eta une beretik hasi ziren jentilak apurka-apurka suntsitzen kristautasuna nagusitzen zen heinean. Ortzian agertutako izar harrigarria, –Errege magoak Belengo estalperaino gidatu zituen izar bera apika–, jakintsu interpretatu zuen jentil zaharrak Kristo eta kristautasunaren etorreratzat eta ondoriozko jentil aroaren suntsipenaren igergarritzat. Jentil zahar horrek, bere arrazaren akaberen lekukoa izateko ideia ezin jasanik edo, bere burua galtzen lagun diezaioten eskatzen die beste jentilei, eta hauek berehala eginen diote mesedea. Azkenik, jentil herriaren sakabanaketa eta jentilen apurkako baina baita ere erabateko akabera adierazten zaizkigu. BARANDIARANek berak ere antzeko konklusioak tiratzen ditu kontakizunaren mezuari buruz honako hau dioenean<sup>10</sup>:

*Kontakizunaren esanahi historikoa argi azaltzen da, zeren eta bera dena, bi gertakari historiko oroitaraztera zuzentzen baita: Jesukristo G. J.aren etorrera eta jentil-tasunaren deuseztatzea.*

9) JMB. Aip id. 24.orr.

10) JMB. Aip id. 31.orr.

Halabaina, komentario hauek guztiak, aurren hurbilketa baten ondorio dira, kontakizunaren aurren irakurketa batetik tira daitekeen berehalako axalezko inpresio baten emaitza.

Izan ere, arreta gehixeagoz eta begia eta gogoia zorroztuz ostera bigarren aldiz behatzen badugu, gutxienez bi irregulakeria azalduko zaizkigu begien bistan berehala: Bata, testuaren puntu zehatz bati dagokio, eta bestea berriz kontakizunaren adierazmami orokorrari.

Astiro eta zuhurki begiratu beharra dagoen testuaren puntu zail hori, jentil zaharren betazalen jasoera ikusarazten digun pasarte da. Igergarri harrigarria ikusi ahal izateko endaiak erabiliaz burutzen den eragiketa bitxi hau ulertarazteko, testuak jentil zaharren adina eta itsutasuna plazaratzen dizkigu aitzakia gisa. Irudia bitxia eta harrigarria da, bistan dagoenez, eta testuak proposatzen digun adierazpenari arrazionalizaketa usaina dario zirrikitu guztietatik. Bistan dago itsutasuna ez dela norbere betazalak ezin jaso izatea, eta izan ere, beste jentilen laguntzaz betazalak gora eramane orduko jentil zaharrak poliki ikusten du izar harrigarria. Beraz, ez da itsua, eta itsutasunaren aitzakia, ziurrenik ere, arrazionalizaketa izateko anitz probabilitate ditu. Guk orain horren bitxi deritzogun betazalen jasoaldiaren motibo horri garai batean bere benetako esanahia ematen zion testuinguru gakoa jausi, eta horren hutsunea betetzera heldu den sasi azalpena izan behar litzateke itsutasunaren aitzakia hori.

Bigarren auzia, kontakizunaren adierazmamiak sorrarazten du. Honek, lehenago esan dugun bezala, Kristoren jaiotza iragartzen zuen izar harrigarri baten agerkundea, jentilen akaberaren abiapuntu izan zela adierazten digu. Kristautasunaren saihestetik begiraturik, argi dago jentilen konbertsioa kontatuko lukeen istorio bat aurkitzea espero behar zela, eta ez hemen kausitu duguna, alegia, Jesukristoren jaiotza nahiko jator eta bihotz oneko diruditen jentil hauen heriotzaren sorburua dela adierazten digun kontakizun bat. Europar paganoen ebanjelizaketaren mintzabide ideologikoa argi eta garbi azaltzen zaigu puntu honi dagokionez: Paganoek indarra eta salbaiakeria dituzte armak, eta kristauek aldiz, otzanttasuna, errukiortasuna, karitatea, martirigorako joera nabarmena eta mirariak egiteko indar erlijiosoa erakusten dituzte baliabide nagusizat. Bertute koktel eraginkor honek garaipena lortzen du beti azken buruan, barbaroen bihotz gogorra lehuntzeko lehia horretan, eta hauek, egiazko federako konbertsioa burutu ondoren, beren aurreko salbaiakeriaren azpitik zeramatzen zuzentasuna eta noblezia erakutsiko dizkigute. Ezaugarri orokor guztiok huts egiten dute guk darabilgun testuan: Konbertsioaren aukera aipatu ere ez da egiten, baina areago eta larriago, Jesukristoren jaiotzaren igergarria heriotza eragilea eta deuseztapen bidea bilakatzen da gure begien aurrean. Izar iragarleak jentilen galbidea (heriotza) ekartzen du, eta testuaren adierazkeraren arabera, badirudi patu ekidin ezina dela heriotza hori. Kontakizunak erabat ezkutatu ezin duen heriotza mezu hori arras bateragaitza da, eta areago, erabat kontraesanean dago kontakizun berak iragartzen omen duen kristau erlijioaren funtsa, mami eta mintzabide ideologikoekin. Honek guztiak, az-

piramarraturiko bi auziguneez alegia, kontakizunaren egungo esanahia jatorrizko adierazmamiaren bestelakoa izan daitekeela hausnartzera eramaten gaitu. Hurrengo urratsa beraz, zalanzpide hau urratzea izanen dugu, horretarako, gainontzeko bertsioren azterketaz baliatuko garelarik. Hona hemen Oihartzunetik heldu zaigun bat<sup>11</sup>:

*Mairuak<sup>12</sup>, zuloetan bizitzen omen ziren. Orduan lainorik ez zen ikusiko noski, eta behin batean, laino polit bat agertu omen zen zeruan, eta denak harrirtuta geratu omen ziren.*

*Aitona zahar-zahar bat ba omen zuten, aspaldian itsu zegoena, eta lainoak zer esan nahi zuen haretzek jakinen zuela eta, zulo txoko batean zegoen hartatik hartu, eta atarira argitara atera omen zuten. Itsua nola baitzen, basora joan eta pago urkuluak egin, eta pago urkuluak begiak ireki omen zizkioten.*

*Aitona zaharrak lainoa ikusi eta "Gazteak!, -esan omen zuen-, gazteak, gure denbora joan duk: Jesus mundura jaio duk eta gu galduak gaituk".*

*Hori esan, eta denak kuzkur-kuzkur zuloan sartu eta akabo!, ez omen ziren gehiago sekula atera.*

*Horregatik esaten zigen askotan aitonak zerbaitetan trabatu eta erortzen ginenean: "Mairuari bezala pago urkuluak begiak zabaldu beharko ote dizkizuegu?"*

Bertsio honek, Jesukristoren jaiotzaren iragarpene eta jentilen akaberaren arteko lotura, aurreko bertsioren ikusitakoa baino estuago eta hurrenago erakusten digu. Leizadiko bertsioren zera esaten zitzagun, hots, agerkundearen ondorioz, jentilak suntsibidean jarri zirela, eta suntsitze hori, apurka eta astiro gertatu bailitzan adierazten zaigu. Oihartzuneko bertsioren honetan aldiz, jentilen akabera (mairuena alegia), -ostera sekula ez iriteteke sartzen direneko irudiak sinbolizaturik-, jentil zahar itsuak jakinarazi duen igarpenaren ondorio zuzena eta berehalakoa da. Igarlearen amilketaren motiboa bertan ez azaltzeak, Leizadiko bertsiok baino itxura gozoagoa eta leunagoa agertzea ahalbideratzen dio Oihartzuneko honi, baina halere, jentil guztiak bizirik lurperatzen direla, ezkuta ezinezko gertakizun ageria dugu.

Kontakizun honek, izan ere aurrekoak bezala, Jesukristoren jaiotza eta jentilen hondamenaren arteko lotura zuzen eta hurrena azpimarratzen du, gertakari hurrenkerari saihestezina bailitzan, "eragile-eragina" motako lotura bailitzan, Jesukristok berak ekidin ezin bide zukeen lotura.

Bitxi samarra da jentilen hondamena Jesukristoren jaiotzari lotzea zuzenean, Euskal Herriaren ebanjelizaketari lotu beharrean. Azken lotura hau izan behar litzateke logikoena eta izan ere, bera da izaki mitologikoen hondamena azaltzeko herriak ematen dituen erantzunetan azaltzen dena, jentilak, lamiak eta halakoak baselizetako kanpai hotsen indarrez, ur bedeinkatuaren indarrez, edo-

11) JMB. Aip. id. 31.orr.

12) Jentilen beste izena. Jentilei arrotz indartsu eta beldurgarriren baten izena emateko joera ("mairua" moroa baita), alemanian era aurkitzen dugu, bertan, "hühnen" (hunoa) kausitzen baitugu, "riesen" (erraldoia) izenaren alboan.

ta prozesioen indarrez egotzi zirela (egotzi, eta ez hil edo lurperatu) esaten denean.

Dena dela, bertsio honetako gauzarik interesgarriena zera da dudarik gabe, izarraren ordezkoi lainoaren presentzia agerkunde harrigarri gisa, eta laino horren sarrearen inguruko ezaugarriak, nabarmenki somagarriak kontakizunean.

Izan ere, testuinguru gako baten jauskeraren ondoriozko arrazionalizaketa konpentsatzailea, ezin begibista-koagoa agertzen zaigu: "*Orduan lainorik ez zen ikusiko noski...*", horra kontakizunak eskaintzen digun argibidea, mairuen harridura uler eta onets dezagun, eta egia esan, nekez ulertuko genuke bestela, argibide horren ezean, laino batek halako eraginik nola ukan dezakeen. Beraz, honako hausnarketa hau proposatzen dugu, alegia, zerueta laino bat agertzearen esanahia, -ezaugarri berezi eta jakineko laino bat seguru aski-, kontakizun hau asmatu edo/eta igorri duen garai bateko gizartean ongi ulertua izan behar dela. Beranduago, motibo horren esanahia ulertarazten zuten testuinguru gakoak herri oroi-mentetik jausi direnean, zenbait bide ezberdinetatik egiten dira, testuinguru mailako hutsuneak sorrarazitako herrenkeria semantikoak zuzentzeko ahaleginak: Oihartzuneko bertsioak arrazionalizaketa bat asmatu du lainoaren irudiari zentzu bat eman ahal izateko, eta honela lotu du hain zuzen irudi jator horri eustea. Leizadiko bertsioak ordea, lainoaren motiboa jausten utzi du lasa-lasa, eta izar harrigarriarena bereganatu du haren ordezkoi. Izar honi dagokionez, azpimarra dezagun ez daramala ondoran, inongo argibide edo zuri-kerarik, zeren noski, horretarako Belengo izar harrigarri biblikoa, -leiendaren egungo testuinguru kristauaren osakin ospetsua-, nahikoa baita aipagabeko argibide gisa.

Idorokunde honek, izarraren motiboak lainoaren motibo zaharragoaren lekua hartu duela ageri agerian uzten du, eta bide batez, leienda honek gaur egun adierazten duen esanahiari buruz lehenago azaldu ditugun zalantzak arazoizkotzat jotzen ditu. Izan ere, Jesukristoren jaiotza iragartzen duen izar harrigarria, -jator jatorrian jentilak txunditu, liluratu edo beldurtzen dituen agerkundeak-, eta Jesukristoren jaiotzaren arteko lotura ahuldurik geratzen da nolabait, Oihartzuneko bertsioak lotura hori azpimarratu nahi badu ere.

Une honetan kontakizunaren esanahiari buruz dauzkagun datu seguruen arabera, esanahi jator ulertezineko laino batek, -Kristoren jaiotza iragartzeko agerkundearen omen denak-, jentilen berehalako hondamena eragiten du, jentilen suntsipen fisikoa mundu honetatik.

Ondoren dakargun testuak, "imbroglio" aldrebes hau irtenbideratzeko behar ditugun gakoak luzatuko dizkigu. "Jentilarri" izenburupean datorren bertsioa da hain zuzen<sup>13</sup>:

*Artaldeak Aralarko mendebaldeko larreetan zeuzkaten artzain batzuk 1917. urtean zera kontatu zidaten, aspaldi aspaldian, jentilak dantza eta jolasean arituz Argain-  
txabaleto zelaian bildurik zeudela, iparretik haien gai-*

*nera zetorren laino harrigarri bat agertu zela. Jentilek, izaturik, ihesari ekin zioten Intzensao (Intxensao beste ahoskeren arabera) deritzan baso batean barrena. Arraztaranera heldu zirenean, gaur oraindik bertan dagoen eta Jentilarri deritzan harri pila baten azpira sartu ziren. Bertan geratu ziren betirako lurperaturik.*

Bertsio hau, dudarik gabe, honaino ikusitakoetatik ulergaitzena eta ilunena dugu, eta beraz, bera da gure arretarik handienaz miatu behar duguna. Jentil zaharren motiboa ahazten du, baina benetan garrantzizkoa dena, Jesukristoren jaiotzaz edota Euskal Herriaren ebanjelizaketaz inoiz txintik ere ez aipatzea da. Izan ere, bertsio honek honako bi gertakarien hurrenkera soila baizik ez digu erakusten, alegia, argi eta garbi erasokor azaltzen den laino baten agerkundeak, eta ondoriozko jentil ororen suntsipen fisiko osoa, aski garbi esaten baita betirako lurperaturik geratu zirela. Kristau erlijioaren inguruko ezer ez aipatzea are erakusgarriagoa da, ausentzia horrek kontakizuna ulergaitzagoa bihurtzen duela hausnartzen badugu. Alegia, lainoa zerk bihurtzen duen hain beldurgarri oso ongi ikusten ez badugu ere, aski da lainoa kristautasuna iragartzen duen igergarria dela esatea, ondorioz gertatzen den jentilen suntsipenak zentzu logiko borobil eta begibistakoa eskura dezan gure begien aurrean, zeren eta kristautasunak mundu paganoaren galbidea ekarri zuela, topiko ezaguna baita gure testuinguru kulturean, eta baita kontakizuna ibili deneko testuinguru ere. Kontalariaren eta entzulegoaren begien aurrean, kristautasunak poliki ulertaraz dezake jentilen akabera, baina ezin beste honenbeste esan testuinguru erreferentziak galdu dituen laino harrigarri horri buruz. Halabaina, kontakizuna ozen eta garbi mintzatzen da auzi honetaz: Laino baten agerkundeak dakar ondorioz, zuzenean eta berehala, jentilen arrazaren suntsipena. Honats iluntasuna jatoriasunaren berme duen leienda honen gunea.

Kontakizun honen mezua, BARANDIARAN-ek ipinitako izenburuarekin arras bat datorrela, jentilen benetako akabera adierazten duela (akabera, eta ez amaiera edo bukaera), eta akabera hau, bere baitan zenbait indar ezezagun biltzen dituen laino batek eragiten duela argi eta garbi erakutsi ondoren, erraza gertatzen zaigu plazaratutako aurreneko bi bertsioek zapaldu dituzten bideak ezagutu eta berrosatzea: Bere testuinguru erreferentzien jauskera dela medio zentzugabeturik geratu den laino batek sorrarazi duen herrenkeria semantikoak zuzendu beharra dagoela eta, kontakizunak topiko ezagun bat plazaratuko du, alegia, kristautasunaren etorrerak ekarri zuela mundu paganoaren azkena. Argibide beharrak eraginda gertatu den bereganaketa hau, jentilen suntsipenaren adierazkera gozotzearen sorburua izan da.

Aurreneko bi bertsioetan ikusten denez, suntsipena, kasik jentilen gogoko erretiro modura erakusten da Oihartzunen, eta gertabide motel eta piskanakakoa baitzuzen Leizadi mendiko bertsioan.

Honaino erakutsitako hiru bertsioek, leienda honetako osakin zahar eta interesgarrienak zein diren finkatzea ahalbideratu digute, eta baita kontakizunak egun erakusten duen adierazia moldatu arte urratu dituen bideak fin-

13) JMB. Aip. id. 30.orr.

katzea, alegia, jatorrizko testuinguru gako zenbaitek huts egin ondoren, egungo testuinguru berriaren laguntzaz hutsuneok bete arte ibilitako bideak finkatzea. Baina badira halere, erakutsi eta komentatzea merezi duten beste bertsio batzuk, zeren, apenas ezer berririk ikusaraziko badigute ere, leiendaren bestelako bilakabideen erakusgarri gerta baitakizkiguke, eta halaber, motibo bakoitzaren agerpen maiztasuna, –eta beraz, garrantzia–, neurtzeko balioko baitigu, eta dena dela, zuzenbidezkoa baita irakurlari, ikerlariak eskuartean darabilen informazio guztia ezagutaraztea. Ondoren datorren bertsioari Balenkaleku ezarri diogu izenburu, eta Seguratik datorkigu<sup>14</sup>:

*Jesukristo G. J. mundura jaio baino lehen jentilak bizi omen ziren Balenkalekun. Garai hartan ez omen zuen euririk egiten, eta ez omen ziren lainoak ikusten zeruan. Han urrunean aurreneko lainoa agertu zenean denak beldurtu omen ziren. Haien artean ba omen zen bere bordan erretiraturik bizi zen 400 urteko aiton zahar bat. Handik atera omen zuten agerkundea ikus zezan, baina alferrik!, ezin baitzuten begiak zabaldu. Orduan balenka batzuen laguntzaz zabaldu omen zizkioten betazalak. Aiton zaharrak lainoa ikusi zuenean deiadar egin omen zuen: "Gure arraza galduko duk".*

*Eta izan ere, une beretik, kristaugoa barreiatuz hasi omen zen eta jentilak desagertu egin omen ziren.*

*Jentil zaharren begiak zabaltzeko balenka erabili zituztela eta, hortik omen dator Balenkaleku izena.*

Bertsio honen hasierak, Oihartzuneko mairuenak erakutsi dizkigun arrazionalizaketa eta kontraesan berberak plazaratzen ditu: "*Garai hartan ez omen zuen euririk egiten, eta ez omen ziren lainoak ikusten zeruan*", hona testuak eskaintzen digun hausnarketa, jentilek lainoaren aurrean erakusten duten beldurra ulertarazteko.

Komentatu ez dugun arren honetan bezala Oihartzuneko bertsioan ere azaltzen den kontraesana, argudio hau eta jentilek itsu zaharrarengan, –igergarriaren esanahia jakingo duelakoan–, jartzen duten itxaropenaren artean nabaritzen da. Begibistakoa denez, laino hori lehen lainoa baldin bada, jentil zaharrak ez du inongo bentajarik bere lagun gazteagoen aldean 400 urtetako esperientzia zabalaz ezin baita baliatu lehenago sekula ikusi ez den zerbait baldin bada arazoa dakarrena. Betazal jasoeraren eragiketa bitxi hori berriro kausitzen dugu bertsio honetan, eta zuhurtzia handiagoaz argiturik gainera: Ez da inoiz itsua denik esaten, begiak zabaltzeko behar hainbat indarrak ez duela edo baizik. Dena dela, zuhurrago izanik ere argibide hau ez da inola ere asegarria, eta eragiketa bitxi horren benetako adierazmamia asmaezintzat jo beharko dugu oraingoz.

Lainoaren funtzioa berriz ere, eta Zaldibin ez bezala, akaberaren azaltzailea eta iragarlea izatea da, Oihartzuneko lainoaren antzo, akabera horretan eskuhartze zuzen eta ekinkoia duenik inoiz ere esaten ez delarik. Akabera iragartzen du, baina ez du zuzenean eta berehala eragiten, kasu honetan esaten denez. Jesukristoren jaiotzarekiko eta kristautasunaren hedatzearekiko aipame-

nak kontakizunaren hitzaurre eta azken-hitz modura kokatzen dira bere baitan txertatu gabe, baina kontakizunaren esanahia ulertarazteko koordenatuak osatuz. Jentilen akabera berari dagokionez, deskribapena arrunt gozotuta eta eufemizatuta ematen zaigu.

Hurrengo bertsioa BARANDIARAN beraren ahotik datorkigu, honek bere amarengandik entzun baitzuen sarritan. Bertan gertakizunak Jentilarri bertsioak aurkezturiko leku berberean garatzen dira<sup>15</sup>:

*"...Ataunen nire haurtzaroan maiz entzun nuen bertsio baten arabera, behin jentilak Aralarko Argaintxabaleta zelaian jolasean ari zirelarik, beraiengana zeterren laino argidun bat somatu zuten Ekialdetik. Agerkondeak izaturik, zahar jakintsu bati hots egin eta haien artera ekarri zuten, laino harrigarria ikus zezan eta haren esanahia argi ziezaien. Zaharrak zera esan zuen: "Kixmia jaio duk eta gure arrazaren denbora joan duk! Amil nazazue mailo horretan behera!"*

*Besteek bertan amilarazi zuten, eta lainoa atzetik zutela, –lainoari iheska alegia–, mendebalderantz jo zuten lasterka hestuan, eta Arraztarango harantxora heldu zirelarik, anabasan sartu ziren denak batera geroztik Jentilarri deritzan harlauza handi baten azpira: Jentilarri hau, zerbait urte beranduago Arantzadi eta Eguren doktoreekin batera miatu nuen ganbara bikoizko trikuharria da. Honela egin zuen jentilenak, leiendak dioskunez.*

Agerkundea beha dezan zahar jakintsuari betazalak jasotzea ahantzi duen bertsio honetan, bi ezaugarri apimarragarri soma daitezke: Lehenengo, bertsio honek, aurrekoak ez bezala, irtenbide bat aurkitu dio lainoaren funtzioaren mailan orain arte ekidinezina gertatu den kontraesanari, lainoa, jentilen akaberaren iragarlea eta tresna xederatzailea eginez orobat, bi aspektu hauek inongo bateragaiztasunik gabe elkartzu.

Seguru aski bere harrigarritasuna justifikatzeko argidun bilakatu den laino hau, Jesukristoren jaiotzaren eta beraz jentilen akaberaren igergarritzat jotzen da aurrena, gainerako bertsio gehienetan gertatzen den legez; eta honen ondoren jentilengana buruz oldartzen da hauen ihesa Jentilarri azpian amaitu arte, Zaldibiko bertsioan agitzen den bezalaxe. Honela, bada, lainoaren erasokortasun eta gaiztokeria baieztaturik ikusten ditugu, bere indarra eta beldurgarritasuna zertan datzaten zehazki igarri ez badezakegu ere.

Bigarren bereizgarri nabarmena, –lainoaren funtzio deuseztatzaileari irmo loturik dagoena–, zera da, alegia, kristautasuna auzian sartu arren, kontakizunari ez zaio higuin jentilen deuseztapena bere gordintasunean azaltzea, eta Jesukristoren jaiotzak eragindakotzat jotzea; gogora dezagun kristautasuna aipatzen zuten bertsioetan akaberaren deskribapena erabat gozotua ematen zitzaiola.

Bertsio honek, gure honainoko inpresioa indartzen du, alegia, jentilen akaberaren kontakizuna, jatorriz, jentilen akaberaren deskribapenez mintzatzen zela soil-soilik,

14) JMB. Aip. id. 30.orr.

15) JMB. "Diccionario ilustrado de mitología vasca" Obras completas I.alea 132.orr.

bat bateko akabera beldurgarri eta orokor batez, eta kristautasunaren aipamenak beranduago bereganatu behar izan dituela akabera hau ulertaraztearren, testuingurugako jator zaharren jauskeraren ondorioz kontakizunaren zentzia galtzar gertatu denean.

Jentilarri deritzan trikuharriaren inguruan bada R. M. AZKUEK bildu eta argitaraturiko hirugarren bertzio bat<sup>16</sup>:

*Itsu zegoen jentilen nagusia. Aldi hartan, lainoa eta euria ez ziren ezagunak, sortzeko zeuden. Gauerdiko basurez edo ihintzez bizi ziren lurak. Behinitsuak lagunei:*

*–Motilak, –esan zien–, usai bat aditzen dut eta begira ezazue bazterretara ondo.*

*–Itsas gainean halako zerbait ageri da.*

*–Atalai batzuekin nire betazalak zabal itzazue.*

*Hala egin zioten. Ernaga mendian gertatu zen hau. Itsuak, betazalak zabalik zeuzkala honela jarraitu zuen hizketan:*

*–Ernaga ernega dedila! Pilistindarrak sortu dituk eta sekulako galduak gaituk! Zoko batera jaurtiki nazazue ni. Ahal duzuen egin ezazue!*

*Jentilen nagusia orduan hil zen eta bere lagunek haren gorputza Arrastanera eraman zuten. Arrastanen dago jentilarria, itsuaren hobi gainekoa. Orduan aienatu ziren jentilak gure artetik.*

*Arrastanen jentilen hezur bila oraintsu nortzubit ibili dira, baina alferrik.*

Kristautasunaren etorrera ez da bere izen propioaz aipatzen, mesprezuko "pilistindarrak" (filisteoak) izenpean baizik, hori baitzen jentilek erabiltzen omen zuten izena "kristau" esan nahi zutenean. Dena dela, etorrera hori bertan dago, kontakizunaren osakin garrantzitsua bilakatu da.

Gainerakoan, aipagarria litzateke lainoaren motiboa ulertarazteko asmatzen den arrazionalizaketaren landutakoa: Lehenengo, sarritan beste bertsiotan ikusten dugun bezala, garai hartan oraindik lainorik ez zegoela esaten zaigu. Baina noski, lainorik gabe euririk ez dagoenez, eta urik gabeko bizitza ezinezkoa denez, hausnarketa hauek kontutan hartuz, mintzabide arrazionalizatzaileak gaueko basura eta goizeko ihintza aipatzeraino iritsiko da bere burua borobiltzeko ahaleginetan.

Akaberearen deskribapena, bertzio gozotuan heldu zaigu azken testu honetan: Bertan ikusten dugun heriotza bakarra, –eta biktimaren gogozkoa gainera–, zaharitsuarena da, eta jentilen suntsikera, apurkakoa eta luzarokoa bailitzan adierazten da. Gozoketaren kutsadura zaharraren heriotzaraino heltzen da, honek "txoko batera" jaurtiki dezaten eskatzen baitie lagunei, bere homologoek hizkera gogorrigo eta gordinagoaz amilaraztea eskatu duten bitartean.

Jentilen akabera iragartzen duten zahar iragarlearen azterketa zorrotzago egin dezakegu orain bertzio berri honi esker.

Lehenago engoitik aurreratu dugunez, zaharraren itsutasuna, –beti ere ulergaitz deritzogun betazal jasoera bitxi horren argibide gisa–, asmatu den arrazionalizaketa

izan liteke. AZKUE bertsiotan begiak zabalduz gero prime-ran ikusi eta igartzen duen itsu honek, hipotesi horren aldeko frogak berria eskaintzen digu. Baina gehiago ere egiten du, zeren eta aurreneko aldiz ikerketa honetan zehar, bertzio honek ez baitu itsua zahartzat jotzen, eta honek zera hausnartzera garamatza, alegia, beste bertsiotan itsu honi erasten zaion "zahartasun" ezaugarria aurrena itsu bihurtu duen arrazionalizabide beraren bigarren urratsa edo garapen osagarria ez ote den izan. Izan ere, itsutasunak alde batetik, eta igergarriaren esanahia adierazterakoan erakusten duen jakintzak bestetik, igarleari "zahartasuna" ezaugarria erastea eragin ahal izan dute gogoeta-lotura arrunt baten arabera.

Zehaztapen honek ez digu beharbada kontakizunaren esanahi jatorra berreraikitzeke ezer berririk ekartzen, baina bai ordea, lagundu kontakizunaren baitan benetan funtsezkoa dena bereizten erakusteko. Igarlearen zahartasuna osakin jatorra izan liteke, baina izan liteke halaber motibo eratorria, betazal jasoeraren arrazionalizaketak eragindako bereganaketa baten fruitua. Dena dela eta saihets semantiko batetik, "zahartasuna" ezaugarria ez da funtsezkoa edo erabat beharrezkoa kontakizun honetan.

BARANDIARANek beste hiru bertzio labur argitaratu ditu oraindik. Hauen laburra jatorra eta berezkoa izan liteke, edota entzun bezain laster ez idazteagatik gero erdi ahazturik egotearen ondorioa, edo agian baita ere beti motibo berdinekin asper ez gaitzean BARANDIARANEN kezka erakusgarria. Dena dela, hona hemen hirurak<sup>17</sup>:

*Jentileiho-aren hurrean eta harkaitz berean, jentilen sukaldea izan omen zen zulo bat dago. Bertan bizi izan omen zen arraza honetako azkena. Izarrak beha zitzan betazalak endaeikin zabaltzen zizkieten aiton zahar bat. Behin batean, izarren behaketa amaitu eta zera esan omen zuen: "Akabatu da jende humanua eta heldu da perrua". Jentilen aroa amaitzen zela eta kristautasuna zetterrela adierazi nahi omen zuen.*

*Orozko Olarten diotenez, paraje haietan jentil asko zebilen garai batez. Behin, urrunean laino marismea agertzen zela somatu zuten. Bazen haien artean gaitzen bategen jota betazalak beti itxita zeuzkan agure zahar jakintsu bat, horrela itsuturik zegoena. Urkulu batzuekin zabaldut zizkieten, eta jakintsuak lainoa ikusi orduko kristautasunaren etor hurrentasuna iragarri zuen.*

*Nafarroako Aranotik datorkigun beste bertzio baten arabera, jentilen garaian izar harrigarri bat agertu omen zen. Haien artean izarretaz zerbait bazekien zahar jakintsu bat ba omen zegoen. Betazalak jaso zizkieten izar berria beha zezan, eta zera esan omen zuen orduan: "Gure denbora joan duk".*

Urdainek bertsiok, izan ere AZKUE bertsiok bezala, jentilek kristauak deitzeko erabiltzen omen zituzten iraingarriak erakusten dizkigu. Lehenago "pilistindarrak" (filisteoak) esaten zitzairen, begibistako konnotazio itsusiko izena, eta orain "arrazza perrua" omen da kristauena, jentilek beren buruari "arrazza humanua" esaten dioten bi-

16) R. M. AZKUE. "Euskalerrriaren Yakintza", II.alea 393.orr. 40zb.

17) JMB. "Eusko Folklore" II. Alea (JMB II) 212.h.

tartean. Irain gutxiesle hauek, kristautasunaren motiboaren sarkeriaren ondoriozko garapen narratibo berantiarra besterik ez dira, baina halere badakite beren buruak kontakizunaren interes-erdigunean kokatzen entzule-irakurlearen arretari hots eginez, edukirik jatorrenak gerizpean ezkutatu zirela. Aipatu berri ditugun bi kasuetan, jentilen akaberaren kontakizuna bi kulturen arteko borroka baten itxura hasi da hartzen, bertsio jatorren eta euskorrenei esker, akabera hau laino baten eraginez burutu dela ikasi dugun arren. Jentil-kristau oposizioa, bere esanahi jatorretik gero eta urrunago dabilen kontakizun baten ardatz berria bilakatu da.

Orozkoko bertsioa, jentilen akabera esplizitoki adierazten ez duen bertsio bakarra dugu; eta alderantzizkoa Aranokoan aurkitzen dugu, kristautasunaren inongo aipamenik gabe iragartzen baita akabera. Halere badirudi bai batek eta bai besteak ere bi motibok eduki behar izan dituztela, alegia, Kristoren jaiotzaren edo kristautasunaren etorreraren aipamen bat, eta ondoriozko jentilen akaberaren iragarpena, eta hutsegite hauek, azkarregi egindako laburpen baten ondorio bide diratekeela.

Gainontzekoak zera esan bakarrik, hiru bertsiook honaino ikusitako motibo berberak edo berdintsuak aurkezten dizkigutela, irudien mailako berritasunik eskaini gabe.

Bertsioen azalpen hau amaitzeko, esan dezagun BARANDIARANek, osorik transkribaturik argitaratu ez diren beste hiru bertsioei buruzko aipamen xume eta labur bat egiten duela. Ondoren datozen nota hauek zenbait bitxikeria bereizgarrietaz baizik ez zaizkigu mintzatzen<sup>18</sup>:

*Akotoingo jentilei (Gipuzkoako Idiazabalen), izar txiki baten itxurapean agertu omen zitzairen.*

*Gipuzkoako Zerainen, jentilek itsaso aldetik zetorren laino txiki batean, ortzian zekusaten aurrenekoa, ezagutu zuten Kixmi.*

*Haien nagusi zaharrak itsasoko urez beteriko pertza zela hura esan omen zien,...*

*Iturbei mendiko jentilak (Gipuzkoako Hernanin) harpetik irten eta elurra bota zuela ikusi omen zuten, eta haien nagusi eta aholkuemaile zaharrak haien arrazarenak egin zuela eta "pilistriak" (kristauak) zetozeela esan omen zien.*

Lainoaren interpretazio berria, –itsasoko urez beteriko pertza–, eta igergarri harrigarri mota berri bat, –lehen elurteak–, hona nota hauek dakarkiguten berritasun bakarra. Gainontzekoak zera bakarrik, alegia, Iturbeiko bertsioa, komentatu berri dugunaren arabera ardatz lerrakera edo erdigune lerrakera jasaten ari dela azpimarratzea, jentil-kristau oposizioranzkoa alegia.

Hauxe da jentilen akaberaren leiendari buruz daukagun informazio guztia. Garaia da beraz, zenbait ohar berriez azterketa burutu eta konklusio nagusien labur bilketak emateko.

Leienda honetan bada, oraindik gure hausnarketek sakonki ukitu ez duten motibo bat, bazter samarrean ge-

ratzen den motibo bat, zeren bere agertzeak edo huts egiteak ez baitu narrazioaren garapena edo bilakaera eraldatzen. Gure honainoko ahaleginak kontakizunaren adierazmamiaren gako diren osakinak aztertzeraz zuzendu dira, eta helburu hau beterik, ikerketa, kontakizunaren beste osakinetarara heda dezakegu orain.

Jentil zaharraren heriotzaren motiboaz ari gara noski, hiru bertsiotan jentilen akaberaren apur bat aurretik gertatzen den igarlearen heriotzaren motiboaz. Beti igarlearen eskaerari erantzunez lagunek gainbehera amilartzaten dute. Oroit gaitezen hiru pasarteotaz:

*LEIZADI: "Ah nere umeak: Kixmia jaioko dek, galduak gaitu oraintxe. Bota nazazue ni hemendik gainbehera!..."*

*Berak esan bezala, mailoan behera bota omen zuten amilka, eta hala hil omen zen jentil zaharra. Gero kristiandadea munduan zabaltzen hasi zenean, jentil denak sakabanatu eta berehala galdu omen ziren."*

*BARANDIARAN: "Zaharrak zera esan zuen: "Kixmia jaioko duk eta gure arrazaren denbora joan duk! Amil nazazue mailo horretan behera!"*

*Besteek bertan amilarazi zuten, eta lainoa atzetik zutela, –lainoari iheska alegia–, mendebalderantz jo zuten lasterka hestuan, eta Arraztarango harantxora heldu zirelarik, anabasan sartu ziren denak batera geroztik Jentilarri deritzan harlauza handi baten azpira..."*

*AZKUE: "...Ernaga ernega dedila! Pilistindarrak sortu dituk eta sekulako galduak gaituk! Zoko batera jaurtiki nazazue ni. Ahal duzuen egin ezazue!"*

*Jentilen nagusia orduan hil zen eta bere lagunek haren gorputza Arrastanera eraman zuten. Arrastanen dago jentilarria, itsuaren hobi gainekoa. Orduan aienatu ziren jentilak gure artetik".*

Hirugarren bertsioan irakurtzen dugun "zoko batera" jaurtikitze hori, hori baino zerbait gogorragotzat ulertu behar da zalantzarik gabe, –amildegia zokoaren orde–, bera baita jentil igarlearen heriotzaren eragile zuzen eta berehalakoa.

Salbai samar itxurako igarlearen erhotze hau, biktimak berak otoikatu da kasu guztietan, jentilen arrazaren suntsipena iragarri eta berehala. Honelako mesedea eskatzeko ukan ditzakeen arrazoiak ez dira garbi adierazten, baina beharbada zera soma liteke jarrera horretan, alegia, ondoren datorkien patuarekiko etsi ezina, eta bere lagunak akaberaren azken lekukoa nahi ez izatearren bere burua aurretik galdu gura. Argibide hauek, –bururazten zaizkidan egokienak–, ez dira halere erabat asegariak. Igarlearen jarrerak erakusten duen logika edo zentzutasunari buruzko alferrikako eztabaidetara lerratu gabe, hausnar dezagun auzi honetan argi dagoen gauza bakarra: Inork mailo batean gainbehera amildu nahi badu bere burua galtzeko, berak egin dezake aidoso bakar bakarrik, inoren laguntzaren eskean aritu gabe.

Jentil igarlearen zahartasunak ez du aitzakiatzat baliyo, zeren eta, seguruenik arrazionalizaketa bidetik bereganaturiko ezaugarria izateaz beste, AZKUE bertsioak ez baitu igarlea agure zaharra bailitzan erakusten, jentilen nagusia bailitzan baizik, eta halere, laguntza berbera es-

18) JMB. "Diccionario..." (JMB I) 132.orr.



katzen du bertsio honetan ere amildu ahal izateko. Eta dena den, ekintza hori burutzeak ez du benetan inongo zailtasunik agure zahar batekin ari bagara ere. Gauzak honela, hala eta guztiz ere, hiru bertsioak arras bat datoz auzigune honi dagokionez: Bere burua galdu nahi duen igarleak besteen laguntza eskatzen du bere nahi hori betetzeko.

Aurretik dakarren argibidezko mintzoa une batez ahanztiz gero, eta gertakaria bere hutsean behatzen badugu, zera geratzen zaigu, alegia, jentilen senitarteak mailoan behera amilarazten duela bere suntsipena iragarri berri duen lagun igarlea. Horra, testuak eskainitakoa baino argibide hobez ulertarazi behar dugun ekitaldia. Halako jokaera zuzitzeko anitz argibide eman daitezkeen arren, bi dira berehala gogora datozkigunak: Zigorra, eta giza oparia.

Aurrenekoaren arabera, jentilen jokabidea erreflexu zahar eta ezagun baten erakusgarria litzateke, alegia, berri txarren emaila zigortzeko ohituraren erakusgarria. Horren igarpen gaiztoa egiteagatik amilaraziko lukete jentilek haien lagun igarlea. Hipotesi honek halere oztopo gehiegi plazaratzen ditu eutsigarri izateko. Lehenengo, ezingo luke ulertarazi zergatik, –AZKUE bertsioan gertatzen denez–, opatuko lioketen jentilek bonbeziako hobiraketa zigortu berri duten igarle gaiztoari. Baina hau ez da oztopo bakarra: BARANDIARAN eta Leizadi bertsioetan ikusten denez, jentilek argi eta garbi erakusten dute igarriaren eragiten dieten beldurra. Izar harrigarria batean eta laino argiduna bestean, hasiera hasieratik beldurgarritzat eta mehatzaritza jotzen dituzte jentilek; badakite ez dakartela haietzako gauza onik, eta disimulorik gabe azaltzen dira hestu eta larri. Testuinguru honetan, jentilaren igarpena nolabait esperogarría dela esan dezakegu, eta somatu egiten dela, hori entzun zain daudela. Eta etsipen giro honek noski zigorraren hipotesia indar geturik uzten du hein handi batean, horrelakorik ere larregitxo bailitzateke zirkunstantzia horietan.

Azkenik, BARANDIARAN bertsioak, –orobat akaberaren iragarle eta xederatzaile azaltzen zaigun laino argidunaren bertsioak–, zigorraren hipotesia erabat bazterrerá bultzatzen duela emango luke. Izan ere, ez baita batere sinesgarria hasiera hasieratik lainoaren mehatxua somatu duten jentilok, eta berehala laino horren eraginez bizi rik lurperaturik geratuko direnok, beren beldurra baieztatu eta berehala gertatuko zaiena igarri baizik egin ez duen lagun igarlea zigortzen denbora galduko dutenik.

Badirudi beraz, asegarriagoa izan daitekeela bigarren hipotesiari jarraitzea, alegia, amilketa giza oparizat hartzea. Lainoak irudiratu edo ezkututzen dituen indarrak baretzearen eta hauen mehatxua ekiditearren eskainitako giza oparia izanen litzateke. Giza opari honek ez du bere helburua iristen, baina honek ez du hipotesiaren balioa urritzen, eta hausnar dezagun gainera zeinen ongi ematen duen AZKUE bertsioan, jentilek, eho (giza opari eskaini) berri duten igarlea, ondoren zergatik lurperatzen duten ulertarazteko. Giza opariaren hipotesiak gainera, ongi ematen du bertsiorik zahartzale eta jatorrenetan garbi gorde den lainoaren mehatzaritasunarekin. Igar-

learen amilketa, erritual baten osakina litzateke, oparigintza teknika zehatz baten burutzea, igarri berri zaien eta berehala beteko den patu gaiztoa saihestasmoz jentilek erabiltzen duten azken baliabidea.

Giza oparigintza hipotetiko honen ezaugarriak dago kienez ezer gutxi esan dezakegu: bakarrik testuek azaltzen dizkiguten zenbait gauza konstatatu. Oparikia igarlea da beti, beti halaber, amilketa dugu burutze teknika, eta eragilea kasu orotan jentilen senitarte osoa da, opariaren bitartez babestu eta salbatu nahi den gizartea alegia. Halere, badira azpimarratu beharreko bizpahiru zailantza: Esate baterako ez dakigu amilketa oparigintza teknika orokorra ote den, –alegia, gizako nahiz animaliekin burutzen dena edozein motako arazoak zuzentzen saiatzeko–, edota arazo zehatz bati zuzenduriko opari mota berezia ote den, alegia, bereziki laino mehatxari mota horietakoak konjurtzeko, beti giza opariez, –gizaseme zehatz eta berezi baten opariez–, egiten dena. Hots, lainoak irudiraten duen mehatxua eta igarlearen amilketazko opariaren arteko loturaren zenbaterainoko esklusibotasun eta espezifikotasunaz ez dakigu ezer. Ez dakigu ezta ere igarleak zer zeritzon benetan opariki bihurtzeari.

Testuek, amilketa igarleak berak eskaturikoa bailitzan erakusten digute, baina argibide horiek arrazionalizaketak izan litezke. Edo agian ez. Testuinguru gako zaharrenak galdu ondoren dagoeneko opari bezala ulertzen ez den amilketak krimen izugarria ematen duela eta, hori nolabait ezititzeko asmoz ez ote da amilketa suizidioa bihurtu? Baina halaber, igarlearen amilarazteko eskaera, bere burua opatzeko jatorrizko jarrera onesle eta gogo baikorraren isla izan liteke, agian aspaldidanik jakinik, –ohitura zaharren batek agindurik edo–, lainoa azalduz gero opariki gisa hiltzea zuela patua, zaharrena delako, nagusia delako, igarlea delako, edo den dena delako. Azken buruan beraz, igarleak beste jentilei amilketa burutzeko laguntza eskatzeak ez digu, suizidioaren ezintasuna eta opariaren izana baino frogatzen, baina ezin digu opariaren opariarekiko gogo on edo txarrari buruz zerbait erabatekoa esatea ahalbideratuko ligukeen argibide sendorik ematen.

Amaitzeko, mito honen aspektu azpimarragarri bat aipatu behar dugu, mezuan azaltzen ez den baina testuinguruaren osakin garrantzitsua eta interpretaziorako gako-datua den aspektu bat: Jentilen akaberaren bertsioetariko lauetan megalitoak agertzen dira.

Balengkaleku deritzan bertsioak, lainoa azaltzerakoan jentilak jolasean zebiltzan zelaiaren izenetik hartzen du berea. Bertan bi trikuharri ikus ditzakegu gaur egun oraindik.

Halere, mitoa eta megalitoaren arteko lotura begibistakoagoa eta adierazkorragoa da, gertakariak Jentilarrian kokatzen dituzten hiru bertsioetan, alegia, Jentilarri, BARANDIARAN eta AZKUE deritzaten bertsioetan hain zuzen, eta ez da harriztekoa gainera, hiru hauek baitira heriotza eta hobiraketaren irudiak argien gorde dituztenak. Hauetako azkenekoan, jentilen nagusia da hil eta hobiratzen ikusten dugun bakarra, baina gainontzeko

bietan jentilen senitarte osoa da patu berori jasaten duena. Kasu guztietan, hilobia, herriak Jentilarria esaten dion trikuharria dugu.

Bateratasun honek zera hausnartzera garamatza, alegia, gainontzeko bertsioek ere halako lotura megalitiko ukan behar izan dutela, oraindik argi eta garbi jentilen heriotza eta bat bateko suntsitze fisikoa kontaktzen zuten garaian, eta akaberaren deskribapena ezitu ondoren etengo zela lotura hori, kontakizunaren esanahi kristau berriaren eraginez, zeren noski, hilik ez dagoen lekuan alferrik baita hilobirik aipatzea.

Beranduago itzuliko gara, leiendarekin loturik dauden megalitoen puntu honetara, bertan egin diren miaketen eta horietatik tiratu diren ikasketen berri labur emanez. Baina oraingoz aski izanen da, -ikerbidearen hasieran baino ez gaudela kontutan harturik-, trikuharri hauen adinek, astian zehar, Kristoren jaioteguna baino dezente atzerago, eta noski Euskal Herriaren ebanjelizaketaren garaia baino atzerago eramaten gaituztela jakitea.


Orrialde hauetan zehar egindako azterketek, ikuspuntu berri batean kokatu gaituzte, aurreneko hurbilketetan jentilen akaberaren mito behatu eta juzkatzeko plazaratzen ginen perspektiba zaharra ez bezalako ikuspuntu berrian. Lehen atalean azaldu dugun metodologia-ren laguntzaz, leienda honen bertsiorik osatuen eta hoberen errejistratuetan adierazten ziren mezu eta esanahien azterketa kritiko bat egin dugu, eta honen emaitza nagusia zera izan da, hasieran egiazkotzat jotzen ziren zenbait esanahiren gezurrretea, eta noski, ondorioz, beste horrenbeste zalantza sorraraztea; eta bestalde, "gutxienezko baieztapen" zenbaiten formulazioa, alegia, arrisku txikiko eta beraz egiantz handiko hipotesi zuhurren formulazioa.

Hurrengo grafikoak honainoko ikerketaren urratsak eta hauetatik ateratako konklusio nagusiak laburbiltzen ditu. Konklusio hauek dira hain zuzen, jarraian datorren ikerbide osoaren euskarri.

**Aurren Hurbilketa** deritzan urratsean, mito eraren zenbait bertsio ezberdinen aurrean eta esanahiari buruz bakoitzak zekarren komentarioen aurrean kokatu dugu gure burua. Begien aitzinean genituen bertsioen artean ezberdintasun bat bederen somatu ahal izan dugu: Batzuk dotoreago eta borobilago ziren esanahiari dagokionez, eta beste batzuk berriz, traketsago eta ulergaitzagoak. Aztertzeari ekin, eta honen bitartez zenbait arrazionalizaketa eta kontraesan somatu ahal izan dugu bertsio batzuetan, eta besteetan berriz, gutxi edo gaizki esplikaturiko elementuak kausitu ditugu. Arrazionalizaketa begibistakoenak honako hauek ziren, hots, alde batetik, hodeitan agertzen den lehen lainoarena, -AZKUE bertsioan argibide kate luzea sorrarazten duelarik-, eta bestetik, itsutasunaren aitzakia jentil igarlearen betazalen jasoera ulertarazteko. Halaber, "zahartasuna" ezaugarria arrazionalizaketa bidetik bereganatua izatea litekeena dela aipatu dugu, baina "litekeenaren" maila baino urrunago jotzera ausartu gabe, eta dena dela argi izanik garrantzia handirik gabeko detailea dugula igarlearen adina.

Kontraesani dagokienez, testuan bertan soma litekeen bi geneuzkan, eta testuinguruko argibideen laguntzaz bakarrik ageriratu litezkeen beste bi. Testu mailan, jentil zahar itsu bat, ortzietako igergarria ikusi eta interpretatzen azaldu zaigu, kontraesan hau, komentatu berri dugun itsutasunaren arrazionalizaketaren ondorio delarik. Beranduago, bere burua amiltzea bezalako eginkizun simple horretarako jentilen laguntza eskean harrapatu dugu igarlea. Bestalde eta testuinguruaren laguntzaz idorrotutakoei dagokienez, jentilen akabera bikoitza aipatu behar dugu lehenengo: Mundu pagano osoarekin batera, jentilen suntsipena kristau erlijioaren ikurren indarrez burutzen da (ermiten eraikuntza, elizetako kanpai hotsak, prozesioak,...) gure herriko zenbait albistek dioskutenenez, eta auzia Jentilak versus kristauak moduan planteatuz gero, askoz logikoago da azken hauetako edozein suntsikera, jentilen akaberaren mitoak proposatzen digu-

**AURREN HURBILKETA**



na baino. Azkenik, eta testuinguruaren laguntzaz baita ere, zera jakin dugu, leiendaren hiru bertsiok jentilen hilotzat jotzen duten Jentilarria (jentilen nagusiarena bakarrik AzkUE bertsiolari jarraituz) historiaurreko trikuharri bat dela, eta honek ez du noski mitoaren interpretazio kristauzalearekin batere ongi ematen.

Oroit gaitezen, arrazionalizaketak eta kontraesanak testuinguru mailako uherduren ondorio izan ohi direla, testuingurua osatzen duten informazioen multzoan gertaturiko hutsune eta bereganatzeen ondorioa hain zuzen. Ondorio hauek identifikatu, eta sorrarazi dituzten eragileak aurkitu ditugunean, kontakizunak disimulatu nahi zuen testuinguru hutsunea ageri agerian utzi dugu. Eta hortik hain zuzen elkartzeko gara bigarren azterbidearekin, alegia, hutsune eta akatsak ezkutatzeko saiati ez diren bertsiotik lortu gabeeen azterketatik datorren bidearekin. Bide elkartzeko honetan, gutxi edo gaizki esplikaturiko osakin guztiak biltzen ditugu, alegia, berez gutxi edo gaizki esplikaturik zeudenak alde batetik, eta bestetik, gure azterketaren ondorioz, –arrazionalizaketa edo kontraesanen bat ageriratu dugulako edo–, testuinguruaren sortu diren hutsuneak direla medio esplikazio asegarririk gabe umezurtz geratu direnak. Atal honen funtzioa, ongi ulertzen ez den guztia ageriratzea litzateke, eta helburu honek soil eta kaxkar ematen badu ere, beste edozein urratsak adina garrantzia du: Ez dugula ulertzen aitorzen badugu, arrazionalizaketa txar batekin konformatzen garenean baino askoz hobeto gabilta. Hein honetan, lainoaren esanahia (eta jentilen erreakzioarena haren aurrean), igarlearen betazalen jasoerarena, eta igarlearen amilaldiarena behar bezala ulertarazteko beharko liratekeen testuinguru-gako jatorren hutsegitea nabaritu dugu.

Azkenik, azterketak ageriratu dituen elementu berritan oinarrituz burutu ditugun hausnarketak, ikerketaren *Egungo Egoera* osatzen dute, alegia, gaiari buruz asmatu ahal izan dugunaren bilduma, eta ondoren helduko diren ikerlanen abiapuntua. *Egungo Egoera* hau bi sail nagusitan laburbil dezakegu: Kontakizunari buruz dakigun guztiak osatuko luke lehena, eta berorri buruz azterketaren ondoren, –eta zenbaitetan hain zuzen azterketaren ondorioz–, oraindik ez dakigun guztiak berriz, bigarrena.

Lehen sail horrek osteria bi azpi-sail erakusten dizkigu: Alde batetik badakigu kontakizunak zer ez duen adierazten benetan, hots, zer ez duen adierazten jatorrian, eta hau, azterketan zehar argitan ipini ditugun kontraesan eta arrazionalizaketan kausitzeari zor zaio: Kontakizunak erakusten duen lainoa ez da lehen lainoa, ez eta Kristoren jaiotzaren igergarria ere; betazalak jasotzeko laguntza behar duen jentila ez da itsua, eta ez du, seguruenik ere, bere buruz beste egiteko gogo handirik; mito honek entzunarazten digun jentilen akabera ez zen jatorrian, orain ikusten dugun oinazebako suntsikera apurkakoaren ber-

dina, ez eta, –sorburuari dagokionez–, Kristoren jaiotzak edo gure herriaren ebanjelizaketak eragindakoa.

Eta bestalde, birmoldaketa semantiko guztiok ageriratu eta baztertu ondoren, kontakizunaren jatorrizko esanahiari buruzko zenbait egiazkotasun gertatu zaizkigu esku artean, biziki larguratsu ez agian, baina benetan sendoak. Honako lau esaldiotan laburbil daitezke egiazkotasun hauek: Lainoa, mehatxari eta erasokorra da. Jentilaren betazalak, lainoa ikus dezan jasotzen dira, eta beraz, lainoa da eragiketa bitxi hau ulertzera heltzeko argitu behar dugun gakoa. Jentil igarlearen amilketa giza oparizat ulertu behar dugu, eta seguru asko, lainoaren erasoak ekidin asmoz burutzen da. Jentilen akabera, bat bateko suntsikera masiboa da. Lau baieztapen hauek, hamabi bertsioren multzoan azaltzen diren lau sekuentzia nagusiei (ezein bertsiok ez dauzka laurak) egokitzen zaizkie hurrenez hurren.

Lau sekuentziok osatuko lukete antzinako mitoburuaren argumentua:

Kontakizunak dakigunari buruzko sail honetan, jentilen akaberaren leiendak historiaurreko megalitoekin azaltzen duen lotura gainera genezake oraindik. Lotura honek, eta testuinguru-gako nagusien suntsipenak, azken albiste bat dakarkigute: Mitoa nahiko zaharra izanen da seguruenerik ere.

Ikerketaren *Egungo Egoeraren* zirriborro hau burutzeko, ez dakigunari buruz hitz egitea geratzen zaigu bakarrik. Eta zerbaitetan ezjakin gabilta, testuinguruko informazioen mailan daukagu dudarik gabe hutsunerik nabarmenena: Lainoaren mehatxua nola zertzen den (zertan dago bere indarra? zergatik ote da horren beldurgarri?) eta jentil igarleak hari so egin diezaion zergatik zabaldu behar ote zaizkion begiak bestein laguntzaz, hauek lirateke gure bi enigma nagusiak, ulertuak izanez gero kontakizun osoa argitzeko bidea zabalduko luketena. Bi enigma hauen argitzea izanen da zalantzarik gabeko ikerketa honen helburu nagusienetako bat.

Ezjakin gabilta halaber jentil igarlearen amilketaren inguruko zera gehienei dagokienez; halere, zuhurtzat jotzen dugun gure ustearen arabera, amilketak giza opari errito mota bat adieraziko luke; eta zuhurtziaz beti ere, gure ustea da halaber amilketa horren esanahia argiago ulertu ahal izanen dela bere sorburua den lainoaren adierazmama ulertu eta gero.

Amaitzeko, eta kontakizunaren hesparrutik kanpo jalgiz, orain arte bururatu ere ez zaigun galdera bat plazaratuko dugu, hain zuzen, jentilen akaberaren mitoak bere garaiko sistema mitologikoan ukan ahal izan duen funtzioarena. Galdera honi ihardespen bat eman ahal izateko, kontakizunaren esanahia asmatzeko burutuko ditugun lanen arrakastan datza noski. Esanahia ezagutzan ez dugun bitartean, alferrik arituko baikara, ulertzen ez dugun kontakizun horren funtzioa definitu nahian.

	IGERGARRI MOTA	AURREN ERREAKZIOA	BETAZAL JASOERA	IGARPENA	AMILKETA	GAINERAKO JENTILAK	SUNTSIKERA	TRIKUHARRIEKIKO LOTURA
LEIZADI	Izar harrigarria	Beldurra	Bai	Jentilen akabera	Bai	?	Gozotua	-
SEGURA	Lehen lainoa	Beldurra	Bai	Jentilen akabera	-	?	Gozotua Balenkalekun	Bi trikuharri
ZALDIBI	Lainoa oldartuz	Beldurra	-	-	-	Harri pila azpira erabatekoa orobatekoa	Bat batekoa trikuharria	Jentilarri
OIHARTZUN	Laino harrigarria	Harridura	Bai	Jentilen akabera	-	Harpera betirako	Gozotua	-
URDIAIN	Izarren behaketa	-	Bai	Jentilen akabera	-	?	?	-
ORZKOKO OLARTE	Laino bat	?	Bai	Jentilen akabera	-	?	?	-

	IGERGARRI MOTA	AURREN ERREAKZIOA	BETAZAL JASOERA	IGARPENA	AMILKETA	GAINERAKO JENTILAK	SUNTSIKERA	TRIKUHARRIEKIKO LOTURA
ARANO	Izar harrigarria	?	Bai	Jentilen akabera	-	?	?	-
BARANDIARAN	Lehen argiduna	Beldurra	Bai	Jentilen akabera	Bai	Harri pila azpira lainotik ihesi	Bat batekoa erabatekoa orobatekoa	Jentilarria
AKOTAIN	Izar ttipia	?	?	?	?	?	?	-
ZERAIN	Lehen lainoa	?	?	?	?	?	?	-
HERNANI	Lehen elurra	?	?	Jentilen akabera	?	?	?	-
AZKUE	Lehen lainoa	?	Bai	Jentilen akabera	Bai (eztitua)	Nagusiarri lurra ematen diote	Eztitua	Jentilarria

#### IV. IKERBIDEAREN LEHEN URRATSAK

Hona non gauden, azaldu berri dugun azterketatik tiratutako argibideak lagun ditugula, interesgarri bezain ilun eta zail dirudien ikerbide baten aurrean. Izan ere, zori onekotzat jo dezakegu geure burua hain ilun eta enigmaz beterik dagoen kontakizun batekin topo egiteagatik. Itxura interesgarrikoa dugu benetan. Eta hau guztia, testuinguru mailako hutsuneen zabalari esker, hauek baitira leienda harrigarri eta ikerbidea oztopatsu, orobat egiten dituztenak.


Ikerbide honen abiapuntua, bere oinarri sendoa inguratzen duten area higikorren artean, aurreko azterketan zehar isolatu eta definitu ditugun lau motibo nagusiek osatzen dute:

- Laino mehatxaria
- Betazal jasoak
- Seguruenik ere opari baten adierazpena den amilketa
- Jentilen suntsipena

Aurkezturiko hamabi bertsioak behatu eta hausnartu ondoren, eta euskal mitologiak erantzun asegarririk gabe dirauten enigmak argitzeko beste argibiderik eskaini ezin digularik, ikerlana beste bideetan barrera abiatuko da, gure kontakizunari hurbil dakizkiokeen beste kontakizunak, edota gure testuinguru hutsuneak bete ditzaketen datu etnografiko edo mitologikoak nonbaiten kausi ote daitezkeen ikusi asmoz. Une honetan, euskal mitologiaren hesparrutik kanpora ateratzen gara, apriorismo eta aurreritirik gabe motibo aurkibide orokorren munduan murgiltzeko.

Hona hemen, STITH THOMPSON-en aurkibide orokorretik ("Motif Index of Folk Literature") gure lau motibo nagusietan oinarrituz tiratutako erreferentziak, hots, ikerbidearen lehen urratsak<sup>19</sup>:

19) S. THOMPSON. "Motif Index of Folk Literature". Bloomington (Indiana), VI. alea



### BETAZALA

- Betazala kirten batek iragazirik duen jainkoa. A128.2.2.
- Betazal astuna. F541.7.

### BETAZALAK

- Ogroa hain zaharra izaki, betazalak jaso egin behar dizkiote. G631.
- Begi suemailez hornituriko jainkoa. A124.1.
- Begi majikoa. D993.
- Begi bat jakintzaren trukean. J163.3.
- Ohi ez bezalako begiak dituen jainkoa. A123.3.hh.
- Begi azpimarragarriak. F541.hh.

### LAUSOA

- Aztikeriaz sorrarazia. D2143.3.
- Deabruak sorrarazia. D1361.1.0.4.
- Lausoari buruzko gezurrak. X1651.
- Lausoaren jatorria. A1134.
- Arima lauso itxurapean. E741.1.
- Ogroa lauso bilakatzen da. G522.1.

### LAINOA

- Mendi eme bati uztaitzen zaio. A969.2.
- Laino-izakiak lurrera bisitan. F33.
- Laino-jainkoa. A283.
- Lainoak erakusten du Kristoren jaiolekua. V211.1.3.
- Zorigaiztoko ikurra. Z156.
- Laino beltza etsaiaren aurka jaurtikia. D2091.11.
- Jainko bat lainoan. A137.11.
- Laino majikoa. D901.
- Santuak armada uxatu laino batez. V229.7.1.
- Iratxoa laino itxurapean. G304.1.2.1.

### HILOBIA

- Aberatsa opari-hilobira jausi. K1603.
- Erraldioen hilobiak. F531.6.13.
- Hilobi industearen jatorria. A1541.1.1.

### KRISTAUAK

- Kristauak eta erraldoiak. F531.5.8.

### JAURTIKI

- Zorigaiztoko jolasa: Mailoan behera amildu. K544.84.
- Garaitik jaurtikiz eho. S127.
- Inozoa amildegira jaurtiki. K891.5.3.
- Indartsu batek bestea jaurtiki hormatik behera. F528.2.2.
- Inozoari eragin horma gainetik jauzi egin dezan. K891.4.5.
- Heroia bultzakadaz amildurik. H1535.

### OPARIA

- Jakintsuaren odolarekin nahasturik. K1673.
- Giza-oparien odolaz lurra gorriturik. A1241.4.
- Buru-oparia. W28.
- Opari ankerra. S200.
- Oparien jatorria. A1545.
- Gizona opariki, tabua hautsi duela eta. C929.5.
- Miraria giza opari zain. K1785.
- Buru-oparia. S125.1.
- Jakintasuna erakutsi bere burua botaz. J173.
- Hobe heriotza giltzapea baino. J227.1.
- Hobe heriotza desohorea baino. J227.2.

Erreferentzia hauek ikerketaren hesparru orokorra osatzen dute, baina ikerketa hori ez da mugatzen noski, hauek guztiei buruzko kontsulta axalkari batzuk egitera. Goragoko ohar bakoitzaren barnean aurki daitezkeen erreferentziak, eta hauetako bakoitzak beriz erakusten dituenak, zuhaitz abartsu baten antzera zabaltzen dira, eta helburutzat dugun ikerlanak exhaustibotasuna eskatzen duenez gero, bide horien guztien urratzea nekagarriegi bihurtzen da, hizkuntza ez nazioartekoetan idatzitako testuek dakarten zailtasuna alde batera utzirik ere. Aukera bakarra beraz, bideetako bat hautatu eta hari azken ondorioetaraino lotzea litzateke. Eta hautapena, betazalen jasoeraren motiboa izango da, ondoren azaltzen diren arrazoiak direla medio.

Azterketaren konklusio gisa, lainoa, kontakizunaren esanahiaren gako nagusitzat jo badugu ere, argi dago ordea betazalen jasoeraren motiboak, lainoarenak ez bezalako zehaztasuna, bitxitasuna, eta apartekotasuna dituela. Honen bitartez zera esan nahi dugu, lainoa, eguraldi agerkari arrunta izaki, edozein garaitan eta edozein lekutan anitz errealitate abstraktu irudiratzeko balio ahal izan duela, eta balio izan duela izan ere; eta gaitasun honek noski, ereduak larregi aniztuz, ikerbidea nahasi eta oztopatzea ekar lezake ondorio. Bide honetatik sartuz gero, zoriarekin laino horren benetako esanahiari buruz oraingoz ia deus ere ez dakigularik, eredu pila handiegi baten erdian korapilaturik iparra galtzeko kinkan jarri gintezke.

Betazal jasoeraren motiboa, –zehatz bezain bitxia bistan dagoenez–, zalantzarik gabe bide hertsia gogotzat jo daiteke alde zuzenetik: Badirudi gainera askoz sinpleagoa izanen dela eta okerretan ez erortzeko lainoaren bide labainkorra baino seguruagoa eta menderagarriagoa.

Gainontzeko bideei dagokienez, argi dago orokorre-  
gi eta zehaztekeegiak direla aitzintasuna emateko. Izan  
ere, beste bide horiek, exhaustibotasun helburua bete-  
tzearren bide osagarri gisa aipatu ditugu bakarrik, eta be-  
ti bigarren mailan egonen dira, bide nagusiak agortzen  
ote diren zain, ordezeko gisa plazaratzeko.

Ikerketa beraz, betazalen motiboari lotzen zaio; eta  
zenbait aurkibide eta bilduma bibliografikotan zehar mia-  
keta luze eta sarritan nekagarriak burutu ondoren, ja-  
rriaian azalduko dugun korpua biltzea iritsi dugu. Esan  
beharra dago aurkibide eta bilduma horietan betazalen  
jasoera, irudiz nahiko hurbil zaizkion betile eta bekain lu-  
ze zintzilikarien jasoearekin nahasten dela sarritan. Gure  
korpus hau, hamaika kontakizunek osatzen dute, haueta-  
riko lau Frantziako liburutegetian kausiezinak direlarik:  
Finlandia, Britainia Handia, Alemania eta Hungariatik eka-  
rri behar izan dira. Beraz, ez da inolaz ere oso zabaldua  
edo ezaguna den motibo bat gure aurrean daukaguna.

Gure ikerketa lana, betazalen jasoearen bidean ba-  
rrera sartu badugu, motibo horren zehaztasuna eta itzel-  
tasuna lagungarri izanen zaizkigulakoan egin dugu.  
Alegia, eragiketa hain bitxi eta apartekoa izanik antzeko  
ereduren bat azalduz gero, bien artean jatorkidetasuna  
izanen zela pentsa liteke alde aurretik, zeren kasualitate  
izugarria behar bailuke, halako detaile bitxia elkarren ar-  
teko loturarik ez duten bi kontakizunetan erabat etenki  
agertzea. Halabaina, errealtateak ez ditu aurrikuspen  
hauek baieztatzen, zeren gure korpuseko kontakizun  
gehienek ez baitute gure ikergaiarekin zerikusirik. On-  
doren azaltzen dugun hauetako aurreneko kontakizune-  
an, eragiketarik antza handia du guk ezagutzen dugunare-  
kin, baina bere esanahia arras aldatzen duen testuinguru  
berri batean murgildurik ikusten dugu.

Hungarieraz argitaraturiko ipuin bat da, eta Buda-  
pesteko Szecheny Liburutegi Nazionaleko liburuzaina  
den ANDRAS BARKOCZI jaunak, –nire eskabideari jator  
erantzunez–, ingeleraz egindako laburpenari esker izan-  
en dugu honen berri<sup>20</sup>:

... *testuingurua zera da, heroiak, bere hara eta hona-  
ko ibileran, zahar batekin topo egiten du, honako baldin-  
tza hauetan: Belaze baten erdian bere oinatza adinako  
zulo bat ikusten du, bertatik ke uhinak jalgitzen direlarik.  
Zurubi batez jaitsi daitekeela somatu eta bertan zein piz-  
ti mota bizi ote den hasten da hausnarketan. Zurubitik  
jaitsi eta betazalak lau burdin-hagaz eutsirik dituen agure  
zahar bat ikusten du sutondoan. Agure zahar horri bere  
haratonen arrazoia azaltzen dio, –beranduago itzuliko  
naiz horretara–, baina ezin du harengandik laguntzarik ja-  
so. Hurrengo goizean, bideari jarraiki, eta ilunabarrean,  
aurreko zuloaren berdina den beste batera heltzen da.  
Bertan, betazalak sei burdin-hagaz eutsirik dituen agure  
zaharra topatzen du. Honekin ere gauza bera. Baina hiru-  
garren ilunabarrean, aurreko bi agureen anaia nagusia  
topatzen du, betazalak hamabi burdin-hagaz eutsirik di-  
tuelarik, eta katu txiki batzuk betazal horietan etzanik.*

*Motibo hau ez da gehiago ostera agertzen ipuinean.  
Heroiak ez du agure zahar horiengandik behar duen la-  
guntza iristen, baina hauetako bakoitzak etxea eskain-  
tzen dio gaua igaro dezan.*

*Motiboari dagokionez, espero dut konformatuko ja-  
rela honenbesterekin, eta orain, zure eskakizuna betez,  
ipuin osoaren laburpena ematen saiatuko natzaizu.  
Transilvaniako Szovata-n bildutako ipuin harrigarria da.  
Bere izenburuaren itzulpena zera da, "Pipermin-ale he-  
roia eta Julia ederra, basoa berde eta larrea loretsu egi-  
ten duena".*

*Pipermin-ale heroia, ingeles Tom-thumb heroia-  
ren baliokidea da gutxi gorabehera (eta euskal Kukubiltxo-  
rena beraz).*

*Bere izena, pipermin alea bezain txiki eta indartsua  
izatetik dator. Izan ere, bere amak irentsi duen piper-  
min ale batetik jaiotzen da, eta oraindik sabelean dagoe-  
larik Julia ederrarekin ezkonduko dela hitz ematen zaio...*

Ez dut oso osorik BARKOCZI jaunak hain jatorki igorri  
didan laburpena hemen azalduko, aski eta sobera baitu-  
gu orain arte erakutsitakoarekin, gure aurrean zein kon-  
takizun mota dugun argi eta garbi ikusteko. Jentil zaha-  
rraren betazalen jasoea testuinguru hutsune baten era-  
ginez suertatzen bada ulertezina orain arte ikusi ditugun  
euskal kontakizunaren bertsioetan, akats hori eta hutsu-  
ne hori are eta nabarmenagoak dira ipuin harrigarri hutsa  
den hungariar kontakizun honetan, bertan betazalen ja-  
soerak funtzio apaingarria besterik ez baitu. Ez dauka  
honezgero inongo adierazmami edo esanahi zehatzik; al-  
derantziz, antzeko beste askorekin batera, irudi bitxi eta  
harrigarri bat izatea du funtzio bakarra, ipuinaren giroga-  
rria izatea alegia.

Sailkapen argi eta zehatza egitea sarritan ahalezkoa  
ez bada ere, kasu honi dagokionez bederen bistan dago  
Jentilen Akaberaren kontakizuna mito bat dela, eta hun-  
gariar kontakizuna aldiz, bere Kukubiltxo eta agure zahar  
hirukoiztuarekin, ipuin harrigarrien sailean sartu behar  
dela nahitaez.

Mito eta ipuin harrigarrien arteko maileguak bi nora-  
bideetan gertatu ohi dira, baina aztertzen ari garen kasu  
zehatzari bagagozkio, alde aurretik bazter daiteke eus-  
kal mitoaren hungariar kontakizunatik edo beste edo-  
zein ipuin harrigarritiko mailegua, honako bi arrazoioek di-  
rela eta: alde batetik, betazalen motiboa erakusten du-  
ten euskal bertsioen kopurua garrantzitsuagoa da moti-  
bo berori ipuin harrigarri testuinguruan azaltzen duten  
kontakizunena baino, kontutan hartuz noski, Euskal  
Herriaren tamaina eta ipuin harrigarri horiek bildu diren  
lurraldearena. Eta beste aldetik, zera hausnartu behar  
dugu, mito batek motibo bat maileguz hartzen duenean  
ipuin harrigarritik, motibo horrek harrigarri izaten dirauela  
mitoaren barnean ere. Mitoak bere osakin guztiak ulerta-  
razteko testuinguru argibideak dauzka, eta beraz, inoiz  
testuinguru argibiderik gabeko harrigarri hutsa den ele-  
mentu bat bereganatzen badu, bereganekta hori ez da  
istilu larriak sortu gabe burutuko. Betazalen jasoearen  
motiboak jentilen akaberaren mitoan hain egonera ore-  
katua eta borobila ukateak atzera botatzen du, motibo

20) MAGYAR NEPKÖLTÉSI GYUJTEMENY VII. 6. zb.

hori ipuin harrigarri batetik hartu duela esango lukeen hipotesia. Honela izan balitz, detaile hori jentil igarlearen zahartasuna indartsuago azpimarratzearen erabilia zatekeen, eta badakigu gauzak ez direla honela: Betazalen jasoera lainoaren agerkundearekin eta honen irakurketa eta interpretazioarekin lotzen du kontakizunak. Jatorrizko esanahi honen gaizki ulertu batek bakarrik ekarri du jentil igarlea zahartzat jotzen duen arrazionalizaketa. Beraz, esandakoaren ondorioz, jentil igarlea jatorriz zaharra izanik betazalen jasoera zahartasun horren irudi erakusgarri gisa sartu izan litekeela dioen hipotesia erabat bazterturik utzi behar dugu.

Alderantziko hipotesia beraz, egiantzekoagoa dugu: Ipuin harrigarriak, kontakizun mitikoren bati maileguz harturik ukanen luke betazal eutsien motiboa, irudi honen bitxitasuna eta indar espresiboa bere baitan girogarri gisa erabiltzeko asmoz. Bere jatorrizko testuinguru mitikoan funtzio bat bete eta esanahi zehatz bat eduki zuen ekintza, apaingarri soila bilakatzen da honela ipuin harrigarriaren baitan, dekoraziozko zera, funtsik gabeko anekdota hutsa.

Mailegu hau non, noiz, eta nola burutu ote den ezin dugu noski asmatu, oraingoz behinik behin, ikerketa hasi berri honen lehen urratsetan gabiltzalarik. Dena dela, galdera horiek erantzutea ez da gure ardurapeko arazoa.

Azkenik, eta posibilitate teoriko gisa, bi motiboen jatorri loturabakoaren hipotesia aintzat hartu beharra dago, motiboaren bitxitasunak nahiko sinesgaitza bihurtzen badu ere.

Zernahi den, hungariar kontakizun honek eskaini diezagukeen argibiderik nagusiena zera da, hain zuzen ere, bera eta euskal mitoaren arteko lotura zuzenik ez dagoela. Hurbiltzen saiatzea alferrikakoa litzatekeen bi magnitute ezberdinak dira.

Ikerketa honen aztergaia den motiboa erakusten duen bigarren kontakizuna, Hungariatik datorkigu baita ere, eta aurrekoarekin antz handia ez ukan arren, biak batera datoz motiboaren erabilpenari dagokionez, hemen berriz ere, apaingarri eta girogarri hutsa bilakatzen baita. Kontakizunaren hasiera hasieran agertzen zaigu<sup>21</sup>:

*Non zen, non ez zen, zazpi aldiz erresuma urrun, eta haratago, Itsas Gorrietaz bestalde, baina haratago oraindik, nire amonaren etxea baino urrunago, hantxe bizi zen lurraren gainean errege bat. Hiru seme zituen. Dagoeneko oso zaharra zen, eta betazalak burdin-hagaz eutsi behar zizkioten. Behin honela mintzatu zitzaizen semeek: "Semeok, Gaztetasunaren eta Heriotzaren Ura eta Urrezko Ahotseko Txonta ekartzen badizkidazue, orduan nire Erresuma osoa emanen dizuet..."*

Aurreko kasuan bezalaxe, ipuin harrigarri tipiko baten aurrean gaude. Erregeak, Gaztetasunaren Ura eta Urrezko Ahotseko Txontaren bila igortzen ditu bere hiru semeak, hauetatik bere eskakizuna beteko duenari erre-

getza hitz emanez. Betazalen jasoera berriz ere, pertsonaia horren zahartasunaren erakusgarri bitxia baizik ez da, ez baitu bestelako inongo garrantzirik, eta izan ere, ez da gehiago agertzen ipuinean zehar. Beraz, osteria ere, jentilen akaberarekin inongo estekarik ez duen kontakizun batekin gabiltza, eta bere balio bakarra, gure ikerketarekiko bere zer ikusirik eza azpimarratzea litzateke.

Urrezko Ahotseko Txontaren ipuina dakarren ipuin bildumaren oharren atalean, berriro ere gure motiboa aurkezten duen ipuin berri bati buruzko erreferentziak aurkitu genituen. Hungariar kontakizun bat hau ere. Ez dut halabaina horren bila aritzeko nekerik hartu, garbi baitago bi aurrekoen tankera beretsukoa dugula. Hona hemen erreferentziak zioena<sup>22</sup>:

*... eta beste (ipuin) batean,... 336 urteko (erregearen) betazalak burdinazko pertika batez gora jaso behar dituzte eta honela eutsi, bere aurrean duen erregina ikus ahal dezan.*

Hungaria laga eta Errusiara helduz, "Ivan behiarena" eta "Ivan "Katurena" deritzaten bi ipuin aurkitzen ditugu, eta bertan, heroiarekin borrokatzen den sorginaren senarrari begien gainetik jausten zaizkion bekaina iletsu luzeak burdin urkuluz nola jasotzen dizkioten ikusiko dugu. Ez da doiki bila gabiltzan motiboa, baina aurkibideek sarritan nahasten dituztenez, eta honela, bekain luze horiek bidean topatu ditugunez, orrialde hauetan azalduko ditugu, irakurlearen begiean ipintzeagatik besterik gabe. Ivan Behiarena, AFANASIEV bildumako<sup>23</sup> ipuin bat dugu, RALSTON-ek<sup>24</sup> ere komentatzen duelarik. Ikus dezagun zer nolako itxura duen sorginaren senarrak:

*(...)Sorginak lurpera eraman zuen Ivan-Behiarena, eta bere senarrarenganaino gidatu. Agure zahar bat zen: "Hona hemen, -esan zuen sorginak-, gure hondamena ekarri duena!"*

*Agure zaharra burdinazko ohe baten gainean zetzan, eta ezin zuen deus ere ikusi: Bere betile luzeak eta bere bekain iletsuek begiak erabat estaltzen zizkioten. Hamabi erraldoi indartsu etorrazazi eta honela agindu zien: "Burdinazko sardeak hartu eta jaso nire betile eta bekain beltzak; nire semeak ero dituen ikusi nahi dut eta!" Erraldoiek betileak eta bekainak jaso zizkioten sardeekin; zaharrak honela esan zuen: "Ah Vanioutcha jaso! Zu izanen ote zara nire umeekin indarrak neurtzera ausartu dena? Zer egin behar ote dut zurekin?"*

*"Zeure nahiaren arabera egin; edozertarako prest nago."*

*"Alferrikako berriketak: Honezgero ezin ditugu gure semeak piztu; hobe, egidazu mesede bat. Zoaz erresuma ikuseziner, herri izaneziner, eta urrezko ilekun printzesa lor iezadazu; emaztetzat nahi dut." (...)*

*Iban-Katuarenak topatzen duen agure zaharra ere, aurrekoaren parekoa dugu<sup>25</sup>:*

22) Ber. 296 orr. (Anmerkungen 19 zb.).

23) AFANASIEV, aip.id. 90 orr.,26zb.: "Ivan-de-la-vache" (AT300B)

24) W. R. S. RALSTON. "Russian Folktales" London 1873/72 orr.

25) G.J.SCHULTZ. (BERTRAM). "Sagen von Ladogasee" Helsingfors 1872. 25 orr 24 zb.

21) E. RONA-SKLAREK. "Hungarische Volksmärchen" II.alea 209.orr. 19 zb.: "Der Fink mit der goldenen Stimme".

(...). *Ivan jo zuen konortea galaraziz, eta Wisslobrowü (Bekainzintzil) erregearengana eraman zuen, herensuge-emea baitzen, -hain zuzen ere (Ivanek eho zuen) hamabi buruko herensugearen alarguna-*.

*Wisslobrowü erregeak, aurpegia estaliz lurreraino jausten zitzaizkion bekain luzeak zeuzkan. Ivan bere aurrera eraman zutenean, honela oihukatu zuen: "Aurrera bitez zazpi gizon eta jaso biezazkidate bekainak aurpegiaren gora, zaldun itzel hau nire begiz ikus dezadan."*

*Luzaz behatu zuen eta ondoren honela mintzatu zen: "Nire herensuge bikainenak ero dizkidazu, eta hauen emazteek eta neronek orain zera diogu: "Nola zigoritu behar zaitugu?" (...)*

Azken bi testu hauetan, bekainen jasoeraren irudiak itxura beldurgarria harrarazten die azti zaharrei. Horixe da hain zuzen, eta ez beste, motiboaren helburua, horretaz gain ez baitu inolako euskarri etnografikorik. Berriz ere, bi ipuin harrigarri baino ez dira, eta motiboak (guk bilatzen dugunaren senide hurbila seguru aski) bertan duen funtzioa, detaile bitxi izatearena besterik ez da.

Honaino plazaratu ditugun bost kontakizunotan, deskribapenari dagokionez jentil igarlearen betazalen jasoearekin antza handia duten bi motibo azaldu zaizkigu: Agure zaharraren betazalak edo bekainak hazaz, pertikaz edo sardeaz jasotzen dituzte zenbait gizonek edo zenbait erraldoik, nolahi ere zahar horien erraldoitasuna nabarmenaraziz. Deskribapenaren mailako antza, asegarria da benetan, baina ipuin harrigarri testuinguruan aurkitu ditugunez gero, alferrikakoa litzateke euskal mitoari hurbiltzeko edozein saio.

Ondoren datozen lau testuak aurrekoen alderantziko egoeran daude nolabait. Ez dago lauren artean ipuin harrigarritzat jo litekeen bakar bat ere, eta gutxienez bi, mitoak dira argi eta garbi. Baina beste aldetik, bertan aurkituko ditugun betazal jasoeak ez dute guri dagokigun motiboarekin zer ikusirik. Betazal jasoea motibo bitxi eta apartekoa izan arren, zenbait kultura ezberdinetan agertzen da halere, protagonista eta funtzio berriak dituelarik. Ondorengo bi testuetan betazalen jasoea logura saihesteko helburura zuzendurik ikusten dugu<sup>26</sup>. Hona lehenengo, Ipar Amerikako indioen kontakizun mitologiko bat<sup>27</sup>:

*Mundua sortua izan zen eta gero gizona. Hurrengo egunean, honek piztien artean indarra banatu behar zuen bere gogoaren arabera, eta horretarako, gezi luze edo motzagoak eman behar zizkien. Larreetako otsoa, denetan indartsuena bilakatu nahi baitzuen, gau osoa itzarturik ematen saiatu zen, hurrengo goizean gezia hautatzeko garaian aurrena izateko asmoz. Ondorioa zera izan zen, alegia, egunsenti aldera loak hartu zuela betazalen artean zotzak ipini bazituen ere. Piztia guztiek nork bere gezia eskuratu zuten, baina larreetako otsoa ez zen inon ageri. Gizona bere bila hasi zen, eta lo aurkitu zuen betazalak zotzek barrutik kanpora iragazirik. Ordurako gezi txikiena bakarrik geratzen zen banatzeke.*

26) Helburu berbera agertzen da halaber C.H.SCHARLING-en "Zur Neujahrszeit im Pastorat zu Nöddebo" eleberriko pasarte batean, baina bertan, protagonista gazteen denborapasako jolasa baino ez da. Ikerketa ahaleginak nekoso eta frustragarri bihurtzen dituzten erreferentzia okerren eredu bikaina dugu hau.

27) O. DÄHNHARDT. "Natarsagen" III.alea/147 orr.

*Gizonak otoi egin zuen otsoaren alde eta maltzurkeria handia egokitu zitzaion konpentsazio gisa.*

Mendebaldeko Mongoliako Siddi-Kür herriko emakume batek, ondorengo kontakizunean azaltzen denez, ustekabean egin duen oker bat zuzentzeko zazpi egun eta zazpi gau igaro behar ditu itzarririk, baina azkenean porrot egingen du amerikar larreetako otsoaren antzera, bere iraupena bikaina izan arren<sup>28</sup>:

(...) *Andreak makila eskuetan hartu eta "luma-belarra"-ren (Stipa pennata) kikiluz betazalak zabaldu eta eutsi zituen. Ondoren, honela eman zituen sei egun eta sei gau itzarririk, baina zazpigarren egunean instant batez burua erori zitzaiolarik, jainkoek eta deabruak, Itsali, -txori etxea zeukan gizona-, bertan bahitu zuten. (...)*

Betazalen jasoea logalea saihesteko erabiltzen den kontakizun hauetan gure ikergaia den mitoarekiko estekarik eza hain borobila eta begibistakoa izanik, ez du mezezi beste inongo komentariorik gaineratzea. Eta hauen ondoren, beste bi kontakizun plazaratuko ditugu, bertan, nor bere betazal zintzilikarien jasoeaz inoren laguntzarik gabe arduratzen delarik. Baina orain, eragiketaren helburua ez da itzarririk eustea izanen, muturren aurrean dagoena ikustea baizik. Asmoen mailako bateratasun honek halere, ezin ditu, kontakizun hauen eta euskal mitoaren arteko dibergentzia sakonak estali. Izan ere, aipatu motiboaz beste, gainontzekoan ez dute inongo bateratasunik.

Ikus dezagun lehenengo Ipar Amerikako seneca indioen leienda hau<sup>29</sup>:

*Orduan Hodadeñon abiatu zen. Hor zehar lasterka zebilela, hotsak entzun zituen, dum dum dum! Berak bazekien hots hori Deagahgweoses izeneko gizonak sorrazten zuela, mazoaz ehotuz tabakoa egiten zuenean. Txabolara heldu zenean, agure zaharra barnean jezarrita ikusi zuen, tabakoa joaz eta honela kantatuz: "He yondiengonni goyengwayen gens", alegia, "batek tabakoa egiten duenean tabakoa eduki ohi du beti". Eta tabako bilguak prest zeudelarik, zuhaitz azalezko sokaz lotzen zituen. Berari zuzenduz, Hodadeñon honela mintzatu zen zenbait aldiz: "Kaixo osaba, zure txabolara etorri natzaizu", baina zaharrak ez zuen jaramonik egin. Orduan Hodadeñonek, bertan zegoen mazo txiki batez zarta jo zuen buruan, bide batez esanaz, "zu ikustera etorri natzaizu osaba!". Baina orduan ere, Deagahgweoses-ek ez zion jaramonik egin bisitariari. Hodadeñon-ek berriz, beste zartakoa eman zion esanaz, "osaba, zuri bisita egitera etorri naiz!" Orduan zaharrak honela esan zuen, "saguet harrizko bola behera bota dutela uste dut", baina bere horretan jarraitu zion tabakoa ehotzeari. Orduan Hodadeñon-ek zartako latza eman zion, eta horrekin zaharrak aurpegitik behera bizarreraino jausten zitzaizkion goiko betazalak jaso zituen. Zuhaitz azalezko sokaz lotu zituen kontu handiz, eta txirla oskol batez igurtziaz begi barneko zikin zolda atera zuen esanaz, "nor bait txabolara etorri zaidala iruditzen zait". Orduan bere ingurura begiratu eta Hodadeñon ikusiaz zera galdetu zion, "zertarako etorri*

28) B. JÜLG. "Die Märchen des Siddi-Kür" Leipzig 1866/91 orr. VII zb.

29) J. CURTIN & N. B. HEWITT. "Seneca fictions, legends and Myths" Annual Report of the Bureau of American Ethnology aldizkariaren 32. zbk. 213 orr.



zara?, zer nahi duzu?". Hodadeñon-ek erantzun: "Tabako eskean etorri naiz". Zaharrak tabakoa ukatu egin zion bere bisitariari esanaz "ez duzu hemen tabakorik hartuko". Eta "akabatuko haut" deiadarka hasi eta Hodadeñon-en atzetik jarraika joan zitzaion ateetatik kanpo txabolaren inguruan borra handi bat eskuetan zeramala. Hodadeñon-ek aise egin zion ihes, eta aurki atzean urruti utzi zuen. Azkenik, gelditu, itzuli eta aurre egin zion zaharrari; bi gezi jaurtiki eta honela hil zen Deagahgweoses.

Azaltzen ari garen testu hurrenkera honen ekarpen bakarra zera erakustea da, bilaketa exhaustibo baten ondoren euskal mitoarekin loturik egon litezkeen bi testu baizik ez daudela. Eta hurrenkera honi amaiera emateko, Erdi Aroko testu bat dakargu: Bertan, Lancelot-ek gau beltzean baso itxi baten erdian topatzen duen izakia deskribatzen zaigu: Itsusikeria guztiak biltzen dituen mamu honek, noski, betazal zintzilikari luzeak dauzka beste grazien artean. Testua ez dut itzuli, –eta hau da salbuespen bakarra lan honetan zehar–, neurtitzetan emana dagoelako<sup>30</sup>:

*Ja estoit mienuis passee  
Quant il a devant lui trovee  
En la foriest une maison  
Ne sai de quele region.  
Li maisons toute ouverte fu.  
Il garda ens, si vit .i. fu  
Qui mout cler argoit par encant,  
Et il vint ens acevaucant.  
Sor une torce de lihue  
A une figure veue  
Dont il s'est mout esmerveillés  
Ne sot a dire ce sachiés  
Se ço fu hon u femme u fee,  
Mais longement l'a esgardée.  
Sachiés que plaisans n'estoit mie.  
Sor ses genous s'est endormie  
Et sor ses .ij. bras par avant.  
Il li va deriere et devant,  
Il va a diestre et a siniestre  
Mout s'emerveille que puet iestre  
Qui la dormoit dalés ce fu.  
Quant mout emerveillés s'en fu,  
Se perçut que c'estoit femiele.  
Mais n'ert pas mignote ne bele.  
.....  
.....  
Dont primes a ouvert ses oex.  
A ses mains qui ne sunt pas bieles  
Autresi con .ij. fenestreles  
Leva ses paupieres amont  
Desor son cief devant son front  
Et atacha a .ij. coustices  
Con .ij. feniestres collïces;  
Car cornes avoit sor la tieste  
Ausi comme sauvaige bieste.  
La ou les coustices tenoient,  
Qui les paupieres sustenoient,  
.ij. grans crocés de fier forcié.  
Eut ses paupieres eforciés.*

30) H. BREUER & W. FORSTER. "Les merveilles de Rigomer" / 100 hk.

Egia da zenbaitetan, Erdi Aroko testuetan paganismo zaharreko tradizioen oihartzun eta oroitzapen eraldatuak agertzen zaizkigula, eta hein horretan, litekeena da betazal luze hauen jasoerak gure motiboaren senideren batekin lotura urrun bat edukitzea. Baina dena den, argi dago "femiele ne mignote ne bele" hau gure jentil jakintsuarengandik urrunegi dagoela edonolako hurbilketa saiotan hasteko. Beraz, laburki, testu hau, aurretik pasa diren beste zortziak bezalaxe, euskal mitoaren esanahia ikertzeko bide antzu bezala agertzen zaigu.

Orain, eta jentilen akaberaren leiendarekin zenbait bateratasun erakusten duten azken bi testuak aipatu baino lehen, bibliografia inkesta honi buruzko zenbait hausnarketa proposatzeko une egokia digu.

Inkestan exhaustibotasun osoa iristea ia ezinezkoa da epe labur edo ertainean, eta noski, gure saio honek ezin izan du helburu ideal hori lortu, alegia, betazal jasoera eta horren hurbilean dauden beste zenbait motibo azaltzen dituzten testu guzti-guztiak aztertzea. Une honetantxe badira, kontsultatu ezin izan ditugun hiru erreferentzia, bertan iragarritako testuak eskuragaitzak direlako, edota erreferentziak berak behar bezain zehatzak ez direlako. Hiruotako aurrenekoak, "Robignone-ko Herri-Alegiak" deritzan liburu italiar batera garamatza; bigarrenak, "Ipuinen Mundua" deritzan idazti alemaniar batera; eta hirugarrena, tamalez, zehazten ez den MOE delako norgetar baten idazlanei dagokie.

Italiar liburuaren izenburuko "alegiak" horrek, gure motiboa ipuin harrigarri testuinguran azalduko dela uste-arazten digu, azterturiko ipuin hungariar eta errusiarretan bezalaxe; "Ipuinen Mundua" aipatzen duen erreferentziak gure motiboa Birmaniako ipuin batean azaltzen dela zehazten digu, eta honek noski, ia alde zehatzetik baztertzen du eredu hau gure ikerbidetik; beraz, apika interesgarria litzatekeen posibilitate bakarra, noizbait aurkitzea espero dudana norgiar kontakizunean geratzen zaigu.

Azken bi testuen zain gaudelarik, eta norgiar erreferentziak egin berri dugun zehaztapena kontuan harturik, aurkibide eta bibliografia bilduma ospetsuetan zehar burutu dugun lan eskeraren gainontzeko fruitu guztiak, –euskal mitoaren antzera betazal jasoeraren motiboa erakusten duten kontakizunak alegia–, ez digute benetan laguntza handirik eman, ez baitute jentilen akaberaren mitoarekin areagoko bateratasunik azaldu, ez eta betazalen jasoera hobe uler dadin inongo datu berririk plazaratu.

Zenbaitetan, motibo nagusiaren helburua eta ezauzgarriak, gurearen bestelakoak zirelako, eta beste zenbaitetan, motiboaren deskribapena euskal bertsioari hurbilgarri izan arren, testuinguruak semantikoki mamigabeta uzten zuelako, zernahi izanik ere, azken buruan, inkesta honen emaitza arrunt ezkorra izan da honaino. Halere, ezkerkeria honek, ikerketarako argibide interesgarriak eman ditzake. Lehenengo, gure istorioaren barkartasuna argitan ipintzen du, eta ondoren eta ondorioz, biziki zaharra ote deneko ustea zabaltzen du, jatorrizko testuinguru arras ahantzirik zegoela ohartu garenetik hartu gaituen susmoa indarberrituz. Barkartasun horrek halaber, zera adierazten digu, inoiz euskal mitoaren antzeko kontakizunik aurkitzen badugu, ahaidetasun lotura

izanen dela ziur aski bien artean, zeren eta zenbat eta bakarrago izan kontakizun bat, orduan eta nekezago gertatu ahal izanen da horren bi bertsio zein bere aldetik eta inongo loturarik gabe sortuak izatea, eta elkarren artean duten antza kasualitate hutsari zor izatea.

Azaltzeko geratzen zaizkigun bi testuetako aurrenekoak ez dizkigu, jentilen akabera aztertuz geroztik agerian ipinitako enigmak ulertaraziko; baina halere ez litzateke justiziazkoa izanen, aurretik bota ditugun bederlatzi kontakizunen ondoan sailkatzea, zeren eta bertan aurkituko dugun pertsonaia batek, gure jentilarekiko antzekotasun zenbait erakusten baititu, bien arteko hurbilketa saioa ahalezkoa eginez. Xehetasun ttipi bat besterik ez da, baina bada zerbait. Pertsonaia honek, Yspaddaden Penkawr du izena, eta gaiztoarena egiten du galestar Mabinogion leienda bildumako honako kontakizun honetan, Kulhwuch heroia bere alaba Olwen-ekin ezkon ez dadin behin eta berriz alferrik saiatuz. Alaba honen edertasunaren deskribapenez hasiko gara hain zuzen<sup>31</sup>:

*Bere ileak espartzaren lorea baino horiagoak; bere larrua uhinaren aparra baino txuriago; bere esku eta eriak iturri batek beteriko urmahalean ageriratzen den urretako hirusta berria baino diztiratsuago; lehen lumaberritzea egindako aztorearen begirada eta hirurgarren lumaberritzea egindako aztorarrarena ez ziren berea baino argiago. Bere bularra zisnearen paparra baino txuriago, bere musuak larrosarik gorriena baino gorriago. Ezin hura ikusi bertan harenganako maitasunaren zitzada barnean sentitu gabe. Lau hirusta zuri jaiotzen ziren haren oinatzetan noranahi zihoalarik: Horregatik ipini zioten Olwen (oinatz zuria) izena.*

*Sartu zen (Olwen) eta banku nagusian jazarri zen Kulhwuch-en ondoan. Honek hura ikusi zuelarik berehala ezagutu zuen: "Neskato, –deiar egin zuen–, zu zara bainik maite nuena. Nirekin etorriko zara biok bekatua ekin dezagun. Aspaldi honetan maite zaitut".*

*–"Inola ere ezin dut, –erantzun zuen neskak–, nire aitak zera hitz ematera behartu nau, alegia, bere onespenerik gabe ez dudala alde eginen, ni senar batekin partituz gero, bera ez bailitzateke luzarago biziko. Halere bada nik eman diezazukedan aholku bat, horren arabera jokatu nahi baduzu. Zoaz nire eske nire aitarengana; eskatzen dizun guztia egin iezaiozu, eta horrela neroni ere ukanen nauzu. Zerbaitetan ezezkoa ematen badiozu, bertirako galduko nauzu, eta nahiko zoriontsutzat jo ahal izanen duzu zeure burua, bizirik ihestea iristen baduzu".–*

*"Dena aginduko diot eta dena izanen dut".*

*Neska bere egoitzarantz abiatu zen, eta heroi gazteak hari gazteluraino jarraitzeko jaiki ziren. Bederlatzi atee-tan jagole zeuden bederlatzi atezainak ero zituzten, ezeinek ere garrasirik egin gabe, eta bederlatzi orak ere inolako oihurik gabe, eta egongelan sartu ziren zuzen zuzenean.*

*–Kaixo, –esan zuten–, Yspaddaden Penkawr erraldoien nagusia, jainko eta gizonen izenean.*

*–Eta zuek zertara zarete hona etorriak?*

*–Zure alaba Olwen gure Kulhwuch Kilydd-en semearentzat, Kelyddon-go printzearen semea denarentzat eskatzera gatozkizu.*

*–Non ote dira nire morroi aluok? Jaso itzazue nire bekainen azpiko sardeak, bekainok begiak estali dizkidate eta. Ikus dezagun gure suhigaia.*

*Hau eginik, honela mintzatzen zaie:*

*–Zatozte bihar berriro eta erantzuna izanen duzue.*

*Irteteko jaiki ziren: Yspaddaden erraldoien nagusiak, eskura zituen hiru lantza lupuztuetako bat atxiki eta haiei jaurtiki zien. Bedwyr-ek airean hartu eta etorri bezala bidali zion, eta lantzak belauneko errotula apurtu zion:*

*–Suh basapiztia madarikatua! Nire bizitza osoan izorratuko zidak honek malkarrean ibiltzerakoan. Mandeuliaren helduaren adineko oinazea eman zidak burdin lupuztatu honek. Madarikatua bedi bera egin duen arotza, eta madarikatua bera jotzerakoan azpian zuen ingudea.*

Begi bistan dagoenez, testu honek ez du jentilen akaberaren kontakizunaren antzik inondik ere, baina bere azterketa ez da halere erabat antzua. Egia da, noski, testuak Yspaddaden gaiztoaren begietan behera jausten diren bekain luzeetaz hitz egiten digula, eta ez ordea betazal zintzilikarietaz. Egia da halaber, printzesa xarmanta eta printze gazte ausartaren arteko amodioei buruzko istorio honek ez duela jentilen suntsikera harrigarriarekiko inongo bateratasunik. Halabaina datu interesgarri bat badauka, eduki: Bekain luzeak jaso behar zaizkion pertsonaia "erraldoien nagusia" dela esanez aurkezten zaigu. Ez da engoitik ipuin harrigarrietako izengabeko agure zahar bitxi hura, baizik eta "erraldoien nagusia", jentilen nagusia alegia, eta honek gure mitoko jentilarekiko bateratasun garrantzitsua plazaratzen du.

KULHWUCH eta OLWEN-en istorioa ez da noski erraldoiaren mitologiaren kontakizun bat, indoeuropar heroiaren mitologiaren zati bat baizik. Azkenik OLWEN-ekin ezkontzea eta honen aitari lepoa moztea erdietsiko duen KULHWUCH honen balentriek zera ekartzen digute gogora, alegia, mota guztietako erraldoiak akabatuz, –erraldoi eme ederren baten amodioa iristearren zenbaitetan–, garatzen diren Thor jainkoaren abenturak. Bi heroion kasuetan, erraldoiek ezaugarrikidetzat nabarmena azaltzen digute: Bereizgarri tipikoak, inozokeria, gaiztakeria, eta mamutzar bihurtzen dituzten itsuskeria eta elbarrikeria izan ohi dira. Bistan dago indoeuropar jainkoek (germaniar eta zeltek batik bat) konkistaturiko lurraldeetako biztanle jatorrak omen diren izaki hauek ez dutela oso eder ematen, beraien garaileek egindako argazki horretan.

Erraldoiak dira beti gaizkileak bi mitologia hauetan, eta honek ulertarazten du YSPADDADEN PENKAWR-en hala-beharrezko nortasun gaiztoa, eta betazal jasoeraren apikako bilakaera, bekain luze iletsuen jasoera izateraino, azken hau gaizto irudikoago eta beldurgarriago delako edo.

Zernahi dela ere, gertakari hauek mitologiako testuinguru batean aurkitu ditugula eta, honek, euskal mitoko jentila eta galestar erraldoi honen artean loturaren bat izateko posibilitatea plazaratzen du, ikerbidearen une honetan oraindik zehaztezina gertatzen den lotura, baina

31) J.LOTH. "Les Mabinogion" / 118h.

gure motiboaren urritasun nabarmena ezagutu ondoren, kasualitate hutsari eragoki ezin dakiokkeen lotura halere.

Eta orain, testu bat baizik ez dugu aurkezki, hain zuzen ere, inkesta ahalegin guztien ondoren, –eta ez dira hutsalak izan, exhaustibotasunaren ideala erabat iritsi ez badugu ere–, euskal leiendari hurbiltzeko moduan

kausitu dugun bakarra. Bertan, ikergai dugun motiboa, lainoarena eta giza talde handi baten akaberarena ere dakartzan gertakari hurrenkera berebean lerrokaturik, eta zeharo mitologiakoa den testuinguru batean murgildurik agertuko zaigu.

## V. MAG TUIRED-EKO GATAZKA

Moytura edo Mag Tuired-eko gatazkaren kontakizuna, Irlandak ezagutu dituen inbasio mitologikoetako azkenurrekoaz mintzatzen zaigu. Konkistatzaileak, Tuatha De Dannan direlakoak dira, De jainkosaren senitarreak alegia; Moytura-ko zelaietan bi gatazkatan gailen geratu ondoren, –Fir Bolg direlakoan aurka aurrena, eta Fomore direlakoan aurka hurrengoan–, irlako nagusi berriak bilatzen dira. De jainkosaren senitarreak hauek zelden kultura irudiraten dute, hauen artean azaltzen baitira zelden zibilizazioaren jainko nagusien irudirapen euhemerizatuak, gizaratuak alegia. Bi gatazkatan zatituriko konkistaldi honen istorioan, daramagun ikerketarako benetan adierazkor zaizkigun honako bi pasarteok aurkitzen ditugu. Aurrenekoa, ganduzko laino batzuetaz mintzatzen zaigu<sup>32</sup>:

*De senitarreak flota handi batez heldu ziren Irlanda-ra Bolg-gizonei irla indarrez kentzeko. Corcu Belgatan-go lurraldera (gaurko Connemara-ra alegia) heldu orduko, itsasuntziei su eman zieten, atzera itzuli ezin izateko, eta untzietatik zetozen keak eta gandua zeru lurra bete zituzten haien inguruan; horregatik hain zuzen esan ohi zen ganduzko lainotan heldu zirela.*

Bigarren pasarte berriz, betazal jasoera batez mintzo zaigu (begi-bakar baten betazalaren jasoeraz zehazki), eta bertan, motibo honek, bere euskal adierazkidearen kasuan bezalako esanahi zentzuna eta kokapen ego-kia azaltzen ditu<sup>33</sup>:

*Elkarrenganatu bat izan zen Lug eta Balor-Begi-Gaiztoa-ren artean. Honek begi kaltegil bat zuen; begi hau ez zen gatazkan baino zabaltzen. Lau gizonek jasotzen zuten betazala, bera iragazten zuen kizki zorrotz baten laguntzaz. Begi hori ikusten zuen armadak ezin zuen gehiago eutsi, milaka lagunek osaturikoa bazen ere. Hona nondik zetorkion lupua: Bere aitaren druidak edabeak egosten ari ziren; Balor agertu eta leihotik so egin zuen, eta orduan edabeari zerion lurrinaz kutsatu zen bere begia, eta lurrinaren lupuaz bide batez. Lug eta bera elkarrenganatu ziren. (Elkarrizketa ulertezina dator ondoren).*

*–"Jaso iezadazu betazala morroi!, –dio Balor-ek–, hizketan ari zaidan berritsu hori ikus dezadan".*

*Balor-en begiko betazala jasotzen dute. Orduan Lug-ek, begia buruaren atzealdetik aterarazi zion harrikada*

*bat jaurtiki zion habailaz. Haren armada ere begira zegoen; begia Fomore-en armadaren gainean jausi zen, eta honen hiru bederatziren bertan galdu ziren; (...)*

Kontakizun hau ez da noski jentilen akaberarenaren berdina; halabaina, ikergai dugun motiboaren urritasun larriak alde batetik, eta bi istorioen zenbait aspekturen arteko antza ageriak bestetik, gatazkaren kontakizun honi une batez arretaz begiratzea eskatzen digute, antzekotasun eta kidetasunak astiro neur ditzagun.

Aurreneko gauza, haien euskal adierazkideekin antza handia duten bi motiboen deskribapena dugu, alegia, ganduzko lainoak, eta lau gizonek jasotako betazala. Ondoren, bi motiboon agerpena, esplizitoki indarkeriakoa den testuinguru baten baitan, gatazka baten erdian, gertatzen da, eta hau, jentilen akaberaren kontakizunean somatzen den mehatxu giroaren, –zehatzu gabe baina argi eta garbi ageri den mehatxu giroaren–, baliokidea litzateke. Azpimarra dezagun baita ere, bi motiboon hurrenkera berbera dela, alderatzen ari garen bi kasuetan, alegia, lainoaren agerpena betazal jasoeraren aurretik gertatzen dela, eta areago esan genezake, zuzen edo zeharkago, lainoaren agerpenak eragiten duela betazalen jasoera bi kasuetan. Euskal mitoan jentil igarlea lainoari begira jartzen dute eta betazalak jasotzen dizkiote lainoa behatu eta interpretatu ahal dezan; eta irlandar testuan berriz, gandu lainotan etorri omen diren konkistatzaileen buruzagiaren aurrean jartzen da Balor, eta morroiek betazala jasotzen diotelarik hura akabatzen saiatzen da, bere begi gaiztoaren adurraz.

Euskal mitoaren gainerako bi elementuek, lainoak eragindako igarpena eta igarlearen amilketa alegia, ez dukete egokidurarik irlandar kontakizunean (Balor-en heriotza ezin aldera daiteke jentil igarlearenarekin, betazala jaso eta berehala agitzen bada ere), baina honek ez du garrantzia handiegirik, zeren euskal bertsiore beren artean ere, batek ere ez baititu mitoaren osakin guztiak biltzen.

Azalduko bi motiboon esanahiari dagokionez, hau arras argi eta ageria da irlandar gatazkan, euskal leiendan ez bezala. Azken honetan, bai lainoa eta bai betazal jasoera ere, irtenbiderik gabeko bi enigma genituen, baina Irlandan aldiz, ganduzko lainoak zeragatik dira beldurgarri, hots, barnean ezkuturik Dedannan gerlariak daudelako armen indarrez irla konkistatzeko prest, eta Balor-en betazalaren jasoera berriz, bere begiari darion adur erhorra jareiteko eragiketa da, eta betazal zintzilikaria,

32) G. DOTTIN. "L'Épopée Irlandaise" / 38 orr.

33) Ber. / 47 orr.

begi arrikutsu hori itxi ohi duen segurtasun atea dugu. Bi motibook poliki esplikaturik dauzkagu, eta ez dago beren esanahiei buruzko inongo zalanzkunerik.

Euskal eta irlandar kontakizunen arteko bereizkuneak asko dira, eta garrantzizkoak gainera. Eta hau normala da, bien arteko loturaren aspaldikotasunaz hausnartzen badugu. Baina bereizkune hauek guztiek huskeria dirudite, aurkitu ditugun kidetasunen ondoan. Kidetasun hauek garrantzitsuena dudarik gabe, Balor-en betazalaren jasoerari dagokiona dugu, zeren bera baita, –noski gure inkestaren exhaustibotasunaren mugetan barrena–, bai deskribapenaren aldetik, bai eta kokatzen den testuinguaren aldetik ere, jentilen akabera iragartzen duen igarlearen betazalen jasoerarekin nolabaiteko lotura suposadakiokeen motibo mitiko ezagun bakarra. Bi lainoen arteko kidetasunari dagokionez berriz, dudarik gabe garrantzitsua bada ere, oraindik ezin dugu garrantzia horren benetako neurria eman, motiboari buruzko inkesta exhaustiborik ez baitugu egin.

Euskal eta irlandar tradizioen zein bere aldetiko jatorri loturabakoaren hipotesia beti kontuan hartu beharra dago posibilitate teoriko modura, baina alderantzizkoaz komentzitu nahi gaituzten erakusgarriak anitzegi eta zehatzegi dira, posibilitate teoriko hori benetan seriotzat hartzeko.

Aurkituriko ebidentziak ikusi ondoren, azterketa honen konklusioa, bi betazal jasoeren arteko eta noski, eragiketa bitxi hau jasaten duten bi pertsonaien arteko ahaidetasun genetikoaren hipotesiari eustea besterik ezin du izan.

Ezin gara alde aurretik bi kontakizunen arteko ahaidetasunaren jatorria zein ote den edo non ote dagoen asmatzen hasi, baina halere, badira bi arrazoi mota zera onartzeko lan hipotesizat, alegia, euskaldunek mailegatu eta eraldaturiko kontakizun zelta jatorra dela esku artean duguna.

Alde batetik, kontakizunen azterketak hipotesi honen aldeko zenbait erakusgarri eskaini dizkigu: Euskal bertsioen ikerketak zenbait ordezkapen (izarra) eta arrazionalizaketa (lehen lainoa, agure zahar itsua) argitan ipintzea ahalbideratu digu, eta hauen azpian, laino beldurgarri bat, eta ulertezina egiten zaigun betazal jasoera bat aurkitu ditugu. Irlandar kontakizuna, nahiko pertinente ematen duten ulerpideak luzatzen dizkigu bi motiboon esanahia argi dadin, eta beraz, arrazoizkoa da iluntasuna argitu digunari lehentasuna esleitzea nolabait.

Beste aldetik, arkeologiak irakasten digunez, zeltak gure herrian ibili ziren Penintsularako bidea eginez, K.A.ko azken milurteko osoan. Erromatar geografoen zenbait berri gorabehera, ez dirudi haien eragina gure lurraldean eta gure arbasoen artean sakonegia edo iraunkorregia izan zenik, eta are gutxiago jentilen akaberaren bertsioak bildu diren lurraldeei dagokionez. Idazle zeltazaleen ere onartu ohi duten errealtate hau halere, aski da euskaldunen eta zelten kulturen artean noizbait ukituraren bat izan dela erakusteko, eta ukitu horrek ematen du edozein hipotesik behar duen euskarri historikoa.

Moytura-ko gatazkaren kontakizunaren arbasoren bat baldin bada euskal jentilen akaberaren leienda inspiratu duena, honek ahalezkoa egiten du leienda honetako enigmei erantzun bat ematea, eta halaber, leienda osoarentzako esanahi proposamen bat luzatzea.

Gaiztakeria zertan ote daukan ahazturik dagoen laino beldurgarriari dagokionez, soldaduz beteriko lainoa izanen litzateke jatorrian, –Troia-ko zaldiaren pareko–; honek poliki ulertaraziko liguke jentilek haren aurrean hasiera hasieratik erakusten duten beldurra, igarleak bere mezua jakinarazi baino lehenago, eta halaber, berauen ihesa lainoa atzetik datorkielarik, eta azken buruko suntsikera (hitzetan esaten ez bada ere, horixe adierazten baita inplizitoki testuan).

Jentil zaharrari betazalak jasotze bitxi hori, jentilen herriak lainoaren mehatxuari aurre egiteko burutzen duen defentsazko eragiketa izanen litzateke, zeren eta leiendako "agure zahar itsua", begiei adur gaiztoa darian pertsonaia baikenuke, ortzietan agerturiko igergarriari begiratzen dion bitartean, bere indar majikoa jaurtikitzen ari zaiona.

Jatorrizko bertsio hipotetiko honekiko euskal bertsioek darakusten ezberdintasun guztiak, bi moduz sorturikoak izan litezke, alegia, kultura batetik besterako igarobidean agituriko uherduren ondorioz, edota une larri horren ondoren, igorbideetan zehar gertaturiko hutsune eta jauskerak direla medio.

Bata dela edo bestea dela, euskal leiendak ezer gutxi gorde ahal izan du, jatorrizko bertsio hipotetiko horretatik: Lainoaren mehatxaritasunaren oroipen lausotua, eta azken buruko emaitza, –gozotua gehienetan halere–, jentilen orobateko eta erabateko suntsikerarekin. Betazalen jasoera ez zaigu inola ere indarrezko ekintza baillitza erakusten. Jentil igarlearen heriotzak, Balor-ena bezalaxe, betazala jaso eta berehala gertatzen bada ere, ez du honekin beste inongo antzekotasunik. Euskal jentila giza opari gisa amilarazten dute gainerako jentilek, eta irlandar erraldoia, bere etsaiak habailaz jaurtikitako harri batek burua iragazirik hilko da.

Dena dela, bistan dago Mag Tuired-eko gatazkaren kontakizunari esker euskal leiendari, aurkitu dugun egungo egoeran jadanik ez zeukan zentzu borobila eta esanahi koherentea eman ahal izan dizkiogula. Jentilen akabera beraz, honela ulerbidera genezake, alegia, kontakizun zelta baten oroitzapen eraldatua bezala, erdia ahazturik, erdia gaizki ulerturik. Kontakizun zelta horrek zera erakutsiko liguke, konkistatzaile zeltak gandu lainoetan gorderik heltzen zirela lurralde batera, beraien buruzagi nagusiak bertakoen arteko erraldoirik beldurgarriena eraiten zuela, alegia, begirada batez etsaia ezaba dezan betazalak jasotzen dizkioten erraldoia, eta honen ondoren, konkistatzaileek bertakoak akabatzen dituztela. Honats bada, euskal bertsioen azterketan ageriratutako enigma guztiak argitzen dituen ulerbide egiantzeko eta kontraesanbakoa, honats halaber, mitoaren benetako esanahiaz jabetzeko gakoak luzatzen dizkiguna.

Duela 100 urte, testu azterketetan egiten ziren arin-keriak, eta edozein hipotesi zeltazale onesteko zegoen joera kontuan hartuz, proposatu berri dugun interpreta-

zioa ez bairik gabeko egiazat har zitekeen. Halabaina, plazaratu dugun lan hipotesi horrek, ikerbideari amaiera asegarría eman irudi dion horrek, makina bat oztopo topatzen ditu bidean. Oztopo hauek lau sailetan banatu ditugu: Bat, zentzunak eraikitzen dituenak; bi, irlandar testuaren azterketak ageriratzen dituenak; hiru, indoeuropar mitologiaren ezagutza sakonak plazaratzen dituenak; eta lau, arkeologiaren alorretik heltzen zaigun bat.

Dena den, ukan dezagun lehenengo irlandar gatazkaren berri osotuagoa, ia testu osoa plazaratuz, bere azalpena guztiz beharrezkoa baita, gero oztopo horien mamia ongi ulertzeko.

#### MOYTURA-KO GATAZKA

*Dedannan senitarteak munduko iparraldeko irletan bizi ohi ziren, zientzia, aztigoa, druidismoa, sorginkería eta jakituría ikasiz, eta Dedannan-darrak jentilak baino handiago bilakatu ziren jakituría eta arte guztietan. Zientzia eta deabrukeriazko jakituría honako lau hiriotan ikasten zituzten, alegia, Falias, Gorias, Murias eta Findias izeneko hirietan. Falias-etik, Tara-n zegoen Fal-en harria ekarri zuten; deiarar egiten zuen Irlandan agintzen zuen errege bakoitzaren azpian. Gorias-etik, Lug-ek zeukan lantza ekarri zen; hura eskuan zuenaren gainean inork ez zezakeen garaipenik lortu. Findias-etik Nuada-ren ezpata ekarri zen; inork ez zuen ihesi ahal bere lekatik ateratzen zenean, inork ezin hari aurre egin. Murias-etik Dagde-ren pertza ekarri zen; ezein ostea ez zen joaten hari eskerturik egon gabe. Lau druida zeuden lau hiri horietan: Morfesa Falias-en, Esras Gorias-en, Uiscias Findias-en, Semias Murias-en. Lau "fili" hauekin ikasi zituzten ikasi zituzten zientzia eta dotrina Dedannan-dar senitarteek.*

*Beranduago, De senitarteak Fomore-tarren lagunak egin ziren, eta Balor, Net-en ilobak, Ethne bere alaba, Ciann, Diancecht-en semea, eman zion. Neska hau izan zen Lug garaipenaren haurra mundura ekarri zuena. De senitarteek flota handi batez heldu ziren Irlandara Bolg-gizonei irla indarrez kentzeko. Corcu Belgatan-go lurraldera (gaurko Connemara-ra alegia) heldu orduko, itsasuntziei su eman zieten, atzera itzuli ezin izateko, eta untzietatik zetozen keak eta gandua zeru lurra bete zituzten haien inguruan; horregatik hain zuzen esan ohi zen ganduzko lainotan heldu zirela. Moytura-ko gatazka berauek eta Bolg gizonen artean borrokatu zen. Bolg gizonak garaiak izan ziren, eta haien arteko ehun mila hil ziren haien errege Eochaid Erc-en semearen inguruan. Gatazka honetan hain zuzen moztu zioten eskua Nuadari. Sregg, Sengand-en semea, izan zen moztu ziona, eta Diancecht medikua izan zen Credné arotzaren laguntzaz, beste edozein eskuk adina indar zuen zilarrezko esku bat josi ziona. Halere, Dedannan senitartearen arteko anitz erori ziren gatazka honetan, Edleo, Alla-ren semea, Ernmas, Fiachra eta Turill Biceo-ren inguruan. Bolg gizonen artean bizirik irten zirenek Fomore-engana ihes egin zuten, eta Arann, Islay, Man, eta Rathlin-en jarri ziren bizitzen. Irlandako aginte gorenari buruzko auzia sortu zen Dedannan-darren eta hauen emazteen artean, zeren Nuada ez baitzen engoitik errege, eskua mozturik*

*zuenetik. Erregetza Bress-i, Elatha-ren seme eta beren iloba zenari eskaini behar zitzaioela esan zen; berari erregetza emateak Fomore-ekiko adiskidetasuna sendotuko zuela zioten, zeren honen aita, Elatha, Delbacht-en semea, Fomoreen erregea baitzen. (...)*

Irlandako errege egin zutenean, kontalariak eskandinabiar bailliran deskribatzen dituen Fomore horiek, larregi zergapetu zuten Irlanda. Bress-ek bestalde, jendeak haserretu zituen bere zikoizkería zela eta, eta Dedannan senitarteek honen abdikazioa esijitu zuten. Honek luzapen bat eskatu zuen, eta horretaz baliatuz, Fomore-engana jo zuen laguntza eskean. Hauek laguntza hitz eman zioten,... Zazpi urte igaro ondoren, Dedannan-darren armada prest dago... Bi armadak elkarren aurrean lerrotzeko zuten dira.

*Fomore-ek aurre egin zuten eta hamargarren egunean Scetne-ra heldu ziren. Irlandako gizonak Cachetteko zelaian zeuden. Bi armadak borrokari ekin zioten.*

*"Irlandako gizonak guri ekitera ausartzen dira!"- esaten dio Bress, Elatha-ren semeak, Indech, Dedannan-en semea.*

*"Neronek ekingo diet oraintxe, -dio Indech-ek-, hezurra txikituko dizkiet ez badituzte zergak ordaintzen".*

*Irlandako gizonak Lug borrokara joaten ez uztea, -bere jakituría zela eta-, erabaki zuten batzar batean. Bere bederatzi ugazaitak etorri zitzaizkion zaintzera... Hain gerlari dohatsuak heriotza goiztiarregia izanen ote zuten kezkatuak zeuden; beraz ez zuten utzi borrokara joaten.*

*Dedannan-darren arteko jauntxoak Lug-en etxean bildu ziren. Honek Goibné bere arotzari, beraien aldeko zein ekintza nagusi burutu zezakeen galdetu zion.*

*"Ez da zaila, -erantzun zuen-, Irlandako gizonak zazpi urtez borrokan arituko balira ere, bere hagatik askatzen den lantza bakoitzagatik edo puskatuko den ezpata bakoitzagatik arma berria prestatuko dut haiek ordezkatzeko. Nire eskuak egindako ezein puntak, -dio-, ez du kolpea huts egiten. Berak iragazitako ezein larruk ez du berriro bizia dastatzen. Dolb, Fomore-en arotzak ez du beste hainbeste egiten. Moytura-ko gatazkarako prest naukazu".*

*"Eta zu, oh Diancecht, -dio Lug-ek-, zein ekintza nagusi burutu dezakezu bada?"*

*"Ez da zaila, -dio-; zauriturik datorkidan edozein lepoa erabat moztu edo burmuinetako geruza edo bizkar-muina ebaki ez badiote behintzat, biharamunerako gatazkarako prest jarriko dut erabat osaturik".*

*"Eta zu, oh Credné, -dio Lug-ek bere brontzagarinari-, zein izanen da zure ekintza nagusia gatazkan?"*

*"Ez da zaila, -dio Credné-k-; errematxa eta jabalinnak, ezpata kirtinak, ezkutu, ezpondak eta erzpilak, denak prestatuko ditut".*

*"Eta zu, oh Luchté, -dio Lug-ek bere zurginari-, zein izanen da zure ekintza nagusia gatazkan?"*

*"Ez da zaila, -dio Luchté-k-, beharko diren ezkutu eta lantza haga guztiak, denak hornituko ditut".*

–"Eta zu, oh Ogmé, –dio Lug-ek bere gizon indartsuari–, zein izanen da zure ekintza nagusia gatazkan?"

–"Ez da zaila, –erantzuten du–; erregea atzera bota eta haren lagunen hiru bederatzirenak atzera bota eta gatazkaren heren bat irabaztea Irlandako gizonekin".

–"Eta zu, oh Morrigan, –dio Lug-ek–, zein ekintza nagusi?"

–"Ez da zaila, –erantzuten du–; atzetik nabilkionari helduko natzaio, joko dudana joa izanen da, eta moztuko dudana loturik izanen da".

–"Eta zuek, oh aztiak, –dio Lug-ek–, zein ekintza nagusi?"

–"Ez da zaila, –esan zuten aztiak–; gure arteak jotzen dituenen, haien oinak zurutu eginen dira eta haien arteko indartsuenak beren kemenaren bi herenak txiza errentzio batek galaraziz hilko dira".

–"Eta zuek, oh kopa eramaileak, zein ekintza nagusi?"

–"Ez da zaila, egarri handia emanen diegu, eta ez dute hori asetzeko edaririk aurkituko".

–"Eta zuek, oh druidak, zein ekintza nagusi?"

–"Ez da zaila, –erantzun zuten druidek–; Fomoren aurpegi gainera suzko zaparradak igorriko ditugu, eta honela, gora begiratu ezin izanen dutelarik, haien aurka borrokatuko diren gerlarien indarraren azpian eroriko dira".

–"Eta zu, oh Coirore, Etan-en semea, –esan zion Lug-ek bere poetari–, zein izanen da zure ekintza nagusia gatazkan?"

–"Ez da zaila, –esan zuen Coirore-k–, glam diccin delakoa (enkantamendu bat) eginen dut haien aurka, eta satirizatu eta ohorekabetu eginen ditut, eta nire artearen aztikeriaz honela gero ezin izanen diete gure gerlarietara".

–"Eta zuek, oh Bechulle eta Diannan, –esan zien Lug-ek beren sorginei–, zein ekintza nagusi burutzeko gauza izanen zarete gatazkan?"

–"Ez da zaila, –esan zuten–; zuhaitzak, harriak eta lur-samarrak sorginduko ditugu, eta armada indartsu bat bailiran azalduko zaizkie, eta ihesera bultzatuko dituzte izuak eta itolarriak harturik".

–"Eta zu, oh Dagdé, –dio Lug-ek–, zein ekintza nagusi burutu ahal izanen duzu gatazkan Fomoren armada-aren aurka?"

–"Ez da zaila, –esan zuen–; Irlandako gizonen ondoan jarriko naiz jotzeko eta txikitzeko, nahiz sorgintzeko. Zaldien oinen azpiko harriak bezain ugari izanen dira haien hezurak nire borrararen azpian, etsaiak topatzen ditugun unean Moytura-ko zelaiaren gainean".

Honela elkarrizketatu zen Lug banan bana haietako bakoitzarekin, nor bere trebetasunak aipatuz; armadari hitz gozoak eta arengak zuzendu zizkion, honela gizon haietako bakoitzak errege edo printze baten mentalitatea bereganatzen zela.

Egunero ekiten zitzaion borrokari Fomoren klanak eta Dedannan senitarteen artean; bertan ez zegoen esku hartzen zuen errege edo printzerik, bakarrik jende suhar

eta arriskuzalea. Fomoren-ak gatazkan gertatzen zitzaie naz harrizten ziren: Beren armak, beren lantza eta ezpatak alegia, hondatu egiten ziren, eta beren arteko hildakoak ez ziren gatazkara itzultzen biharamunean. Baina ez zen gauza bera gertatzen De senitarteen aldean, zeren eta haien armak, gaur hondatuak bazeuden ere, biharamunean konpondurik azaltzen baitziren, Goibné arotza olan izaki, ezpatak, lantzak eta jabalinak ekoizten; arma horiek hiru kolpetan egiten zituen. Luchtaine zurginak hiru kolpetan egiten zituen hagak; hirugarren kolpeak arradatu eta lantzaren begitik sarrarazten zituen; armak olaren ondoan jarrita zeudenean, eraztunak jaurtikitzen zituen hagatara; ez zegoen gehiago doitzeko beharrik. Orduan Credné brontzaginak hiru kolpetan egiten zituen iltzeak eta eraztunak gainera botatzen zituen, eta ez zegoen gehiago doitzeko beharrik, eta honelaxe tinko loturik geratzen ziren.

Hona orain nola itzultzen zitzaie berao hildakoei, biharamunerako berriro biziak erabat beterik jarritz: Diancecht-ek bere bi semeek eta alabak, Ochtriuil, Airmed eta Miach-ek, Osasuna izeneko iturriaren gainean enkantamendu bat abesten zuten. Bertara botatzen zituzten gero, sendagai zituzten heriotzak jotako gizonak, eta hauek bizirik jalgitzen ziren bertatik. Zauritutakoak, iturri inguruan zeuden lau sendagileen kantuaren indarrari esker osatzen ziren. (...)

Gatazkaldi nagusirako elkarrengatzea heldu zenean, Fomoren-ak beren kanpalekueetatik irten eta batailoi sendo eta apur ezinak osatu zituzten. Haien artean ez zegoen, burdin-larrurik soinean, kaskorik buruan, lantza eskuinean, ezpata zorrotza gerrian, eta ezkutu sendoa sorbaldaren gainean ez zeukan buruzagi edo soldadurik. Egun hartan Fomoren-ek armadari ekitea, burua harkaitz baten aurka jotzea, eskua suge hobi batean sartzea, edo aurpegia sutan jartzea bezala zatekeen. (...)

Dedannan senitartek berriz, zutitu egin ziren halaber; bederatzia herikide Lug zaintzen utzi, eta borrokari ekitera abiatu ziren gainerakoak. Borroka hasirik zegoenean, Lug-ek bere jagoleei ihes egin, borroka-organara igo, eta De senitarteen frontean agertu zen. Orduan Fomoren-ek klanak eta Irlandako gizonen arteko oldartze lazarri eta zakarra izan zen. (...)

Armadek deiadar beldurgarria bota zuten elkarren kontra talka egiterakoan; nor bere arerioa txikitzeari ekin zion. Gizon lerdan asko erori ziren bertan, heriotzaren kortan. Sarraski izugarria izan zen, eta hilarri asko. Ohorea eta lotsa elkarren ondoan ibili ziren; sumindura eta piztiakeria izan ziren; odol jarioak ugari nabaritzen ziren gerlari gazte kozkorren larru zuriaren gainean, hauek benetako indartsuei ekiten baitzieten emulazio nahiak bultzaturik, beren buruak arriskuan jarririk. Dunbots eta zalaparta ikaragarriak sortzen zituzten heroi eta gizon ausartok beren lantza, ezkutu eta soinak defendatuz, besteek lantzaz eta ezpataz jo eta ematen zieten bitartean. Zakarra zen gatazka-lerroan zehar entzun zitekeen orroa: gerlarien oihuak, ezkutuen danbatekoak, ezpata eta ortzezpatek ditzira eta ziztua; buiraken burdin-hots zorrotza, gezi eta jabalinen hegaldiaren marrua, armen garraska eta klaskadak. Gutxi falta zen hatzen puntetek zangoe-

kin elkartzeko topaldi hartan, zeren gainbehera erortzen baitziren, hain baitzegoen labainkor lurra soldaduen oinen azpian isuritako odola zela medio, eta elkarri ekinean buruekin talka egiten baitzuten. Borrokaldi latz eta beldurgarria, deitoragarri eta odoleztatua gertatu zen, eta Unnsenn ibaiak arerioen gorpuak garraiatzen zituen.

Orduan hain zuzen erori ziren, Balor, Net-en ilobaren erasopean, Nuada-Zilarrezko-Eskuduna, eta Nacha, Ernmas-en alaba. Cassmael, Octriallach Indech-en semearen erasopean erori zen.

Elkarrenganatzeko bat izan zen Lug eta Balor-Begi-Gaiztoa-ren artean. Honek begi kaltegabe bat zuen; begi hau ez zen gatazkan baino zabalagoa. Lau gizonek jasotzen zuten betazala, bera iragazten zuten armadak ezin zuten gehiago eutsi, milaka lagunek osaturikoa bazen ere. Hona nondik zetorkion lupua: Bere aitaren druidak edabeak egosten ari ziren; Balor agertu eta leihotik so egin zuen, eta orduan edabeari zerion lurrinaz kutsatu zen bere begia, eta lurrinaren lupuz bide batez. Lug eta bera elkarrenganatu ziren. (Elkarrizketa ulertezina dator ondoren).

–"Jaso iezadazu betazala morroi!, –dio Balor-ek–, hizketan ari zaidan berritsu hori ikus dezadan".

Balor-en begiko betazala jasotzen dute. Orduan Lug-ek, begia buruaren atzealdetik aterarazi zion harrikada bat jaurtiki zion habailaz. Haren armada ere begira zegoen; begia Fomoren armadaren gainean jausi zen, eta honen hiru bederatziren bertan galdu ziren; (...)

Orduan gatazka hondamen bihurtu zitzairen eta Fomoren-ak itsas ertzeraino atzera egin zuten. Ogmé, Elatha-ren semeak, gizon indartsuak, eta Indech, Dedannan Fomoren-erregeren semeak, elkar eraitsi zuten. (...)

Ondoren Bress, Elatha-ren semea, arriskuan ikusi zuen bere burua. Esan zuen: "Hobe da bizirik gorde nazazuen hil nazazuen baino". (...)

Hondamena eta sarraskiaren garbiketa amaitu ondoren, Morigane, Ernmas-en alaba, gatazka eta garaipen handi hauen berri ematera joan zitzairen Irlandako errege-mendiei, aideko izakiei, ur handiei eta itsasoraguneei. (...)

Euskal mitoaren esanahi jatorria argitzeko bere azpian kontakizun irlandar honen arbaso bati egindako mailategua dagoela proposatzen baldin badugu, zentzunak eraikitzen dituen bi oztoporri aurre egin beharko diegu lehenengo: Aurrena zera da, sinesgaitza gertatzen dela euskal bertsioek lainoa eta betazal jasoeraren motiboak gordetzea bakarrik, irlandar kontakizunean bata bestetik hain urrun daudela kontuan hartuz, eta tartean aurkitzen ditugun heroi, azti, ekintza nabarmen eta borrokaldi sonatu horiek guztietaz hitz erdirik ere azaldu gabe. Erants diezaiozun honi, euskal bertsio guztiak arras bat datoze-la, mitoaren lau motibo nagusietaz gain, beste ezekin motibo edo ekintza nabarmenik ez sartzeari dagokionez. Eta bigarrenaz esan dezagun ez dela logikazkoa zelta omen diren bi motibo Irlandan behin eta Euskal Herrian berriz hamabi bider agertzea. Zelden eraginak gure herrian zenbaterainoko garrantzia duen eztabaidan hasi ga-

be ere, argi dago irudiramen zeltaren berri emateko euskal folklorea irlandar folklorea baino iturri oparoagoa dela dioena, gehitxo esaten ariko litzatekeela.

Bi oztopo bakarrak hauek izanen balira ere, aski lirateke gure lan hipotesia bertan behera lagarazi eta behaketa berri sakon batera behartzeko. Baina ez dira, ez, bakarrak: Testuaren azterketak bi eragozkune berri plazaratzen ditu, eta hauek, aurreko bien antzera, zalantzan ipintzen dute ikergai ditugun bi motiboan jatorri zeltaren hipotesia.

Ikus dezagun lainoa aurrena: Lainoaren motiboa itsasontzi kiskalien motiboaren bidetik sartzen da, De senitartek Irlandara heldu orduko untziei su ematen dietenean atzera itzultzeko gogoia etor ez dakien. Hernán Cortés-en Mexikoko konkistaldian halaber agertzen den motibo indoeuropar tipiko hau ederki eta zehazki mintzo zaigu indoeuroparren gogo konkistatzaile eta kolonizatzaileaz. Ondoren zera esaten zaigu, unti kiskalietatik zetozen keak eta gandua Dedannan-darrak inguratu zituztela, eta horregatik esan ohi zela ganduzko lainotan heldu zirela. Sarrera honek arrazionalizaketa baten itxura osoa du, eta kearen ondoan gandua aipatzea suak hartutako untzietatik bailetorren, kontakizunak gandua-aren motiboa bere baitan sartzeko egiten dituen ahaleginen erakusgarria da. Gandua-aren motiboa bere baitan sartzeko, eta noski, honen bitartez hurrengo esaldia ulertarazteko. Bada, izan ere, untzietako suak kea sorraziko du, baina inola ere ez gandurik.

Hau alde batetik; baina bestetik ere, azpimarragarria zera da, gandu lainoen irudia bertakoen ikusgunetik emana bailegoen helduzen zaigula, eta ez Dedannan-darren aldetik kontatua.

Har dezagun Mexikoko konkistaldia esate baterako, eta bertan konkistatzaileak, beren zaldi eta armadurak zirela medio, jainkozkotzat hartuak izan zirela entzuten dugunean, mexikar indioen ikuspuntura eramaten gaitu esaldi horrek, zeren argi baitago espainiar konkistatzailearentzako ez dagoela harridurarik zaldi edo armadura baten aurrean. Halaber gandu lainotan heldutako De konkistatzaileen irudia, Fir Bolg bertakoen aldetik ematen zaigu, eta ez zelden ikuspuntutik, eta izan ere, badirudi azken hauek ez dutela irudi hau ulertu, asmatu dioten arrazionalizaketak erakutsi nahi bide duenez. Lainoa ez litzateke beraz aztigo zeltaren ikur bat, bertako Fir Bolgak beldurtzen dituen irudi bat baizik; eta honen antzera halaber, auzitan dabilen bigarren motiboak, Balor-en betazalaren jasoaldiak alegia, arazo bera plazaratzen du: Betazal jasoaldi hau ez baita Dedannan-darren alderdian gertatzen, gatazkan Fir Bolg-en txanda hartu duten Fomoren alderdian baizik. Beraz Balor ez da jainkozko zelta bat, hauek Tuatha De Dannan-en artean ikusten ditugun heroiak baitira, Lug jainko gorena buru dutelarik.

Aurreko testuaren azterketatik atera ditugun bainazko hauek, indoeuropar mitologia alderatzaile modernoaren jakintzaren argipean erakusten dute beren adierazkortasun osoa. Izan ere, Mag-Tuired-eko gatazkaren kontakizuna ez baita edozein kontakizun, baizik eta, hain zuzen ere, gizarte baten eraikuntza kontakizun duen indo-

europar mitoaren bertsio zelta (bi herrien arteko borrokaren amaiburuz bakea eta batasuna hitzartu eta gizarte berri hirufuntziokaria eraikitzen dela dioskun mito). Mito honen helburu ideologiko praktikoa, eta bere azpiko edo bere barneko errealitate historikoa, Euskal Mitologia Konparatuan<sup>34</sup> garbiro ipini dugu argitan. Bertako demostrazioak ez ditugu hemen berriro azalduko; aski izanen dugu konklusio nagusiak gogora ekartzea.

Gizarte hirufuntziokari baten eraikuntzaren mito, egiazko geruza historiko baten gainean egitura mitologiko bat ezartzearen emaitza da. Egitura honek, geruza historikoari ekin eta eragiten dio, gertakariak interpretatzeko duen era berezia indarrez ezarriz, –hiru funtzioen ideologian oinarritutako interpretakera hain zuzen–, eta hau guztiaren emaitza, historia mitifikatuzko kontakizun bat da.

Premisa hauen arabera, mito honek indoeuropar gizarte ezberdinetan dauzkan bertsioek, egitura mailako batasuna erakutsiko dute beti, egitura bakar eta bera baita, egiazko gertakari multzo bati, anekdota mailako aniztasun bati, eragiten diona. Anekdota eta gertakari mailako aniztasun hau, indoeuroparrek beren ibilbideetan topatu eta zanpatu dituzten geruza kulturalen aniztasun eta berezitasunari zor zaie. Gure arazoaren gakoa beraz zera da, egitura baterakoi horren azpiko eduki anekdotikoen zenbaterainoko errealtasuna, historikotasuna. Euskal Mitologia Konparatuan azaltzen dugun Mexikoko konkistaren ereduak zera erakusten digu, Hernán Cortés-en leienda benetako gertakari historiko bartzuen gainean eraiki dela. Gizarte hirufuntziokariaren eraikuntzaren mexikar bertsioa ez da, inork literatura egitearren asmatu duen istorio harrigarria, baizik eta benetako gertakari multzo bat ideologia zehatz baten arabera deformatu ondoren atera den kontakizuna, bere deformazio eta guzti, oraindik ere bere baitan benetako eduki historiko azarnak daraman kontakizuna. Mami historiko horren ezagutzearan datza gure arazoa.

Mexikar kontakizunean somagarri eta ezagugarri dagoen geruza historiko hori da hain zuzen, gizarte eraikuntzaren gainontzeko bertsio historizatuentzat ere erreibindikatzeko duguna.

Mitoaren arabera hirugarren funtzioaren ezaugarrietaz janztera beharturik dauden herri bertako guztien janzkera horren azpian, indoeuropar aitzineko herrien ezaugarriak nahi ditugu ikusi, apenas somagarriak badira ere. Hots, Moctezuma ez da "conquistador" horietako bat, Cortés-en leiendan azaltzen bada ere, eta halaber Mettius Curtius sabindar jenerala ez da erromatar heroi bat, eta Balor zikloa ez da jainkozko zelta bat.

Baieztapen hauek, hain begibistakoak izanik txatuak ematen badute ere, beharrezkoak dira halere, zeren aurreritzi zeltazaleek beren garai bateko indarraren zati bat gaurdaino gorde baitute. Benetan kategoriko azaldu behar gara indoeuropar aitzineko bertakoen aztarnei dagokien puntu horretan, bestaldetik ere mitoaren

bertsio ezberdinetako hirugarren funtzioa herrien arteko egokidurarik eza borobilak demostratzen duen puntu honetan.

Dena dela, Balor jainkozko zelta bat ez dela ikustea, ez zaio batere zail gertatzen MACCULLOCH bezalako zeltazale bati, berak ez baitu gurea bezain argumentazio luzea behar izan, honako konklusioetara heltzeko<sup>35</sup>:

*Tuatha De Dannan eta Fomore-ak irlandar zelten elkarrekin haserreturiko bi jainko talde baldin baziren, azkenekoen makurkeria ez zen analistek ahaztua izanen. (...).*

*Edota agian, elkarrekin haserreturiko bi jainko talde izan litezkeen, lehenak zelten jainkoak, eta bigarrenak bertakoenak zirelako. Izan ere, Fomore-ak Fir Bolg morroien jainkoak bailiran aipatzen dira, eta hauek bertako arraza dira dudarik gabe, baina beranduagoko kristautasunaren garaian mamuantz eta deabru irudikoak bailiran deskribatzen zaizkigu, Tuatha De Dannan-ak ez bezala; beraz, jadanik pagano zeltek gaizki ikusiak behar zuten. Herri konkistatzaile baten jainkoak, bertakoen jainkoekin etsaiturik baileuden irudiratu ohi dira, eta beste honen beste azken hauei dagokienez, eta orduan mito berriak eraikitzen dira.*

Hots, Balor-en ezaugarritatze ezkorra eta kontakizunean duen kokaera kontuan harturik, gure pertsonaia hau honako bi kategorietako batean sartu beharra dago, alegia, deabru zelta bat da, edota indoeuropar aitzineko irlandar jatorren jainkozko bat da. Arras begibistakoa den konklusio honek, orain arte bezain begibistakoa izaten segitu beharko luke, Balor eta euskal mitoko jentilaren arteko lotura aurkitu eta gero.

Kritikatzen ari garen sorburu zeltaren lan hipotesiari buruz bota daitekeen azkeneko bainazkoa, arkeologia mailako hausnarketa batek plazaratzen du. O'CURRY irlandar idazleak, gatazka mitologiko honen gertalekua den Moytura-ko zelaiari buruzko argibide garrantzitsu batzuk azaltzen dizkigu "Lectures of the Manuscript materials of Ancient Irish History" deritzan bere idazlanetako batean<sup>36</sup>.

*Gatazka gertatu zeneko zelaiaren kokapena, xehetasun handiz ematen da testuan, eta geroztik, Meagh Tuireadh na bh-Fomorach deitua izan da, Fomore-en dorreen zelaia alegia, bertatik berrogeita hamar milia urrun dagoen hegoaldeko Moytura-tik bereiztearren.*

*Kontakizunak ez du inoiz aipatzen hilarri, dorre edo zutarririk eraiki zenik, nahiz eta bertan, gaur egun oraindik ikus daitezkeen ziklopantzeko hilobi eta monumentu ugari egon; baina testuak amaiera aldera osatugabea dirudienez, litekeena da bere jatorrizko osotasunean, horri buruzko zenbait argibide azaltzea.*

Honats bada, berriz ere, noski zeltaitzineko diren eraikuntza megalitikoak, ganduzko laino beldurgarri batzuk agertu diren leku berebetean, Balor deritzan zikloa

34) JUAN INAZIO HARTSUAGA. "Euskal Mitologia Konparatua. Donostia 1987.

35) J.A. MACCULLOCH. "Celtic Mythology". "Mythology of all races" bildumako III.alea. Boston 1918 / 34 orr.

36) O'CURRY. "Lectures on the manuscript materials of ancient irish history". Dublin 1878 / 250 orr.



erraldoi bati betazala jaso dioten leku berebean, Bolg gizonak aurrena eta Fomore-ak ondoren sarraskituak izan diren leku berebean.

Azpimarratu beharrekoa da gainera, testuak dienez, gatazka bikoitz horretan Dedannan-darren arteko anitz hil badira ere, eta tartean zenbait heroi nagusi eta Nuada-Zilarrezko-Eskuduna erregea baziren ere, eraikuntza megalitikoak, menderaturiko eta sarraskituriko Fomore-ei zuzenduta daudela (Fomore-en dorreen zelaia).

Hau noski erabat ulertezina da ez badugu onartzen zelden kontakizuna, antzeko kontakizun zaharrago baten gainean eraiki dela. Indoeuroparren logikaren arabera, Moytura-ko zelaian, garaitzaileen artetik gatazkan hildako heroiei zuzendutako eraikuntzak aurkitu beharko genituzkeen, eta gutxienez tenplu bat borroka lekuaren erdian, ezpata eskuan zuela erori zen Nuada erregeren oroikarri. Baina Erroman Romulo-k Juppiter Feretrius-i honen omenez eta sabindarren aurkako gerlan emandako laguntzaren esker onez eraikitzen dion tenpluari, Fomore-en hilobi megalitikoak besterik ez zaizkio egokitzen Irlandan. Ez Nuada-ren heriotzak, ez eta Lug-en balentriak ere, ez dirudi Fomore sarraskituen hilarrien adinako oroikaririk merezi dutenik. Imajina al daiteke Erroman sabindar sarraskituei zuzenduriko tenplua Juppiter Feretrius-i zuzendurikoaren ordez?

Dena dela, azaldu berri dugun hau, irlandar bertsoiak gizarte baten eraikuntzaren mitoaren esanahi kanonikoarekin dauzkan kontraesan larri eta ugarien arteko bat baino ez da.

Bainazko multzo honek, jentilen akaberaren euskal bertsoiak ulertarazteko orain arte erabili dugun euskaldunen zeltengandiko maileguaren hipotesia baztertzea behartzen gaitu. Banan bana gogoratuz, hauek izan dira bainazkook: Ikergai ditugun motiboak azaltzen dituzten kontakizunen artean gehiengoa euskal bertsoei dago; ezinezkotzat jo daiteke euskal bertsoiak, kontakizun zelta zahar batetik eratorriak izatea, ezinezkoa delako denak ados jartzea hautatu dituzten motiboak hautatu eta baztertu dituztenak baztertzeko, denak modu berean.

Aurreneko bi bainazko hauei, beste bi erantsi dizkiegu: Irlandar testuaren irakurketa arretatsu eta zorrotz bati esker, eta batez ere indoeuropar mitologiaren ezagutza ongi jantzi bati esker, gure bi motiboak, geruza irlandar zeltaitzineko bati egoki dakizkiokeela somatu dugu; eta azkenik, zeltaitzineko eraikuntza megalitikoak gatazka lekuan egoteak, –berauen izenak plazaratzen zuen irregularkeriarekin batera–, aurreko susmo hori areago indartu digu. Beraz, guztiak erakutsi irudi duenez, gauduzko lainoak eta betazal jasoera zeltaitzineko tradizio irlandarrak baldin badira, euskaldunen zeltengandiko maileguaren hipotesia alde batera utzi beharra dago, balio gabeturik. Eta alferrik arituko gara zeltak Irlandara edo Euskal Herrira, bietatik nora heldu ote ziren lehenago asmatu nahian bagabiltza, zeren Irlandara hona baino lehen iritsiak, eta senitarte berak balira ere, –nahiko sinesgaitza dena–, horrek ez bailuke ezer aldatuko: Euskal Herrian bizi izan ziren zeltak gure arbasoei zerbait erakutsi bazieten, kultura zelta erakutsiko zieten noski, eta ez

zeltaitzineko irlandar jatorren tradizioak. Nahiz eta bazter guztiak hankaz gora ipini, eta behin eta berriz miatu, argi dago ez dugula azteken kulturaren aztarnarik aurkituko Filipinar irlatan, espainiar konkistatzaileak Mexiko mendean hartuz geroztik bertaratu baziren ere.

Honaino azaldu dugunak, gure argumentazioaren zati nagusia osatzen du, baina badira halere, oraindik egin gabe geratu zaizkigun komentario batzuk. Balor jainko zelden ondoan ez dela lerrotzen demonstratu digun testuaren egituraren azterketak, ez liguke beste zera simpleago hau ahantzarazi behar, alegia, begien bistan nabarmen ageri den eta garrantzitsua izan daitekeen honako irregularkeria hau: Balor-en deskribapena eta bere ekitaldiak gatazkan zehar. Balor-en begiaren deskribapena eta bere betazalaren jasoerarena, doiki Lug-ekiko elkarrengatzearen aurretik ematen zaigu; orduan hain zuzen esango zaigu lau gizon behar direla bere betazala jasotzeko, eta apur bat beranduago entzunen dugu ziklopearen ahotsa zera eskatuz: "*Jaso iezadazu betazala morroi, hizketan ari zaidan berritsu hori ikus dezadan*". Halabaina, bere itsutasunaz eta bere erraldoitasunaz elbarri traktetsa eman beharko lukeen erraldoi itsu honek, Nuada-Zilarrezko-Eskuduna errege ohia, eta Macha, Ernmas-en alaba, gerlari handia, ero berri ditu gatazkaren erdian. Honako hitzok marrazten duten nahaste-borrastearen erdian ("*gerlarien oihuak, ezkutuen danbatekoak, ezpata eta ortzezpatek ditzira eta ziztua; buiraken burdin-hots zorrotza, gezi eta jabalinen hegaldiaren marrua, armen garraska eta klaskadak*") gertatzen da hain zuzen bi Dedannan-darren heriotza Balor-en erasopean, eta batek maltzurki galde lezake non babesten ote ziren orduan betazala goran eutsi behar zuten lau gizonak, eta nola moldatzen ote ziren, beren nagusiak bi borrokaldiotan zehar zalantzarik gabe egin beharko zituzkeen jauzi, makurraldi, oldartze eta atzerakada bizkor guztiei zehaztasunez eta leuntasunez jarraitzeko, beren oreka delikatu hori inoiz galdu gabe. Hau dena noski, Balor ez baldin bada borroka horietan deus ere ikusi gabe oldartu, baina honelakorik, sinestezina izan ezezik, ez da inon edo inoiz aipatzen testuan zehar. Azken buruan beraz, Balor-ek gatazkan duen jokabidea, erabat kontraesanean dago, apur bat beranduago testuak berari buruz emango duen deskribapenarekin, eta honezgero badakigu, honelako kontraesanak, mezu mailako edo testuinguru mailako bereganaketak izan direnean agertzen direla, eta orduan kontakizunak eginkizun latza izaten duela elementu jatorrak eta bereganatu berriak elkarrekin ongi eraman dezaten.

Esan dugu, Balor ez dela inoiz zelden panteoian egon, eta gure baieztapen honen laguntzera datorkigu bere begiaren indar motaren azterketa, indar mota honek, aurren sopean antzekotzat jo genezakeen indoeuropar jainko baten begiaren indarrarekin ez baitu zer ikusirik. Izan ere, indoeuroparrek, garairik aspaldikoenetatik jainko begi-bakar bat irudiratu ohi duen, begi-bakar horrek, gatazkatan erakutsi ohi duen indar majikoa daukalarik. Irudiragarri hau, indoeuropar ondorengo hiru gizartetan gorde ahal izan dute, nork bere eraldaketa esperogarriz noski: Eskandinabiarrak, –eta seguru aski herri ger-

maniko guztiak ere-, erromatarrek, eta zeltak izan dira, aipatu eraldaketa eta guzti, jainko honen irudi nahiko garbia gorde dutenak, eta honi esker DUMÉZIL maisuak horren adierazmamiaren gehiena zertan den asmatu eta demostratu ahal izan du. Azkar eta labur esanez, jainko begi-bakarrak, -beti jainko besamotz batekin bikotea osatzen duelarik, agintearen alderdi magiko eta kementsua irudiratzen du, Varunantzeko alderdia, besamotzak Mitrantzeko alderdia, -Legea eta Zuzenbidea, alegia-, irudiratzen duen bitartean.

DUMÉZIL maisuaren ikerketak gai honi buruz, "Mitra-Varuna" bere idazlanean, eta "Mythe et Épopée" I, 424-428 eta III, 263-283etan aurki daitezke. Gure lanari dago-kionez, irudiragarri hau gorde duten indoeuropar gizarte-eta bakoitzean begi-bakarraren indarra zer nolakoa den ikusiko dugu, argi eta garbi gera dadin Balor-en begia arras bestelako zerbait dugula.

Hiru begi-bakarrak, eskandinabiarrak, erromatarra eta zelta, franko ezberdin agertzen zaizkigu bakoitzaren nortasuna eta senari dagokienez, baina franko bateratsu halere, begi bakar magiko horren kemenen erabilera azaltzerakoan. Erromatarra, Horatius Cocles deritzan soldadu bat da, -jainko zaharraren gizarapena noski-, eta behin bakarrik azaltzen da Erromako Historian, Porsenna-ren gerlako pasadizo erabakior batean hain zuzen. Bere ekitaldia hauxe da: Etruriarrak Erromako ateetara ino heldu dira ustekabeen, kolpe azkar batez hiriaz jabetzeko. Orduan Cocles honek, berak bakar bakarrik, hirirako sarbidea den Tiber-en gaineko zubiaren muturrean aurre egiten die etruriar guztiei, hiriko atea ixteko behar hainbat beta emanez erromatarrei, eta honela etruriarrak hesialdi luze bat prestatzera behartuz. Testuen arabera, Cocles-ek bere ekitaldia arrakastaz burutzen badu, bere zangartasunari esker da, baina batez ere arerioei botatzen dien begirada haserre sutuei esker, zeren begirada hauek direla eta, arerioak beldurturik ez baitira ausartzen hari gehiegi hurbiltzera. Testuek diotenez halaber, Cocles-ek zorte on ikaragarria ukan omen zuen etruriarren gezi eta jabalinetako batek ere ez baitzuen jo, eta zorte on hau ere, bere begiaren bertuteari eskertu beharrekoa izan liteke, testuak esplizitoki baieztatzen ez badu ere.

Eskandinabiar begi-bakarra Othin da; honek propio galtzen du bere begietako bat, horren trukean ikusmen bereziaren dohaina eskuratzearen. Begi-bakarra izate horrek ez dio zuzenean, begirada haserre batez arerioak beldurrez paralizatu eta haien armak geldiarazteko kementa ematen, besteak beste bi gaitasunon jabe izan arren. Begi bakar horrek zuzenean eta esplizitoki ematen diona zera da, bere sena eta izaeraren ezaugarri nagusia, alegia, ikusmen berezia, orojakiletasuna, aztigoa.

Azkenik, begi-bakar zelta, aldian behingo begi-bakarra baino ez da, egia esan. Lug dugu hirugarren hau, Dedannan senitarteen buruzagia, eta bere aldian-behingo begi-bakartasun hori, honako honetan datza: Fomoren aurkako gatazka erabakiorraren arestian zelten aztigoren araberako errito bat burutzen du Lug-ek, bere begietako bat eskuaz estalirik, begi bakarra bailitzan, armadaren inguruan itzuli bat eginez (keinu hori erromatarrek

ere ezagutzen zuten<sup>37</sup>). Kasu honetan ekitaldia ez dago arerioen aurka zuzendurik, alderantziz, begi-bakarraren alderdikoei heltzen zaie errito horri darion adurra. Erritoaren helburua ez da testuetan zehazten, baina gatazkarekiko hurbiltasunak, helburu hori, Dedannan-darrak Fomoren gezi eta lantzetatik babestea izan behar dela esatera bultzatzen gaitu. Bestalde, alderdi babesgile hau ezezik, begi-bakarraren begiradaren alderdi beldurgarria aski ezaguna da Irlandan, anitz testutan aipatzen baita, heroiren batek, haserretzerakoan, begietako bat begi-zuloan barrera kurrilo baten mokoa helduko ez zen lekura ino sartu, eta bestea, pertza handi baten adinakoa hazten zitzaiola kanpora.

Indoeuropar begi-bakarraren begirada beraz, begirada magikoa dugu beti, eta eraginak modu askotakoak izan arren, helburua berdintsua izan ohi da: Arerioengandik babestea, gatazkatan haien jautikigaiak saihestuz, eta arerioak berak, begirada sutsuen beldurrez urru-nean eutsiz.

Indoeuropar zaharren ondorengo hiru gizarteotan aurkitu dugun aztigo mota honen nolakotasunak ez du Balor-en begi gaizkileari darion adur pozointsuarekin zer ikusirik. Azken honen lupuak armada oso bat akaba dezake testuak adierazi digunez, eta argi dago mota honetako eragin deuseztatzailerik ez dagoela Lug, Othin edo Cocles erromatarren gaitasunen artean.

Beste zenbait berezikune aipa genitzake baita ere, hala nola, indar horren bereganakera nolakoa den kasu bakoitzean, edota Balor ziklopea dela, eta ez begi-bakarra zentzu arruntean, alegia, ez duela bi begietako bat galdu, baizik eta berez begi bakarra duela kopetaren erdian. Baina ezberdintasun hauek, begiaren indar mota eta erabilerari buruz aztertu ditugunak baino garrantzia txikiagokoak dira. Balor-en begia pozointsu da, eta arerioak bertan akabatzeko erabiltzen da, eta indoeuropar begi-bakarraren begiak aldiz, aztigo laguntzaile baten tresna dira, horretaz baliatzen direnei nolabaiteko hobaria ematen dien aztigoa noski, baina azken buruan laguntzaile baizik ez den aztigoa, zeren berak bakarrik ez baitu balio inor edo ezer deuseztatzeko: Hobari hori, jokabide ausart eta trebeaz osatu beharra dago gero borrokaldian.

Dena dela, eta ezberdintasun hauek begibistakoak izan arren, Balor Mag Tuired-eko gatazkan egotea, kontakizunaren egitura aldrebesten duen fenomeno dugu, DUMÉZIL-ek berak aitortzen duenez<sup>38</sup>. Balor beraz, ez da

37) G. DUMÉZIL. "Mythe et Épopée" III.alea / 279h.

38) G. DUMÉZIL. "Mitra-Varuna" / 185orr. 1.oharra: "(...). Honek zera azpimarratzera garamatza begi-bakarrari dago-kionez: Tuatha De Dannan senitarreetako beste buruzagia, Lug alegia, "begi-bakarra" dela ikusi dugu, baina une batez bakarrik, eta berak eraginik, bere keinu magikoak diraueno. Bada, haste-ar dagoen gatazkan, Lug-en aurkaria, arerioen buruzagietariko beldurgarriena (Lug beraren aitona eta bere biktima hurrena) "Balor-begirada-iragazkorra" (Birugdero) da, - benetako begi-bakarra, bere kemena, kemen magikoa alegia-, halaber magikoki sorturikoa den ezbehar fisiko horri lotzen zaiolarik:... Gauzak honela, badirudi irlandar tradizioa zalantzan ibili dela begi-bakarra eta besamotzaren bikotea (eta elbarritasun hauetako bakoitzak opatzen dituen abantailak) Tuatha De Dannan senitarteen alderdian ala hauen arerioenean kokatzerakoan.

jainko zelta bat, eta gainera bere agerikundeak, indoeuroparrak subiranotasunaren bi alderdiak irudiratzeko asmatu zuten begi-bakar eta besamotzaren bikotearen egitura uhertu eta bihurritu egiten du. Mag-Tuired-eko gatazkaren kontakizunean Balor sartzeko egon diren arrazoiak direnak direla ere, gauza bat argi dago: Indoeuropar ortodoksiaren aldetik, dena gozoago eta zuzenago ibiliko litzateke bera bertan ez balego.

Jentilen akaberaren kontakizuna Mag Tuired-eko gatazkaren kontakizunetik eratorritzat esplikatzen saioa antzua agitu zaigu, erakutsi dugunez. Gure lan hipotesia onartezina bilakatu da, gorago azaldu ditugun eta berriro aipatuko ez ditugun bainazkoak direla medio. Eta halere, euskal eta irlandar kontakizunok elkarri hurbiltzen saiatzeko geneuzkan arrazoiak hortxe daude lehen bezala gure begien aurrean; eta guztien artetik, Balor-en betazalaren jasoera nabarmentzen da, gure inkestaren euskarri bakar bezala. Balor jainkozko zelta ez dela erakutsiko dugu dagoeneko, alde batetik Dedannan-darren senitarteetako buruzagietako bat bezala aipatzen ez zaigulako, –eta hauek dira zelta zaharren benetako panteoia osatzen dutenak–, eta alderantziz, kontakizunaren egituran zeltaitzineko bertako irlandarrak irudiratzen dituzten ondoan lerrokatzen delako; eta bestetik, bere begia-

ren indar mota eta indar horren erabilera eta eraginak, indoeuropar begi-bakar Varunantzekoen begiei darian indar motarekin eta honen erabilera eta eraginarekin parekatzerik ez dagoelako. Balor ez da beraz, zelta zaharren jainkozko bat, baina halere, oraindik jentil igarlearekin aldera dezakegun pertsonaia bakarra dugu.

Balor-en lorratza beraz, baliagarria da oraindik ere; ez noski engoitik jentilaren eratorbidearen abiapuntu jator bezala ikusirik, baizik eta inongo hipotesirik aurrean gabe, gure eskura dagoen erreferentzia baliagarri bakarra bezala.

Bide honi azkeneraino jarraiki behar zitzaion lainoaren bidea urratzen hasi aurretik, nahiz eta ikusi begi gaizkileaz hornituriko mamua, jentil jakintsuarengandik gero eta urrunago zihoakigula. Tarte honek gero eta zabala goa ematen zuen, jentilaren igarpenak eta heriotzak erakusten zuten etsipena, irlandar ziklopearen itxura gaizto eta jarrera odoltzalearekin alderatuz gero. Betazalen jasoera, errainu edo adur erhokorra jaregiteko eragiketatzat jotzen duen hipotesiari gero eta sinesgaitzago irizten genion. Eta hala eta guztiz ere, hipotesi hori saiatzera behartu gintuen pertsonaiak, gero eta nahastuago zirudien gure ikerbidearen itxaropen bakarra izaten zira.

## VI. BALOR-BEGI-GAIZKILEA

Zorionez, Balor-en lorratza ez da Moytura-n amaitzen, eta alderantziz, aztarna ugari erakusten duen lorratza dugu. Izan ere, Balor, irlandar folkloreko pertsonaia gaizto bat dugu, lapur maltzur eta odolgaiztoa; bere begiak, Moytura-n bezala, harek begiratzen duen guztia errauts edo harri bihurtzeko ahalmen ikaragarria du. Folkloreko Balor hau azaltzen den testuetan, eskatu hainbat esne ematen duen behi harrigarri baten lapurretaz hitz egiten zaigu. Gloss Glaven izeneko behi hau dugu hain zuzen, Balor-en begia ekinean erakutsiko diguten kontakizun hauen ardatza. STITH THOMPSON eta beste zenbait aurkibideren arabera (CROSS, KRAPPE), guztira istorio honen sei bertsio egongo lirarteke argitaraturik. Hauetako lau bildu ahal izan ditugu lan honetarako, bai eta eskura ezin gertatu zaizkigun gainerako bi bertsioei buruzko zenbait komentario mamitsu ere. Honats bada, aurreneko bertsioa, 1835ean SHANE O'DUGAN-ek kontaturikoa, lehen argitaratu zena, eta leienda ospetsu eta ezaguna egin zuena<sup>39</sup>:

*Aspaldiko garaitan, Gavida MacSamthainn eta MacKineely izeneko hiru anaia baziren. Donegal-eko kostaldean Tory irlaren parean (bertako "tor" edo harri handietatik hartzen zuen izena) bizitzen. Gavida, bere ola Drumnatinee-n ("suaren muinoa") zuen arotz ospetsua zen; Mackineely, lurralde osoko jauna zen, gaur egungo Rath-Finan eta Tullaghobelly udalerrietako lurrak ere bar-*

*ne, eta hamaika aldiz lapurtzen saiatzen ziren behi arreak ikaragarri on bat zuen.*

*Garai hartan bertan Tory irla, bekokiaren erdian begi bat eta buru atzean bestea zituen Balor izeneko lapur ospetsu baten egoitza zen. Atzeko begiari zerizkion begirada zikin eta makurrek eta errainu eta dirdira pozoin-tsuek, edozein bertan jo eta akabatzen adina indar zuten, eta beraz, estalirik eraman ohi zuen, eta arerioak harri bihurtu nahi zituenean bakarrik agerian utzi; eta gaur egun oraindik, begizkoa botatzen duen begiari Balor-en begia esan ohi diote irlandarrek. Behin bere druidak zera jakinarazi zion Balor-i, bere iloba baten eskuz hilko zela; eta Balor-ek ume bakarra zuenez, Ethnea izeneko alaba gaztea, etorkizuneko arriskuetatik bere burua babestearren, Tor More (Dorre nagusia) izeneko dorre garai eta ia helezinean giltzapetu zuen, irlako ekialdeko bazterrean. Bertan hamabi matronek zaintzen zuten, gizonezkoak bazirenik ere sekula ez aipatzeko agindua zutelarik. Balor-ek bere betiko lapurkerietan segitu zuen, eta azkenik MacKineely-ren behi arrea osteko moldatu zen. Honetarako, mutiko kazkagorri baten itxura hartu eta, MacSamthainn behiari urkabiluaz eusten ari zitzaiola ikusirik, berari hurbildu eta zera adierazi zion, olan zeletan egonik entzun zuela nola haren anaiak haren burdina osteko asmotan zebiltzan beraien ezpatak egiteko. Orduan MacSamthainn-ek urkabilua eusteko eskatu zion kazkagorriari, eta olara abiatu zen grina gorriak harturik. MacKineely-k bere behiaz ukan zuen hurrengo berria, hura*

39) Sir JOHN RHYS. "The Hibbert Lectures". 1866 / 314hk.

Balor-ekin itsas besoaren erdian ikustea izan zen. MacKineely-k druida baten ahotik jakin zuenez, behia ezingo zuen berriro eskuratu Balor hil arte, zeren honek hura gordetzeko zabalik utzi behar baitzuen aurrerantzean bere buru osteko begia; MacKineely-k bazuen ordea lamina bat lagun, eta honek esan zion nola lor litekeen Balor-en hondamena. "Mendiko Birogé" izeneko andereño honek, emakumezko itxuraz mozorroturik zegoen MacKineely hartu, airean zehar Tor More-raino eraman, eta bertan harentzako ostatu eskatu zuen gau hartarako, tirano anker baten eskuetatik erreskatatu berri zuen andereñoa zela esanez. Hamabi matronek ezin noski lamina hura haserretu eta baietz, eta honek berriz, laminek bakarrik ahal dezaketen moduan lokarrarazi zituen guztiak; itzarri zirenean, Birogé eta haren babestua joanak zirela ikusi zuten. Matronek dena amets bat baino ez zela izan sinestarazi nahi zioten Ethnea-ri, baina honek ondo zekien egia, eta garaia heldu zenean hirukiaz erditu zen, hiru mutikoz. Balor sutan jarri zen hau jakiterakoan; hirukiak izara batean bildu, eta berak adierazitako ubil batean ito zitezen bota zituzaten agindu zuen; baina untzia bertaratu baino lehen, izarako katekorratza askatu eta hirukietako zaharrena itsasora jausi zen inor ohartu gabe. Beste biak ubilean ito ziren, zaharrena laminak jasotzen zuen bitartean. Honek aitarena eraman zuen, eta MacKineely-k bere anaia Gavida-ri utzi zion honek hazi zezan eta arotz ospetsua bilaka zedin, lanbide bikaina baitzen garai haietan.

Balor-ek, hildakotzat jotzen zituen bere hiru iloben aita MacKineely zela jakin zuenean, zenbait gizon lagun harturik itsas besoa zeharkatu, eta MacKineely-ren lurraldeetara heldurik, hau hartu, harri zuri zabal baten gainean eratzan, eta bertan lepoa moztu zion. Odol epelaren jarria harri zurian barrena sartu zen erdiguneraino; gaur egun oraindik han bertan dago heriotza anker haren lekuko, eta bere izena "Cloch Chinnfhaolaidh" (Kineely-ren harria) bi udalerrri hartzen dituen bailarari emanez. Balor-ek bere ehizakeriekin segitu zuen gero eta ausarkeria handiagoz; baina urteak joan eta urteak etorri, Lug, -hau baitzen Ethnea eta MacKineely-ren semearen izena-, arotz bikaina izatera eta bere jaiotzaren istorioa jakitera heldu zen: Maiz ikusi omen zuten harri zuriaren odolezko zain gorriei begira, eta bat bateko haserrealdi eta malenkoniaaldiak ukan ohi zituen. Abagune baten zai zegoen, Balor ostera ere Gavida-ren olara maiz etortzen hasi baitzen; eta behin, Lug-en osaba kanpoan zelarik, Balor etorri eta, horra burugabekeria!, zuela zenbait urteko bere MacKineely-ren gaineko garaipenaz hasi zen berriketan haixekiro. Lug-ek, gori-gori zegoen burduntzi bat sutatik atera eta atzeko begitik halako indarrez sartu, eta aurreko begitik atera zion buru osoa iragaziz. Honela hartu zuen mendeku Lug-ek, MacKineely-ren semeak, bere aitona akabatuz.

Kontakizuna mitologikoa da zalantzarik gabe, -behi harrigarriaren lapurreta irlandar mitologiako motibo tipikoa dugu-, baina arestian aztertu dugun Moytura-ko gatazkaren kontakizunarekin ez du zer ikusi handirik. Izan ere, bi kontakizunon arteko kidetasun bakarrak Balor-en inguruan biltzen dira: Bera bertan egotea lehenengo, be-

re begi gaizkilearen deskribapena gero, eta azkenik Lug bere erholearekin duen ahaidetasun lotura, bietan heroi gaztea ziklopearen ilobatzen jotzen baita. Gainontzeoaz, bai gertakariak, bai eta testuingurua ere arras ezberdinak dira bi kasuetan. Moytura-n, Irlandaren jabegoa lortu nahirik borrokatzen diren bi herrien arteko gatazka ikusi dugu, eta hemen berriz, bi alderdik, behi harrigarri bat dela eta elkarren aurka daramaten auzi bakana dugu, ez benetako gatazkarik: Alde batetik MacKineely heroia eta bestetik "bandolero" edo bilakatzen ari den Balor ziklopea. Oraingo ez da haboro auzi politikoa, eraite eta mendekatze batzuen istorio soila baizik.

Azpimarratu berri ditugun kidetasunetara itzuliz, egin ditzagun zenbait zehaztapen: Konnotazio politikorik batere ez duen testuinguru berri honetan, Balor, bere begi gaiztoak deabru itxura ematen badio ere, gaiztagin arrunta bilakatu zaigu. Bere begi gaiztoaren deskribapenak zenbait aldaketa jasan ditu, aurretik ezagutzen genuenarekin erkatuz. Oraingoan, kopetako ziklope begiaz baliatzen da ikusteko, arerioak harri bihurtzeko erabiltzen duena buru gibelean duen bitartean. Begi gaiztoaren kopapen berri honek Moytura-n azpimarratu dugun bainazko bat konpontzen du, han Balor itu geratzen baitzen, ikusteko nahiz deuseztatzeko balio zion begi bakarra estalirik eraman ohi zuelarik. Baina Balor honen berritasunik nabarmenena zera da, Moytura-ko erraldoitasuna galdu duela, eta ez duela inongo morroiren laguntza behar bere betazala jasotzeko; istorio honetan, edozein gizakumeren tamaina berekoa dugu eta bere begi gaiztoa, guk gure begiak bezain erraz zabaldu eta ixten du. Moytura-ko Balor-ek euskal jentilarekin zuen lotura bakarra ez da haboro ageri hemen. Izan ere, behi ebasle bihurtu den Balor honek eta jentil igarleak ez dute engoitik elkarrekin zer ikusirik.

Azkenik, zera nabarmendu beharra dago, Moytura-ko kontakizunean hitz gutxitan eta narrazioaren hesinguru gisa ematen zitzaigun Lug eta Balor-en arteko ahaidetasunaren istorioa, zabalkiro eta xehetasun handiz azaltzen zaigula hemen berriz, ia ia leiendaren ardatz nagusia bilakatuz. Beranduago, gainontzeko bertsioak irakurri ondoren itzuliko gara berriro gai honetara. Oraingo ordea, konstatazio maila hutsean utziko dugu, gehiago azterten saiatu gabe.

Bada, zenbait urte beranduago (1887) leku berberean jasotako leienda honen bigarren bertsio bat<sup>40</sup>, baina ez du merezi hemen azaltzea, ia hitzez hitz errepikatzen baitu hemen eman berri dugun bertsioa.

1893n argitaratutako Mayo-ko konterriko bertsioak, zentzu handia ez duten zenbait pasadizokin nahasten du behi harrigarriaren lapurretaren istorioa. Beraz, zati nagusiak baino ez ditugu hemen azalduko, hala eta guztiz ere, itxura nahiko aldrebesekoa geratzen bada ere<sup>41</sup>:

(...). Itzultzeaz zeudenean, bere jauregian burdinak jartzeko zein arotza gomendatzen zion galdetu zion Balar-ek Gobaun-i.

40) Folk Lore Journal V 1887 / 66hk.

41) W. LARMINIE. "West Irish Folktales and Romances". London, 1893 / 1-9orr.

–"Gavidjeen Go baino arotz hoberek ez dago Irlanda osoan."

Gobaun zaharra etxeratu zenean zera esan zion Gavidjeen Go-ri, burdinak jauregian jartzeagatik ez zezala Gloss-a baino onartu ordain saritzat:

–"Haren azpian hogeit hamar ipiniko balira ere, hark hogeit hamar upelak beteko lituzke".

Orduan Balar Beimann-ek Gavidjeen Go-ri idatzi zion, bere jauregirako burdinak egiten bazituen, ordainetan Gloss-a emanen ziola hitz emanaz. Baina Gloss-a bidali zionean, ez zion ordea urkabilua igorri, eta bazekien urkabilurik gabe, harengandik alde egiten zuela.

Hona Gavidjeen Go-k egiten zuen tratua berarengana etortzen ziren zaldun guztiekin: Behia zaintzea eta ilunabarrean kalterik gabe etxeratzea; berak ezpata bat egiten zuen, behia zainduko zion zaldun bakoitzarentzat. Egunez Connaught-eko Cruahawn-go larretan ibiliko zen, eta Ulster-go Loch Ayachir-a-Guigalu-n edan arratsalde.

Kian, Kontje-ren semea, berarengana heldu zen ezpata bat egin ziezaiola. Berak baietz erantzun zion, baina ordainetan egun hartan behia zaindu beharko ziola adierazi zion.

–"Arratsalderako zurekin etxeratzen ez bada, zure lepoa ingudean ipini beharko duzu, zuretzako egindako ezpata berarekin lepoa moztu diezazudan".

Kian, Kontje-ren semea, behia isiputik heldu eta abiatu zen. Arratsaldean etxeratu zenean, "hemen duzu Gloss-a kanpoan" deiaraz egin zion Gavidjeen Go-ri. Ola barruan Zaldun Barrezkaria izeneko zaldun bat zegoen. Kanpora irten zen lasterka, eta Kian-i honela mintzatu zitzaion:

–"Arotz oraintxe ari da zure ezpata suberatzeko, eta zerorrek ez badiozu eusten, gero ez du batera indarrik izanen eskutan hartzen duzunean".

Kian, Kontje-ren semea, barruratu zenean, behia berarekin ekartzeaz ahortzi zen. Gavidjeen Go-k galdegin zion:

–"Non dago Gloss-a?"

–"Hor kanpoan".

–"Sar ezazu barrena", esan zuen.

Kanpora irten eta behiaren arrastorik ez.

–"Ipini ezazu burua ingudearen gainean, zure soinetik berezi dezadan".

–"Behia bilatzeko hiru egun eman diezazkidazun otoiara ari natzaizu".

–"Emanen dizut horrenbeste", esan zuen.

Abiatu zen bada, eta behiaren arrastoei jarraiki zitzaizkien itsasertzeraino heldu zen arte. Han zebilen gora eta behera ileak eskuaz harrotuz, Gloss-a zela eta, nahaste ederrean sarturik. Gizon bat ikusi zuen unti batean itsasoan. Arraunka hurbildu zitzaion, eta Mananaun beltzarana zen, Lir-en semea. Zera galdegin zion: –"Zer gertatzen zaizu bada?" Gero zera esan zion: –"Zenbat emango zenioke Gloss-a dagoen lekura eramango zintuzkeen norbaiti?"

–"Ez daukat ezer norbait horri emateko".

–"Zera bakarrik eskatuko dizut, berriro itzuli artean irabaziko dituzun ondasun guztien erdia".

–"Zuk esan bezala emanen dizut", esan zuen Kian, Kontje-ren semeak.

–"Zatoz untzira!"

Instant batean Hotzaren Erresumaren lurraldean utzi zuen; irla hartan inork ez zuen sekula jakirik egosi, eta janari mota guztiak gordinik jaten zituzten. Kian, Kontje-ren semeak, sua egin eta bere jatekoak egosten hasi zen. Balar Beimann-ek, honelakorik zegoela entzun zuelarik, bere etxera ekarri zuen, bere sukaldari, bere kontu kontalari, eta bere su zaina izan zedin. Balar Beimann-ek bazuen alaba bat, eta honen gainean honako igarpen hau egin zen, alegia, aitona akabatuko zuen seme bat ukanen zuela. Orduan alaba giltzapetu egin zuen, gizonzkerik hurbil ez zekion; eta bera joan ohi zitzaion alabari jan edanak ematera, eta alabaren zaintzaile zegoena emakume txatxu bat zen. Mananaun-ek honako kemen hau eman zion Kian, Kontje-ren semeari, alegia, eskua gainean ipiniz gero edozein krisketa irekiko zuela eta gero bere atzetik itxiko zela berriro. Balar Beimann alabarengana jatekoekin joaten ikusi zuen zelatan, eta bera ere atzetik jarraitu zitzaion etxeraino, eta eskua krisketaren gainean jarririk atea zabaldu, eta bi emakumezkoak baino ez zuen bertan aurkitu. Haietzako sua egin zuen. Egunerok bertaratzeko hasi zen, alabak umea egin zuen arte. Orduan alde egitear zegoen umea jaio zenean. Erregearengana joan eta alde egin behar zuela esan zion.

–"Zergatik alde egiten duzu?", esan zuen.

–"Irla honetara heldu nintzenetik ustekabeak gertatu baitzaizkit. Joan beharra daukat".

–"Zein da ustekabea?"

–"Haur bat ukan dut".

Balar-ek beste bi seme zituen beste irla batean druidagintza ikasten. Aita bisitatzerako etxeratu ziren.

–"Aita, –esan zuen hauetako batek–, zure kontu kontalariak, zure sukaldariak eta zure su zainak nahiko buruhauste ekarriko dizu".

Kian, Kontje-ren semea haien mintzoa entzuten ari zen. Balar Beimann-en alabarengana joan zen, eta honen anaiak esandakoa jakinarazi zion.

–"Beno, –esan zuen neskak–, alde egiteko garaia heldu zaizu. Hortxe duzu Gloss-aren urkabilua horman eskegita. Horrekin behia zu bezain bizkor joanen zaizu atzetik; eta har ezazu haurra zurekin".

Orduan abiatu zen, eta lehen Mananaun-ek lehorretatu zueneko lekura heldu zen. Mananaun-ek esan zionenez, estuasunean egongo balitz, harengan pentsatu baik ez zuen agin behar eta berehala etorriko zitzaion. Horrela egin eta instant batean agertu zen.

–"Sar zaitez untzira, –esan zuen Mananaun-ek–, eta bizkor ibili, zeren Balar Beimann-ek hondoratu egiten baikaitu ahal badu. Baina nire aztigoa berarengana baino indartsuagoa da", esan zuen beltzaranak, Lir-en semeak.

Untziratu zen, bada, jauzi batez, eta Gloss-a atzetik beste jauzi batez. Balar Beimann atzetik jarraiki zitzaion, eta itsasoa haien aurretik eta atzetik eraiki zuen ekaitza sorrarazi zuen, baina Mananaun-ek berehala, eskua luzatuz bakarrik, osterata baretu egin zuen itsasoa. Balar-ek orduan itsasoa sutan jarri zuen haien aurrean, bertan kis-

kali zitezen, baina Mananaun-ek harri bat jaurtiki eta sua itzali zuen.

–"Eta orain Kian, Kontje-ren semea, kalterik gabe etxeratu zaitudanez, zer emanen didazu ordainetan?"

–"Haurra besterik ez dut, eta ez dugu bi zatitan erdi-bituko; har ezazu zuretzat oso osorik".

–"Mila esker zuri. Hauxe da aspaldian itxaroten ari nintzena. Ez da munduan hau adina izanen den zaldunik", esan zuen Mananaun-ek. Hona Mananaun-ek haurrari ipini zion izena: Dul Dauna. Borrokan eta ekinean irakatsiz hazi zuen. Egun batez, hura eta Mananaun itsasoan zebiltzalarik, Balar Beimann-en itsasuntzia ikusi zuten. Dul Dauna-k eratzun bat begi aurrean ipini eta bere aitona untzi-zubian gora eta behera zebilela ikusi zuen, baina ez zekien hura bere aitona zenik. Sakelatik azkon bat atera, hari jaurtiki, hura jo eta bertan ero zuen. Hone-la bete zen igarpenak zioena.

Testu honetan aurkitzen dugun punturik azpimarragarriena, zera da, bertan ez dela azaltzen, beste bertsioetan Balor-en bereizgarri nagusizat ematen zaigun ezauzgarria, alegia, bere begi gaiztoaren deskribapena. Balar Beimann izaki duingabea dugu, Gloss-aren urkabiluarekin egiten duen maltzurkeriak erakusten duenez, eta aztikeriazko gaitasun deuseztatzaileaz horniturik ikusten dugu Kian-i atzetik jarraitzen zaionean, baina inoiz ere ez dugu entzuten gaitasun horien sorburua izan behar lukeen begi gaiztoari buruz ezer esaten denik. Behi harrigarriaren lapurretaren motiboa, eta ilobaren eskuaz hiltzen den aitonarena ere bertan ditugu. Eta azken honi dago-kionez, bertsio honetan heriotz hau ezerk ez duela zilegizten ikusten dugu, edo agian zoritxarreko patuak bakarrik, zeren gainontzekoan, ez baitago ez mendeku asmorik, ez eta mendeku asmoa zilegi lezakeen Kian-en eraiterik. Dul Dauna-ren azken ekintza arrunt abazkoa gertatzen da.

Ondoren datorren bertsioa halaber, aurren erakutsi duguna baino kaxkarragoa bada ere, badauka ordea interesatzen zaigun motiboa: Balor-en begi gaiztoa. Farney-ko bertsioa dugu hau, XIX. mendeko hondar urteetan bildua<sup>42</sup>:

*Glas Gaibhleann behia, Donaghmoynne inguruko karre-lur aberatseko lurraldeetan zebilen larrean, izen bereko udallerriaren erdian; eta nolakoa izango ote zen haren esne jarioa, azpian ipinitako ontzi guztiak betetzen zituela. Patrizio doneak fundatutako Donaghmoynne-ko eliza zaharraren hurrean badago sakon bat zelai batean, oraindik ere "Poll na Leamhnachta" edo "esne berriaren sakona" izenaz ezagutzen dena, eta hark hura bete ohi zuen jezteko garaian. Gauzak honela izan ziren maltzur dohakabe batek, berak, behiak beteko ez zuen ontzi bat ekarriko zuela apustua egin eta bahea ekarri irabazi zuen arte. Azpikeria honek nazkaturik, behiak bere esne jario harrigarria eten egin zuen, eta aurrerantzean beste edozein behiren antzera baino ez zuen eman.*

42) A. MORRIS. "Miscelanea", Bealoideas aldizkarian, VII.zb. Dublin, 1937 / 245 orr.

*Txahal bat bazuen, eta kontakizun honen garaian Balor Beimeann zen haren jabea. Honek hegoalderantz, Leinster-era eramatea erabaki zuen. Bazekien behiak ez zuela nahiko Ulster-etik alde egin, eta beraz, zera esan zion hura zaintzeko hartu zuen unaiari, hegoaldera eraman zitzala, baina kontu eginez txahala beti behiaren aurrean egon zedin, zeren behiak txahala aurrean ikusten zuen artean, ez baitzuen atzera begiratu.*

*Unaiak, Balor atzetik zihoakiolarik noski, behia eta txahala hegoaldera eraman zituen. Baina gaur egun Dublin eta Meath konterrietako kostaldeko itsasoa dena, larre laua eta loreztatua zen garai hartan. Unai lore biltzen hasi, eta eginkizunaz ahanzi egin zen, eta ondorioa, txahala behiaren atzean geratzea izan zen. Behiak atzera begiratu zuenean txahalaren bila, Ulster-go mendi eta muinoak somatu zituen han urrunean, eta bertan hasi zen marru bizian antsika.*

*Balor-ek bere begi bakarrek betazala jaso zuen behiari zer gertatzen ote zitzaion ikustearren, baina bere begiko zorigaiztoko kemenak harri bihurtu zituen behia eta txahala. Eta Ulster-tarrek, Dublin-go konterriera uzta igitaitzera joan ohi zirenean, behia eta txahala ikusi ohi zituzten, Dublin-go konterriko kostaldeko bi irla alegia.*

Bere ilobaren eskuz hil behar duen pertsonaiaren motiboak bertsio honetan huts egiten duela ikus daiteke, eta horrekin batera noski amaiburu tragiko horretara daramaten gertakariak ere huts egiten dute halaber, istorioa sakonki eraldatuz. Izan ere, eta aurreneko bertsioarekin erkatuz gero, behi harrigarriaren irudia eta orain hain gaizto ez dirudien Balor-en begiaren lirake kidesun bakarrak. Balor honek berriz ere eta Moytura-koaren antzera, begi bakar eta balio aniztuna erakusten digu, honek azken buruan itsu bihurtzen duelarik, beti estalia eduki ohi baitu. Bestalde, betazalaren jasoerak, –eta honetan bat datoz orain arte azaldutako folkloreko bertsio guztiak–, ez dauka inolako ikusgarritasunik: Ez sardetik, ez kizki zorrotzik, ez gizon indartsurik, Farney-ko Balor hau, Tory Island-ekoa bezalaxe, handitasun aipagarria ez bide duen ziklopea dugu, bere begi bakarra, guk geureak bezain sinpleki zabaltzen duen ziklopea. Bi Balor hauen begiradek harri bihur dezakete harrapatzen duten guztia, baina indar hori askatzeko egiten den eragiketa ez da engoitik jentil zaharraren igarpenaren istorioarekin parekagarria.

Betazala lau morroien laguntzaz jasotzen zitzaion Moytura-ko Balor-a hortxe dago, bada, gure jentila eta folkloreko Balor hauen arteko lotura bakarra bezala, zeren argi baitago gainontzekoaz, inolako kidesunetik ez dutela.

Balor-en dossierra, CURTIN-ek argitaratutako bi bertsioekin osotzen da, bata Connemara-koa, eta bestea Donegal-go. Tamalez, bi kontakizunok dakartzen liburua aurki ezina gertatu zaigu, baina jatorrizko bertsioen ezean, hona hemen haiei buruz H.LESSMANN-ek egiten dituen komentarioak, gure jakinminerako asegarriak ikusten denez<sup>43</sup>:

43) H. LESSMANN. "Über der umständliche Tötung", Mitra aldizkaria, I. zb. 1914-20 / 172 hk.

*BALOR BERE BEGI GAIZTAGINAREKIN ETA LÜ LAWADA BERE ILOBA. (J. CURTIN, "Hero Tales of Ireland" / 296 orr.)*

*Balor-ek bere bi begi arrunten gainean zeukan begi gaitztagin hau. Alde honetatik Poliphemo-ri hurbiltzen zaio. Baina begi honen kemena, mundu honetako gauza guztiak errauts bihurtzea zenez, gehiago gogorarazten digu Gorgo-Medusa-ren begi harri-bihurtzailea (ikus ROSCHER LEX. d.gr.u.r.M. I, Sp. 1696).*

*Eskuarki, kopetako hirugarren begi hori burdinazko zazpi ezkutuen azpian eraman ohi zuen Balor-ek, hauetako bakoitza gaztelu batetik harrapaturik. Leienda beraren Donegal-go bertsioan (ikus CURTIN a.a.O., 283 orr.) larruzko bederatziz ezkutu dira...*

*Connemara-ko bertsioan zera dio Balor-ek bere buruz: "Ezein gizonak ezin dit eragotzi nik Irlanda deuseztatzea; nire alabaren semea izan ezik, inork ezin bainau eho, eta alabak semerik ez duenez, ... Baina semerik balu ere, Gaiwnin Gau-k egindako lantza gorriaz bakarrik erho nentzake, eta bakarrik nire kopetako begiko azken estalkia jasotzen dudanean (...) lantza begiaren erdira jaurtikiko balit,..."*

*Balor-ek Connemara-ko bertsioan esaten duen hau, igarpen baten bidez jakinarazten zaio gainontzeko bertsio gehienetan, eta orduan bere eskura dagoen guztia egiten du, igarpenak auresandakoa gerta ez dakion. Bertsio honetan alaba zazpi aterean atzean giltzapetzen du gizonazkorik hurbil ez dakion, eta bera bakarrik joaten zaio ikustera, ate bakoitza itxiaz hurrengo zabaldu baino lehen. Baina Bark Tré druidak, ..., Iluntasun Kapusaia ematen dio Kian-i, eta hau horretan bildurik alabarengaino heltzen da Balor-en atzetik. (...) Balor-ek goiko begiko azken estalkia jasotzen duen instant berean, kopetako begiaren erdian jotzen du Lü Lawada-k jaurtikitzen duen lantza gorriak eta Balor ziplo hilda erortzen da. (...)*

Hona, bada, lehenengo, Balor-en buruaren deskribapen berri bat, bere hiru begiekin, alegia, bi begi arruntak eta horien gaineko begi gaitztagin erretzailearekin. Eta ondoren, testu honek zeraren erabateko konfirmazioa ematen digu, alegia, folkloreako Balor hauetako batek ere ez duela, zenbait gizonen tresna egokietaz baliatuz jaso behar izaten duten betazal zintzilikaririk. Connemara-ko Balor-ek burdinazko zazpi estalkiren azpian gorderik darama begi erretzailea, -larruzko bederatziz estalki Donegal-go bertsioaren arabera-, eta inongo zailtasunik gabe berak bakarrik jasotzen ditu beti, Lü Lawada (Lug) ilobak emanen dion heriotzaren arestian bertan azken aldiz erakusten duenez. Gainontzekoaz, badirudi komentario hauen arabera Connemara-ko bertsioak, argumentuari dagokionez behintzat, Tory Island-ekoaren antza handia duela, hark behi harrigarriak ez duela aipatzen alde batera uzten badugu. Izan ere, behiaren motiboak funtzio bakar eta bera du, agertzen den bertsioetan, hots, bi alderdien arteko etsakeri testuingurua osatzeko aitzakia izatea. Donegal-go bertsioari dagokionez, LESSMANN-ek ez dio nonbait arreta handiegiz begiratu, eta Balor-en begiak bertan duen itxura azaltzeko bakarrik arduratzen da bertsio horretaz; beraz guk ezin diogu beste ezer erantsi komentario urri horri.

Azken lau testuok aztertu ondoren hausnar dezagun une batez gure ikerlanaren egoera. Gure abiapuntua, laino beldurgarri bat beha zezan, betazalak jasotzen zizkion jentil bat zen, eta Moytura-ra heldurik, adur pozointsu eta deuseztatzailea darion begi bakarreko betazala jasotzen dioten Balor ziklopea aurkitu dugu. Motiboa ia berbera zen, baina asmoa eta ondorioak ezberdinak ziren bi kasuetan. Honen ondoren Balor-en lorratzari jarraitu gaitzazkio, eta pertsonaia hau azaltzen den folkloreako bertsioak plazaratu eta aztertu ditugu, hauetan ere Balor gaitztagin lanetan ikusi dugularik. Bertsio zaharren eta osatuenei esker, kontakizunaren mamia edo eduki nagusiak bereizi ahal ukan dugu: Behi harrigarriarekin edo behi harrigarriarekin gabe, Balor-en istorio hau zera da batez ere, begi gaitztagina duen deabru antzeko izaki gaitzto baten kontakizuna, bere bizitzarena, bere alabaren semea jaio ez dadin burutzen dituen alferreko saioekin, eta bere heriotzarena, igarleek auresan bezala etorria.

Baina gure ikerketarako batik bat interesatzen zaiguna zera da, begiaren deskribapenari eta kemenei dago-kionez Moytura-ko eta folkloreako Balor-ek elkarren antza handia izan arren, azken hauengan ez direla azaltzen inondik ere, ez erraldoitasuna, ez eta betazal zintzilikaria ere, alegia, Moytura-ko Balor-a eta jentil igarlea elkarri hurbilarazten zieten bi kidetasunak hain zuzen. Kidetasun eta bereizkune multzo honek, mitoko Balor-a eta folkloreako Balor-en arteko beratasunaz, nortasun batasunaz, hausnartzera behartzen gaitu. Pertsonaia bakar eta bera ote dira denak, edota folkloreako Balor-a mitokoarekin ahaidetasun loturarik ez lukeen begi gaitztoaren irudigarri arrunt ugarietako bat besterik ez ote litzateke?

Gure ustetan pertsonaia bakar eta bera dugu beti. Folkloreako bertsioetan Balor-en begiaren deskribapenari eta kokapenari buruz somatzen ditugun zalantzak eta zeinberekeriek ezin dute ezer egin kontakizunaren garapenaren mailako batasunaren aurka, ez eta Balor eta bere erailearen arteko ahaidetasunari dagokionez bertsio guztiek azaltzen duten adostasunaren aurka ere.

Izan ere, folkloreako bertsioetan nahiz Moytura-ko mitoetan, Balor, bere alabaren semeak akabatzen duen deabruantzeko mamua da beti, eta beti ere, begi pozointsua zera puntadun batez lehertzearekin amaitzen da istorioa. Kidetasun hauek gehiegi eta zehatzegi dira zorte hutsaren zordunak izateko.

Balor bat besterik ez badago beraz, zer pentsatu behar dugu orduan bere bertsio mitikoa eta bere bertsio folklorikoen arteko adostezintasun nagusiari buruz, alegia, munstroaren begia estaltzen duen betazal ahul zintzilikari baten jasoeraren motiboari buruz?

Bi eratara ulertaraz dezakegu: Balor zaharrenaren ezaugarri jatorra izan liteke, edota bestela, jatorrizko Balor-ek ez zeukan eta Moytura-n bakarrik erantsi zaion motibo independentea litzateke.

Aurreneko hipotesiak, batetik, Moytura-ko tradizioaren antzinatasuna (testua XV.mendeko eskuizkribu batekoa da, baina bertan idatzitako ahozko tradizioak askoz zaharragoak dira noski) du bere aldeko, eta bestetik, gauza ezaguna da, ahozko tradizioek denboraren podede-


rioz motiboak galdu ohi dituztela ahotik belarrirako igorbideetan zehar. Halabaina, ez da zaila ere, hipotesi honi zenbait bainazko leporatzea. Izan ere, betazalen jasoeraren motiboa hagitz ikusgarria da, ikusgarriegia ere esan liteke, bat batean erabat ahantzirik gera daitekeenik aha-lezkotzat onartzeko. Baina bere irudi-endarra ez dago bere baitan bakarrik: Aldiz, Moytura-ko kontakizunean betetzen duen funtzioak, alegia, Balor-en begia agerian uztea adur luputsua aske jario dakion, areago sendotzen dio irudi-endar hori. Honela beraz, motiboak berez duen ikusgarritasunari begi pozointsuarekin duen esteka erantsi behar zaio, eta ideia lotura honek benetan begibista-koegi, ikusgarriegi eta tinkoegi dirudi, bat batean eten eta inon arrastorik utzi gabe suntsitu ahal izan dela sinesgarri izateko. Izan ere, imajinagaitzegia ematen du, eta dena den, hagitz arraroa, jatorrizko Balor-ek begi luputsua estali ohi zion betazal zintzilikaria bazuen, eta begiaren indar gaiztoa erabili nahi zuen bakoitzean lau morroik betazal hori jaso ohi bazioten, nola ote den posible ondorengo kontalari guztiek begiaren deskribapena bere osotasunean gordetzea, betazal zintzilikariaren irudia haien gogora inoiz etorri gabe, kontuan izanik gainera folkloreak ia bertsio guztiek Balor-i buruzko xehetasunak oro fidelki gorde ahal izan dituztela: Balor eta Lug-en izen berak, bien arteko ahaidetasuna, eta gaztearen eskuz gertatzen den munstroaren heriotza.

Halere, arras sinesgaitza baderitzogu ere, hipotesi hau aha-lezkoa izanen da, gertagaitza izan arren alderantzizkoa demostratzen ez den bitartean.

Bigarren ulerbidea, alegia, betazal jasoeraren motiboa, jatorriz halakorik ez lukeen Balor-i Moytura-ko kontakizunean bakarrik erantsi zaiola dioena, aurrenekoari atera dakizkiokeen bainazkoetaz elikatzen da. Egiantzeko da, baina ikerbideko une honetan, frogaezina gertatzen zaigu tamalez.

Dena dela, irlandar Etsai honi buruz egindako ikerketak zera baieztatzen digu erabat, alegia, euskal mitoko jentila Balor-en arbaso batengandik eratorritzat jo nahi izanez gero, orduan derrigorrez ametitu beharra dagoela euskal jentila ere izaki gaiztagina zela jatorrian, eta betazal jasotzerakoan adur luputsua zeriela bere begiei. Batean ezik<sup>44</sup>, Balor-en begiaren indar pozointsua zalanzkunerik gabe deskribaturiko konstantea dugu, mamu hau azaltzen den bertsio guztietan, eta areago, Balor bera gaiztotzat jotzen ez denean ere, –Farney-ko bertsioan gertatzen den legez–, bere begiak, ikusten duen guztia harri bihurtzeko kemena gordetzen du, ustekabea eta horrelako asmorik gabe egiten duenean ere. Balor-en ezaugarri nagusia bere begi luputsua da, eta horren ondoan, Moytura-n bakarrik gertatzen den betazal jasoera bigarren mailako ezaugarria besterik ez da.

Gaiztakeria eta indar luputsu hauek halabaina, jentilaren otzantasun eta indargetasun apalaren beste muturrean kokatzen dira. Izan ere, betazalak jasoarazi eta bere herriaren suntsipena iragartzen duen jentilaren jokabidea hitz batek definitzen badu, etsipena da hitz hori: Jentilen akaberaren iragarpena etsipenez beterik iragar-



tzen du saihestezina bailitzan, borroka edo jarkierarako inolako joerarik inoiz erakutsi gabe, mundua sortu zenetik nonbaiten idatzia bailegoen, eta hori jakinik, denek onartuko bailuten. Igarlearen akaberaren aurreko onesten eta etsipen isilok, ez dute inongo antzik erakusten irlandar etsaiaren jarrera odolgaizto eta deuseztatzailearekin. Eta esan dezagun berriro ere, irlandar etsai horren Moytura-ko irudirapenak bakarrik daukala jentilaren kide bihurtzen duen eta gure ikerketaren gakoa den begia zabalteko eragiketa bitxi hori.

Gaineko eskema honek, darabilgun hipotesia irudiratzen du: Adur luputsua darion begi bat eta hura estaltzen zenbait gizonek jaso behar duten betazal zintzilikaria edukiko lituzkeen Balor-en arbaso hipotetiko bat ipini dugu gainean; eta horrengandik eratorriak liriteke azpian ditugun hiru pertsonaiak: Moytura-ko Balor-a, jatorrizko arbaso horrengandik hurbilen gorde dena, aipaturiko bi ezaugarriak eta gainera ilobarekiko harremanen pasadizo guztiak gogoratzen dituen; folkloreak bertsioetakoa aurrekoaren berdina, betazalaren jasoera alde batera uzten badugu, hots, aurrekoa bezain erhole eta etsaia, aurrekoak bezalako begi luputsua duena, eta aurrekoak bezala, aiton-iloben gorabehera gogoratu duena; eta azkenik euskal leiendako jentila, eraldaketa sakonen ondorioz agure ahul eta etsia bilakaturik, bere arbaso hipotetikoaren etsakeria, eta akabatu behar duen ilobarekiko lotura ahaztu dituen, eta izan ere, arbaso horrengandik zenbait gizonek jasotako betazal zintzilikariaren motiboa besterik gorde ez duena.

Ikerbidean zehar bildutako datu guztiak ordenatu eta ulerbideratu nahi dituen hipotesi hau gero eta sinesgaitzago ari zaigu bilakatzen. Adur pozointsua darion begia eta hura askatzeko jasotzen den betazal erraldoia, etengaitz diruditen bi motibo izan arren, gure begien aurrean duguna zera da, bi motibook batzen dituen pertsonaia, eta hari loturik, elkarren arteko inongo kideasunik gabeko bi tradizio, Moytura-ko Balor-en begiaren aspektu batorrizko pertsonaia mitikoaren hipotesiari eutsi nahi izanik ere, horrengandik eratorriak omen liritekeen bi tradizio folklorikoek, bakoitzak gorderiko motiboei dagokienez erakusten duten dibertentzia nabarmenak, badirudi hipotesi horren ezinezkotasuna adierazi nahi digula. Euskal eta irlandar tradizio folkloriko hauetako barne-adostasuna zein bere pertsonaiaren deskribapen fisiko eta psikikoari dagokionez, sendoegi, zehatzegi eta tinkoegi da, biak arbaso berarengandik eratorriak izan litezkeela onartze-

44) Mayo-ko konterrikoa alegia. Bertan dena den itsasoa sutan jartzen duelarik.



ko. Eta bakoitzaren barne-adostasun horretatik tiratzen den elkarren arteko antzik ezak areago sendotzen du bainazko berori. Benetan gertagaitza baita, enbor beretik daratozen bi adar elkarren arteko inongo antzik ez ukatera heltzea, euskal eta irlandar tradizio biokin gertatzen den modura.

Hausnarketak joan eta etorri, Moytura-ko Balor-engo bi motiboen itsasketaren hipotesia, alegia, Moytura-ko kontakizunean, jatorriz begi pozointsuaz bakarrik hornituriko etsaiari betazalaren motiboa erantsi ahal izan zitzaiola proposatzen duena, gero eta sinesgarriagoa bilakatzen da. Logikak adierazten digunez, ideien loturaren mailan bi motiboon esteka logikoa eta grafikoa etetea zaila bada, neurri berean erraz gerta liteke biak elkartzea. Zenbait gizonek erraldoi bati betazala jasotzearen motiboa, eta errainu erholea botatzen duen begi luputsu batena, biak ezagutuko lituzketen gizakien kontakizunetan elkarrekin konbinatuta azaltzeko anitz posibilitate daude. Baina halere, hipotesi honek, bere akatsa hortxe du beti ere: Berez frogaezina da, kontrako hipotesiaren ahuleziak bakarrik indar dezake.

Gauzak honela, galtzada horretatik bideratu behar hain zuzen ikerketa, lorratz oparagoen ezean. Balor-en agerpenak irlandar folklorea pertsonaia hau irlandartzat jotzeko hainbatekoak dira. Baina zelta ote dugu baita ere? Indoeuroparra?

Hona gure ikerbideko hurrengo urratsetarako itaunak. Balor-ek Irlandatik kanpo seniderik balu, eta hauetako norbaitek euskal jentilarekin parekatzea eramango gintuzten ezaugarriak erakutsiko balitu, orduan onartu beharra legoke gure jentila, euskaldunek indoeuroparrendandik maileguz hartu ondoren, haren benetako senna gaizki ulertzeagatik edo, eraldatu egin zuten pertsonaia dela.

Honi sinesgaitza baderitzogu ere, honainoko bainazkoak kritikatu beharrean egonen ginatete orduan, eta ondoren, arrazoizko ulerbideak aurkitu beharko genituzke, komentario hauetan zehar azaleratu ditugun oztopo eta eragozpenei. Haatik, honelako ezer agertuko ez baltiz, hipotesi zeltazalea apur bat gehiago ahultzea lortuko genuke agian, haren hondamen handiagotik, orain eutsi nahi diogun hipotesiari indar berriak etor lekizkion. Erronka garrantzitsu eta zaila da: Bertan dena galdu liteke, ala ezer gutxi irabazi. Halere, eutsi egin behar erronkari.

Balor-en leiendaren kontakizun senidetuei buruzko ikerketak ez du zailtasun handirik. Balor-en leienda, zibilizazio zaharretan nahiz folklorea hagitz ezaguna den gai mitiko baten anitz bertsioetako bat baino ez baita. Gai honek, bere zenbait bertsio klasikoetako pertsonaia nagusiaren izenetik hartzen du berea: Pertseo-ren leienda. Izan ere, Irlandan kausitu ditugun kontakizunak, Pertseo-ren leiendaren senitarte zabalekoak dira. Leienda multzo hau poliki ikerturik dago, duela ehun urte, E. S. HARTLAND-ek bere lan bikaina burutu zuenetik. Hona egile honek proposatzen duen laburpena, OVIDIO-ren bertsioari jarraituz batik bat<sup>45</sup>:

45) E.S.HARTLAND. "The legend of Perseus". London 1894 / I.alea, 1-3 orr.

*Akrisius, Abas-en semea eta Argos-eko erregeak, orakulu batek bere alaba Danae-ren semearen eskuaz hilko dela iragarri diolarik, brontzezko dorre bat eraiki eta bertan giltzapetzen du alaba, ezkongabea gera dadin eta honela orakuluak huts egin dezan. Halabaina, Juppiter-ek bisitatuko du neska, urrezko erbi baten itxurapean; eta neska ume batez erditzen da, Pertseus-ek alegia. Erregeak agindurik, ama-haurrak kutxa batean sartu eta itsasora botatzen dituzte. Kutxa, Seriphos izeneko irlan lehorreratu zen, eta Dictys izeneko arrantzale batek sartu zuen lehorrean barrena. Polydectes-ek, irlako erregeak, Danae bere babespean hartu, eta handik gutxira harekin ezkontzeko grina sartu zitzaion. Horretarako, aurrena semeaz libratzea beharrezko iruditu zitzaion. Eta horrela, hiru Gorgon-etan hilkor zen bakarraren burua, Medusaren burua alegia, moztu eta ekar ziezaion agindu zion, noski saioan hilko zeneko itxaropenaz. Baina gazteak, lagunak zituen leku garaitan. Pallas-ek, ispilua bezain ditziratsu arradaturiko ezkutua eman zion, Pluto-k ikusezintasunaren kaskoa, Merkurio-k bere oinetako hegadunak, eta Vulkano-k ezpata bat. Honela horniturik, abenturara buruz abiatu zen. Graia-eren egoitzara heldurik, hiru ahizpa higuigarriok batera daukaten eta eskuz esku elkarri ematen dioten begi bakarraz jabetu zen, eta honela behartu zituen, Gorgon-ak non aurki zitzakeen erakutsi ziezaioten. Abentura honetako arrisku nagusia, Medusa-k, hurbiltzen zitzaion edozer eta edonor bere begirada batez harri bihurtzeko zuen kemena zen, zalantzarik gabe. Pertseus-ek honela saihestu zuen arrisku hori, alegia, lo zegoela hari hurbilduz, eta bere ezkutuaren islan begiratu, ezpatarekin lepoa moztu zion bitartean. Bere saria zorroan zekarrela itzulbidean zetorrelarik, Atlas Libia-ko errege erraldoia bisitatzea hurbildu zen; baina abegi eskasez hartua izan zela eta, Gorgona-ren buruaren erakustaldi bat eskaini zion erregeari ordainetan, eta honela, hau, eta honen zerbitzariak, harri bihurturik, geroztik ortziaren euskari izan den Atlas mendilerro ospetsua bilakatu ziren. Handik laburrera, lehorraren gainetik hegan zihola, Andromeda ikusi zuen, Cepheus Etiopiako erregearen eta honen emazte Cassiope-ren alaba, harkaitzari lotuta. Lurrera jaitsi, eta zera jakinarazi zioten, Juppiter Ammon-en orakulu bati makurtuz jarri zutela neska modu horretan, itsas mamu batek jan zezan. Mamua, nazioa apur zezan bidali zuen Neptuno-k, Cassiope-ren harrokeria baten zigor gisa, honek bera, Nereida-k bezain ederra zela esan baitzuen. Pertseus-ek, jainkoen mendekuaren bitartekari horri aurre egin, eta akabatu egin zuen, eta gero Andromeda emaztetzat hartu.*

*Ezkontza ospakizunak halere, Phineus, Cepheus-en anaia, itsusitu zituen. Andromeda emaztetzat aginduta zuen nonbait, eta hura arriskutan harkaitzari lotuta egon zen artean haren alde deus ere egin ez bazuen ere, orduan berriz, lagun talde batez heldu zen bere andregaiaren salbatzaileari kentzeko asmoz. Pertseus-i ekin, eta Ovidio-k xehetasun handiz ematen duen borroka odoleztatua bihurtu zen eztei bazkaria. Amaiera beti bezala, Medusa-ren buruaren esku hartze eta arerioen harri bihurtzearekin helduko da. Honen ondoren, Pertseus eta bere emaztea Argos-era buruz untziratzen dira, eta ber-*

tan, *Pertseus-ek bere aitona tronora igoaraziko du berriro, Proteus-ek eraitsi baitzuen artean; eta bertara bidean, bere ama danae Polydectes-engandik salbatzeko puntua puntuan helduko da Seriphos irlara. Tiranoa harri bihurtu eta Dyctis zintzoari eman zion erresuma.*

*Akrisius-i zegokion orakulua beranduago bete zen Larissa-n, Teutamias Thessalia-ko erregeak bere aita zenaren alde ospatu zituen hileta-jokoetan. Lehietariko batean, Pertseus-ek lantza jaurtiki eta ustekabean aitona buruan jo eta bertan hilda geratu zen.*

Elkarrengandik hain urrun egonez halabeharrez gartzaren diren ezberdintasun guztien azpitik, Balor-en leien-dak eta Pertseo-renak, biak elkarrekin sailkatzera garamatzen egiturakidetza nabaria azaltzen digute. Biak, gai mitiko bararen barianteak ditugu. HARTLAND berak azaltzen duen azpi-gaien sailkapena, egiturakidetza hori garbiago ikusteko lagungarri izan dakiguke<sup>46</sup>:

*Leienda, honako hiru gertakari hurrenkera nagusi hauek osatzen dute, alegia:*

1.– *Heroiaren jaiotza, igarpena ere tarte, Akrisius-en ahaleginak hori saihesteko, naturagaineko edo aideko ernalketa, ama-haurren lagatzea itsasoan, eta igarpeneren betetzea Akrisius-en heriotzaz.*

2.– *Gorgona-ren buruaren eskuratzea, Polydectes-en jeloskorkeria, jainkoek heroiari emandako arma harri-garriak, Garaiaie ahizpen pasadizoa, Medusa-ren lepamoztea, eta Polydectes-en aurkako mendekua tartean direlarik.*

3.– *Andromeda-ren erreskatea, itsas-mamuauren aurkako borroka, eta Phineus-en gaineko garaipena tarte.*

Balor-en leienda, aurreneko azpi-gai hurrenkerak, –druiden igarpena, Balor-en ekidite ahaleginak alaba giltzapetuz, berez aidekoa ez izan arren aideko laguntzaz ahalbideratutako ernalketa, haurra galtzeko saioa eta igarpena betetzea–, eta bigarrenaren aspektu gehienek osatzen dute batik bat. Bigarren azpi-gaia halere, aurrenekoaren barnean agertzen zaigu irlandar leiendaren kasuan, Balor-en balio bikoitzak eraginik, honek beregan biltzen baititu kontakizun klasikoko Akrisius eta Medusaren nortasunak. Eta bi pertsonaia hauek Balor-engan biltzeak, ezinezkoa egiten du, Medusa eta Akrisius-en heriotzen artean gertatzen denaren parekorik, –hirugarren azpi-gai hurrenkera–, Irlandan gertatzea, bertan behar hainbat tarterik ez dagoelako, biak instant berean hiltzen direlako. Bestalde Irlandan, Balor-en alabaren eginkizun bakarra Lug mundura ekartzea bide denez gero, gaixoak ez du bere Polydectes topatzeko abagunerik.

Bigarren mailako bereizkUNETXO hauek azaldu ondoren, bi tradizioon azterketak gerizarik gabeko argitasuna ematen digu, beren arteko senidetasun loturari dagokionez: Kidetasunak larregi eta ageriegia ditugu, zorte hutsaren zorduntzat jotzeko.

Punturik harrigarriena dudarik gabe, gero eta etsaia-go deritzogun Balor horren sena bikoitza dugu: Alde batetik heroiaren aitona da, sena gezako Akrisius horren baliokidea. Gogora dezagun Akrisius ez dela horren gaiz-

toa (haurra itsasoan lagatzea patuaren eskuetan, ubil batean itotzea baino errukiorragoa da) eta ustekabeko berreroa izanen den ilobak, tronoa eskuratuko diola igarpena bete baino zerbait lehentxeago. Eta beste aldetik, bekaiztokide duen Gorgon-aren etsakeria eta deabrukeria haragiratzen ditu. Bi aspektu hauen nahasketaren emaitza noski, bigarrenaren etsakeria nabarmenari gehiago hurbilduko zaio aurrenekoaren izate gezari baino.

Akrisius-en heriotza, patuaren gaiztokeriari zor zaio beraren gaiztokeriari baino, eta Balor-ena berriz, mende-kuaz jantzirik, ondo merezia dago, heroiaren aita eta anaiak ero baititu ziklopeak. Balor-en sena beraz, Medusa-ren senaren baliokidea da batik bat, eta baliokidetza hau beste bide batetik ere baieztatzen zaigu. Izan ere, Medusa-ren begiaren indarra, eta honen irlandar baliokidearen begiarena, zein bere aldetik asmatutako motiboa izanen ote zireneko beldurrez egon liteke, batez ere begi harri-bihurtzailez hornituriko mamuen hedadura ikaragarria, –beranduago azalduko dugun hedadura–, eza-gutu eta gero. Halere beldur horiek euskarririk gabekoak dira, zeren eta Medusa eta Balor-en artean susmatutako lotura horri erabateko bermea ematera datorkion tradizio paraleloa baitugu. Tradizio hau, mamuen organo gaizkile-en azken buruko erabilerari dagokio, eta erabilera hau berdina da bi kasuetan, organo luputsua, aurrerantzean arma beldurgarria bilakatzen den ezkutu batean kokaturik geratzen baita. Medusa-ren begia Athena-ren begian itsatsirik omen dago, HARTLAND berak dioskunez<sup>47</sup>:

*Argos-en erakusten zuten haren hilobia; eta bertako "forum"-en lurketa baten azpian, haren Gorgon-aren gaineko garaipenaren trofeo beldurgarria zegoela esan ohi zen, eta beste bertsioaren arabera, Athena-ren ezkutu-tuan, jainkosaren armarik beldurgarrienean, geratu zen betirako finkaturik.*

Balor-en begia berriz, ez da osteria agertzen, azaldu ditugun folkloreko bertsioetan etsaia hil ondoren, baina bai ordea Moytura-n. Edo hobe esanda, ez bere begia, bere burua baizik, buru osoan kokatzen baitu Balor-en adur pozointsua, MACCULLOCH-ek aipatzen duen balada batek<sup>48</sup>:

*Balada moduan datorkigun bariante batean, Lug-ek mozten dio lepoa Balor-i, baina honek zera eskatzen dio Lug-i, bere burua harenaren gainean jar dezan, horrela, haren bedeinkapena ukanen baitu. Zorionez halere, Lug-ek urritz baten gainean ipini zuen Balor-en burua, eta honek isuritako lupuak urritza bitan pitzatu zuen. Urritza, sai eta bele egoitza bilakatu zen urte askoan, Manannan-ek zainetatik ateratzea agindu zuen arte, eta zainei zeri-rien lurrin luputsuak langile asko hilik edo zauriturik utzi zituen. Zur horretatik Luchta-k ezkutu bat egin zuen Manannan-entzat, eta Irlandako ezkutu ospetsuenetarikoa izan zen. Gatazkan inork ezin zuen ukitu, eta egundoko txikizioa eragiten zuen beti. Azkenik, fionn-en ezkutua bilakatu zen.*

47) Ber. I, 4.orr.

48) MACCULLOCH, aip.id. 32h.

46) Ber. I, 10.orr.

Gertabidea zertxobait landuagoa dugu hemen, baina bi tradizioon errokidetasuna nabarmena da. Medusa-ren begiak eta Balor-en buruak ibilitako bideen ezberdintasunak eta azken buruan helmuga berberera iristeak zera erakusten digu gainera, alegia, tradizioetako bat duela gutxi bestetik maileguz hartutakoa ez dela, eta biak aspaldidanik bilakabide bereiztuei jarraiki zaizkiela, zein bereari. Beharbada, arerio etsai baten indar gaitztoa arma batean integratuz nola menderatzen edo arauzkotzen den erakutsiko lukeen indoeuropar gai mitiko zahar baten aurrean gaude. Ez dakigu indoeuroparrek eratorritako beste gizarteetan kontakizun honen baliokiderik ezagutzen ote den, baina greziar eta irlandar bertsooen izanak hipotesi horri eusteko zutabe sendoak ipintzen dizkigu.

Dena den, bazter dezagun tradizio paralelo hau eta itzul gaitezen Pertseo-ren leiendara. Ezkutuan integraturiko etsakeriazko indarraren motiboak mundu zelta gainditzen badu, Pertseo-ren leienda berriz, erdigunea ekialdeko Mediterraneoa duen hesparru geografiko oso zabalean ezaguna izan da aspaldidanik. HARTLAND-ek dioenez, leienda hau, asiriarrak, iraniarrak eta ejiptziarrak ezagutzen zuten, greziarrak eta erromatarrek beste. Autore hau, Pertseo-ren jatorriari buruzko hipotesi bat plazaratzera arriskatzen da, Pertseo, babiloniar epopeiako heroia den Gilgamesh delakoarengandik eratorritakotzat joz, baina honek ez du oso onegarri ematen. Dena den, Ekialde Erdian ospea hartu zuen indoeuropar jatorrizko kontakizuna dela, ala aspaldidanik indoeuroparrek asiriarrarengandik maileguz harturiko leienda dela, gure lanari axola zaio aldetik, Balor-en leienda eta begia, Irlanda eta mundu zeltaren gaindikoak direla azpimarratu behar dugu, eta era berean, betazal jasoearen motiboa begi luputsuaren motiboi lotuta inon ez dela ageri nabarmenarazi.

Moytura-ko kontakizuna baino modernoago diren bertso folklorikoeak, bilatzen ari garena bezalako betazal jasoe bati buruz deus ere esan ez duten bezala, irlandar eskuizkribua baino nabarmenki zaharrago diren Medusa-ren buruaren deskribapen klasikoak, hutsune berbera erakusten digute. Baina Medusa ez da zintzilikario horren gabe an dagoen bakarra, –eta gogora dezagun berriro bide batez, zeinen zaila dirudien, harri edo errauts bihurtzen duten begiraden begia, eta estalki gisa jausten zaien betazala, bata bestetik etetea, zeren Moytura-ko Balor-enaren edo euskal jentilarenaren pareko betazalak erabat huts egiten baitu begi gaizkilearen motiboa dakarten tradizioetan, –indoeuroparrak eta bestelakoak–, osatu ahal izan dugun bilduman. Eta kontuan eduki bedi bilduma hori, irudigarri mota honen ia mundu osoko adibide guztiak dakartzaten zenbait aurkibideren laguntzaz osatu dela.

Gure motiboa aurkitzeko itxaropen txiki bat ukan zitekeen bi kasutan bederen. Bai Iranen, bai eta Indian ere, bekaiztoaz hornituriko pertsonaiek etsai itxura eta nortasun kementsua dituzte, baina gainera Medusa-k ez duen gizarterapen sendoa daukate gainera, eta hein honetan, Balor-erengandik hurbilago daude Medusa zegoena baino. Irlandarra Zainigav deritza, eta bere agerpena, bere nazioko mitologiako Historiaren erdian gertatzen da<sup>49</sup>:

49) A. J. CARNOY. "Iranian Mythology". "Mythology of all races" bildumako VI.alea (MAR VI). Boston 1917 / 336.orr.

*Espedizio honek iraun zuen bitartean, –edo honen bikoizketa den Hamavaran-era egindakoak–, Irango herria bere nagusiak bakarrik utzi zuelarik, antzu eta gabeturik utzi zuen, Arabiatik etorritako Zainigav izeneko etsai batek. Honek bere begi bakarreen zuen lupuaren indarrak, begiratzen zuen nornahi eraiten zuen. Zenbaterainokoa izango ote zen izurritea, irandarrek Afrasiyab, beren betiko arerioari egin ziotela Zainigav-er libratzeko etor zekien; eta ordainetan turandarrak ..... (Afrasiyab-ek alegia) Kai Kaus errege ergelak hain arinki utzitako Errege Haintza eskuratu zuen. Afrasiyab-ek halere, larkeriaz erabili zuen boterea, eta berriz ere Rustam-ek salbatu behar izan zituen irandarrek, Kai Kaus askatu eta turandarrak egotziz.*

Zainigav-ek ez dauka Pertseo-ri hurbil dakiokkeen pasadizorik, baina Balor fomoretarrarekin pareka daiteke nolabait, honek ere borroka politiko eta militar batean esku hartzen baitu "Irlandako gizonen" aurka, Zerutar Zuzenbidez irlaren subiranotasuna dagokien Tuatha De Dannan direlakoan aurka alegia. Etsai itxurako pertsonaia dugu, eta folkloreko Balor-etako baten antzera, lurralde osoa izorratzea inork ezingo diola eragotzi uste du. Biek ere begi luputsuez horniturik daude, baina Zainigav-ek ez dauka, zenbait gizonen jaso behar duten betazal zintzilikaririk.

Gauza bera gertatzen da baita ere Siva-rekin, bere etsai alderdia erabat ezkutatu ezin duen indiar jainkoarekin alegia. Bikoizkeria horrek Balor-engana garamatza, hau, etsaia izan eta Lug jainko nagusiaren aitona baita orobat. Eta Balor-engana garamatza halaber, Siva-ren bekaiztoaren deskribapenak, CURTIN-en Balor-ek bezala, kopetaren erdian, bi begi arrunten gainean baitago. Siva-ren hirugarren begiak, dena errauts bihurturik uzten duten su errainuak jaurtitzen ditu. Honako indiar otoiitza honek Siva-ren<sup>50</sup> gaitasun horretaz hitz egiten digu:

*Amodioaren jainkoak, Siva-ren begiaren suaren beldurrez babespe bezala erabiltzen duen, Gauri besarkatu ondorengo Siva-ren izerdi-ur freskoak, babestuko ahal zaitu!*

Baina oraingoan Indian gaudenez, edozein asketak beregana dezake ahalmen hori, austeritate luzeetaz jainkoa behar bezala gozatuz, eta honen ondorioz, luzea da, suminduraz begiratzen duten guztia errauts bihurtu deza keten asketen lista. Honats hauetako bat<sup>51</sup>:

*Antzinako garaitan bazen soiltasun handiko ermitau bat basoan bizitzen, eta behin zuhaitz baten gerizpean atsedeten zegoelarik, bele eme batek ziriñaz zikindu zuen; begi haserrez so egin zion eta belea errauts bihurtu zen begiradak ukitu zuen instant berean; eta honela ermitauak bere soiltasun-aldiaren indarra ikusirik harropuzten hasi zen.*

Literatura Sivadarearen eta austeritateen eredu diren asketen ugaritasunak ezin du haatik erremediatu gure zorioneko betazalak agertu nahi ez izatea.

50) N. M. PENZER. "The Ocean of Story". (10 ale). London 1923 / I.alea,95.orr.

51) Ber. IV, 232.orr.

Indoeuropar kultura hesparrutik jalgi gabe, hona HARTLAND-ek azaltzen duen eskandinabiar eredu hau, bere erraldoi gaizto eta harri bihurtzen duen santu zahar baten buruarekin<sup>52</sup>:

... antzinako garaietan Issefiord-en bizi zen erraldoi bat, bertatik pasatzen ziren untiak geldiarazi eta pasabidearen ordain gisa bakoitzetik gizon bana hartzen ohitu zen. Azkenean, nolabait jakin zen, erraldoiaren kemena, aspaldian Erroman lepoa moztu zioten Luzius aita Santuaren burua hari erakusterakoan amaituko zela. Beraz, zenbait fraile Erromara bidali zuten buruaren bila. Untzia itzulbidean zetorrela fiordoan sartu hurren zegoelarik erraldoia agertu zen; baina fraileek, santuaren burua eskuetan hartu, eta erraldoiak honi begiratu orduko harkaitz bihurtu zen oihu beldurgarri bat eginez.

Hain kemen izugarria duen buru horren jabea ez da sekula gaiztoa izan, bai ordea martiri handia. Kristau tradizioaren eragina nabarmena da interpretazio honetan, baina gainontzekoaz, santuaren buruaz egiten den erabilpena erraldoia harri bihurtuz, Athena-k edo Fionn-ek nork bere ezkutuz egingo luketenaren parekoa dugu. Balor eta Medusa-ren tradizioen antzeko baten garapen narratibo berantiarra izan liteke Luzius Aita Santuaren buruarena, nahiz eta benetan ezin horretaz ezer esan. Dena den, ikerturiko motiboa ez da bertan agertzen.

Indoeuropar hesparrutik kanpo, leku batean bakarrik merezi zezakeen miatzeak: Gilgamesh-en epopeian alegia. Gogora dezagun HARTLAND-ek Gilgamesh proposatzen zuela Pertseo-ren arbasotzat. Bi heroion arteko kidetasunak bi pasadizotan muga daitezke: lehena jaiotorduko detaile bati dagokio, eta bigarrena, nork bere alde-tik begirada eraileko mamuaren aurka egiten duten borrokari. Pertseo-ren arerioa ikusi dugu dagoeneko; goazen beraz Houmbaba deritzan bere izakide babiloniarra ezagutzera<sup>53</sup>:

*Gilgamesh-ek orduan bere haizkora hartu eta zedro sakratuetako bat eraitsi zuen. Zuhaitza egundoko abar hotsez jausten da lurrera, eta horra Houmbaba bere egoitzatik irteten dela dunbotsez eta orroaz. Izan ere, mamu hau arraroa eta beldurgarria zen, aurpegiaren erdian, ikusten zuen guztia harri bihurtzeko gai zen begi bakarra zuelarik. Oihanartean zehar lasterka suminduan oldarturik, gero eta hurbilago, abar hautsi eta zanpatuen hotsak une batetik bestera agertuko zela somarazten zuelarik, Gilgamesh-ek benetako beldurra zer zen jakin zuen lehen aldiz. Baina Eguzki-jainkoak, bere hitzemanaz oroiturik, beldurrik gabe borrokara oldar zedin esan zion Gilgamesh-i ortzi goietatik, eta basoko azken hostoak tartetik kentzen zituen une hartan, heroiak aurpegi beldurgarri haren aurrean geratu behar ziren une berean, Eguzki-jainkoak haize zakarrak eta idorrek sorrarazi zituen ortzietako bazter guztietatik, eta hauek, munstroaren begiari eraginez, ikusmena ilundu zioten eta ezin zuen ez aurrera eta ez atzera egin. Eta Houmbaba beso-*

*ekin haizeak jo nahian zebilenean, Gilgamesh-ek eta Enkidu-k, haren gainera jauzi egin, eta jo eta eman, eta jo berriz ere, munstroak erruki zitezen eskatu arte. Baina heroiak entzungor egin zuten, eta ezpata harturik, buru beldurgarri hura soinetik bereizi zuten.*

Houmbaba-k ere beraz, erraldoitasuna bazuen, baina ez ordea, ukanen balu haizeetakotzat erabili ahal izango zuen Balor eta jentil igarlearen antzeko betazal zintzilikaririk. Pertseo-ren leiendaren jatorriari buruzko eztabaidak ez dute beraz engoitik inongo interesik gure ikerketarako, ez babiloniar testuetan, ez eta indoeuroparren-gandik eratorritako gizartekoetan ere ez baitugu betazal zintzilikariaren arrastorik kausitu ahal izan.

Une honetan zera baieztatzeko moduan gaude, alegia, gure motibo hau ez dela sekula Pertseo-ren leiendan edo bere Ekialde Erdiko kontakizun senidetuetan egon.

Inkesta hau egin bitartean bide bazterretan agertu eta aipatu gabe utzi ditugun adibideen ugaritasunak, Medusa-ren begiaren motiboaren hedadura ia unibertsala adierazten du. Izan ere, leku bitxienetatik datozen anitz erreferentzien berri jaso ahal izan dugu: Libia, Serbia, Ejipto Zaharra, Eskitia, Sardinia, Jugurta (Erromatarren garaiko ipar Afrikako erresuma bat), Espainia, Brasil, Peru, Cambodia, Borneo, Tahiti eta rabinoen tradizioa, guztiak antzeko mamuetaz eta antzeko begietaz mintzo zaizkigu, begirada hutsak harri edo errauts bihurtzen duen begiez alegia.

Esan beharrik ez dago tradizio hauetako batek ere ez duela, begi gaiztoa estaliko lukeen betazal zintzilikaririk aipatzen. Burutu dugun ikerketa-itzuli luze eta neketsu honen ondoren, ikerketaren benetako giltzarria den Moytura-ko Balor-engana jo behar dugu berriro, erabateko hipotesia bota aurretik, dossierrari buruzko azken hausnarketak plazaratzeko.

Pertsonaia honek astian eta espazioan zehar ibiltako bidea argitan jarri dugu mutur batetik besteraino. XIX. mendean Irlandan bildutako bertsio folklorikoak azaldu ditugu aurrena, eta Balor-en senideak dakartzaten bertsio klasiko zaharrak gero;

Hauek guztien bitartez, historiaurreko irudiragarri mitiko honen istorioa eta deskribapenari buruzko taxuzko koadro bat osatu ahal izan dugu, bertan harmonia osoa izateko huts egiten duen detaile bakarra, hain zuzen ere gure ikergaia zela somatuz, eta ondorioz, motibo hori leiendaren osakin jatorretatik aparte sailkatuz. Burutu dugun inkestaren emaitza ezkorrek kontuan hartuz, zenbait gizonen jasotzen duten betazal zintzilikariaren motiboa, jatorriz Balor-en leiendarekin zer ikusirik ez duen motibotzat jotzen dugu; motiboa leiendari itsastea, Moytura-n bakarrik gertatu dela diogu, eta itsasketa horren arrazoiak argi daudelakoan gaude, ondoren adierazten den legez.

Moytura-ko gatazka, –gizarte hirufuntziokariaren eraikuntzaren gainontzeko bertsioen antzera–, benetako gertakari batzuen oroitzapen mitifikatua da: Irlanda kon-

52) HARTLAND, aip.id. III, 140 h.

53) T. H. GASTER. "The oldest stories in the world". New York 1952./33 h.

kistatu eta kolonizatu zuten senitarte zelten heltzearen oroitzapena alegia. Moytura-ko gatazkaren kontakizunak bi borrokaldietan laburbiltzen, –edo hobe, ikurrarazten–, den bertakoen erresistentzia adierazten digu, eta bertan, betazal zintzilkariko Balor erraldoia, zelten aurka borrokan dabilzan bertakoen lerroetan aurkitzen dugu. Kokaera honek bultzatu gaitu hasiera hasieratik, Balor jainko zelta bat ezin zela izan esatera, hauek Dedannan senitarteko buruzagiek haragiratzen baitzituzten, hain zuzen ere Balor-en aurka borrokan zebiltzanak, alegia. Izan ere, Balor ulerbideratzeko bi bide baizik ez zeuden, MACCULLOCH zeltazaleak aspaldidanik proposaturiko bideak hain zuzen: Balor deabru zelta bat izan liteke, ala zeltaitzineko bertakoen jainkoren baten deskribapen etsairatua, baina inola ere ez zelta zaharren panteoiko jainkoren bat.

Halere, bada aurreko biak konbinatuzetik sortzen den hirugarren ulerbidea, nire ustez, gure inkesten emaitzein ongien datorrena gainera: Moytura-ko Balor, deabru zelta bat eta zeltaitzineko bertakoen jainkozko bat nahastearen emaitza izanen litzateke, etsai zeltaren ezaugarri nagusia bere begi gaizkilea izanik, eta zeltaitzineko jainkozkoarena, bere betazal ahulak zenbait gizonen urkulu, sarde,haga, kizki edo bestelako lanabesen laguntzaz gora jasotzea, eragiketa honen esangura asmaezina zaigularik.

Bi osakinak kontuan hartu beharrekoak dira, zeren alde batetik, argi eta garbi erakutsi baitugu Balor pertsonaia zelta dela, eta bere deskribapena, –betazala salbu noski–, nahiz bere leienda (edo leiendak hobe esanik, ez baitugu ezkutuarien tradizioa ahantzi behar) gutxienez beste gizarte indoeuropar batean aurki ahal daitezkeela, eta beste aldetik, betazal jasoeraren eragiketa behin bakarrik atxikitzen baitzaio, eta hori, esangura politiko handiko kontakizun baten barnean, zeltaitzineko bertakoen borrokari eutsiaz, zeltei ekiten dabilelarik.

Koktelaren gorabeherak irudiratzeko saio bat eginez, honelako urratsak proposa litezke: Zeltak Irlandara heldu, eta ezaugarri nagusitzat zorioneko eragiketa bitxi hori duen jainkozko bat aurkitzen dute, bertakoen jainko nagusia edo, agian.

Eragiketa horrek, zehaztu ezin dugun nolabaiteko aztigoa adieraziko luke. Betazalen keinu bitxi honek, konkistatzaile guztiek beti martxan jarri ohi duten prozesua errazten die zeltei, bertakoen jainkoak etsai itxuraz janztera daramana alegia, hauek berehala lotuko baitioite, beren indoeuropar iraganalditik ondotoxo ezagutzen duten Balor gorgonikoa, betazal ahulekiko jainkozkoari.


Egiazkoa izanez gero, zeltaitzineko Irlanda eta Euskal Herriaren arteko kidesetasun kulturala onartzera derrigortuko lukeen hipotesi honek, honaino igarritako oztipoak eraitsi eta argitan ipinitako irregularkeriak ulerbidera ditzake, bai Moytura-ko kontakizunari dagokionez, bai eta Balor-en lorratzari jarraikiz aztertu ditugun tradizio guztiei dagokionez ere; eta areago oraindik, honaino aipatu ez ditugun baina oztipo izugarriak plazaratzen di-

tuzten zenbait ilungune larri ere suntsiarazten ditu. Aurreko hipotesiaren ikusguneak arras gaindiezinak diruditen puntu hauek ondorengo hausnarketetan azalduko ditugu. Baina goazen astiroxoago hipotesi berriaren abantailen azalpen honetan, eta ikus dezagun lehenengo, aurreko hipotesiak eraikitzen zituen oztipo eta bainazkoak nola ulerbideratzen dituen gure hipotesi berri honek.

Aurrekoak zioenez, Moytura-ko Balor-a izanen litzateke denetan jatorrena, bere begi gaizto eta betazal zintzilkariekin, eta honetatik eratorriak lirateke zein bere aldetik eta zein bere ezaugarrietaz, euskal bertsioetako jentila eta irlandar folkloreko Balor-a. Honelako oinarritik abiatuz gero, azken buruan arazo beraren hiru agerketa besterik ez ziren hiru zailtasun topatzen genituen: Betazalaren motiboaren hutsegitea Balor-en leiendaren senide klasiko zaharretan eta leienda beraren irlandar bertsio folklorikoetan alde batetik; begi gaiztoaren motiboaren hutsegitea jentilen akaberaren bertsioetan bestetik; eta azkenik, bertsio beroietan Balor eta Pertseo-ren leiendetako motibo nagusiak inoiz ez agertzea, disoziazio hipotetiko horren ezinezkotetasunaren igergarri argiak ziren. Begi gaiztoa eta betazal zintzilkaria ukanen litzuzkeen Balor hipotetiko batetik abiatuz, hamaika gauza arraro imajinatu behar ziren, hari lotutako edo harengandik eratorritako omen hiru leienda zikloetan gertatu bide ziren hutsune, ahantzaldi, eraldaketa eta ulerkeria guztiak esplikatzeke. Tartean dabilzan kontakizun guztiak, bereizetza bereizteke, –begi gaiztoa eta haren segurtasun estalkia bide den betazal zintzilkaria–, eta ondoren zein bere aldetiko aspektu bakar bana gordetzeko ados jarri zirela onartu beharra zegoen derrigorrez. Eta begi luputsu bati, estalkitzat eraman ohi duen betazal zintzilkaria kentzea zaila iruditzen bazaigu, zer esanik ez betazalaren azpiko begi pozointsua ahazteari bagagozkio, eta hori da hain zuzen, jentilen akaberan gertatzen dena: Begi luputsuaren arrastorik ez, Balor-Pertseo-ren leiendaren motibo nagusien hutsegiteaz beste.

Alderantziz ordea, begi luputsua soilik ukanen lukeen Balor zelta eta indoeuroparra Moytura-ko kontakizunetan, bertako jainkozko bat etsai itxuraz kutsatzeko asmoz, haren baitan sartzen dela, eta betazal zintzilkariek bertako jainkozko horren ezaugarri nagusia izanen liratekeen onartzen badugu, bi motiboon bereizketaren arazo gaindiezinak, eman dakioken ulerbide asegarri bakarra ukanen du: Alegia, horrelako bereizketarik ez dela inoiz agitu. Ez dugu batasuna Moytura-n, eta bereizketa gainerako lekuetan, baizik eta alderantziz, ordurarte zein bere aldetik ibilitakoen elkarketa edo itsasketa Moytura-n hain zuzen.

Elkarketa hau arras egiantzekoa dugu, logikazko ikuspuntu batetik. Baina egiantzekoa baino ez bagenu, ikerketaren eskabideak betetzeko behar hainbat irmotasunik ez leukake. Eta egia esan, egiantza baino dezente gehiago eskaintzen digu hipotesi honek, zeren zeltaitzineko jainkozko horren presentziak, bestela ukanen ez lukeen adierazmami borobila azalerazten baitio Moytura-ko kontakizunari. Izan ere, gatazkaren bilakaera erabaki-



tzen duen Lug eta Balor-en arteko borroka horren zentzia eta funtsa zein ote den galdegin geniezaiokie geure buruari. Zergatik edo zertarako nabarmenarazten da testuan pasadizo hau, gai nagusia Tuatha De Dannan zelten inbasioa eta bertako irlandarren jarkierak osatzen duten kontakizun honetan? Balor-engan Medusa-ren bertsio zelta baino ez badugu ikusten, pasadizo erabakior horrek zentzu handirik ez duela onartu behar dugu.

Gizarte hirufuntziokariaren eraikuntzaren bertsio guztiek bi komunitateen arteko borroka adierazten dute, bertan, hauetako bakoitzak bere indar eragilean lanean jartzen dituelarik bestea mendeen hartzeko. Batzuen aztigoa, besteenaren aurka. Indra-ren oineztarria, Asvini laguntzera datorren asketak sorrarazten duen "mozkorkeria" munstroaren aurka; Othin-en lantza majikoa Van-en Gullweig "urreearen mozkorkeria"-ren aurka; Sabinarren urrea Romulo-ren otoitzen aurka.

Moytura-ko Balor-engan, zeltaitzineko irlandarren jainkoakoa ikusten badugu, bera eta Lug-en arteko borroka, bestela inoiz ere ukanen ez lukeen esangura borroka bereganatzen du. Borrokan ari diren alderdi bietako aztigoaren irudiragarri gorenak ariko lirake lehian orduan: Lug Varunantzeko, betazal zintzilikarietako bertako jainkoakoa aurka, Balor etsaiaren sena baitaratzen hasita dagoen bertako jainkoakoa aurka<sup>54</sup>.

Gauzak honela ulertuz, arrunt logikoa da, eta areago, beharrezkoa, Lug eta Balor-en arteko borroka, gatazkaren gailurra irudiratzea, Dedannan senitarteen garaipena, eta hauen ondorengo menderakuntza erabakiko dituen gakoa, bi pertsonaia hauen arteko borroka horretan ipintzea.

54) Honako bainazko hau eraiki liteke kasu honetan, alegia, Balor-ek ez duela ezaugarritapen funtzioaririk. Bere keinua ezin daiteke gainontzeko bertsioetan hirugarren funtzioak erabiltzen dituen armekin, - mozkorkeria, urreearen mozkorkeria (batik bat emakumeei erasotzen diena), eta emakume gazte bat usteldu edo seduzitzea, parekatu.

Baina honen ondoan, Lug-en ekinaldia ere, ezaugarritapen funtzioaririk gabekoa dela azpimarratu behar da, eta honengatik inork ez dio ukatuko bere Varunantzekotasuna.

Hipotesi hau onartzen ez badugu, Lug eta Balor-en arteko borroka zentzugabetu egiten da, eta berarekin batera, Moytura-ko gatazken kontakizun osoa zentzugabetez da orobat, agatikoago eta irregularrago bilakatuz, eta gai mitiko honen gainontzeko bertsioetatik gehiago urrunduz. Eta erdialdeko hipotesi epel gisa, Balor jatorriz irudiragarri gorgoniko soila dela, betazalen motiboa Moytura-n elkartu zaiola, baina elkartze hori kasualitate hutsa dela eta ezeren adierazgarri ez dela esaten badugu, erantzunik gabe utziko ditugu halere honako galdera hauek: Zertan dabil Pertseo-ren leienda gizarte hirufuntziokariaren eraikuntzaren mitoaren barnean? Eta, nondik sortu ote da kontakizunak Lug-entzat asmatu-rikosi-genealogia?

Izan ere, gizarte hirufuntziokariaren eraikuntzaren mitoaz dakigunez, ezin bertsioak ez du bertsio zelta honetatik at, Pertseo-ren leienda tartera ekartzen, eta izan ere, ez dago honelako tartekatze-ari lagun diezaioketen inongo arrazoi objektibo edo joera semantiko edo ideologikorik, inongo loturarik gabeko bi ziklo mitiko arras bereizi eta independenteak baitira.

Irlandar bertsioak, alderantzizkoa egiteko ukan ditza-keen arrazoiak zeintzuk ote diren, ez da behin ere erantzun, eta ez dugu uste oso oker gabiltzanik, galdera bera inoiz egin ez dela esaten badugu.

Beste horrenbeste esan dezakegu, Lug Balor-en ilobatzat jotzen duen sasi-genealogiaz. Lug, Varuna eta Merkurio-ren aspektuak biltzen dituen panteoi zeltako jainko buruzagia, Balor-en oinordekoa omen da, greziarren Medusa-ren baliokide zelta batena, alegia, begia eta begiradak pozoindu-rik eta kirasturik dituen ziklope etsai batena. Egia esan, "pedigree" hobea ukanen zuelakoan geunden. Ez Othin-ek, -itxura fisikoa alde batera utzirik Varunantzeko eta Merkurioantzeko denez Lug-engan- dik hurbilen dagoen indoeuropar jainko gorena-, ez eta erromatar idazleen jainko zeltei buruzko eta "Merkurio" zeltari buruzko erreferentziek ere, ez digute panteoi zeltako jainko buruzagiaren oinordekotasun bitxi horren adierazpenik eskaintzen. Sinets al daiteke hau beneta-

koa balitz, erromatar historiagileek ez luketela inoiz aipatuko erlijio zeltari buruz idatzi zuten literatura ugarian zehar? Gure ustez, ez zuketen galduko horrek zeltei trufa egiteko ematen zien aukera bikaina. Amai dezagun labur esanaz, sasi-genealogia honek, berez sinestezina izan ez ezik, gainerako indoeuropar gizarteetan ere ez duela inolako egokidurarik. Hitz batez, sasiko asmakeria da.

Agian apalago, baina halere huskeria ez den azkeneko irregularkeria, Lug-en jaoieran somatzen dugu. Lug Varunantzeko heroia dugu, gerlariak babesten dituen jainko begi-bakarra (aldikako begi-bakarra noski), azken

orduko balentriaz bere herriaren garaipena erabakitzen duena. Halabaina, Varunantzeko senak eskatzen duenari kontra eginaz, Lug ez da hasiera hasieratik bere herriaren ardatza. Ez da Romulo bezala, bere ingurura herri indartsu bat biltzen duen lehen momentuko heroia, engoitik osaturik, egituraturik, eta bidean abiatuak dagoen herri batean jaiotzen den haurra baizik. Hau noski, gorago aztertu dugun sasi-oinordekotzaren ondorioa da, zeren Lug-ek Balor ukan behar badu aitona, eta Balor Fomore bat denez gero, Dedannan senitarteak Fomore-engana heldu zain egon behar du, Lug jaino ahal izateko.

	<b>HIPOTESIAK</b>	
Moytura-ko Balor da benetan jatorrizkoa, bi ezaugarri bereizgarriak dituelarik	Moytura-ko Balor da jatorrizkoa. Begi luputsua da ezaugarri nagusia. Betazalen motiboa kasualitate hutsez eransten zaio Moytura-n	Moytura-ko Balor betazal zintzilikaridun zeltaitzineko jainko bat, eta zeltetik indoeuropar iraganalditik ezagutzen zuten begi luputsuko etsai baten asimilazioaren emaitza litzateke Hipotesirik asegarriena
	<b>ARAZOAK</b>	
Betazalik ez gainerako indoeuropar irudiragarri gorgonantzekoengan	Motiboa bitxiegia eta urriegia da lotura kasualitate hutsezkoa dela onartzeko	Besteek sorrarazitako bainazkoak eraisten ditu
Betazalik ez folkloreko Balor-engan	Kontakizunaren zama politikoa ez da kontuan hartzen.	Dakarren zailtasun nagusia, bere onarpenak plazaratzen dituen ondorioetan datza: Zelta ez den ezaugarri bera agertzen da Irlandan eta Euskal Herrian. Hipotesia simplea da, eta irtenbideratzen dituen korapiloak kontuan hartuz, zailtasunik gabe onartuko zatekeen, zeltaitzinekoa bide den jainko irlandar horren keinu bera gure jentilak erakutsi ez balu
Adur luputsurik ez euskal jentilarengan	Betazalaren motiboaren jatorria argitu gabe geratzen da	
Pertseo-ren leiendaren arrastorik ez jentilen akaberan	Motibo beraren huts egitea folkloreko bertsioetan argitu gabe geratzen da	
Erasokortasun arrastorik ez jentilaren jokabidean	Lug eta Balor-en arteko borrokaren garrantzia ezin ulerbideratu.	
Kontraesanak Moyturako Balor-en deskribapenen artean: Gerlari tre-bea eta gero erraldoi itsua	Pertseo-ren leiendaren sarkeria eta Lug-en sasigenealogia ezin ulerbideratu.	
Lug eta Balor-en arteko borrokaren garrantzia ezin ulerbideratu		
	<b>JENTILAREN ULERBIDERAKETA</b>	
Pertseoren sarkeria eta Lug-en sasi-genealogia ezin ulerbidera Bere ekitaldi nagusia leiendak ahantzi duen adur luputsua zabalzea litzateke. Bitxia da nola ahaztu duen hori, lainoaren erasokortasunaz oroitu den bitartean	Euskal eta irlandar kon-takizunak alderaezinak dira. Keinukide egiten dituen keinu horrek ez du inolako adierazkorta-sun edo funtsik	Bere keinuak ez du adur luputsuarekin zer ikusirik. Esanahi zehaztezinezko aztigo motaren baten erakuslea litzateke
	<b>ONDORIOAK</b>	
Euskaldunek zeltengandik maileguz hartu zuten Balor etsaia, sasi-ulerkeriaz edo, sakonki eraldatu zuten ondoren: Begi luputsuaren ahaztea, erasokortasunaren ahaztea, Pertseo-ren leiendaren osakin nagusiak ahaztea.	Betazalen keinuak definitzen duen kidesuna agatikoa litzateke. Ez luke inolako ere kultur kidesuna zabalagorik adieraziko.	Zeltaitzineko Irlanda eta Euskal Herria kidesuna leudeke, bietan esanahi beretsua bide zuen keinu mitiko magiko horri dagokionez. Kidesun horren aspaldikotasuna kontuan hartuz, guk aurkitu duguna kidesun zabalago baten lekukoa baizik ez litzateke izanen.

Balor-en atzean zeltaitzineko Irlandako jainkozko bat ezkutatzan dela mantentzen duen gure hipotesiak berak bakarrik luza ditzake irregularkeria hauek guztiak ulerbideratzeko argudio asegarriak. Bideanabar, Moytura-ko Balor-engan somatutako aspektu bikoitzasunaren korapiloa ere aska lezake.

Nuada-Zilarrezko-Eskuduna bere erasopean eraiten duen Balor azkar eta arina dugu alde batetik, eta Lug ikusi ahal izateko betazala jaso diezaioten agintzen duen erraldoi itsu baldarra bestetik. Bigarren honen ezaugarriak, baldarkeria, erraldotasuna, e.a., zeltaitzineko erraldoiarenak izanen lirake noski. Baina plazaratu berri ditugun bainazkoetara itzuliz, Balor-en sarkeria zeltaitzineko irlandar jainkozko hipotetiko horren baitan, azken buruan aipatutako irregularkeriak azalarazi dituen erreazio hurrenkera baten lehen eragilea izan behar da. Har dezagun abiapuntutzat gure hipotesiak proposatzen duen egoera jatorra: Moytura-ko gatazkaren kontakizuneko gailur erabakiorra, asmo ezezagunez betazala jaso diezaioten eskatzen duen bertako jainkozko bat eta Lug zelten buruzagiaren arteko borroka da. Egoera honetatik abiatuz, honako eraldaketa hauek argituko lukete kontakizunak egungo egoerara heldu bitartean egindako bidea: Lehenengo, aipaturiko bertako jainkozkoaren eta Balor-en asimilazioa, bien ezaugarri nagusien loturan oinarrituz, alegia, begirada deuseztatzaileko begi luputsuaren motiboa, eta begia estali ohi duen betazal zintzilika-riaren motiboak elkartzuz.

Asimilazio honen ondoren eta ondorioz, Lug eta bertako erraldoiaren arteko borroka, Lug eta Balor munstroaren arteko borroka bilakatzen da, bere zentzua galduz, eta bere garrantzia adierazkaitz bihurtzen delarik, oraindik somagarria bada ere.

Eta Balor-ekin batera, Balor-en leiendak, bere sarke-riarako bidea kausitzen du, eta bertako elementuak Moytura-ko kontakizunearan tartekatuz, honen funtsa jatorretik gero eta urrunago daramate kontakizuna. Honela, Balor, bere alabaren semearen eskuz hiltzen denez, Lug-ek hartzen du pertsonaia horren lekua, etsaiaren askazian sartuz orobat. Erreakzio hurrenkera hau proposatzea arriskutsua bada ere, zalantzarik ez dago, Moytura-ko kontakizunaren irregularkeriak, beroiek ulerbideratzeko proposatu dugun hipotesia baino askoz harrigarriago eta sineskaitzago direla.

Ondorengo orrialdeko koadroak, ikerketan zehar proposatu ditugun bi hipotesiak, –honezgero baztertu duguna, eta orain eusten ari garena–, azaldu, aztertu eta kritikatu egiten ditu; eta honekin batera, hirugarren hipotesia halaber, erdibideko hipotesi lar zuhurra edo epela komentatzen du. Azken honen arabera, begi pozointsua eta betazal zintzilikaria Moytura-n bakarrik elkartzen diren bi motibo independente lirake, baina elkartze horrek ez luke beste ezer adieraziko, kasualitate hutsezko elkarketa baillizateke.

Koadroak, hipotesiak azaldu, bakoitzak ageriratzen dituen oztopoak argitan ezarri, egiazko izanez gero bakoitzaren onarpenetik eratorriko lirakekeen ondorio orokorrak aztertu, eta azkenik, bakoitzaren onarpenak eus-

kal jentilaren senaren ulerbideratzean ukanen lituzkeen ondorioak zehazten ditu.

Engoitik baztertu dugun hipotesiak, jatorrizko Balor-ek, Moytura-koak bezala, bai begi luputsua, bai eta betazal zintzilikaria ere bazituela dioenak alegia, zera suposatuko luke, hots, euskal jentila, haren irudiaren arabera sortu zela, euskaldunek zeltengandik maileguz hartu zutenean, eta gero sakonki eraldatu. Kasu honetan, igarlearen betazalen jasoera, eragiketa honek adur luputsua askatzeko balio zuen garaiko oroitzapen zati-karia litzateke.

Balor-ek jatorriz begi luputsua besterik ez duela, betazalaren motiboa Moytura-n bakarrik eransten zaiola, baina eransketa horrek azpitik inongo arrazoi berezirik ez duela mantentzen duen hipotesiak, aurrenekoak baino oztopo gutxiago sorrarazten ditu, eta bere ondorioak, ez dira aurrekoarenak bezain sineskaitzak: Keinu bitxi bera Moytura-ko Balor-engan eta euskal jentil igarlearengan azaltzeak, ez luke ezertxo ere adieraziko. Honelako berazkoa, ahalezkoa da, baina inola ere ez asegarria. Hipotesi honek sorrarazitako bainazkoak ez dira aurrekoak ageriratu dituenak bezainbeste, –eta normala da, honek ez baitu inongo arriskurik hartzen–, baina ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula ere. Lepora dakioken bainazko nagusia zera da, ez dela hagitz arrazoizkoa, motibo arrunt zehatz, bitxi eta urri baten parekagarri diren bi kasu bakarren artean inongo loturarik ez dagoela proposatzea. Hipotesi honi larregizko zuhurtziak ez dio Moytura-ko kontakizunaren balio politikoa ikusten uzten, eta ezinezkoa egiten dio, Lug eta Balor-en arteko borrokari taxuzko ulerbidea eskaintzea.

Azkenik, eusten ari garen hipotesia dugu. Moytura-ko gatazkan somaturiko hamaika irregularkeriarentzako erantzuna eman badigu ere, eta inkesta honetan zehar azaldu diren leienda eta pertsonaien nahaste-borrastea argitu badigu ere, oso sinplea da berez: Berak dioen guztia zera da, betazal jasoen keinua, ez dagokiola jatorriz Balor-i, –zeltek indoeuoparregandik jarauntsitako etsai bekaiztoduna jatorrian–, baizik eta, Moytura-ko gatazkan eransten zaiola, zeltaitzineko jainkozko baten keinu bereizgarriaren imitazioz. Kontakizunaren politikotasuna kontuan hartuz, hipotesia ez da ausartegia, eta are eta onargarriagoa bilakatzen da, gainontzeko Balor-antzeko eta Gorgon-antzeko irudiragarri guztiengan, salbuespenik gabe, betazalaren motiboak huts egiten duela hausnartzen badugu. Hipotesi sinple, zuhur eta logikoa dugu beraz, honaino ageriratu ere ez ziren galderei erantzutea ahalbideratu du; gure korpusean argitasunezko sailkapena taxutzea ahalbideratu digu..., baina bere ondorioek, urrunegi garamatzate agian: Euskal mitologiaren azaltzen den keinu zehatz eta bitxi bera, zelden aitzineko Irlandan ezaguna zela irakasten digu.

Europako mitologia ikerketek ez diote bertako gizarteetako indoeuopar aitzineko geruzari jaramon handirik egin. Geruza hau, leitzerik ilun eta luzeena bailliztan beste inon sailkatu ezin izan diren pertsonaia, errito, ohitura eta bitxikeriak bertan botatzeko erabili ohi izan da, baina benetako seriotasunaz ez da oraindik inoiz ikertu. Gehienek onartzen duten jarrera honen ondorioz, Janus eta Njorthr indoeuopar-aitzineko bertako latiar eta es-



kandinabiarren jainkoak zirela esateak ez du inor harrutuko, baina eskandalagarria izan liteke Irlandako zeltaitzineko motibo bat Euskal Herriko mito ezagun batean azaltzen dela esatea. Egia esan, arazoa, euskal egokiduran legoke, motiboaren zeltaitzinekotasunean baino. Izan ere, ahalbideratu dituen aurrerapenak kontuan hartuz, motiboaren zeltaitzinekotasunaren hipotesia erraz onar ahal daitekeela uste dugu, orain euskal egokipena plaza-ratu ondoren onartu ahal izanen den baino askoz errazago zalantzarik gabe. Dena den, egia da Irlanda eta Euskal Herriaren arteko zeinahi kide-tasun kultural topatzeko, oso atzeraino jo beharra dagoela iraganaldian barrena. Baina bestalde, beti argi agertu den gure motiboaren urritasun larriak, antzinakotasun handi horren igergarria eskaini digu hasiera hasieratik, eta beste horrenbeste egin dute, zenbait kasutan kausitu ditugun hilobi megalitikoekiko loturek.

Hipotesiaren onarpenak jentil igarlearen ulerbideratzeko dakarzkigun argibideek, lehenagoko zalantza egoera berberera garamatzate: Gauza bakarra esan daiteke ozenki eta beldurrik gabe, alegia, betazalen jasoera ez dela egiten begietatik adur pozointsu erailea zabal dadin. Zuhurtziaren zuhurtziaz zera besterik ezin dugu esan: Betazalen jasoera, aztikeriazko itxura duen keinu bat dela, baina zer nolako aztigo mota ote den ez dakigula.

Betazalen jasoeraren motiboari buruzko ikerbidea helmugara iritsi da. Motiboaren esangura zehazteari da-

gokionez, ezin esan aurrerakada handia egin dugunik, baina bai ordea motiboaren hedadura eta antzinakotasunari dagokionez. Zeltaitzineko Irlandan eta Euskal Herriari keinu bitxi bera aurkitu dugu, bien arteko kulturkide-tza baten erakusgarri.

Balantze honetan huts egiten duen gauza bakarra zera da, oraingoz gertagarri baina frogagabetuak ditugun hipotesi hauek modu baikorrean erabat onetsirik utziko dituen frogak bat.

Gure hipotesiak dira, bildutako korpusean ordena jartzeko erabili diren guztien artean, logikoenak, argigile-enak, eta asegarrienak, baina "asegarrienak" izatetik "erabat asegarri" izatera heltzeko behar den frogak nagusiak huts egiten digu oraingoz. Eta gure hipotesi beraren arabera motiboak bide duen adina kontuan hartuz, honelako "erabateko frogak nagusia" aurkitzeak ametsa ematen du benetan.

Aurrera dezagun halere, zorioneko frogak hori aurkitzeko zoriona izan dugula. Baina aurkikundea azken uneko ustekabe modura bibliografi inkestak amaitu ondoren egin zelarik, —eta inkesta hauek aspaldidanik beste motibo-en ikerketari zuzenduta zeudelarik—, agitu bezala azken unean emango dugu horren berri.

Artean, planifikatu bezala, betazalen jasoeraren motiboak agortu ondoren, ikerbide berria zapaltzen hasiko gara. Lainoaren motiboak bere txandaren zain dugu.

## VII. LAINO IRAGARTZAILEA

Jentilak kezkatu, eta azken buruan akabatu egiten dituen laino beldurgarri eta mehatxariari buruzko ikerketak, hasi aurretik ere badu nondik hasi. Abiapuntu hori, irlandar epopeian ustekabeen topatu ditugun ganduzko lainoen azterketa izan behar noski, motibo honek irudiarren aldetik eta adierazmami beldurgarriaren aldetik jentilen lainoarekin duen antzagatik, eta batez ere, jentilen lainoak bezala, betazalen jasoeraren motiboarekin erakusten duen loturagatik.

Moytura-ko gatazkaren kontakizunak azaltzen dizkigun ganduzko lainoak, aurreko atalaren hasieran aztertu ditugu, hipotesi zeltatalearen hesparruan, jentilen lainoak, tradizio zeltikoa lirakeen ganduzko laino hauetatik mailleguz harturikoa bailitza. Ondoren eutsiezina suertatu den lehen hipotesi honen hesparruan, bere baitan ezkutatuturik gerlariak garraiatzen dituzten lainoen motiboak, jentilen lainoaren beldurgarritasuna, —hain konprengaitza deritzogun beldurgarritasuna—, ulertaraz zezakeela esan dugu. Baina, esan bezala, hipotesi zeltazale eutsiezin hori behera erausi dugunez, eta betazalen motiboak, egiazki zeltaitzinekoa dela esanez amaitu dugunez, aski litzateke beharbada, lainoaren motiboari aurrekoaren arabera konklusioa eragokitzea zuzenean. Halere, sinpleegia deritzogu horrelako jokabideari, eta areago, horretara mugatuz gero, motibo guztien esanahia argitzeari dagokionez ezarri ditugun exigentziei ezingo genieke

erantzun. Aurreko ataleko konklusioak oraingo honi zuzenean zabaltzeak ez luke erremediatuko gerlariak garraiatzen dituen lainoaren hipotesia esku artean dugun asegarriena izatea, eta hori baztertuz gero inongo ulerbiderik gabe geratu behar izatea.

Aurreko ataleko berazkoetan oinarrituz, jentilen akaberaren kontakizunaren indoeuropar-aitzinekotasunaz gureganatu ditugun aurrusteek, ikerketa behar bezala bideratzeko erabili behar ditugu, eta ez ikerlanari ihes egiteko. Atal honetan dugun ikerketa, aurrekoa bezala, ahal den arreta handienaz aztertu beharko dugu bakanki hartuta, eta ez dugu utziko arazoizko aurruste horiek alferkeriarako aitzakia bilaka daitezen.

Litekeena da, lainoaren jatorriko esanahiak gerlari garraioarekin zer ikusirik ez ukatea, baina demostratu egin beharko dugu, baieztatu aurretik. Hona hasi hurren dugun ikerketa honen gogoak.

Oroitarazi dugun hipotesi zeltazaletik abiatuz, gogora ditzagun aurreko atalean atera dizkigun akatsak. Baina plazara dezagun testua lehenengo<sup>55</sup>:

*De senitartek flota handi batez heldu ziren Irlandara Bolg-gizonei irla indarrez kentzeko. Corcu Belgatan-*

55) G. DOTTIN. "L'Épopée Irlandaise" / 38 orr.

go lurraldera (gaurko Connemara-ra alegia) heldu orduko, itsasuntziei su eman zieten, atzera itzuli ezin izateko, eta untzietatik zetozen keak eta gandua zeru lurra bete zituzten haien inguruan; horregatik hain zuzen esan ohi zen ganduzko lainotan heldu zirela.

Berehala, ganduzko lainoen motiboa motibo zelta ez dela erakusten bide duten bi igergarri azpimarratu ditugu: Aurrenekoa, "horregatik hain zuzen esan ohi zen ganduzko lainotan heldu zirela" esaldia, Tuatha De Dannan horiek iristen ikusten dituzten bertakoen alderdik esaten dela. Eta aurrenekoari gaineratzen zaion bigarren igergarria zera da, ganduzko lainoaren irudia irudirago zeltakoa ez bailitzan azaltzen zaigula, ulerbideraturik eta arrazionalizaturik ematen baitzaigu, sutan dauden untziei darien kearen irudiaz baliatuz. Honetaz gain noski, keak ez du gandua ondoegi zuritzen, testuan besterik gabe gandua kea ordezkatzeko badu ere.

Testuak erakusten duen ikuspuntuak, eta zuritu gabeko ordezkapen horrek zera hausnartzera garamatza, alegia, ganduzko lainoak esangura beldurgarriko irudia zirela bertakoentzat, eta zeltak beraz, irudi horretaz baliatu zirela eta arrazionalizaketa bat fabrikatu zutela, beraien begietan zentzua ukan zezan.

Hipotesi hau are eta onargariagoa da, zelden mitologia bezain harrigarri eta txundigarri bateriko mitologia batean laino batzuen irudi apalak arrazionalizaketa jasaten duela, eta mitologia honetan arrazionalizaketarik aurkitzea ia ezinezkoa dela hausnartzen badugu. Dakigunez, arrazionalizaketak, galera bat edo dena den, hutsune bat adierazten du, arrazionalizatu den motiboa ulertarazten zuen testuinguru-gakoaren hutsegitea, hain zuzen, eta beraz, testu zelta honek ganduzko lainoen benetakoa esangura ez digula ematen esan dezakegu behinik behin.

Ondoren, bi bide ditugu hutsunea ulerbideratzeko: Bat, ganduzko lainoak zelden irudiragoko ereduak direla, baina zeltak eredu horren esanahi jatorra testua idatzi zen garaian ahanzia zutela esatea; eta bi, ganduzko lainoak, zeltak Irlandan topatu zituzten bertakoen irudiragotik datozela egotea. Gerlariak ezkutatu eta garrariatzen dituzten ganduzko lainoak kultura zeltaren irudiragarri tipikoak balira, laino hauek Zeruko mirari batek edo druiden aztigoak, eta dena den naturagainekeo zerbaitek, konkistatzaileei laguntzeko sorrarazitakotzat joko lituzke testuak. Agerkari honen arruntarapena untziei darien kez baliatuz irregularkeria larria da beraz, eta irregularkeria horretarako ulerbideren bat aurkitu beharko dugu, zaila badirudi ere.

Zehaztapen hauek egin ondoren, irakur dezagun Tuatha De Dannan zeltak Irlandara heldu zireneko deskribapen berri bat. Honako hau, Leabhar Gabhala edo Inbasioen Liburuaren deritzan liburutik ekarria dugu<sup>56</sup>:

(...).Ondoren, bere txalupa eta untziei su eman zieten, fomoraigh-ak haietat zabe ez zitezen, eta beraien

aurka erabil ahal ez zitzaten; eta areago, beraiek haietat balia ahal ez zitezen Irlandatik ihes egiteko Fir Bolg-en aurkako borrokan garaipena hauei egokituko balitzaie. Ondoren, iluntasun handi bat sorrarazi zuten beraien inguruan, Fir Bolg-ek ikusi gabe Connacht-eko Conmaiene Rein mendira heldu ziren arte. Orduan zera proposatu zieten Fir Bolg ahaideei, borroka egin ala agintea eman ziezaieten.

La hitzez hitz aurreko deskribapena azaltzen duen testu hau, bi detailetan bereizten da aurreko testutik, hain zuzen ere, ageriratu berri ditugun irregularkeriei dagozkien bi detailetan: Ganduzko lainoen ordeza, "iluntasun handi bat" topatzen dugu, testuak irudi hori arrazionalizaketa baten bidez zurtzeko beharrik sentitzen ez duelarik; beraz ez du inoiz untzietako kearekin edo beste edozein sorburu berezkoarekin inolako loturarik proposatzen. Eta iluntasun harrigarriaren istilurik gabeko onarpen isilaren ondoan, bigarren ezberdintasuna: Kontakizunaren perspektibak ez du inoiz Tuatha De Dannan zelden alderdia lagatzen bertakoenera iragotzeko. "horregatik hain zuzen esan ohi zen ganduzko lainotan heldu zirela" horren pareko ezer ez dugu konkistaldiaren bertsio honetan, eta ez da kasualitatearen eragina honelakorik ez egotea, testuko beste pasarte baten azterketak erakusten duenez, "iluntasun handi" horren senak ez bailuke halako erreferentziarik ametituko. Izan ere, ganduzko lainoak eta iluntasun handia aurreneko begiradapean irudi berdintsutzat jotzen baditugu ere, azken buruan bi funtzio hagitza ezberdin betetzen dituzten irudiak dira. Inbasioen Liburuak azaltzen digun iluntasun handiak Dedannan senitarteak ezkutatzeko dituzte, eta honi esker abantailazko kokapena erdiesten duten bitartean, Fir Bolg-ek ikusi gabe mugitu ahal izanen dira. Aldiz, suak hartutako untzietako keak, "ganduzko lainotan" interpretaturik, Dedannan senitartearen presentzia beldurgarriaren berri ematen die Bolg gizonei, inbaditzaileak ganduzko lainoetan heldu zirela kontatuko diguten berberei. Esan dezagun bada, ganduzko lainoek funtzio azalkaria betetzen dutela, aideko iluntasun handiak ikusezintasun hornitzailer funtzioa betetzen duen bitartean, eta honek bereizketak garrantzitsu bat plazaratzen du hasieran hain berdintsu generitzon bi irudiragarri hauen artean.

Ondoko orrialdeko koadroak, azterketa honetan zehar ageriratutako bereizketak laburbiltzen ditu. Bereizketa hauek, Dedannan senitarteek untziei su eman ondoren jazten duten kamuflajearen deskribapena, jatorria, perspektiba eta funtzioari dagozkie.

Leabhar Gabhala-k "iluntasun handia" hitzez marrazten duen kamuflaje hau, ganduzko laino multzo baten itxurapean erakusten zaigu DOTIN-ek jakinarazten digun bertsioan, eta argi dago, saihegi grafikoa batetik begiraturik, bi irudiok ez direla berdinak.

Bigarren ezberdintasuna kamuflajearen sorburuari dagokio, eta batean sorburu hori berezkozat jotzen den bitartean, bestean berriz aidekotzat edo naturagainekotzat bailitzan inongo erreparurik gabe onartzen da. Untzi kiskaltetako ketatik gandua sorrarazi nahi duen argibide

56) MACALLISTER & MACNEIL. "Leabhar Gabhala. Le Livre des Invasions". Dublin 1916 / 147.orr.

	HIPOTESIAK	LEABHAR GABHALA
<b>MOTIBOA</b>	Ganduzko lainoak	Iluntasun handi bat
<b>SORBURUA</b>	Agerkaria nahiko gaizki ulerbideratzen duen sorburu berezkoa: Gandua bilakatzen den kea Sorburuaren aidekotasuna ez da onartzen.	Aidekoa eta naturagainea, eta testuak honela onartzen du.
<b>BERRIAREN PERSPEKTIBA</b>	Arriskua ganduzko lainoetan heltzen ikusten dutena bertakoen alderditik.	Iluntasuna sorrarazi duten zelta beren aldetik
<b>FUNTZIOA</b>	Azalkaria: Lainoek presentzia ezkutu bat salatzen dute	Ikusezintasun hornitzailea: Inork ez du iluntasun handia somatzen

nahasgarri horrek, eta batez ere testuak ganduzko lainoen irudia esplikatzen sentitzen duen behar berak, irudi hori ez dela erabat ulertzen adierazten digute, eta ulergaitzasun honek iluntasun handiaren onarpen lasarekin bortizki kontrastatzen du, kontuan hartuz gainera, aideko iluntasun handiaren irudia, gutxienez ganduzko lainoarena bezain harrigarri eta fantastikoa dela.

Hirugarren aurkagunea, kamuflajearen albistearen jatorriari dagokio: Iluntasun handia, bera propio sorrarazten duten inbaditzaileen ikuspuntutik datorkigu, eta ganduzko lainoak aldiz, bertakoen perspektibatik erakusten zaizkigu, eta areago, badijadi inbaditzaileek ez dutela irudi hori onartzen, berezko sorburua asmatzen baitiote ulertarazi nahian.

Azkenik, laugarren ezberdintasuna, kamuflajeok betetzen dituzten funtzioen mailan azaltzen da: Iluntasun handia, inbaditzaileak ezkutatzen balio duen ikusezintasun estalkia bezala agertzen zaigu, bera, "iluntasun handi" bezala inoiz inork somatzen ez duelarik. Bolg gizonak ez dute ikusten Conmaicne Rein mendira igotzen ari den iluntasun handirik, baina bai ordea ganduzko lainoak, inbaditzaileak itxura horren pean heldu zirela kontatzen baitute. Ganduzko lainoek beraz, funtzio bikoitza betetzen dute, alegia, barnean daramaten arriskua gordetzea eta iragartzea orobat.

Burutu berri ditugun azterketa eta bereizketa finkapen hauek gehiegizko zehaztapen eta ñabarduraz beterikotzat jo litzake apika norbaitek. Halabaina ñabardura hauek ez ditugu inola ere agatikoak, eta alderantziz, arras beharrezkoak ditugu zera somatzen badugu, alegia, DOTIN-en bertsioa euskal mitoari hurbil dakiokenekoa den bitartean, Leabhar Gabhala-koak aldiz ez duela jentilen akaberarekiko inongo kidetasunik. Horrela, izan ere, jentilen leiendako laino marisma ganduzko laino irlandarraren parekoa dugu, bai irudiaren deskribapenaren aldetik, bai eta arriskua iragartzeko duen funtzioaren aldetik ere, baina ez du ordea iluntasun handiarekiko inongo antzik, honek ez baitu arriskua adierazten, eta gainera noski, bien arteko antz fisikoak ere huts egiten baitu.

Ikerbidearen puntu honetan beraz, hiru kontakizun ditugu aurrean: Hauetako bi, mitologia zeltako gai bera-

ren bi bertsio dira argi eta garbi, eta hirugarrena, jentilen akaberaren euskal mitoia. Azken honek erakusten digun laino harrigarria DOTIN-en bertsioa ganduzko lainoen antzekoa dugu, deskribapenari eta funtzio salatariari dagokienez, eta ganduzko laino hauek berriz funtzioakide agertzen zaizkigu Leabhar Gabhala-ko iluntasun handiarekin, biak ikusezintasun estalki bilakatzen baitira inbaditzaileen armada ezkutatzen. Halere, jentilen lainoak ez du iluntasun handiarekiko inolako lotura ageririk, bakoitzaren deskribapena eta funtzioa ezberdinak baitira.

Auziaren gako orain, bi bertsio zelten arteko jatorrena zein ote den asmatzea izanen litzateke, ondoren euskal leiendaren DOTIN-en bertsioarekiko loturaz eta honen ondorio eta adierazmamiar hausnartu ahal izateko. Erantzuna, erraza behar litzateke: Iluntasun handia, Tuatha De Dannan berek sorrarazitakotzat jotzen da, eta testuak normaltasun osoaz onartzen du bere aidekotasuna, ez baitu inola ere zuritu edo zilegitzeko beharrik sentitzen; ganduzko lainoak berriz, testuak ez ditu erabat onartzen eta berezko sorburu bat eragokitzen die ulergarri bilaka daitezten. Iluntasun handia beraz, Tuatha De Dannan berek sorrarazitakoa denez gero, eta testuak erabat onartzen duen txundigarria denez gero, zeltek ezaguturiko eta arma laguntzaile gisa erabilitako aztigo eragiketa edo aideko teknika izan behar da. Ganduzko lainoak berriz, jatorrizko irudi magiko horretatik zuzenean, eta semantikoki antzekoak diren beste motiboen interferentziar eratorritakoa izanen litzateke.

Leabhar Gabhala-ko irudiaren jatorrasunaren alde hartzen dugun jarrera honi berehala bermatzen zaizkio zenbait irlandar eredu. Bertan, "iluntasun handiaren" antzeria deskribatzen zaizkigun zenbait ikusezintasun-kamuflaje aurkitzen dugu. Gai honi buruzko dossier bat osatzeko asmorik gabe, eta han hemenka burututako irakurketen emaitza sinple bezala, bi eredu baliagarri irakurri eta aztertu behar ditugu ondoren. Aurrenekoan, mundu guztiak ahazturik zuen leienda zahar bat nola eskuratu ahal izan zen kontatzen zaigu, eta bitxia da benetan<sup>57</sup>:

57) J. A. MACCULLOCH. "The religion of the ancient celts". Edinburgh 1911 / 250.orr.

*Leiadak omen dioenez, Tuain-en bertsio osoa galdua zegoelarik, Murgan the Filé-k enkantamendu bat kantatu omen zuen Fergus MacRoig-en hilobiaren gainean. Laino batek hiru egunetan ezkutatu omen zuen, eta tarte horretan, hildakoa agertu omen zitzaion, eta saga osoa jakinarazi omen zion.*

Irudia "laino" hitzez ematen bazaigu ere, bere funtzioak eta bere sorburuak ere, "iluntasun handirekin" parekatzera eramaten gaituzte ganduzko lainoei lotzera baino.

Tamainen aldea ulergarria da, oraingo honetan gizon bat baino ez baita ezkutatu behar, eta ez armada osoa lehen bezala. Baina alde hau bazterturik, lainoa aidekoa dela somatzen dugu, naturagaineko bitarteetaz sorrarazia, -heroiaren enkantamenduaz alegia, eta bere funtzioa, antzinako etnografo hori bere ikerketak diraueno ikusezintasun estalki batez hornitzea dela ikusten dugu. Laino honek ez du inondik ere funtzio azalkaririk, -inork ez du ikusten, inork ez du interpretatzen-, ikusezintasunaren metafora baino ez da.

Bigarren eredu, Daire erregearen bost semeen istorioak dakarkigu, eta orain arte ikusi ez dugun zenbait berrikuntza plazaratzen du. Hona DUMÉZIL-en laburpena<sup>58</sup>:

*Igarleak esandakoaren arabera, Lugaid izeneko "Daire-ren seme" batek ukanen zuen Irlandako errege-tza. Seguruago egotearren, Lugaid izena ipini zien jaio zitzaizkion seme guztiei. Egun batez, Teltown-en bere semeak zaldi lasterketa batean parte hartzeko lerrotatzen ari zirelarik, druida batek zera zehaztu zion, bere semeetatik batzarrean aurki sartuko zen urrezko larruko orkatza harrapatuko zuena, hura izanen zela errege. Orkatza agertu zen, eta denak haren ehizan zebiltzalarik, aideko lanbro batek bost anaiak gainerako ehiztariengandik bereiztu zituen. Lugaid Laigdé izan zen ehiza harrapatu zuena.*

Iluntasun handia eta aideko lainoaren ondoren funtzio berbera betetzen dakusagun aideko lanbro honek, motiboaren mamia ikusezintasunaren ideia dela baieztatzen digu, metafora ezberdinen laguntzaz irudira daitekeen ikusezintasun ideia: Iluntasun bat, laino bat, lanbro bat, guztien balio metaforiko soila azpimarratzen duen barietateaz mintzo zaizkigu. Eta balio metaforiko hau arrunt bat dator funtzio azalkaririk ezarekin. Kamuflajearen itxura zehatzak ez du garrantzirik, eta axola duen bakarra zera da, horren baitan dagoena ikusezin bilakatzeko dela.

Lugaid izeneko bost anaiak gainontzeko ehiztariengandik ezkutatu eta bereizten dituen lanbroa aidekotzat jotzen da argi eta garbi, eta gainera lanbro hori ez du ehiztarien arteko inork somatzen. Azpimarratu nahian gabiltzan ñabardura zera da, alegia, testuan datorrena ez dela batzarrearen erdian guztien begien aurrean agertzen den lanbro harrigarri bat, bost anaiak baitaratu, ikusezin bihurtu, eta gainerakoengandik bereizten dituen lanbro

bat baizik. Testuak zehazten duenaren arabera, bost anaiak baitaratzen dituen lanbro honek gainerako ehiztariengandik bereizten ditu; honi, ehizaren emaitza Lugaid baten aldekoa dela eranstean badiogu, iluntasun handiaren kasuan bezala zera dugu, kamuflajeak bere baitan daramana ikusezin bihurtu ez ezik, kokapen abantailatsua ere eskuratzeko diola bere edukari. Bi kasuotan, kamuflajearen bildutakoei hobaria erdiestea ahalbideratzen dien mugimendu bat dugu, baina ezin dugu zehaztu mugimendu hori berezkoa ala kamuflajeak eragindakoa ote den. Azken hau balitz, orduan kamuflajeak bere edukia ikusezin bihurtzeko eta abantailaz garraiatzeko gaitasun bikoitza ukanen luke.

Dena dela ere, adibide hauek zenbait gauza garrantzitsu irakatsi digute dagoeneko. Aurrenekoa, kamuflajearen itxuraren deskribapenari dagokio: Deskribapenok, kidetasun bat baino ez dute, alegia, laino bat dela, lanbro bat dela edo iluntasun handi bat dela, beti "continuum" fisiko bat dela, hots, hartu behar den guztia, -gizon bat, bost anaia, armada bat-, hartzen duen agerkari bakar eta etengabea dela beti, eta honek, zenbait ganduzko lainoena ez bezalako irudia dakarkigu gogora. Deskribapenaren mailan oraindik ere zera azpimarratu behar dugu, dagoeneko itxuren dibertsitateak argi eta garbi erakusten duela zein den kamuflajearen funtzio nagusia, eta areago esango genuke, bere funtzio bakarra: Baitaratzen duena ikusezin bihurtzea, eta aldi berean bera inoren begien aurrean ez agertzea gauza harrigarri bezala. Kasu guztietan somatu izan den funtzio azalkari espliziturik ezak, motibo guztion arteko barne-esteka sendotzen du, eta ganduzko lainoenari oposatzen ditu.

Baina halere, punturik garrantzitsuena honako konstatazio hau da, hots, aideko ikusezintasun kamuflajea, irlandar zelten artean zabaldua eta ezaguna zela, eta konstatazio honek, berez arraroa zena ulergaitzago bihurtzen du oraindik, alegia, zergatik sartu da ganduzko laino erretako untziei darian keak sorrarazitakotzat jotzen duen arrazionalizaketa DOTIN-en testuan, naturagaineko kamuflajearen motiboa hain arrunta eta ezaguna izanik?

Ikusezintasun kamuflajea dena den, Irlandako mugak gainditzen dituen motiboa dugu, kontinenteko zeltak ere ezagutzen zuten eta. Brennus-en agintaritzapean Delphos-era joan zen galiar armadaren espedizioaren kronikako pasarte hauek, zalantzarako aukerarik gabe erakusten dute motiboa zelta dela, -eta ez irlandarra bakarrik-, eta honen funtzioa eta jokaera oraindik hobe zehazten lagunduko digute. Hona PAUSANIAS-en kronika<sup>59</sup>:

*...; eta berrogei mila gizon berarekin hartuz, bide-zidor hartatik abiatu zen. Zoriak hala nahi, egun hartan mendia estali zuen lanbroa nola ote zen itxia, eguzkia ere apenas soma zitekeela; eta horrela, pasabidea zaintzen ari ziren phocaea-tarrek ez zuten galiarren abiatzearen berri ukan,*

58) G. DUMÉZIL. "Mythe et Epopée" II, 336 orr.

59) M. CLAVIER. "Description de la Grèce de Pausanias" / VII. Alea, 414.orr.

*beraien ondoan ikusi arte. Galiarrak borrokan hasi zirelarik, phoce-tarrak balore handiz defendatu ziren, baina azkenean, pasabidea uztera beharturik suertatu ziren; eta aliatuengana lasterka jaitsirik, erabat inguratutik geratu baino lehen, barbaroen abiatzearen berri ematera heldu ahal izan zuten. Orduan athena-tarrek denak bizkor untziratatu zituzten, Termopil-etatik eraman zituzten eta nor bere herrira itzuli ziren.*

"Zoriak hala nahi" une erabakior horretan lanbro itxi hori bertan azaltzea ez da noski zoriari zor zaion gauzarik, eta are gutxiago, lanbro hor Leabhar Gabhala-ko iluntasun handiaren ezaugarri berberetz jantzirik dagoenez. Abantailazko kokapena lortu arte arerioen begipean ikusezin mugitu den berrogei mila laguneko armada ezkutatu duena lanbroa dela esateak, arrazionalizaketa nabaria adierazten du, zalantzarik gabe erromatar historiagileen ohiko gogo desmitifikatzailearen emaitza den arrazionalizaketa. Erromatar gogo arrazionalizaleak ez bailuke sekula onartuko berezkoa ez den ezekin ulerbidea gertaturikoa argitzeko. Nola onartuko luke bada, galiar barbaroek horrelakorik sorrarazteko adinako aztigo kementsua ukan zezaketenik, erromatar berberengandik sinetsiko ez zutenean?

Arrazionalizaketaren presentzia are eta nabariago da, testuak indoeuropar kulturaren konstante nagusietako bat gezurtatzen duela hausnartzen badugu: Historiaren mitifikaketa hain zuzen. Beharrezkoa den instant zehatzean sortu eta gatazkaren emaitzarako hain erabakior den lanbro hori zori hutsari egokitzea, erabat kontrarian dago objektiboki garrantzia eskasago ukan arren esku hartze jainkotarraren igergarri bailiran historiari mitifikatu ohi dituen hainbat eta hainbat pasadizorekin.

Dena den, lanbro horren jatorrizko aidekotasunari eusteko daukagun arrazoi sendoena zera da, Brennus-en espedizioaren pasarte hau eta Leabhar Gabhala-ko kontakizunaren arteko paralelismo ageria. Bietan, heldu berri den eta desabantailan dagoen inbaditzailearen egoeran ikusten ditugu galiarrak. Ondoren, bertakoentzako ikusezin bilakatzen direla eskerrak, arerioekiko gaitasuna ematen dien kokapen estrategiko batera heltzen dira, eta gaitasun hori hain nabarmena denez, borroka ia alferrikakoa bilakatzen da. Bi kasuetan, benetako gatazka nagusia, etenaldi baten ondoren helduko da, pasadizo hau bereizi, isolatu eta nabarmenarazi nahiko bailitzan, eta bakarrik utziaz azpimarratze horrek ez luke inongo zentzurik ukanen, bere aidekotasuna eta naturagainekotasuna kentzen badizkiogu. Eta izan ere, irlandar bertsiok ez dizkio bi ezaugarri hauek iluntasun handiari ukatzen.

Erromatar eta irlandar kontakizunon egiturakidetzak, eta azken honen baiezkotasun esplizitua ikusezintasun kamuflajearen aidekotasunari dagokionez, Delphos-eko lanbroaren jatorrizko aidekotasunaz mintzo zaizkigu: Druiden sorrarazitakoa ala jainkoen igorritakoa, lanbro hori ez da dena den, kasualitatez sorturikoa.

Kontakizuna erromatar iturburuetatik heldu zaigula eta, bere jatorritasun zeltaz bota litekeen bainazkoak ere

ez du indarririk, zeren bertan kontaktzen zaigun tradizioa, tradizio zelta baita, iturri zelta baita halaber, PAUSANIAS-ena. JEAN MARKALE-k azaltzen digu PAUSANIAS-en atzean ezkututzen den zelta erromatartuaren izaera<sup>60</sup>:

*Baina Greziako epopeia zelta honen idazlan-gakoa, -K.A.ko lehen mendean bizi izan zen Diodoro Siziliarraren idatz apurrak salbu, Justino-ren Historia Unibertsala dugu zalantzarik gabe, baina hau berriz, Augustoren garaiko Trogo Ponpeio-ren idazlan handiago eta garrantzitsuago, -eta tamalez galduriko-, baten laburbilketa baino ez da. Halabaina, Trogo Ponpeio hau, vocconziar galiarra zen, eta Delphos-eko espedizioari buruzko zenbait tradizio zelta ezagutu behar izan zituen. PAUSANIAS eta Apiano beranduagokoak direnez gero, hauen iturriak hein handi batean Trogo Ponpeio-rengandik, eta beraz, alderdi zeltatik datozela baieztatu daiteke. Eta Diodoro-ri dagokionez, nabarmenki erakusten du bere bosgarren liburuan, anitz ohitura eta tradizio zelta ezagutzen zituela.*

Erromatar edo erromatartutako idazleek jakinarazten diguten tradizio zelta dugu beraz, eta idazleen kulturako pentsamolde arrazionalizaleen arabera, bere jatorrizko harrigarritasun eta aidekotasun adierazpide guztiak suntsiarazi egin dira.

Irlandar eta erromatar kontakizunaren arteko adostasun bikainak trinkotasun sendoa ematen dio ikusezintasun kamuflajearen motiboari, eta honen ezaugarriak zehatzean handiz marraztea ahalbideratzen du: Deskribapenari dagokionez, etenik edo tarterik gabeko "continuum" fisiko handia dugu beti, ganduzko lainoen irudia ez bezala, eta jentilen akaberako laino marisma edo laino tiki polita ez bezala. Hauek armada baten kamuflajetzat jotzen dituen aurrustea arras eustezina bilakatu zaigu dagoeneko. Eta kamuflajeak burutzen duen funtzioari dagokionez, zer egiten duen eta zer ez duen egiten zehatza dezakegu: Bere edukia ikusezin bihurtzen du arerioentzat, eta hauek ez dute ikusten ez armada, ez eta kamuflajea ere, hau aidekoa denean, edota, kamuflajea naturaren agerkari berezkoa eta beraz ikusteko modukoa denean, ez dute mehatxu bat bailitzan ikusten. Kamuflajeak ez du inondik ere funtzio azakaririk, zeren ikusteko modukoa denean ere, ez baitu ezer azaltzen edo iragartzen, ez mehatxurik, ez eta inolako adierazpen beldurgaririk ere.

Azkenik, kamuflajea suntsitu eta dezente beranduago ekiten zaio beti borrokari, hots, kamuflajeak ez du babespe funtziorik gatazka bitartean, bere barnetik ez da erasorik egiten, ikusezintasunaz errazkeriaz profitatuz.

Kamuflajearen funtzioari buruzko zehatzapen hauek jentilen akaberako lainoaren beldurgarritasuna eta erasokortasuna motibo zelta honetatik abiatuz ezin ulerbidera daitezkeela erakusten digute argi eta garbi, eta bide batez, DOTTIN-en bertsioko ganduzko lainoen benetako adierazmamiari buruz azaldutako zalantzei bermatzen zaizkie.

60) JEAN MARKALE. "Les Celtes". / 99.orr.

Ikusezintasun kamuflajearen motiboa bere balio metaforiko hutsaren erakusgarri diren itxura zehatz ezberdin guztiekin, –lainoa, lanbroa, iluntasuna–, beste zenbait indoeuropar jatorriko gizartetan ederki ezaguna da: Erroman<sup>61</sup>, Indian<sup>62</sup>, eta ipuin Oubyk batek<sup>63</sup> adierazi bide duenez, Eskitia zaharrean ere bazuten irudiragarri honen berri. Guztiotan ere, funtzio azalkaririk eza, inoiz huts egiten ez duen konstantea dugu, ikusezintasunaren metafora diren irudiragarriok ez baitute ezer iragartzen, ez eta beren burua ikusgai eta igergaitzat ematen.

Ikusezintasun kamuflajearen motiboari buruzko inkesta hau burutu ondoren, jentilen akaberako lainoari buruzko ikerketaren egoerak, betazal jasoearen motiboari buruzkoak une batez ezagutu duen egoera dakarkigu gogora. Hots, parekagarri zen irlandar testu batean oinarrituz, hipotesi zeltazalea proposatu ondoren zera baieztatu ahal izan dugu, testu hori euskal leiendari hurbilazten zion guztia zela hain zuzen, aldi berean bere kontakizun-senide indoeuroparrendandik urruntzera eramaten zuena. Deskribapenagatik eta funtzio azalkariagatik euskal leiendako lainotik hurbil egon litekeen ganduzko lainoen motiboa, hain zuzen ere, deskribapenagatik eta funtzio azalkariagatik urruntzen da, dudarik gabe jatorriz adierazten zuen ikusezintasun eta kamuflajearen motibotik. Eta beste aldetik, honaino erakutsi ditugun kamuflaje horren ereduak, argi eta

garbi azaldu dute ezin dutela jentilen lainoaren jatorburua izan, eta azken hau, beste nolabait ulerbideratu behar harko dela.

Ikusitakoaren arabera, irlandar ganduzko lainoak interferentzia baten emaitza bailiran azaltzen dira, hain zuzen ere, jatorrizko motiboa bide zen ikusezintasun kamuflajearen, eta zeltaitzineko litzatekeen ganduzko laino mehatxu-iragarle baten interferentzia. Azken buruan, gure begiek ikusten dutena zera da, ganduzko lainoek ez dutela ikusezintasun kamuflajearen funtzioa betetzen alde batetik, eta bestetik, testuak ez dituela erabat ulertzen, eta horren ondorioz, irlandar testuetan zehar ia aurkiezina den arrazionalizaketa bat sortzen dela. Eta ikusezintasun kamuflajea irlandar mitologian oso motibo ezaguna dela kontuan hartuz, arrazionalizaketa hori oso gauza larria, eta era berean, oso gauza adierazkorra bilakatu da. Proposatu berri dugun interferentziaren hipotesia da irregularakia hau ulerbidera dezakeen bakarra, ganduzko lainoen irudia argituz orobat. Bere aldekoa du halaber, euskal leiendan lainoari hestu loturik dagoen betazal zintzilikarien motiboaren zeltaitzineko jatorriaren aurrustea.

Dena dela ere, inkesta honen emaitzarik interesgarriena zera da dudarik gabe, jentilen akaberako lainoa, ikusezintasun kamuflajearen motibo zelta eta indoeuroparretik abiatuz ulerbideraezina dela konstatatzea. Jentilen lainoari darion mehatxua, bere baitan gordearik gertariak leudekeela dioen hipotesiak ez du modu asegarrian argitzen.

Moytura-ko gatazkaren kontakizunean ganduzko lainoak agertu zaizkigula eta, ikusezintasun kamuflajearen motiboari buruzko inkesta bat egitea izan da jentilen lainoaren ikerketari zuzenduriko atal honen lehen urratsa. Baina inkesta hau burutu ondoren, ikerketa, hasiera hasieratik iragarritako ariera sistematikoari heltzen zaio berriro, STUTH THOMPSON-en "Motif Index of Folk Literature" izeneko aurkibidetik bildutako eredu lista, oinarri eta abiapuntutzat hartuz. Gure ikerketaren perspektibaren zabalatasunaren berme den ariera honek halere, ezin du eragotzi ikerbideak gu ostera Irlandara eraman nahi izatea, zeren bertan aurkitzen baititugu jentilen akaberako lainoen antza duten bi laino eredu bakarrak, Europako folklore osoaren berri ematen duen aurkibide ospetsu horren arabera behinik behin.

"Motif Index of Folk Literature" aurkibidetik ateratako aurreneko lista nahiko luzea da, eta izan ere, honelakorik espero liteke, zeren eta lainoak eta lanbroak eguraldi agerkari berezkoak izaki, bidezko ondorioa baita anitz kulturetako irudiragoetan agertzea, mota guztietako errealtateak irudiratuz. Halere, jentilen akaberako lainoen datuetan oinarrituz, –deskribapena eta funtzioei buruzko datuetan alegia–, kanporaketa bat eginez, eredu baliagarrien kopurua agudo jaisten da, gorago aipatutako bietara murriztu arte, berriro Irlandara garamatzatentetara.

- 61) Laino majikoa da Romulo batzerrekoen begietatik ezkututzen duena, Tito Livio-k dioskunez bere lehen liburuko XVI. Atalean: "Laino itxi batek estali zuen erregea batzarrakoen begietatik ezkutatzeko. Geroztik Romulo ez zen gehiago lurraren gainean agertu" Laino honen funtzio iragartzailerik eza, bere ikusezintasun hornitzaile funtzioa bezain begibistakoa da. Erromako Historiak gainera, kasualitatez edo, gatazkalekuan dagoen lanbro itxi baten laguntzaz erromatar armadak abantailazko posizioa erdies-ten duela kontatzen duen pasadizo bat badu behintzat. Gatazka honen azterketa DUMÉZIL-ek "Mythe et Épopée" III, 101-113 orrialdeetan egiten du, eta lanbro horrek haren arreta erakar-ten ez badu ere, hark agerian ipintzen du "eguantzeko gataz-ka" direlakoan eduki majiko nagusia, gure lanbroa erakusten duena horietako bat delarik.
- 62) "Parasara" deritzan errege-asketak lanbro itxi bat sorrarazten du, ermitarien begietatik, bera eta emakume arraunlari eder bat ezkutatzeko, ezkultaldi honetatik, emakumeak haur bat eginen duelarik (DUMÉZIL, "Mythe ..." II, 303.orr.
- 63) Oubyk-en herria ez da indoeuroparrendandik eratorritakoa, bai-na bai bere mitologia, bai eta ondoren azalduko dugun testuko heroia ere, mugakide duen Ossetia herriari maileguz harturiko-ak dira, eta azken hauek, eskitarren oinordekoak dira, eta indoeuroparrak beraz. Hona testua: "Narte-en garaian bazen Sosruko izeneko gizon txiki bat. Oso jakituna zenez, nahi izanez gero, bere burua eraldatu eta Narte-ak izutzen zituen. Piztia itxura hartzen zuen, edo bide ertzean utzitako oski batena, edo ta zaku batena. Haserre zegoelarik, laino batez inguratu eta jo eta akabatzen zituen Narte-ak, hauek, ez ikusi, ez jo, ez eta akabatu ere ezin zutelarik, lainoan bildurik zegoela eta". Testua hau izanen da apika, bere edukia ikusezin edota areago inmaterial bihurtzen duen laino honen metaforatasuna argien adieraz-ten duena. Narte-ek lainoa ikusita ihes egin edo hura jo zezake- teta,- edukia ere jotzeko asmoz-, hausnar liteke, baina ez da honelakorik gertatzen, laino hau metafora hutsa baino ez baita, Narte-ek, jasotzen dituzten kolpe horiek nondik ote datozkien ere ez dutela ikusten adierazten duen metafora.

Inuit<sup>64</sup>, Etiopiako Eliza<sup>65</sup>, eta rabindar tradizioetan<sup>66</sup> agertzen diren aideko laino eta lanbroek, argi eta garbi erakusten dute ikergai dugun motiboarekiko zer ikusirik eza, eta ezberdintasun hau are eta ikusgarriago azaltzen da, irlandar eredu bien jentilen akaberako lainoekiko ezaugarrikidetzatrinkoaz jabetzerakoan. STITH THOMPSON-etik at, PLINIO-ren "Historia Naturalis" idazlaneko pasarte batek erakusten du, aurkitu ahal izan dudak ikergai dugun lainoaren (nolabaiteko) antzeko eredu bakarra. Halere, bai bere deskribapenak, bai eta bere funtzioak ere, aztertzen ari garen lainotik urruntzen dute<sup>67</sup>.

Beraz, oraintxe bertatik atera dezakegun aurreneko konklusioa, gure motiboaren urritasun larri eta azpimarragarriarena da. Betazal zintzilariaren motiboaren urritasun larri eta azpimarragarri bera hain zuzen. Jentilen akaberako motibo guztietan konstante gisa azaltzen ari zaigun urritasun honek, leiendaren antzinakotasunari buruz aspaldidanik dugun aurrustea baieztatzen digu berriro.

Aipaturiko bi irlandar eredu hauetariko aurrenekoa, eredu bikoitza dugu egia esan, motibo bera, bi kontakizun bizkitan topatzen baitugu. Hona bada, Jesukristoren jaioztaz mintzo zaizkigun bi leienda hauen funtsezkoena<sup>68</sup>:

*Baina Andre Maria bere semeaz erditzen ari zelarik, elementu guztiak isilik eta geldirik zeuden, higitu gabe, inarrosi gabe, beren Sortzaileari goratarre eginez egonen bailiran, sortutako izakien artean bat ere ez baitzegoen, Sortzailearen etorreraren zain ez zegoenik, judutar*

*fedebakoak izan ezik. Ondoren, Jose etxe atarian zegoelarik, eta Maria etxe barruan, laino argidun dirdaitsu bat agertu zen bat batean ortzitik jaitziz eta harpe eta hiriaren gainean geratuz, eta hiriaren erdiaren eta harpearen gainean eguzkia ateratzen ari zuela ematen zuen. (47h.).*

*Honela genbiltzan gu (artzaia) alaitasun eta poz handiaz, ilargia atera ondoren, gauerdian edo, halako laino argiduna somatu genuen Ekialdetik zuzen zetorrela, Betlehem-go lautada osoa argitu zuen arte. Lainoak halako forma dirdaitsu atsegin eta gurtugarri bat zeukan bere erdian, eta zein baino zein gozoago ziren anitz musika mota zeuden laino horretan.*

*Argi ikusgarri hori gureganaino heldu zelarik, izuak eta beldurrak hartu gintuzten eta ahozpepe jausi ginen denak. Eta orduan aingeru ahots bat entzun zen lainotik: "Ez zaitzete egon, -esan zuen-, izuak edo beldurrak, zeren honetarako etorri bainatzaizue, hots, zuei eta jende guztiari berriak ekartzera, mundua hasi zenetik gaurdaino entzun ez diren bezalako berriak". (54 orr.).*

Laino argidun hauen deskribapenak, jentilen akaberaren BARANDIARAN bertsioko lainoaren parera ekartzen ditu laino hauek. Eta elkarren antza are eta adierazgarriagoa bilakatzen da, munduan dauden mota honetako hiru irudiragarri bakarrak direla kontuan hartuz gero. Halere, laino argidunen ezaugarriak ez dira berberak Irlandan eta Euskal Herrian. Jentilen akabera iragartzen duena, laino harrigarria da, baina baita erasokorra ere, jentilei jarraika eta hauen hondamena eragiten ikusten baitugu; eta irlandar lainoa aldiz, harrigarria da soil soilik, eta ez du inorenaganako erasokortasunik edo mehatxurik adierazten. Artzainak honen bistan hartzen dituen beldurrak, antzinako erasokortasun ahortzi baten isla adieraz lezake apika, baina arrazoizkoagoa deritzogu, beldur hori, agerkiariak sortu behar bide dien harridurak sorrarazitakotzat jozea besterik gabe.

Euskal eta irlandar eredu arteko adosezintasun hau, lainoaren gaiztokeriari dagokionez, bereizkune garrantzitsua da dudarik gabe, baina honek ez du batere indarrik, irlandar ereduak euskal lainoarekiko erakutsi diguten honako kidetasun ikusgarri honen aldean: Irlandan, Euskal Herrian bezala, laino argidun baten irudia, irudi harrigarri gisa erabili ohi da, gertakari handi eta garrantzitsu bat iragartzeko<sup>69</sup>.

64) HENRY RINK. "Tales and traditions of the Eskimo". Edinburgh 1875 / 45.orr.: "Aitaseme batzuk lehorretik urrun kayakean zebiltzala, haiei jarraika hasi zen kayakari batekin topo egin zuten. Zorionez, hormaitz bat bazen hurrean, eta aitasemek hara jauzi, eta bertatik ero zuten atzetik zetorkien hura; baina hondoratu aurrerik, zenbait txalo egin zituen hodeiertzeko alde guztietara birak eginez, eta honela lanbro itxia sorrarazi zuen, honek, aitasemek hara eta hona galdurik ibiltzera behartu zituelarik, etxeratzea eragotziz".

65) C. GRANT LOOMIS. "White Magic". Cambridge (Mass.) 1948. / 123.orr.: "Abba Jacob-ek pertsiar armada bat sakabanatu zuen, animaliak herio itsuan jarri zituen laino ketsu itxi bat haren gainean sorraraziz". (E.A.W. Budge. "The book of the saints of the ethiopian church". Cambridge 1928 / II. 514.orr.).

Hau ez da noski laino itxi bat izanen, animalien ihes eroa eragiten badu. Eragin honek, objetiboki itxura beldurgarriko den irudi batean pentsatzera garamatza, eta hori ez da gure lainoarekin gertatzen dena, gurea ez baita beldurgarri bere itxuragatik, oraindik ere ezagutzen ez dugun esanahiagatik baizik. Eraginen azterketa jarraituz, ezin esango dugu laino ketsua erokorra denik, bere ekinaldiak animaliak izutzea besterik ez baitu erdiesten, gerlariak zuzenean kaltetu gabe. Bestelakotasun hauek motiboa bazterrean uztera behartzen gaituzte.

66) MOSES GASTER. "The Examples of the Rabbis". London.Leipzig. 1924 / 365zb.: "... (RABBI ELIEZER-ek) laino bat konjuratu eta haren gainean zaldizka instant batean heldu zen Ejiptora".

67) PLINIO. "Historia Naturalis". / LXXXIII. PLINIOK, marinelek lur ikara baten hurbiltasuna zein igergarritan ezagutzen duten kontakizun duelarik, zera aipatzen du besteak beste: "Bada ortzian baita ere, lur ikararen aurretik ageri den igergarri bat: Egun argiz edota ilunabarrean, eguraldi barez, laino mehe bat hedatzen da urrunean erreka baten itxuraz".

Laino hau, gizonek ikusi eta ulerbideratzen duten igergarria, eta aldi berean katastrofe baten igartzaila bada ere, deskribapen mailan ez dator bat ikergai dugun lainoarekin, hau mugikorra eta hurbila baita, hodeiertzeko laino mehar geldi hori ez bezala.

68) Royal Irish Academy Todd Lectures Series VI (1894-95) / 47h., 53h.

69) Bila gabiltzan lainoen pareko izan zitezkeen bi eredu badira, -bata Irlandan eta Ingalaterran bestea-, baina hauen ekinerari buruzko argibiderik ezak, gure inkestatik at uztera behartzen gaitu. Bi kasuotan arazoa zera da, agerpenok ez dutela ez deus iragartzen, ez deus eragiten, ez eta inolako igarpen edo ulerbideraketarik sorrarazten ikusten dituzten artean. Lehen eredu W. STOKES-en "Tripartite Life of Saint Patrick" idazlaneko honako pasarte honetan aurkitzen dugu (I,27):

"Cainnech-ek,- itsasoan zegoelarik,- deabruen laino beltza ikusi zuen berari aurrea hartzen".

Bigarren ereduak, beste zenbait igergarri harrigarriekin batera, odolozko laino bat erakusten digu. E.D.GILES-ek Londres-en 1914ean argitaraturiko "Anglo-Saxon Chronicle" delakoak dakarkigu horren berri. Hona testua (85 orr.):

"979.urtea.- (...). Urte berean laino odoloztatu bat ageri zen sarritan, su baten itxurakoa edo; gauerdian agertzen zen nabarmenen, eta margo ezberdinetako izpiak zituen: Egunsentian suntsitu egiten zen".

Ondorengo bi hausnarketek kidetasun honen garrantzia zehatzago neurtzen lagunduko digute: Lehenengo, eta honelako irudiragarriaren eredu ezagun bakarrak ditugulaz beste, zera azpimarratu beharra dago, hots, logikaren mailan ez dagoela, honelako motiboak zein bere aldetik bi herriotan agertzea eragin dezakeen arrazoirik. Honetaz zera esan nahi dugu, alegia, ikusten ari garen laino argiduna ez dela bat batean eta berehala gertakari garrantzitsu bat irudiratzeko edozeini gogora dakioken irudi handiosa; alderantziz, eguraldi agerariaren erakusketa batean aurki daitekeen irudiragarriak apalenetako dugu dudarik gabe.

Bigarren hausnarketak zera nahi du azpimarratu, laino iragartzaile baten irudiak Irlandan noizbait ukan duen indarra eta garrantzia benetan apartekoak izan behar izan direla, kontakizun honetan, lainoa, jatorrizko izar harriarriaren lekua hartzera heldu baita. Honelako ordezkaketaren zailtasuna eta garrantzia, –testuinguru kristau batean barnean burutzen baita–, edonork ikusteko modukoak dira.

Jesukristoren jaiotza iragartzen duen laino argidun honen agerpenak, jentilen akaberako lainoa gerlariz beteriko laino-kamuflaje bezala ulerbideratzeko ezinezkotasuna, eta hura eta indoeuropar ikusezintasun kamuflajearen arteko zer ikusirik eza borobila argitan jartzen ditu, gure aurrusteak baieztatuz.

Laino argidun hau, bere baitan inor gordetzen ez duen laino txiki bat da, eta bere funtzioa iragarkari eta azalkaria da soil soilik, inolako zalantzarik gabe. Aurreneko testuotatik tiratzen den lehen konklusioa beraz zera da, laino argidun txiki baten irudiak, –edo laino txiki batenak soilik, zeren argiduntasuna izarrarekiko interferentziaren ondorioa izanen baita seguru aski hemen ere–, gertakari handiak iragartzeko balio izan duela irlandarren artean; ezaugarri hau arras bat datorrela jentilen akaberako lainoaren aspektu batekin (izan ere Segura bertsioan lainoak Jesukristoren jaiotza iragarri besterik ez du egiten); eta motiboaren erabilera hau, Irlanda eta Euskal Herritik kanpo beste inon agertzen ez den bereizgarri kulturala dela.

Bi herriotako laino argidunon deskribapenen arteko antza ikusgarria eta erakusgarria izan bada ere, hurrengo eremuan aurkitu behar dugunak aurretik ikusitako guztiak gutxietsi eta ahaztera eramanen gaitu. Izan ere, Drum Damhghaire-ko hesialdiaren kontakizunak<sup>70</sup>, deskribapenez, funtzioaz eta jokaeraz euskal ikazideen pare pareko diren bost laino eredu erakusten dizkigu, eta hauen bitartez, anitz gauza argitu ahal izanen dugu.

Drum Damhghaire-ko hesialdiaren kontakizunak, Cormac erregeak bere druidei entzungor eginez, Munster eskualdea erasotzeko burutzen duen gerla-espedizioaren pasadizo eta gorabeherak kontatzen dizkigu. Bizpahiru aldiz, zenbait druidek Cormac-en armadaren abiadura galarazi eta eragotziko dute, horretarako berehala

ezagutuko dugun laino mota, beren aztakeriaz sorraraziz. Baina horren aurretik, lainoek beste zerbaiterako ere balio dezaketela ikusiko dugu. Hona hitz emandako bost erreferentziak:

*Biharamunean, mendebalderanzko abiadurari ekin zioten berriro, Becmogh eta Coill Medoin-etik, Meath eskualdeko hego-mendebaldea zeharkatuz, eta azkenik, Ath in tSloig-era, egungo Ath na nIrlann-era heldu ziren. Bertan aterbe eta txabolak eraiki zituzten, eta larruolak ezarri. Aztiak armadaren gaineko zeruko lainoak behatzen jarri ziren. (...). (29 orr.)*

*(...). Armadaren gainean hodei beltza sortu zen eta haren gainean oldarturik denak zorabio eta eromenean murgildurik utzi zituen. Druida, honetaz baliatu zen ihes egiteko. (37.orr.)*

*(...)- Cithach: "Lurralde hauetako druidak botatzeko etorri naiz, eta halaber nire lagunak. Cormac-ek, Munster-go errege kementsuak, zigortuko ditu (eta luze iraunen du horren oroitzapenak)"*

*-Dubhfhis: "Hona ekarri zaituzten asmootatik bat ere ez duzu sekula burutuko. Sarraskizko laino bat (?) hedatuko da zuen buruen gainetik lautadan. Kaxkarra da zuek eraginiko beldurra, oh Cithach!" (39 orr.)*

*(...). Cithmor kanpamendutik irten, eta hegomendebalderantz abiatu zen, lainoak eta airea behatzeko asmoz, armadaren abiadura ordena erabakitzeke. (39 orr.)*

*(...): Mog Ruith, Cinn Claire-en ezarri zenean Munster-go jendearekin elkartu ondoren, hats druidiko bat ipini zuen airean, eta hau, druiden kanpamenduaren gainean jausi zen laino beltz baten itxurapean. Ondorioa zera izan zen, alegia, Cormac laguntzen zetozen druida guztien lupu druidikoa kendu egin zela, ... (99 orr.)*

Saia gaitzen orden apur bat ezartzen datu multzo honetan: Alde batetik euskal mitoaren Jentilarri eta BARANDIARAN bertsioetako lainoekin antz izugarria duten bi laino eredu ditugu; bi laino magiko hauek, aipaturiko euskal bertsioetako lainoen itxura eta mugimendu erasokor berberak erakusten dizkigute. Hauen ondoren, lainoaren irudia sarraski edo erabateko suntsipen handi baten igergaitzat proposatzen duen metaforazko erabilera bat dugu ("sarraskizko laino bat"). Eta azkenik, lainoen behaketa eta irakurketaz mintzo zaizkigun bi erreferentzia ditugu, bertan, irakurketa horiek igarkuntza mota bat bailiran aurkezten zaizkigularik. Bost erreferentziok badeute gure ikergaiarekin lotura zuzena, zeren denok, jentilen akaberako lainoa aztertzerakoan azaldu ditugun hiru ezaugarrietako batekin gutxienez bai baitute zer ikusirik. Gogora ditzagun ezaugarriok: Lainoa ikusia, behatua eta ulerbideratua gertatzen da; lainoa jentilengana oldartzen da, eta atzetik jarraitzen zaie; lainoak jentilen akabera eragiten du.

Har ditzagun lehenengo, lainoak jendearengana erasokor oldartuz erakusten dizkiguten bi kasuak. Hauetako lehenak, hodei bat aipatzen du lainoaren orde, baina argi dago, beldurgarritasuna azpimarratzearen burutu dela ordezkapen hau. Hein honetan, bistan dago errazagoa dela lainotik hodeira iragatea alderantzizko bidea egitea baino, eta bigarren ereduak lainoa aipatzen duenez, az-

70) M.L. SJOESTEDT. "Le siège de Drum Damhghairé" Revue Celtique VII. alea. 1926



ken irudi honi esleitu beharko zaizkio jatortasuna eta benetakotasuna.

Huskeriazko ezberdintasun hori ulerbideraturik, pasarte hauek adierazten dituzten irudiak aztertzeari ekingo diogu: Druiden kanpamenduaren gainean jausten den lainoa eta Cormac-en armadaren gainean oldartzen den hodeia, Jentilarri eta BARANDIARAN bertsoetan jentilengana oldartzen diren lainoen pare parekoak dira, bai formaren aldetik, bai eta higikeraren aldetik ere. Laurok era berean jokatzeko dute, eta baten argiduntasunak eta bestearen belztasunak sorrarazten duten ezberdintasuna, huskeria baino ez da, berberatasun deskriptibo horren aldean. Eta guztien artean zerbait nabarmenagotzekotan, bi irudi hauek azpimarratuko genituzke: Hodei magikoa oldartu zaiela eta, *"zorabio eta eromenean murgildurik"* geratzen den Cormac-en armada, eta lainoa atzetik jarraika datorkielarik, Jentilarri azpira sartu arteraino ihes hestuan lasterka doazen jentilena. Bi irudion elkarren arteko antza ez da zalantzan ipini daitekeeneko, eta barregarria litzateke, kasualitateak eraginikotzat jotzea, betazalen jasoeraren motiboa Irlandan kausitu dugunean halaber, eta laino harrigarri honen urritasun eta arrarotasun ageriak ezagutu ditugunean.

Kidetasunen listan barrena aurrera eginez, aztertzen ari garen lau lainook, helmuga zehatz baterantz jauzi edo oldartzeko abilezia ez ezik, agerkari beldurgarri bihurtzen dituen kemen magikoez ere horniturik daude. Beldurgarritasuna ez datorkie berezko elementu batetik (oineztarritik esate baterako), baizik eta alderantziz, beraien baitan daukaten aztikeriazko edo aideko gaitasun itzel bati zor diote kemen beldurgarri hori. Eta aideko gaitasun horren mailan hain zuzen, desegiten da euskal eta irlandar ereduaren arteko berdintasuna, zenbait bereizkune agertuz: Izan ere, euskal bertsoen arabera lainoaren ekitaldiaren ondorioa jentilen erabateko suntsikera den bitartean, –suntsikera gozotua baina suntsikera azken buruan–, irlandar testuek erakusten dizkiguten lainoen ekitaldiek, kementsu eta erasokor izanik ere, ez dute sarraskirik edo erabateko akaberarik sorrarazten. Irlandar laino hauek, druiden aztigoaren irudiragarri eta bideratzaile dira, *"hats druidikoaren"* itxura, testuaren hitz bereztaz, aztion tresna edo baliabidea emaitza ezberdin eta bixiak lortzeko, hala nola, armada oso bat zorabiatzea, edota arerioari laguntzen dabilzan aztigokideen kementak ahultzea, haietatik tiratuz, baitaratuz edo. Berandua go itzuliko gara ostera bereizkune hau behatzera, eta bere ondorioak sakonki aztertzerako, baina oraingoz, irlandar testuak erakusten duen lainoaren irudiaren bigarren erabilera plazaratuko dugu.

*"Sarraskizko laino bat (?) hedatuko da zuen buruen gainetik lautadan."* Esaldia, itaunketa ikur batez azaltzen zaigu testuan, itzultzailearen harridura eta zalantza erakusgarri. Itzultzaileak ez du ulertzen nonbait irudi horren esanahia, ez baitu ikusten zein lotura mota egon daitekeen laino bat eta sarraski baten artean. Guretzat ordea, esaldiak adierazten duena arras begibistakoa da, bai baitakigu, jentilen akaberaren kontakizuna aztertu on-

doren, lainoa sarraski izugarri baten iragarlea, –eta zenbaitetan baita xederatzailea ere–, dela hain zuzen.

Euskal mitoak bakarrik ulerbidera dezakeen metafora honek zera frogatzen digu, lainoak jentilen akaberaren kontakizunean duen funtzio berbera ukan duela halaber Irlandan, eta beraz, hats druidikoak hartzen duen itxura ez ezik, laino hau Irlandan ere sarraski baten inguruan, –arestian, gertatu bitartean edo burutu ondoren–, agertu ohi den irudiragarria ere badela.

Azkenik, eta komentatu berri ditugun hiru laino eredu hauez gain, beste bi pasarte ditugu, bertan zera adierazten zaigularik, alegia, Cormac erregearen druidak, lainoak behatu eta aztertuz aritzen zirela, horietan etorkizunari buruzko zenbait argibideren bila, gero hauetan oinarrituz, igarpenak jakinarazi edo erabakiak hartzeko. Hona, bada, nola lainoen funtzio azalkaria frogatzen duten bi eredu ikusi ondoren, –Betlehem-go laino argiduna Jesus-en jaiotza bezain gertakari garrantzitsua iragarritz, eta "sarraskizko lainoa", sarraski bat iragarri edo jagoten duen laino bat adieraziz–, funtzio eta balio azalkaria edo iragartzaille horiek esplizituki baieztatzen dizkiguten Cormac-en druida, igarle, edo direna direlako hauen behaketa saiok. Lainoaren behaldiaz bere herriaren akaberaren berria ikasten duen jentil igarlearen antzera, hauek ere lainoei so egoten dira, behaldi horietatik etorkizunari buruzko zenbait argibide tiratu nahian. Halere, jarrera mailako beratasun honek ez gaitu itsutu behar, eta ez digu ahantzarazi behar ere jentilen eta irlandar druiden ekinaldien arteko ezberdintasunak azpimarratzea.

Jentilak, laino zehatz baten zentzua jakinarazten du bakarrik, gainontzeko jentilek, –zenbait bertsiotan–, hasiera hasieratik beldurgarritzat jo duten eta azkenerako erasokor eta deuseztatzaile probatuko den lainoarena hain zuzen; eta irlandar igarleek aldiz, anitz ahalbide eta erabilera ezberdineko igarkuntza mota baten izaera erakusten digute bere igarpenetan. Euskal mitoan, lainoa gertakari handi baten iragartzaillea da, baina beti gertakari ezkor baten iragarlea halaber. Zehazkiago esan behar genuke agian, gaitz handi baten iragarlea dela, –jentilen berehalako intuizioak alde batetik eta lainoaren ondorengo erasoak bestetik erakutsi legez–, eta igarlearen funtzioa, bere igarmenaren funtsa, ez dela, azken buruan orok ezagutzen duten gaitz horren ondorioak zeintzuk eta zenbaterainokoak izanzen diren zehaztea baino. Irlandar igarleek aldiz, bariatate zabalagoko argibide eta albisteak kausitzen bide dituzte beraien laino behaketetan, eta honen frogagarri dugu, armadaren abiadura ordena erabakitze ere balio dezaketen ikasbideak tiratzen dituztela behaketetatik. Bestalde, lainoak emaniko argibideen bariatate mailako ezberdintasuna ez ezik, behaldietan erabilitako tekniken mailan ere bigarren bereizkunea topatzen dugu, irlandar testuko puntu honi buruzko iluntasunak gehiegi zehazten uzten ez badigu ere. Izan ere, Irlandar igarleen behagaia, *"armadaren gaineko zeruko lainoak"* dira kasu batean, eta oraindik orokorrago den *"lainoak eta airea"* bestean. Bestalde, testuak ez digu behaldi horien mamiaz deus ere irakasten: Ez dakigu lai-

no mota zehatz baten bila ote dabilzan, –guk ezagutzen duguna noski–, bere bertan egotea ala ez egotea konstatatu eta horren arabera erabakitzeke, ala aldiz, laino guztiak hartzen ote dituzten kontuan, bakoitzaren itxura eta ortzian duten kokapena aztertuz. Irakatsi zaigun zehaztapen bakarra zera da, behagaia ez direla ostegiko lainoak, ez eta urrutira ikusten direnak, baizik eta hain zuzen ere, "*armadaren gaineko zeruko lainoak*", "*armadaren gainean*" sortzen den eta oldartzen den hodei beltza bezala, eta "zuen buruen gainetik lautadan" hedatuko den sarraskizko lainoa bezala. Dagoeneko aztertu ditugun aztikeriazko laino hauek testu berean egoteak, zera uste ukatera garamatza, alegia, igarleen behaldiak, mota bere bereko lainoren bat kausitzera zuzendurik egon behar direla, –armadaren gainetik behe samar dabilen lainoa–, eta kausituz gero, haren indarra eta mehatxua zertan eta norainokoak diren zehaztea zuzendurik halaber. Dena den, testuak eskaintzen dizkigun hitz urri horiekin ezin dugu deus erabaki puntu honetaz, ez bataren ez eta bestearen alde ere. Jentil igarleari dagokionez, argi aski dago ez dituela ortziko laino guztiak orokorki behatzen, eta bere igarmena, laino mota zehatz bat azaltzerakoan bakarrik jartzen duela lanean.

Drum Damhghaire-ko hesialdiko kontakizunetik ateratako eta aztertutako bost erreferentziok osatzen dute Betlehem-go bi laino argidunekin batera, jentilen akaberako laino iragartzaile-xederatzailearen motiboarekin erka daitezkeen ereduaren multzoa. Testu berean datozen bost erreferentziok, –zein bere aldetik, besteekiko loturarik gabe, era zatikari eta osatu gabean eta beste arloetako ezaugarriekin nahasturik–, jentilen akaberaren azterketan zehar argitan ipinitako aspektu guztiak biltzen dituzte, igarlearen amilketa salbu. Jentilen akabera iragartzen duen lainoaren motiboa, "*Sarraskizko laino bat hedatuko da zuen buruen gainetik lautadan*" esaldiak aipatzen duen laino horretan errepikatzen da, bertan Cormac-en armadaren deuseztapena presidituko duen lainoaren irudia adierazi nahi delarik. Ondoren, Jentilarri eta BARANDIARAN bertsoiek erakusten diguten laino mota, –alegia, iragartze hutsarekin nahikoa ez duela edo, jentilen akabera zuzenean eragiten duena "*haien gainera*" (Jentilarri), edo "*atzetik*" (BARANDIARAN) oldartu edo jarraikiz–, druidek sorrarazitako laino beltzetan errepikatzen da, Cormac-en armadaren gainean eta arerioen druiden kanpamenduen gainean "*oldartu*" edo "*jauzi*" egiten diren eta lehen azterturiko eragin ezberdinak dituzten laino beltzetan alegia.

Azkenik, "*armadaren gaineko*" lainoak behatuz harraipatu ditugun Cormac erregearen druidengan zorigaitzoko lainoa behatu eta ulertarazten duen jentilaren errepika aurkitu dugu. Eta orain, kidegasunak mahaigaineraturik, hauetatik tiratzen diren ondorioak finkatzeko garaia heldu zaigu.

Berazkorik zuzenen eta berehalakoena, jentilen akaberako lainoen beldurgarritasuna gerlari kamuflatuen bitartez ulertarazi nahi duen hipotesiaren eraispena izanen litzateke, eta honen ondorioz, bainazko berri baten plazaraketa, untzietako keetatik sortu omen diren ganduzko lainoen motiboari dagokionez.

Aztertu berri ditugun laino magikook ganduzko lainoetara buruz arriskatu dugun hipotesia baieztatuko lukete, azken hauek, ikusezintasun kamuflajearen motiboa eta sarraski bat iragartzen duen lainoaren motiboa gurutzatzerakoan sortutako interferentziaren emaitza izanen bailirateke.

Baina gerlari ezkutuen teoria bertan behera utzi eta gero, laino hauen idoroketak plazaratzen digun auzi handia, beren jatorriarena da noski, tartean dabilzan bi kultura horien artean esleitu beharko dugun jatorriarena. Jentil igarlearen betazalaren jasoera Balor-en keinu bereetik abiatuz esplikatzen saiatu garenean bezalako hipotesi zeltazalea proposa al dezakegu hemen ere?

Laino hauek, druiden aztigoaren irudiragarri jatorrak direla, eta euskaldunek zeltengandik mailegatu dituztela, –irudia eta oldartze erasokorra gordez. Baina sorburuan dagoen aztia ahantziz–, esaten badugu, premisa hauek berehala azaleratzen dituzten oztopoek erabat eutsiezina bihurtzen dute hipotesia. Hasteko, alde bakoitzeko ereduaren kopurua dugu ulerbideratu beharra, betazal jasorearekin sortu den auzi berbera, zeren Euskal Herriari dagokion gehiagotasunak, gure herria motibo zelta mitiko baten albiste iturriak iaioena bilakatzea eraginen bailuke, eta argi dago hori gehiegikeriazko konklusioa litzatekeela. Ondoren, ezin ahantz dezakegu laino mehatxugilea eta betazal jasoen arteko esteka sendoa jentilen akaberaren zenbait bertsiotan, eta honek noski, betazalen motiboari buruzko konklusio nagusia, –Irlandako zeltaitzineko geruzan duela jatorria alegia–, lainoaren motiboari zabaltzera garamatza. Baina zentzunik sinpleenak gogora ekartzen dizkigun argudio hauek ez ezik, testuen azterketak eta mitologia zeltaren ezagutzak ere, hipotesi zeltazalea zokoratzearen aldeko arrazoi berriak luzatzen dizkigute. Halako laino magikoak sorrarazitako druidek omen duten abilezia ez dute erromatar idazleek inoiz aipatzen, nahiz eta, –anitz idazlanetan erakutsi bezala–, apezgo zelta honen inguruko gauza guztietan biziki interesaturik egon. Baina okerrago oraindik, abilezia hauen erreferentzia bat ere ezin da Irlandan bertan aurkitu aipaturiko testurik at, irlandar mitologia ugariko hiru eredu bakarrek, –hau bitxikeria!–, bertan biltzea erabaki bide dute eta.

Auzia euskaldunen zeltengandiko maileguaren hipotesiaz bideratu nahi badugu, azken hauengan motiboaren presentzia zabalagoa eskatzeko eskubidea dugula esango genuke, testu bakar horrek eskaintzen duena baino zertxobait nabariagoa gutxienez.

Beste aldetik, gizarte hirufuntziokaria osatu aurretik borrokan dabilzan alderdien eskema nolabait extrapolatu eta Cormac-en espedizio honi ezarritik, druidak, behar luketen lekuan ez daudela oharitzen gara. Cithach, Cormac-en druidetako bat, eta kasualitatez topatzen duen Dubhfhís jardunkidearen arteko elkarriketa honek argitasuna egin dezake puntu horren gainean<sup>71</sup>:

71) Ber. / 37-39 orr.

*Dubhfis: –"Oh Cithach, nola etorri zara zure arerioaren lurraldera? Zure arerioaren lurraldera nola etorri zara, nora zoaz?"*

*Cithach: –"Tara-tik etorri naiz, Cuil Feaga Formaeile-ra. Munster-era noa (ezerk ez dit debekatzen), oh Dubhfis, oh Dolhis-en semea".*

*Dubhfis: –"Zergatik zoaz Munster-era, esan ezazu itxaron gabe, jakin ahal badaite. Gure topaldi hau esplikatu iezadazu (?), zein bideri jarraitzen zatzaizkio, zein armada zaintzen duzu?"*

*(...) –Cithach: "Lurralde hauetako druidak botatzeko etorri naiz, eta halaber nire lagunak. Cormac-ek, Munster-go errege kementsuak, zigortuko ditu (eta luze iraunen du horren oroitzapenak)"*

Cormac beraz, Tara-ko erregea da, "erdigunean" errege dena alegia, eta honek, –Euskal Mitologia Konparatuan aztertutako zelta eta indoeuropar erdigunearen irudi ideologikoaren arabera–, Irlandako botere gorena eta subiranotasun osoa dauzkala adierazten du. Beraz, berak irudiratzen du zalantzarik gabe zelta ortodoxoa den alderdia.

Irlandako errege hau Munster-en aurkako espedizio batean dabil, "lurralde hauetako druidak botatzeko", testuak adierazten irudi duenez, orobat druida eta buruzagi diren pertsonaia hauek botatzeko, ez bide dute nonbait Cormac-en aginte osoa onartzen.

Dubhfis-ek Cithach-i eginiko galderetako batek, "zein armada zaintzen duzu?" itaunak hain zuzen ere, Tara-ko erregearen abiadura oztokatzen duten druiden arierari buruzko komentario bat sorrarazten du: Izan ere, druida zeltek hamaika testutan erakutsitako jardun arrunta zera da hain zuzen ere, armada bat lagundu eta jagotea, zenbait maniobra aholkatu ala gaitzetsiz, beren aztikeriaren bitartez ikasten dutenaren arabera, (kanpamendurako lekua hautatu, egunaren momentu zehatzen bat aholkatu erasotzeko egokiena bezala, armadaren abiadura ordena erabaki e.a.), eta horretaz beste, beren aztikeriaz baliatuz, arerioak indargabetzea, hauen kemenena, iraumena eta adorea ahulduz. Hots, druiden jarduera osoa, laguntzen ari diren armadaren inguruan burutzen da, eta honela ari dira argi eta garbi ikusten denez, Cormac-en armada laguntzen etorri diren druidak. Ikusgune honetatik, Cormac-en aurka zutitzen diren druidak arras heterodoxoak ditugu: Ez ditugu armada baten ondoan ikusten hari beren laguntza "teknikoa" eskainiz, baikik eta beren kontura eta borrokaren zama osoa bakarrik eramaten<sup>72</sup>.

Bada, –hau ere kasualitate bitxia ote?–, Cormac-ek Munster-etik bota nahi dituen druida atipiko hauen alderditik irteten dira Irlandako erregearen aurka benetako arma gisa edo mehatxuzko igarpen gisa botatzen diren hiru laino magikoak, benetako biak eta metaforikoa alegia.

Cormac-en armadaren druida laguntzaileek ordea, ez bide dute teknika hau ezagutzen, ez baitute inoiz erabiltzen. Gauzak honela ikusita, badirudi mota honetako lainorik ez dagoela beren aztikerien artsenalean.

Honek guztiak lainoaren motiboaren hesparrua gehiago murrizten digu oraindik: Ezin dugu engoitik Irlanda osoko berezitasuntzat jo, Munster-en eta munster-tarren artean aurkitzen baitugu bakarrik. Tara-ko errege gorenaren aurka borrokan dabilzan munster-tar druiden berezitasuna da.

Ikus ahal denez, Balor-en betazala DeDennan-darren aurka lehiatzen ziren bertakoen alderdian zegoen bezalaxe, laino hauek ez daude aztigo zeltaren irudiragarritzat jo ahal izateko egon behar liratekeen alderdian.

Lainoaren adierazmamiaren puntuak hipotesi zeltazalari bi bainazko berri eragokitzeko aukera ematen digu.

Druiden lainoek zenbait erabilera ezberdin dituztela somatu dugu, edo zehazkiago esanez, zenbait eragin ezberdin dituztela.

Helburuaren gainean jautzen edo oldartzen ikusten dugun lainoaren irudia aldatzen ez bada ere, bi kasuetan burutzen diren ondorioak hagitz ezberdinak dira. Aurreneko kasuan, gainbehera oldartzen den lainoak, zorabio eta eromeneko egoera batean murgiltzen ditu armadako soldaduak, eta bigarrean ordea, lainoaren ekitaldiaren emaitza zera da, Cormac-en druidak indar husturik gertatzea, lainoak tiratuz, haien kemenak baitaratu bailituen. Irudiragarri berak honelako eragin aniztasuna erakusteko, lainoak azkenean edozertarako balio dezakeela pentsatzera eramaten gaitu. Azken buruan, Munster-go druiden "hats druidikoaren" itxura baino ez baita, eta hauek zalantzarik gabe, anitz baliabide ezberdinez horniturik egon bide dira.

Barrokismo semantiko honek begibistako kontrastea plazaratzen du, lainoak euskal bertsoietan beti azaltzen duen esangura bakar eta berarekin alderatuz gero. Beti-beti jentilen iragartzaile edo iragartzaile-xederatzaile den lainoari eragoki behar zaio beraz, zalanzkunerik gabe, "jatortasun agiria", zeren eta interpretazio ezberdinen lar-ugaltasuna, ulermen hutsune eta ulerkerien igergarri segurua baita beti. Eta aurruste honi gainera, "Sarraskizko laino bat hedatuko da zuen buruen gainetik lautadan" dioen metafora bermatzen zaio berehala. Testu beraren arabera sarraskia presiditzen duen laino honek aurka egiten die, druiden aztikerien irudiragarri izan nahi duten laino horiei, eta euskal lainoekin erakusten duen kidedasun semantikoari esker, irlandar testu honetako hiru laino ereduaren arteko jatorrena eta benetako esanahitik hurbilen dabilena dela frogatu daiteke. Laino honek, druiden araberako ulerbideak eraisten ditu, –izan ere, druiden sorrarazitako lainoek ez dute inoren heriotza eragin gainera–, eta motiboaren esanahiari dagokionez, jentilen akaberaren azterketa amaitzerakoan geunden puntu berberera itzularazten digu ostera: Alegia, lainoa erailea da argi eta garbi, baina ez dakigu nola edo zergatik.

Bi tradizioen loturabakotasunaren hipotesiak ez du inongo zentzurik euskal eta irlandar ereduak erakutsi du-

72) Aztigo zeltaren ortodoxia, Moytura-ko bigarren gatazkaren aurretik Lug-ek batzartu dituen laguntzaileek borrokan erabiliko dituzten baliabideak aldarrikatzen dituzten pasarteetan adierazten da.

ten berdintasun itzela, eta motiboaren urritasun larria kontuan hartzen baditugu. Beraz, defendagarri geratzen zaigun hipotesi bakarra, irlandar lainoen zeltaitzinekotasuna da, eta honek noski, Euskal Herria eta zeltaitzineko Irlandaren arteko bigarren kulturkideztza gunea adieraziko luke, betazal jasoeraren motiboaren ondoan. Aipaturiko hiru lainoen presentzia zeltaitzineko kultura baten hondartzat joz ulerbideratuko lukeen hipotesi hau, honaino ageriratu ditugun irregularkeriak ulertarazi diezazkigukeen bakarra da: Lainoen erabileren gehiegizko aniztasuna zelten ulerkerien eta arrazionalizaketa saioen ondorioa izanen litzateke, beste kulturako izanik arraro aurkitzen zuten irudiragarri hori ulerbideratzeko ahaleginen ondorioa. Argudio beronek argituko luke halaber, motiboak testuan duen kokapenak plazaratzen duen arazoa (laino magikoetaz Cormac-en aurkako druidak bakarrik baliatzen dira), eta era berean ere ulergarri bihurtuko luke motiboa gehiago ez azaltzea testu honetatik at Irlandako mitologia ugari eta aberatsean zehar. Eta noski, –ez zagula hau ahantzi–, hipotesi honetan oinarrituz bakarrik zuritu daiteke honelako lainoen agerkundeak ugariago gertatzea Euskal Herrian, Irlandan baino.

Lainoen irakurketan oinarrituriko igarkeraren izana adierazten diguten bi pasarteen komentarioa propio utzi dugu azkenerako, eta jarrera honen arazoia zera da, badagoela igarkera hau Irlandan arrunt ezaguna zela frogatzen duen testurik. Ikus ditzagun datu guztiak eta ondoren eginen dugu komentarioa<sup>73</sup>:

*IGARKUNTZA: Druiden funtzio garrantzitsuenetako bat igarkuntza zen, etorkizun dauden gertakariak asmatzea alegia, eta hau, gai garrantzitsu ia guztiei loturik zegoen iharduna zen: Espedizio militarrak,...*

*Druiden igarpenak bi datu motatan oinarritzen ziren; alde batetik gertakari eta objektu berezkoen behaketan, eta bestetik zenbait errito artifizialetan: Eta iharduera honetan ari zen bitartean, druida, "faith" bat zen, igarlea alegia.*

*Lainoen behaketatik ere igarpenak tiratzen zituzten. "Samain" (Azaroaren 1.) baten bezperan, Dathi Irlandako erregea (K.O. 405-428) egun hartan Cnoc-nan-druad-en ("Druidaren muinoa": egungo Mullaroe-n...) suertatu zelarrik, Skrean-go udalerrian, Sligo-ko konterrian, Ballysadar-eko badiatik mendebalderantz, bertan baitzuen orduan bere egoitza, bere druidari zera agindu zion, Samain hartatik hurrengora bitartean bere erresuman gertatuko ziren gauza nagusiak igar zitzala. Druida muino gainera igo zen, eta gau osoa bertan eman ondoren egunsentian itzuli, eta sorgina MacBeth-i bezala zuzendu zitzaion erregeari zera esanez:*

*–Itzarririk al zaude oh Erin eta Alban-go (Irlanda eta Eskoziako) errege.*

*–Zergatik eranskin hori nire tituluan? –galdegin zuen erregeak–, ni ez naiz Alban-go errege.*

*Eta druidak zera erantzun zion, "Erin-go gizonen lainoak kontsultatu zituela", eta horietatik ikasi zuela erregeak arrakasta eta garaipenez beteriko espedizioa egiten zuela Alban, Britainia eta Galia-ra. Eta igarpenaren arabera honelaxe egin zuen zerbait beranduago.*

*Lainoen bidezko igarkuntzaren berri honi zera gaineratu behar diogu, "neladoir" (nailadore) hitzaren izaera irlandaraz, astrologo edo igarle bat izendatzeko: eta "neladoracht-ek" piromantzia adierazten du (suaren bidezko igarkuntza) latindar deklinabideko irlandar idazlan zahar batean. Baina "neladoir"-en lehen esanahia "laino-igarle" da; eta "neladoracht"-ena, "lainoen bidezko igarkuntza"; zeren "nel, neul, nell", "lainoa" baita gaur egun oraindik ere, eta ez "izarra" edo "sua".*

Halabaina, neladoir-aren agerkunde honek ezingo du gure argudio egitura aldarazi, Irlandatik at parekorik ez duen igarkera baita, zelten beste igarkuntza teknikak ez bezala. Izan ere bat baino gehiago dira gizarte zeltetan zehar, eta areago, indoeuropar gizarte ezberdinetan zehar, apenas aldaketarik gabe aurki daitezkeen igarkuntza motak. Hona DOTIN-en artikulua honek zer dioskun puntu horretaz<sup>74</sup>. (Igarkuntza zeltari buruzko artikulua honetan neladoir-i dagozkion erreferentziak oraintxe plazaratu berri dugun testutik atera ditu autoreak: ez dira beraz erreferentzia berriak).

*IGARKUNTZA (ZELTA): JUSTIN-en arabera (XXIV, IV, 4) zeltak trebeak omen ziren eta beste herrien gainetik omen zeuden igarpenaren zientzian, ... zeltak igarkuntza mota guztiak praktikatzen zituzten. Illyricum inbaditu zuten galiarrak, txorien hegakerak erakutsirik heldu omen ziren.*

*Patuari galdetuz esleitu omen zitzaion Sigovesus-i hertziniar oihana (Livio V, XXXIV, 4). (...). Gatazkari ekin aurretik galiarrek oparikien erraiak aztertu ohi zituzten; eta behin erraiek hondamen ikaragarria adierazten zutelako, beraien emazte eta haurrak sarraskitu zituzten jainkoen oniritzia osteratzen itzul lekien (JUSTIN, XXVI, II, 2). STRABO-ren arabera, (IV, IV, 5 198 orr.), galiarren opari eta igarkuntza ihardunak erromatarrenen alderantzizkoak ziren: giza oparikia, kriminal gaizkilea sarritan, bizkarrean emandako ezpata-kolpeaz eraiten zen, eta etorkizunaren igarpena, behaketa hurrenkera luze eta etengabe batean oinarrituz, –erortzeko modua, dardaren nolakoa, eta odol jarioaren arabera egiten zen (cf. Diodoro Siziliarra V, XX-XI, 3).*

*Artemidorus-ek dioenez, itsas kairen batean eskuinteko hegala txuriz margoturik zuten bi bele beltz omen zeuden; auzitan zebilen jendeak mahai baten gainean opil bana ipini ohi omen zuten, zein norena zen argi geratzeko moduan prestatuz. Beleak opilen gainera etorri, gizaseme baten opila jan eta bestea lardaskatu egiten omen zuen, eta opila lardaskatu zietenek irabazten omen zuten auzia (ikus STRABO IV, IV, 6, 198 orr.)*

73) P. W. JOYCE. "A Social History of Ancient Ireland". London 1903/229 h. (Divination).

74) G. DOTIN. "Divination (Celtic)", Hasting's Encyclopedia delakoan.

Galiarrak belberinaz baliatzen omen ziren patuak asma eta etorkizuna auresateko (Plinio XXV, LIX, 106 ORR.; CF. SERVIUS, AEN., III, 57).

Hipolito-k (Philosomena 25) harri koxkorrekin eta zenbakiekin zeltek egin ohi zituzten patu asmaketak aipatzen ditu. Lehen mendeko britainiarrek patu gaiztoaren erakusgarritzat jotzen zituzten igergarriak ugariak dira: Hotsak kuriatik kanpo; garrasiak antzokian; Thames-en itsasoragunean urperaturiko hiri baten agerkundea; Atlantikoak odolezko itsaso itxura hartzea; itsasbeherak agerian utzitako gizantzeko itxurak hondartzan (TAC. ANN. XIV, 32).

Ornitomantzia, haruspizioa, eta beste zenbait igarkera, senitarteetako ugazabek egin zen jatorrian, zalantzarik gabe. Deiotarus galatiar erregea augure ospetsua zen (Cic. "De Div." I, 15, 26-27; cf. II, 37, 78); inoiz ez omen zion ezeri ekiten etorkizuna kontsultatu gabe. Behin, espedizio bat hasita, arrano baten hegakerak atzera itzularazi zuen; espedizioa bertan behera utzi eta honela salbatu zuen bere burua. (...). Aspaldiko garaitan zelten artean etorkizuna auresaten ziharduten apaizak bazeuden.(...). diodoro siziliarrak (V, XXXI, 31), igarleak, hegaztien hegakera eta oparien erraien arabera auresaten zuten etorkizuna (Cicero, aip id. I, 41 orr. 90).(…). Irlandarren artean, antzinako testu pagano zaharrek jakinarazten digutenez, igarkuntza oso estimatua izan zen. Druidek praktikatu ohi zuten. Beren auresanen iturburu berezko agerkarien behaketa izaten zen maiz; igarkuntza motarik ezagunena lainoen bidezko igarkuntza zen, eta "neladoir" hitza, zuz.itzul. "lainoak irakurtzen dituen", igarleak izendatzeko erabili ohi zen. Baina igarpenak sarritan, zenbait objekturen laguntzaz burutzen dira: Ogam idazkerako ikurrez beteriko hagin makila; gurpil bat, honek galiar-erromatar jainkozko baten ikur ezaguna gogorarazten digularik. Druidek halaber, ametsak eta txorien garrasiak ulerbideratzen zituzten, belearena eta txepetxarena batik bat. Zenbaitetan, igarpenak tiratzen ziren zakur baten zaunka hotsetatik, edota zuhaitz erro baten itxuratik. "Togail Bruidne Da Derga" delakoan, etorkizuna asmatu asmoz egindako txerri baten oparia aurkitzen dugu.

Ez dugu erreferentzia zuzenik antzinako britainiarren arteko igarkuntzaren gainean. Baina kornixerako "teulet pren" (egurra bota) hitzek, "patuak asmatu" adierazten dute. Kimruerako "coelbren" hitzak (igarpen egurra) "patua" esan nahi du; eta irlandarako "erann chur" hitzek (egurra bota) "patuari galdetu" esan nahi dute. Hiru dialektoen arteko etimologia adostasunak zera frogatzen digu, egur pusketen bidezko igarkuntza, –Tacito-k teutoien artean (Germania X) aipatzen duena–, galiarrek eta britainiarrek egin zela baita ere.

Zelten igarkuntza motei buruzko halako lista exhaustiboan "neladoir" delakoari buruzko erreferentziak Irlandatik kanpo ezin aurkitzeak, lehenago betazalen jasoera eta laino beldurgarria ibili diren bide beretik sartzen digu laino irakurlearen nortasunaren arazoa. Alegia, gainon-

tzeko gizarte zeltekiko inongo kideasunik gabeko irlandar eredu besterik ez dugu, eta eredu hauek bere euskal adierazkideak baino urriagoak dira. Bitxia eta nabarmengarria da beti gauza bera gertatzea jentilen akabera-ko motiboekin pareka daitezkeen motiboei dagokienean: Betazalen jasoera, gainbehera oldartzen den laino beldurgarria, eta orain laino irakurlea, bere euskal bertsioa den jentil igarlearen agerpenak, irlandar hiru druidak baino gehiago direlarik. Motibo hauen jatorri zeltaren hipotesiari eutsi nahi badiogu, erabat eman beharko diogu euskal mitologiari, irudirago zelta hobekien gorde duenarentzako saria, zeren bertan bakarrik gorde bide baita, zeltengandik ikasi ondoren, gure maisuek berehala eta leku guztietan ahanzi zutena.

Atzera seriotasunari helduz, "neladoir" laino irakurlearen izaera zelten bertakoengandiko maileguz baino ezin daiteke ulerbidera. Bertakoak lirateke, kultur bereizgarritzat ukanen luketenak lainoen behaketan oinarrituriko igarkuntza mota hau. Mailegu hori aipatu dugula, eta Drum Damghaire-ko hesialdiko kontakizunera itzuliz, zalantzarik gabe zerbaiten adierazgarri dugun oposaketa bat azpimarratu nahi nuke, hain zuzen ere, Cormac-en eta Munster-go druiden arteko oposaketarekin batera, lainoen ekoizpen eta irakurketaren arteko oposaketa paraleloa.

Laino magikoak sorrarazten dituzten druiden irudia jatorrizko motiboaren zelten arrazionalizaketa dela une batez alde batera utzirik, –laino beldurgarri sarraskitzaileak ez baititu benetan inork sorrarazten ez euskal bertsioetan, ez eta "sarraskizko laino" irlandarraren kasuan ere–, bi taldeetako druiden arteko diskriminazioa, bakoitzaren lainoekiko loturari dagokionez, argiegia eta sakonegia da agatikoa edo kasualitatezkoa izateko: Alde batekoek behatu eta ulerbideratu egiten dituzte, inoiz ere sorrarazten ez dituztelarik, eta beste alderdikoek aldiz, laino magikoak sorrarazten ikusten ditugu, baina sekula ez lainoak behatu edo irakurriz. Egoera honi, testuan zehar sorrarazten diren eta irakurtzen diren lainoen arteko antza eransten badiogu, –"armadaren gaineko lainoak" baitira denak, bat ezik, Dathi erregearen druidak, noiz eta gaez gainera, behatzen dituen laino zehaztubakoak ez bezala–, gorago aipaturiko maileguaren adierazpide dialektiko baten aurrean ez ote gauden hausnartzera bultzaturik sentitzen gara. Maileguaren adierazpide dialektikoa aipatzerakoan zera esan nahi dugu, lainoaren irudi horren inguruko oposaketak (sorrarazpen eta irakurketen arteko oposaketak alegia) bertakoan baliabide mitiko garrantzitsu baten gainean (laino magikoaren gainean) zeltek erdietsitako kontrola (behaketa eta horren araberako neurriak) adierazko lukeela.

Bide batez, eta honen ondorioz, bereizketa bat ezarriko litzateke ulerkeria horretan oinarrituz, aztigo zuriko alderdi bat (lainoen bidezko igarkuntza) eta aztigo beltzeko beste bat (laino magiko erasokorren sorrarazpena) definituz. Izan ere, jentilen akabera ikusten dugun lainoaren antzeko laino jator batetik abiatuz, –eta irlandar "sarraskizko laino" dugu hipotesi honen bidezkotasunaren

frogagarri-, zera nabaritzen dugu, bere jatorrizko ezaugarri bikoitza, (alde batetik behagai eta igargai izan, eta bestetik sarraski handi baten xederatzaile izatea alegia) bitan erdibitu dutela momentu batean irlandar zeltek.

Izan ere, "sarraskizko lainoa" alde batera utzirik (eta honek metafora baino ez izateari zor bide dio jatorrizko balio bikoitza gorde ahal izana) gainontzeko irlandar eredu-tako batek ere ez du lortu ezaugarri bikoitzari eustea: Edonolako lainoak irakurtzen dira alde batetik, -bai eta gauez ikusten direnak ere-, edonolako igarpenak adierazteko, edota bestetik, inork behatu edo irakurtzen ez dituen laino magiko erasokorrak topatzen ditugu.

Komentario hauen bidetik, galdera berri bat plazartu behar dugu ezbaigai honetan, hain zuzen ere, lainoen irakurketaren bidez egindako igarpenen edukiarena. Haatik ez gara honekin gehiegi luzatuko, azken buruan laino magikoen erabilera anitzen arazoaren errepika baita, eta beraz, azken honetaz landutako argudioak extrapolatu besterik ez dugu eginen. Irlandan aurkitzen dugun laino irakurketaren bidezko igarpen ahalbideen aniztasunak, -igargai ezberdinetan nahiz igarpenen balio-epenean luzera aldakorretan agertzen den aniztasunak-, kontraste sakona egiten du jentil igarle guztiek lainoa ikusi ondoren esaten duten igarpenen beratasun konstantearekin. Jentil igarleen erabakia, bakarra eta bera da beti, lainoaren esanahia bakarra eta bera den bezala, eta erabaki hori nekez izan liteke Irlandatik etorria Euskal Herrira, Irlandan ez baita ezagutzen, laino baten behaketaren ondorioz patu gaiztoko igarpena sekula egin denik.

Propio utzi dugu azkenerako Irlandan "neladoir" delakoa agertzeak dakarren berazko nagusiaren komentarioa: Jentil igarlea ere, laino irakurle bat dugu, eta datu honek dakarren frogari esker, borobilkiago zehatz dezakegu orain, hasiera hasieratik eragiketa magikotzat jo dugun betazalen jasoeraren motiboaren adierazmama: la segurtasun osoz esan daiteke orain, betazalen jasoera igarkuntza mota baten kanporako keinua dela, Irlandan kausitu ditugun azken lainook alde batetik, eta "laino irakurleak" bestetik, erabateko indarrez ezabatzen dituzte

jentilari betazalak jasotzearen eragiketak ukan lezakeen esanahi erasokorrari buruzko azken susmoak. Gure jentila ez da jatorrian gerlariz beteriko lainoa deuseztatu nahi duen begi luputsuaz hornituriko etsaia, baizik eta, laino zehatz baten agerkundeak denak kezkatu dituenean, hura behatu, "irakurri" eta ulerbidera dezan etorrarazi eta betazalak zabaltzen dizkioten pertsonaia.

Lainoen behaketa eta ulerbideraketarekin lotu behar dugu betazalen jasoera.

Berazko garrantzitsu hau halere, ez dator bakarrik, zeren berarekin batera, bera bezain garrantzitsu eta erabateko diren beste bi berazko baitakarzkgu: Aurrenekoa, laino irakurlearen agerkundeak, Moytura-ko tradizioak Balor-en betazalaren jasoerari ematen dion esanahia gezurresten duela. Betazal jasoeraren keinu magikoa lainoen irakurketari lotzen zaionez gero, Balor-engan ematen zaion ulerbideraketa gezurrezkoa da, faltsua da. Gezurrezko esanahi eta funtzio horiek, bertako irlandarrak ezagutu bide zuten keinu magiko hori zeltek, propio ala nahi gabe, gaizki ulertzearen emaitza dira. Eta ulerkeria honek, Moytura-ko Balor-en nortasuna argitzeko proposatu dugun hipotesiaren ( bertako irlandar jainkozko baten keinu bereizgarria + jainko berori etsairatzeko eransten zaion deabru zeltaren begi pozoitsua) egokitatsuna frogatzen du.

Bigarren berazkoa zera litzateke, "neladoir" edo laino irakurlearen jatorria argitzeko zelten bertakoengandiko maileguaren hipotesia derrigorrezkoa dela baieztatzea. Irlandar eskuizkribu honen edo haren data alde batera utzirik, -izan ere, axola duen antzinakotasun bakarra izkribu horietan idatzirik dauden ahozko tradizioena baita-, tradizio zeltarik zaharrena logikoki, Irlandara heldu zirenekoa izan behar da. Eta bertan, ikusi dugunaren arabera, zeltek sasiulerbide bat asmatu badute laino irakurlearen keinu bereizgarriari zentzu bat emateko, argi dago ezin izan direla beraiek izan, lainoen irakurketaren bidezko igarkuntza Irlandara ekarri dutenak. Seguru asko, beranduago bertakoen kultura zertxobait ezagutu zutenean mailegatu zuten haiengandik, mailegatzen ari ziren igarkeraren keinu bereizgarriaren mamia eraldatu ondoren noski.

## VIII. PARTHOLON-EN ASKAZIA

Bi dossier garrantzitsuenetariko bigarrena itxi berria dugu. Gure itxaropenak ipini dituguneko bi dossierrok buruturik daude, eta horiekin nolabait jentilen akaberaren ikerketa bera ere bertan amaitzen dela esan liteke. Ibilkizun geratzen zaizkigun bi bideek eman dezaketen emaitzen zain oraindik, badirudi halere ikerketaren aurren balantzea egiteko une egokia dela. Betazalen jasoeraren eta laino mehatxugilearen motiboei buruzko inkestak luze eta sakon horiek bukatu ondoren, zein dira lortutako aurrerapenak bi helburuei dagokienez?

Aurreneko helburua ezin esan erabat iritsi dugunik, baina halere begibistan dago aurrerapauso bikainak

eman ditugula arrakasta osorako bidean. Alde batetik, mito honen Jesukristoren jaiotzarekiko eta kristaugarren hedapenarekiko loturak sasiulerbide berantiarak direla, eta mitoaren jatorrizko esanahiarekin zer ikusirik ez dutela baieztatu ahal izan dugu. Ikergai ditugun motiboei Irlandan aurkitu ditugunean, guztiak, bat ezik, -Betlehem gaineko laino argiduna-, kristautasunarekin inongo loturarik ez zeukaten testuingurutan azaldu zaizkigu (Moytura-ko gataska, Drum Damhghaire-ko hesialdia), eta honek, engoitik akaberaren mitoaren bertsioen azterketatik tiratu dugun susmoa egiazkotzat baieztatu dugu. Halere, baieztapen hau garrantzitsua izanik ere, au-

rreko susmo argi baten baieztapena baino ez denez gero, ezin esan aurrerantz emandako urratsa ikaragarria denik.

Aurrerapen ikusgarriarik nonbaiten egin badugu, jentil igarlearen betazalen esanahia argitzeari dagokionez egin dugu, eta hau, –gogora dezagun–, "neladoir" edo laino irakurlearen idoroketari zor zaio. Laino irakurleak, jentilaren eragiketa bitxia lainoen bidezko igarkera baten keinu magiko bereizgarria bailitzan ulertaraztea ahalbideratzen zuen, eta agerian ipintzen zuen gainera jentilaren "itsutasuna" eta "zahartasunaren" gezurra, ezaugarri horiei buruzko gure aurruste eta susmoak baieztatuz, alegia, betazalen jasoeraren esanahi jatorra ulergarri egiten zuen testuinguru-gakoa ahaztu ondoren, hutsune semantiko hori betetzeko kontakizunak plazaratzen dituen aitzakiazko arrazionalizaketak zirela erakutsiz. Euskal Herrian aspaldidanik nonbait ahantzi zen igarkuntza mota hori dugu, zalantzarik gabe, bila genbiltzan gakoa.

Halere, laino beldurgarriak itzal itsusi bat eragiten du idoroketa honen gainean, zeren eta ez baitugu, hasiera hasieratik arazoaren gako nagusitzat jo dugun motibo honi buruz gauza handirik argitu. Noski, agerkunde bat dela frogatu ahal izan dugu, eta honi esker, betazal jasoeraren motiboa ulerbide asegarri batetik bideratzea erdietsi dugu, hasieratik esandakoa baieztatuz, hots, betazalen jasoera lainoaren funtzioan ulertu beharra dagoela. Baina azken buruan, lainoaren funtzio azalkaria argi eta garbi esplizituki adierazten zaigu jentilen akaberaren euskal bertsioetan, eta ezin esan beraz azalkaritasun hori berriro frogatzea aurrerakada itzela denik. Lainoaren inguruan benetako lehen mailako garrantzia duen galdera, mitoaren adierazmami erabat argi dezakeena, –lainoak baitaratu edo irudiratzten dituen indarren zer nolakoarena alegia–, ezin izan dugu oraindik erantzun. "Sarraskizko lainoaren" metaforak gogoratzen digun irudiak, berriro ere sarraskia iragarri eta, –nola burutzen duen ez jakin arren–, seguru aski eragin ere eragiten duen lainoaren hipotesira bidaltzen gaitu. Baina irudi horrek ez dakarkigu lainoaren indarraren zer nolakoari buruzko beste inongo argibiderik, eta indar horrek gure inkestaren enigma nagusi dirau beti ere. Agian lainoaren kemena, jatorri beretik ilun eta zehaztu gabekoa dela usate ukan beharko ote dugu, esplizitatu gabeko katastrofe latz baten metafora hutsa, eta beraz alferrekotzat jo beharko ote dugu, sekula ukan bide ez duen esanahi zehatzago horren bila ihardutea?

Eta gainontzekoari dagokionez, gure ikergaiak azaldu diren testuinguruaren heterogenotasunak alde batetik, eta ikergai beroiek gehienetan, ageri ikusten denez, jasan dituzten desfigurazio semantikoek bestetik, erabat ezinezkoa bihurtzen dute mitoaren ulerbideratzeari dagokionez aurrerakadarik txikiena ere burutu ahal izatea, eta zer esanik ere ez noski, mitoaren funtzioa asmatzeari dagokionez.

Gure pozaldi gozoenak, zalantzarik gabe, mitoaren hedapena eta igorbidearen alorretan burututako idoroketei zor zaie. Izan ere, ikerlanaren hasiera hasieratik gure buuari ezarritako bigarren helburu hau kasik bete bete-

rik baitago. Aurrusterik gabeko abiaburutik hasi, eta bitan Irlandara eraman gaituzte inkestek, bertan, gure ikergaiekin pareka daitezkeen erreferentzia bakarrak kausitzeko, –betazalen jasoera, laino erasokorrek eta laino irakurketa–, eta ez nolana gainera, baizik eta haien zeltaitzinekotasuna frogatzen duen moduan kokaturik. Zeltaitzinekotasun hau beste zenbait bidetatik ere bermatu eta nabarmendu da gero, hala nola, Irlandatik kanpoko eredu zelta eta indoeuropar eza erabatekoa ikusirik, alde bakoitzeko bertsioak zenbatzerakoan argi geratu den Euskal Herriaren gailentasunak erakutsirik, irlandar ereduaz azaldu diren testuetan nabari diren egitura eta adierazmami mailako trakeskeriak somaturik, eta ereduok ulerbideratzerakoan gertatu diren zalanzkuneak, –eredu bakar bati eragokitzen zaizkion anitz funtzio eta esanahiak lekuko–, adierazirik.

Ikertu ditugun puntuon azterketak nahiko frogakor izanik ere zein bere aldetik, guztioi esker iritsi ahal izan dugun sogune berri honetatik honaino plazaratu ditugun datuei begiratuz gero, gero eta nabarmenago agertzen zaigu gure hipotesiaren bidezkoasuna: Benetan ezinezkoa da jentilen akaberaren euskal bertsioak, –denak paretu eta bateratsu kontakizunaren mamiari dagokionez–, elkarren arteko loturarik ez duten zenbait testu zeltetan han hemenka jasotako motibo eta gertakari bilduma batetik eratorritakotzat jotzea, eta alderantzizkoa berriz, –irlandar erreferentziak zeltaitzineko mito zahar baten hondakin sakabanatuak bailiran kontsideratzea alegia–, motiboen trakeskeria eta sakabanatze hauek argien ulerbidera ditzaken hipotesia da. Gainera, aterturi-ko motibo guztien urritasun larria eta bi lurraldeetan soma daitezkeen lotura megalitikoak, borobilki uztartzen dira gure hipotesiaren barnean. Zeltaitzineko Irlanda eta Euskal Herriaren arteko kulturkidetza agerian ipini ahal izan dugu, sinesgaitza badirudi ere, eta kulturkidetza honek, bere jatorria dena delarik, nolana ere hagitz atzera igortzen gaitu aspaldian barrena, urrunegi beharbada errazki onartua izateko, baina hortxe daude datuak, ikusi nahiko dituen edonorentzat ikusgai. Kulturkidetza honek azkenik, euskaldunei buruz arkeologiari esker dakiguna baieztatu ezezik, bide berriak zabaltzen dizkigu hauen garai bateko ahaideak ikertzeko.

Idoroketari bermatzeko beharrezko diren frogak arkeologikoak ere eskura ditugu, ez digute huts egiten. Arazo bakarra, astian barrena oso atzera egin beharrak dakarkigu: Zalantzan ipini liteke, ahotik belarrira igorritako kontakizun batek honen bide eta bizitza luzeak ibili eta bizi ahal izatea, baina testuak argi mintzatzen zaizkigu ahalbide horren alde.

Balantze honen aurrean galdera bat azaltzen da nabarmen: Ikergai ditugun motiboen parekoak Irlandan kausitu ditugu, zein bere testuinguru berezian kokaturik, testuinguru hauek elkarren artean zer ikusirik ez dutelarik, eta jentilen akaberaren testuinguruarekin are eta gutxiago oraindik. Irlandar eredu hauek era eta toki hauetan kausiturik, euskal mitoaren pareko mito zahar baten hondakin sakabanatuak ematen dute. Orduan, ukan al daiteke, motibo sakabanatu horien jatorburua, –irlandar

jentilen akaberaren mitoa alegia-, kausitzeko esperantzarik?

Dena den, bi bide baino ez zaizkigu geratzen ibilkizun: Hain zuzen ere jentilen erabateko eta orobateko suntsipenaren motiboarena, eta igarlearen oparigintzako amileraren motiboarena. Honezgero zenbait aldiz aipatu dugun irlandar mitologiaren ezaugarri berezi batek aurrenekoaren bidetik sartzera eramaten gaitu.

Besteak beste indoeuopar mitologiaren azterketa ideologikoaz diharduen Euskal Mitologia Konparatua-n, zera azpimarratzen da, alegia, gizarte baten eraikuntzaren indoeuopar mitoaren bertsio zeltak oker edo trakeskeria ageri bat erakusten duela, eta trakeskeria hori hain larria izaki, ezinezkoa bilakatzen dela bertsio hau, mitoaren gainontzeko bertsioekin batera sailkatzea. Izan ere, zelten bertsio honetan, -hots, Moytura-ko kontakizunean-, mitoaren gertakari nagusien eta erabakiorrenak huts egiten baitu, hain zuzen ere, borrokan aritu diren bi herrien elkartzea.

Gizarte berria sortuko duen elkartze horren ordean, Fomore-tarren debaklea eta sarraskia jakinarazten zaizkigu, eta mezu hirufuntziokaria Bress-en aitopenean adierazten zaigu, horren bitartez iristen baitute Tuatha De Dannan garaileek hirugarren funtzioa haienganatzea, eta borobiltasun hirufuntziokariak jabetzea.

DUMÉZIL-ek zelten nekazaritzaren aurkako aurreritziak aipatuz ulerbideratu nahi duen trakeskeria hau beste erara ikusi dugu guk aipatu idazlanean: Elkartzerik eza eta Fomore-tarren suntsipena, irlandar mitologiak bi herri ezberdin elkarrekin bizitzen irudiratzearen aurka duen joera etengabearen eredu bat baino ez litzateke izaneren. Eta joera honen jatorburua, irlako lehen biztanle mitikoen suntsieran aurkitzen dugu. Hona TUAN MACCAIRILL-en hitzetan gertakari honen berria<sup>75</sup>:

*Bost inbasio jasan ditu Irlandako irlak egundaino. Euritearen aurretik inor ez zen bertaratu; eta euritearen ondotik ere inor ez zen heldu hirurehun eta hamabi urte igaro baino lehen.*

*Orduan Partholon, Sera-ren semea, Irlandan bizitzera etorri zen. Herbestera bat zen; hogeitalau gizon zekarzkie berarekin, zein bere emaztearekin. Bere lagunak ez ziren benetan oso azkarrak. Irlandan bizi izan ziren, askazi bereko bost mila lagun izatera heldu arteraino. Heriozte batek jo zituen bi igande bitartean, eta guztiek galdu zuten bizitza.*

Partholon-en herria galtzen duen heriozte bitxi hau izurrite bat da zehazki. 1851ko Irlandako erroldak ezbehar larri honi buruzko zenbait argibide berri eskaini eta komentatzen ditu, kronika eta anale zaharretan oinarrituz<sup>76</sup>:

*I.- Partholon-en askaziko bederatzi mila lagun hil ziren aste baten buruan Sean-Mhagh-Ealta-Edair izeneko*

*zelaian, hain zuzen bost mila gizon eta lau mila emakume. Hortik datorkio Tamlacht Muintire Partholon izena, -egun Tallaght deritzan lekua, Dublin-en hurrean-; eta bat bateko izurriteak ero zituen lehen kolonizatzaile hauen harri pilak inguruko muinoetan ikus daitezke oraindik. Hau da Irlandan erregistraturiko lehen izurritea. Irlanderazko "tamh" hitzak izurritea adierazten du; eta "tamh-leacht" hitzak (izurritearen oroitarria), -Irlandako topografian hain ugaria-, zenbait gizaki izurrite batek garbitu eta elkarrekin lurperatuta dauden tokia adierazten du.*

*II.- "Sean-Magh-Etair izeneko zelaian Partholon hil zen, mila gizon eta lau mila emakumerekin batera, "Tamh" izeneko astebeteko heriozteak jota". Hauxe da gaur egun daukagun eskuizkriburik zaharrenak izurrite honi buruz dakarren berria; eta Leinster-go liburu berean datorren bardo-olerki zahar baten arabera, "Partholon-en herria bederatzi mila lagun guztira, aste bete barruan suntsitu zen "Tamh"-ek jota".*

*III.- "Eri (Irlanda) hartu zuen aurreneko gizona Partholon izan zen, mila lagunekin batera, hots, mila lagun gizonetzko eta emakumezkoen artean, eta bertan ugaltu ziren anitz mila izan arte, aste bete barruan izurrite (Tamh) batek jota hil ziren arteraino".*

*IV.- Clonmacnoise-ko analek, Partholon-en Greziatik Irlandarako bidaiak deskribatu ondoren, honela marrazten digu Dublingo eremuetan kolonia hau suntsitu zuen izurritea: Heldu zirenetik 296 urte irago zirelarik, "bizirik zeudenak 9.000 lagun zirelarik, Maiatzeko lehen asteleheneretik hasita hurrengo asteleheneraino, denak hil ziren Moynealta-ko zelaian bat bateko izurriteak jota. Moynealta izena zeratik zetorkion, alegia, erresuma osotik abiatuak jende guztia bertara bildu ohi zelako eguzkitan belzteko".*

*V.- Mila bostehun eta bi urte irago ziren (laurehun Eochaid O'Flinn-en arabera) Partholon Irlandara heldu zenetik, bertan Euritearen ondoren ezagutu den lehen heriozte (Duine bhadh, hots, giza-heriozte) gertatu arte. (Tamh) izurriteak Partholon-darrak akabatu zituen astelehenean hasita, Maiatzeko Kalendatan, eta hurrengo iganderaino luzatuz. Partholon-darren heriozte (Duine bhadh) honetatik dator "Taimleachta" (herioztearen lekua) izena.*

Jatorrizko heriozte honen motiboak eragin nabarmena du irlandar mitologiako Historian zehar. Partholonen koloniaren ostean helduko den Neimid-en koloniaren akabera, aurrekoaren berdina, eragin honen frogagarri dugu<sup>77</sup>:

*I.- Gero Neimhid, (Tamh) izurriteak jota hil zen hiru mila lagunekin batera, Munster-go Crichliathain-go Ard Neimhid izeneko irlan, gaur egun Barrymore edo Irla Nagusia deritzan lekuan, Cork-etik hurbil. Aro honen ondoren, analistek diotenaren arabera, Irlanda hutsik geratu zen 200 urtez.*

75) D'ARBOIS DE JUBAINVILLE. "Le cycle mythologique irlandais et la mythologie celtique". Paris 1884 / 50h.

76) "Census of Ireland for the year 1851" / 41.orr.

77) Ber. 41.orr.



"Etorrera-Kolonizaldia-Bat bateko heriozte-Hutsu-nea" urratsek osatuko luketen hurrenkerak hau, zerbait gozotuagoa aurkitzen dugu ondoren datozen herrien bilakabideei dagokienez, baina halere, bat bateko heriozte latzek bertan diraute Irlandako mitologiako Historian zehar. Honela, hirugarren herri kolonizatzailea den Fir Bolg direlakoei dagokionez zera esaten zaigu, Dedannan-darren aurka Moytura-n borrokaturiko gatazkaren ondorioz haietako ehun mila hil zirela Eocy erregearen inguruan, Irlandan sekula ezagutu den sarraskirik odoltsuenean. Eta honezgero badakigu, lehen aipatu dugunez, gatazka berorren bigarren zatiaren amaiburua Fomora-en sarraskia dela, honen bidez Dedannan-darrak irlako jaun eta jabe bakarrak geratzen direlarik.

Azkeneko sarraskiok gatazka baten emaitza izateak, –eta ez izurrite batena–, ez du benetan gehiegizko garrantzirik, zeren testuen azentua erabateko suntsikeraren ideian ezartzen baita, honen iturburua hori edo hura izateak ezer gutxi axola duelarik. Mont Tragaide-ko (Sarraski errukigarriaren mendiko) gatazkaren kronika, axolarik eza horren erakusgarri argia dugu<sup>78</sup>:

*Gatazka gori-gori zegoelarik, peste bat sortu zen, eta honen eraginez Lugaid eta Caesarn beren herri osoarekin batera hil ziren, eta baita beste aldetik ere "Irlandako gizonetariko" anitz. Bertan eman zitzaizen lurra denei.*

Testu honetan deuseztapeneko helburua iristearren elkarren lagun dabilizan bi motiboon (gatazka eta izurritea) interferentziak, izurriteon mitotasun hutsa erakusten digu alde batetik, (mitotasuna historiatsunari kontrajartzen zaion heinean alegia), eta bestetik, Partholon-en koloniaren akaberak ondorengo irlandar "Historian" zehar duen eragina baieztatzen digu, gizarte baten erakuntzaren irlandar bertsioak azaltzen duen trakeskeria akabera horrek eragindakotzat jotzen duen hipotesia indartuz. Eta uste hauek finkaturik, gatozen osteria Partholon-en herriaren akabera aztertzeraz.

Aurreko atala honako galdera honetaz amaitu dugu, alegia, euskal jentilen akaberaren antzeko akaberarik Irlandan aurkitzeko itxaropena eduki behar ote genuen. Bada, Partholon-en herriaren suntsipenaren kontakizun hau izan liteke hain zoriontsu eginen gintuzkeen baiezkotza erantzuna.

Aipatu berri ditugun testuek euskal mitoarekiko zenbait kide-tasun eta bereizkune azaltzen dituzte. Hona hauen azalpena eta azterketa.

Lehenengo, argi dago testu hauek ez daukatela euskal leiendan aurkitu ditugun motibo guztiak. Laino beldurgarriak edo betazal zintzilkariz hornituriko igarlerik agertzen ez denez, eta noski oparigintzako amilerak ere huts egiten duenez, badirudi euskal eta irlandar tradizioek ez dabilzala elkarren oso hurrean. Halere, hutsune hauek eraikitzen duten oztopoa ez da gainditzen nekezegia. Betazal jasoera eta laino erasokorrari buruz eginda-

ko ikerketek, bi motibook zeltaitzineko maila batean dutela jatorburua erakutsi digute. Aurkitu ditugunean, de-generaziozko egoera batean kausitu ditugu gehienetan, eta hau, bi eragile direla medio: Alde batetik, aspaldikoak direlako, eta bestetik, gaintetik estali eta bildu dituen geruza zeltak gaizki ulertu dituelako. Beraz, honela mugaturiko hesparruan normalena zera da, hemendik aurrera ere, jentilen akaberaren leiendako motiboen parekoak, hondakin edo xabor modura aurkitzea, horrenbeste-ko zortea ukanez gero; eta areago, honela izatea hobe dugula esan liteke, zeren orain Irlandan euskal mitoaren antza handiko kontakizunen bat aurkitzeak, zalantzapean ipiniko bailuke bi tradizioen arteko loturaren aspaldikotazuna.

Hausnarketa hauen ildotik azterketari berriro helduz, hiru kide-tasun nabarmen soma ditzakegu: Bat, Partholon-en herriaren akabera, bat bateko eta orobateko suntsikera da, bertan aienatzen baita herri osoa, eta hori bera da, hain zuzen jentilekin gertatzen dena. Bi, aipaturiko akabera biok beste herri edo jainkoren esku hartzerik gabe burutzen dira, zorigaitzoko patu hori ulergaitz samarra gertatzen zaigularik, testuak ez baitu zergatia adierazten. Eta hiru, bi tradiziook hilarri megalitikoekiko lotura zehatza azaltzen digute.

Beste aldetik, badira noski zenbait bereizkune bien artean, baina bigarren mailakotzat jo daitezke: Suntsikeraren eragilea izurritea dugu batean, eta laino erasokorra bestean; jentilen akabera Partholon-darrena baino azkarrago burutzen da, azken hauenak aste osoa behar baitu, Jentilarriko bat bateko akaberak ez bezala; eta Irlandako oroigarri megalitikoak harri pila multzo bat dugu, Euskal Herrian trikuharri bakar bat aipatzen delarik. Baina argi dago bereizkune hauen indarra oso ahula dela kide-tasunenarekin erkatuz gero: Herri baten erabateko suntsipen osoa, suntsieraren bereizitasuna, –bat batekoa, inolako borroka edo ahakarrik gabekoa, eta inolako ulerbiderik gabekoa–, eta hildakoen lurperatzea hilarri megalitikoetan, hiru motibo original eta bitxiak dira; eta hiruren elkartzea kontakizun bat osatzeko ezin da berez eta nolana ere errazki gerta daitekeen elkartze logikotzat jo. Alderantziz, elkartze horrek originaltasun nabarmeneko kultur produktua osatzen du, eta produktu hori originala den heinean, nekez izan daiteke bi herri zeinek bere aldetik eta zeinek bere kabuz asmatu-rikoa. Beraz Euskal Herria eta Irlandaren artean jentilen akaberaren mitoaren hesparruan aurkitzen dugun kide-tasun berri bat dela onartu beharko da. Hipotesiari arrazoizkoa iritz diezaiokegu, baina oinarriak sendotu beharko dizkiogu halere, zeren jakina baita indoeuropar aitzineko geruza baten izana erreibindikatzen dugun bakoitzean, aurreneko betebeharra, gure ikergaiak indoeuropar eskematan sar ezinak direla erakustea dela. Inoiz saihestu nahian ibiliko ez garen betebeharrak metodologikoa dugu hori.

Partholon-en arraza identifikatzeko lanak bi ekinalditan burutuko ditugu. Lehenengo eta ezezko bideari loturik, tradizio zelta ez dela demostratuko dugu, eta ondoren baiezkotza bidea zapalduz, lehen kolono hauek ezauga-

78) H.LIZERAY. "Livre des Invasions" Paris 1884 / 129.orr.

rriztatzen dituzten bereizgarri nabarmenenak zehaztuko ditugu, Partholon-darren argazki ahalik eta fidelen eta zehatzena marrazteko.

ARBOIS DE JUBAINVILLE zeltazaleak Partholon-darren akaberaren bertsioetako bati buruz egiten dituen komentarioek sartzen gaituzte lehen bidean<sup>79</sup>:

(...). Honen ondoren Partholon-i buruz dugun testu zaharrena Nennius-en "Britainiaren Historia"-ren pasarte bat dugu, dirudienez, X. Mendean idatzitakoa berantetik ere. "Azkenik, -irakurtzen dugu bertan-, eskotak (scotts, irlandar eta eskoziar zeltak alegia) Espainiatik abiatu irlandara heldu ziren. Aurrenekoa Partholon izan zen, berarekin mila lagun zeramatzalarik, gizonezko nahiz emakumezkoak. Gero eta gehiago ugaltu zirelarik, lau mila lagun izatera iritsi ziren; gero izurrite batek jo zituen, eta aste bete barru hil ziren bakar bat ere bizirik geratu ez zelarik" (...).

Nennius-en testutik bitxikeria bat tiratzen da, alegia, engoitik hamargarren mendean Irlandar euhemerismoak mitologia zeltaren mamia eraldatu zuela. Dotrina zeltaren arabera gizakoz guztien lehen arbasoa Heriotzaren Jainkoa da, eta jainko hori itsasoz bestaldeko lurralderen batean bizi omen da; "bazterreko iriak" dira bere egoitza, eta horietatik heldu ziren zuzenean zeltak Galiara druiden irakaspenen arabera. Gizakoen arbasoa hildakoen errege bizi den lurralde mitiko honen irudi berbera aurkitzen dugu mitologia zelta nahiz greziarrean.

Halere, autoreak aipaturiko "okerra" ez du X. mendeko analizale kristauen euhemerismoak sorrarazi. Izan ere, XV. mendean oraindik, Moytura-ko gatazkaren berri eman digun esku izkribuaren autoreek argi eta garbi dioskute Dedannan senitarteak, -historia honetako benetako zelta bakarrak-, irla mitiko batzuetan bizi zirela Irlandara joatea erabaki zuten arte.

Falias, Gorias, Murias eta Findias izeneko irletan munduko iparraldeko irletan bizi ohi ziren, zientzia, aztigoa, druidismoa, sorginkeria eta jakituria ikasiz, eta... jentilak baino handiago bilakatu ziren jakituria eta arte guztietan.

Ez dago beraz okerrik edo ahanzkunerik Partholon-en senitarteen abiaburuaren deskribapenari dagokionez, zeren hauek ez baitute, -De senitarteak ez bezala-, jainko bat haien arbaso mitikotzat proposatzen. Azken buruan gertatzen dena zera da, bai jatorriaren aldetik, bai eta senaren aldetik ere, aipaturiko giza talde biok oso urrun daudela elkarrengandik. TUAN MACCAIRILL-en Irlandako inbasioen kontakizunak argiro azpimarratzen du, izan ere, bien arteko bereizkune nagusia<sup>80</sup>:

Orduan Partholon, Sera-ren semea. Irlandara bizitzera etorri zen; hogeita lau gizon zekartzan berarekin, norbere emaztearekin. Bere lagunak ez ziren benetan oso azkarrik. (...).

*Beothach, larbonel igarlearen semea, irla honetaz jabetu zen bertan zegoen jendea menperatu ondoren. Beothach eta larbonel-engandik datoz Tuatha De Dannan direlakoak, eta jainko eta sasi jainko hauengandik datoz hain zuzen irlandar jakitunak. Litekeena da, Irlandara ekarri zituen bidaiaren abiaburua Zerua izatea: Honela ulerbideratuko liriateke haien jakituria eta haien hezkuntzaren goi maila.*

Beraz, bada, zelten jatorria irla mitiko batzuetan plazaratu, eta haien lehen arbasotzat Heriotzaren Jainkoa jotzen duen teologia zelta, Irlandako lehen kolonoen deskribapenean inondik inora agertzen ez bada, hutsune hori ez da euhemerismoari edo ahanzkune bati zor zaiona. Partholon-darrak ez datoz De senitarteak abiatu diren jatorburu beretik, eta beren irudiak ez digu pentsarazten Irlandara heldu aurretik Zeruekin hartu emanik ukan zezaketetik. Eta hau guztia zergatik? Bada, indoeuropar gizarteekin zer ikusirik ez duelako inola ere.

Zelten sarrera Irlandako Historia mitologikoan, Tuatha De Dannan direlakoan heldzearekin gertatzen da, ez lehenago, eta ez dago Partholon-en herria kultura zeltaren aztarnatzat jotzera behartzen duen inolako arrazoirik, Van-ak teutonikoak ez diren eta Sabin-darrak erromatarrik ez diren hein berean. Eta areago oraindik, aurreneko kolonia honen jatorriak nahiz akaberak, indoeuropar teologiak bi puntuoi buruz dioena goitik behera gezurtatzen dute, alegia, arioen jatorri zerutarra alde batetik, eta besetik, gatazka eskatologikoari darraikion munduaren berrikuntza (Ragnarökr, Kuruksetra-ko gatazka) akaberari dagokionez.

Bereizkune sakon hauei Partholon-en tradizioaren lehentasun kronologikoa gaineratzen badiegu, argi eta garbi azaltzen zaigu azken honen zeltatzinekotasuna, nahiz eta noski, -tradizioa dagoeneko zeltaratua bilakatu den Irlandatik datorrigunez gero-, litekeena izan jatorrizko leiendak osakin arrotzak itsatsirik edukitzea. Erreserba hauek beti gogoan gorderik, ausart gaitetzen bigarren urratsa egitera, eta goazen ikusi eta ikastera zer gehiago dioskun Irlandako mitologiak Partholon-en senitarte horiei buruz.

Azken buruan, axola zaigun galdera zera da batik bat, Partholon-en senitarteok jentilak ote diren jakitea, "erraldoiak" ote diren alegia, honela izanez gero, kidetasun berri eta garrantzizko bat gaineratuko baikenieke euskal jentilen akabera eta Partholon-darrenaren artean honaino azalerazi ditugun beste hirurei, honek erabateko homogenotasuna emanen liekeelarik aipaturiko bi tradizioi.

Honetaz, zera bota dezakegu aurretik, Irlandar testuek ez dutela Partholon-darren erraldoitasuna esplizituki adierazten, baina bestalde, erraldoitasun berori ezin dutela erabat ezkutatu.

Irlandako Historia mitologiko osoa estali eta biltzen duen geruza zelta ageri agerian erakusten zaigu hemen berrero, eta berrero ere, lainoarekin gertatu denaren antzeko eragiketa dialektiko bat gertatzen da gure begien aurrean: Eragiketa honen arabera, alderdi ona eta alderdi

79) D'ARBOIS DE JUBAINVILLE. Aip. id. 25hk.

80) Ber. 50-56.orr.

txarra bereizten dira nolabait Partholon-en herriaren baitan, "erraldoiei" leporatu ohi zaizkien aspektu gaizto eta itsusi ia guztiak ezkututzen direlarik, eta Partholon-en kolonia nolabait Irlandako Historiarako "errekuperatzen" delarik, itxura nahiko baikorra emanaz. Halabaina noski, honelako makilajegintza ez da arrastorik utzi gabe burutu daitekeen lana, eta izan ere, Partholon-darren tradizioa eta "erraldioen" mitologiaren arteko interferentzia mordo baten lekuko izanen gara berehala, testuak plazaratzen hasi orduko.

Lehenengo, Partholon-dar eta erraldioen garaikidetasuna adierazten duten hiru testu azalduko ditugu, ideia hau kasu bakoitzean era berezi batean somarazten delarik. Hauetako aurrenekoa, GIRALDUS CAMBRENSIS-en "Topographia Hibernica" idazlanetik ateratakoa, Partholon-darrenak eginen duen pestearen jatorria ulertarazteko mintzatzen zaigu erraldoietat, izurrite horri buruz tradizio gehienek diotena kontraesanaz<sup>81</sup>:

*Baina erraldioen aurkako gatazka handi hartan azkenik garaipena erdietsi bazuen ere, hilkorren zoriona betirako ez denez gero, amaiera hark beraren eta bere lagun guztien hondamena ekarri zuen, hildako erraldioen gorpuetatik airea kutsatu eta izurritea zabaldu baitzen.*

Pestea Partholon-darrek akabaturiko erraldioen gorpu ustelduetatik bailetarren ulerbideratzea, argi dago saio berantiarra baino ez dela. Halere konprenigarria da honelako saioren sortzea, zeren eta peste hau jatorrian inongo ulerbiderik gabe sortua izatea kezkarri samarra ager baitakiok edonori. Dena den, honen ekarkin nagusia erraldioen agertze berorretan datza, zeren eta erraldoi hauek Partholon-darren ondoan agertzen baitzaizkigu irlakide, noiz eta nondik heldu ote diren ezein testuk argitzen ez digularik. Beren presentzia hau irlandar Historia mitikoaren hasiera berean, Partholon-darrei eragoki ohi zaien lehen kolonizatzaile tituluaren gezurtagarri garbia da, edo agian bestela, orain arte ezkutuan gorde den bi komunitateon arteko loturaren baten adierazgarria. Lotura hori adierazi nahian edo datorkigu hain zuzen DOWLING-ek argitaraturiko "Annales Hiberniae" direlakoetako honako pasarte hau<sup>82</sup>:

*Bartholeno, –Sastholeno bestela esanda–, Japhet-en familiako Nemrodo-ren leinukoa, eta beraz, Nino-ren odolkidea, bere emaztea eta bien hiru semeekin heldu zen Hibernia-ra(...). Aipatu Bartholeno honekin batera, Cham-en leinuko anitz erraldoi heldu ziren halaber, indar itzelekoak baina tentelak ordea.*

Erraldioen sarkeria berri hau Partholon-en leiendaren hesparruan, ez dator aurrekoa bezala bi komunitateon arteko borrokaren motiboa zuritu beharraren bidetik, horrelako borrokaren aztarnarik ez baitago anale hautan, ez eta izurrite hondatzailearen jatorburua finkatzeko saioren ere. "Partholon-ekin batera irlandaratzen diren

erraldioen irudi honen helburua zera da, alegia, erraldoiak garai mitikoaren hasiera hasieratik Irlandan daudela adieraztea, baina Partholon-en arrazari lehen kolonizatzaile titulua ukatu gabe, eta Partholon-darrak erraldoiak direla esan gabe. Halere, bion arteko lotura gero eta garbiago ageri da.

Partholon-dar eta erraldioen arteko hirugarren interferentzia, D'ARBOIS DE JUBAINVILLE profesoreak lehen kolonizatzailei buruz egindako ikerketa batean erakusten zaigu. Bertan, Partholon-dar eta Fomore-en arteko borrokaz mintzatzen den beste tradizio berantiarra komentatzen ari delarik, Irlandako lehen kolonizatzaileen nortasunari buruzko bariante berri bat jakinarazten digu<sup>83</sup>:

*Partholon-en askazia ezin egon,bada, atzerritarren aurkako eta elkarren arteko gerla egin gabe. Atzerritarren aurkakoan, Fomore-en kontra borrokatu ziren Mag Itha-ko gatazkan. Ez dugu arrazoirik gerla hau, leienda jatorrari itsatsiriko eranskin bat dela uste izateko. Halere, Mag Itha-ko gatazkaren arrastorik ez dago Irlandar literatura epikoaren katalogorik zaharrenean. (...).*

*Fomore-en tamaina erraldoia zen: Deabruak ziren, XII.mendeko idazle batek dioenez. XVII.mendeko beste batek dioskunez, Partholon-en arerio hauek hau baino 200 urte lehenago heldu ziren Irlandara sei itsasuntzitan, bakoitzean 50 gizonezko eta 50 emakumezko zetozelarik. Arrantzuaz eta ehizaz bizi omen ziren. Partholon gailen geratu zen haien aurka, eta Irlanda atzerriko arerioetatik libratu zuen.*

Partholon-en senitarteen historia apaintzera besterik ez datorren tradizio honek, –gero ikusiko baitugu leienda jatorrak ez duela honelako gatazkarik–, berriro ere kolokan ipintzen du Partholon-darrei emandako "lehen kolonizatzaile" titulua, bertan esaten denez, Fomore-ak, –irlandar mitologian zehar mutur batetik besteraino nonahi agertzen zaizkigun Fomore-ak–, haiek baino 200 urte lehenago helduak baitziren, omen, Irlandara. Ez gaude noski, argi eta garbi berantiarra den tradizio hau sineste-tentaldian, baina azpimarratu nahi genuke berriz ere erraldoi arraza baten sarkeria edo interferentzia kausitzen dugula Irlandako lehen historian, Partholon-en senitarteen ondoan.

Azalduko hiru testuok zera erakusten digute, analazaleen eginahalak bi tradizio ezberdin elkartzeko, hots, erraldoiak irlako lehen bizilaguntzat jotzen dituen, eta Partholon-en lehentasuna aldarrikatzen duena, baina hauek erraldoizat hartu gabe. Lana ez da benetan makala, eta hiru testuek zeinek bere bidea proposatu digute: Lehentasuna Partholon-darrei eragoki eta erraldoiak inongo argibiderik gabe bat batean agerrarazi, lehen kasuan; Partholon-darren lehentasuna gezurtatu besterik gabe, eta antzinakotasun handiena Fomore erraldoiei eragoki azkenekoan; edota Annales Hiberniae direlakoek egiten duten legez, ex-aequo-ko irtenbidea plazaratu, Partholon-dar eta erraldoiak unti berberean kokatuz, baina hori bai, bi giza talde ezberdin bailiran.

81) GIRALDUS CAMBRENSIS. "Topographia Hibernica". London 1867. / 141h.

82) T. DOWLING. (arg.). "Annales Hiberniae", Irish Archaeological Society aldizkari XXXIII. Alean, Dublin 1849.

83) D'ARBOIS DE JUBAINVILLE, aip.id. 31hk.

Zernahi dela ere, borobil edo traketsago iritzi diezaiekegun irtenbide hauek, lehen irlandarren nortasunari dagozkion bi tradizioen arteko tirabiren igergarri diren heinean interesatzen zaizkigu bakarrik. Tirabira horiek bi tradizioon jatorrizko batasunaren erakusgarritzat har baitaitezke.

Partholon-darrek, eta erraldoiak bailiran deskribaturiko Fomore-ek borrokaturiko Mag Itha-ko gatazkaren berriak, azken hauen nortasunaren arazoan murgiltzeko bidea ematen digu, eta areago, gure ikerketarako eta Irlandako Historia mitologikoan ordena ezartzeko hain premiazkoa den puntu hau erabat eta behin betiko argitzeko aukera. Orain arte, eta "Fomore" izenaren esanahietako batean oinarrituz, –"pirata" alegia–, eskandinabiar bailiran azaltzen zituzten erreferentziak nagusi izan badiugu ere, D. MACRITCHIE-REN "Giants" artikulutik ateratako ondorengo lerroetan ikusiko dugunez, "pirata" izate hori arraza honen iraintzeko erabilitako izendapen gutxiesleetako bat baino ez da, Fomore-en benetako sena arras bestelakoa baita<sup>84</sup>:

(...). *Honen antzeko arazoa dakarkigu gaelerazko "famhair" edo "fomhair" hitzak, J.F.Campbell eta Eskoziar Garaldeetako ipuinen beste itzultzaileek "erraldoi" bezala itzulitakoak. O'Reilly-k berriz, bere Irlandar Hiztegian, "pirata", itsas-lapurra, erraldoia" hitzetan definitzen du. Hitz honen irlanderazko formak, "fomhor" edo "fomor" ditugu, eta "fomori" anitzean. Sir John RHYS-en arabera, "Irlandar leiendetan hain ezagunak diren "fomori-ak" ez dira halere bertan beti erraldoi itxuraz agertzen, mamu itxuraz baizik. (...). Halere, gogoan dut duela zenbait urte "fomho-raigh"-i buruzko (beste ahoskera) aipamen bat entzuna, eta bertan haien tamainaz erabateko argibiderik ematen ez bazen ere, lurpeko zenbait tokirekin loturik azaltzen ziren. Kerry-ko Kilorglin auzoko ikasle batek nire aurrean kontatu zuenez, bere etxe inguruko zenbait "rath"-etan miatze lanetan zebilela, bere aitaren langileek "fomho-raigh"-ekin kontuz ibiltzeko abisatu zioten".*

(...); eta litekeena da leienda zaharretan izengoiti gutxiesle modura "sator gizon" arraza bati eragoki izatea, gaur egun oraindik Irlanda eta Eskoziar hain ugari diren lurpeko egoitzon eraikitzaileei eta biztanleei alegia. Zernahi dela ere, aipaturiko erreferentziok erakusten dutenez, Eskoziar eta Irlandar tradizioetan "erraldoiek" sarritan ez dute erraldoitasuna bereizgarri nagusia, pirata, itsas lapurra, harpezalea, basatia, eta usain txarrekoa izatea baino.

Fomore-en benetako nortasuna mitologiako "erraldoen" nortasun bera baino ez dela argitzen duten datuok, irlandar mitologiako Historia nahasia txukun taxutu eta sailkatzen lagunduko digute, eta orain arte axalean baizik behatu ez ditugun zenbait arazo ulerbideratu ahal izanen dituzte gainera.

Fomore-ak "erraldoi" mitologikotzat ulerbideratzeak, borobilki jotzen du lehenago beste nonbaiten azaldu ditugun hiru zerokin:

Bat, betazal jasoeraren motiboa Fomore batengan azaltzarekin, hau baita Balor-en arraza; motibo honen bi agerpenek erakutsi irudi zuten "jentila=fomore" berdinketa baieztaturik geratzen zaigu orain. Bi, irlandar tradizio bat aipatuz, Fomore-ak Fir Bolg-en jainkoak zirela MACCULLOCH-ek esandakoarekin; izan ere Fomore-ak "erraldoen" maila teologiko eta leindariari ipini behar ditugu. Eta hiru, Moytura-ko zelaiko monumentuen izenak ("Fomore-en zutarriak") adierazi digun Fomore-en lotura megalitikoarekin, lotura hau beste aldetik, euskal jentilek eta gainontzeko europar "erraldoiek" azaltzen duten lotura berbera delarik.

Fomore erraldoen etengabeko presentzia Irlandar antzinatean mutur batetik besteraino, eta hauen etorrerari buruzko aipamenik eza, –gorago plazaraturiko XVII. mendeko idazlea salbu–, zenbait gauzaren erakusgarri ditugu: Alde batetik, lehentasunaren auzian kontrario dituzten Partholon-darrekiko lotura gero eta sendoago agertzen da: Fomore-ak bertan daude aspaldirik aspaldikoenetik, baina ezein tradizio zaharrak ez du hauen etorreraren berri ematen. Beste aldetik, etengabeko bertan egote hau inbaditzaile bakoitzaren alboan garai mitikoen hasieratik Tuatha De Dannan senitarteen agerpeneraino, irlandar herri ezberdinen itxurakerien azpitik dagoen jarraitkortasunaren adierazgarria dugu. Irlandako lehen bi kolonizaketan, –Partholon eta Neimhid-enak alegia–, elkarren arteko antzak jarraitortasun honen susmoa sorrarazi badigu lehenago, honako hausnarketa honek susmo berori sendotu digu ondoren, alegia, Irlandan hiru arraza ezberdinen artean banatzen diren motibook, –herri osoaren suntsiera Partholon-darrengan, ganduzko lainoak Fir Bolg-engan, eta betazal jasoera Fomore-engan–, mito bakar batek, jentilen akaberaren mitoak hain zuzen, biltzen dituela Euskal Herrian. Beraz, Fomore-en etengabeko bertan egotea irlandar Historia mitologikoan zehar, konkistatzaile zelden aurretiko irlandar "erraldoen zibilizazio" bakar eta beraren aztarna bakarra litzateke, Historia horretan geroztik eragindako errepikapen erretorikoek erabat antzabasteratu duten zibilizazioaren aztarna bakarra.

Partholon-dar eta erraldoen batasunaren demonstrazioaren harira itzuliz, lehen konkistatzaileen nortasunari eta bizibideei buruzko zenbait ezaugarri plazaratuko ditugu orain, tabua saihestu ahal izan duten eta oharkabean lehen arraza honen benetako sena erakutsiko diguten zenbait ezaugarri. Azken aurreko testua Fomore-en ogibideei buruz mintzatu zaigu, hauek ehizaz eta arrantzuaz bizi zirela esanez. Ikus dezagun orain Leabhar Gabhala-k marrazten duen Partholon-darren irudia<sup>85</sup>:

*Itsasoa, piztiaz beterik, herri polit honen hurrean dago; itsas zerak mozten dituzte bertan ekoizpen gisa, lurrak ez baitu ez saralerik ez eta zurtoinik ere.*

"Itsas zerak" mozte zer ote den oso argi ikus ez daiteke ere, dudarik gabe eragiketa sinple eta primitibo

84) DAVID MACRITCHIE. "Giants" Hasting's Encyclopedia delakoan 191.orr.

85) H. LIZERAY, aip id. / 24 orr.

itxurakoa dugu, eta hein horretan, Fomore-en ehiza eta arrantzuari hurbil dakiekena. Partholon-en koloniak bere bizitzan erakusten dituen soiltasun eta apaltasuna erraldoi guztien bereizgarri ezagunak dira.

Testu berean zera irakur daiteke atzerago:

*Gizon zintzook hondeatu zituzten hilobiak. Haien indarraren adinakorik ez dago santuen artean ere. Gizonak makaldu zituen izurriteak, ez zen hura gozoa izan heroi ederrontzako. Gizonak, emakumeak, mutiko eta neskatok, denak hil ziren Moteir-go baso zelaian.*

Hilobien hondeaketaz ari dela testuak aipatzen digun indar itzel hori, nonahi eta noiznahi erraldoiak ezaugarritatu ohi dituen kemen fisiko berbera dugu. Aparteko indar hauek ez dira ordea horrelako ihardun makabroetan bakarrik erakusten. Beste zenbait abagunetan ere hortxe azalduko dira, baina ez borrokan aritzeko, lanari ekiteko baizik, hain zuzen ere, irlako paisajea eraldatuko duten lan latz eta bikainak burutzeko. Entzun dezagun GIRALDUS CAMBRENSIS-ek honetaz dioskuna<sup>86</sup>:

*Baina Bartholeno honen garaian aparteko ekitaldi garrantzitsu gutxi aurki daiteke. Honako hauek baino ez: Lurpetik bat batean azaleraturiko zabalera itzeleko lau aintzira; askoren izerdi ugariak zainak eta guzti erauziz soildutako lau oihan soro bihurturik. Zerenaldi hartan, esateko, lur guztia oihan ikaragarriek eta baso emankorrek estalia baitzuten, mendi bakar batzuk salbu, eta honela kasik ez zegoen goldeak lan zezakeen sororik. Izan ere, gaur egun oraindik, gutxi dira hemen soroak basoen aldean. Bada, Bartholeno, bere seme eta ilobekin, naharotasun bikaina erdiesten hasi ziren, bai lanen emaitzari, bai eta oinordekotzari dagokienez.*

Partholon-en senitarteen ohiko iharduna ez dugu bezaz gerra, erlijio publikoa, sail politiko eta administratiboen eraketa edota subiranotasunaren oinarrien sendotze lana. "Pauca reperimus insignia" dio jatorrizko latinezko testuak aparteko gauzarik ez zutela burutu adierazi nahian. Hauen iharduna lan eta lan aritzea da besterik gabe: Beren indar itzelez etenaldi edo atsedenik gabe lanari ekitea irlako baso trinkoak soildu, beraiek eta beren ondorengoek landuko dituzten soroak agerrarazteko, noski, "non sine magno multorum sudore" berriro ere jatorrizko latinezko testuko hitz ulergarriak erabiliz.

Partholon-en arrazaren bereizgarri den lanerako gogo hau, elkartasunean eta izerdiaz lotsatu gabe egindako lana hain zuzen, Euskal Mitologia Konparatuan euskal jentilen ezaugarritzat jo dugun lanerako gogo berbera dugu: Azken hauek ere, latz egiten dute lan elkartasunean elizak eraikiz, eta orokorki herriak jentilen obratzat jotzen dituen eraikuntza guztietan.

Partholon-darrak ekoizpenari eta ez gerrari zuzenduriko lan fisiko<sup>87</sup> itzelon burutzaile bezala marratzen dizkigun ezaugarritapen hau aski da haiek eta jentilak gauza bera direla erabat baieztatzeko. Partholon-darren ekarkin historiko bakarra osatzen duten lan hauen berri Leinstergo Liburuan, Annales Hiberniae direlakoetan, eta Inbasioen Liburuan aurkitzen dugu halaber.

Partholon-en arrazaren identifikazioa ondorengo bi datuetaz burutzen da. Hauetako aurrenekoa erraldoien nortasunaren ezaugarri bati dagokio, agian hauen iraintzeko maizen erabili ohi den ezaugarriari hain zuzen: Ergelkeria dugu bereizgarri hau. Izan ere, Annales Hiberniae-etako pasarte hau<sup>88</sup>,

*Aipatu Bartholeno honekin batera, Cham-en leinuko anitz erraldoi heldu ziren halaber, indar itzelekoak baina tentelak ordea.*

TUAN MACCAIRILL-en kontakizunetik ateratako beste honekin alderatuz gero<sup>89</sup>,

*Orduan Partholon, Sera-ren semea. Irlandara bizitzera etorri zen; hogeita lau gizon zekartzan berarekin, norbere emaztearekin. Bere lagunak ez ziren benetan oso azkarrak.*

Zera somatzen dugu, alegia, ergelkeria bera dugula kasu batean Partholon-en koloniarekin batera datozen erraldoiaren, eta bestean Partholon-dar berena.

Bigarren datua, Partholon-en arraza erraldoi arraza zela aitortzen duen testu bakarra dugu, –oharkabeko aitortpena bada ere–. Annales Hiberniae direlakoek honako hau diote, akaberatik libratu omen zen Partholon-dar bakarraz mintzatzen den tradizio paralelo zabaldu bat komentatuz<sup>90</sup>:

*Ruano erraldoia harpe batean gorde zen izurritearen garaian, eta Patrizio donearen etorrera arteraino bertan bizitu omen zen 2.400 urtez, hari dena kontatu eta hark bataiatu omen zuen.*

87) D'ARBOIS-ek, lan itzel hauek erraldoien nortasuna eta mezu ideologikoarekin duten bateratasuna ulertzen ez duelarik, honako hipotesi hau porposatzen du testuak aipatzen dituen baso soiltzaileak ulertzeko, alegia, tradizio jatorraren antzabesteraketa direla, eta tradizio jator horretan soilketa horiek lanik gabe eta mirari harrigarri baten bidez burutuko ziratekeela. Agian aintziren ageriratzean du gogo hori esaterakoan, ageriratze hauek harrigarrikoak baitira autore gehienen arabera. Dena den, nolabaiteko antzabesteratzerik izan bada, D'ARBOIS-ek nahi duenaren alderantzizkoa izan behar da hain zuzen, alegia, garai bateko lanak autoreen ikusgunetik apalegia gertatzen direla eta, agian mirari bihurtu dituztelako. Leinster-go Liburuan agertzen den tradizio baten arabera, aintzirotako batek Partholon-darrak hobiak hondeatzen ari zirela sorraz zuten ur jarioan ukan zuen hasiera. Tradizio honek bertsio zaharrago batean aintziren sorrera Partholon-darren hondeatze lanaren emaitza izan litekeela susmarazten digu. Dena den, erraldoien mentalitatean, lana egitetik libra dezakeen miraririk ez dagoela, batere zalan-tzarik gabe baiets daiteke.

88) Annales Hiberniae / 1.orr.

89) D'ARBOIS, aip. id. 50 orr.

90) Annales Hiberniae / 1.orr.

86) GIRALDUS CAMBRENSIS, aip. id. 141.orr.

Beraz, bizirik dirauen Partholon-dar bakarra Ruanus erraldoia dela kontuan harturik, Partholon-en kolonia osoaren erraldoitasunaz ezingo dugu zalantza gehiago ukan.

Betazal jasoera, laino erasokorra eta laino irakurlearen ondoren, "erraldoi" edo jentil arraza oso baten suntsikera Euskal Herriak eta Irlandak batera erakusten dituzten laugarren motiboa dugu. Eta mitokidetasun honen zeltaitzinekotasuna bi bideetatik frogatzen zaigu berriro: Alde batetik, Partholon-en koloniaren berri ematen digun irlandar Historiaren kronologiak zera zehazten du, hots, kultura zelta Tuatha De Dannan direlakoekin hasten dela; eta bestalde, ageri agerian utzi dugunez, Partholon-en senitarteen jatorria, iharduna eta akabera, ezin dira eskema zelta edo indoeuroparretan sartu, eta gainera, ihardunari dagokionez bereziki, hau, euskal mitologiako jentilen ihardunaren ezaugarriak agertzen zaigu.

Eta ikusgune orokor batetik, laugarren motibo honen idoroketak areago sendotzen du atal honen hasierako balantzean kideetasun honen jatorburuaz azaldutako ustea, dagoeneko nahiko argi bazegoen ere: Lau motiboko euskal alderditik ulerbideratu behar dira derrigor, laurak jentilen akaberaren mitoan biltzen baitira egitura koherente eta adierazkorra osatuz, Irlandan elkarren arteko loturarik gabe eta sarritan gaizki ulerturik kausitu ditugun bitartean: Balor-en betazala Moytura-n, errainu erailea aske uzten duen ezkutua bailitzan ulerbideraturik; oker konprenituriko zenbait laino, –sarraskizko lainoaren metaforan izan ezik–, untzi kiskalietako keak sorrarazitakotzat joak Fir Bolg-en artean, eta druiden aztigoaren ekinbidea bailiran erakutsiak Munster-en; mota guztietako igarpenak egiten dituzten zenbait laino irakurle eredu etenak; eta azkenik, Partholon-en koloniaren suntsikera hau, Irlandako mitologiako Historiaren hastapenean.

Lau bateragune hauek euskaldunen zeltengandiko mailegu batez ulerbideratzeko saioa ezinezko lana bilakatu dela esan daiteke, eta alderantzizkoa aldiz, –irlandar ereduok zeltaitzineko mito baten hondakintzat jotzen dituen hipotesia alegia–, gero eta sendoago oinarriturik agertzen da.

Partholon-darren akaberak, erraldioen bat bateko eta erabateko suntsikeraren gaiak duen lotura megalitiko baiezatzeko balio digu halaber. Gogora dezagun lotura hau jentilen akaberaren lau bertsiotan aurkitu dugula agerian, eta leiendaren mami berak zeraren susmoa sorrarazi digula, alegia, gainontzeko bertsio guztiek ere ukan behar zutela halakorik garai batean, nahiz eta gero bidean galdu. Partholon-darren akaberaz mintzatzen diren "Four Masters" analetako pasarteei buruz Irlandako 1851 urteko erroldan egiten diren komentarioek, suntsikera horren oroikarri diren eraikuntzak ikusarazi dizkigute dagoeneko. Orain berriz, Cormac's Glossary delakoak, –D'ARBOIS DE JUBAINVILLE-k komentaturik<sup>91</sup>–, horien hondeatzearen berri ematen digu:

91) D'ARBOIS, aip. id. 36 orr.

*Cormac-en Glosarioaren arabera (Partholon-darrek) zelai horretan biltzeko ideia zuhurra ukan zuten, honela hildakoak hil hala lurperatzen baitzituzten bizirik ziraute-nek.*

Leabhar Gabhala-k ere beste horrenbeste egiten du<sup>92</sup>:

*Gizon zintzook hondeatu zituzten hilobiak. Haien indarraren adinakorik ez dago santuen artean ere.*

Partholon-darrak beren hilobiak hondeatuz erakusten dizkiguten bi pasarte hauek, eta jentilak berriz engoitik eraikita bertan dagoen trikuharrian barrera sartzen aurkezten dizkiguten lau euskal bertsioen arteko ezberdintasunak ez du garrantzia handirik, eta ezin dio, dena den, euskal eta irlandar tradiziook zeinek bere aldetik darakusten lotura megalitikoari dagokionez azaltzen duten bateratasunari itzal egin.

Partholon-darren akaberaren azterketak ahalbideratzen dituen baieztapenen artean, –dagoeneko ia alferrekoak diren baina halere azpimarratu nahi genituzkeenak–, honako hau aurkitzen dugu, alegia, jentilen akabera Moytura-ko edo beste zeinahi gatazkatik eratorritakotzat jotzeko saioaren ezinezkotasuna. Jentilen akabera ez da, gatazka eta arerio ahantzi batzuek eraginiko ondorioa. Partholon-en senitarteen akaberak, beste gizon edo armarik tartean ibili gabe, aidekoa, naturagainekoa eta zuritugabea<sup>93</sup> den bat bateko suntsikera orokorraren motiboaren jatorria frogatzen digu. (Testuek izurritea aipatzen badute ere, argi dago izurrite mitikoa dela, –eta aidekoa beraz–, esku artean darabilkiguna). Hein honetan, Partholon-darren akaberak, lehenago jentilenak plazaratu dituen enigma berberak plazaratzen ditu akabera honen jatorburuari eta bertatik atera behar ditugun ondorio eta esanahiei dagokienez.

Idoroturiko bateraguneen jatorburuaz azaldu ahal izan ditugun baieztapenez beste, atal honen ekarkinik garrantzitsuena zalantzarik gabe, irlandar Historia mitologikoaren baitan egindako argitasuna dugu. Bertan barreiatu aurkitzen ditugun lau motiboen parekoak biltzen dituen jentilen akaberaren mitoak, inbasio hurrenkera moduko egiturak ezkutaturik daukan zeltaitzineko irlandar iraganaldiaren funtsezko batasuna argitu eta ikusarazten digu, bide batez, beti bertan egon arren, noiz eta nondik heldu ote diren sekula esaten ez zaigun Fomore-en jatorria agerian ipiniz halaber. Zenbait testuen ahaleginek Fomore-ak atzerritar bailiran erakusteko, eta Moytura-ko kasuak batik bat, ezin dute beren helburu ideologikoa ezkutuan gorde. Izan ere, Fomore-ak irlandarrak ez direla sinestarazi nahi ditugun erreferentzien ondoan, eta hauei kontrajarriz, zera topatzen dugu, alegia, ipar irletatik abiatuak Irlandara heldu berri

92) H. LIZERAY, aip. id. / 24 orr.

93) Tradizio berantiar batek zera dio, Partholon-ek, Irlandaratu arretetik, aita eta ama ero omen zituela, eta hain ogen izugarriak, fundatzailearen heriotzaren ondorengo kolonia osoaren suntsipena eskatzen zuela, Halere, tradizio hau ez da betere jatorria, suntsikera ulergaitz eta bidegabe hau ulergarri egiteko saioa baino ez baita.

diren eta bertako Bolg gizonak menderatu berri dituzten Tuatha De Dannan senitarteek "Irlandako gizonak" hitzez izendatzen dituztela beren buruak. Egoera hau, indoeuropar gizarteek sarritan erabilitako ariera baten ondorio ezaguna baino ez da. Ariera beronen emaitza dugu, esate baterako, Buffalo Bill "amerikarra" izatea, Zezen Jezarria "indioa" bilakatzen den bitartean. Euskal Mitologia Konparatuan azpimarratzen denez, Fomore-ak eskandinabiarrak piratak bailiran ulerbideratzeko saioa, Bress Fomorea-ren aitopenarekin kontraesanean dago, nekazaritzaren sekretuak jakinarazten dituen aitopen honek, arraza honen bertakotasuna adierazten baitu, hauxe baita kasu honetan, gainontzeko indoeuropar bertsioetan konkistatzaile eta bertakoak gizarte berri batean elkartzen dituen itunaren ordezkari agertzen zaigun metafora. Fomore-en oroikarri diren eraikuntza megalitikoak, eta folklorea ageri den haien lurpeko egoitzekiko lotura, arraza honen bertakotasunaren beste bi baieztagarri ditugu, eta arraza hau Irlandara heldu zeneko tradizioz ez egotea, gero eta nekezago uler daiteke.

Jentilen akaberak bat bateko suntsikeraren motiboa, –Irlandan Partholon-darren akaberan–, eta betazal jasoeraren motiboa, –Irlandan Balor Fomore-arengan Moytura-ko gatazkan–, biltzen dituelarik, irlandar historiako mi mutur hauen batasuna jartzen du agerian, eta erraldioen mitologiaren baitan eragindako bikoiztapen dialektikoa azaleratzen du bide batez, Fomore-en benetakotasuna finkatzea eta hauen jatorburua argitzea ahalbideratuz: Partholon-darrak eta Fomore-ak errealtate bakar baten bi ikuspegi baizik ez dira: Aurrenekoak erraldioen irudigarri ditugu, erraldioen zibilizazio beraren ikusguneak deskribaturik, eta hauen irudia, euskal mitologiak jentilei buruz erakusten digunaren parekoa da, nortasun baikorrez horniturik agertzen baitzaizkigu eskuarki Partholon-darrak, edo nortasun ez ezkorrez gutxiarik, haien adimen eskasari buruzko zenbait komentario bakan une batez ahazten badugu. Bigarrenak aldiz, konkistatzaileen ikuspegitik marraturiko erraldioak ditugu: Eraso eta menderatu beharko etsaiak dira batik bat, "Irlandako gizonen" begietan. Eta honen ondoren, Fomore-ak, erraldioak alegia, mota guztietako ezaugarritapen iraingarriak jasan behar dituzte, beren izakide germaniar eta eskandinabiarrak bezalaxe: Basakeria, kani-balismoa, usain zikina, ergelkeria eta mamuantza, hona folklorea aurki daitezkeen loreetariko zenbait<sup>94</sup>. Partholon-dar erraldioen akaberaren kontakizuna Irlandako ondare historikoan gordetzeko erabakiak bereizketa artifizial bat eragitera behartzen du, alde batetik lehen kolonizatzaileak, eta bestetik, –konkistatzaile zelten mintzabideak eraginik–, etsai nagusi bilakatu diren Fomore erraldioak bi arraza ezberdin bailiran plazaratuz, eta bereizketa honek berriz, bat baizik ez diren biotako baten jatorria ulerbideratu gabe uztera behartzen du, gazurrezko hautapen baten bi aukeren artean (Partholon-darrak

ala Fomore-ak lehen kolonizatzaile?) somatu eta azpimarratu dugun tentsioa sorraraziz.

Azken inkesta hau buruturik, irlandar lotura baieztaturik, eta jentilen akaberaren antzeko mito bat zeltaitzineko Irlandan garai batean izanaren hipotesiak, –honen hondakinak lirateke han hemenka irlandar "Historian" zehar barreiatu aurkitu ditugun motiboak–, gero eta egiantzekoago ematen duelarik, bide bakarra geratzen zaigu urratzeke ikerlan osoa burutzeko, igarlearen oparigintzako amilerarena hain zuzen, eta lehenago ere esan dugunez, ez dago bertan itxaropen handiegirik jarri beharrik, batez ere honako bi arrazoioek direla medio: Lehena, motiboaren originaltasun eskasa; izan ere, orain arte ikerturiko motibo bitxi eta imajinagaitzek ez bezala, –urkuz jasotako betazal zintzilakaria, mehatxu bat bailitza ikusten den eta jendearen gainera oldartzen den laino txiki bat, lainoaren irakurketan oinarrituriko igarkera eta gizarte baten bat bateko eta erabateko suntsikera bertan gatazka edo armarik agertzen ez delarik–, amilerazko opari-hilketa, arrunt samarra dugu, zeren oparizko erokeren espektroa egia esan, keinu magikoena edota igarke-rena baino askoz mugatuagoa baita: Sua, ezpata, lantza, haizkora, soka, itoketa, piztiak, ehorzketa, amilera, burduntzia, gurutzaketa eta zatiketa aipatzearekin, imajina daitezkeen ia bide guztiak plazaratu baititugu, eta mugatutasun honen ondorioz, hauetako bakoitza nonahi aurki daiteke, elkarren artean inongo loturarik ez duten gizarte eta zibilizazioetan. Beraz, erokera hauen eragin hesparruen banaketak eskainiko lukeen irudiak ez luke inolako mamizko adierazkortasunik.

Bigarren arrazoia zera da, oparia lainoari zuzendurikoa dela badakigula, baina ez ordea lainoaren esanahia zein den. Izan ere, aipatu berri dugun aurreneko arrazoiak plazaratzen duen arazoa, –alegia, oparizko erokeren mugatutasunak orokorregia bihurtzen duela amilera ikergai bezala probetxuz aztertu eta konklusioak ateratzeko–, modu bakar batean gaindi daiteke, hots, eredu ugari horien artean baheketa lana egin dezakeen bigarren aldagai bat sarraraziz: Erritoko amilera bat arruntegia da, aztertzeak merezi izateko, baina zehatz mehatz laino bati, –edo lainoak irudiratzen duenari–, zuzenduriko amilketa, agian ikergaitzat har daiteke. Laino bati loturiko amileraren bilaketak ez du arrakastarik ukan, gogor aha-legindu bagara ere, eta lainoak bere gaiztokeriaren sekretuari gogor eusten dionez, azken ikerbide hau hasi orduko itxi zaigula esan liteke. Gure inkesta eta ikerlanen amaiburu gisa, azken balantzea egiteko tenorea heldu da, bada.

Halabaina, Partholon-en senitarteen akaberaren kontakizunak, –eta zehazkiago, bertan akaberaren eragile azaltzen zaigun akaberaren motiboak–, ikerbide berri eta naroak zabaltzearekin daude gainerakoak itxi edo higatu zaizkigun une berean. Bide naroa eta irakaskizunetan ugaria benetan, orain arte imajinatu ere egin ez ditugun ikuspegi berri eta idorokunde harrigarrietara eramango gaituena, aurkikunde zaharrak baieztatuz orobat: Izurrite lainoaren motiboa dugu bide miresgarri hau.

94) DAVID MACRITCHIE. "Giants" Hasting's Encyclopedia delakoan 190.orr.

## IX. IZURRITE LAINOA

Partholon-en herriaren suntsikeraren kontakizuna azaldu eta aztertu ondoren, jentilen akaberaren kontakizunari hurbiltzea erdietsi dugu, honako bateragune hauetan oinarrituz: Lehena, partholon-dar eta jentilen arteko berberatasuna bi taldeon jokabide eta nortasunari dagokienez, denak "erraldoiak" baitira, erraldoien bereizgarri ezagun berberak dituztelarik, hots, aparteko sasoia, lanerako gogo nabarmena, eta garai mitikoen hasiera hasieran agertzea; bigarrena, bi tradizioon adostasuna akaberaren bat batekotasuna, erabatekotasuna eta arrazoi-kabetasunari dagokienez, suntsikeraren bitxitasun eta arrarotasunak adostasun hau are eta adierazkorragoa bihurtzen dutelarik; eta hirugarrena azkenik, bi tradiziook plazaraturiko historiaurreko hilarriekiko lotura.

Argi dago bateragune hauek aski direla bi tradizioon arteko loturaren izana baieztatzeko, baina ezin izanen dugu ahanzi haatik, bien arteko alderaketak bereizkune garrantzitsu bat ere ipini digula agerian, suntsikeraren eragileari dagokiona hain zuzen ere. Jentilen akabera ganduzko laino edo laino argidun harrigarri batek iragartzen/eragiten du, eta Irlandan berriz izurrite bat aurkitu dugu, -izurrite mitikoa baina izurrite azken buruan-, ikerketan zehar orain arte ulerbideratu nahian alferrik ibili garen laino enigmatiko beldurgarri horren ordean.

Zalantzarik gabe orotan garrantzitsuena den bereizkune honek ordea, dossierraren ateak zabaltzen dizkio datu berri bati, gure lanerako bidea zabaldu dion bereizkune beraren ezabaketa ekar lezakeen datu bati: Izurrite lainoaren motiboari, alegia.

BARANDIARANEK jasotako albiste baten arabera, laino bat izan zen, XIX. mendearen hondarrean kolera izurritea Euskal Herrira ekarri zuena. Berri honen transkripzio zuzenik ez dator DONJOXEMIELEK argitaraturiko lanetan, baina mintzatzen zaigu horretaz ordea bere "Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca" hiztegioko hiru artikulutan<sup>95</sup>:

*AIDE: "Aide", berez uler ez daitezkeen gaitz guztien erantzulea da.(...).Kolera bera ere, -joan den mendeko erdialdekoa-, "aidek" ekarri zuen behe laino koxkor baten itxurapean agertu zelarik, Zerain eta Zegaman esaten dutenez.*

*LAÑAIDE, "niebla": Duela mende erdi pasatxoko kolerearen jenioa lañaide baten itxurapean agertu zen Seguran.*

*LAUSO, "bruma", "neblina". Gipuzkoako goiherriko zenbait lekutan lausoak "aide" gaiztoa daramala uste da.(...). "Aidek" zitu uzdatan, patata eta belarretan gaitza sortzen du, eta joan den mendeko erdialdera hainbat heriotza eragin zuen kolera ekarri zuen. Nire Zeraingo albiste emaileak zioenez, lauso bat pasa omen zen Segurako kaleen gainetik, eta hurrengo egunean inguruetako jendea hiltzen hasi omen zen izurriteak jota.*

"Koleraren jenioa" esakera eta "aide" gizarapen bat baillitza erakutsi nahi diguten gainontzeko esaldiak alde batera utzirik, -horiek BARANDIARANEN elaborazioak baino

ez baitira-, eta "aide" edo "aideko" hori, "berezkoari" kontrajartzen zaion naturagainekoa den guztia hartzen duen kategoriaren izentzat jotzen badugu, -horixe baita bere benetako esanahia-, aurreko albisteek eskaintzen diguten irudi jator soila geratzen zaigu: Lauso edo ganduzko laino bat Segurako kaleen gainetik behe samar iragan ondoren, jendea erruz hiltzen hasi zen biharamunean.

Izurrite lainoaren irudiragarri honek, jentilen laino harrigarria eta Partholon-darrak akabatzen dituen izurritearen artean huts egiten zigun lotura luza diezaguke, honela, bi tradizioon arteko bereizkune nagusia ezabatuz, batzuen lainoa eta besteen izurritea gauza bera izanen bailirateke azken buruan.

Segurako lainoa kolera ekarlea izateak eta irlandar izurritea aldiz peste bat izateak ez du benetako bereizkune bat adierazten, bien arteko ezberdintasuna medikuntza zientziaren bidetik baitatorkio folkloerari, eta beraz zehaztapen horiek huskeriazkoak ditugu ahozko literaturari arrotzak zaizkion heinean. Izan ere, lainoa giza talde handi baten heriotza dakarren izurritearen irudiragarria da, eta bost axola pestea, kolera, tifusa edo sukar horia ote den. Honetaz ari garela, azpimarra dezagun Partholon-dar herriaren akabera dakarren eragilea izendatzeko erabiltzen den irlandarazko "tamh" hitzak, izurritea adierazten duela hein zabal batean, zenbait autorek "pestea" esan nahiko bailuen itzuli badute ere. Izurrite mota guztien artean pesteak ukan ohi duen nagusigoak, izen hori behar baino zentzu zabalago eta orokorragoan erabili ohi izatera eraman du. Beraz, pestea eta koleraren arteko alde ez dugu aintzat hartuko gure ikerketa honetan, bertan, "izurrite" kontzeptuari lotuko baikatzaizkiko bakar bakarrik datuak erkatzerakoan.

Segurako kolera eta "tamh" irlandarra homogenotzat har baditzakegu ere, oraindik erkatetaren beste alderdia geratzen zaigu azterkizun halere, hots, jentilen akabera-ko lainoak eta aurkitu berri dugun izurrite laino hau parekatzeko saioa.

Bakoitzaren deskribapenari dagokionez, lainoa igergarri harrigarri bezala gorde duten sei bertsioetatik batek bakarrik erakusten digu Segurako izurritearenak duen itxura berbera. Oihartzunen "laino polit bat" dugu, "laino harrigarri bat" Zaldibin, "aurreneko lainoa" Seguran, "laino argidun bat" BARANDIARAN bertsioan, "laino ttiki bat" Zerainen, eta "laino marismea" Orozkoko Olarten. Azken hau dugu deskribapenaren aldetik izurrite lainoaren pare pareko den bakarra, eta izan ere, DONJOXEMIELEK berak hitz berberok erabili zituen izurrite lainoa deskribatzeko: "Laino marismea", Olarteko jentilen akabera eragiten duen irudiragarri berbera. "Laino marismea", alegia, -BARANDIARANEN hitzetan-, lausoa baino finagoa den ganduzko lainoa.

Jentilen akaberaren bertsioen lehen azterketa une batez gogoratzen badugu, zera esaten genuen bertan, lainoa zela akaberaren igergarri jatorra, eta zenbaitetan izarrak ordezkaturata edota "lehen lainoaz" arrazionalizatuta suertatzen bazen zeragatik zela, alegia, haren benetako

95) JMB. I, "AIDE", "LAÑAIDE", "LAUSO".



esanahia argi lezaketen testuinguru gakoak bidean galdu zirela eta, nola edo hala ulerbideratu beharra zegoelako. Orain berriz argudio bera, lainoen ondoan aurkitzen ditugun izenlagun guztiei heda dakieke; honela, zenbait lainoren ezaugarri diren edertasuna, harrigarritasuna eta argiduntasuna, "lehen lainoarena" bezalako asmakeriak lirakeke, hots, laino txiki bat bezain irudi apal eta arruntak ukan dezakeen apartekotasuna ulergarri egiteko saio hutsak. Apala eta arrunta noski, beldurgarri egiten zuen testuinguru gakoak huts egiten duelako leienda kontatzen deneko egungo testuinguruan.

Arrazoibide beronetan barrena, apainkeria joko horretan sartu ez diren irudiragarriak, gure begien aurrean apalen eta soilen agertzen zaizkigunak alegia, horiek lirakeke hain zuzen jatorrenak, benetako lainoaren hurbileak. Hots, Zeraingo "laino ttikia", eta Olarteko "laino marisnea", hain zuzen ere, Segurako izurrite lainotik hurbilen daudenak.

Deskribapenok elkarrekin ongi ematen badute, izurrite lainoak irtenbide bikaina zabaltzen dio jentilen akaberako lainoan sarritan somatu eta azpimarratu dugun anbiguotasunari. Izan ere, jentilen lainoen funtzioa iragarlea da zenbaitetan, besterik gabe (Oihartzun, Segura, Zerain), xederatzaile hutsa kasu batean (Zaldibi), eta bi-koitza, iragarle eta xederatzaile beste kasu bakarrean (BARANDIARAN). Jentilen akabera iragartzen/xederatzen duen lainoa izurrite lainoa baldin bada, orduan kito anbiguotasun eta zalanzkuneak, zeren azken honi buruz dakigunez, jendearen bistan agertu orduko heriotzaren hasia zabaltzen hasia dago, izurritea bere barnean daramalarik, ordu gutxiren buruan inguru osoa kutsatzen duelako, edota izurritea lainoari jarraiki datorrelako hark erakarririk edo. Dena den, bi lainoon berberatasuna onartzen bada, jentilen akaberako lainoa ez litzateke inoiz iragarle hutsa izanzen, beti jentilen heriotza zuzenean eragiten duen irudiragarria bailitzateke.

Jentilen lainoa izurrite lainotzat ulerbideratzen badugu, honako bi arazo hauek konpondu ahal izanzen ditugu: Alde batetik, jentilen suntsikeraren bereizgarri bitxiak ulergarri bilakatzen dira eta bestetik, lainoaren mehatxua eta jentilek haren aurrean erakusten duten beldurra argitzen dizkigu. Aurrenekoari dagokionez, izan ere, izurritearena ulerbide bikaina da, herri oso baten bat bateko eta erabateko suntsikerak plazaratzen duen enigma bideratzeko. Munduan bakarrik bizi denez areriorik ez duen herri baten suntsikera irudiratzeko, gaitza edo berezko katastrofeen bidea baizik ez da geratzen gerra edo borroka ezean, –eta izan ere ez dago borroka eredurik erraldioen mitologian–, eta badirudi gaitza izan dela euskal mitoak jentilen akaberaren eragiletzat hautatu duena.

Bigarrenari bagagozkio, izurrite lainoak jentilek lainoaren aurrean hasiera hasieratik erakusten duten beldurra ulertzeko gakoak luzatzen digu. Jatorrizko beldur sentipen hau, –zenbaitetan harridura bihurturik eta gehiengotan "lehen lainoaren" aitzakiaz ulerbideraturik–, arras logiko eta konprenigarria bilakatzen da jentilek beren buruen gainean ikusten dutena izurrite lainoa dela hausnartzen badugu.

Ulerbideraketa honek gainera, ahalezkoa egiten digu jentil igarlearen iharduaren funtzioa zehaztea, orain arte azaldu ez dugun kontraesan larri samar bat bideratuz orobat. Izan ere, "lehen lainoaren" ulerbideraketa a posteriori moldatutako arrazionalizaketa somatzen dugun eta beraz baliogabetzat jotzen dugun une beretik, honako bainazko hau datorkigu berehala gogora: Jentilek hasiera hasieratik somatzen badute lainoaren mehatxua, zein da orduan igarlearen zeregina? Ezin du izan noski lainoaren esanahia argitzea, gainerako jentilek bai baitakite dagoeneko mehatxu bat dela, eta logikoki zergatik den mehatxu jakin behar dute nahitaez, "lehen lainoaren" argumentua faltsua denez gero. Igarlearen esku hartzea ez dago beraz jentilei lainoa haien kaltetan datorren mehatxua dela jakinaraztera zuzendurik, –hori orok uler-tu baitute engoitik–, baizik eta bere igarle abileziari esker une berean hasten den katastrofearen neurri izugarria zenbaterainokoa eta norainokoa den zehaztera: Guzti guztien heriotza. Zehaztapen honek bateragarri egiten ditu, alde batetik jentil guztiek lainoaren mehatxua ulertu izana, eta bestetik igarleak lainoaren esanahia zehaztea.

Gorago esan dugunez, jentilen akaberako lainoa izurrite lainoa baldin bada, bere agertze soilak akaberako bidea martxan jarri dela adierazten du. Segurako kolerari buruzko albisteak dioskunez, aski da lainoa instant batez kaleen gainetik iragotzea, inguru osoa bertan kutsatzeko. Honek noski alferreko bihurtzen du beste edozein elementu osagarriren presentzia ondoren datorren masakrea ulerbideratzeko. Bada, lainoaren agerpen hutsa jentilen akabera ulertarazteko aski dela adierazten digun kutsatze teknika honek mitoaren bi bertsio berriro astiro aztertzea behartzen gaitu, –Zaldibi eta BARANDIARAN izenekoak hain zuen–, bertako lainoak ez baitira jentilen buruaren gainean azaltzearekin konformatzen, agertu ondoren, haiengana oldartu eta trikuharriaren azpira sartu arte jarraitzen zaizkielarik. Eusten ari gatzazkion "jentilen lainoa=izurrite lainoa" berdinketaren bidegabekeriaren froga bat ote da hau?

Jentilengana oldartu eta hilobiraino jarraitzen zaien lainoaren irudiragarriak arrazoi sendoak ditu bere alde irudiragarri jatortzat joa izateko. Alde batetik, gure begien aurrean batere zentzurik ez duelako, eta bestetik, jentilen akabera bere gordintasunean arraza honen bat bateko eta erabateko suntsikera bezala inongo gozagarririk edo leungarrikerik gabe adierazten zaigun bi bertsioetan datorrelako hain zuzen ere.

Une batez bertan arrazionalizaketa bat ikusteko tentaldia ukan genezake zera hausnartuz, alegia, lainoaren agerpen soilak egungo testuinguruan bere beldurgarritasuna adieraz ez dezakeenez gero, bere jentilengana oldartzea asmatu dela entzulegoaren eta kontalari beraren begietan izugarriago bilaka dadin. Baina Munster-go druidek sorrarazitako lainoen irudiek, –Cormac-en soldadu eta druiden gainera oldartuz–, ezinezko bihurtzen dute honelako hipotesiari eustea.

Irlandar lotura honek areago indartzen ditu giza talde batera buruz oldartzen den lainoaren irudiragarri honen jatortasun eta benetakotasuna. Gatozen bada atzera galderetara: Bi laino mota ezberdinen aurrean gaudela esan

nahiko ote du honek, eta ondorioz, izurrite lainoak ez duela jentilen akaberako lainoak ulerbideratzeko balio?

Ez dugu uste benetan horrenbeste esatea arrazoizkoa denik.

Lehenik lehen, izurrite lainoaren hipotesiak luzatu dugu bateragune eta erantzun asegarrien mordoia ez dago hain erraz ahazterik: Berdintasun azpimarragarria, –eta areago berberatasun osoa kasu batean–, bi laino moten deskribapenen artean, hau are adierazkor eta mamitsuago bilakatzen delarik irudiragarri honen arrarotasun larria kontuan hartuz gero. Jentilen lainoaren mehatxurako ulerbidea, azkenik ere!, bere anbiguotasunaren eta funtzio bikoitzaren, –iragarle eta eragile–, argitzea. Bat bateko eta erabateko suntsikera ulertzeko bidea. Lainoaren mehatxuaren hasiera hasierako sentipena eta igarlearen ihardunaren bateragarritasuna. Lainoaren agerpenak eraginiko jentilen akabera, eta izurriteak buruturiko Partholon-darren akaberaren arteko lotura.

Eta honen ondoren zera hausnar dezakegu gainera, alegia, laino oldarkariaren irudiaren jatortasunak ez duela derrigor esan nahi laino ginkariarena hura bezain jatorra ez izatea, izan ere, laino oldarkaria jentilen akabera gorrien eta gordinen adierazten zaigun bi bertsioetan agertzeak, garai batean irudi honen parekorik mitoaren gainerako bertsio guztietan izan zela susmatzera eraman gaitzake, eta beraz, gure leiendako lainoa oldarkari den heinean baizik ez dela mehatxari esatera. Bi laino mota edo hobe esanik laino bakar eta beraren bi jokaera edo bi funtzio ezberdin definituko lituzkeen hipotesi honek, baliorik gabe utziko luke izurrite lainoaren bidea jentilen lainoa argitzeko, hura ez baita inoren gainean oldartzen, eta honen esanahiaren inguruko misterioa plazaratuko luke berriro. Halabaina izurrite lainoak dagoeneko eskainitako argibideak sendoegi dira hain erraz alde batera baztertzeko, eta areago, irlandar datuek azken uste hau bertan behera botako duen argibide bat dakarkigute: Izan ere, *"sarraskizko lainoa"*, –oldartzen ez den, baizik eta gainean dabilen lainoa *"zuen buruen gainetik lautadan"* hain zuzen–, bi laino oldarkariekin batera Drum Damhghaire-ko hesialdiaren testuan agertzeak, irudiragarri hauen buru asetasuna frogatu eta honen ondoan beti laino oldarkaria agertuko denik ez dagoela uste ukan beharrik erakusten digu. Laino ginkaria baino erakusten ez diguten jentilen akaberaren bertsioak, laino oldarkariak esku hartzen dueneko bertsioak bezain jatorrak dira, eta ez dago arrazoirik beraz, azken honen aurritzana uste ukateko mitoaren bertsio guztietan. Laino ginkaria eta laino oldarkaria, irudiragarri bakar eta beraren bi alderdi osagarri baina independente eta buru aseak izanen lirarteke, eta biontzako balioa luke beraz izurrite lainoaren ulerbidea. Lainoaren oldarketa azken buruan kutsabide azkarrago eta bortitzago bat baizik ez litzateke, gaitzak hurbilgotik joko bailuen. Heinean, hipotesi honi ezar dakiokkeen oztopo bakarra zera da, ezagutzen dugun izurrite laino eredu bakarra ez dela herriaren gainera gainbehera oldartzen, baina gainerakoaz, izurrite lainoaren ulerbidea zeharo asegarria dugu bi laino oldarkarien eragin deuseztatzaileen argitzeko, eta azken buruan eta ulerbide honen ezean, bi laino oldarkariok bi laino kokor

apalak baino ez dira, eta oldarkari eta jarraikitzaile izate hutsak ez du balio inola ere, eragiten duten deuseztapena ulertarazteko. Izurrite lainoaren hipotesiak indarrean diraukigu beraz erabat, eta jentilen akaberako bi laino mota ezberdinok, –laino oldarkaria eta laino ginkaria–, bi kutsatze teknika edo kutsabide ezberdinen adierazgarritzat, –lasagoa bata eta arinagoa bestea–, jo beharko genituzke.

Azkenik ere erdietsi dugu bada, lainoaren mehatxua zertan den argitzea, gandu txiki baten irudia zerk bihurtu ote dezakeen hain izugarri eta mehatxari asmatzea. Izurrite lainoak jentilen lainoa ulerbideratu eta misterio gabetu egiten du. Baina bada oraindik aurre egin beharko zaion bainazko larri bat: Ulerbidea hain erraza eta borobila izanik, eta gainera euskal mitologiaren hesparruan bertan egonik, zergatik berantu gara hartaraino plazaratu baino lehen? Jentilen lainoaren inguruko misterio giroa propio eta artifizialki eusteko saioa izan al da?

Bada ez, ez da horrelakorik inoiz ere izan. Ulerbide hau hasiera hasieratik, edo zertxobait geroxeago lainoaren ikerketari zuzenduriko atalean plazaratu ez badugu, zeragatik izan da, alegia, duela gutxi arte zeharo gaindiezintzat jotzen genuen arazo bat dakarrelako berarekin: Izurriteak eragindako Partholon-darren heriotzak bi laino moten berberatasunaz konbentzitu gaituen arte hain zuzen, ia gaindiezina ikusten genuen, eta orain, proposaturiko berberatasunaren egiazkotasuna ikusirik erantzun asegarri baten eskean geratzen den arazo hau, izurrite lainoa hain zuzen ere euskal folklorea egoteak plazaratzen du. Eta hau ez da paradoxa.

Jentilen akaberaren bertsioen azterketatik tiratutako konklusio berehalakoaren artean honako hau genuen, alegia, leienda kontatzen zeneko egungo testuinguruan lainoaren irudia ulergaitza bilakatu zela, "lehen lainoaren" arrazionalizaketak alde batetik, eta gure begien aurrean irudi apalegia gertatzen zen ganduzko laino kokor hura harrigarri bihurtzearen itsastan zitzaizkion apaingarri semantikoek bestetik erakusten zuten legez. Eta hau guztia, garai batean lainoaren adierazmama eta bere mehatxuaren zergatia argitzen zuen osakin kulturalaren, –testuinguru gakoaren–, jauskerak eraginik. Eta hausnarketa honen ondoren izurrite lainoaren istorioa, jentilen akabera kontatu digun aho beretik ez bada ere, honen bertsioetako bat bildu den hiri berebetean bildurik, eta jentilen sei lainoetako lau eta akaberaren mitoaren hamabi bertsioetako zazpi biltzen diren geografi eta kultura hesparru homogeno batetik heltzen bazaigu, ezin izanen dugu logikoki izurrite lainoaren ulerbidea onartu, hau egungo testuinguruan sarturik baitago argi eta garbi: Irudi ezaguna da, eta bere indar eta eragin gaiztoak poliki ulertzen dira. Aurrean jarrera beraz, bi lainoak bi irudiragarri ezberdintzat jotzea izan behar derrigor: Izurrite lainoa borobilki ulertzen zen izurrite zabaltzaile bezala, jentilen lainoa zeharo ulertezina gertatzen zen bitartean.

Halabaina, irlandar Partholon-darrak izurrite batek jota hil zirela jakin dugunetik, tradizio honek jentilen lainoa izurrite lainoaren bidez argitzearen alde dakarkigun ebidentzia sendoegia da kontuan hartu gabe zokoratze. Une horretan hain zuzen hasi gara seriozki aintzat har-

tzen bi lainoon berberatasunaren hipotesia, eta ondorioz, aipatu berri dugun irregulakeria ulerbideratu beharrean gaude. Eta honetarako dugun bide bakarra honako hipotesi hau botatzea litzateke: Jatorriz mitikoa den izurrite lainoaren irudirapena, erlijio eta kultura aldakuntzak direla medio ondare mitologikotik jausi ondoren, gaitzen folklореaren hesparruan babesturik erdietsi bide du iraunbidea.

Irlandar laino ereduak frogatzen duten lainoaren aspaldikotasunak egiantzeko bihurtzen du izabide hain luzean zehar honelako eraldaketak gertatu ahal izatea. Bestalde, ez dago ahantzi beharrik jentilen akaberaren ezein bertsio ez dela, lainoak jentilak akabatzen dituela esplizituki baieztatzen hiltzen, ez eta bertsio gordinekin ere. Lainoaren erailetasuna testuen azterketaren bidez argitan ipinitako konklusioa dugu, talde osoaren bat bateko hilobiratzearen metaforaren azpian jentilarte osoaren heriotzaren mezua ezkututzen zela somatu baitugu bertan. Baina hau ez da sekula hitz horietaz esaten testuetan, zalantzarik gabe mitoaren kristauerapenak eragirik. Jesukristoren jaiotzaren sarrera jentilen akaberaren mitoa duela mila urte buruturikoa behar du gutxi gora behera. Susma daitekeenaren arabera, une berorretan hasi bada jentilen suntsikeraren eufemizatze lana, eta horrekin batera lainoaren izurrite-hedatzailetasunaren jauskera herri oroimenetik, nahiko beta izan da artean ordutik egundaino bi lainook zera ezberdintzat joak izateko egoerara heltzeko. Eta egungo testuinguruan lainoaren ekinaldiak jentilak eraiten ez dituen gero, nola hurbil lekiok, bada, izurrite lainoari honek, dabilen lekuan heriotza zabaltzen duela jakina bada?

Azkenik, bi laino moton deskribapenen parekotasuna, –Olarateko bertsioari dagokionez erabateko berberatasun bilakatzen den parekotasuna–, gero eta adierazkorrago, gero eta mamitsuago bihurtzen zaigu lainoari buruzko inkesta luzea burutu ondoren motibo honen eskasiaz ohartu garelarik. Beraz, bidegabekeria deritzogu orain bi irudiragarri arteko loturarik ezaren ustea eusteari.

Gauzak honela, gure jarrera, jentilen akaberako lainoaren jatorrizko izurrite-hedatzailetasunaren hipotesiari eustea izanen da lehenengo, eta horrekin batera, izurritezko esanahi honetan oinarrituriko dossier berri bat zabaltzea. Dossier honek funtsean, aurretik burutu ditugun besteen urrats berberak emanen ditu, hots, motibo aurkibideetatik abiatuko gara lehenbizi, eta bertan kausituko dugunaren arabera motiboaren banaketa erakutsi eta bere jatorburu kulturala erabakitzen saiatuko gara.

Orain arte plazaratu ditugun aurrusteak berehala baieztaturik ikusten ditugu STITH THOMPSON aurkibideak izurrite lainoaren eredu bakar bat baizik ez dakarrela jakiten dugunean. Erreferentzia honen<sup>96</sup> bidetik Herbeheretara hiltzen gara, Twente-ko lurraldera hain zuzen, "Et blauwe Dämpken" 1350. pestea zabaldu zuen gandu urdinezko laino koxkorra ezagutzera.

Hiru idazlanetan aurkitzen dugu gertakari honen berri, edo gertakari hauen berri hobe esanik, peste honek ez baititu leku guztietan doluzko ondorio berberak eragiten. Honats lehenik Hölterhof-eko bertsioa, leiendari buruzko zenbait komentariok eta bertsioetako baten transkripzioak osaturik<sup>97</sup>:

...Hölterhof-en inguruan dauden anitz sagetatik zenbait kontatu nahi dizkizuet hemen; kontatu dizkidaten zaharren hizkera berberean emanen ditut hemen. Zenbait ohar aurretik: Sagak ugarien dien Twente-ko lekuak, gairai batean Hünenborg eta Hölterhof egon zirenekoak dira. Hölterhof-en inguruko sagen harrigarria zera da, bat bateko amaiera tragiko batez mintzatzen zaizkigula: Pesteak eraginiko gizaldi aberats eta indartsu baten suntsikera, eta ondoriozko etxea eta etxe inguruen despopulazte erabatekoa. Hauxe da hain zuzen "lainotxo urdina" izeneko sagak, –Twente-n dugun ederrenak–, jorratzen duen gaia.

Rutbeek-eko Meuienboer etxeko andre zaharrak, ezagutzen ez nuen saga honen bariante bat jakinarazi zidan igande arratsalde batez. "Aamsvenne-n, –esan zidan–, laino koxkor urdin bat soroen gainetik hurbiltzen ari zela ikusi zuten behin. Jendeak peste laino bat izan zitekeela pentsatu zuen. Zuhaitz bateko zuloan harrapatu zuten, eta bertan gorde zuten, zuhaitzari josi zioten egur puska batez zuloa itxiz. Hurrengo urtean, haren indar gaiztoa hingatuta zegoelakoan eta hartatik zer geratu ote zen ikusi behar eta, egurra kendu zioten. Eta hoan non irteten den lainotxoa berealdiko indarrez, eta berriro jendea milaka hiltzen hasi.

Urtebete edo gehiago soroak eremu bihurturik igaro ondoren, Hungariako ijitoak heldu eta beren artean banatu zituzten lur sail haiek. Baina Hölterhof-en ez da geroztik inor bizi izan".

Ahozko tradizioa laburbilduz, 1350eko peste izurritearen ondorioz geratu zen jendez hustuta Hölterhof etxea. Eta izan ere, XVI eta XVII. mendeko Enschede-ko nekazal idazki batzuetan, "Hölteresch"-i (Hölter-go soroak) buruzko aipamen bat kausitu nuen, bertan ordurako lurralde horiek erabat utzirik leudekeela aditzera ematen delarik, eta beste horrenbeste frogatu dute beranduago eginiko miaketa arkeologikoen ere.

"Et blauwe Dämpken" eta Segurako kolera lainoaren arteko antza ezkutatu ezin bada ere, dezente dira holandar irudiragarri honek gure dossierrean sartzen dituen berrikuntzak: Lehenik eta behin, orain arte ikerleku izan dugun Irlandak eta Euskal Herriak osaturiko hesparru itxitik irten garea azpimarratu beharra dago. Honen ondoren, Holandar lainoa margoduna dela ikusten dugu, inoiz inolako margorik azaldu ez duten euskal lainoak ez bezala. Xehetasun honek halere, ez dakar lainoaren deskribapenaren aldaketa adierazkorrik, eta izan ere huskeriatzat jo dezakegu, agian lainoak dakarren gaitz motari lotzen zaion huskeria: Laino urdina peste izurritearena, gorria kolerarena, horia sukar horiarena, e.a.

96) J.W.R. Sinninghe. "Catalog der Niederlandischen Märchen-Ursprungssagen-Sagen- und Legendenvarianten", FCC aldizkari 132.zenbakian. Helsinki/ 67h., 251-283 zbk.

97) C. ELDERINK. "Twenster Laand en Leu en Leven". Enschede 1937/38h. (Regine Bertelink Bidaniako holandarrak itzulia)

Azkenik, zalantzarik gabe berrikuntzarik nabarmena lainoaren ezaugarritzapenean zera da, alegia, honen heriotzazko eraginak ezaba ditzakeen teknikaren sarrera. Teknika hau, lainoa nolabait erakarri, –auskalo nola, ez baitago honi buruzko argibiderik–, eta zuhaitz zulo batean itxi eta harrapatzean datza. Honela giltzapeturik lainoa indarge geratzen da, edo hobe esanik, bere indarra zabaldu ezinean.

Kontakizunaren arreta beraren gainean erakartzen duen itxitura teknika honek, bigarren mailan uzten du lainoaren deskribapena, honetaz, *laino koxkor urdin bat so-roen gainetik hurbiltzen ari zela ikusi zuten behin* esaldia baino esaten ez zaigularik, eta ondorioz, laino honen eraginera derrigor aldatua gertatzen da Segurako lainoarekin erkatuz gero, bere agertze hutsa ez baita aski orain lehen unetik heriotzaren hazia inguru osoan zabaltzen hasteko. Halere, urtebete igaro ondoren berriro aske geratzen denean, bere irteerak milaka laguneren heriotza ekarriko du, eta honekin, gure izurrite laino biek beren arteko berberatasuna berreskuratzen dute.

Bitxi samarra deritzogu lainoa askatu ondoren berriro ere hura harrapatzeko ahalbidearen batere aipamenik ez egiteari. Testuaren arabera badirudi jendeak laino honen eragin gaiztoetatik libratzeko abagune bakar bat baizik ez duela, abagune bakar horretatik at, haren presentzia hutsa aski baita heriozte errukigarria zabaltzeko.

"Et blauwe Dämpken" honek Twente-n hedatzen duen pestearena ez da izurrite baten berri ematen digun istorioa bakarrik, leiendazko deuseztaldi baten kontakizun mitifikatua baizik.

Testuko azken esaldiek, pasadizoaren azpiko egiazko errealtate historikoa ipintzen dute agerian alde bate-tik, baina bestetik eta aldi berean, gertakari historiko horiek estaltzen dituen leiendazko gainegituraren presentzia eta indarra baieztatzen dute, izurrite baten kalteek ez baitute zilegitzen, bera jasan duten lurraldeak geroztik jendez husturik egon beharra beti.

Konbinaketa honek, leienda hutsa diren jentilen akaberaren bertsioak, eta leienda izateko, astian hurbilegi eta beraz oraindik historikoegi dugun Segurako izurritearen kontakizunaren arteko erdibidean kokatzen digu holandar ele zahar hau. Dena den, pesteak Hölterhof-en burutzen dituen eraginek, kontakizun hau jentilen akaberarenari hurbilarazi diezaioke: Alde batetik, Hölterhof-tarrak ez zaizkigu familia soil bat bailiran erakusten. Holanderazko testuak dakarren hitzak ("geschlacht" hitzak alegia), "leinu", "arraza" eta "gizaldi" kontzeptuak adierazten ditu, eta badirudi beraz, familiarena baino irudi zabalagoa eman nahi duela. Bestetik, izurritearen ondorengo hungariar ijitoen etorrera eta bertan geratzea irmo bermatzen zaizkio zerari, alegia, arraza baten suntsikera eta haren ordezkio berri baten sorreraren irudiari. Gainera, inguru osoa beteko duten hungariar ijito hauen etorreraren ondoren ere Hölterhof etxean geroztik inor sekula bizi ez izanak, begibistako hilobi kutsua ematen dio etxeari. Eta azkenik zera azpimarratu beharra dago, izurriteak jota hilko den arraza honen aberastasun eta indarra, aberastasun eta indar mitikoak noski, ez zaizkiola he-

riaren gaineko menderakuntzari zor, ez zaizkiola beste-ek lantzen dituzten lur sail aberats batzuen jauntxo eta jabe izateari zor, baizik eta alderantziz, Hölterhof-tar beraren lanaren emaitza direla, laborariak baititugu gizon hauek. Testuko pasarte batek dioenez, Hölterhof etxean bizi zirenek, nekazaritza ezagutu eta lantzen zuten. Aberats eta indartsu izanik, gainera lanari emana dagoen leiendazko arraza bat ez da noski jentilengandik oso urrun ibiliko.

Halere, kontakizunaren oinarrian dagoen benetako gertakariaren oihartzuna nabarmenegi ageriratzen da, gure hurbilketa saioaren erabateko arrakasta eragotziz: Alde batetik, biktimen leiendazko apaingarri guztiekin ere, testuak ez dizkigulako inoiz erraldoi arrazakoak bailiran erakusten, eta bestetik, Hölterhof etxea etxe delako beti ere, eta alferrik saiatuko ginateke etxe bat jentilen hilobi megalitikoei hurbilarazten, etxe horren betirako hutsik geratzeari zalantzarik gabeko hilobi esanahia badario ere. Lotura megalitikorik eza honek urruntzen du batik bat Hölterhof-eko pestearen kontakizuna jentilen akaberaren mitotik.

Zernahi dela ere, aldeko eta aurkako arrazoi multzo hau honako hipotesi honen bidez ulerbidera genezakeelakoan gaude, alegia, kontakizun hau, Aamsvenne-n 1350 urtean zabalduko pestearen oroitzapen historikoak, jentilen akaberaren antzeko mito baten moldean sar-tzearen emaitzatat joko lukeen hipotesiaren bidez.

Bertakoen suntsikeraren ondorengo hungariar ijitoen etorrera lurralde haiek betetzeko, –logikoagoa litzatekeen beste holandar edo alemaniar mugakideen etorreraren orde–, alderdi mitikoaren eraginaren mailarik gorenaren adierazgarria litzateke, munduaren akaberaren eta ondorengo berrikuntzaren sinbolismoa adierazten duen heinean, eta beste aldean berriz, Hölterhof etxearen agertzeak, mitoaren moldeak eten ezin izan duen errealtate historikoarekiko lotura islatuko luke.

Ezin esan, holandar saga honen bitartez jentilen lainoa eta izurrite lainoaren beratasuna demostratzeko egin dugun saioan erabateko arrakasta erdietsi dugunik, baina ikusi dugunaren ondoren ezin esango dugu ere, gure hipotesiari eustea arriskutsuegi edo bidegabeegi denik.

Dena den, ahantz ditzagun une batez istorio hau jentilen akaberarekin alderatzeko saioak, eta gatozen gure arreta osoa izurrite lainoari itzultzera.

Gure testuari buruzko aurreneko komentarioak azpimarratu duenez, bertako berrikuntza nagusia lainoa harrapatu eta indargabetzeko teknikaren agerpena dugu. Ondorengo testuak irakasten digunez, teknika honen aipatzearen arrazoia zera da, bailara bereko zenbait etxek pesteak eraginiko inongo kalterik jasan ez izana, eta areago, pestearen kalteetatik betirako libratu izana ulerbideratu beharra. Honako testu hau, saxoierazko bi bertso-ren itzulpenak eta hauei darraizkien ahapaldiei buruzko komentario batek osatzen dute. Guztia, lehengo peste berari buruzkoa<sup>98</sup>:

98) C. ELDERINK. "Oet et Laand van Alee". Enschede 1924 / 98h.

"Auzokideen elkar laguntza betebehar sakratua bilakatu da, eta zintzo bete du hau Venne-ko De Lappe etxeko jaunak".

.....  
.....  
.....Hurrengo bertsoek De Lappe etxeko jaunaren ausardia eta beldurgabetasuna goraiatzaren jarraitzen dute; zera diote honetaz, goiz batez, denak mahai inguruan jarrita gosaltzen ari direla, eta De Lappe-ko jaunak laino koxkor urdin bat ikusten duela han urrunean hurbiltzen ari zaiela. Berehala krisketa bat hartu bizkor, eta haren zuloan lainotxo ixtea erdiesten du.

Ikusten dugunez, kontakizunaren arretagune nagusia lainoaren harrapaketa da hemen ere, lehengo zuhaitz zuloaren ordea, krisketaren zuloan gertatzen den harrapaketa. Dena den, oraingo ezberdintasun nagusia bertakoen zuhurtzia dugu, inork ez baitu txorakeriak eginen, eta honen ondoriozko zorioneko berazkoa, bigarren poema batek jakinarazten digu. Hona hemen berri laburra<sup>99</sup>:

...De Lappe-ko jaunak lainotxo krisketa zuloan harrapatu zuela eskerrak, Ven edo Venne izeneko bailarak pestetik libre ikustea erdietsi zuen azkenik.

Mehatxuaren ezabatzea ekar dezakeen honelako harrapatze teknika izatearen noskizko ondorioa zera da, bera bilakatzea kontakizunaren ardatza, eta beraz, lainotxoaren eragina "bigarren aukeran" baizik erakutsi ahal ez izatea, gizonen ikusmin edo arinkeriak inoiz halakorik ahalbideratzen badu behintzat. Plazaratu dugun tradizio honek halere, ez digu argitzen zergatik ez duen lehen agerpenak batere kalterik eragiten, bigarrena erailetasun izugarrikoa frogatzen den bitartean. Saihestezinezko kontraesantzat hartu beharko ote dugu, alegia, teoriak agertze soilaz heriozte zabaltzen duen irudigarri bat indargabetzeko edozein saioak logikoki derrigor eragin beharko duen kontraesantzat? Zeren eta, lainoa agertzen ez den arte ezin da noski deus ere egin, eta agertzen denean berriz dena alferrik da, ondoren datorren heriozte saihestezina baita. Erantzuna ez da erraza Nolanahi ere.

Agian gerta liteke bertan kontraesanik ez egotea, izurritea lainoaren barnean egon beharrean, trenak bagoiak bezala, honek tiraturik edo erremolkaturik heltzen dela gogoeta egiten badugu. Segurako kolearen albistearen arabera, lainoaren irago bidea eta heriotzen hastapenaren artean zenbait orduko tartea dagoela dakigu. Tarte hau zenbait eratan ulerbidera daiteke: Lainoaren baitan dagoen gaitza airean zabaltzeko behar duen beta; lainoaren baitan ez legokeen gaitzak lainoak gidaturik edo tiraturik bertaratzeko behar duena; lainoaren baitan egon eta airean bat batean hedatuko litzatekeen gaitzak jendea kutsatu eta bere heriotzazko eragina burutzeko beharko lukeena. Zernahi dela ere, bi bide dauzkagu azken buruan: Laino gidaria, ala laino kutsatua, aukera honek nolabait laino iragartzaile eta laino xederatzailearen arteko auzi zaharra islatzen duelarik, Laino oldarkari erasokorrak gaitza lainoaren baitan egon behar dela susmarazten badigute ere, indargabetze teknika berriz, laino gi-

dariaren premisapean hobe uler daiteke, gidariaren harrapatze eta ixteak, bide erakusle edo tiratzailerik gabe utziko lukeen gaitza aurrera ezinean geratuko baitzen. Honek ez luke halere, lainoa bigarren aldiz harrapatu ezina ulerbideratu ahal izanen, baina dena den laino gidariaren hipotesia egokia da dudarik gabe kasu honetarako. Zernahi dela ere, beranduago ikusiko dugunez, lainoaren benetako funtzioari buruzko zalanzkuneak, erabaki argi eta zehatz batetik urrun dagoen arazo baten erakusgarri izanen ditugu.

Oraingoz behintzat, gure korpusa osatzen duten lainoen ezaugarri bereizkariei buruzko eztabaida hauetaz ahazten saiatuko gara, eta "Et blauwe Dämpken" lainoari buruzko azterketa amaituko dugu, azken testu baten eta ondorengo komentarioaren azalpenaz, biak helburu berera zuzendurik, alegia, laino hau, bere euskal eta irlandar haurrideen senitarte berekoa dugula erakustera.

Arestian kexati azaldu gara, beti harrapaketaaren motiboaren itzalpean, testuek lainotxo urdinaren deskribapenari eskaintako arreta gutxiak. Bada, halere, aipaturiko bi poemetak aurrenekoan lainoaren ekinera deskribatzeari eskaintako ahapaldi bat. Hona bere itzulpena<sup>100</sup>:

Hain gauza eskasa dirudi, laino koxkor urdin bat, Lur sailen gainetik irago, eta geldirik geratuz; Isilean etxeetan sartu eta hormetan zehar lerratuz.

Bizitza zimelduz, lore bat izozte gogor baten ondoren bezala.

Testu honek bi berrikuntza dakartza gure lainoaren jarrera eta higikeren multzora: Laino koxkor urdin hau, etxeetan isil isilik sartu eta hormetan zehar lerratzen da. Bidenabar, ariera honek laino kutsatuaren hipotesira bidaliko gintuzke berriro, baina ahantz dezagun hau eta gaitzen deskribapena aztertzeraz.

Bi higikerok ez dute baliokiderik guk ezagutzen ditugun gainontzeko kasuetan. Baina bi hauen ondoan, zailtasunik gabe ezagutuko ditugun bi jarrera kausitzen ditugu: Laino lur sailen gainetik iragotzen da pasean, eta airean geldirik geratzen da, euskal eta irlandar lainoei egiten ikusi diegun era berberean hain zuzen. Honen guztiaren irakasgaia zera da, lainook anitz higikera eta jarrera erakusteko gai direla. Etxeetan sartzeari eta hormetan zehar lerratzeari lehen ikusitako zuhaitz zulotiko irteera bortitza gaineratzen badiegu, laino gaikari geldia eta laino oldarkaria bi laino mota ezberdin bailiran ikusteko arrazoirik ez dagoela, eta bide zuzena beraz, biak, higikera eta jarrera anitz erakutsi ditzakeen laino bakar eta beraren bi irudirabide osagarri buruasetzat jotzea dela, hausnartuko dugu berehala. "Jentilen lainoa=lzurrite lainoa" beratasunari eraikitako bainazkoa, -jentilen akaberrako bi bertsiotan agertu eta Segurako kolearen kontakizunean berriz huts egiten duen lainoaren higikera oldarkaria benetan jatorrena omen zela-, indargeturik geratzen da, airean geldirik geratzea, oldartzea, eta pasean iragotzea, laino mota bakar eta beraren jatorrasun berdinako hiru jarrera baitira.

Azkenik esan dezagun lur sailen gainetik irago eta airean geldirik geratzen den holandar laino hau, Segu-

99) J.W.R. SINNINGHE. "Oberijselsch Sagenboek". Zutphen 1936 / 181.orr.

100) C. ELDERINK. "Oet et Laand van Aleer". Enschede 1924 / 98h.

rako izurrite lainoa eta jentilen akaberaren Olarteko bertsioko lainoaren berdina dugula deskribapenaren aldetik, urdintasunaren xehetasuna salbu noski: Alegia, ganduzko edo lurrinezko laino koxkor bat.

Testuok dakarzkigun "wolsken" (lainotxo) eta "dampken" (lurrintxo) hitzok, –bata nahiz bestea berdin erabiltzen baitira bertan–, aipaturiko bi euskal testuetako "laino marismek" marrazten duten irudi berbera erakusten dute.

Eta irudi hau gogoan dugularik, gatozen STITH THOMPSON-ek dakarren izurrite lainoaren eredu bakar hori Herbeheretan agertzeak dakartzan ondorioei buruzko azken hausnarraldi bat egitera.

Alde batetik, honen bakantasuna, jentilen lainoa eta izurrite lainoaren berberatasunaz dugun aurrustearen aldeko froga berri bat luzatzen digu: Bien deskribapena oso antzekoa dela badakigu, –berbera delarik kasu batean–, eta orain berriz elkarren adinako arrarotasuna dutela ikusi dugu, bata nahiz bestea kasik erabat ahazturiko eta galduriko motiboak baitira, eta honek noski, berriro ere elkarri hurbilarazten saiatzeko animuak ematen dizkigu. Bestalde, euskal lainoekiko egokipen bakar hau Herbeheretan kausitu izanak, ikergai dugun irudiragarriaren hedapen hesparrua zabaltzea, eta azkenik ere!, Irlandak eta Euskal Herriak orain arte osatzen zuten hespil mugatutik at jalgi ahal izatea dakar ondorioz. Ondorio hau guztiz normaltzat jo dezakegu, eta areago, esperogarrizat, zeren eta Irlanda eta Euskal Herriaren arteko kulturkide-tza aise imajina daitekeela egia bada ere, –astian zehar nahiko atzera egin beharraren baldintzapean noski–, zera ere ez da egia txikiagoa, alegia, bi herrion arteko kulturkide-tza horri zeinahi dela ere, inoiz ezin dela izan gainontzeko europar eskualdeak alde batera utzirik biak bakarrik lotzen dituenekoa. Aztertzen ari garen irudiragarrien jatorburua izan bide den indoeuropar aitzineko geruza kulturalen ez baitago euskal-irlandar lotura espezifiko eta eskusiborik adieraz dezakeen aztarnarik. Jentilen akaberaren mitoaren baitan bilduriko motibo guztien egokidura guztiak Irlandan bildu izana beraz, gordekortasun hobearen adierazgarria baizik ez litzateke izanen. Zelten irlaratze berandu samarrekoari eta kristaigoaren zabaltze goiztar samarrari zor bide zaien gordekortasuna, bien arteko tartearen laburrak, zelten eraginaren garrantzia murriztu, eta zeltaitzineko bereizgarri kulturalen iraunbidea sendotu egiten baititu. Egokidura arkeologikoei eskainiko diegun atalari aurrea hartu gabe, esan dezagun halere, holandar ereduak ez dela ustekabeko agerpena izan, eta alderantziz, orain arteko hedapen hesparrua luze baino lehen zabalagotzen ikustea espero daitekeela, gure ikergaiaren iraupenerako ahalbideak ugaltu egin baitira testuinguru mitikoa kitatu ondoren, –bertan irautea zaila baita kultura berriek zaharragoak estali eta ito ohi dituztelarik–, gaitzeta folklorea aterbe eta babesa kausitu duenean, kultura aldakuntzetatik gordetzeko babesleku bikaina izan ere.

Izurrite lainoaren irudiragarria, bere jentilen lainoarekiko itxura antza eta esanahi antza alde batetik, eta jentilen bat bateko suntsikera ulerbideratzeko dakarren argitasuna bestetik, biak kontuan harturik, gaitzeta folklorea gorde den jentilen lainoaren iraungarritzat jo dezakegu oraintzetik, eta ondorioz, azken honen jatorburu berberetatzat, hots, Europako indoeuropar aitzineko geruza kulturaletik datorkigun irudiragarritzat. Halabaina, berazko hau, era honetan baietsirik, bidezkoa izanik ere, ikerbide honen eredu eta gidarizat engoitik zenbait aldiz aldarrikatu dugun exhaustibotasun asmoarekin kontrasteanean jartzen zaigu. Honela jokatzuz gero, geure buruari ezarri diogun betebeharrak metodologikoa saihesten ariko ginateke, hots, ezerein motibo indoeuropar aitzinekoa dela esan aurretik, indoeuroparra ez dela argi eta garbi erakutsirik uzteko hartu dugun konpromezua, Eta konpromezu hau betetzeko bide bat baizik ez dugu: Gure motiboa indoeuropar literaturan huts egiten duela erakustea alde batetik, eta bestetik, bere bertsioek marrazten duten hedapen hesparrua indoeuropartasunaren premisapean ulerbideraezina dela frogatzea. Ikerlan honetan ukitu ditugun motibo guztiei banan banako inkesta exhaustiboa eta berezituia eskaini zaie, eta izurrite lainoak beraz, honelako tratamendua jasoko du: Inkesta oso bat eginen dugu beraren gainean bereziki, jentilen akaberaren mitoarekin ukan dezakeen lotura erabat ahantzi eta aipatu berri ditugun betebeharrak metodologikoei zuzen zuzenean ekinez. Inkesta honi egia esan hasiera eman diogu engoitik, STITH THOMPSON-en aurkibidean murgiltzerakoan. Bere orain arteko emaitza bakarra azaldu berria dugu, bai eta honen bitarteko aurreneko berazko ere: Motiboaren urritasun eta arrarotasun larria.

STITH THOMPSON-ek ezin ditu noski, europar folklorea dauden motibo guzti guztiak aipatu, –bertan Segurako lainoari buruzko erreferentziarik ez egotea dugu frogagarri–, baina nahiko mamitsu eta osatua da halere, bertan ematen den holandar erreferentziaren bakartasuna ikusirik motibo hau zeharo urri eta arraroa izan behar dela ondorioztatzeko. Urritasun eta arrarotasun hauen konstatazioak, engoitik zenbait aldiz erabilitako argudio bat ostera ere plazaratzeko bidea ematen digu: Izurrite lainoa indoeuropar irudiragarria dugula esaten badugu, –oraingo honetan germaniar motiboa litzateke eta ez zelta–, Euskal Herria, berea ez den kultura honi gogorren eta sendoen eutsi dion herria dela onartu beharko dugu derrigor, bertan kausitu baitugu irudiragarri honen bi eredu ezagunetarikoa bat, indoeuropar mundu osoak beste eredu bat baizik eskaini ezin izan duen bitartean. Honen absurdua begibistakoa da, eta horrela jarraituko du izaten, ikergai dugun irudiragarriak, –beste zenbait eredu agertzen badira ere–, indoeuropar ondorengo gizarteetako folklorea motibo urri eta bazterreko gisa agertzen daireno, zeren eta edozein euskal motibo indoeoparrendandiko maileguaren hipotesiaren bitartez ulerbideratzeko edozein saiok honako baldintza hau bete beharko baitu beti nahitaez, alegia, aipatu motiboa azken hauen artean hagituz hedatua eta ezaguna izatea, hots, bere hedapen eta ezaguntasun hauek, bera asmatu duen kultura hesparruko mugetatik at eraginik izatea zuziritzeko adina garrantzia ukan behar dutela.

STITH THOMPSON-en egindako bilaketak dakarren ikerketaren lehen urrats honen emaitza beraz, izurrite lainoaren jatorriaren ez-indoeuropartasunaren aurrustea dugu. Ondoren datorkigun bigarren urratsa berriz, indoeuroparren mitologia eta folkloean murgiltzea izanen da, bertan pestea eta gainontzeko izurriteak irudiratzeko erabili ohi diren metaforak ezagutu, eta gure motiboak irudi hauen multzoan huts egiten duela konstatatzeko.

Indoeuropar mitologia erkatzailearen ikerketek ez dute zehatz eta bereziki izurriteei loturiko jainkozko bate-rakoirik azaltzen. Izan ere, Apollo-ren gezien greziar irudia baino ez dugu, baina irudiragarri bakan hau, greziarren garapen berantiarretako bat izan behar da gainera, jakina baita greziarrak berrikuntza sortzaile bikainak izan zirela mitologiaren arloan. Izan ere, izurriteak eta gaitzak orokorki osasunari eta ugaritasunari dagozkien arazoak direnez gero, hirugarren funtzioaren hesparruan sailkatu-rik aurkitzen ditugu, eta beraz, indoeuroparrak gehienbat kezkatzen zituzten ardura ideologiko nagusietatik, –agin-tea eta gerrari dagozkien bi lehen funtzioetako balioeta-tik alegia–, kanpo geratzen dira.

Lehen funtzioari hurbil lekiokoen izurritearen aspek-tu bakarra, honen kemen deuseztatzailearena litzateke, jainkoek beren gizonen gaineko menderakuntza, hauei gogorarazi eta errespetaratzeko erabil zezaketzen heinean. Halabaina, ez du ematen honelakorik indoeuroparren begikoa izan denik: pestea, Euskal Mitologia Konpa-ratuan, herriak une batez itzulipurdikatu duen gizarte egi-turaketa jainkoek atzera berriz ezartzen dutela irakatsi di-guten bi istoriotan azaldu zaigu, alegia, irlandar "attacot" direlakoan iraultzan, eta Erromako K.A.ko 394 urteko hauteskundeetan.

Irlandan, pestea bigarren mailako ondorio gisa des-kribatzen da, jainkoen haserrearen emaitza zuzena beza-la baino. Haserre hau eguraldi nahaskeria harrigarrien bi-tartez adierazten baita batik bat. Hauek berriz, lurraren txirotzera eta areago, erabateko antzutzera daramate, ondorengo gosetea eta azken buruko pestearrekin amai-tuz. Peste hori beraz, ez da harrigarria edo naturagaine-koa, zenbait naturagaineo gertakizunen ondorio berez-koa baizik.

Erroman berriz, jainkoek zuzenean bidalitakotzat erakusten zaigu, baina halere, jainkook aurretik igorri-riko negu ikaragarri hotz baten ondoren agertzen da. Hone-taz beste, peste hau ez da larriki erailea suertatuko; Ze-ruko igargarri soila izanen da, jainkoen indarraren frogar-ria, haien haserrearen benetako erakusgarri izugarria baino, eta dena dela, peste honen jatorburuak ez gara-matza jainkozko zehatz batenganaino, zehazpako "jainko-ak" edo "Zerua" hitzetan adierazten delarik. Beraz, izurri-teen motiboak indoeuropar mitologiaren lehen funtzioa-ren inguruan garapen garrantzitsurik ez duela jaso esan genezake, eta baita orokorkiago zera gaineratu ere, hots, motibo horrek ez duela bertan inoiz leku nabarme-nik hartu.

Honela, bada, folkloeraren iturburu bano ez zaigu geratzen kontsultatzeko. Bertan, dokumentazio ugari-az osaturiko ALEXANDER KRAPPE-ren idazlan baten arabera,

Europa osoan zehar luze eta zabal hedaturiko pestearen irudiragarri nagusi bi aurkitzen ditugu: Izurritearen gizara-pena bide den emakumezko irudiragarria bata, eta ani-maliazko irudiragarria bestea, –saguak alegia–, izurritea-ren hedabidetzat erakutsia. Idazle hau frogatzen saia-tzen den tesia zera da, saguei loturiko eta izurriteen igor-letzat jotako emakumezko jainkozko baten izana Grezia klasikoan, –Artemis Mysia, hain zuzen–. Guk ez dugu bere argudioen alde ez eta aurka ere eginen, bere erudi-zioa aprobetxatu baizik besterik gabe, aipaturiko bi moti-boen hedapena eta garrantzia frogatzen dituzten berak bildutako eruedetariko zenbait hemen plazaratuz. Ikus dezagun lehenengo, izurritea gizaratzen duen jainkosa-ren irudiragarriaren eragin hesparrua<sup>101</sup>:

*Izurrite bubonikoa ia erabat ezaguna dugu gaurko ga-riaetan; halere ez gaude beste izurrite moten hutsean, hauetarikoak oraindik gaurko egunean ere Balkanetan gi-zaratuak eta jainkosa itsusi edo hobe deabru-eme itxu-raz irudiratuak gertatzen direlarik. Egungo greziarrekin hasiaz, nafarrerria beldurgarriari era honetako izen ordeak ematen dizkiote: "Dohatsua", "Errukiorra", "Errespetuz ai-patu behar dena",... Serbiarrek, "bogine" hitzaz, –"jainko-sa", alegia–, izendatzen dute nafarrerria. Eslabonia eta Kroazian, izurritea, "kuga" izenez ezagutzen den deabru-emearen itxuraz irudiratzen da, hau aldeko izatearren maiz "kuma" (amabitxia) izenez ordezkutzen delarik.*

*Jugoslabiaren artean izurritearen beste izendabide arrunta, "cuma"dugu, errumaniar hiztegian halaber sartu den hitza ("ciuma"=izurritea). Hau uxatzeko, "beharrezko suaren" zeremoniaz baliatzen dira. "Kuga" hau, emaku-mezko baten itxuraz irudiratzen da, eta gaur egun orain-dik ahoz aho dabilzan ipuin askotan emakume hau zen-bait baserriarri, haien gurdira igo dezaten eskatuz edo batere baimenik gabe ere gurdi gainera salto egiten ikus dezakegu. Sarritan txalupari bati ibairen beste aldera edota itsasoa zeharkatuz dalmatiar kostaren aurreko irla-ren batera eramanez dezan eskatzen dio. Serbiar balada hagitz ezagun baten arabera, izurriteak jota bere bedera-tzi anaiak galdu dituen lamia antzeko neska bati, bera izurritea delakoan aitaren etxeko sarbidea eragotziko dio bere amak, neskek bere burua ezagutzera eman arte.*

*Mota honetako sineskeriak ez dira hego eslabiaren bitxikeria bakarrik. Lituaniarrek badute "Giltine" deitzen duten izurritearen eta heriotzaren jainkosa. Honen bel-dur dira izakiak oro, gizakume eta aziendak errukirik ga-be itotzen baititu: "Kad Tauwe Giltine Pasmaugtu", ale-gia, "izurriteak itoko al zaitu", lituaniar birao arrunta dugu. Jainkosa beldurgarri honen izen zabalduagoa "Magila" dugu, edo "Dieuwe", "jainkosa" alegia, besterik gabe. Poloniar Lituaniar, "Morowa dziewica", "izurrite neska" izenez ezagutzen dute. Gainerako lekuetan, "Powietrze", "izurritea" izendatzen dute besterik gabe. Soineko zuri batez jantzirik lurraldeak zeharkatzen ditu, sarritan arlote-ren baten sorbaldaren gainean, laguntza horren trukean immunitatea hitz ematen diolarik. Polonian ez dago jain-*

101) A.H. KRAPPE. "Artemis Mysia", Classical Philology aldizkari-ko IL. zb. 1944 / 180 hk.

kosa beldurgarriaren irudi faltarik: lleak nahasirik dituen emakumezko argala, maiz gurdi baten gainean jezarririk, hau zalantzarik gabe beste nonbaiten aipatu dudan folklore bretoiko "charrette de la mort" delakoaren para-parekoa delarik. Bulgarian ere, irudi beretsukoa dugu lurraldeak zeharkatzen dituen "cuma" delakoa, emakumezko luzea, beso ikaragarri luze eta aurpegi baldurgarria dituelarik, ileak nahasirik, zaldi baten gainean jarririk, –mendebaldean ere egokidurarik baduen heriotzaren zaldia–. Errusiarrek, bota gorriak daramatzala uren gainean dabilen emakumezko batez gizaratzen dute kolera. Herri berean, ganaduaren gaitzak, "behi heriozte" deiturikoak, emakume zahar baten itxura duela uste da, izurritea, "izurrite damak", –liho ehunetan bilduriko emakumezko handiak–, irudiratzen duen bitartean. Erdi Aroa amaitu zenetik izurrite bubonikoa ezagutu ez duen Lusazia-n, emakumezko hau heriotzaren jainkosa da besterik gabe, eta beraz, Smertnitza deritza (Smert=Heriotza). Hau ere zuriz jantzirik dabil, eta bere hurbiltzeak heriotza dakar hiri eta herrixketara.

Baltiko itsasoak ez dio sineste honi mugarik ezarri: Suedian, "izurrite dama" eslabiar European bezain ezaguna baita. Norvegian, "Pesta" delakoa eskuare antzeko tresna bat eta erratz bat daramatzalarik, lurraldeetan zehar hara eta hona dabilen atso zahar zurbila da. Bada zenbait arrazoi germaniar Hel jainkosa jatorriz heriotzaren jainkosa baino izurritearena zela sinesteko. XVIII. mendean oraindik, Schleswig-ko nekazariek, izurritea atzerrian zebilelarik lurraldeetan zehar hiru zangoko zaldi baten gainean bailebilen irudiratzen zuten. Suitzan berriz, hiru zangoko zaldirik gabeko irudiragarri berberaren berri bada, XVI. mendeko .....  
.....Lehen hamarkadan. Zuriz jantzirik eta erratzaz hornituriko neska bezala deskribatzen da.

Peronnik-en ipuin bretoi ezagunean izurriteak beltzez jantzitako larruzal horiko dama baten itxura hartzen du. Britainian berriz, zuriz jantzirik "izurrite damaren" istorioa aurkitzen dugu, bertan dama honek bera gurdiz edo untziz garraiatu duen gizonari inmundatearen saria ematen diolarik.

Azkenik Finlandian, izurritearen irudiragarria, ipuin ezagun baten bariante batean heriotzaren rola egiten duen neska gaztea da.

Ugaritasun ikusgarriko eredu erakusketa honen ondoren, –gure ikergeia den irudiragarriaren urritasunarekin bortizki kontrastatzen duen ugaritasuna izan ere–, ALEXANDER KRAPPE-k bere datuak laburbildu eta lehenengo honi lotu nahi dion bigarren irudiragarriaren garrantzia eta hedapena azaltzeari ekiten dio<sup>102</sup>:

Gure idoroketak bada, honako era honetan laburbilditzakegu: (1) Grezia zaharrean eta Ekialde Hurbil eta Erdian, bere izenak adierazten duen bezala, saguekiko lotura duen emakumezko jainkozko bat dugu, Artemis Mysia alegia, heriotzaren eta izurritearen jainkosa; (2) Erdi Aroko eta egungo eslabiarren artean, Balkanetan eta beste zenbait lekutan ere, izurritea, "izurrite dama"

bezala gizaraturik aurkitzen dugu; (3) Antzeko irudiragarria, "izurrite dama" edo "izurrite emakumea", gazte ala zaharra, zenbaitetan eskuareaz edo erratzaz horniturik, Europar kontinentean zehar ezaguna eta beldurrez ikusia dugu, Don-etik Finisterre-raino, eta Ipar Itsasartetik Alpeetaraino. Halere, ez da frogatua izan europar kontinentean ere sagua izurrite jainkosa honen ikurra eta atributua zenik.

Gorago aipaturiko ikerlanean azpimarratu dugunez STRABO-k bildutako iberiar kontakizun baten arabera (III, 4, 18) saguek zabaldu omen zuten izurritea penintsulako herrien artean, eta bestalde, egungo europar folklorea oraindik sagua heriotza eta izurrite ikurra dugu. Areago, izurrite jainkosa zaharraren jarraipena Erdi Aroan, kristau jarraipena den Gertrudis Donea alegia, sagu pilaz inguratutik agertzen zaigu Estrasburgoko katedraleko pintura batean. Belgikako Nivelles-eko kolejiata elizako hegoaldeko guruzpidean dagoen estatuatxo batean, santa berau, mojaz jantzirik, gonatik gora igotzen ari zaion sagu batekin ikus daiteke. Beste honenbeste ikus daiteke Bruselas-eko ekialdeko auzoetan dagoen Gertrudis Donearen eliza berriko kaperan, bertan santaren beste estatuatxo bat baitago, bi sagu lagun dituelarik, bata bere makulu pastoralean gora igoz, eta bere oinetan bestea. Nivelles-eko eliza-altxorrean dagoen metalezko lepoko batek Gertrudis Donea bere soinekoaren tolestura batean jarrita sagu bat duelarik erakusten digu. Santaren saguekiko lotura berau herri eskulangintzaren anitz monumentutan agertzen da behin eta berriz.

Gertrudis donearen funtzioak guztiz bat datoz honekin. Saguetatik eta izurrietatik babesten du, azienden izurriteei dagokienez batik bat, baina Artemis Mysia-ren antzera, ez da saguetatik babesa bakarrik, jakina baita berak bidali ohi dituela saguok milaka, irain dutenen zigortzat haien soroetan txikizioa eragin dezaten.

Ikerlan berberean zera ere azpimarratu dugu, Gertrudis Donearen gotorleku nagusia Nivelles dela Belgikan, eta bertan kristaigoaren aurretiko garaietan heriotza jainkosa germaniar baten gurtze garrantzitsua ospatu ohi izana gauza ezaguna dela.

Hau guztia dela eta, aspaldidanik ateratako konklusioa da, santa hau jainkosa paganoaren jarraipena baino ez dela.

Folklorean baizik gorde ez diren bereizgarri kulturallak indoeuropar kulturari eragokitzea ez da beti arazo garbia izaten. Dumézil bera aurrenekoa da zera aitortzeko garaian, alegia, indoeuropar literatura ez dela gehienetan folklorea gorde, jakintsuen idazlan historiko eta erlijiosoetan baizik.

Halere kasu honetan, –eta KRAPPE-k Artemis Mysia eta Gertrudis Donearentzat eskaintzen dituen ulerbideen bidezkoatasuna zalantzan ipintzen baditugu ere–, gure aurrean argi eta garbi agertzen dena zera da, bi tradizioek Europa osoan zehar ugari azaldu eta Euskal Herrian berriz erabat huts egiten dutela, –halakorik ez baita gure artean aurkitu–. Argi dago beraz, indoeuropar irudiragarriak ditugula.

102) Ber. 182. orr.



KRAPPE-ren artikulua, batzuetan zenbait tresnaz hornituriko eta beti zuriz jantziriko emakumezko irudiaren garrantzia eta hedapena adierazten dizkigu. Halere, autore honen argibideok badute bere akatsa, erakusgarri badira ere. Alegia, alderdikeriazkoak dira, zeren eta Artemis Mysia-ren ikerketarako hautaturik daudenez, ezin baita neurtu bertan agertzen diren emakumezko irudigarriok europar folkloreko pestearen irudirapenen multzo osoan ukan dezaketean garrantzia. Izurrite irudiragoaren pertsonaia bakarrak ote dira, ala oraindik ezagutzen ez dugun beste pertsonaierik ere ba ote dago?

Erantzuna, GRIMM anaien "Deutsche Mythologie" idazlanean pesteari eskainitako atalean aurkituko dugu, bertan autoreok, Europan zabalduen dauden irudigarrien berri ematen baitigute, inongo demostrazio gogorik ez dutelarik, adibide mordoa besterik gabe plazaratuz. Hona hemen zenbait pasarte<sup>103</sup>:

*Apollo haserrearen gezi zitzukariek zabalzen zuten pestea greziarren artean; agudo eraiten zituzten gizonezko hil hurrenak Apollo-ren geziok, agudo emakumezko hil hurrenak Artemis-en jaurtigaiek; (...)*

*"Heriotza Aingeru" hori, bere jendea daraman "Herio" bera da. Langobardiarrak leienda batek dioenez, bi aingeru, bata ona eta gaiztoa bestea, lurralde hartan zehar ibili ohi ziren: "...Era berean izurrite honek Tizino hondatu zuen baita ere, eta zenbateraino hondatuko ote zuen, bertakoek mendi gailurretara eta beste eskualdeetara ihes egin ondoren hiriko plaza eta kaleetan belarrak eta fruta arbolak hazi zirela. Orduan argi eta ageri ikusi zuten askok aingeru ona eta aingeru gaiztoa gaeuz elkarrekin ibili ohi zirela hirian zehar, eta aingeru gaiztoak eskuan zeraman lantza edo zerakin aingeru onaren aginduz edozein etxetako atean zenbat aldiz jo, etxe hartako hainbat gizon hil ohi zirela biharamunean. Orduan norbaitek zera ezagutu zuen errebelazioz, alegia, "Ad vincula" izeneko Pedro Donearen basilikan Sebastian Donea martiriaren aldare bat jartzen ez zen artean iraunen zuela izurriteak. Eta izan ere, Sebastian Donearen errelikiak Erromaratu eta aldarea aipatu basilikan ezarri orduko aienatu zen izurritea".*

589 urtean Erroman Tiber-eko urek gainezka egin eta bertako anitz ero zituen izurritea zabaldu zenean, Gregorio Doneak Guruzpide solemnea iragarri, eta gizarte maila guztietako laurogei gizaseme ahozpepe jausi eta ziplo hilda geratu ziren elizan bertan; bere otoitzetik iratzaririk, "zera ikusi zuen, Dietrich-en etxearen gainean, eskuan ezpata odoleztatua mehatxari erakusten zuen aingeru bat. Ikuskizun horretan ezagutu zuen gizon santu hark Betiereko Aitak gizonei bere haserrea jakinarazteko bidaltzen zien igargaria".

*"Heriotza-aingeru" hauen antzera nordikoen Hel ere hor zehar ibili ohi da bere zaldiarekin, hots, kanposantuean agertu ohi den "Heriotza-zaldiarekin".*

Agustin Doneak, *"De verbo apostol", 168-*, diruzko konponbidea onartzen duen emakumezko narratzari baten irudiaz marrazten digu pestea:

*"Denok kartageraz ez dakizueenez latinez esango dizuet Kartago-n dugun atsoitz zaharra: Pesteak txanpona nahi duela? Bi eman eta hor konpon!"*

*Justiniano-ren garaian peste handia zabaldu zenean unti dirdaitsuak ikusi omen ziren itsasoan, haietan bururik gabeko gizon beltzak zeudelarik. Haiak nora, pestea ere hara atzetik.*

*Egungo greziarrek, etxez etxe eta hiriz hiri dabilen emakume itsu bat bezala irudiratzen dute pestea. Hark ikusten duen guztia hil zorian jartzen da. Halabaina beti hormak ukituz itsu-mutsuka ibili behar duenez, inork gelaren erdian geldiarazten badu, honek ezin du hura kalte-tu. Beste ele zahar baten arabera, pestea, hiriz hiri hondamena eragiten dabiltzan hiru emakume izugarriren itxura hartzen du; lehenak paper handi bat darama, bigarrenak guraizeak, eta hirugarrenak erratza. Akabatu behar duten biktimaren etxean hirurak elkarrekin sartzen dira: Lehenak haren izena idazten du bere erregistroan, bigarrenak guraizeekin zauritzen du, eta hirugarrenak erratzaz garbitzen du etxea gorpua eramanez. Hona hemen Parka, Furia edo Eumenide-ak heriotza jainkosa bilakaturik.*

*Polita da benetan "bossen Elliant" deritzan eresi bretoaia, -"Elliant-eko pestea", Villemarqué I 46-51-.*

*"Errotari batek, -dio testuak-, zuriz jantziriko andre bat, makila eskuan, ibai ibian jarririk beste aldera nahian ikusi omen zuen. Zaldi gainean jarri andrea eta ibia iragoz beste ertzerara eraman zuen. Orduan zera esan zion andreak: -"Gazte, ba al dakizu nor iragoarazi duzun? Pesteak naiz ni; laster burutuko dut nire itzulia Britainian zehar, eta orain Elliant-eko elizara noa mezetara, eta nire makilaz ukituko dudana hil egingo da agudo, baina zuk eta zure amak ez duzue kalterik izango". Eta honela gertatu zen, hiriko lagun guztiak hil baitziren, alargun txiroa eta bere semea ezik".*

*Herri kanta baten arabera errotariak bere sorbalden gainean eramaten du pestea. Etxe batetik bakarrik bederatzai ume ehortzi zituzten, eta kanposantua harresitaraino hilez gainezka bete zen.*

*"Kanposantuaren hurrean haritz bat bada, eta haren muturrean zapi zuri bat loturik; Pesteak denak eraman zituen".*

*Azkenik, pestea uxatzeko bidea kantutan aipatzea izan zen. Honek bere izena ezaguna eta zabaldua ikusi zuenean, sekula ez itzultzeko alde egin zuen. Ibia iragozko eskabidearen motiboa, Bertha jainkosa eta beste izaki harrigarrien istorioetako berbera dugu.*

*Lituaniar Giltine, izurrite edo heriotza jainkosari buruzko leiendak xehetasunez nahi nituzke ezagutu. Errukirik gabe itotzen ditu jendeak: "Kad tawe Giltine pasmaugtu!" (Pesteak itoko al zaitu!), birao arrunta da. Baina pestea Magila edo Diewe (jainkosa) besterik gabe deritza baita ere lituanieraz, eta jendeak honela egiten du birao halaber: "imma ji Magilos, imma ji diewai!" (...).*

*Zuriz jantzirik eta trikimako gainean zebilela, bidean topo egindako gizon bat hartu eta haren sorbaldaren gainean Errusia osoan zehar ibiliko da honela jezarririk. Zamadun hau izango da hildako guztien artean bizirik*

103) GRIMM (anaiak). "Deutsche Mythologie". Berlin 1876 / 989hk.

iraunen duen bakarria. Hiriz hiri eta herrixkaz herrixka eramaten du gizonak, eta bertan denak hiltzen dira hark bere zapiaz eraso egiten duenean, eta jendeak oro iheska doaz haren aurrean. Pruth-en zamadunak atsoa itoztea pentsatu zuen eta ibaira jauzi egin zuen, baina hau luma bezain arin jaiki zen eta mendi basotsuetan barrena sartu zen bizkor, gizona hondoratzen zen bitartean. Beste kontakizun batean Dzuma deritza (errus. serb. Tschuma), eta bera nagusi dagoen artean herriak antzu geratzen dira, oiloak lokatu eta kukurruko jo ezinean, eta zakurrek ez dute zaunkarik egiten, Pestearen urrutira usnatzeko baitute eta bertan marmarreen hasi. Nekazari bategi, zuriz jantzirik, ileak haizean inarrosirik, harresi garai baten gainean ikusi zuen jarririk, zakur zaunkarien beldurrez zurubian gora bizkor egiten zuelarik. Agudo hurbildu zen eta zurubian eraitsi egin zuen Pestearen behean zakurren artera eror zedin; Pestearen mendeko mehatxua botaz aienatu zen. Dzuma hau gurdi baten gainean basoan zehar, fantasmak, hontzak eta hontzurik lagun dituela ibili ohi da baita ere zenbaitetan: "Homen" du izena fantasma prozesio honek. Woycicki I, 130-133, 159-163.

Halere Pestearen Urte berri eguneraino iraun zezakeen bakarrik, eta orduan itzultzen ziren ihes egindakoak hutsik utzitako etxeetara, baina hauetan atetik sartu beharrean leihotatik sartzen ziren. JOHANN PARUM SCHULZE wenden-dar nekazariak kontatzen diguna XVII. mendearren erdialdean edo gertaturikoa dugu:

"Luchau-ren ondoan zegoen Kuffalen auzoan bizi zen Niehbur izeneko gizon bati, hiritik abiatu zelarik, gizon bat hurbildu eta oso nekatua zegoela esanez gurdi gainera igotzeko baimena galdetu zion otoika. Hans Niehbur honek nora ote zihoan galdegin zion ezezagunari wenderaz, –gaur egun oraindik hau baita bertan erabili ohi den hizkera–, gurdira igotzen laguntzen zion bitartean. Hau ordea isilik geratu zen hasieran. Niehbur delakoa ordea, mozkorra baitzegoen, gero eta ozenago eta ausartago aurrera galdezka ekin zion. Ezezagunak honela hitzegun zion bere burua ezagutzera emanez: –"Zure auzoraino lagunduko zaitut, oraindik ez naiz bertan izan eta, ni Pestearen bainaz". Orduan Niehbur hau otoika hasi zitzaion bizitza salbatu nahian, eta Pestearen zera jakinarazi zion, bera eta gurdi auzoaren aurrean geratuko zirela, eta hark bitartean arropa guztiak erantziko zituela larru gorritan geratu arte erabat, gero bere laratz-kakoa hartuko zuela eta egunsentian etxetik atera eta etxea inguratu beharko zuela lasterka, eta orduan etxeko karrera azpian ehortziko zuela: –"Norbaitek sarraraziko ahal nau barrera, –esan zuen Pestearen–, gaixoen arropetan dagoen hatsaren bidez". Gure Niehbur-ek ordea, Pestearen gurdi gainean auzotik urrun samar utzi zuen hark ezer somatu ez zuela, gau iluna baitzen; gero laratz-kakoa hartu eta zeharo larru gorritan auzune osoaren inguruan lasterka aritu ondoren, zubiaren azpian iragazi zuen burdina, –1690. urtean neronek ikusitako burdina, zubian lanak egiten ari baitziren, herdoilak ia erabat janda bazegoen ere–. Gure Niehbur hau bere zaldi eta gurdiaren bila itzuli zenean honela mintzatu zitzaion Pestearen: –"Hau jakin izan banu ez nizukeen hori guztia jakinaraziko, dena oker ulertu eta auzune osoa itxi egin baitidazu". Gure Niehbur

auzune aurrera heldu zenean, zaldia gurditik askatu eta bertan etzaten utzi zuen. Auzunean ez zen batere izurrite gaitzik sortu, baina inguruko auzune guztietan gogor eraso zuen izurriteak.

Suediar leienden arabera Pestearen hegoaldean heldu zen herri batera, eskuan zeraman eulzkailu (rifva) batez igurtzitzen iharduten zuen mutil koxkor baten itxurapean, eta herriko aurreneko etxearen aurrean geratu ohi zen. Hau gertatzen zenean etxeko bat edo beste bizirik irten ohi zen, eulzkailuak ez baitzuten denak berarekin eramaten. Hurrengo herrira heldu zenean ordea, Pestearen eskatila (pestflicka) jarraiki zitzaion atzetik. Honek erratza pasatzen zuen atarian eta orduan denak hiltzen ziren herrian. Halere, nekez ikus ahal zitekeen, eta dena den, egunsenti aldera beti.

Vestergödland-en "digerdöd" izurritearen saihebidetako gisa giza oparia egitea erabaki zen, eta bi mutiko txiro eskale propio horretarako ekarri eta bizirik lurperatu behar zituzten. Hilobia agudo hondeatu, artean goseak zeuden mutikoei sukaldetik gantza ekarri eta zuloan patxadan jarri zitezten utzi zituzten. Jaten ari zirela jendea goran zain lurra palaz astinduz.

"Aj, –deiar egin zuen mutikoetarik txikiak aurreneko palakada gainean bota zietenean–, lurra erori da nire ogi gantzazatuan". Lur pila osoa bi umetxoetan gainean bota zuten, eta ez zen haiei buruz geroztik ezer entzun (Aszelius 4, 181).

Badiraute gainera umeen hormaperatzeak eraikitza berrien oinarrietan, eta behi gaztearen oparia txahal heriozte garaietan.

Norvegiar berriz honela irudiratzen dute "Pesta", alegia, andre zahar zurbila, lurraldean zehar eulzkailu batez ("rive", bihia lurra eta saraleetatik bereizteko erabilitako tresna horztuna), eta erratz ("lime") batez itzulian dabilena; eulzkailua erabiltzen duenean zenbait gizakik aurrera bizirik iraute erdiesten dute, baina erratzaz baliatzen den lekuan ordea amaren ume guztiak hiltzen dira. Behin gizon batek ur txiki bat iragotzen lagundu ondoren mesedearen ordaina erreklamatu zion, eta hark zera erantzun, "zure etxeko aulkian aurkituko duzu ordaina", eta etxera heldu orduko gaixotu eta bertan hil zen. Sarritan soineko gorriaz ere agertu ohi da, eta begiratzen diona izuak hartzen du.

Serbiarrentzat Kuga benetan bizi den emakumea da, belo zurietan bildurik askok ikusi eta bakar batzuk garraiatu dutena. Gizasemeren bat mendian edo bidean topatu eta bertan esaten zion "Kuga naiz ni, beraz garraia nazazu aurrera!" Gizonak hura lepatxokoka hartu eta hark nora nahi, hara eramaten zuen batere nekerik gabe. Kuga-k, pestearen alegia, itsasoaz bestaldera bizi ohi dira, baina Jainkoak igortzen ditu gizonak gaiztakeriaz oge asko egiten dituztenean. Pestearen jo eta eman dabilen bitartean ez zaio Kuga esaten, Kuma (amordea) baizik, atsegin izan dakion. Orduan inor ez da ausartzen gauean ontzi zikinak garbitu gabe bertan uzten, zeren sukaldetan sartzen baita gauez, eta halakorik ikusiz gero plater eta goilare guztiak garbitzeari ekiten baitio (honela etxean luzaro geratuz), zenbaitetan gainera urdaiak ganbaratik eramaten dituelarik. (...).

*Eslobeniarrentzat ganadu izurritea (Kuga) txahal pin-toa da. Honek bere marruez akabatzen omen ditu idi eta ardiak. Deabruak esana omen da Kuga-ren aurka ekinbide bat baino ez dagoela, aitzurra eta aitzurra (ehorzketa alegia). Suomiar kantu batek, pestea Iparralde iluneko burdin mehatzetan haratonean ibiltzera agudo joateko konjuratzen du: Horretarako, berarentzako eta gurdirako zaldiak eman behar zaizkio. Rutto du izena, "bat batekoa" alegia.*

*Niederdeutschland-en, etxeetan dagoen jendeari leihotik begiraten dion Heidmann delakoari buruzko ele zaharrak ditugu: Honela begiraturikoa, urtebete eta egun baten buruan hilko da; hain zuzen ere honelaxe aritzen dira begiraketan Bertha, eta (gizonezko) Heriotza. Beste horrenbeste kontatzen da Tirol-en heriozte garaian inguruan ibili ohi den fantasmari buruz: Hau nongo leihoan begira jarri, bertako jendeak hilko dira.*

*Lusazia-n, Smertnitza, zurizko itxuraz narratzari ibiltzen omen da herri inguruetan. Zein etxetara bere urratsak zuzendu, hartan izanen da gorpua aurki. Etxean bertan, ateak joaz eta oholak jaurtiz ematen du ezagutzera bere bertan egotea. Hil hurren daudenen dardarak, haie-taz Smertnitza jabetu izanaren igargarri dira.*

Izan ere, pasarte hauek aurreko testuak erakutsitakoa baino panorama zabalagoa azaltzen digute. Apollonen gezien irudia, italiar ereduko San Sebastian martiriaren erreliekien babespidetasunaren jatorrian legoke agian, geziez josita suertatu baitzen hain zuzen ere martiri ospetsu hau. Honela izanez gero, pestearen greziar-erromatar irudiragarri zahar baten aurrean geundekede. Bestalde, testu berak aipatzen dizkigun aingeruak tradizio biblikoetatik eratorritakoak ditugu seguru aski. Gainontze-koari dagokionez, zenbait irudiragarri bitxi ikus ahal izan dugu, hala nola, arraunlari beltzekiko txalupak Bizantzion, suediar mutil koxkor polita, Kartago-ko emakume narratzaria, Parka jainkosetatik eratorritako greziar irudiragarri emakumezkoak, gizonezko itxurapean datorkigun peste eredu bakana<sup>104</sup> Lüneburg-eko bailaran, eta azien-den gaitzen sorburutzat jotzen den txahal pintoa Eslobenian.

Baina bitxikeria ugaritasun honek azken buruan, zuriz jantzitako emakumearen irudiragarriaren garrantzia azpimarratu baino ez du egiten, hau nabarmentzen baita guztien artean, europar folkloreko pestearen irudiragarri-rik tipikoen eta ugariena bezala.

Azken testu hauen azalpenari esker, europar ortodoxia izurriteei dagokienez zertan den finkatzea, eta ikergai dugun lainoaren hasieratik susmaturiko urritasun eta arrarotasuna baieztatzea erdietsi dugu. Halabaina laino hori ez da erabat ezezaguna GRIMM anaientzat, horren eredu bat plazaratzen baitute beren atal horretan, azken-erako gorde dugun, eta orain beraz beste bi erreferentziekin batera azaltzen dugun eredu hain zuzen<sup>105</sup>:

104) Seguru asko heriotzaren kontzeptu gizonezkoa ("der Tod") eta pestearen kontzeptu emakumezkoaren (die Pest) arteko inter-ferentzia.

105) GRIMM (anaiak). Aip. id. 990 orr.

*Voigtland-tar albiste baten arabera, Peste, laino itxura hartzen duen lurrin urdina bezala agertzen da. (Jul. Schmidt 158 orr.)*

*Honek, izurritea ekartzen duen laino sargoritsua gogorazten digu, eta lurrin urdinak berriz, ostots jainkoaren sua dakarkigu burura (147 orr.).*

*Behin Odenwald-en zabaldu zen pestea, eta gartxo urdin baten itxurapean agertu zen orduan Erbach-eko eliza nagusiko sakristian, bertan hormaperatua izan zelarik. (...).*

*Halaber, 1709. urtean pestea kanposantuko ezki baten zulora behartu zuten konjuroz Prusia-ko Conitz hirian eta bertan horretarako propio egina zegoen eta zuloa doi ixten zuen zipotza ezarri zuten. Harez geroztik ezin izan du berriro lurralde haietan bere burua erakutsi (TETTAU & TEMME, 222 orr.).*

Hiru erreferentzia hauen artean Voigtland-ekoa (izen berorrez gaur egun azaltzen ez den prusiar eskualde hau Oder ibaiaren erdialde inguruan nonbait egon behar da han hemenka bildu ditugun datuen arabera) dugu zalan-tzarik gabe gure izurrite lainoen korpusean sar dezakegun bakarra, honen bitartez, eredu kopurua hirura igoz. Testuko hitzetan, *laino itxura hartzen duen lurrin urdina*, argi eta garbi dago lurrinezko laino bat dugula ("Blauer Dunst in Gestalt einer Wolke"), hain zuzen ere aurreneko aldiz Herbeheretan aurkitu dugun margo urdina berriro ere plazaratzen digun lurrin lainoa. Tamalez, GRIMM anaiek honi buruz adierazten duten erreferentzia aurkiezina gertatzen da, JUL. SCHMIDT delako horren idazlanaren izenburuak huts egiten baitu, eta beraz, bertsio jatorraren ezean, plazaraturiko lerroen informazioaz etsi beharko dugu.

Odenwald eskualdean hondamena eragin ondoren azkenik Erbach-eko elizako sakristiako hormaren barnean harrapaturik geratzen den pestea, hiru ezaugarri direla eta, hurbiltzen zaio holandar Twente-ko pesteari: Urdina da, txikia da, eta itxuraz, indargabegaria da. Halabaina, ez zaigu lurrin laino itxurapean agertzen, gartxo itxurapean baizik, eta bestelakotasun hau nahiko argia da gartxo urdina gure ikerbideko bazterrean uztera behartzeko, gure ikergaiarekin loturaren bat ukanen duela susmatzen badugu ere.

Hirugarren ereduak Prusia-ra garamatza berriro, eta bertan ikusten dugunez, pestea ezki baten zuloan sartu eta eginkizun horretarako propio moldaturiko zipotz batez zuloa itxi ondoren Conitz-eko eskualdean ez dute harez gero sekula izurritearen berri ukan. Harrapatze eta ixte teknika Hölterhof-en ikusi dugun berbera da, eta horren emaitza berriz, De Lappe etxeko jaunak erdietsi duen berbera: Sekula izurritearen berririk gehiago ez ukatea eskualdean. Badirudi gure dossierrerako laugarren eredu dugula aurrean, baina osteria ere, garrantzitsuenak huts egiten du kontakizun honetan: Lainoaren irudiak.

GRIMM anaiek eskaintako erreferentzia nahiko argia da kasu honetan, eta jatorrizko bertsioraino heldu ondoren, bertan ere lainoa ez dela inon ageri ikusten dugu<sup>106</sup>:

106) TETTAU & TEMME. "Die Volkssagen Ostpreussens, Lithauens und Westpreussens". Berlin 1837 / 222 orr.

1709. urtean pestea Prusia-n larri gogor erasotzen ari zelarik, heldu zen bada Conitz hirira ere, bertan anitz jende eraman zituelarik. Bertakoak zeharo hestu eta etsita zeudela aurki den denak hilko ote ziren, arrotz bat agertu zen, pestea berak egotziko zuela esanez. Bere eskaintza onartu egin zuten noski, eta honek zera agindu zuen, alegia, ebanjelisten kanposantuan zegoen ezki handi batean zulo bat egitea, eta hau hestu-hestu itxiko lukeen zipotza paratzea. Orduan prozesio arranditsua antolatu zuen kanposantuan, bera prozesioburu jarririk, pestea zuhaitz barrura egotzi zuen, bai eta barnean zegoela zipotza bizkor sartu ere, inoiz bertatik ateratzea debekatuz, honela pesteak bere espetxetik ihes egin ahal ez zezan. Eta izan ere, harez geroztik ez da gehiago Prusia-n agertu. Zuhaitzak berriz, hortxe dirau egundaino, bere zipotza bertan duela.

STITH THOMPSON-en murgildu, eta KRAPPE eta GRIMM anaien artikulua azaldu ondoren, izurrite lainoari buruz daramagun inkesta honen lehen balantzea egiteko garaia dugu.

Bi berazko ditugu oinarri sendoetan finkaturik: (1) Zuriz jantziriko emakume baten irudiaren nagusitasun nabarmena europar irudirago folklorikoko pestearen irudigarrien artean; (2) Bila gabiltzan irudigarriaren bazterrekotasuna, bi eredu baino ez baitugu kausitu Euskal Herriatik kanpo, –ziklo berekoa litekeen hirugarren eredu baten zalantzarekin oraindik, Conitz-ekoarekin alegia–. Azken berazko honi lotuko gatzazkio batik bat, guretzako interesgarriena baita, izurrite lainoaren jatorriari dago-kion heinean.

Lehen inkestak burutu ondoren agerian ipinitako motibo honen urritasun nabarmenak, eta beraren ereduak marrazten diguten banaketak, –bat Euskal Herrian, bestea Herbeheretan, eta bat edo agian bi, Polonian–, indoeuropar jatorriaren hipotesia atzera botatzen dute berehala. Horrelako hipotesiari eutsi nahi bagenio, eredu banaketa ikusirik, Segurako izurrite lainoa euskaldunek herri germaniarrengandik maileguan harturikotzat jo beharko genuke. Honelakorik, Erromako inperioa jausi ondorengo germaniar senitartean inbasio garaian bakarrik gerta liteke, –euskal-germaniar ukiturik lehenago ez dagoelako–, hots, mailegu berantiarra litzateke. Baina berantiaritasun hau kontraesanean dago argi eta garbi motiboaren urritasunak eta arrarotasunak adierazten diguten zalantzarik gabeko aspaldikotasunarekin. Eta dena den, hipotesi honek ez luke argituko zergatik atxiki dioten euskaldunek bazterreko irudi honi, germaniarren arteko irudigarri nagusiari, –zuriz jantziriko andreaki–, batere jaramonik egin gabe, honen eredurik ezin baita bat bera ere aurkitu gure folkloren.

Azkenik, eta beti eredu banaketari begiraturaz, germaniarrengandiko maileguaren hipotesia, –eta areago, edozein indoeuropar gizarteari egindakoarena–, zokoratzea behartzen gaituen argudioa zera da, Euskal Herriatik kanpo lehen izurrite laino eredu aurkitzeko ibili behar den tartearen luzea. Beste hitzetan esanda, motibo horren eredu huts egitea Euskal Herria inguratzen duten herrietan, euskaldunek jasaniko indoeuropar eraginaren jatorburua diren herrietan hain zuzen.

Amaiera gisa labur esanez, hiru eredu bakarretaz hain hedadura zabaleko hesparrua marrazten duen banakera honek, garai batean hagitz zabalduriko eta ondoren gehienek ahazturiko irudigarri baten izana adierazten digu. Beste ezein hipotesiak ezingo lituzke ulerbideratu, motiboaren arrarotasuna alde batetik, eta iraun ahal izan duten hiru ereduak mugaturiko hesparruaren zabala bestetik.

Konklusioa hortxe bertan dugu, gure ikerlanak hasi besterik egin ez baditugu ere. STITH THOMPSON aurkibidean eta KRAPPE eta GRIMM anaien artikuluetan egindako kontsultek, bota berri dugun hipotesiari eustea zilegitzen dute, hiru idazlanok aski baitira gaiari buruzko ikuspegi orokorra osatzeko.

Halere, izurritei buruzko literatura ugaria da, eta aurrekoen ondoan lerrotzeko laino eredu berriak aurki daitezkeelakoan, Paris-eko Liburutegi Nazionalen esku-ragarri dauden pesteari buruzko idazlan zahar ia guztiekin, lista bat osatu dugu. Gero, idazlan hauek eskuarki pesteari buruzko beste idazlan zaharrago batera, edota fantasiaz eta bitxikeriaz beteriko aspaldiko kronika eta anale zaharretara bidaltzen gaituzte, bertan, garai haietako leiendazko pesteekin batera izan ohi ziren agerkari harrigarrien berri ikasteko. Guztiak bilduta, hirurogei pasa tratatu eta kronika zaharrek osatutako bibliografia kontsultatu dugu. Hona lan horren emaitzak.

Izurrite literaturazko hain korpus zabala aztertu ondoren bat hartzen duen lehen inpresioa, berriro ere, gaitza daraman lainoaren irudiaren urritasun nabarmena da. Izurritei loturiko irudigarriak, –iragartzaille gisa agertzen direnak soil soilik, nahiz izurritearen eragile edo sorburu zuzentzat joak direnak–, anitzak eta ezberdinak agertzen zaizkigu literatura horretan zehar, baina barietate honek ezingo du halere gure motiboa beste anitz horien ondoan agerrarazi. Honetaz gain, gure lainoari hurbiltzeko edozein saio alferreko bihurtzen duten zenbait ezaugarri jantzirik agertzen zaizkigu irudigarri hauek.

Baina utz ditzagun alde batera alde aurreko komentarioak, eta gatozen ikustera aipatu literatura horretan batzuek beste maizen kausi daitezkeen irudigarri moten erakusgarri bikain ditugun zenbait deskribapen. Hona lehenik lehen, Frantzian VI. Mendean gertaturiko bi izurriteren berri. Auvergne eskualdean dugu lehena<sup>107</sup>:

*K.O.go 566 urtean, izurritea Auvergne-an sartu aurretik, agerkari harrigarri hurrenkera batek beldurturik utzi zuen eskualde osoa. Hiruzpalau argi dirdaitsu bikain eguzkia inguratuz agertu ziren, eta honek berriz eklipse ia osoa jasan zuen Urrian, ilun, koloregabea, eta zorro baten itxuraz azalduz. Ortzia ere suak hartuta zegoela zirudien, eta anitz igargarri bitxi ikus ahal izan ziren.*

Eta Avignon-en bigarrena<sup>108</sup>.

*Avignon inguruan, zerutar agerkari harrigarri zenbait, K.O.go 590ean eraso zuen izurritea iragarri zuten.*

107) CRAWFURD. "Plague and Pestilence in Litterature and Art" 1914 / 86 orr.

108) Ber. 87 orr.

Argi batek argitzen zuen Lurra gauez, eguerdikoaren pareko. Suzko bolak ikusi ziren ortzia zeharkatzen gauez. Lurrikara bortitza sentitu zen egunsentian Ekainaren erdi aldera. Eguzkiak ia eklipse osoa jasan zuen Abuztuaren erdian. Udazkeneko ekaitz eta euri ugariak ibaiak gainezka jarri eta uholdeak ekarri zituzten.

Hona berriz jarraian XII. Mendeko Ingalaterran azien den gaitz baten aurreko agerkari harrigarria<sup>109</sup>:

1131 urtea.– Urte honetan, Eguberri ondorengo ilargi betean, lehen loaldi barnean, ortziaren iparreko erdia sutan bailegoen agertu zen;...; hau, Urtarrileko Idus-aren aurreko 3.ean gertatu zen. Urte berorretan, sekula ezagutu edo entzun ez bezalako izurrite eraso zabaldu zen animalien artean Ingalaterra osoan zehar.

Gatozen berriro Avignon-era, bertan Peste Beltzaren jatorriari buruz aurkitzen dugun komentario batek agerkari harrigarrien korpua hornitzeko irudi berri zenbait baitakar. Testua, "Lettre d'Avignon" delakoaren pasarte bat dugu, gutuna gorde den Flandria-ko kronika bilduma zaharretik aterata<sup>110</sup>:

Alegia, India nagusiaren ondoan, Ekialdeko lurralde-etako eskualde batean, gertakari beldurgarri eta erauntsi izugarri batzuk hiru egunetaz uholdeen menpe jarri zutela aipatu eskualdea.

Lehen egunean, igelak sugeak, muskerrak eskorpioiak eta pitzia sakratu hauetariko beste asko bota zituen; bigarren egunean ostotsak egon ziren entzungai, eta oineztarri eta tximistak bota zituen tamaina itzeleko harriarekin batera, ia gizon guztiak akabatuz, txikiak nahiz handiak; hirugarren egunean, ke kirastua zerion sua jauzi zen ortzitik, inguru haietan oraindik bizirik zirauten gizakoz eta animaliak oro erre eta hiri eta kanpamendu guztiak kiskali zituelarik. Erauntsi hauen ondorioz eskualde osoa kutsaturik geratu zen, eta aipatu hegoaldeko eskualdetik atera zuen haize kirastua zela bide, kostalde osoa eta inguruko lurraldeak oro kutsatu ziren halaber, eta gero eta kutsatuago daude, eta honela aurrera mugituz doa itsasertzera hurbilduz, zenbaiten ustetan hori baita Jainkoaren gogo.

Peste Beltzaren inguruan beti ere, ADRIAN PHILLIPPE doktoreak, ikusi berri duguna bezain barrokoa den deskribapen berri bat eskaintzen digu<sup>111</sup>:

Euritea bakarrik aldera dakiokkeen katastrofe itzel hau, zenbait presajio ilunek iragarri zuten hura gertatu baino zerbait lehentxeago. Franja ihetxezko lainoetatik euri jasa ikaragarria bota zuen sei hilabetez etengabe. Zenbait bailaratan durunda hots luzeak entzun zituzten lurpetik zetozela, eta lurrikara beldurgarriek pitzadurak sorrarazi zituzten lur azalean.

Kiratsa higuinagarria zerion suzko meteoro batek eguratsa goialdetik oldarturik Ipar Asiako eremuak ku-

tsatu zituen. Frantzia suzko globo batek eguzkiarenaren adinako dirdaia sorrarazi zuen ortzian. Itxura zurbileko astroa, kara beltzeko kometa, bere parabola beldurgarria marraztu zuen Ekialdeko ortzian. Azkenik, ustekabeko topaketa sideralak gertatu ziren, eta gure sistema-ko planeta nagusiak, bakoitzaren abiadura ezberdina zela eta, bateraturik gertatu ziren beren orbita itzelen planoan gainean.

Argibide historiko itxuraz dabilizan deskribapen hauen azpian gorderik dagoen mitologiak, izurriteen ekinera mugatu eta erabakitzen dituzten hiru ezaugarri nagusi ditu. Lehenbizi nabaritzen duguna zera da, nolabait esateko izurriteok ez dutela beren nortasuna edo sena berezirik: Ez dira inoiz bakarrik agertzen, baizik eta alde-rantziz, beti anitz lagunek inguratuz, –honelako tradizioak asmatu dituztenen irudimenean noski–, beren gortea edo osatzen duten anitz agerkari harrigarrietaz lagunduz. Ondoren igar dakiekeena zera da, lagun dakartzaten parafernalia hauek, izurrite berak adina garrantzia duten agerkari ikusgarri eta katastrofe latzak direla: Eklipseak, ortziaren margo aldaketak, lurrikarak eta erauntsiak, azken testuotan kausitu ditugun gertakari hauetako batzuk dira. Hau guztia, aipaturiko aurreneko puntuari lotzen zaio, izurritea, katastrofe eta gertakari harrigarri hurrenkera sinesgaitz baten maila bat baizik ez den heinean. Eta azkenik zera azpimarratu beharra dago, izurritea eta bere aurretik izan diren gertakari harrigarrien arteko lotura ez dela inoiz zuzen eta berehalakoa, –ez eta hurbila ere esan genezake–, baizik eta diferitua. Harrigarri eta katastrofeak ez dakarte hurrean eta berehala pestearen sarrera, eta tarte hori aldiz, zenbait aste edo hilabetetako izan daiteke. Tarte honen zabala, azpian datzan teoria katastrofezalearen ondorioa baino ez da, honek ez baitu lotura zuzenik ikusten harrigarriak eta izurritearen artean, denak egongaitzasun kosmiko egoera beraren ondorioztat jotzen dituelarik.

Beraz, ez da bakarrik iragartzaile harrigarrien artean nagusi diren irudiragarri hauek gure lainoaz edo antzeko zerbaitetaz deus ere ez esatea, zeren gainera, irudiragarri hauen ezaugarritapena gure gandu lainoarenari kontrajartzen baitzaio aurrez aurre eta zuzen zuzenean, elkarren arteko inolako loturarik gabekoak direla argi eta garbi erakutsiz: Laino marismea irudi ezin apalagoa dugu, beti bakarrik agertzen dena, eta bere agerpen soilak izurritea zuzenean eta berehala sorrarazten du; honen aurrean berriz, behatu berri ditugun harrigarriok hagitz nabarmen eta ikusgarri dira, elkarren hurrean eta elkarri loturik agertu ohi dira, eta ez dira gainera izurritearen sorburu zuzena, honen alboko lagunak baizik, den denak sorrarazten dituen kosmosaren egongaitzasun egoera orokorra baita, izurritea egoera horren azken buruko ondorioa baino ez delarik. Beraz zera dugu, bakartasuna, soiltasuna, eta eraginkera zuzena alde batetik, eta bestaldean berriz, aniztasuna, ikusgarritasuna, eta albokotasuna. Izan ere, ezberdinago nekez izan daitezkeen bi irudirabide.

Izurrite iragartzaile harrigarrien bideak, ez gure lainoari hurbil lekiokkeen irudiragarrikeri erakutsi, ez eta gure

109) J.A.GILES. Aip. id. 1131 U.

110) R. HÖENIGER. "Der Schwarze Tod in Deutschland". Berlin 1882/137 orr.

111) A. PHILLIPPE. "Histoire de la Peste Noire (1346-1350)". Paris 1853 / Xh.

ikergai horri buruzko argibide interesgarriak, –honen urritasun eta arrarotasunaren konstatazio berria, eta honekin zer ikusirik ez duen irudirabide baten nagusitasunaren froga salbu–, eskaini ez digunez gero, beste bide batean barrena saiaturako gara orain aztarna bila, hain zuzen ere, izurritearen eragile zuzentzat jotzen diren irudiragarrien bidean barrena.

Gure ikerbidearen azken urrats honen aurretik, ohar orokor bat egin beharra dago erabiliko ditugun testuen berezitasunei buruz, eta hauetatik ateratzen diren ondorio nagusiei buruz halaber. Gure inkestarako aztergaiak pesteari buruzko tratatu zaharretan dauzkagu, eta oinarriko datuak horietan bildurik, joan den mendean idatzitako lan zientifikoagotan. Hots, esku artean ukanen duguna, medikuntza literatura izanen da, helburu zientifiko batera zuzendurikoa beraz, bertan, antzinako eta folklo-reko irudi, datu, argibide eta lekukotasunak, izurriteen jatorburua eta hedabideak finkatzen saiatzen diren teoria zientifikoen arabera ulerbideratu nahi direlarik. Tratatu hauek argitaratu ziren garaiko izurriteen garaiko ezjakinkeriak zera dakar ondorioz, alegia, idazlan hauen mamia mitologiazkoa izatea nagusiki, baina aldi berean, bertan garbi agertzen den ardura zientifikoa dela eta, logika apur bat erakuts ez dezaketen irudiragarri mitologiko guztiak idazlanetik kanpo geratzea bazterturik, gutxietsirik. Beraz, mitologia kausitzen dugu bertan, baina ez izurriteen inguruko mitologia osoa, garaiko zientzilarien teorien laguntzeko irudi baliagarriak ekar ditzaketen irudiragarri mitologikoak bakarrik baizik. Irizpide honen lehen emaitza, zuriz jantzirik emakumearen irudiaren ia erabateko aienatzea dugu, ez baita, esaterako, honi buruzko batere erreferentziarik kausitzen ahal. Lehentxeago azaldu ditugun garrantzia eta hedadura nabarmeneko irudiragarri hau, hagitx noizbehinka baino ez da literatura honetan agertzen, eta aipatzen delarik ere, idazleek gutxietzen duten herri sineskeriaren eredu gisa aipaturiko da.

Kanporatze honen emaitza, pestearen eta orokorki izurriteen jatorriari buruzko tradizio zehatz eta zabal baten hutsa nabarmen ageriratzea da. Huts honek, testu hauetan izurriteen ulerbide fantastikoen ugaltzea dakar ondorioz. Hauetako zenbait azalduko ditugu ondoren, Peste Beltzak Italian eragindakoen berri honekin hasiz<sup>112</sup>:

*Italianrek, aideko sorburua eragoki zioten peste honi; Jainkoaren haserrean bilatu nahi izan zuten sorburu hori; baina sendagile eta fisikoez jatorburu apalagoa eman zioten. Batzuen arabera, lurpetik jalgiriko edo ortzitik jasutako su bat izan omen zen, mendebalderantz hedatuz ehun lekutan dena kiskali ondoren, –gizaseme, piztia, zuhaitz eta harri–, aire osoa kutsatu zuen ustelkeria sorrarazi zuena, eta, –gaineratzen zuten–, aire hori ortzitik elurra bezala jausten delarik, gizaseme lur eta mendiak erretzen ditu.*

Italian berriro, eta Peste Beltzaz oraindik ere, hona txikizioan laguntzera omen datorren eragile berria<sup>113</sup>:

*Hurakan batek itsasora bultzaturiko anitz oti, gero itsasoak kostaldera hilik ekarri eta bertan pilatuta zeudela, kutsu kaltegarria zerien,...*

Azkenik, XVIII. mendeko vienatarren herri teoriek irudiak luzatzen dizkigute gure dossierrera<sup>114</sup>:

*"Izurrite Arauak", Vienan separata modura argitaratuak izurrite honen garaian, izurriteari buruz herriak zuen irudi polita eskaintzen digute. Ezein sineskeriak ez zuen aldeko faltarik. Zenbaitek, Jainkoaren atsekabearen igar-garri ageritzat jotzen zuten. Beste batzuk berriz, airean edo janarietan zegoen lupua zela zioten, nonbait izarretan sortu eta hilobigileen gaiztakeriaz eta beraien probetxuz zabalduko lupua hain zuzen. Judutarrak ere tartean sartzen zituzten. Bazeuden baita ere jatorburua zen bait izarren berezian ikusten zirenak. Eta batzuk azkenik, gosetei, lurrikarak aske utzirik ke luputsuei, kometei, eta lehorteek bideraturiko xomorroen lar ugalketari eragokitzen zieten.*

Hiru testuotan erakutsirik sorburu hipotetikoaren barietateak, irudiragarri zehatz, hedatu, ezagun eta orokorki onartu baten ezaren egia ikusarazten digu. Hutsune hori bete nahian dabilen barrokismoa, –sute kosmikoa, airea kutsatzen duten milioika oti hil, eta lehortearen bidezko era guztietako xomorroen lar ugalketa horietan adierazten den barrokismoa hain zuzen–, Erdi Aroko europar kaletar kulturen izurriteen inguruko sinbologia finko baten ezaz mintzo zaigu, eta bide batez, pestea, orduarte garrantzia handiko arazo mitologikoa ez dela izan haientzat adierazten digu. Izarretan sortu, kometek zabaldu, edota lurrikarek askaturako lupuaren hipotesiek lehenago aztertu dugun teoria katastrofezalera garamatzate berriro, baina oraingo honetan agerkari horiek eta izurritearen arteko "sorburu-emaitza" motako lotura iradokitzen delarik.

Fantasia hauek guztien arteko kidetasun bakarra zera da, airearen kutsadura izurritearen hedabidez josten duen aurrustea. Ortzitik jasutako su batek, zenbait miloi otik eta lurrikarek askaturiko ke luputsuek batera duten ezaugarri bakarra zera baita, airea kutsatu eta zikintzeko bideak izatea, gaitza sortzei eta hedatzei lagunduz. Airean zeharko hedabidea dugu hain zuzen auzi honetako gakoa, bera baita erromatarren garaiez geroztik Europan gailen dagoen teoria zientifikoa.

CRAWFURD-ek egiten digu honen komentarioa, teoria honen greziar sustraiak ere aipatzen dituelarik<sup>115</sup>:

*"Gauzen Izaera" (De Rerum Natura) deritzan bere poema bikainean Lukrezio-k Atenaseko izurritearen deskribapen bat tartekatzen du, Thucydides-en kontakizuna latinezko hexametrotan emanaz. Bere ardura nagusia hori sartzerakoan zera frogatzea da, alegia, Izadiko agerkari nagusiak, –eta izurritea beraz, tarte–, bat datozela berak Demokrito eta Epikuro-rengandik onartutako atomoen teoriarekin. Izan ere Lukrezio-k izurritearen ulerbide atomikoa proposatzen du, aspektu nagusietan Asklepiades bere garaikidearen dotrinekin bat datorren ulerbi-*

112) J.P.PAPON. "De la Peste". Paris / 124 orr.

113) J.F.C. HECKER. (B.G.Babington-ek itzulia). "The epidemics of the Middle Ages". London 1846 / 14 orr., "a" oharra.

114) CRAWFURD. Aip. id. / 198 orr.

115) Ber., 60 orr.

dea hain zuzen. "Ikusezinari buruz, –dio, ikus daitekeenaren bidez bakarrik gogoeta dezakegu. Gure begiek ortzian behera lainoak jaisten eta lurrin eta lanbro zikinak lurretik gora jaikitzen ikusten dituzte. Gure gogoak berriz, zera tira dezake bertatik arrazoi faltarik gabe, alegia, izurritea ere ortzian behera lainoen bidez edo lur ureztatuegietatik gora jalgitzen diren lanbroen bidez zabaltzen dela. Hauetariko edozein eratan ere, atmosfera atomo zikinez kutsatu eta gaitza harturik geratzen da. Partikula hauek gure gorputzean sartzen dira gero, arnasten dugun airean, edota kutsatu dituzten jan edanen bidez, honela infekzioa sorraziz. Honelakoxea, –baiesten du–, izan zen Atenaseko izurritearen jatorburua".

Izurriteen sorburu hurbilei buruzko iritziak Lukreziorengan, Diodoro Siziliarra bere garaikidearengan aurki daitezkeenaren pare parekoak dira. Biongan, laino edo lanbro itxura har dezakeen hezetan bat dela bide, airea edo jan edanak gaitza harturik geratzen dira, honela birika eta urdailerako bideak zabal zabalik geratuz. Biongan haize kutsatu batek izurritea heda dezake: Lukreziorengan aire atsegina aire kaltegarri ordezkatuz; Diodoro-rengan berriz, airearen freskabidea eragotzi eta ondorioz sukarra eraginez.

Ikuspegi honen nagusitasunak bi ondorio berehalakoak ukanen ditu: Alde batetik, zuriz jantzitako emakumea bezalako eta antzeko irudiragarrien zokoraketa, eta hauek bezain folkloriko diren, baina aipatu teoria atomistaren hesparruan ongi eman dezaketen irudiragarri eta deskribapen guztien aintzat hartzea.

Hau noski, bila gabiltzan ganduzko lainoa azal dadin lagungarri izanen dela bistan dago. Baina beste aldetik, ortziko lainoak eta lur hezeetako lurrinak alde aurretik eta era arrazionalen izurriteen hedabidetzat jotzearen aldeko jarrera honek, anbiguotasuneko ziri bat sartuko digu ikerketa hesparruan, testuek erakutsiko dizkiguten irudi guztien artean gure motiboa kausitu eta ezagutzeko iharduna uste baino labainkor eta ilunago bilakatuko delarik. Honaino idoro ditugun hiru laino ereduaren deskribapenaren nahiz funtzioaren mailan beti agertu den koherentzia garbiak ahalezkoa egin digu, aurrerantzean ere okerrak saihesteko balio behar lukeen lainoaren argazki zehatz eta argia taxutzera. Halere, zenbait kontakizunetan gure lainoa ezagutzeko, eta beste zenbaitetan dauden imitazio txarrak arbuiatzeko batera zailtasunik izanen ez dela egia bada ere, honen adinako egia dugu halaber, zenbait deskribapenetako anbiguotasunaren kopariloa askatzea ezinezko lana gertatu zaigula. Testuak behatzen hasi aurretik, gogora ditzagun beraz berriz, gure lainoaren bereizgarriak, ez dezagun gero ortzian behera datozen lainoen, eta lur bustietatik gora jalgitzen diren lanbroen irudi orokorrekin nahasi.

Gure ikergaia funtsean zera da, margodun edo margobako ganduzko laino bat, behe samar irago edo geldirik geratzen dena, eta ikusten dutenek izurritearen berehalako erasoaren igargarriz jotzen dutena. Laino kokor hau beti bakarrik agertzen da, eta ez dago argi, gaitza bere baitan eraman eta airean kutsadura zabaldu, ala izurritea gidatu eta erakarri egiten ote duen. Dena den, izurritearen aitzinetik agertzen da zenbait ordutako alde-

az. Bere jatorburuari dagokionez, guk dauzkagun hiru albisteetarik ezeinek ez du horretaz deus ere aipatzen, eta beraz, irudiragarri hau asmatu eta zabaldu zuten jendeei axola izan ez zaien aspektutzat jo behar jatorriaren hau.

Oroimena honela freskaturik, zenbait laino eta lanbroen esku hartzeaz zabaltzen den zenbait izurriteren berri ematera etorriko gara. Hona lehenengo OVIDIO-ren albisteia Egina irlako izurriteari buruz<sup>116</sup>:

OVIDIO poeta, bere "Metamorfosiak" idazlaneko zazpigarren liburuan, Egina irlako peste ikaragarria deskribatzerakoan (ikus "Izurriteen Historia") honako sorburu hauetatik eratorritakotzat jotzen du izurritea: *Lurra, laino lodi, iluntasun eta bero sargoritsuz estalirik erakusten digu; hego haize erokorrak lau hilabetez izurritearen lurrina zabalduz; aintzira eta iturriak kutsaturik, airea lupuztaturik, eta eskualde osoa suge pozoitsuz beterik, antzinako herriari agitu bezala. Izurrite edo pesteak, zaldi, idi, mando, ardi, zakur, katu eta txoriei ere ekin zien lehenbizi, eta gizakiei beranduago. Heriotza bat batekoa zen, eta kaleak animalia eta gizakien hezurdurez leporaino beterik zeuden, eta izadi osoa garaiz aurretik gainbehera galitzen ari zela ematen zuen.*

Nahiko begibistako dirudi OVIDIO-k erakusten dizkigun izurrite lurrinak ez direla gu bila gabiltzan gauza bera, gure ganduzko lainoa zenbaitetan "lurrina" hitzaz deskribaturik aurkitzen badugu ere. Testuak aipatzen dituen lurrin hauek ez dute itxura zehatz bat hartzen, inork ez ditu ez ikusi ez eta ezereen igargarriz hartzen, beren eragina ez da berehalakoa, –hego haizeak lau hilabetez zabaldu baititu–, eta ez dira bakarrik ageri ekinean, sargorizko beroa, uren kutsadura eta narratzari pozoitsuen ugalketa bezalako beste eragilerekin batera baizik.

Txipreko irlan Peste Beltza nahasmendu orokor bategin batera datorrela ikusten dugu, izan ere noranahi heltzen delarik beti egin ohi duenez, baina orain arte ikusi gabeko agerkari berezi bat tartean dabilelarik oraingo honetan. Hona hemen ekinera burujabeaz diharduen eragile berri hau<sup>117</sup>:

*Txipreko irlan Ekialdeko Izurriteak jo zuen dagoeneko; lurrikara batek irlaren oinarriak astindu zituenean, berearekin batera berealdiko erauntsi izugarri baino izugarriagoak eraso zuelarik, morroi mahomazaleak ero zituzten bertako biztanleek, –haiek nagusi eta hauek menpeko bilaka ez zitezen anabasa hartan–, noraezean eta etsirik ihesari ekin zioten. Itsasoak gainezka egin zuen, untziak harkaitzen kontra txikiturik geratu ziren, eta gutxik iraun zuen bizirik, irla loretsu eta naru hau eremu zakar bihurturik utzi zuen gertakari izugarri haren ondoren.*

*Lurrikararen aurretik, peste haize batek halako usain luputsua zabaldu zuen, eta honen eraginpean askok bertan jota geratu eta oinaze latzak nozituz hil ziren.*

Peste haize hau ez da ganduzko laino bat, baina honaino ikusi ahal izan dugun ikur eta irudi sortara berri-

116) E. BASCOME. "A history of epidemic pestilences". London 1851. / 200 orr.

117) HECKER. Aip. id. 13 orr.

kuntza dakarten bi ezaugarrien jabe dugu, hauen bidez, ikuspegi funtzioari batetik, bila gabiltzan motiboari hurbiltzen zaiolarik: Irudiragarri katastrofikoan multzoan nabarmen zutitzen da figurazio independente eta burujabe bezala, heriotza zuzenean eta ganduzko lainoak bezain bat batean eragiten duelarik. Guk dakigula, hauxe dugu, ganduzko lainoetatik at, burujabetzaz eragiletasun zuzen eta eskusiboaz eta ekinera berehalakoaz horniturik dagoen irudiragarri bakarra. Deskribapenen mailako antziz eza, baliokidetasun funtzioariak, –kasu bakarra izateak areagoko garrantzia ematen dion baliotasun funtzioariak–, konpentsatzen du. Baliokidetasun honek, ikerlan honetan sartzea ahalbideratzen dio txipretar haize kutsatu honi, baina ez du halere, irudien mailako anzukerik ezean, bi motiboan arteko areagoko hurbilketa saioen bat bultzatzeko behar adina indarririk.

Izurrite lainoa ez bezalako izurrite hedabideak erakusteko, plazara dakarkigun azken testuak ez digu haize boladetaz hitz eginen, ondoren deskribatzen zaizkigun zenbait lanbroetaz baizik<sup>118</sup>:

"... lanbro trinko ikaragarria ikusi zen ortzian Ekialdean gora egin eta Italia gainera jaitsiz". (*Mansfeld Chronicle*, M. Cyriac Spanenberg-en idaztarian, 287. atala, 336 orr. Eisleben 1572).

Erkatu Staind. Chron.(?)-ekin SCHNURER-en idaztarian, ("Tamaina beldurgarriko lurrin ikaragarri handia ortzialde borealetik abiatuak hedatzen da, ikusten dutenengan izularria eraginez"), eta Ad. Von Lebenwaldt-ekin, "Land-Stadt- und Hausarznei-Buch", 15 orr. Nürnberg 1695, Lurra estali zuen lauso lodi beltza aipatzen duenean. Chalin-ek zera dio hau guztiari buruz:

"Ortzia astundu egiten du, aireari kutsadura igartzen zaio; anitz laino trinko ortziko argiak estaltzen dituzte, sargori zikin eta astun batek gizakoak haserrebera jartzen ditu, eguzkia zurbil agertzen da egunsentian".

Kasu honetan, deskribaturiko irudiragarrien tamaina da batez ere, –estaltzen dituzten lurraldeen zabalak adierazitako tamaina alegia–, gure izurrite lainotik aldentzen dituena, gure hau beti txikia ikusi baitugu, handia baino. Lurralde bat, nazio bat edo Lur osoa estaltzeraino zabalitzen diren lanbro eta lauso hauek ez dute beraz zer ikusirik, haizeak eraginik edo motor ezkutu batek bultzaturik leku batetik bestera dabilen gure laino txikiarekin.

Lanbro hauen antzera, gerok ere ikaragarri zabal gintezke tradizio "jakitun" hauek izurriteen jatorburua finkatzeko iradokitzen dituzten eguraldi irudiragarrien azalpenen. Inkesta honetan zehar bildu ditugun ereduekin atal osoa bete liteke, baina alde batera baztertuko ditugu, argi baitago ez digutela, ez gu bila gabiltzan motiboa deskribatu, ez eta gure motibo hori deskribapen horietako baten azpian egon daitekeela adierazi.

Izurriteentzako ulerbide atmosferikoak bilatzen dituzten teoria hauek sorrarazten dituzten arazoak agerian ipintzeko gabiltzan saio honen barnean beti ere, testu bat azalduko dugu ondoren. Gure iritzia da honen anbigotasunak ezinezko bihurtzen duela, jakinarazten digun

tradizioaren benetako esanahiari buruz ezer erabatekorik esatea. Testuak, lehenago azaldu eta zertxobait komentatu ditugun Vienako Izurrite Arauetara (1714) garamatza berriro. Hona oraingo honetan kausitzen duguna<sup>119</sup>:

*Gorputz kutsatuetan birusa ikusgai zen sarritan lurrin urdin sulfurotsu itxurapean.*

Zalantzarik gabe jakitunen eraginez sartu den "sulfurotsu" izenlaguna ahazten badugu zera geratzen zaigu, alegia, lurrin urdin bat zeriela kutsatutakoei, eta jendeak bertan pestearen birusa ezagutzen zuela. Zer pentsatu honelako albiste baten aurrean?

Lurrin urdinaren motiboa bitxiegia eta originalegia ematen du, loturarik gabeko bi gizarte ezberdinetan sor daitekeela onartzeko. Baina beste aldetik, hemen duguna gorputzei darien lurrin bat da, ganduzko lainoari, ez deskribapenaren aldetik ez eta ekineraren aldetik ere hurbil ezin dakiokkeen lurrin bat.

Ganduzko lainoa benetako lainoa dugu beti, eta ganduzko edo lurrinezkoa izan arren hutsaren hurrena diren lurrin hauek baino itxura sendoago eta mamitsuagoa du zalantzarik gabe. Bestalde, izurrite lainoak bera dabilen inguruko airea kutsatu edo gaitza gidatu edo erakarri egiten du, baina inoiz ez da gizakien gorputzetan sartzen, ez eta holandar bertsioan ere, bertan lainoak hiru bertsioetarikoz gizakiekiko hurbiltasun gradu handiena erakusten badu ere. Erbach-eko pestearen kontakizunak, –GRIMM anaien "Deutsche Mithologie" idazlanaren pesteari buruzko atala plazaratzerakoan azaldu eta komentatu–, zera irakatsi digu, alegia, urdintasuna, beti pesteari loturik noski, ganduzko lainoa ez diren beste irudiragarri ere lot dakiokkeen: Kasu hartan, gartxo urdin bat zen pestearen sorburua. Urdintasuna ezaugarri independente baldin bada, zenbaitetan gure ganduzko lainoari lotzen zaiona baina halaber beste irudiragarrien ezaugarri ibil daitekeena, orduan gartxo hori eta vienatar lurrinen arteko margokidetzaren adierazkortasuna makaldu egiten da noski. Azkenik, vienatar izurrite honi buruzko ezein tradiziok ez du ganduzko laino bati buruzko inolako erreferentziarik aipatzen, eta ez da esaten lurrin hats urdin horiek inori eraso edo ekin diotenik gero, edota nola-baiteko higadura edo abiada burutu dutenik, honelako zerbaiten bitartez gure lainoari hurbiltzeko. Baina zer esan genezake azken buruan motibo honetaz hainbeste argudio plazaratu ondoren?

Gure ustez deus ere ez. Ez ginateke ausartuko motibo hau ganduzko lainoarenetik eratorritakoa dela baiestera, baina ez genuke hori gezurresteko ausardiarik ukamen. Vienatar eredu honek bi arazo ipintzen ditu agerian, hots, informazio eskasarena bata, eta irakurtzen ditugun deskribapenetako jatorrizko lekukotasunekiko zenbaterainoko fideltasunarena bestea, esku artean darabiltzagan testuen izaera bereziak sorrarazten dituen bi arazo hain zuzen: Herriko lekukotasunak ez dira noski etnografo batek egiten lukeen moduan erregistratzen, arbuioa eta bertan ulerbide logikoren bat aurkitzeko premiaren artean zalantzan dabilen sendagilearen jarreraz baizik.

118) Ber. 14 orr.

119) CRAWFURD aip. id. 198 orr.



Jarrera honen ondorio dira alde batetik, dozena erdi irudiarriren berri lau lerrotan ematea laburkeria benetan etsipengarriz, eta beste aldetik berriz, herriak emandako zenbait albiste moldatu eta eraldatuak gertatzea, garaiko teoria epidemiologikoetan oinarrituriko ulerbide "zientifiko" asegarriren batekin lagun eta berme etortzeko. Kasu batzuetan badugu halako inpresioa, gure lainoa, deskribatzen ari zaigunaren azpian balego bezala, nahiz eta bertan hura ez aipatu. Zorionez kasu batean inpresio hau frogatu ahal izan dugu, aipatu manipulazioen izana agerian utziz bide batez. Britainiar izurrite baten lorratzari jarraituko gatazka, honi buruz aurkitu dugun lehen erreferentziatik hasita, azken azkenean gure motiboa "in extremis" azalduko den arte. Baina ikus dezagun horren aurretik itxura beretsuko holandar eredu hau<sup>120</sup>:

*Forestus-ek dioenez, izurritezko marfundi edo ezta-rriko minak Alkmaer-en K.O.go 1557an bi mila lagun hartu zituen, hauetatik berrehun hil zirelarik. Lurrin batek zabaldurikotzat jo zen, gaitzaren aurretik usain zikineko laino lodiak irago baitziren.*

Izurritea bat batean eta ustekabea agertzen da, airea kutsatu bide duten usain zikineko laino lodi batzuk iragan ondoren. Nekez bazter daiteke albiste hau ikustekoan gure gauduzko lainoa aipatuko lukeen kontakizun baten arrazionalizaketa izango ote deneko susmoa. Arrazionalizaketa horrek lainoen kopurua aniztu eta usain zikinaren motiboa erantsiko ziekeen, horren bitartez haien kutsakortasuna grafikoki adieraziz. Dena den, erabat frogaezin gertatzen den susmoa baizik ez denez, ez dugu bertan areagoko afanik jarriko.

Gatozen bada, aginduriko britainiar ereduaz altxatzen. HECKER-en idazlana, izurrite beraren bi agerraldiz mintzatzeko zaigu. Hona hauetariko lehenaren sorburuen gaineko komentarioa, aipatu berri dugun holandar ereduaren pare parekoa bistan denez<sup>121</sup>:

*Ondorioz, argi azaldu zenez, Ingalaterrako Izerdi Gaitza, laino ilunen artean zabaltzen zen lanbroaren hatsa zen.*

Honen ondoren, autorea, bere baiepen horren aldeko argudio logikoak ematen saiatzen da<sup>122</sup>:

*Urte normaletan ere, Ingalaterrako eguratsa astialdi luzez halako lainoz zamaturik egon ohi da, eta sasoi hezeetan osasunerako arras kaltegarri frogatu dira,... Eguraldi hezea ez da osasunerako kaltegarria mugatua baldin bada, baina zenbait urtez euria larregi botatzen badu lurra urez gainezka blai utzirik, lanbroek hats luputsuak zurrupatzen dituzte lurretik, eta orduan gizakiak derrigor kalteturik gertatuko dira, lurra eta airearen kutsadura hori dela eta.*

*Egoera horretan, izurriteak jarraian agertuko dira halaberrez.*

Hirurogeita hamar urte beranduago lanbro heze berak aipatzen zaizkigu izurrite beraren bigarren agerraldia ulerbideratzeko<sup>123</sup>:

*...; Izerdi Gaitzaren arrastorik ez zen inon ageri izan tarte luze honetan, eta Ingalaterrak zeharo bestelako itxura hartu zuen bere aurrerapen azkarrari esker, giza-goaren etsai zaharrak berriro eta azken aldiz Shrewsbury, Shropshire-ko hiriburuan, eraso egin zuenean. Bertan, Severn ibaiaren bazterretan, lanbro trinkoak jaiki ziren udaberrian zehar, hauen ohi ez bezalako kiratsetik, geroko ondorio kaltegarriak susma zitezkeelarik. Izerdi Gaitza ez zen luzaz zain egon, apirilaren 15ean agertu baitzen bat batean. (...).*

*Shrewsbury eta inguruko herrixketan zeharo zabaldua izan zen, bertakoek airea pozoiturik ote zegoen ere pentsatu behar izan zutelarik,...*

*Izurritea agudo hedatu zen Ingalaterra osoan zehar, Eskoziako mugetaraino, eta norako orotan itsasertzeraino, beste edozein izurritetan baino agerkari harrigarri eta gogoangarriagoak lagun zituelarik. Izan ere bazirudien Severn-en ibai-bazterrek zirela gaitzaren jatorburua, eta bertatik airean zabalduko kutsadura norako guztietan barreiatu zela. Haizeek lanbro kirastua nora eraman, han geratzen ziren jendeak Izerdi Gaitzak jota, eta Shrewsbury-n gertaturiko izularri eta negar berberak errepikatzen ziren gutxi gorabehera.*

Une honetaraino badirudi izurritearen sorburuaren gaineko komentario hauek ez dutela gu bila gabiltzan tradizioarekin zer ikusirik. Severn ibaiaren bazterretan sorturiko lanbro kirastuok, –Alkmaer-en bezalaxe kiratsak jendartean susmo eta beldurrak sortzen dituela–, dirudite airea birus eraileaz kutsatzen ari diren eragileak. Lur bustiegitik hats luputsuak zurrupatzen dituzten lanbro ditugu izurritearen agerpenarentzako ulerbide egoki bakarra. Baina bat batean eta ustekabea, testuak azken orduko irudi bat plazaratzen du<sup>124</sup>:

*Lanbrozko laino luputsuok, lekuz leku mugituz, izurritea hurrean zekartela ikusi zituzten, hiri bat bestearen atzetik gaizpetuz, eta goiz eta arratsalde, haien kirats nazkagarri jasanezina zabalduz. Urrunagotzean, haizeak barreiatzen zituelarik, lainoen indarra apurka-apurka malkaltzen zen, baina barreiatze honek ere ezin izan zizkion izurriteari mugak ezarri, eta bazirudien lainook eguratseko beheko geruzetan halako hartzigarria zabaldu zutela, eta honek bere kasa irauten zuela lurrin heze trinkoen ezean ere, eta gizasemeen biriketetan sarturik gaitz izugarri hori sorrazten zuen nonahi.*

Testua dakarren orrialdearen behealdeko ohar batean, komentario honen oinarri den beste testu baten zenbait pasarte azaltzen dizkigu autoreak, eta bertan irakur daitekeenez, laino bakar bat baino ez dago leku bakoitzean, eta anitzean esandako "laino luputsuok" horrek ez du esan nahi beraz, anitz laino batera dabilzanik, baizik eta besterik gabe, autorea anitz albiste berdintsu batera hartuta ari dela komentarioa egiten, edo agian, albiste

120) N. WEBSTER. "A brief History of epidemic and pestilential diseases". London 1800 / 131 orr.

121) HECKER aip. id. 187 orr.

122) Ber. 187 orr.

123) Ber, 290 orr.

124) Ber, 291 orr.

bakan batetik abiatuz orokorki mintzatzen ari dela izurritearen hedadura ikuspegi historiko batetik ulerbideratze-ko<sup>125</sup>:

*Lanbro hau hasi zen eskualdean, hiriz hiri hegan iragotzen ikusi zuten goiz eta arratsalde, batek nekez jasan zezakeen kiratsa zabalduz.*

Hona, bada, denbora osoan itzalpean egon den laino hau azkenean bere burua agertzerantz heldu dela, agerraldi honen bitartez, atmosferaren kutsaduraz mintzatzen zaizkigun beste zenbait komentario zientifikoren azpian gure lainoaren antzekorik egongo ote zeneko susmoari indarra eta arrazoia emanez. Zeren britainiar laino hau, *lanbrozko lainoa* ("cloud of mist") eta *lurrin heze trinkoa* ("thick misty vapour") hitzez deskribaturikoa, eta hiriz hiri izurritea hurrean dakarrela iraganez jendeak ikusitakoa, gure bildumaren laugarren "garaikurra" baita, orain Ingalaterra bere eragin hesparruan sartu duen gure bildumaren laugarren eredu preziatua. Kasu honetan, folklo-reko tradizio garbi bat ukan beharrean, aurrean duguna, kontatzaile zientifikoen bahetik iragaziriko albisteak ez du eragozten halere albiste horretan gure inkestagaiaren presentzia ezagutzea, bere irudia bahebidetaren zehar zerbait antzaldatu dela argi badago ere.

Zorionez azkenean, HECKER-ek erreferentziatzen duen latinezko idazlan jatorra eskuratzea erdietsi dugu, eta gako-ko pasarte horren irakurketak poliki erakusten du zenbateraino antzabesteratu duen alemaniar autorearen komentarioak. Hona, berez albiste zuzena ez, baizik eta engoitik zenbait albisteren interpretazioa den testua, bertan laino bakar bat baizik agertzen ez delarik, nolako lainoa den argi dagoela gainera<sup>126</sup>:

*Baina esan dut, laino trinko batzuk,..., Shropshire inguruetan sorturiko lanbro zikin kirastu batzuk haizeek Ingalaterra osoan zehar astiro eramanez izan zirela gertakari hauen sorburua. Hau erraz jakin zitekeen lainoak berez zuten itxura eta kiratsa ikusi eta usaindurik, edota segurua jakin nahi izanez gero, haiek sorrarazitako eraginetan oinarrituz, inork bi alderdiok bereizirik ikertu nahiko balitu. Zeren, lehen aldiz agertu zirenetik, kirats astun batek iragartzen baitzuen gaitza eta laino bat edo ikusi omen zuten haizeen eraginez haratona mugituz, eta zera argi ageri zen, alegia, izurritea laino honi jarraiki zitzaioela, airea hartu eta botaz inguruko aire osoa izurriteaz kutsatu eta hau gu ohartu gabe gure barnean sartu zen arte izurritea.*

Kiratsa dugu Ingalaterrako adibide honek eskaintzen digun berritasunik nabarmenena, eta nire ustez, gorago aipaturiko antzaldaketen eredutzat hartu beharra dago. Ez bakarrik gainerako hiru izurrite lainoetan huts egiten duelako, baizik eta motibo horrek betetzen duen funtzio-agatik batik batik: Kiratsak, laino hori izurrite lainoa dela erakusteko balio du, eta honek zera adierazten digu bide batez, alegia, izurrite lainoaren esanahi magikoa ezin dela gorde, eta testuinguru mailako hutsune hori betetzearen itsatsi zaiola lainoari kiratsaren ezaugarri berria. Lai-

noa magikotzat eta izurritearen hedabidetzat jotzen denean, ez dago kiratsaren beharrik haren beldurgarritasuna zuzenean ulertzeko. Ez dago kiratsaren beharrik, eta izan ere, magikotasunaren oroitzapena jausi ez den tokietan lainoak ez du kiratsik. Lainoak lehen aldiz kiratsa erakustea, hain zuzen ere zenbait tradizio ezberdinen nahasketa dakarren liburu ingeles honetan gertatzeak, zera hausnartzera garamatza, alegia, kiratsaren ezaugarria, lainoari zikin itxura eman nahi dion arrazionalizaketa saio baten emaitza dela, eta bere bertan egotea, idazleak jatorrizko esanahiaren berri ukan ez edo sinetsi nahi ez izatearen baieztagarria dela seguru aski.

Erabateko ziurtasunez jakin ezin duguna zera da, interpretazio akats hau gureganaino heldu ez den zuzeneko lekukotasunean bertan ote zegoen, edota akats gabea litzatekeen tradizio horretan oinarrituz zientzilariek osatzen dituzten teorien moldabideetan zehar agertu ote den. Hau noski, antzeko kasu berriak azalduko balira, hauen laguntzaz bakarrik erabaki daitekeen auzia dugu.

Laino ingeles honen margorik ezak komentario bat egiteko bidea eman liezaguke, baina albiste honen jatorrizko tradizioarekiko fidelitasunari buruzko bermerik ez dugunez, hobe izanen dugu bertan behera uztea.

Azkenik, zera azpimarratu behar dugu, alegia, aipatzen ari garen deskribapena ere zalantzan dabilela, laino aitzindari eta laino kutsatuaren artean. Artikuluaren amaiera aldera komentariariak plazaratzen dituen hausnarketek erakusten dutenez, bera bigarrenaren alde dago, baina lehenago lainoak *izurritea hurrean zekartela* iragaten zirela esan digu, eta hau agian metafora hutsa baino ez bada ere, jatorrizko tradiziotik datorren datua izan liteke halaber. Korapilo zahar hori beraz, lehenago bezain hestu eta askagaitz dugu oraindik. Zernahi dela ere, eta noski, bila gabiltzan irudiragarriaren laugarren eredu idorotzeaz beste, hau guztian nagusiki interesatzen zaiguna komentalariaren arierak agerian ipintzea da. Kasu honetan bertan, bi tradizio ezberdin hartu eta nahastu egin dituzte, -bietariko bat behinik behin etorki mitikokoa-, beraien teorien aldeko frogak biltzearen. Beraz, zenbait ulerbide jakitunen oinarrian folkloreaki mailegaturiko irudiragarri "magikoak" daudela gauza frogatua dugu oraintxe bertatik.

HECKER-ek ganduzko lainoaren motiboan oinarrituz eraikitzen duen teoria, alegia, lainoak, eguratsean zabalitzen duen hartzigarriaren bat edo daramala bere baitan, holandar sendagile bat hartuko du edo hobeki, berriro asmatuko du ehun urte beranduago. DIEMERBROECK doktorea ez da heltzen laino batez mintzatzera, baina entzun ditzagun bere hausnarketak eta irudiragarri horretaz zerbait jakin behar ukan duela ikusiko dugu<sup>127</sup>:

*Diemberbroeck-ek ... 1636an Nimegen hirian zabalduko izurrite bortitzaren berriak jaso ditu,... eta hiru sorburu eragokitzen dizkio "pestis" edo benetako izurriteari. Lehena, Zeruko haserre bidezkoa, gure ogen eta gaiztakeria gogaikarrien zabor zuloari darion kiratsak eragindakoa. Bigarrena, gizakientzako luputsu eta erailea den Zeruak igorritako hartzigarri edo legamia antzeko*

125) Ber 292 orr. "a" oharra.

126) CAIUS BRITANNUS. "De Ephemera Britannica". Londini 1721. / 38 orr.

127) WEBSTER, aip. id. / 9 orr.

*izurrite germen apur bat (feminarium), gas fin baten modura airean zabaldu eta hura zeharo kutsatzen duena. Bere ustetan gas hau eskualde askoren gainean zabal daiteke lupu antzeko kutsadura eraginez airean, honela, ez bakarrik jende askori baizik eta mundu osoari kalte egin diezaiokelarik.*

*Izurritearen hirugarren sorburua,... kutsadura da.*

*Diemerbroeck-ek "pestis" eta "pestilentia"-ren arteko bereizketari ere eusten dio. Azken hau hatsak, sasoi nahasiak eta honelakoek sorturikotzat jotzen da. Baina izurritea,... ezin dute sorburuok eragin, "feminarium" edo sorburu orokorrari lagun badiezaiokete ere.*

Argudiook, bistan dago, HECKER-ek gure laino magikoaren gainean eraiki dituenaren pare parekoak ditugu. DIEMERBROECK-en saioa, hesparru zabal baten kutsaketa gaitz apur baten premisatik abiatuz ulerbideratzeko, auzi honi buruzko gainontzeko teoriakin kontraesanean dago, hauek, ikusi dugunez, dena estaltzen duten lanbroak, izurrite haizeak, milioika otik eta orokorki, izurritea bera bezain tamaina handiko agerkariak imajinatzea nahiago baitute. Handia txiki az ulerbideratzeko saio hau, -handia handiaz ulerbideratu beharrean-, benetan bitxi eta arraroa da, eta laino kokkor magikoaren irudia ikusarazten digu bere azpian. DIEMERBROECK-ek "pestis" eta "pestilentia" kontzeptuen artean azpimarratzen duen bereizketak susmo hori indartu besterik ez du egiten, bertan bi maila ezberdinetan sailkatzen baitira, alde batetik lur hezeegiaren hatsak eta eguraldi nahasiaren gainontzeko ondorio kaltegarriak, eta bestetik hartzigarri apurtxo hori, aurrenekoak berezko agerkariak diren bitartean, azken hau zerutar jatorrikoa delarik. HECKER-ek egin ez duen bereizketa honek, "feminarium" delakoaren gainerako izurrite irudiragarri guztiekiko etentasuna eta burujabetza argi eta garbi uzten digu agerian; bera izurritearen sorburu beharrezko, askizko eta zuzentzat jotzen du; eta Zeruak igorria bailitzan plazaratzen du, gure lainoaren sorburu magikoa gogora ekarriz, eta doktore honek irudiragarri hori ezagutu behar ukan duela ustearaziz. Nimegen hiria "et blauwe Dämpken" kausitu dugun lurraldearekin muga egiten duen eskualdean dago, eta beraz egiantzekoa da, haren antzeko tradizioren bat egotea hiri honetako izurrite sonatuari buruz, DIEMERBROECK-ek ezagutuko zukeen eta bere teoria eraikitzeo oinarritzat hartuko zukeen tradizioren bat.

Lekuko zuzenak eta geron artean halako komentarien tartekatzeak sorrarazten dituen arazoei buruzko hausnarketok amaitzeko, bi kasu berri orritaratuko ditugu, bertan zera agerian jartzeko, alegia, ulerbide bakar batean zenbait tradizio ezberdin nahasteak alde batetik eta ulerbideon gehiegizko orokortzeak bestetik, zenbateraino baliogabe dezakeen zenbait kasutan oinarritzko albisteek jatorrian zeukaten adierazmama.

Kasu hauetariko lehena ez zaigu oraingo honetan gizasemeei erasotzen dien izurrite batez mintzatuko, patatei ekiten dien gaitz batez baizik. Honela hasten da komentarioa<sup>128</sup>:

*1845. urtean pataten hauts lizuna izugarri bizkor zabaldu zen Alemania, Herbeherak, Belgika, Frantziako ipar aldea eta Ingalaterra, Eskozia eta Irlandako zati handi batean ere. Izurrite hau hurrengo urtean ere, 1846an berriro agertu zen. Gertakari aipagarri bat somatu zen honek iraun zuen bitartean, hots, lanbro bat edo lauso batzuen agerraldia doiki uztak hauts lizunak jota geratu aurretik.*

Besterik ikusi gabe, gure motiboaren agerraldi barri baten aurrean gaudela pentsa liteke. Deskribapena ez da oso argia, -lanbro bat edo lauso batzuk ( a mist or fogs originalean)-, eta areago, ilun samarra iritzi dakiok. Halere, testuaren adierazpidearen zehaztasunak agerkari horien ekinerari dagokionez, -doiki...aurretik, ("immediately previous" originalean)-, azpiko albiste gure motibolari loturik egon daitekeela itxarotea ahalbideratzen du. Baina hona testuaren jarraipena<sup>129</sup>:

*Herbeheretan, biziki zabalkiro hedatzen zen lanbro lodi kirastu bat ikusi zuten patataren hauts lizuna agertu aurretik. M. Petit-ek dioenez, Frantziar nonahi somatu omen zen izurritea lauso baten ondoren agertu ohi zela. Ingalaterran ere agerkari berbera somatu zen.*

Berriro kiratsa dakarkigun holandar lanbro lodiak ez du, bistakoa denez, gure lainoarekin zer ikusirik, eskualde zabalen gainean hedatzen diren lanbro eta lausoen familiakoa baita; eta ondorengo bi erreferentziak antzeko irudiragarriez ari direla ematen du, lausoa aipatzen baita eta ez lausozko edo ganduakoa lainoa, nahiz eta laino horren itxura edo tamainaz deus ere ez aipatu. Halere arazoa zera da, holandar eredu dela deskribapena kontu et arreta apur batez azaltzen digun bakarra, eta hori gogoan daukagula, halako uniformitate sentipena sortzen dela gure baitan, oharkabean irudi hori gainerako erreferentzia guztiei eragokitzen diegulako, autoreak denak elkarrekin ipini baititu denak gauza bera bailiran. Guk ordea, zera hausnar dezakegu, azpiko albiste jatorrek lauso horien deskribapenean holandar lanbro erraldoi kirastuaren berdintsu lirakeen ezaugarriak aipatuko baltuzte, autoreak ez lukeela ezaugarri hauek plazaratzeko aukera galduko.

Azkenerako honelako sentipena sortzen da gure gogoan, alegia, autoreak berari komeni zaizkion aspektuak baino ez dituela aipatzen, eta aldi berean zirikagarri lirakeen xehetasun txiki zenbait ezkatatu egiten dizkigula, fideltasuna opari eskainiz teoria baten eraikitzeari. Zernahi dela ere, autore hauen tartekatzeak, hizkuntza nabarduren azterketa zorrotza uzten digu aurrerabide bakarra, eta noski, bide horretako emaitzen balioa ezin da paretatu lekuko batek emaniko deskribapen zehatzaren azterketaren emaitzarenarekin.

Halere, ukitu dugun hau ez da komentariaren tartekeriak ernaltzen duen oztopo bakarra, zeren dena dela, *lanbro bat edo lauso batzuen agerraldia doiki uztak hauts lizunak jota geratu aurretik* horretan gure ganduakoa lainoaren eredu berria aurkitu izan bagenu ere, bere laguntza gure ikerlanerako hutsaren hurrena izango zatekeen

128) E. BASCOME. Aip. id. / 174 orr.

129) Ber. 174 orr.

bigarren arazoa dela eta: Deskribatutako irudiragarriaren gehiegizko orokortzea. Aginduriko bigarren testuaren laguntzaz saiaturiko gara jarraian puntu hau argitzen. Aipatu testuak aurrekoak bezala, ez digu gizakiak jotzen dituen izurrite batez hitz egiten, aziendak akabatzen dituen gaitz bati baizik<sup>130</sup>:

*K.O. 1745 (...). Abereen "morriña" hau Europako zenbait eskualdetan zabaltzen eta kalte egiten ibili zen; hondamen handia eragin zuen Suitzan eta gero Alemania, Polonia eta Herbeheretan zehar hedatu eta azkenik Ingalaterrara ere heldu zen: Eguratsean agertzen zen lanbro urdinska batek erakusten zuen haren aurrealdea.*

Autoreak ez digu lanbro urdinska honen tamaina eta itxuraren deskribapena zehazten, lanbro urdin baten agerpena eguratsean besterik aipatzen ez delarik. Esaldi honek edozer adieraz dezake, alegia, egurats osoan zehar zabaltzen den lausoa, ala aldiz, behe samar agertzen den gandu urdinezko lainoa. Deskribapen honen hurrengo esaldiak ordea, laino zuzenaren aurrean gaudela uste-arazten digu, bertan zera esaten baita, agerkari horrek izurritearen aurrerabidea erakusten duela, eta honek lanbro urdinskaren higiduraren irudia dakarkigu gogora, izurritea hurrean dakarrela iragotzen den lainoaren higidura gogoraraziz orobat.

Kutsaturiko lanbro handiak, laino txikiak ez bezala, ez dira higitzen: Eskualde osoa estali eta besarkatu egiten dute. Laino txikiak berriz, heldu, iragan, eta urrundu egiten dira, heriotza aztarnak utzirik haien bidean. Hein horretan, aurrera egiten dute, higitu egiten dira. Zehaztapen honek beraz, deskribapenaren gabeziak gaintzeko eta behar bezalako bermez aurrean duguna izurrite lainoaren eredu berria dela esateko bidea zabaltzen digu. Baina zertarako balio honek azken buruan? Aspalidanik ezagun dugun irudiragarri honen izana konstatazeko balio digu. Baina hortik at, nondik datozkigu komentarioaren oinarri diren albisteok? Testuak adierazi irudi duenez, lanbro urdina, izurritearen aitzindari agertu da hau heldu den leku guztietan. Orokortze honetan oinarrituz, zera aterako genuke ondoriotzat, alegia, irudiragarri hau zeharo ezaguna zela Suitza, Alemania, Polonia, Herbeherak eta Britainiar Irletan. Ondorio hau ordea, dagoeneko gezurretsi dute lainoaren urritasun eta arrarotasuna argi eta garbi erakutsi dituzten gure inkestaren emaitzek, baina areago gainera, BASCOME-ren idazlan beronen baitan ere gezurresten zaigu, bertan ezinezkoa baita komentatzen ari garen ereduaz gain lanbro urdinaren beste edozein eredu aurkitzea, mendez mende nazio horiek hondatu dituzten dozenaka izurrite aipatzen dituen berrehun orrialde pasako liburu lodi horretan zehar. Zera uste ukan beharko dugu beraz, autoreak, hidropesia hau zela eta, lanbro urdina tartera zekarren albisteren bat ezagun zuela eta ez zuela erreparurik ukan nonbait, mitologikoa dela dakigun irudiragarri hau, izurritearen lagun, honen iraganbide osoan zehar ibili zela, alde zuzenetik eta beste frogarik gabe esateko.

Ariera honi ez diogu agian oso zientifikoa iritziko, bai baitakigu lainoarena irudi mitikoa dela; baina autorearen ikuspegiaren kokatuz gero, honelako orokorketa zeharo bidezkoa da, zeren eta lainoaren izan fisikoa egiazkotzat jotzen badugu, aski baita behin bakarrik hura gaitzaren zabaltzaile dela somatzea, gaitz berori zabaltzen den edonon ere hura bertan ibiliko zela onartzeko: Gaitz berak sorburu bera behar du beti, eta premisa honen pean, BASCOME-ren orokorketa bidezkoa da bere testuinguru historikoan. Baina guri dagokigun heinean, orokorketa honek motiboaren benetako garrantzia eta benetako hedapena antzaldatzen ditu lehenengo, eta gero gainera, manipulazioa agerian uzten dugunean, albistearen etorburu zehatza ezagutzea eragozten digu. Ganduzko lainoak, –ganduzko laino urdinak noski–, Herbeheretan eta Voigtland-en (gaur Polonia baina Prusia idazlearen garaian) ezagutzen ditugu, eta albistea holandarra edo alemaniarra (1851ko mugetan barna) behar duela sinesteari, jarrerarik zehar eta bidezkoena deritzogu, noski harik eta irudiragarri honen eredu berriak hesparru honetatik at agertzen ez diren arte. Dena den, motiboaren hedadura erakusten duen mapan puntu berri bat ipintzeko aukera galdu dugu.

Argi dago gure eginahalak ezingo direla orain artekoak bezain antzu eta okerrak izan beti. Nahiz eta gure motiboaren ereduak urri baino urriagoak izan, eta komentariaren kontu eta erreparurik eza albisteak tratatzerakoan negargarria bada ere, ekin dioguna bezain inkesta lan zabalak, esaterako, ia derrigor luzatu behar zigen emaitza baikorrik. Eta izan ere, beren teoriari erakitzeko erabili dituzten erreferentzien etorburu jakinarazteko beldur izan ez diren autoreei esker, ahalezko izan zaigu gure ikergai den izurrite lainoaren zenbait eredu aurkitzea, albiste zuzen bezala batzuetan, edo albiste horiek osoro errespetatuz erakitako komentarioetan besteetan. Hauek guztien kidetasunik nabarmenena zera da, azken honetan aztertzen ibili garen zalantzazko irudiragarri nahasiak ez bezala, hauek berehala eta inolako zalantzarik gabe eskaintzen zaizkigula ezagungarri. Zenbait nabardura bereizkorren izanak ez die funtsezko bateratasuna gutxiagotzen: Izurrite lainoa bere nortasun bereziaz jantzirik nabarmen zutitzen da, orain arte ikuskizun izan dugun eredu guztietako laino, lauso eta lanbro zehazpakoan multzoan.

Lista pozgarri honetako lehen ereduak, Oldenburg-eko alemaniar eskualdetik datorkigu. Berehala beste kontakizun bat gogoraraziko digun kontakizun hau, STRACKERJAN-ek bildua eta FRAZER-ek ingeleraz argitaratua dugu. Honats<sup>131</sup>:

*Neuenkirchen-en hurrean, Oldenburg-en, bada baxerri bat, eta bertara heldu zen hogeita hamar urtetako gerratearen garaian ondoko hiritik astiro zetorren pestea lurrin urdin baten itxuraz. Etxean sartu, eta gala bateko ateko zutabearen zulo batean barrena sartu zen bizkor. Etxeko jaunak bere aukera ikusi eta azkar baino azkarrago karabila bat hartu eta mailuz joz zuloan sartu zuen,*

130) E. BASCOME. Aip. id. / 126 orr.

131) J.G. FRAZER. "The Golden Bow". London 1900 / III. Alea 34 orr.

*pestea kanpora egin ezinean utzirik. Halere, astia igaro eta arriskua aienatu zelakoan, karabila erauzi zuen. Horra! Lurrin urdina berriro narratuz eta kizkurtuz zulo-tik irten dela. Honela askaturiko pestea etxeko familia gaixo hartako senide guztiei atxiki zitzaien bat ere bizirik utzi gabe.*

Bistan dago Hölterhof eta De Lappe-ko pesteen kontakizunen anai bikiaren aurrean gaudela. Eta ez bakarrik pestearen irudiragarria bi kasuetan berbera delako; areago oraindik, irudiragarri horren gainean eraikitako leienda osoa ere berbera delako: Izurrite lainoaren agerpena, honen harrapaketa eta itxutura etxeko zulo batean (De Lappe-n bezala), ondoriozko babesezko emaitzarekin, lainoaren ihesa ahalbideratzen duen azken buruko arinkeria (Hölterhof-en bezala) lainoaren heriotzazko berehalako eraginarekin, eta etxe baten hesparruan mugaturiko ekinaldia. Berberatasun honek alferreko bihurtzen ditu,

.....Neuenkirchen-go laino honen deskribapena eta ezaugarri funtzioari buruzko edozein komentario. Hauei dagokionez, aski da irakurlea holandar ereduaren gainean eginiko hausnarketetara bidaltzea. Beraz, ohar geografiko xume bat luzatu besterik ez zaigu geratzen: Twente eta Oldenburg-eko eskualdeak bata bestetik nahiko hurbil eta geografikoki nahiko homogeno diren bi eskualde ditugu, agerian jarritako bateratasuna normalizat joa izateko, hots, bazterrek nahastera datorren eragile bat ez izateko. Hein beronetan, eredu berri honen agerpenak ez dakar izurrite lainoaren eragin hesparruaren zabalagotzea, Oldenburg-ekoa, holandar eta prusiar Voigtland-eko ereduak marrazturiko hesparruaren baitan baitago. Izan ere, ekarkin nagusia zera da, aurreneko lau kasuek marraztu diguten eremu hain zabal horretan kontzentrazio handiagoko lurralde bat definitzea. Kontzentrazio handiago hau, oraindik nabarmenago azaltzen da gainera Neuenburg hirian, Oldenburg-eko eskualdean beti ere, beste eredu bat dugula jakiterakoan. Azken hau FRAZER-ek aipatu baino ez du egiten, aurrekoaren berbera dela eta, istorioa ez errepikatzeagatik<sup>132</sup>. Ondorioz zera dugu une honetan, sei ereduatik hiru Frisia-ko penintsularen inguruan biltzen direla, gainontzeko hirurek, Euskal Herriak, Ingalaterrak eta Poloniak mugatzen duten hesparrua marrazten diguten bitartean.

Sei eredu askotxo da dagoeneko, haiek marrazturiko hesparrua bere joera eta eskusioekin ia definitibotzat onartzeko, bere erakusbide orokorretan, hots, Europa, edo kontinentearen atlantiar itsasertza zehatzago, eta Britainiar Irlak. Gainera, aurruste honi aurriritzirik gabe eginiko inkesta bermatzen zaio, alegia, eskualde horietan bereziki kontzentratu gabe, eta alderantziz, munduko bazter guztietako izurriteak aipatzen dituzten idazlan orokorrak oinarritzat harturik burutu dugun inkesta. Halere, ondoren plazaratu behar dugun ereduak ia hankaz gora jartzen ditu gure aurrusteok. Bertan, Seguran bezala koleraren zabaltzaile den lainoa, berehala jo daiteke gure beste lainoen senidetzat. Baina zorioneko laino hau in-

diar penintsulatik datorkigu, garai bateko India eta gaur egungo Pakistan-go Karatxi-tik hain zuzen. Eskerrak hasierako sustoaren ondoren, testuak berak, oraindik ere lehengo hesparru beraren baitan diraugula adierazten digun igargarria eskaintzen digula<sup>133</sup>:

*Aldi horretan, imajina daitekeen peste erasorik ikaragarriena gertatu zen Kurrachee-n, Indus ibaiaren itsasoratzetik hurbil, horren ondorioz egun gutxiren buruan zortzi mila lagun hil zirelarik. Kurrachee-n lekuko zuzena izandako batek emandako deskribapena, –Gavin Milroy doktoreak bere kolerari buruzko artikuluan dioskunez–, hain dago interes ikaragarri eta erakusgarri betetik, –izurrite bisiten ezaugarri bortitzenak erakusten baitizkigu–, ezin dugula hemen haren berri laburra eman gabe etsi:*

*"Beroa latz egin zuen ekainaren lehen hamabostaldian, baina urtaroa nahiko osasuntsu suertatu zen. Igan-dean, hilak 14, eguratsa ohi baino geldo eta zanpakorra-go zegoen; bertan zegoen kazetari batek zera dio: "Zerua bera gure sorbalden gainera hustu zela ematen zuen; itogarria benetan".*

*Itxura harrigarriko laino ilun bat narrazka iragan zen ortzian tropak elizara zihoazelarik, eta bat bateko haize bolada batek mehatxatu zuen eraikuntza: Heldu bezain bat batean iragan zen eta aldegin zuen; eta fededunak etxeratu zirenean, lehenago bildu zirenean bezain bare zegoen airea. Instant berean agertu zen izurritea; gauerdia aurretik, 86. erregimentuko bederatzi soldadu hilik zeuden, eta ospitalean, heldzen ziren guztiak nekez har zitzaieten, hara erreskan eramaten hasi baitziren; gau beldurgarria izan zen".*

Deskribapenari dagokionez, itxura harrigarriko laino ilun bat dugu, nahiz eta albisteak harrigarritasun hori zertan datzan argitu nahi ez izan. Laino hau ez da urdina, eta hein honetan, gure korpusean dugun hirugarren laino margogabea dugu.

Zalantzakoa gertatzen da lainoari loturiko urdintasunaren esanahiaren auzia: Peste bereizi eta gainerako izurriteei oposatzen dien ezaugarria izan liteke, edo agian baita ere germaniar eskualdeetako bereizgarri bat. Gu geu bigarren aukera honen aldeko gara, baina dena den hau ez da guretzako gehiegizko garrantzia duen auzia.

Lainoaren ekinerari dagokionez, honek argitan ipintzen du, hura, dagoeneko aurkituriko sei haurrideen senitarte berekoa dela: Airean narrazka iragotzen da elizara doazen soldaduen buruen gainetik, eta heldu bezain bizkor aldegiten du. Bere iragotzeak, –orain arte inoiz ez den haize bolada hori lagun duelarik–, izurritearen bat bateko agerraldia dakar, eta honek jota bederatzi hildako egotea zenbait ordu beranduago. Eta noski, lainoa, ikusia, ezagutua, eta darraikion izurritearen sorburutzat ulerbideratua azaltzen zaigu. Lainoaren ezaguntasuna Indus ibaiaren bokalean, gure hipotesi eta aurruste guztiak baliogabe litzakeen ezustekoa izan zitekeen, baina

132) Ber. 34 orr. 6. oharra

133) E. BASCOME, aip id. 177 orr.

azkenean ez dago honelako buruhausterik, albistearen iturburua den lekukoa identifikatuz gero. Zehazki eta osoro ez bada ere, identifikazio zatikari horrek erakusten digu lekukoaren nazionalitatea: Ez da indiarra, berria Karatxitik badatorkigu ere, britainiar soldadua baizik, britainiar barruti militar batean gertatzen baita guztia: Lainoa elizara doazen tropen gainean dabil eta biktimak soldaduak dira, berriemailea bera ere seguru asko soldadu den bezala, kazetari edo sendagile izan bazitekeen ere. Dena den, izurriteak benetan laino itxurapean agertzen ez direnez gero, eta laino hori berriemailearen tesuinguru eta ondare folklorikoari dagokionez gero, eredu hau Britainiar Irlatan kokatuko dugu, eta ez Indian.

Lainoaren harrapatze itxitze eta indargabetzea konstatuko lituzkeen pasadizoaren huts egitearen ondorioz, kontakizun honek Segurakoaren antza du batik bat, azken honetan ere laino marismearen hiriaren gaineko iragotzeak izurritearen erasoak ekartzen baitu.

Lainoen harrapaketa aipatu dugula eta, bidenabar esan dezagun horri buruz une honetan dauzkagun datuek teknika horren erabilpena germaniar eskualdeko bariantetat jotzera eramaten gaituztela, menderabide hori aipatu ere ez baita egiten eskualde horretatik kanpo ezagutzen ditugun hiru kasuetan, –bi britainiarrak eta Segurako–, eta haren baitan berriz lainoak ez ezik, izurriteen beste irudiragarriak ere harrapatu egiten baitituzte, hala nola Erbach-eko gartxo urdina, edo Conitz-eko zehazpako irudiragarria, biak ere GRIMM anaien artikuluan azaldukoak.

Azkenean berriro lehenagotik marrazturik genuen eremura bidali gaituen indiar "ezustearen" ondotik datorren kasua, aurrekoa ez bezala, itxura arrunt apalaz agertzen da hasieran, eta ezustea azkenerako gordetzen digu, izurrite lainoaren hesparrua areago zabalagotuko duen ezuste bikaina gainera. Lorrataz, lehenago nonbaiten aipatu dugun WEBSTER-en idazlanean hasten da, hain zuzen ere jarraian irakurtzen dugun komentario honetan:

*Schreibner, –VAN SWIETEN-ek aipatzen duenez, kutsaturiko lekuen gainean geldirik sarritan agertzen den laino txiki batez mintzatzen zaigu. Autore gaitu honen ulerbidea zera da, gaitza halako laino batetan bildurik haizeek barreia dezaketela eta gero beste leku batean bildu berriro.*

Orain arte plazaraturiko laino eredu guztiak gaitza zabaltzen denerako aldeginda badaude ere, SCHREIBNER delako honek marrazturiko deskribapena gure motiboaren antzekoegia da, aintzat ez hartzeko: Izurritea zabaldu den lekuaren gainean airean geldirik egoten den laino txikiak, gaitza zurrupatu, baitaratu eta ondoren hedatu egiten omen du. Gure lainoa da zalantzarik gabe, bestelakotasun txiki batez: Oraingo honetan ez dute kutsadura zabaltzen harrapatu, kutsadura zurrupatzen ari zela baizik.

Lainoaren berri ematen digun autorearen izenaren arabera, germaniar hesparruko eredu berria dugula itxaron daiteke, baina gero ez da honelakorik gertatzen, zeren SCHREIBNER delakoaren idazlanaren izenburua zera

baita: "Observationes et Cogitata de Pestilentiae quae in Ucraina grassata est". Hona ezustea, eta hona lainoaz ari zaizkigun pasarteak<sup>134</sup>:

*Zirujau fidagarri hark kontatu zuenez, ez zuen hegaztirik ikusi leku kutsatuen gainean, baina bai ordea lauso bat haien gainean oskarbian flotari. Irailaren erdialdean eguerdi batean oskarbi zegoelarik, hiru hilabetez itxirik egondako gotorlekuan sartu nintzen, bertan karbunkloz hildako gazte bat ikusi nuelarik, eta antzeko lausoa ikusi nuen. Bertako biztanle eta guardia guztiek lauso bera bertan egon ohi zela baieztatu zuten.*

Ardura zientifikoaz idatziriko lerro hauetan ez zaizkigu tamalez lainoari buruzko xehetasun ugariarik jakinarazten, eta nabarmen agertzen da gabezi hau testigantza zuzen modura heldu zaigun aurreko ereduarekin erkatuz gero.

Ukraniar erreferentzia honek zera erakusten digu besterik gabe, hots, izurriteak jotako lekuen gainean airean geldirik ageri den laino txiki bat. Kasu honetan ez da kutsatzen duen lekuaren gainetik bizkor iragaten, nahiago baitu antza denez, eragiten ari den herioztearen lekuko geratzea bertan.

Izurrite laino irudi horretan gure ikergaiaren eredu berria ezagutzeak nekerik eman ez badigu ere, ezin izanen dugu beste honenbeste esan, ez lainoaren arierari ez eta albistearen jatorburuari dagokienez.

Gure lainoa Ukrainian azaltzeak izugarri zabaltzen du orain arte ibili garen eremua. Baina ukrainiarra ote benetan? Komenta dezagun liburuko datu apurretaz eta zenbait ikerketa lanez osaturiko egoera.

SCHREIBNER doktoreak dioskunez, abisua jasotzen du, gerratik gailen itzuli datorren armada zati batentzat negua iragotzeko kanpalekuak hautatzen aholkua eman dezan, Ukrainian pestea zabaldu baita. Armada laguntzen doala herri gotortu bat behatzen ari delarik egiten ditu goragoko komentarioak.

Jakin ahal izan dugunez, Errusia eta Turkiaren arteko 1735-39ko gerraz ari da. Gerrate hartan Errusia eta Austria elkar hartuta borrokatu ziren turkiarren aurka, eta ez dakigu armada zati hori errusiara ala austriara ote den. Baina errusiara balitz ere, –liburua San Petersburgen argitaratzen da–, garai hartako Errusiar Inperio sortu berrian, kostalde baltikoan zehar XIII. Mendez geroztik bizi diren germaniarrak dira Anna Ivanovna zarinaren kuttunak. Alemanieraz baino mintzatzen ez den elite honek burutzen ditu Errusiar Inperioarentzat administrazio eta gerra mailako lan ikusgarriak. Areago, garai hartako errusiarren atzerapen itzela dela eta, –Errusian ez dago unibertsitate bakar bat ere–, sendagile guztiak germaniar nazioetatik etorritakoak dira, germaniara den bezala SCHREIBNER-en apunteak jasotzen dituen JOHAN BERNARD FISCHER garaiko Errusiar Inperioko osasun ministroa ere.

Testuaren irakurketa zorrotzak berriz bi gauza erakusten digu: Batetik, lehen aldiz gertatzen zaigula idaz-

134) J.F.SCHREIBNER."Observationes et Cogitata de Pestilentia quae in Ucraina grassata est". Petropoli 1750. / 6 orr.

ten duen sendagileak berak lainoa ikusi izana. Ez du besteek ikusitakoa orritaritzen bakarrik, gainera berak ere ikusia dela esaten digu eta. Bestetik, hiru hilabetez pestea dela eta itxirik dagoen gotorlekuaren gainean oraindik lainoa han geldi egoteak zer esan nahi du? Zergatik ez dira bada guztiak hiltzen lainoa oraindik han badago?

Bi zerok fidagaitz izatera bultzatzen gaituzte, eta motiboaren ukrainiartasuna azken buruan berma dezaketen bakarren lekukotasuna, –bertako biztanleen lekukotasuna alegia–, zalantzan jartzera, eta sendagileak berak eragindakoa edota eralda-ikutua ez ote den susmatzera. Ez al da SCHREIBNER doktorea bere gustuko teoriarako apunteak biltzen ari?

Lekukotasunaren egoera nahasiegia da gure ustez, beste frogaren ezean, lainoaren motiboaren hedapena Itsaso Beltzeko ertzetaraino zabaltzeko. Froga garbirik eskuratuz gero ez genuke inongo arazorik horretarako, honek ez bailiguke Karatxi-koaren tamainako arazoa ekarriko, baina oraintxe bertan esku artean duguna ez da horretarako aski. Beraz, zortzigarren eredu hau aurkeztu ondoren, gure motiboa herri germaniarren ekialdeko mugak ez dituela gaintzen gaude oraindik. Eredu guztiak plazaratu ondoren helduko diogu patxadaz izurrite lainoaren hedadura ulerbideratu eta egokidura arkeologikoak aurkitzeari.

Guztira hiru dira erakusteke ditugun ereduok: Bi aurrenekoek, azkena plazaratu dugun honen antzera, atlantiar itsesertzetik urrunduko gaituzte, orain arte bertatik ia batere mugitu ez bagara ere, Suitzako mendietara abiaraziz. Bietako lehenak Bernako kantoira garamatza hain zuzen<sup>135</sup>.

*Duela 200 bat urte Brienzergrat hiritik lurrin urdin txiki baten itxuraz heldurik, Bernako Habkern haranean izurrite beldurgarri batek, –birikeriak alegia–, eraso zue-nean hantxe ikusi zuten Heriotza segaz ebakiz haranean zehar oihuka zebilela. Honi jarraiki, honek ebakitakoa erratzaz garbitzen zuen emakumezko itxura bat zebilen. Jendeak, "Heriozne Andrea" esan ohi zion.*

Kontakizun honek hiru irudiragarri ezberdin leunki elkartzen dituen koktela erakusten digu: Lurrinezko laino urdin txikia, heriotzaren gizarapen gizonezkoa (DerTod), eta honen urratsen atzetik honek ebakitakoa erratzaz biltzen datorren irudiragarri emakumezkoa. Bi pertsonaion-gana biltzen da noski kontakizunaren arreta osoa, bertan, lurrin urdinaren paperak kasik fisikoa ematen duelarrik, bi lagun horien ikur balio argiari kontrajarriz. Heriotzaren segaren aldean bere nagusitasun erailea galdu duen betiko ganduzko laino koxkorra dugu, bere higikera eta ekinerari buruzko xehetasunek kontakizunean huts egiten badute ere. Xehetasun hauen ezean, gure komentarioa leiendaren kokalekuari lotu behar zaio nagusiki, honen ekarkinik nabarmenena zera baita azken buruan, izurrite lainoaren eragin hesparruaren mapan, hesparru hori Europako erdialderaino hedatuko duen puntua ezartzea.

Suitzatik heldu zaigun bigarren eredu, Luzerna hiriko inguruetatik datorkigu, hain zuzen ere, Lau Kantoietako Aintziraren ertzean dagoen Meggen izeneko hiritik. Eredu hau, irregular samarra dugu, ke laino koxkor urdin batez mintzatuko baitzaigu, ezagutzen dugun ganduzkoa aipatu beharrean, baina bi irudiok nahiko parekoak ditugu ikuspegi grafiko batetik, aldaketa txiki hau onartzeko, eta dena den, kontakizunaren irakurketak onarpen horren bidez kotasuna baieztatzen digu. Entzun dezagun bada, tamalez osoriko bertsioa ez dugun istorioa hau, nahiz eta dena den, falta den pusketa aise asma daitekeena izan<sup>136</sup>:

*Luzernatik ordubeteko bidean dagoen Meggen-go auzunea hutsik utzi zuen peste hondatzaile batek. Bertan, aintzira ertzean eraikitako zurezko etxe zahar bateko zulo baterantz hegan abiatuz eta gelako hormako arraildura batean barrena sartuz ke urdin txiki bat ikusi zuten. "Hori pestea da" esan zuen begiraleetako batek, bertaratu eta taketa sartu zuen arraildura hartan. Une berean suntsitu zen gaitza auzunean. Anitz urte iragan zirela etxeko bat atzerrira partitu zen soldadu. Behin etxera itzuli eta begia hain zuzen ere zuzendu zuela, gertakari hartaz oroitu eta zera esan zuen erdi txantxetan: "Ikus dezagun ketxoa oraindik hor ote dagoen". Esanarekin batera atera zuen, batek halakorik ez egiteko esan bazion ere,...*

Gaztearen ikusminak eta gure kopiako azken esaldiak, pesteak bertan indar osoz zirauela eta aske geratu ondoren berriz ere auzune hartan hondamena eraginen zuela susmatzeko bidea ematen digute.

Kontakizun honek zera erakusten digu, alegia, izurrite lainoaren harrapaketa teknika ez dela Twente eta Oldenburg-ek mugaturiko hesparruko eskusiba, baizik eta motibo honen eragin hesparrua hori baino askoz zabalagoa dela. GRIMM anaiak plazaraturiko Erbach (Frankonia) eta Conitz-eko (Prusia) ereduaren teknika beronen erabilpena ikusi dugu, baina kasu horietan harrapagaia ez ziren ganduzko lainoak, baizik eta gartxo urdin bat aurrenekoan, eta inolako irudi edo itxurarik gabeko peste abstraktua bigarreanean. Suitzar eredu honek berriz, –zehatz mehatz ganduzko lainoa aipatzen ez badu ere–, izurrite lainoaren harrapaketa eragin hesparrua nabarmen zabaltzea ahalbideratzen du, nahiz eta azken buruan germaniar eskualdeko mugetan barna iraun, bertako bariantea izan behar duela ustearaziz. "Eskualdeko bariantea" diogunean, honek ez du derrigor esan nahi eskualde horretan buruturiko garapen narratibo berantiar eta bazterrekoa denik, euskortasun sendoago baten erakuslea izan bailiteke, hots, gainerako lekuetan ahaztu eta bertan bakarrik gorde den izurrite lainoaren ezaugarri zahar jator bat. Bata dela edo bestea dela, Voigtland eta Bernako erreferentziek germaniar eskualdeen irudiragarria bere harrapaketa eragin kontakizunik gabe ere berdin ager daitekeela erakusten digute, irudiragarri honen burujabetza frogatuz.

135) A.LÜTOLF. "Sagen Bräuche und Legenden aus den Fünf Orten". Hildesheim, New York 1975 / 114 orr.

136) Ber. 114 orr. 50 zbk: "PESTRAUCH DER KEILT"

Azkenik esan dezagun Meggen-go peste honi buruz, holandar lainoaren azterbidean ernalduriko zalan-zatxo bat argi dezakeen puntu berria dakarrela berarekin: Harritu egin gara orduan lainoaren lehen agerraldia- ren kamustasuna ikusirik, –hartan ez baitzuen inor eraiten–, nahiz eta teoriak bederen bere agerpen hutsa aski izan eskualde osoan heriotzaren hazia zabaltzeko. Ke koxkor urdin hau ez da ordea kontraesan berberean jausten, hasiera hasieratik jokatzeko baitu eraile, eta engoitik nabarmen agertu diren bere ondoriook dira bere harrapatzearekin batera aienatzen direnak.

Azken bi ereduok eskaini dizkigun suitzar leienda bilduma berak luzatzen digun erreferentzia berri batek Prusiara garamatza berriro, gure inkesta honetako azken izurrite laino eredu aurkitzera. Jatorburu hau Tormersdorf dugu, aurkitzeko urtetako lana behar izan dugun herrixka. Izan ere, kasualitateari eta alemaniar diasporak interneten ipintzen dituen argibideei esker aurkitu ahal izan dugu azkenik herri hau non zegoen, eta zegoen dugu, II. Mundu Gerra ondoren ezarritako Oder-Neisse muga herriaren erdi erditik pasa eta deseginda geratu baitzen, gaur egungo mapatan beraz aurkiezina delarik. Halere, mapan duen kokapena ez da azken laino honen kasuan bere ezaugarriak nabarmenena, dagoeneko eredu bat, –Voigtland-ekoa hain zuzen–, eskaini digun Prusian agertzen baita, eta ez dio beraz gure motiboaren eragin hesparruari zabalagotzen laguntzen. Garrantzia itzelekoa den bere ekarkina, aldiz, testuak eskaintzen digun argibide baliotsu bati zor zaio. Ikus dezagun lehen bailehen<sup>137</sup>:

*Tormersdorf-eko peste hilobia*

*Aspaldiko garaietan pestea Rothenburg-eko inguruetan urrun eta zabal hedatu zenean eta bakar batzuk bakarrik bizirik zirautelarik, ondoko Böhmenrland (Bohemia) eskualdeko ospe handiko azti bati idatzi zioten gaitza konjuratu eta uxatzera etor zedin. Hau etorri eta Tormersdorf-eko Zechberge mendian hilobi handi bat hondeatu eta harrizko hormak eraikitzeko agindua eman zuen. Bertan, bere azti zotza jasoz, hilobi zuloraino hurbildu eta bere konjuro formulak kantatu zituen pestea beregana erakartzearen. Hura, laino urdin baten itxuraz agertu zen inguruko herri guztietatik erakarririk, eta hilobi barrura ezkutatu zen. Aztiak honako agindua gaineratu zuen oraindik, hots, inork ez zuela sekula hilobia zabaldu behar, eta ondoren bere ere hilobian barrena sartu eta jendeak ez zuen sakon bat lurtean besterik ikusi geroztik, hain zuzen ere, gaur egun oraindik ikusgai dagoen eta "Peste Hilobia" deritzan sakon bera.*

Azken testu hau izugarri garrantzitsua da, izurrite laino eta hilobi megalitiko baten arteko froga luzatzen baitigu (*hilobi handi bat hondeatu eta harrizko hormak eraiki*), honen bitartez izurrite laino eta jentilen lainoaren berberatasuna erabateko segurtasunez erabaki dezakegularik.

Bazeuden aurretik ere berberatasun hau susmatzeko zenbait arrazoi on: Arraza baten bat bateko eta erabateko suntsipenaren bi eredu genituen, –gai nahiko bitxia bere bi bertsio bakarrak hurbiltzeko saioa zilegi izateko–, biak zein bere oroitarri megalitikoari loturik. Lehena Euskal Herrian gertatzen zen laino txiki baten agerpenak eraginik, eta bestea Irlandan burutzen zen, izurrite bat zela bide. Eta bi tradizioon arteko lotura, kolera izurrite batek laino txiki baten itxura hartu zuela jakinarazten digun euskal folkloreko albiste batek luzatu digu. Auzia argi dagoela ematen zuen, xehetasun xume baten zirika salbu: Azken albiste hau, jentilen akaberaren anitz bertsio bildu diren eskualde batetik etorri zaigu, eta halere, jentilen lainoa ez da inoiz izurrite lainoa bailitzan ulerbideratzen, eta honek noski bi lainoon ezberdintasunaren hipotesia plazaratzen du, jentilen akabera eta Partholon-darrena bata bestetik urrunduz.

Halabaina hipotesi hau ere ez da eusteko samurra: Erraldioen akabera biok antzekoegi dira eta batera duten lotura megalitikoak adierazkorregia dirudi aintzat ez hartzeko. Eta bestalde, bi laino moten antza, –kasu batean berberatasuna bilakatzen den antza–, are eta mamitsuago agertzen da bi irudiragarri urritasun eta arrarotasun parekoak kontuan hartuz gero. Eta noski ez dago ahazterik izurrite lainoak, jentilen lainoak sorrarazitako ilungune eta enigma guztiak aidoso eta borobil ulerbideratzen dituela: Halako gauza txiki eta xumea hain beldurgarri nola ote daitekeen, eta erabateko suntsikera hori nola eragin ote dezakeen galderek, izurrite lainoari esker jasotzen dute lehen aldiz erantzun asegarria. Orduan, hau guztia kontuan hartu ondoren, Euskal Herrian gertatzen den izurrite laino eta jentilen laino gauza beratatz ez jotzea zeraren bidez ulertarazi nahi izan dugu, alegia, jentilen akaberaren kontakizunaren gozotze prozesuak eraginiko ondorioetako bat bailitzan, leienda honetan Jesukristoren jaiotza eta kristaigoaren hedapenaren motiboen sarkeriak jentilen heriotza eztitu egin baitu, lehengo laino erailea suntsikera leundu baten iragartzaille hutsa bihurtuz. Eta orain, azti baten xarma kantuek erakarririk, euskal jentilak eta irlandar Partholon-darrak bezalaxe bertan betirako ehortzirik geratzeko hilobi megalitiko batean sartzen ikusten dugun Tormersdorf-eko izurrite lainoak gure aurrusteetan ez garela oker ibili erakusten digu: Jatorriz laino bat baizik ez dago, kultura megalitiko bati lotzen zaion izurrite laino. Somatu ahal izan ditugun ezberdintasunak bi gordekortasun maila ezberdinen izanetik datoz: Kultura megalitikoarekiko lotura oraindik ageri den mailarik mitologikoenean lainoak bere izurritebidetasuna galdu du, kultura eraldaketek eraginiko berriinterpretaziopean, eta bere izugarritasun eta mehtaritasunaren oroitzapen lausotu eta zehazpakoa baino ez du gorde. Eta gaitzen folklorearen mailan, lainoak izurritea irudiratzeko balioa gorde du, baina lotura megalitikoak galdu egin da noski, maila honetan ez baitzen luzarago beharrezkoa. Tormersdorf-eko pestearen kontakizuna, –benetako miraritxo den eta izan ere inondik inora espero ez genuen idoroketa–, alde batetik lainoaren izurritebidetasuna eta bestetik haren lotura megalitikoak

137) KARL HAUPT. "Sagenbuch der Lausitz" I. alea / 182 orr. 216 zb.



ren oroitzapena gordetzen jakin, asmatu eta ahal izan duen bakarra dugu. Demostrazio bat balio duen kasu bakarra.

Izurrite lainoari buruzko inkesta luze honen amaiburu gisa, bi punturen gaineko komentarioa egin behar dugu. Lainoaren benetako funtzioaren auzi zaharrari helduko gatzazkio lehenik, eta honen ondoren, kausituriko ereduaren banaketaren gainean bi hitz esango ditugu.

Gaitza bere baitan daraman lainoa eta izurritearen aitzindari agertzen den lainoaren arteko hautakizun zaharra, Tormersdorf-eko pestearen berri eman digun testuko orri oineko ohar batek pizten du. GRIMM anaiek aipaturiko Voigtland-eko eredu berari buruz ari den ohar honek honela dio<sup>138</sup>:

*Garai batean wenden-darrak bizi zireneko Voigtland-en, pestea bererantz erakartzen duen laino bat dela uste dute. Izurritea aurrera erakartzen duen lauso sargoritsua da.*

Hauxe dugu, lainoak gaitza bere baitan daramala zuzenean gezurtatzen duen herriko albiste bakarra, –teoria bat frogatu nahian dabilzan medikuek manipulatu gabeko era honetako albiste bakarra alegia–. SCHREIBNER-en ukrainiar lainoari buruzko komentarioak ikerlari baten komentarioak dira, eta gainera, herri albiste jatorretan oinarriturik baleude ere, ez dira lainoak gaitza bere baitan daramala zuzenean esatera heltzen. Eta aldiz, leku kutsatuen gainean geldirik dagoen lainoak kutsadura zurrupatzten duela esaten denean, gaitza baitaratzen ari dela gero beste nonbaiten uzteko aitortzen da inplizituki, eta honek lainoa kutsatuaren hipotesira garamatza berriro.

Voigtland-eko lainoa dugu beraz, gaitza gordetzen duen "ontzia" izan beharrean, nolabaiteko erakarmena dela bide haren erremolkatzailetzat esplizituki jotzen duen eredu bakarra.

Lehian dabilen beste hipotesiak, DIEMERBROECK eta HECKER bezalako ikerlariak dauzka defendatzaile esplizitu bakarrak, baina aldi berean, zenbait albistetako aitorten inplizitua du aldeko: Alde batetik lainoa izurritea dela esan, eta bestetik lainoaren itxitura edo bere biktimekiko hurbiltasuna dela eta, lainoak benetan kutsatu egiten duela somarazten diguten aitorten inplizitua.

Bi ulerbide kontraesankor hauen izanak, jatorrentzat bietako zein onartuko ote dugun erabaki beharra plazaratzen du berehala. Halere, ez dugu uste jatortasun eta eraldatutasunaren arteko auzia denik esku artean duguna, bikoiztasun horrek gure ustez benetan erakusten

duena izurrite lainoaren benetako jatorrizko anbiguotasuna baita. Aurkituriko ereduaren listari begiratu zera nabaritzen dugu, alegia, lainoaren ekinera bi kasutan bakarrik erakusten zaigula bitartekaririk gabe eta beste motiboren baten, –laino harrapaketa ari gara nagusiki–, interfe-rentziarik gabe: Segurako eta Karatziko britainiarren bertsioetan hain zuzen. Bada, biok, arras batera dabilta gertakarien hurrenkerari dagokionez: Lainoak, agertu, iragan eta alde egiten du, eta zenbait ordu beranduago bertako guztiak gaixotu eta hiltzen hasten dira. Eta kito!

Bateratasun hau, lainoaren benetako funtzioari buruzko era guztietako espekulazioei bidea ematen dien ekinera honen jatorritasunaren frogagarria dugu. "Gaitza bere baitan daraman lainoa" ala "izurritea erakartzen duen lainoa" alternatibari ematen diogun erantzuna beraz, izurrite lainoaren jatorrizko anbiguotasunaren hipotesiari eustea da, honek uztar baitezake, hobekien, aurkituriko bi ulerbide kontraesankorren izana.

Bada noski, gaitza bere baitan daraman lainoaren aldeko joera logikoa, zeren eta mitologia, ikusgai den itxura batez baliatzen bada ikusezina den errealitate bat irudiratzeko, itxura horrek ikusezin hori benetan adieraztea ematen du logikoena, hots, lainoa benetan izurritea izatea, zeren eta honen erakartzailea baino ez bada, orduan hau, –izurritea–, ikusezin eta irudiratu gabe geratzen baita aurrera ere. Baina dena den, lainoaren ekinera nahiko anbigua da bi ulerbideak gogora etorri ahal izateko.

Eta azkenik, aurkituriko hamaika kasuek gure mapan marraztu duten banaketa hesparruari buruzko bi hitz esan ditzagun atalaren amaiburu.

Eremuaren zabalari dagokionez, Euskal Herria da mendebaldeko muga, Itsasoa ipar aldekoa, Alpeak hego aldekoa eta Elba ibaia joko dugu ekialdeko muga, hortik haraindiko eredu guztiak gizarte germaniarretan kausitu direlako, eta beraz gizarteok ekialderantz XII eta XIII. mendeetan hasitako emigrazio aldien ondorio direlako.

Zabaleraz gain, nabarmendu beharreko bi aspektu garrantzitsu daude gainera: Aurrenekoa, gure irudiragarraren hutsa mediterranean Europa osoan, eta bigarrena, inkesta honetan kausituriko eta kokatu ahal izandako hamar eredueteriko zortzik erakusten duten atlantiar itsasertzera zoko joera nabarmena, kontinentean, nahiz Britainiar Irletan.

Zalantzarik gabe esanahiren bat eduki behar duten bi ezaugarri. Ohar arkeologikoei eskainitako atalean saiatuko gara aurki esanahi hori argitzen.

138) Ber. 216 orr. 1. oharra

## X. AZKEN ORDUKO IDOROKETAK

Izurrite lainoaren aztertzeari eskainitako iker ahaleginek bi idoroketa garrantzitsu ekarri zituzten karanbolaz, hauek Euskal Herria eta Irlandatik kanpo guk ezagutzen dugunaren antzeko jentilen akaberaren tradizio bat baze-goela erakusten zutelarik. Eta zertxobait beranduago, benetako azken orduko kontsulta batzuk ustekabeko bezain zoragarri den honako fruitu hau eman zuten: Beta-zal jasoerari buruz eutsi dugun hipotesiari erabateko baieztapena ematen zion datua, honen izana, motibo honen azterketaren amaieran egonarri eskasez aurreratu dugularik.

Atal hau beraz, nolabait "egitarautik kanpo" helduriko idoroketa hauen azaltzeari eskainiko diogu.

Erraldioen akaberaren bi eredu hauetariko aurrena, orrialde hauetan zehar dagoeneko aipatu dugun eskualde batetik datorkigu: Alemaniako Oldenburg-etik hain zuzen ere, Neuenkirchen eta Neuenburg-eko hirietan izurrite lainoaren bi eredu aurkitu ditugun eskualdetik. Eta bi eredu hauen berri ematen digun idazlan berak luzatzen digu honako komentario hau<sup>139</sup>:

*Pestrup-eko bailara osoan erraldoi (hühnen) asko bizi izan ohi ziren garai batez, baina peste batek denak eraman omen zituen. Hortik omen dator Pestrup inguruan ikus daitezkeen horrenbeste erraldoi-hilobiren (hühnengräber) izana, eta hortik halaber Pestrup-en izen bera, Pestdorf (pestearen herria) alegia.*

Pestrup-eko bailaran garai batean bizi izan ziren anitz erraldoiak beraz, peste batek kutsaturik suntsitu ziren denak batera, zegozkien oroitari megalitikoak bertan utzirik noski, haien lehengusu euskaldun eta irlandarrak bezalaxe. Izan ere, kontakizun honek Partholon-darren akaberarekin duen antza dela bide, Partholon-dar hauek erraldoi edo jentilak direla frogatzen digu erabateko sendotasunez. Bestalde, berria bildu den eskualdean pesteak eskuarki lurrinezko laino urdin baten irudia hartzen duela kontuan hartuz, euskal jentilen akaberaren leiendaren itxura berbereko kontakizunaren aurrean gaudela ohartzen gara.

Baina xehetasun honen ezean ere, oroitari megalitikoak uzten dituen erraldoi zibilizazio baten bat bateko suntsikeraren motiboak baditu honezgero hiru bertsio, eta hirugarren honi esker, Irlanda eta Euskal Herriaren hespiletik irtengo zaigu azkenik, bere eragin hesparrua mendebaldeko Alemania iparralderaino zabaltzeko. Eragin hesparru hau lainoaren motiboarenaren pare parekoa agertzen zaigu, baina honek ez luke inor harritu behar, bi motibook mito beraren bi zatiren iraungarriak baitira, eta beraz, bi eragin hesparruen beretsutasuna espero daitekeeneko da.

Iragaririko bigarren eredu ez da aurrekoa bezalako kontakizun bat, esaldi soil bat baizik. Kurland-en konta-

tzen diren erraldioen ele zaharren sarrera gisa erabili ohi den esaldia hain zuzen. Hona ele zahar hauetariko bat, JAKOB GRIMM-ek laburbildu eta komentaturik<sup>140</sup>:

*Dzerven-etako Kintegesinde-n luze eta zabal eraturiko harresi batzuk ikus daitezke, eta herriak zera dio: Izurritearen aurretik (alegia, oroimenez kanpoko garaietan) Kinte izeneko "gizon indartsua" (erraldoia) bizi ohi omen zen Hasenpot-eko bailaran. Harri ale ikusgarriak atera, moztu eta arradatzeko gauza zen, eta bere behor zuriarekin batera harririk zabalenak ere garraiatzen zituen. Harriz eraiki zuen bere etxebizitza, harriz bere sailak inguratzeko hesiak. Behin haserrealdi bat ukan omen zuen Libau-ko merkatari batekin; hau zigortzearen bere behor zuria hamabi gurdi beteren neurriko harria garraiatzen jarri eta Libau aldera abiatu ziren, harria merkatariaren etxeko atarian eraisteko asmoz. Hirira heldu zelarik, ez ziotela utziko zubiaren gainetik iragaten, zamaren azpian apurtuko ote zen beldur baitziren, eta ezetz eta ezetz, harri hura eraitsi zezala bertan.*

*Gure gizonak horrela egin zuen azkenean, zeharo mingosturik, Grobin-erako bidean eraitsi baitzuen Rattenhof inguruan. Bertan dago gaur egun oraindik, eta handik iragaten diren letoniarrek harriduraz erakusten dute.*

Jatorrizko bertsioak gehiago azpimarratzen ditu pertsonaiaren, eta honen lan eta langaien erraldoitasuna<sup>141</sup>:

*Pestearen aurretik (bertan azkenekoa 1709an zabaldu zen), -honela dio leiendak-, Kinte izeneko gizon indartsua bizi ohi zen Hasenpot-eko bailaran, Dzerven-etako Kintegesinde-n alegia. Letoniar Herkules honek egundoko harrizarrak ebaki eta arrada zitzakeen; harririk handiena ere bere behor zuriaren laguntza bakarrarekin garraiatu ohi zuen, eta etorkizunerako bere indarraren oroikarria uztearren, bere etxebizitza eta haren ondoko eraikuntza guztiak sekulako harrizarrez eraiki zituen, eta bere lur sailak harresi erraldoiez itxi.*

Baina euskal jentilen antzera eraikuntza ikusgarriak burutzen ikusten dugun kurlandar erraldoi honen istorioaren gauzarik azpimarragarriena zera da zalantzarik gabe, kontakizunaren hasieran erraldoi honen eta orokorki erraldioen garaia deskribatzeko aurkitzen dugun zehaztapena: *Pestearen aurretik* esaldia alegia.

Mitoaren aldia eta egungo garaia bereiziz peste bat dugu, Bibliako Euritearen antzera, mundu baten akabera eragin eta bestearen helduera paratzen duen pestea alegia.

Kurlandar eredu honetan hilarri megalitikorik ez da ageri, baina ez dago dena den horren beharrik, kontaktizuna ez baita erraldioen akaberarena, hauen garaiko ger-

139) L. STRACKERJAN. "Aberglaube und Sage a. d. Herzogtum Oldenburg". Oldenburg 1909 / I. alea, 411 orr. 258 a. zenbakia.

140) JAKOB GRIMM. (Stalybrass-ek itzulua). "Teutonic Mythology". London 1880-88. / II alea, 549 orr.

141) WATSON. (Izengabeko artikulua). "Jahresverhandlungen der Kurländischen Gessellschaft für Litt. Und Kunst" aldizkari II. Alea. Mittau 1882 / 311 orr.

takari batena baizik, eta beraz, pestreak bertan duen eskuhartze soila, pasadizoaren aldia edo garaia finkatzearena da besterik gabe. Zernahi dela ere, sarrera gisako esaldi horren erabilpena, erraldioen munduaren pestreak eraginiko akabera kontatuko lukeen mitoaren izanaren lekuko dugu. Ez dugu tamalez mito horren Kurlandar bertsioa ezagutzen, baina erraz imajina dezakegu gaintzeko hiru bertsioen antzeko litzatekeela.

Aipatu berri ditugun bi ereduoz amaitzen dugu motibo honi buruzko dossierra. Motibo hau dugu zalantzarik gabe, ikergai izan ditugun lauetariko adierazkorrena, berak erakusten baitu jentilen akaberaren mitoaren benetako funtsa: Munduaren akabera benetakoa, Bibliako Euritearen parekoa erabatekotasuna eta berrikuntzaren ondorioei dagokienez. Erraldioen aldia eta gizakoen aldia mugatu eta bereizten dituen akabera.

Motiboaren urritasuna eta bere lau eredu bakarrok marrazten duten hesparruaren zabalatasuna, izurrite lainoaren joera errepikatu eta berriz ere, ikertzen ari garen mitoaren aspaldikotasuna egiesten duten bi ezaugarri dira.

Azkenik, izurrite lainoaren Atlantikorako joera nabarmena areago nabarmentzen da oraindik erraldioen akaberaren kasuan, honen lau ereduak itsasoari itsatsita agertzen baitzaizkigu Irlandan, nahiz Euskal Herritik Kurlandiaraino europar kontinentean zehar.

Lau ereduaz ari gara beti gora eta behera, une honekin banaketa geografikoa baitugu ardura. Baina izan ere, ereduak hori baino ugariago ditugu. Jentilarritik datozkigun hiru bertsioak bat bezala hartuz ere, gaiaren hamar bertsio ezberdin geratzen zaizkigu oraindik Euskal Herrian erakusgai. Hamar Euskal Herrian, bat Irlandan (anitz autorek bildua baina tradizio bakarra azken buruan), bat Oldenburg-en, eta bat Kurlandan. Inor oraindik tradizio indoeuropartzat ulerbideratu nahian badabil, esan beharrik ere ez dago alferrik dabilela.

Gure inkesta bibliografikoaren azken emaitza betazal jasoeraren inguruan eta Balor-en nortasun bikoitzari buruz bota ditugun hipotesiak egiaztatzerako datoren datua da.

Ikerbidean honenbeste aurrera egin ondoren, auzi horiek urrun samar ikusten ditugu orain, eta agian lehen adina irrikirik gabe. Izurrite lainoa eta erraldioen akaberaren gainean burutu ditugun ikerketek, jentilen akaberaren mitoaren indoeuropar aituzineko jatorritasuna aski eta lasa frogatu digute, haren ilungune nagusiak argitzeko behar genituen irakaspen eta ulerbideak luzatuz orobat. Gure azterketatik ateratako konklusioak aski dira, zera frogatzeko ez bada ere, zeraren arrazoizko susmoari eusteko, alegia, euskal bertsio anitzetan agertzen den betazal jasoeraren motiboa, jatorrizko leienda barnekoa dela, eta beraz, bertan lagun dituen gainerako motiboek frogatu duten indoeuropar aituzineko jatorri berebera dela.

Jatorkidetzaren honek gure zenbait hipotesiren zeharkako demostrazioa eraginen luke, hots, zeltaitzineko Irlandan betazalak jasoaraztea keinu magiko bereizgarria lukeen pertsonaia mitiko baten izanaren hipotesia, eta

pertsonaia honek Moytura-ko Balor-en deskribapenean ukanen lukeen eraginarena. Halere, demostrazio zuzenak beti izan ohi dira desiragarriago, eta batez ere, gurea bezalako ikerketa batean aztertutako motiboaren urritasun eta arrarotasunak demostrazio zuzen horiek nahi bezain ugari ezin izatera behartzen dutenean.

Ondoren azalduko dugun honek berriz, betazal jasoeraren motiboaren zeltaitzineko jatorria gainontzeko motiboetaz dakiguna erabili gabe zuzenean frogatzea ahalbideratuko du, eta aldi berean, keinu bitxi honen benetako esanahia argituko digu. Ikerbide hau astian zehar emaniko urratsen ordena berebera egituratzeagatik demostrazio honek azkenerraino itxaron behar ukan badu ere, ezin zaizkio bere balio bikainak ukatu, berari esker honaino ulertezin iraun duten azken ilunguneak argituko baitzizkigu.

Balor-i buruz moldatu dugun hipotesia zera zen funtsean, beraren nortasunean bi osakin ezberdin ikusi nahi izatea: Alde batetik betazalen jasoera keinu magiko bereizgarria lukeen irlandar zeltaitzineko jainkozkoa, eta bestetik, konkistatzaile zeltek honi asimilaturiko begi luputsuaz hornituriko etsaia, asimilazio hau, betazal jasoera eta errainu luputsua darion begiaren artean berehala sortzen den logikazko ideia loturan oinarrituko litzatekeelarik. Hipotesi honek Lug eta Balor-en arteko borroka bi alderdietako ordezkari nagusien arteko borrokaren oiritzapen antzaldatua bailitzan ulerbideratuko luke: Betazalak zabaltzen zaizkion erraldioa alde batetik, eta Lug, zelten jainko nagusia bestetik.

Oinarritzeko arazoa zera frogatzea zen, Balor-engan aurkitzen genuen betazal jasoera jatorriz beste helburuari zuzendurikoa (euskal jentilaren helburuaren antzeko) izan behar zen betazal jasoera baten antzaldaketa zela. Hau frogatuz gero, Moytura-ko gatazkaren jatorrizko egoerari buruzko gure hipotesi horien egiantza begibistakoa bilakatuko zen. Irlandar "neladoir" edo laino irakurlearen agerpenak, demostrazio nahiko sendoa eraikitzeke bidea eman digu: Lainoen irakurketan oinarrituriko igarkuntza arte baten izanak, gure jentilaren ekinaldia horrelakoxea dela hausnartzera eramane gaitu: Honek laino bat irakurri eta ulerbideratu egiten baitu. Gauzak honela, jentilaren keinu hori ezin zen Balor-en keinu erasokorren antzabesteraketa izan; alderantziz, lainoen bidezko igarkerari lotu behar zitzaion. Beraz, Balor zen, edo zehazkiago, bere keinu hori, euskal jentilaren keinuaren baliokideren baten antzaldaketatzat jo behar zena, eta auzitan zebilen maileguan, hortaz, Balor zen hartzailea, eta euskal jentilaren irlandar zeltaitzineko lehengusu txikiren bat berriz emaitza. Argudio hurrenkera luze samarra agian, baina nahikoa azken buruan, euskal jentilaren jatorritasuna eta hau Balor-engan eratorritakotzat ulerbideratzeko saioaren ezinezkotasuna frogatzeko. Halere, konplikatu samarra ematen zuen, eta betazal jasoeraren inguruan eskainitako argudioen arazo berbera zuen: Konkistatzaileek bertakoengandik edozer mailegatzeak, jatorrizko adierazmamiaren antzaldaketa dakar beti, eta ezaugarri kultural batzuetan halako maileguen aztarnak ezagutu nahi izateak arriskua dakar beti. Eta zera ahanzi gabe noski, alegia, mailegu kulturalen nondik norakoa alderantzizkoa izan ohi dela eskuarki, eta hagitz noizbehin-

ka baizik ez direla bertakoen praktikak "ofizialtasun mailara" heldu. Hitz bitan, zeltek Moytura-n betazal jasoen keinua gaizki ulertu bazuten keinu erasokorra bihurtuz, inola ere ezin espero noski "neladoir"-engan keinu berbera zuzen interpretaturik aurkitzea. Hori absurdoa eta kontraesana litzateke,... baina lasagarria baita ere. Alegia, aurkitzen eta biltzen ari garen antzaldaketa, ausentzia eta abar guztiek hurrenkera zeharo logikoa osatzen badute ere, gure hipotesien hesparruan borobilki kokatzen bazaizkigu ere, presentzia frogakor bat nahiago genuke, -ezin logikoago baina ausentzia diren heinean beti kezagarri diren-, ausentziok baino.

Eskatzen ari garen bezalako presentzia folkloreaken arlotik etor lekiguke bakarrik, eta mitoaren aspaldikotasunak, hestu eta zailegi bihurtzen zuen ahalbide hau. Baina hala eta guztiz ere, "neladoir"-en inguruan landutako argudioen egia frogatzen duen albiste preziatu hori bada. Larri isolaturik eta tradizio folklorikoetan izugarri aberats dagoen leku batean gorderik iraun du gureganaino, gureganaketa hau halere, gizon baten bitartekaritza ezin garrantzitsuagoari zor zaiolarik. M. MARTIN dugu, -etnografiaren aitzindari benetakoa-, XVII. mendeko amaiera aldera Eskoziako mendebaldeko irlak bisitatu eta hango berri utzi digun gizon hori. Eta berri hauen artean, hona irla horietako zenbait lagunen gaitasun bitxi batez mintzatzen zaigun honako hau<sup>142</sup>:

*"Bigarren ikusmena", normalean ikus ezin diren gauzak ikusteko gaitasun bitxia da, horretarako "ikusleak" inolako antolaketa erabiltzen ez duelarik; ikuskizunak inpresio izugarria egiten die "ikusleei", eta hauek ez dute, ikuskizuna ez den beste ezer ikusten edo pentsatzen hark iraun bitartean: eta orduan, goibel edo alai azaltzen dira, agertu zaienaren arabera.*

*Ikuskizun bat agertzerakoan, gizaseme horren betazalak tentetu egiten dira eta begiak fijo geratu ikuskizuna suntsitu arte. Norbaiti ikuskizun bat agertzen zaionean berehala oharitzen dira ingurukoak, eta honela gertatu zen behin baino gehiagotan neroni eta nirekin zeudenak oharitzea.*

*Bada bat, Skye-n, -bere ezagunek diotenez-, ikuskizun bat ikusten duen bakoitzean, betazalako barruko aldea hain gora bihurtzen zaiolarik, gero ikuskizuna aienatu denean, bere behatzez baliatuz eraitsi behar dituen, eta zenbait aldiz besteen laguntza erabiltzen du hauek eraisteko, era askoz errazagoa baiteritzo honi.*

Lehenik esan dezagun Irlanda eta eskoziar mendebaldeko irlen arteko berberatasun kulturala erabatekoa dela aspaldi aspaldidanik, eta berberatasun honek bi lurraldeotako datuak bereizketarik egin gabe erabiltzeko onespina ematen digula.

Zehaztapen hau eginik, neur dezagun testu honek eskaintzen digun argibidearen garrantzia: Euskal jentila eta eskoziar ikuslariaren keinu bien alderaketak axalezko zenbait ezberdintasun txiker eta oinarritzko beratasun adierazkorra erakusten ditu.

Lehenengoz, bi irudiragarrien tamainen arteko aldea soma daiteke, baina hau zeharo noskizkoa da, euskal albistea erraldioen mitologiari datorkigulako, eskoziarra berriz folkloreako izan eta gizaseme arruntek buruturik dagoen bitartean. Azken hauengan, mitoak aipatu bezalako urkulu eta endaeiek huts egitea ez da, bada, tamainen arteko aldearen ondorioa baizik. Jarraian zera somatzen dugu, alegia, eskoziar ikuslariak jasaten duen eragiketara hain zuzen ere jentilarenaren alderantzizkoa dela: Honek betazala jaso diezaiten agintzen du, eta haren gan berriz betazalen tentetze edo zutitzea bakar bakarrik burutu, eta laguntza, haiek eraisteko behar delarik. Azkenik, testuen arabera, jentila igarlea da, eta eskoziarra ikuslaria, biak zehatz mehatz gauza bera ez direlarik.

Baina bistan dago bereizkune hauek huskeria baino ez direla, jentil igarlea eta eskoziar ikuslariaren arteko adostasun sakonaren aurrean. Biok, igarraldi egoera bitartean betazalak tenteturik egoteko jarrera bera darakuste, biok beste norbaiten laguntza behar eta eskatzen dute betazalak maneatzeko une batean edo bestean, eta biok igarpenak botatzen dituzte saioa amaitu ondoren.




Izan ere erkaketa honetatik jalgitzen den adostasun soila baino areago, eskoziar ikuslariari buruzko albistean, jentilaren jarrera azkenik ere ulertu ahal izateko beharrezko argibideak eskaintzen dizkigu, berak betetzen baitu haren keinua ilun eta bitxi bihurtzen zuen testuinguru hutsunea. Betazalen tenteketa, hori jasaten duena bisio bat ikusten ari dela ingurukoekin jakinarazten dien keinu bereizgarria da. Ikusmen normala eta igarkuntza ikusmena bereizten dituen igarria. Ikuslaria murgildu deneko egoera mistikoaren kanporako erakusgarria, hura, gero lagunei iragarriko dien etorkizuna behatzen ari deneko erakusgarria. "Xaman" megalitikoaren trantzearen erakusgarria.



Honek, zera hausnartzera garamatza, alegia, jentilaren igarpene bisio batean oinarriturik egon behar dela baita ere, euskal testuek horretaz deus ere aipatzen ez badigute ere. Euskal Herrian testuinguru datuak galdu direlarik, halako bisioaren aipamenik ezak ez gintuzke harritu behar, eta are gutxiago oraindik betazalen jasoa jentil "zahararen" "Itsutasunaren" aitzakiaz ulerbideraturik ikusi ondoren. Baina eskoziar albistean, eta keinuaren tankera berak ere, mitoaren bertsio jator zaharrenean jentilak duena hain zuzen ere bisio bat dela, -jarraian igarpenean itzulirik-, eta ez beste edonolako etorria, hausnartzera garamatzate.

Beste norbaiten laguntza eskatzen duen eragiketa zehatzaren inguruko bereizkuneak, -betazalak jaso ala eraitsi alegia-, berak erakusten duen bateratasunak adina garrantzirik ez du, ez eta bateratasun honek jentilaren betazalen jasoa ulertarazteko ematen duen argibideak adina ere. Bateratasun hau, bi kasuetako laguntza behar hori da hain zuzen, euskal mitoan, jasaniko arrazionalizaketa guztien ondoren eta ondorioz itxura normalekoa irizten badiogu ere, eskoziar albistean bere adierazkortasun sinbolikoa ezkutatu ezinik geratzen den laguntza beharra.

Ikuslariari eskainitako laguntza bere betazalak berezko lekura atzera eraisteko erritozko keinu bat da, are eta

142) M. MARTIN. "A description of the Western Islands of Scotland". London, 1716 / 300 orr.





nabarmenagoa gainera, argi eta garbi premiagabekoa den heinean, zeren norik egin dezake, norik bere buruari baino hobe, aldi berean hain simple eta hain delikatua den eragiketa? Laguntza alderantzizko eragiketa burutzeko emanen balitzaio, –betazalak bihurritu eta tentetzeko alegia–, agian zera hausnar genezake, hots, seguru aski mingarri eta dena den unagarri izan behar den halako eragiketa, beste norbaiten esku heziak leunago eginen lukeela norberarenak baino. Baina jasoera ez, baizik eta eraispena denez, alde batetik, eta bestalde pare pareko laguntza Euskal Herrian agertzen denez, –eragiketa zehatza zein den axola izan gabe, laguntza behararren ideia nabarmentzen duen aipaturiko bereizkunearekin–, ezin luzaroago zalantzarik eduki, ikuslarietara betazalen maneaketan emaniko laguntzaren erritotasun eta ikurtasunari dagokienez. Idoroketa honi esker, euskal mitoak jentil igarlearen antzaldatzeari dagokienez jasan dituen arrazionalizaketak era frogakorrean agerian ipini ditzakegu.

Gure lehen azteraldiaren arabeko susmoak baieztatuz, jentil igarlea ez da itsua, eta ez da premiakoa zaharra izatea ere. Betazalak ez zaizkio jasotzen itsua delako edota begiak zabaltzea eragozten dion gaitzen batek jota dagoelako, baizik eta beste jentilen laguntzaz burutu behar eta ohi den jasoaldi hau bigarren ikusmenaren keinu errituzkoa delako, bere herriaren akaberaren berria jakinaraziko dion trantzearen ohiko adierazgarria delako.

Bi ikuskarion arteko ezberdintasunik nabarmenena zera da seguru aski, eskoziarraren bisioak bat batean, ustekabean eta hark batera menderatu gabe etortzen zaizkiola ematen duen bitartean, euskal jentilaren kasuan berriz zera dirudiela, alegia, bisioak hark nahi duen unean gogoratzen zaizkiola, ikusmen teknika landua duelako edo.

MARTIN-en albisteek ez dute inoiz aipatzen lagunek eskaturik bisioak ikusiko lituzkeen ikuslaririk, baina hone-lakoxea da halere euskal jentilaren iharduera, gainerako

jentilak bere igarmena erabil dezan otoika joan zaizkionean bakarrik sartzten baita mitoan. Dena den, gaitasun honi buruz dauzkagun albisteak urri samarrak direnez gero, teoriak imajina daitezkeen anitz ahalbideetariko ezainen alde ezin gara azaldu: Eskoziar ikuslariak agian zehazten ez den hainbaterainoko menderakuntza ukan dezake etortzen zaizkion ikuskizunen gainean; beharbada, euskal jentila lainoari begira ezarri eta bertan edukitzen dute ikuskizunen bat gogoratu artean, berak hori menderatu ezin duelarik; apika betazalen tentetzeak eragiten du zuzenean bisioak ikusten hastea,... Erantzuna segurta ezina da. Zernahi dela ere, komentatzen ari garen ezberdintasuna benetakoa balitz ere, ezin hori baino gutxiago espero, elkarren arteko loturarik gabe zeinek bere aldetik munduko bi zokotan zenbait mila urtetan zehar etendurik iraun duten tradizio baten bi eredu alderatzen ari gara kontuan hartuz.

Betazal jasoeraren motiboari aurkitu diogun ulerbide hau, izurrite lainoari buruzko azterketaren hasieran azpimarratu dugun zerbaiten laguntzera dator. Izan ere, jentilen lainoaren izurritezko esanahiaz jabetu garen une beretik, mitoaren aurrean azterketatik tiratutako inpresioetariko bat kritikatu dugu, hain zuzen ere, igarlearen ekinaldia lainoaren arabera ulerbideratu behar zela adierazten zuen inpresioa.

Izurrite lainoa eta honen mehatxua berehala ezagutzen dituzte jentilek, eta argi agertzen den ezagutza honetan oinarrituz, zera hausnartu dugu orduan, alegia, igarlearen ekinaldia, lainoaren agerpenak ekarriko dituen ondorioen zenbaterainokoa zehaztea zuzentzen dela, lainoaren adierazmamia lagunei argitzera baino, hauek hori poliki ezagutzen dutela erakusten baitute, lainoa ikustekoan azaldu duten izularrak frogatzen duenez.

Bi motiboan bereizketa honi, betazal jasoen benetako esanahia argitu digun eskoziar albistea bermatzen zaio orain: Betazal jasoen bidez adierazten den "bigarren ikusmena" ez dago lainoari loturik bereziki. Aplikazio hesparru oso zabaleko igarkuntza gaitasuna da, eta izan ere, eskoziar ikuskizunetariko bat ere ez dator laino baten agerpenaren eraginez. Aplikazio hesparru zabal hau zorigaiztoko berriek osatzen dute nagusiki, hala nola, heriotza iragarpenek, hileta eta sute ikuskizunek, e.a., baina badira baita ere, beste motako zenbait berri: Ezteiak, zorroneko jaiotzak eta bidaiarien helduerak batik bat. Egunerokoak ez diren gertakariak izan ohi dira, eta ez gure esaten jakinen zorigaiztoko berrien nagusitasuna "bigarren ikusmenaren" berezko ezaugarria ote den, ala alderantziz, nekazari gizarte txiki batean maizen izaten diren gertakari ez ohikoak hain zuzen ere heriotzak eta hiletak izateari zor ote zaion. Dena den, garbi dagoena zera da, "bigarren ikusmenaren" izurrite lainoarekiko lotura jentilen akaberaren mitoan igarkera honen anitz aplikazio ahalbideetariko bat baino ez dela.

Azterbidearen une honetan, ia alferrekoa da zera azpimarratzea, alegia, indoeuropar mitologiak ez daukala, betazalen tenteketaz adierazten den igarkuntza gaitasunari buruzko erreferentziarik, baina halere, nolabait beharturik edo egiten dugu zehaztapen hau. Honi loturik,

badago, beharbada ezer frogatzen ez duen baina halere zeltaitzineko jatorriarekin zeharo bat datorren xehetasun bitxi bat. "Bigarren ikusmenaren" dohainaren bereganaketari dagokion albiste bat dugu. Honats<sup>143</sup>:

*"Bigarren ikusmenaren" gaitasun hau ez da familian zehar behera iragotzen, zenbaitek hala uste badu ere, ezagun baitut horretaz hornituriko zenbait gurasoren seme-alabak ez direla dohainaren jabe, eta beste honen beste gertatzen da alderantziz ere. Inolako itunaz ere ezin daiteke beregana. Eta inkesta zuhurra burutu ondoren inoiz ez nuen entzun haietariko inorengandik gaitasun hau besterenganatzeko inolako biderik zegoenik.*

Halako dohain ikusgarria gizarte barnean klase edo korporazio bat eratzeke tresna ezin hobea bilaka daitekeen arren, "bigarren ikusmena" ezin da inola ere besterenganatu, ez eta familiaren hesparruan ere. Besterenganaezintasun hau noski, dohainari loturiko ezaugarri kulturala da. Odolaren bidez ere besterenganaezintzat jotzen duen kontzepzio honek, azti-ikuslari klaserik eratzea eragotzen du, eta areago oraindik, klanak eta leinuak nagusi diren gizarte batean etxe barneko besterenganaketa ere bideraezina bihurtzen du. Eta hau guztia ez al da bada erlijio espezialisten klaseak eratzeke joera nabarmena erakutsi ohi duen indoeuropar gogoaren gezurtagarri boroila?

MARTIN-en idazlanetik azaldu behar dugun azken pararte, "bigarren ikusmenaren" eragin hesparruaz mintzatzen zaigu<sup>144</sup>:

*"Bigarren ikusmena ez da bizpahiru lagunek irla eta zoko bazter batean duten gaitasun aurkitu berria, zeren eta alderantziz, bi seksuetako anitz gizakiren dohaina baita, hauek, berrogei edo berrogeita hamar lekutako aldeaz urrundurik dauden zenbait irla ezberdinetan bizi direlarik: Irla hauetariko askotako biztanleek ez dute inoiz elkarren berri jakin, ez hitzez ez eta idatziz ere; eta bisioak ikusteko dohain honek, –tradizioek dioskunez–, irla hauetan jendea bizi denetik egundaino iraun duenez fedegaberik handienak ere inoiz zalantzan ipini ez duelarik, inkesta zorrotza burutu ondoren, iraupen honek dohainaren errealitatearen frogara argia dirudi.*

*Soma daitekeena da, duela hogeitau urte, egun baino zabalduagoa zegoela; zeren orduan hamarrek ikusten bazuten, gaur batek bakarrik ikusten baitu.*

*"Bigarren ikusmena" ez dago mendebaldeko irlotako hesparruan mugaturik, Herbeheretan halaber zenbait lekutan ikusten dela dioten berriak bai baitauzkat. Bommel-en bereziki, bada emakume ikuslaria, bere dohaina dela eta, batzuen adiskidetasuna eta besteek beldurra eragiten duena. Honek ke bat ikusten du baten aurpegiaren aurrean, eta hau, honela ikusi duenaren heriotzaren igargaria da; eta izan ere, bertan bizi ziren zenbaiten heriotza auresan zuen: Hiri horretan bizi zen azken negu honetan oraindik.*

143) Ber. 301 orr.

144) Ber. 312 h.

Orritaratu dugun autore honen lehen pasartearen araber, badirudi betazalen tenteketa bisio-egoerari beti laguntzen dion keinua dela, gero haiek eraisteko laguntza Skye irlako ikuslari baten kasuan bakarrik eskatzen bada ere. Beraz, MARTIN jaunak esandakoari jarraituz, betazal jasoen motiboaren eragin hesparrua hark bisitaturiko mendebaldeko irla guztien multzoari heda dakioke. Halabaina ez dugu eragin hesparru hau Herbeheretaraino hedatzearen aldeko argudiorik, zeren eta MARTIN-ek holandar "bigarren ikusmena", eta berak ezaguturiko eskoziarrarena, gauza bera bailiran azaltzen badizkigu ere, guri interesatzen zaigun motibo bakarra, –betazal jasoak alegia–, identifikazio horren barnean sartzen ote den jakiteko biderik ez baita ukagu.

Autoreak ez digu xehetasun honi buruz deuserere esaten, –agian, egiten duen identifikazio horren barruan sartuta dagoela gauza jakintzat jotzen duelako, baina ezin genezake ezer eraiki honelako hipotesi-oinarri ahularen gainean–, eta dena den ez zaigu bere esperientzian oinarriturik mintzatzeko ari, zeharka heldu zaion berri batean oinarriturik baizik. Pena de honela izatea, zeren beste aldetik Bommel-eko ikuslariak zenbaiten aurpegiaren aurrean, hauen heriotzaren hurrentasunaren igargarri, ikusten duen ke horretan izurrite lainotik eratorritako motiboa ikusteko gogoia saiheskaitza baita, eta batez ere gure izurrite lainoa suitzar eredu batean ke bihurturik ikusi ondoren. Eta noski, Herbeheren sarrera motibo honen eragin hesparruan ez litzateke inorentzat harrigarri. Baina, –errepika dezagun–, tamalez beharrezkoa dugun datuak huts egiten digu, hots, betazal tentetuak. Ikusmen berezi eta igarkeren arloa, argi dago zabalegi eta labainkorregia dugula bertan barrena inolako tresna laguntzailerik gabe sartzeko. Betazalen jasoera bezalako motibo bitxi eta arraroak, bere eredu guztien arteko lotura inongo zalantza edo beldurrik gabe finkatzeko bermea luzatzen digu. Baina ikuskizun, amets eta igarpenak giza

gogo mistikoaren adierazgarri hain hedatu eta ugariak izanik, ez dago horiek guztiak homogenotzeko modurik, haien kanporako keinu adierazgarrien mailan batasun mamitsu eta erakuskorra aurkitzen ez badugu bederen.

Erreserba hauen bidezotasuna agerian geratuko da berehala, "bigarren ikusmenaren" gaia jorratzen duten bi autore nagusiek dohain honen eragin hesparrutzat eskaintzen dizkiguten herrien listak irakurtzerakoan. Alde batetik ZURBONSEN-ek<sup>145</sup>, eskoziar Hebrida Irlatz gain, Laponia, Färoe Irlak, Danimarka, Britainia, eta Alemaniako zenbait eskualde aipatzen ditu: Agian Laponia salbu gure mapan ongi emanen lukeen banaketa hesparrua.

Baina jarraian, ZURBONSEN-en iturburua den DU PREL-engan<sup>146</sup>, aurreko herriei honako hauek gaineratzen dizkien lista aurkitzen dugu: Pariseko eskualdea, India, Afrika eta greziar eta erromatar anitz eredu klasiko gainera. Bistan dago etnologikoki ezberdin diren errealitateak nahasten ari zaigula.

Dena den, autore hauek ez dute, eragin hesparru hauen marrazpidea liratekeen bibliografiaren edo beste-lako iturburuaren inolako berririk ematen, eta beraien komentarioek bultzaturik, betazal jasoen motiboa Hebrida Irlatzat kanpo inoiz ez dela erregistratu esango genuke, eta hau da gai honi buruz esan dezakegun guztia. Agian zera gaineratu bakarrik, autoreon aldeko zehazkaberria eta erreferentzia bibliografikorik eza ikusirik, oso zaila deritzogula aurrerantzean ere horren ikertzeari.

Atala amaitzeko garaia heldu zaigu beraz, betazal jasoen motiboaren eragin hesparruari buruzko honako konklusio honekin: Hebrida Irlak seguru dauzkagu, eta jentilen akaberan agertzen diren beste motiboen banaketa hesparruak ikusirik, hau ere European zehar beste zenbait lekutan ager zitekeeneko susmoak hartuta bagaude ere, ezinezkoa gertatzen zaigu eskoziar irla horietatik at bere izana frogatzea.

## XI. MITOAREN MUINEAN BARRENA

Gure ikerbidearen emaitzen lehen balantzea egin dugunetik honaino, hari jarraitu zaizkion bi atalek, emaitzok baieztatu eta hobeagotzeko bidea zabaldu duten argibide berriak ekarri dituzte. Geure buruari ezarri dizkiogun bi helburuetariko lehenari dagokionez, hots, jentilen akaberaren mitoa sortu zeneko geruza kulturala zein den erabakitzeari, eta haren kondar eta hondakinen ikerketan oinarrituriko haren garai bateko eragin hesparrua marrazteari dagokionez, aurrerapenak bistakoak izan dira, auziaren muina dagoeneko erabakirik dagoenik ematen ez badu ere.

Mitoaren jatorri ez-zelta, eta dena den indoeuropar aitzinekoa nahiko sendo finkaturik dago, jentilen akaberrako motiboen eredu kopuruari dagokionez Euskal Herriari erakutsitako gehiagotasunaren oinarrian, eta eredu

baliagarriak dakartzaten irlandar testuetan ez bezala euskal ereduak beti azalduko homogenotasun semantikoa- ren oinarrian halaber. Bi ezaugarriok, –kopuru mailako nagusitasunak eta homogenotasun semantikoa alegia–, bere horretan iraun eta eutsi diote geroztik honaino ere, orduan erabakitako konklusioen egia baieztatuz: Izurrite lainoaren motiboa zeharo urria da, eta praktikan ia ezezaguna, lan eskerga baten ondorioz azkenik hamai- ka eredu bildu ahal izan baditugu ere (gogora dezagun STITH THOMPSON-ek hari buruzko erreferentzia bakarra da-

145) F. ZURBONSEN. "Die Sage von der Völkerschlacht der Zukunft, an Birkenbaume". Köln 1897 / 51 h.

146) DU PREL. "Das Zweite Gesicht". Breslau 1882 (Deutsche Bücherei XIX)



karrela), eta pestearen bidezko erraldoien akaberarenak, eta betazal jasoez adierazirik ikusmen bereziarenak berriz, hurrenez hurren hiru eredu eta eredu bakarra baizik ezin izan dute eskaini euskal ereduez beste.

Bestalde, euskal bertsioren zuzentasuna eta homogenotasun semantikoa agerian nabarmendu dira ostera ere, eta ostera ere halaber irlandar trakeskeriak: Izurrite lainoak, –Tormersdorf-en erakutsi duen lotura megalitiko azaldu duenetik bere jentilen lainoekiko berberatasuna erabat frogatu duelarik–, jentilen lainoari eragokitako heriotzazko esanahiaren zuzentasuna baieztatzen digu, bide batez, irlandar druiden lainoen funtzio aniztasuna, noski mailegu baten ondorio izan behar den okerreko ulerbideratze baten frogagarria dugula erakutsiz, eta ondorioz, euskal jentilaren pareko pertsonaia mitikoa ezagutuko lukeen zeltaitzineko geruza kulturalaren izana Irlandan, agerian jarri.

Baina baieztapen segurtagarri hauetaz gain, azken bi atal hauen ekarkin nagusia, gure mapatan marraztu diren puntu berri pila izan dira batik bat. Hauen arabera, datorren atalean argibide arkeologikoen laguntzaz ulerbideratzen saiatuko garen eragin hesparru zabal eta bitxia agertu zaigu.

Azken ereduen banaketan lehenbizi nabarmentzen dena, horraino murgildurik ibiliak ginen hesparruko mugen apurtu izana da, eta honen ondoren, eremu berriaren zabalera itzela. Aurreneko puntuari dagokionez, irlandar eskusibotasunaren amaierak, alde batetik hipotesi zeltazaleak berriro ere gezurtatzeko, eta bestetik gure mapa errealtateari hurbiltzeko balio izan du, ez baitago Euskal Herria eta Irlandari bakarrik dagokien kulturkidetzarik. Eta marrazturiko eremuaren zabalari bagagozkio, zera aitortu beharra dago, ustekabekoa izan dela nolabait Kurland bezain leku urrunean aurkitu ditugun erreferentziak aurkitzea, aspaldiko euskaldunen kultur senideak kausitzea espero dugun ikerketa batean, gure itxaropen hau ikergai dugun mitoaren indoeuropar aitzinekotasunean, eta ereduen kopuruari dagokionez Euskal Herrian azaldutako nagusitasunean oinarritzen delarik. Dena den, arazo honetarako argibideak ematea ere datorren atalari dagokio.

Eta azkenik, kausituriko ereduen banaketak agerian jarri dituen joerak eta eskusioak azpimarratu behar dira: Mediterranean arro osoa erabat kanpo geratzen zaigu, eta ereduek atlantiar kostalderanzko joera aipagarria erakusten dute, joera hau nabarmen eta ikusgarria bilakatzeko delarik mitotik kanpo ugarixeago bildu ditugun izurrite lainoaren ereduak bazter utzirik, gainontzeko puntuak literalki itsasertzean kokatzen baitira, indoeuropar kulturak inola ere ulerbidera ez lezakeen zerranda luze itxurako eremua marraztuz.

Honaino heltzen dira lehen helburuaren inguruan buruturiko aurrerapenen komentariok. Baina zalantzarik gabe esan daiteke azkeneko bi atalek ahalbideratu dituzten aurrerakada ikusgarrienak, aztertutako motiboen esanahia eta orokorki mito osoaren esanahiari dagokion arloan gertatu direla. Aurreneko balantzean gure bi helburuei zegozkien emaitzen arteko aldea aitortu behar izan

dugu: Mitoa sortu zeneko geruza kulturalari buruzko eta mitoaren osatzen duten motiboen eragin hesparruari buruzko galderak nahiko era asegarrian erantzunik genituen ordirako, baina bigarren helburua erdiestea aldiz, –mitoaren eta honen osagarri guztien esanahia argitzeari dagokiona alegia–, urrun samar ikusten genuen oraindik. Orain berriz, alde hori aienatu dela baieztatu dezakegu, azken bi ataletan zehar galdera gehien erantzunik kausitu baititugu, motibo bakoitzaren esanahiari dagokion heinean bederen. Erantzun hauek, zalantzarik gabe zeharo aspaldikoak diren eta ia erabat ahazturik zeuden datuak ezagutarazi dizkigute, jentilen akaberaren mitoaren ulertzean bihurtzen duten testuinguru mailako hutsuneak, aspaldikotasun eta ahanzpekotasun hauen erakusgarri direlarik.

Lainoa izurritea zabaltzen duen irudiragarritzat jo ohi dela ikasi dugu. Lainoaren agerpen soila bere inguruan heriotza zabaltzeko aski dela jakiteak, begiak zabaldu dizkigu jentilek haren bistan erakutsitako beldurra, eta hura bezalako irudi xume eta apalak halako kemen erailea nolatan ote duen ulertzeko. Azken orduko eskoziar albistek berriz, jentilaren betazalen jasoera igarkuntz ikusmen berezi baten, –gure arbasoez ezagutu bide zuten baina denboraren poderioz aztarnarik utzi gabe galdu den igarkuntz ikusmen berezi baten–, erritotzko edo trantzezko keinu bereizgarria dela jakinarazi digu. Eta pestek eraginiko erraldoien akaberaz mintzatzen zaizkigun kontakizunek, eta Kurland-eko erreferentziak batik bat, jentilen akabera munduaren benetako suntsikeraz hitz egiten dugun kontakizuna dela ikusarazi digute: Erraldoien eta gizakoen aldiak bereizten dituen suntsikeraren kontakizuna, Euritearen pareko erabateko hondamenaren adierazgarria. Une honetan beraz, nahiko ongi ezagutzen dugu mitoaren, hau bere osotasunean ulerbideratzeko saioari ekitoko.

Jentilen akaberaren inguruan, –euskal langaiei buruz bakarrik ari gara orain–, agertzen den lehen gauza harriagarria, gai honi buruzko zenbait tradizio ezberdinen izana dugu, tradizio hauek bi sailetan bana daitezkeelarik: Ikertzen ari garen mitoak adierazten duen jentilen suntsikera alde batetik, eta suntsikera hau era batean edo bestean kristautasunaren hedapenak eraginikotzat jotzen duena bestetik.

Mitoaren lehen azteraldian zehar azpimarratu dugu engoitik bikoiztasun hau, arraza mitiko honen suntsikera, baselizen eraiketari, prozesioak egiteari, elizetako kanpai hotsei, eta orokorki kristau gurtuaren adierazpideei lotzen dieten albisteen izana aipatu dugunean. Gure mitoaren zenbait bertsiok ere bide hauexetan barrena sartzen hasiak zeuden erregistratu zirenean, baina bertsiok zahartzale eta euskorrenei esker gure azterketak argi utzi ahal izan du lainoak "iragarritako" akabera hau, jatorriz kristau erreferentziekin zer ikusirik ez zuen benetako (mitologiako) suntsipena genuela.

Beraz, jentilek bi akabera nozitzen dituztela dugu ikusgai: Mitoak adierazirikoa alde batetik, eta kristau kultubideen hedatzeak eraginikoa gero. Zertarako akabera bikoitz hau? Zer adierazten du?

Galdera zailak dira benetan. Bietarik bat baizik ez onartu eta bestea sasikotzat baztertzeko tentaldiak josten du bat zenbaitetan, baina bi tradizioak nahiko zabaldua daude honelako jarrera onargarri izateko. Azken buruan, argi dagoen gauza bakarra irregularkeria horren izan bera da, jentilen arraza bakar eta berak bistan baitago akabera bat baino ezin duela pairatu, bien artean pizten ez badira behinik behin, eta ez dugu honelakorik sekula entzun.

Arazo honen irtenbidea Irlandako Historia mitikoaren laguntzaz hasten gara somatzen. Bertan aurkitu dugunez, astian zehar zenbait mendetako aldeaz bereizturik dauden bi herrik, zeinek bere aldetik, jentilen akaberaren mitoak bere baitan batzen dituen mi motibo, bana erakutsi digute: Partholon-en arrazak jentilenaren pareko bat bateko suntsikera erabatekoa jasaten zuen, eta Balor Fomora-ak (erraldoiak) bere betazala jasotzeko agindua ematen zuen, jentil igarleak bezala. Hau ikusirik, bi kolonion azpian herri bakarra izanen ote zeneko susmoa azaldu dugu orduan, bikoiztasun honek, herri bakar horren zelten ikuspegitiko alderdi ona eta alderdi txarra adieraziko lituzkeelarik. Eta izan ere, beranduago ikasi dugunez, partholon-darrak erraldoi arraza dira (Pestrup-eko jentilen pestearen bidezko akaberaren kontakizuna honen azken frogagarria dugularik), eta bestalde, gaele-razko "fomoraigh" hitzaren itzulpena, erraldoia da hain zuzen. Honen arabera beraz, euskal jentilen akabera bikoitza kasu bakarra ez dela agertzen da, irlandar erraldoiak ere bi aldiz hiltzen baitira.

Bikoiztasun bikoitz honen lehen ondorioa zera da, akabera jatorra eta sasikoa bereizteko gogoaren burutik kendu beharra. Akabera bikoitz honi irregularkeria nabarmena baderitzogu ere, bi tradizioon bateratasuna bikoiztasun honi dagokionez, argi eta garbi azaltzen da: Akabera bikoitzak oraindik soma ez dezakegun zentzu zehatza eduki behar du. Baina ezkutuko mezu baten izanaz ohartu ahal izatea ez da irlandar datu hauen ekarpen bakarra, hiru argibide arras interesgarri eskaini baitzizkigute gainera: Alde batetik, mito hauek jantziriko Historia itxurako soinekoak, pesteak eragindako (lainoak eragindakoa jentilen kasuan) akabera astian lehena dela jakinarazten digu. Bestalde, akabera hau, ikergai dugun jentilenaren beretsua dela soma daiteke, beretsutasuna gero berberatasuna bilakatzen delarik, jentilen lainoa izurrite lainoa dela jakitean. Eta azkenik, irlandar erraldoien bigarren akaberari dagokionez, –Balor hiltzen denekoa alegia–, hau Tuatha De Dannan direlakoek irudiratzten dituzten senitarte zelten helduerak eraginikoa dugu.

Euskal eta irlandar tradizioen bateratasunak aurreneko akaberaren inguruan eta bien arteko ezberdintasunak bigarrenari dagokionez, bikoiztasunaren zergatia ulertzen hasteko lortzea ematen digute. Bigarren akaberari lotuz, bien zein bere aldetiko sorburuak historikoak direla ohar-tzen gara. Irlandan zeltak dira erraldoiak menperatzen dituztenak, eta Euskal Herrian berriz, bertan Elizarenaren aurreko indoeuropar kolonizaketa osorik jasan ez delarik, kristautasunak egozten ditu jentilak zuzenean.

Bigarren akabera beraz, Historiaren oihartzun mitifikatua dugu, erlijio eta kultura eraldaketek ekarri dituzten zenbait gertakari historikoen leiendazko isla. Akabera historikoa eta soziologikoa dugu, eta beraz, leku bakoitzean burutu den eran ematen zaigu: Irlandar testuek jainko zeltak erakusten dizkigute jentilen suntsikeraren eragile, eta euskaldun kristauak berriz, jentilenak egin bazuen, kristau kultubideen agerpenak eraginez egin zuela kontatuko digu.

Eta beste aldetik, bi tradizioen bateratasuna aurreneko akaberari dagokionez, modu bakarrean uler daiteke, hots, bertan, erraldoiek berek (eta noski erraldoien kulturako gizonek) kontaturiko erraldoien akabera ikusiz. Akabera teologikoa kasu honetan, eta ez beraz soziologikoa bestea bezala; erlijiozko mitologia hutsezko kontakizun bat, inolako gertakari historikoren kutsadurarik gabe. Bigarrenak ez bezala, honek ez digu jentilen zibilizazioaren akaberaren eta honen ordeko beste berri baten indarrean jartzearen berri ematen; alderantziz, zera da adierazten diguna, alegia, paradoxikoki, erraldoien zibilizazioaren sasoi bikainaren erakusgarri den erraldoi berriaren akabera. Sasoi bikainaren erakusgarri diogu, bi kontakizunok tradizio bakar eta beraren bertsoak ditugulako, hain zuzen ere germaniar eta kurlandar ereduak bezala.

Eta orain, akabera bikoitzaren ilungunea argitu ondoren, eta interesatzen zaiguna bietariko lehena dela finkatu ondoren, arazoaren korapilora garamatzan galdera plazaratuko dugu: Zein da mitoaren mezua? Zer adierazi nahi digu?

Lehen inpresioak, munduaren akabera edo deuseztapenean pentsatzera garamatza: Erraldoien gizartea une batean peste batek garbitzen du mundutik, bat ere bizirik uzten ez duelarik. Irlandar iturburuek gaineratzen dutenez, mundua hutsik geratu zen hogeitamar urtetan, akabera honen ondoren. Eta gero, gizonen aldia zabalduko da. Jentilen akabera beraz, lotu ezinezko bi garai etenak definitzen dituen pitzadura da. Munduaren akabera eta ondorengo berrikuntza, Bibliako Euritea, germaniar Ragnarök-*a*, edo indiar mitologiako Kuruksetra-ko gatazka bezala.

Ulerbideraketa honekin aldi batez gu geu ere konformatu ondoren, –azken buruan ez baita gezurrezkoa–, irlandar erraldoien akaberaren azterketa zorrotzago eta ñabarduago batek aurreko konklusio hori haratagotzeko aukera eman zigun, mitoaren esanahi ezutuaren atea zabalduz. Azterketa hau, irlandar historia mitikoak jakinarazten digun kronologian oinarritzen da batik bat: Pesteak eraginiko erraldoien akabera garai mitikoaren hasiera hasieran kokaturik dago, eta erraldoien kulturaren suntsikera soziologikoa berriz, zerbait beranduago burutzen da. Erraldoien kultura hau beraz, aipaturiko bi akaberaren arteko aldiak kokatu beharra dago, eta kokapen honek adierazten duena zera da, erraldoiak, betidanik hilik bailauden irudiratu ohi direla, baita erraldoien kultura indarrean zegoen artean ere. Alegia, folklorea aurkituriko kontakizunetan erraldoiak beti iraganaldi urrun batekoak bailiran erakusten bazaizkigu, hau ez da historian zehar

erraldioen kulturaren gainean kultura berrien estalkiak zabaldu direlako, baizik eta kontakizun hauek erraldioak betidanik iraganaldi urrun batean kokatu dituztelako, ez baitaude alferrik aldiaren hasiera hasieratik hilik.

Bigarren hausnarketa, jentilen akabera indoeuropar munduaren akaberarekin eta Bibliako Euritearen kontakizunarekin alderatzerakoan sortzen da. Azken biok, bata bestetik aldentzen dituzten ezberdintasunak ezberdintasun, jentilen akaberari kontrajartzen zaizkion lau bateragune azaltzen dituzte. Nolabait munduaren akabera zer den marraztu eta gure mitoa kategoria horretan sartzearen ezinezkotasuna erakusten duten lau bateragune. Honako hauek dira hain zuzen: Ogena, auzia, berrikuntza, –zaharraren hondakinen gainean eraikitzen den mundu berria adierazi nahi da–, eta bi munduen arteko lotura edo jarraipena.

Indoeuroparren munduaren akaberak eta Bibliako Euritearen kontakizunak, deuseztatze eta berritzearen teoria beretsua adierazten dute gutxi gorabehera: Azpi azpian, funtsezko sorburua ogena da, kutsatutasun egoera sorrarazten duen ogena: Baldr-en heriotza gemaniarrentzat, Yudhistira-ren gezurra indiarrentzat, eta gizagoaren sena gaiztoa Biblian. Azpiko sorburu nagusi honen gainean, zenbait itxura ezberdinez ager daitekeen auzia edo borroka dugu: Gatazka eskatologikoa, edo Yahvéren zigorra. Gero, deuseztapenaren ondoren, mundu hobea adierazten duen berrikuntza dugu. Eta azkenik, mundu hobea sorraraziko duen berrikuntza hau, mundu zaharrean ziren zintzoenak eta onenek burutuko dute: Baldr, Pariksit eta Noe dira, deuseztapenean zeharreko iraunbidea erdietsi duten bakarrak, jarraipenaren ikurra, mundu zahar eta berriaren arteko lotura.

Munduaren akaberaren irudirabide hauen aurrez aurre, jentilen akaberaren kontakizunean, ez ogena, ez kutsatutasuna, ez auzia, ez eta zigorraren ideia ere inondik inora ez direla ageri soma daiteke berehala. Eta ausentzia hauei dagokienez, euskal, irlandar, alemaniar eta kurlandar bertsioek azaltzen duten adostasunak ezinezkoa bihurtzen du, ideia hauek garai batean bertan egon ondoren, ahantzi izanaren posibilitateari buruz egin litekeen edozein espekulazio. Bestalde, euskal mitologiak jentilen izakerari buruz jakinarazten digunaren arabera, hauek gizazkoak baino zintzotasun handi eta garbiagoak horniturik daude, zeren eta "kristauak ez badira ere" (herriak zurigarri esan ohi duenez), haien jarrera eta joerak eredugarriak baitira, errukiortasuna, lagunberatasuna eta langiletasunari dagokienez, eta herriak sarritan esana da, jentilak kristauak berak baino kristau hobek zirela. Gehiagotasun etiko hau erabat kontraesanean dago mundu hobearen sorkundea adierazten duen berrikuntzaren ideiarekin, jentilen akaberak eta honek zabalitzen duen gizazkoen garaiaren hastapenak hain zuzen ere munduan bizi den gizartearen kalitate moralaren atzerakada ekarriko baitu.

Eta azkenik, mundu berriaren igeltsero izanen diren mundu zaharreko zintzoenen iraupenaren ideiak ere, –bi munduen arteko jarraipena eta loturaren ikurra den ideiak–, huts egiten du erraldioen akaberaren kontakizun-

nean, akabera honek erabateko etena sorrarazten baitu suntsitzen den jentilartea eta mundu gainean darraikion gizartearen artean. Azken kontraesan hau zeharo ados dago aurrekoarekin, zeren eta jentilen akaberak munduko biztanleriaren moralitasunaren kaskartzea ekartzen badu mundu hobearen eraikuntza ahalbideratu beharrean, zintzoenen iraupenaren ideiak ez du bertan noski inolako zentzurik.

Egin berri ditugun bi hausnarketok apur bat aztertuz gero, jentilen akabera, "munduaren akabera" simple baten eredutzat ezin dela hartu nabaritzen da berehala. Lehenengo, akabera honek ez duelako erraldioen kulturaren amaiera ekartzen, baizik eta honen hasiera, zeren eta kultura honetan, edo erlijio honetan nahiago bada, eskuarki gertatu ohi ez den bezala, indarrean dauden jainkozkoak hilik baileuden irudiratzen baitituzte, hauen gan bizitzarako eredia aurkitzen duten gizonek. Eta gainera, jentilen akaberak inondik inora ez duelako bera argi edo bidezko edo beharrezko bihur dezakeen ulerbiderik: Ez dago ogenik, ez dago jainkozko goren batek igorritako zigorraren baten aipamenik, eta are okerrago oraindik, jentilen akaberak, esker txarrekoago eta berekoiago den gizarte batera garamatza. Izan ere, erraldioen akabera hau arrunt agatikoa eta bidegabea deneko sentipena ezin dugu burutik kendu. Halere, aipatu sentipen honek bul-tzatzen gaitu hain zuzen, erraldioen akaberaren beharrezkotasunaz hausnartzera. Konklusioa zera da, arrazoi ezezagunen bat dela eta, erraldioen akabera beharrezko izan behar dela ikuspegi teologiko batetik. Ulergaitza eta bidegabea bada, orduan ezinbestekoa izan behar da, erraldioen erlijioaren barruan funtzioaren bat bete behar du, jentilak garai mitikoen hasiera hasieran hiltzera behartzen dituen funtzioaren bat. Eta ezinbestekotasunaren konklusio hau da hain zuzen, mitoa ulertzeko bide zuzenean barrena sartzen gaituena.

Erraldioekin akaberari lotzen zaion gertakaririk nabarmenena zera da, haien lurperaketa hilobi megalitikoetan: Euskal jentilak, Jentilarria deritzan trikuharriaren azpira sartzen dira, eta partholon-darrek berriz, beraiek hondeatzen dituzte hilobiak hildakoak lurperatzeko. Pestrup-eko erraldioak berriz, dagozkien "hühnengräber"-etan (jentil hilobietan, hots, trikuharrietan) ehortzirik aurkitzen ditugu. Hau guztiari, Euskal Mitologia Konparatuan aipatzen den zera gaineratzen badiogu, alegia, euskaldunen betekizun erlijioso nagusia etxeko hildakoei eskainitako kultura izan ohi dela (haien erlijio zaharretik datorrela kristaigoaren itxura berrien azpian bizirik iraun duen kultura), gure arazoaren irtenbidea bistan agertzen da: Jentilen akabera zerarako da beharrezkoa, alegia, norberaren hildakoak ehortzi eta hilobien gainean haien oroikari izanen diren monumentuak eraikitzeko ohitura eratzeko, hildakoen kultuaren lehen eta ezinbesteko oinarria den ohitura hori eratzeko, honen ondoan noski kultu horren beste zenbait aspekturi dagozkion ohitura lagunak, –opariak, otoitzak, e.a.–, badaude ere. Hona erraldioen akabera zeharo beharrezkoa bihurtzen duen arrazoia, –hasieratik txunditu gaituen bidegabekeria eta arrazoi etikorik ezaren argigarri–, akabera hau garai mitikoen hasiera hasieran gertatzea ere ezinbestekoa egiten duen arrazoia, erraldioen kultura indar indarrean dagoen aldi bere-

an erraldoiak hilik egotearen logika borobila ulertarazten digun arrazoia. Jainkozkoak baldin badira beti gizazkoei jarraitu beharreko gizarte eta erlijio jokabide ereduak erakusten dizkietenak, hildakoen kultura eratu nahi duen erlijioak bere jainkozkoak hilarazi behar ditu ezinbestean. Jesukristo hil eta piztu egiten da, eta gertakari hauek dirrela bide, kristauak heriotzaren ondorengo bizkudearen promesa jasotzen dute.....  
.....Jentilak hil, eta eraikuntza gogoangarri baten azpian ehortzen dira (ehortziak izateko hiltzen dira hain zuzen) eta gertakari honetan ikasten dute gizazkoek beren hildakoekin beste horrenbeste egin behar dutela: Lurperatu eta haien oroitzapenari eutsi.

Irlandako historia mitologikoak, analistek bertan sartutako sasi kronologia gezurrezko baina hain argigile horrekin, erraldoien leienden aspektu teologikoak Partholon-en koloniaren kontakizunean bereizi eta bildu egin ditu, honela, "Erraldoien Biblia" izenda genezakeena isolatuz. "Biblia" honen mezu bikoitzak, Euskal Herrian kristau itxura berrien mozorroaz egundaino heldu zaigun euskaldun zaharren erlijioaren bi alderdiak erakusten ditu: Gizarte bizitzaren alderdia, eta erritoaren alderdia.

Partholon-en koloniaren izabideak bi atal dauzka: Lehenean, kronistek diotenez, ez omen da ezer apartekorik gertatzen, bertan burutzen den ihardun nagusia basoak soildu eta garbitzea delarik, sail horiek sorogai bihurtzeko. Lehen atal honetan erraldoiek gizarte bizitzarako jokabide ereduak erakusten diete gizazkoei, gogor, gogoz, eta elkartasunean egindako lana, elkartasun horrek oraindik, jaiotzeko daudenak ere tarte hartzen dituela, baso soiltze hauen bitartez lortu nahi diren sorogaiak partholon-darrentzat ez ezik, ondoren helduko direnengan ere pentsatuz egiten baitira. Gizarteko jokabide hau euskal jentilek erakutsi digutenaren errepika dugu, honen ezaugarri nagusiak halaber, lanaren apologia eta elkartasunaren eta elkarriko laguntzaren ideiak baitira.

Eta gizarte bizitzarako jokabide ereduak erakusten duen lehen atal honen ondoren, erritozko jokabide ereduak erakutsi besterik ez zaie geratzen erraldoi partholon-darrei, eta orduan hil egiten dira, eta oroigarri batzuen azpian ehortzi, nork bere hildakoak ehortzi eta haietat oroitzeko ohitura eratzeko, bigarren atal honetan horrela osatuz eta burutuz gizazkoei igorri nahi dieten erlijio mezua. Honen euskal egokidura berriz zera dugu, alegia, euskal gizarte zahararen ardatza diren lanaren apologia eta laguntza eta elkartasun ohituren ondoan, haren erlijio bizitzaren muina etxeko hildakoen oroitzapena eta haiei eskainiko kultura direla. Kultura hau gaur egun oraindik "etxeko sepultura" deritzan elizako harlauzan bete ohi da, garai batean nork bere etxean bertan burutu ohi bazuen ere, eta beti, nolahi ere, hildakook benetan edo sinbolikoki lurperaturik dauden lekuan.

Noski, euskal jentilek ere haietat mintzatzen zaizkigun kontakizunetan, azaldu ditugun bi jokabide eredu berberok proposatzen dizkigute. Hauen jokabidea auzoaren baitan, -beti elkartasuneko ohituren erakusle paregabeak-, eta etengabe frogatu ohi diguten lanerako go-goa, bizitzarako luzatzen diguten jokabide ereduaren bi

oinarriak dira. Eta beren heriotza eta hilobiraketa jentilen akaberaren mitoan, Partholon-en koloniaren suntsipenak igortzen duen mezu beraren aldarrikatzaile ditugu. Baina halere, Irlandar iturburuetaz baliatuz lan egin nahi izan dugu, zeren alde batetik irlandar mitozko Historiaren kronologiak barruti itxi batean bereizten baitu erraldoien mezu teologikoa, honela, haien zikloa non hasten den, non amaitzen den, eta orokorki zer nolakoa den zehatz mehatz marraztea ahalbideratuz. Eta beste aldetik, irlandar erraldoien akaberak bere benetako errito-eredu-emailetasuna, Jesukristoren jaiotzaren motiboak zeharo antzaldaturiko euskal jentilen akaberak baino argiago erakusten du, han hilobiak ez baitira aurretik hondeaturik kasualitatez baileuden ageri, eta aitzitik, erraldoiak berak dira gure begien aurrean haiek hondeatzen ihardungo dutenak. Dena dela, argi dago kasu guztietan garai hartan munduan erraldoiak baizik ez zegoenez, hauen hilobiak beraiek hondeatu eta eraikitakoak izan behar direla, baina beti atseginagoa da zehaztaper hori esplizituki baieztatzen duen kontakizun bat plazaratzea.

Gorago aipaturiko kronologiak, mitoaren ulerbideraketa osatzen laguntzen digu. Partholon-darren deuseztatpenari darraizkion ondorengo hogeita hamar urteetan Irlanda eremu hutsa bilakatzea, zibilizazio hau eta hurrengoaren arteko etenaren irudigarria dugu<sup>147</sup>.

Irlandar Historia mitologikoak asti hutsune batez adierazten duen eten hau, izan ere bi maila ezberdinen arteko aldearen itzulpen historiartua dugu: Teologia eta Historiaren arteko aldearena alegia. Beren heriotzaz osatu eta burutzen den jentilen bizitza, astiaz kanpoko astian gertatzen da, aldi teologiko batean. Eta jentilen akabera da hain zuzen ere, jainkozkoen aldiari amaiburua ezarri eta une berean aldi antropologikoari, gizakoen aldiari, ateak zabaltzen dizkiona orobat. Eta honek argudio berria gaineratzen dio erraldoien akaberaren beharrezkotasunari, ezinbestekotasunari: Erraldoien heriotzako ordua heltzea erabat beharrezkoa da, aldia, benetako aldia, gizakoen aldia (Historiaren aldia esango genuke mitologia honek Historiaren izana ukatuko ez balu) zabal dadin, has dadin. Erraldoien akaberak ez du, bada, munduaren akabera adierazten, alderantzizkoa baizik, hots, honen hastapena.

Azkenik, lehen lehentasun nahikeria horrek zera jartzen du agerian, erraldoien mitologia, hauen bizitzaren eta batez ere hauen heriotzaren ereduarekin, erlijio berri

147) Irlandar kosmologiaren arabera, Nemhid-en arraza darraikio atzetik, eta hauen ondoren, Fir Bolg direlakoak, Tuatha De Dannan senitateak, eta azkenik, Milesiarrak. Hurrenkera honek, alde batetik arras mitifikaturiko benetako gertakari batzuk adierazten ditu, baina bestetik, zenbait errepikapen erreteriko kausitzen dugu bertan, hala nola, Neimhid-en arrazaren kasua, hauen suntsikera, partholon-darrenaren kopia zuzena baino ez baita. Izan ere, jatorrizko hurrenkerak, erraldoien akaberaren ondorengo gizakoen etorrera adieraziko luke, folkloreak nonahi egiten duenaren antzera. Hau ageri agerikoa bilakatzen da irlandar Historian halaber, Neimhid-en arraza alde batera uzten badugu, orduan erraldoien (partholon-darren) atzetik, Fir Bolg direlakoak helduko bailirateke, alegia, erraldoiak (Fomora-ak) jainkozkotzat hartzen dituen gizakozko arraza

baten oinarritzko osatzaileak direla. Erraldioen akaberaren mitoa, kultu eta erritogintza baten fundatzaile den mitoa da. Erlijio baten sorreraren adierazlea eta beraz, erlijio guztiekin gertatu ohi denez, astiaren hasiera hasieran kokatzen du bere burua.

Hausnarketok, gure mitoaren esanahia laburbil dezakeen azken buruko definizioa eraikitzeke azken osagarriak ditugu. Beraz, jentilen akabera (eta erraldioen akabera orokorki), erlijio berri baten mito fundatzailea da, er-

lijio horren ardatz errituala hildako arbasoen kultuak osatzen duelarik, kultu honek berriz, hildakoen hilobiratzean eta hilobien gaineko monumentu oroikarrien eraikitzean bere oinarri eta hastapena duelarik.

Mitoaren zentzua argitzeko helburua beraz buruturik geratzen da honela, zeren ez baitugu haren esanahia aurkitu soilik, baizik eta horretaz beste gainera, erraldioen mitologiaren baitan hark duen funtzio fundatzailea ere argitan ipini ahal izan da.

## XII. ARKEOLOGIAREKIKO EGOKITZAPENA

Banaketa hesparru batekin eta segurtasun batekin abiatzen gara ikerlan honetako azken betebeharrari ekitera, hots, aztertu dugun mitoari lot dakiokkeen kultur geruzaren bat bilatzera.

Mitoaren, eta honen osakin diren motiboen eredu banaketa hesparrua mapetan erakusten zaigu. Segurtasuna berriz, haien indoeuropar aitzineko jatorriarena dugu, hau behin baino gehiagotan frogatu baitugu ikerbidetan zehar: Mitoaren arrarotasunak, bere hondakinen urritasunak, eta hauek marrazturiko eragin hesparruaren zabalak, zeharo aspaldikoa den kontakizun baten aurrean gaudela sinestarazten digute, eta kontakizuna ulertezin bihurtzen zuen testuinguru hutsunea berehala bermatzen zaio susmo horri. Baina gainera, bere jatorriaren indoeuropar aitzinekotasuna frogatu dute zenbait gauzek: Euskal Herriaren nagusitasun ikusgarria eredu kopurari dagokionez, mitoaren lotura hilarri megalitikoekin, bere izana zeltaitzineko Irlandan, Atlantiar itsasorantz jo eta Mediterranearen isuraldeari ihes egiten dion banaketa indoeuropar aurrusteen arabera ulerbideratzeko ezinezkotasuna, eta azkenik, mitoaren zentzua argitu dugunetik, indoeuropar mitologiarekin zer ikusirik ez duen mezu teologiko baten izana.

Dena den, egokidura arkeologikoen bilaketan hasi aurretik, ohar bat azaldu behar dugu aurreko ataleko amaierako mapei buruz. Izan ere, bertan bi gune mota marraztu ditugu aurkikuntzak adierazteko: Gune beteak eta eraztun jiteko guneak. Gune beteak jasotako albisteen etorburua adierazi baino ez du egiten. Eratzun itxurakoek berriz zera adierazten dute, alegia, albistea mapak erakusten duen puntu horri badagokio ere, hori ez bide dela bere benetako etorburua. Zazpi kasutan egin dugu hau: Voigtland, Tormersdorf, Habkern, Meggen eta Ukrainiako izurrite lainoekin, eta Kurlanda-ko Hasenpoteko pestek eragindako erraldioen akaberaren erreferentziarekin. Arrazoa zera da, albiste horiek bertako germaniar gizarteetan bilduak direla beti, eta germaniarrak XI. Mendean hasi zirela Elba-tik ekialdera zabaltzen, eta ordurarte zelta erromanizatua zen Suitzan alemaneraren marra hegoaldera bultzatzen. Tormersdorf-eko kasuan esate baterako, leku hori aurkitzeko egindako ahaleginean, aldameneko Alemaniako Rothenburg-en lagun bihurturiko germaniarrak zera esaten digute, bertan

oraindik leienda ezaguna dela, baina Polonian galdetuz gero ez dutela uste inork hura ezagutuko duenik, gaur egungo mugen arabera leiendako Tormersdorf (Toporuf) eta bere Zechberge mendia Polonia barruan badaude ere.

Baltiar kostaldean, kolonizaketa gurutzada giroan egin zela eta, Zaldun Teutoiek bertako biztanle eslabiarrak (prusiarrak alegia) literalki garbitu ondoren, germaniar nekazariak ekarritu zuten hutsik geratutako lurraldea.

Beraz, Voigtland, Tormersdorf eta Hasenpot-eko albistek bertako eslabiarren artean aurkitu ezean zera uste izanen dugu, alegia, germaniar emigranteen ondare kulturalekoak direla, eta gune horiek beraz ez direla aintzat hartu behar mitoaren sorburua eta egokidura arkeologikoa bilatzerakoan.

Ukrainiar albisteari dagokionez, bere garaian komentatu dugu honen germaniartasunari buruz ditugun susmoak, eta beraz aipatu berri ditugun argudioak erabiliko ditugu honen kasuan ere aintzat ez hartzeko erabakia zuzitzeko.

Azkenik, Suitzatik datozkigun bi albistek ere eratzun moduko gunez iragartzea erabaki dugu. Izan ere, suitzar historialariek jarraituz, V. mende inguruan hasi ziren germaniar herriak Suitza aldera jotzen: Lehenik burgundiarren mendebaldean eta lonbardoak hegoaldean jarri ziren. Biak ala biak kristau ziren suitzaratu zirenerako, eta biak ala biak agintean jarri arren, bertako latinak hizkuntzat hartu eta bertako ohitura eta bizimoduetara egokitu bide ziren. Alemanni senitarteena berriz, badirudi benetako migrazio itzela izan zela, hirurehun urte beranduago, Aare eta Rhin ibaien arteko lurralde osoan alemanera baino ez baitzen entzuten, hizkuntz eta kultura ordezkapen osoa buruturik, eta gizakiena ere seguru aski neurri handi batean. Eta datu historiko hauen baieztagarri, suitzar albiste biak, eremu germanikoan bildutakoak izateaz gain, germaniartzat jo ditugun berezitasunak erakusten dizkigute, hots, margo urdina eta lainoaren harripatzea. Honek guztiak bultzatzen gaitu azken buruan suitzar albistek germaniar etorkinek ekarritakotzat jotzera, eta horretan egonen gara harik eta Suitza ez germanikoan izurrite lainoaren motiboa azaltzen ez den arte.

**TRIKUHARRIEN  
EREMUA**


Arkeologiaren irakaspenetaz jabetu baino lehen, erdigunea Atlantiar itsasertzean eduki eta Europako erdialdean zabalduko litzatekeen kultura bat imajina zitekeen, noski lotura megalitikoak ulertarazteko adina aspaldikotasuna ukan behar lukeen kultura. Bi aurruste hauekin, eta noski, buruturiko inkesten bidez marrazturiko banaketa hesparruarekin, Deustuko Unibertsitateko Arkeologia saileko APELLANIZ doktorearengana jo dugu ulerbide eske. Hark emandakoak dira atal honetan zehar aipatzen diren datu eta argibide arkeologikoak, eta hark proposaturikoak halaber, –azaldutako eredu banaketa eta mitoaren ulerbideraketan oinarriturik–, egokidura arkeologikoen lerro nagusiak.

Haren lehen aholkua zera da, Atlantiar hipotesiaz ahaztea, honelakoarentzat ez baitaiteke inongo egokidura arkeologikorik kausitu. Historiaurre osoan ez dago Atlantiar itsasertzean bakarrik edo nagusiki finkaturiko kulturarik, ez eta gure banaketa hesparruaren zabala argitu, eta era berean Mediterranearen isuralde osoa kanpoan utziko duen kulturarik ere. Gure banaketan ageri den kanpoan uzte hau, eta eredu gehienek erakutsi diguten Atlantiar itsasoranzko joera, mitoaren aspaldikotasun ikusgarriaren igargarri berriztat joaz baino ezin daiteke ulerbidera: Mitoa, kultura menderatuek erakutsi ohi duten joeraren arabera, itsasertzaren kontra bultzaturik eta bide batez babesturik geratu da, kultura menderatzailearen erasotik ihesi. Euskararen azken bi mila urteko hitun hesparruen mapek erakusten duten joera bera esaterako.

Gure banaketa hesparrua beraz, itsasoaren kontra babesten den mitologia zahar baten aspaldikotasuna eta atzeraldia besterik ez litzuzke adieraziko.

Atlantiar itsasertza eta Britainiar Irlak, Mediterranearen isuraldetik bideraturiko Ekialdeko eraginaren aurrean nolabaiteko babeska eskaini dezaketen lurraldeak; eta Mediterranearen isuralde zabalean berriz, babespe ezean galdu

eta ahaztu izanari zor lekiok gure mitoa bertan ez agertzea. Gure mapetako joera eta kanpoan uzte horiek beraz, euskortasun edo gordekortasun arazo baten isla baino ez dira, eta alferrik arituko ginatete beraz, ezaugarri beretsuko banaketa arkeologiko baten bila. Gauzak honela, egokidura zehatz bat aurkitzeko asmoak bertan behera utzi, eta gehiago zehaztu gabeko "indoeuropar aitzineko geruza kulturalen" geratuz etsi behar ote dugu?

Izan ere, gure mapek erakusten dutenak ez du balio egokidura zehatz bat finkatzeko, baina beste aldetik berriz, APELLANIZ profesoreak zeharo adierazkortzat jo dituen bi argibide baditugu ordea: Lotura megalitikoak, eta batez ere erraldoien akaberaren ulerbideraketa hildakoen kultura eratzten duen mito fundatzailea bezala. Bi hauek bai ahalbideratzen dutela kultura zehatz batekiko egokidura adierazkorra finkatzea: Megalitoen kulturarekiko alegia.

Trikuharrien hedadura eremua erakusten duen jarraian azaltzen dugun mapa, ANGEL ARIZMENDI doktorearen tesitik hartua dugu.

Mugimendu megalitikoak, gaur egun ditugun datazioen arabera, Neolitos aldiaren amaiera aldera agertzen da lehen aldiz Britainian, eta Europa eta Asian zehar hedatzen da gero Eneolitos eta Brontze aldietan. Bere agerpenak dakarren berritasuna, hilobien gainean oroikarriak eraikitzearena da, Neolitos garaian tipikoa den hilobiratze soilari oposatuz; berritasun hau, erlijio eta kultura eraberritze baten lekukoa dugu, eta erlijio berri baten sorreraren igargarritzat onar daiteke.

Megalitoen kulturak ez dakar berarekin hildakoei lurra emateko ohitura lehen aldikoz, aurretik Neolitikoan badelako halakorik, nolabaiteko kulturen baten lekuko. Hein honetan, funtzio orotarazlerik gabeko hilobiratze soilak nolabaiteko bizitza espiritualaren izana adierazten digu, baina inola ere ez ordea bertan hobiratutakoei kulturik eskaintzen zaienik, eta are gutxiago oraindik horrelako kultura erlijio baten ardatz errituala izan daitekeenik. Horretarako hildakoei lur ematea ez da aski; haien orotzapenari eustea behar da, eta eraikuntza megalitikoaren jasoerarekin hasi gaitzke bakarrik hildakoen kultuaz mintzatzen.

Gure mitoaren megalitoaldiko egokidura ez datza beraz, bertan trikuharriak agertu edo aipatze soilean, –nahiz eta hau nahiko adierazkorra den–, baizik eta erlijio eraberritze beraren erakusgarri izatean: Mugimendu megalitikoaren ezaugarri nagusia hilobien gainean monumentuak eraikitzea da, honela hilobiok eta bertan ehortzitaok erlijio bizitzaren erdigune eta ardatza bilakatzaren dirrelarik, hain zuzen ere erraldoien akaberaren mitoak hildakoen kultura gizazkoen erlijioan sartzearen erraldoiak hilarazten dituen hein eta asmo berean. Eta hau ez ezik, mugimendu megalitikoak iraganaldi neolitikoarekiko etena adierazten duen bezala, hortxe dugu horren parean ere, erraldoien akaberaren mitoaren balio inauguratzailea, jainkoen garaia amai buruak eta gizazkoen aldiaren hastapenak irudiraturik. Beraz, mugimendu megalitikoak eta erraldoien akaberaren mitoa bat datoz, bion balio inauguratzaileari dagokionez, eta biok hildakoen

kultua (hilobiraketen oroitzapenez) erlijio bizitzaren ardatz erritual gisa plazaratzeari dagokionez.

Adostasun bikoitz honek, erraldioen akaberaren kontakizuna, monumentu megalitikoaren eraikuntza argitu eta ulerbideratzen duen mezu mitologikoa dela erakusten du. Beste hitzetan esanik, monumentu hauen eraikitzaileen pentsakera erlijiosoaren adierazpena da, eta honek zera dakar guretzako, mitoaren adina finkatzeko ahalbidea, arkeologiaren datazioetan oinarrituz.

Megalitismoaren historia laburbilduz esan dezagun eraikuntza aspaldikoenak, –gaur egungo jakinbide arkeologikoen arabera–, Britainiako Dissignac eta Barnenezekoak direla, C<sup>14</sup>-ko azterketen arabera, hurrenez hurren duela 6.250 (+150) urte eta duela 5.750 (+150) urte buruturikoak lirakeelarik. Hauen ondoren nahiko hurbil portugaldar eraikuntzak zaharrenak datoz, hauek ere bost mila urteko adina gairidituz. Saillkapen hau ez da batere aldatu azken berrogei urteetan, C<sup>14</sup>-ko azterketak ikusgarri ugaltu arren, eta beraz gaur egun arkeologo ia guztiek onartzen dute mugimendu megalitikoaren britainiar jatorriaren hipotesia, bere lehen agerpena Egear Itsasoan plazaratzen duen teoria ekialdezalea baztertuz orobat.

Megalitismoaren hedapena bi bideetan zehar garatzen da. Alde batetik Bizkaiko Golkoan behera jaisten da, bere eragina Iberiar Penintsulako atlantiar kostalde osoan zabalduz, gero mediterranean isuraldea iragoz, handik Mare Nostrum-go lurraldeetan zehar hedatzeko: Korsika, Sardinia, Italia, Sizilia, gero Grezia eta Egeoko iriak, eta Kreta batik bat. Eta beste aldetik, ia Frantzia osoan zabaldu eta atlantiar kostaldean gora egiten du, –Somme eta Rhin ibaien artean hutsune bat utzirik–, Holanda, Alemania, Danimarka, Suedia eta Polonian zehar, eta ingeles, galestar eskoziar eta irlandar kostaldeetara heltzen da itsasoa gaindi.

Eredu zaharrenetako ezaugarriak nabarmenena zailtzarik gabe haien tamaina izugarria da. Honi esker folklozele mordo bat harriturik utzi ohi duen zera uler daiteke orain, alegia, gizaki normal bat baino baitara ez dezaketrik trikuharriek herriak "erraldioen hilobiak" esan ohi izana. Herriak, txikiak izan arren, "erraldioen hilobia" esan ohi dien trikuharrien izenak eta izanak, erraldoiaren izanari buruzko eta hauen "benetako tamainari" buruzko ehundaka espekulazio sorrarazi ditu iraganaldian. Baina orain tamainari ez baizik eta megalitoen eraikuntza ereduari lotzen zaion izen hau ulerbidera daiteke: Trikuharriak ez dira "erraldioen hilobiak" handiak direlako, –nahiz eta britainiar eredu zaharrenak izen hori zeharo merezi–, baizik eta trikuharriak direlako, eta trikuharriaren ideia jatorrak erraldotasunaren ezaugarria adierazten duelako. Megalito txikiagoak eraikitzen eraman duen gainbeherako bideak ez du halere haien erraldoielako lotura bazterrean ahazturik galdu, lotura horrek bizirik iraun baitu anitz kasuetan, –euskar eredu gehienak tarte–, absurdua bistakoa izan arren.

Eraikuntza megalitiko zaharrenen erraldotasuna, erraldioen mitologia mugimendu megalitikoari lotzearen aldeko beste frogagarria dugu, batez ere lotura hori ez

delako batere logikoa (baina bertan dirau halere) eraikuntza txikien artean. Elkartasunezko lanean erabiltzen duen indar eskergaz hornituriko erraldoi batzuen mitologia inoiz inon beharrezkoa izan bada, Barnenez edo Gavrinis eraiki zituzten kulturako gizasemeentzat izan da. Halako eraikuntza itzelek ahalegin eskergak esijitzen dizkiete haiek burutu dituztenei, eta ahalegin horiek nekez uler daitezke gizarte horien ideologian elkartasunezko lan gogorraren benetako apologiaren izana onartu ezean. Gizarte esklabuzalearen hipotesia ere imajina daiteke noski, baina jentilen eta orokorki erraldioen jokabidea nahiko argi dago hipotesi hori besterik gabe baztertzeko.

Erraldioen mitologia eta mugimendu megalitikoaren arteko parekatze hauek, –azken hau eta aztergai dugun mitoaren ulerbideraketatik sortzen direnak–, jentilen akaberaren eragin hesparua adierazten duten mapetan eraikuntza megalitikoak erraldioen hilobi izenez aipatzen diren leku guztiak sartzea ahalbideratzen dute, zeren azken buruan, erraldioen akaberaren kontakizuna izen hori argitzen duen leienda baino ez bailitzateke.

Erraldioen mitologia, –eta batik bat hauen bat bateko akaberaren kontakizuna–, eta hilobi megalitikoaren arteko lotura sendo finkatu ahal izan dugu. Gure mapetako gune trinkoen banaketa bete betean geratzen da eremu megalitikoaren barruan, eta bere atlantiar joera gorabehera, gune horiek megalito dentsitate handiko eremuetan ipini zaizkigula ikus daiteke. Ezin da gehiago eskatu.

Izan ere gure motiboen banaketari egokitzapen arkeologikoa aurkitzearena ez da helburu erraza, eragile uhertzaile asko baitago tartean. Batetik, ikerketa etnografikoaren maila ezberdinak: Azken bi mendeetan lurralde batean egin den ikerketa etnografikoa beste batean egin dena baino askoz handiagoa bada, –eta gertatu dira honelako aldeak–, agi liteke folklore eta mitologia ondare gutxieneko lurraldea, gehiago zuena baina inor biltzera joan ez zen lurraldea baino aberatsago azaltzea. MARTIN jaunari XVII. mendeko azken urteetan etnografia apur bat egitea bururatu ez balitzaio, edo XVIII. mendeko sendagileek gure laino txikiari beren izurriteei buruzko galderentzako hipotesi egokia iritzi ez balite, lan etnografiko gutxi egin den megalitoz beteriko zenbait lurraldeetan gehiago egin balitz, edo lehenago egin balitz, edota aipa genitzakeen hainbat balitz eta balego bitarte zer itxura ote zukeen gure inkestak gaur?

Bestetik, lehenago aipatu ditugun euskortasun eta gordekortasuna ditugu uhertzearen eragilegai. Jentilen akabera megalitoen eraikitzeari loturik badago, dudarik ez da noizbait mito hori kontatu zela Korsikan esate baterako. Baina megalitogileenaren ondoren handik pasatako hainbat eta hainbat kultura berri indartsuk zeharo azpiratuta utzi zuten haren oroitzapena noizbait, –ez dakigu noiz zehatz mehatz, baina inork hura erregistratu baino lehen dena den–.

Megalitismoaren tokian tokiko garai bateko indarra eta zenbaterainoko sustraitua izango litzateke gure gaur egungo maparen marraketan parte hartzen duen hirugarren eragilegaia. Jentilen mitoak eta megalitoak berak lurralde batzuetan besteetan baino gutxiago agertzea ez

da derrigor izan behar euskortasun txikiago baten edota kolonizazio berri indartsuagoen adierazgarri. Litekeena da halaber, megalitismoa zabaltzen den garaian lurralde guztietan harrera berdina ez egina erlijio berriari.

Laugarren eta azken eragilea, lan honen mugatutasun bera da. Ustez azken zirrikoraino ikertu badugu ere, agian aurkitu ahal izan ez ditugun datu adierazkorak izanen dira nonbaiten, lan etnografikoren batean, argitaraturik ala argitaratu gabe, gure mapan puntu berriak ipintzeko zain.

Lau uherdura eragilegai hauen garrantzia eta indarraz apur batez gogoeta eginez, eta zeinen aspaldiko kontuetaz ari garen oroituz, berriro esan dezakegu, gure mapek agertzen duten egokidura arkeologikoa pozik egoteko modukoa dela, eta ez dagoela gehiago eskatzerik.

Goiko arrazoi beragatik ez dugu gure leiendetan azaltzen diren megalitoei buruzko argibide jantziagorik eskainiko. Aurreratuko dugu, hori bai, horietariko batek ere ez duela megalito nagusien bilduman (MÜLLER-KARPE. "Handbuch der Vorgeschichte") sartzeko behar hainbat meriturik. Beraz, Euskal Herrikoei buruzko zenbait argibide aurkitu ahal izan badugu ere, ezin dugu beste

horrenbeste esan kanpokoei buruz, urrun egonik eta garrantzitsu ez izanik ezinezkoa izan baitzaigu haiei buruzko erreferentziak aurkitzea. Honek erakusten digu berriz ere leienda gorde eta bildu ahal izateak ez duela hari lotzen zaion megalitoaren garrantziarekin zer ikusirik.

Esan dezagun bada, Jentilarri Eneolitos garaikoa dela eta Balenkaleku berriz Brontze Arokoa. Eta berriro mitoa eta megalitoaren bilakabideen arteko etena irudiratzeko ohar gaitezen Eneolitos garaiko Jentilarri-ri lotzen zaion bertsioak hobeki gorde dituela elementu arkaiko eta ulergaitzenak gugandik hurbilago dagoen Balenkaleku-ri lotzen zaiona baino.

Tormersdorf-i buruz berriz, Zechberg-eko "Pestgrube" edo peste hilobia deritzan lekua Polonian industu gabe dago gaur egun oraindik, eta oraindik leienda kontatzen duten mugaz bestaldeko germaniarrek diotenez badaiteke bertan inolako hilobirik ez egotea. Leienda gogoratzen badugu, hilobia hondeatu eta harrizko hormaz eraiki zela esan ondoren, bertan gaur egun sakon bat baino ez dela ikusten diosku. Eta geroztik jakin dugunez, leienda hori XIII. mendez geroztik heldutako germaniar etorkinen artean bakarrik kontatzen da. Beraz, egoera honekin erabat uztargarri litzateke, bertan inolako hilobirik ez egotea ere.

### XIII. AZKEN HAUSNARKETAK ETA KONKLUSIOAK

Korapilo bat askatu eta arazo bat jalgibideratzen duen edozein ikerketaren berehalako ondorioa galdera berrien sorraraztea izan ohi da, ibili beharko diren bide berrien zabaltzea. Hein honetan, erraldioen zibilizazioari buruzko ikerketa orokorraren premia aipa dezakegu. Gure oraingo lan hau baitaratuko lukeen ikerketa horretan, erraldioen bizimoduaren bereizgarri diren lanezko eta elkartasunezko adierazpenen azterketa izanen litzateke erdigunea. Liburu honetan jentilen akabera aztertu ondoren, jentilen izanaren beste alderdiaren azterketa, -jentilen bizitzaren azterketa-, izanen luke helburu.

Jentilen akaberaren inguruko inkestetan zehar, eta gutxi gorabehera ikerketa honetarako argibide interesgarriak luzatu dizkiguten eskualde bertsuetan, jentilen bizitzari buruzko kontakizun mordotxoak kausitu ahal izan dugu, bertan, narraziozko esamolde ezberdinen azpian, euskal jentilen leiendetan somatu ditugun elkartasunezko mezu berberak adierazten direlarik. Leienda ziklo honi buruzko ikerketa sistematikoa izanen litzateke, bukatzen ari garen honen ondotik, erraldioen mitologiaren deskribapen osoa burutzeko hurrengo urratsa. Hona aurki daitekeenaren adibide gisa JAKOB GRIMM-en zenbait apunte<sup>148</sup>:

*Nettelstädt-en gainean dagoen Hünenbrink-en aspaldian bizi izan ziren jentilek oso harreman onak zituzten Stell-en (handik 4 km.-etara) bizi ziren jentil lagune-*

*kin. Batzuk ogia egosten iharduten zuten bitartean besteek barra bat nahi izanez gero, haiek jaurtiki egiten zieten hauei.*

*Aintzira Beltzeko hegoaldeko ertzeko Hilverdingsen-en bizi zen jentil batek eta iparraldeko ertzeko Hille-n bizi zen beste batek ogia elkarrekin egosi ohi zuten. (...).*

*Altehüffen-en bizi ziren jentilek laban bakarra baino ez zuten guztientzat. Herriaren erdian zegoen zuhaitz baten enborrean sarturik egon ohi zen, eta normahik hura behar izanez gero bertatik hartu eta bukatutakoan bere lekuan utzi ohi zuen. Zuhaitza egon zeneko lekua erakusten dute gaur egun oraindik.*

Westfalia-n bildutako apunteak dira goiko lerro iradokikor horiek. Izan ere, orri bereko ohar batean dioskuzenez,

*Ez dut ezagutzen Alemania osoan Westfalia eta Hessen bezain aberats den lurralderik jentilen kontakizuneri dagokienez.*

Beraz, jentilen inguruan egin daitezkeen ikerketa guztiek badute honezgero hesparru mugatua, finkaturiko egokidura arkeologikoei mugatua, eta mugatutasun honek lan ekonomia eta emaitza hobeak erdiesteko nola baiteko itzaropena dakar, hemendik aurrera ikerketa ahaleginak, bila gabiltzana edukitzeko aukera gehiago eskaintzen dituzten lurraldeetan miazten kontzentratuko baititugu.

Aztertu dugun mitoaren bazterrekotasuna dela eta, haren hondakinak zenbait lurralde zehatzetan isolaturik

148) JAKOB GRIMM, aip. id. 544 orr.



agertu zaizkigu, eta isolaketa honen ondorioz, hondakin hauek nekez heltzen dira aurkibide orokorretako orrialde-  
etara. Hausnarketa honek zera adierazten du, alegia, ikerketa berriak lurralde interesgarrienetan kontzentratuz gero agian zenbait eredu berri aurkitu ahal izenen direla. Erraldoien akaberaren edo behinik behin honen motibotarik baten aipamenik eza borobila frantziar eta espainiar atlantiar itsasertzean zehar Portugaleraino apika erremedia liteke eskualde horietan inkesta exhaustiboa burutzen ahaleginduz gero, baina hori ez da segurua halere, zeren, –anitz aldiz errepikatu dugu dagoeneko–, arazoa, gordekortasun arazoa baita batik bat.

Arrazoi bereberetan oinarrituz, zeharo gertagaitza deritzogu jentilen akaberaren mitoaren hondakinik Andaluzia, Sizilia, edo Grezian sekula agertzeari, zeren megalitismoaren presentzia lurralde horietan indartsua bada ere, bertan ondoren jasan diren eraldaketa kulturalen barrietateak eta eraginkortasunak, –eta giza ordezkapenak ere agian zenbait lekutan–, aspaldidanik ezabaturik edo zeharo antzaldaturik utziko baitzituzten erraldoi hilobi-erakitzaileen oroitzapenak oro.

Orientabide gisa, esan dezagun jentilen akaberaren arrastoak aurkitzeko esperantza handiagoa izanen dela honako igargarriren bat erakusten duten lurraldeetan, alegia, folkloren jentilen aipamen ugariak edo jentilen aipamen baikorrek, eta arkeologian trikuharrien erabilpen modernoaren (Erdi Arorainokoa edo) frogak dituzten lurraldeetan, eskuarki aipatu hiru igargarriak batera azalduko direlarik.

Trikuharrien erabilpen moderno aipatu dugularik, jentilen mitologiaren iraupenari buruzko hausnarketa plazaratzeko bidea ematen digu. Izan ere, hori baita iraupenaren gako nagusia, mitologia mailan bizirik dagoenak irauten baitu, hildako mitoa ez da fosil bihurtzen eta. Erran nahi baita, jentilen mitologiaren ikuspegi kanonikoa gorde den lurraldeetan, jentilen ereduaren arabera bizimodua ia atzoraino luzatu dela baieztatu daitezkeela zalantzarik gabe. Bizitzarako eta heriotzarako eredu bien arabera, lehenengoaren irautea bigarrenarena baino errazagoa delarik halere. Euskal Herrian bada trikuharrietan egindako Erdi Aroko ehorzketen zantzurik, bai eta XX. menderaino etenik gabe iraun duen haien hilobi izatearen oroitzapen eta errespetuzko keinurik; eta Westfalia-n halaber, ehorzketa modernoek dagokienez honelakorik ba ote den ez badakigu ere, herri oroimenak gorde du halere iragan hurrean izandako erabilpenaren berri<sup>149</sup>. Honek zera erakutsiko luke, alegia, Europako antzinako herri eta lurraldeen indoeuropartzea ez zela ez berdina ez eta bat batekoa izan. Jatorrizko hizkuntzak galdu ondoren ere, Europako zenbait bazterretan indoeuropar aitzineko uste, sineste eta araei loturik jarraiki dira bertako biztanleek. Gordekortasun izugarri baten erakusgarria zalantzarik gabe, baina agian baita ere hizkuntzaren gal-

etzea, apika uste ohi den baino beranduago agitzearen adierazgarria. Irlandar eta eskoziar kasuetarako, badakigu geruza zelta mehe samarra izan daitezkeela, zelten etorrera berantiarra eta kristautasunaren helduera goiztiarra elkartu direlako. Izan ere, Eskozian indoeuropar aitzineko herriak bizi izanaren oroitzapena Historiaraino heldu ahal izan da, eta PTOLOMEO-k K.O.go II. mendean egindako Irlandaren deskribapenean bertako herrien izen asko nekez identifika daitezke zeltatzat, batik bat mendebaldeko lurraldeetakoak. Erromatar geografoek garai beretsuan gaurko Gipuzkoa zeltatzat jo zutela kontuan hartuz, ez da ausartegi Irlandako mendebaldean eta Eskoziar ipar-mendebaldean lehen milurtean zehar irau bide zuten zeltaitzineko hizkuntza-irlen izanaren hipotesia plazaratzea. Baina zer uste ukan behar dugu aspaldidanik hezur muineraino germaniartuak behar luketen westfaliar jentilzaleei buruz? Kultura-irla badirela bistan da, ez dugu demostratu behar. Hizkuntza-irla izan ote dira zenbait mendez? Ba ote hizkuntza galduta ere noiz-nahi arte iraungitze datarik gabe, betirako irautea?

Zurtz geratu den herria garenez, gure buruari egin ohi diogun galdera da gure ahaideak non daudenekoa. Beste batzuk berriz, nondik etorri garenekoa galdetzen dute.

Bada, engoitik gu bezala mintzaten ez diren arren, hortxe ditugu gure izakeraren oroitzapena gorde duten azken senideak, hiletetan ezagutu ohi diren sekula ikusi gabeko lehengusu txikien modura. Hizketan hasi besterik ez dugu behar elkarren berri jakiten hasteko. Urruti bizi dira, ez dute gure mintzaira berean elhesta egiten, baina han eta hemen gurasoz guraso iragan diren bizitzaren ikuskera eta gizabide arau berdintsuen aitzarnarik geratuko delakoan gaude. Irlanda, Eskozia, Herbeherak, Alemaniako ipar-mendebaldea,...

Lan honetan zehar doi, zehatz eta garbi marraztu diren europar bi eredu ideologikoren argazkia, Historiaren interpretaziorako tresna modura aintzat hartzea iradokitzen dugu. Etengabe aipatzen diren eragin greziarra eta judu-kristauaren eragina gutxiesteko asmorik gabe, garaia dela uste dugu Historiako zenbait gertakari, megalitismoaren kultura eta indoeuropar ideologia ardatz hartuta ulerbideratzen saiatzeko. Ez dugu lista luzea azalduko, lan honen helburua ez baita, baina adibide modura, Erreformaren hedatze hesparrua, edota Aro Modernoko lehen demokrazien sorrera argitzeko aipatu ardatzok zer esanik baluketelakoan gaude.

Jentilen etengabeko lanak sortzen ditu belardiak eta soroak lehenago basoa baino ez zegoen lekutan; haiek jaurtitzen dituzte harriak hara eta hona; haien hondalanez sortzen dituzte aintzirak; haiek eraikitzen dituzte trikuharriak, harresi luzeak eta elizak. Megalitismoaren bizitzarako eredu den lanaren apologia, gizagoak bere ingurua aldatzea bizitzarako betebeharra bailitzan, ohartuki formulatzen duen lehen aldia da. Eta egundaino iraun du. Eta bere eraginak bistakoak dira.

Ikerketa baten burugarri plazaratzen diren azken hausnarketan multzoan, ia nahitaezkoa da ikergura oztopatuak, intuizio frogaezinak, eta testu azterketan gogora-

149) A. KUHN. "Sagen Gebräuche und Märchen aus Westfalen"/ 342 orr.:

"Wunbüttel-en inguruan bada trikuharri handi bat, eta bertan bide daude lurperaturik Zazpi Urteko Gerrateko (1756-1763) gatazka latz batean hildako guztiak".

tu baina ebidentzia frogakor beharrezkoaren ezean iren-  
tsi behar izan diren susmoei buruzko hitz bi aipatzea.  
Ezinaren zama hau bost kezka nagusitan laburbil daiteke  
gure kasuan; hona zeri dagozkien:

Amilerazko oparigintzari, ehorzkerazko oparigintzari,  
izurrite lainoa harrapatu eta ixtearen esanahiari, igarlea-  
ren nortasunari, eta azken honen apikako egokipen arke-  
ologikoari. Zenbait lerro eskainiko diogu hauetariko ba-  
koitza azaltzeari.

Jentil igarlearen amilera argitu ezina da zalantzarik  
gabe ikerketa honen arantza. Ez hartaraino motiboaren  
esanahiari dagokionez, zeren dena dela ere esanahi hori  
nahiko argi baitago, baizik eta batez ere horren antzeko  
ereduak aurkitzeko ahaleginek egin duten porrotagatik.  
Oparigintzako amilerazko buru galtzeak eskandinabiar  
eta britainiar tradizioetan agertzen dira, baina izurriteei  
zehazki loturik egon gabe. Halere hiru kasuetan idoro  
ahal izan dugu lotura hori: Behin Erroman, behin Mar-  
seilan, eta behin Greziako Fozea deritzan eskualdean, hi-  
rurak iturri klasikoetako albisteak direlarik. Baina gure us-  
tetan halere, albiste hauek euskal leiendarekin duten an-  
tza baino handiagoa eskatu beharra dago, zeren oparike-  
ren mugatutasunak nolabait kaskartu egiten baitu maila  
honetan agi daitezkeen adostasunak, motibo bitxi eta  
urri baten mailan gerta daitekeena baino askoz gutxiago  
balio duelarik. Honen bitartez ez dut esan nahi ezinez-  
koa denik hiru tradizio hauek eta igarlearen amileraren  
artean halako lotura urrun bat egotea, baizik eta lotura  
horren demostrazioa egitea ezinezkoa gertatzen dela.

Igarlearen amilera eta fozear eta marseilar biktime-  
naren arteko bereizkune nagusia zera da, igarlea, jenti-  
larteko pertsonaia nabarmena den bitartean, beste biok,  
opari gisa amildu aurretik herriko diruen kontura zenbait  
egunez karitatez bizi izan diren gizagajo batzuk direla.  
Gure ustetan bereizkune hau garrantzitsuegia da aintzat  
ez hartzeko, eta izan ere tradizio hauek elkarri hurbiltze-  
ko edozein saio oztopatzen du. Erromako kasuari dago-  
kionez berriz, gogozko buru galtze heroikoa da bertan  
kausitzen duguna, eta herriak ez du horretan inolako es-  
kuhartzerik, jentilen kasuan ez bezala.

Jentilen akaberako biktima hain zuzen ere igarlea  
izan ez balitz, amileraren motiboa jentilen akaberaren  
funtsa narratiboarekiko loturarik gabeko euskal tradizio  
etena baizik ez dela sinets liteke agian, mitoaren zenbait  
euskal bertsiotan gertatzen den amileraren motiboaren  
huts egitea uste horren berme litzatekeelarik. Baina bik-  
tima igarlea da hain zuzen, eta honek eskoziar izakide  
bat du. Azken buruan beraz, euskal bertsiok egiazko-  
tzat hartzea ematen du arrazoizkoena, eta honekin bate-  
ra zera ustea izatea, alegia, igarlearen amileraren moti-  
boaren izakiderik kausitu ez badugu ere, motibo hau ja-  
torriz jentilen akaberaren mitokoa dela, eta mitoaren  
zenbait euskal bertsiotan irauin ahal izan duela bakarrik.  
Gure ustez, bertsiotik hauek ikerketa osoan zehar frogatu  
duten arkaismoa eta fideltasuna mitoaren motiboak gor-  
de eta eusteari dagokionez, gure ustearen zuhurtasuna  
eta bidezkoitasunaren berme ditugu.

Pertsonaia nagusi eta nabarmen bat amilerazko opa-  
rigintza izurritearen aurkako babespeide gisa erabili ohi

denari buruzko tradizio sendorik ezak kontraste argia  
egiten du beste honako tradizio honen ezaguntasunare-  
kin, alegia, izurritetik babesteko apez bat bizirik lurpera-  
tzeko ohituraren ezaguntasunarekin. Batere bila ibili ga-  
be, tradizio honen hiru eredu agertu zaizkigu ikerbidean  
zehar. Baina ohitura honen gauzarik azpimarragarriena  
zera da, leiendazko erreferentzia bat duela Tormersdorf-  
eko pestearen kontakizunean, bertan lainoaren eraginez  
gertatzen dena aztia bizirik lurperatzea baita. Azti hau  
ezin dugu noski jentil igarlearekin parekatu, zeren eta  
biak pertsonaia garrantzitsuak badira ere, bakoitzaren  
paperak ez baitu bestearenarekin zer ikusirik, bien aka-  
berak elkarrekin zer ikusirik ez duten bezala: Aztia lurpe-  
raturik geratzen da, eta igarleak berriz ez du hilobirik  
(AZKUE bertsiotan salbu, baina dagoeneko argitu dugu  
antzaldatze berantiarra dugula hori).

Beste hiru ereduetatik bi (hirugarrenaren jatorburua  
ezezaguna da) Suitza eta Bavieratik datozkigu. Beraz,  
etorburu ezaguneko hiruetatik bi hesparru megalitikotik  
kanpokoak dira (Tormersdorf eta Suitza), eta bestea me-  
galitismoaren presentzia hutsaren hurrena den Bavie-  
ratik. Badirudi beraz herri germaniarrek garapen narrati-  
bo berriak sortu ohi dituztela pestearen motiboa aitzakia-  
tzat hartuz.

Tormersdorf-eko kontakizun berak, –beti Tormers-  
dorf–, une honetan demostratu ezin dugun susmo berri  
bat iradokitzen digu: Honen lotura beste zenbait laino  
harrapatze eta ixte istorioekin, hilobien bortxaezintasu-  
naren bermea litzatekeen aspaldiko sineste zabal baten  
izana ez ote duen erakusten.

Izan ere bertan esana baita, aztiak, lainoarekin bate-  
ra bientzako paratu den hilobian murgildu aurretik zera  
adierazten diela han bildutakoei, alegia, hilobi hura seku-  
lorun sekulan inork ez dezala zabaldu. Hau, zalantzarik  
gabe, hilobien bortxaezintasanaren adierazgarri garbia  
da, baina agian baita erdi ezkutuko mehatxua ere, zeren  
beste aldetik heldu baitzaigu zeraren berri, hots, harr-  
paturiko izurrite lainoek indarrean eta sasoiaren irauten du-  
tela haien zuloetan itxirik, eta inoiz kanporako bidea za-  
balduz gero, lehenagoko heriozte eta hondamen berbe-  
rak eragiteari ekiten dietela, artean zenbait urtetako  
epea iragan bada ere. Honek guztiak, lainoaren harrapa-  
keta eta ondorengo arinkeriazko askatzea kontatzen di-  
guten leienden asmoez hausnartzera garamatza: Lehen  
aldiko harrapaketa erraza, –ez baitu, antza, inongo  
gaitasun berezirik eskatzen–, eta askatu ondorengo ber-  
rri harrapatzearen ezinezkotasan inplizitua, –horren  
ahalbidea ez baita aipatu ere egiten kontakizunetan–,  
leienda hauen mezu nagusiaren erakusgarri ditugu,  
hots, lainoa itxirik dagoen tokia ez da zabaldu behar.

Lainoa itxirik dagoen tokiei begiratzen badiegu,  
hauek Tormersdorf-eko hilobiarekin zer ikusirik ez dutela  
agudo somatzen da: Kisketa zuloan Twente-n (De La-  
ppe) eta Oldenburg-en, horma bateko zuloa Suitza-n, eta  
zuhaitz bateko zuloa Hölterhof-en. Toki hauetariko batek  
ere ez du ematen hilobi itxurarik duenik, nahiz eta  
Alemania eta Prusia-n ezkiak hilobi zantzurik baduen.  
Conitz-eko albistean, zer itxura duen esaten ez zaigun  
pestea zuhaitz zulo baten harrapatzen ikusi dugu. Bada,

ezki bat zen. Eta urrun ez dagoen Sorau-tik datorren beste albiste batek dioskunez<sup>150</sup>, hiriko elizaren ondoan zegoen "Peste Hilobiaren" gainean ezki bat aldatu zuten "pentsamendu txarrak ekiditeko", ohar honek hilobia bortzatzeko arriskuaz ari ote diren gogoratzen digularik.

Zantzuak zantzu, demostratu ezinezko susmoen atalean gaudela iragarri dugunez, lotsatu gabe adieraziko dugu gure susmoa:

Izurrite lainoaren harrapatze eta ixtearen zikloa zera litzateke, alegia, jatorburua jentilen akaberaren mitoan ukan, eta gero noizbait, jatorrizko hesparrua gainditu, –geografikoa eta ideologikoa–, eta herri germaniarren mailan hilobien bortxaezintasunaren berme eta izurriteen zabalitze-ekutatzeen ulerbide orobat bilakaturiko mitoa.

Une batez gogoeta eginez gero, senitarte-hilobi diren dolmenek ez dute honelako interpretaziorik onartzen, hilobiok behin eta berriz zabalitzen baitira hildako berriak bertan ipintzeko. Testuinguru horretan beraz, ez du zentzurik lainoa hilobian ezkutuan eta bere indar osoz bertan dagoela dioen mitoak. Beraz, mito hau jaino ahal izateko bakarkako hilobien testuinguruan ipini behar dugu jentilen akabera eragiten duen izurrite lainoa. Lagun bakarra bertan ehortzi eta sekula gehiago zabaldu behar ez den hilobien testuinguruan. Eta agian beranduago, teorikoki, ohitura eta mito zaharrak ahantzirik, dolmenetan ehorzketa gehiagorik egin ez eta jentilen akaberaren zantzuak galdu diren hesparru dolmenikora ere zabal liteke, trikuharria engoitik sekula zabaldu behar ez den hilobien sailera irago den heinean. Zaindu beharreko aldia luzeegia da eta esku artean ditugun eta etorkizunean ukanen bide ditugun datuak urriegi, hipotesi modura adierazi dugun ibilbide honen urratsak era zehatz eta fidagarriari inoiz ezagutzeko.

Gaia aldatuz, hurrengo iradokizuna jentil igarleari dagokio.

Jentilen akaberaren azterketaren hasiera beretik arretatsu sopean ukan dugun arazo mamitsua izan da igarleak jentilartean duen kokapena eta jentilartearekin duen harremanena.

Azterketa horretan murgildurik, agian adierazkorra den *ñabardura* bat somatu dugu, baina alferrekoa zatekeen orduan hura aipatzea, ez baikara hari inolako egokidurarik aurkitzeko gauza izan: *Ñabardura* hau somatzeko behar adina luzera duten (laburturik ez dauden) bost bertsioetariko lautan, jentil igarlea ez dela gainerako jentilekin batera bizi adierazten bide da. Bazterrekotasun hau zuzenean baieztatzen da igarlea jentilengandik aparte bizi den lekua deskribatuz, –Segurako bertsioan–, edo zeharka, "*zahar jakintsu bati hots egin eta haien artera ekarri zuten*" esaldiaz BARANDIARAN bertsioan, edota aurreko bide biak batera erabiliz Leitzadi eta Oihartzun bertsioetan. AZKUE bertsioa da hasiera hasieratik igarlea jentilekin batera hauen buruzagia baillitzaen erakusten digun bakarra, eta xehetasun honek berriz ere bertsio hau denean eraldatuena dela berresten digu.

Igarlearen bazterrekotasun honi oparikia bera dela gaineratzen badiogu, honek guztiak gizarteak madarikatu eta bazterturiko izaki baten argakia marrazten digu, se-guru aski bere igarmena dela eta sortutako egoera. Egoera honek hain zuzen, MARTIN-ek eskoziar ikuslariaren inguruan egiten zuen komentarioa gogorarazten digu, hots, hauek, beren ikusmen berezia kaltetzat jotzen zutela mesedetzat baino, honek berri txarren emaile bihurtzen zituelako edo. Igarlea ez litzateke bada, jentilen nagusi edo buruzagia, ahal bezain urrun ukan nahi den patu gaiztoko pertsonaia beldurgarria baizik. Jentilartetik kanpo bizitzera behartzen duten, eta azken buruan opariki amilaraziko duten izaki baztertua.

Bere ahalmena dela eta madarikaziopean bizi bide den izaki honen inguruko azken hausnarketa honako lizentzia filologikoa da: "Nabari" eta "nabarmen" hitzen igarmen honekiko balizko lotura iradokitzea. "Nabarmena" izango litzateke igarmen horren izena (ezkutuko den etorkizuna nabaritzeko ahalmena), eta ahaldun horri dagokion bazterketatik letorke hitzak egundaino gorde duen adiera ezkorra.

Eta azkenik, kointzidentzia bitxia baino zerbait adierazkorrago izan daitekeen datu bat: Mugimendu megalitikoaren agerpenarekin batera, eta berari loturik, idolo bat agertzen da, eta idolo horren bereizgarri nagusia eta sarritan bakarra, indar mistiko sarkorra adierazten duen zeharo zabalduko bi begi handi dira. Hau jakinez gero, euskal eta eskoziar ikuslariengana jotzen du gogoak ezinbestean.

Izan ere, idoloak ez du betazal tenteturik erakusten, baina arte sinbolikoa da, ez errealista, eta dena den, gogora dezagun betazalen tenteketa ez dela bisio egoeraren kanporako adierazle bakarra eskoziar ikuslariengan, egoera hau, urrunean geldirik fijo so egiten duen begiradak ezagutarazten baitu halaber. Zernahi dela ere, idoloen begietatik jalgitzen diren errainuek, eta haien barruko hespil erdikideek, begiei darien indar baten ideia argi eta garbi adierazten badute, –eta honen gainean bat datoz autore guztiak–, ezin nezake kultura megalitikoaren idolo bakar honen begiradarentzat, kultura berorren mito fundatzailean agertzen den jentilaren ikusmen bereziarena baino ulerbide hoberik asmatu.

Gure mitoaren inguruko guztiaren urritasun larria ikerketarako oztopo garrantzitsua bilakatzen da berriz ere: Bigarren ikusmenaren bi eredu gutxiegi dira horren gainean demostrazio sendorik eraikitzea, baina dena den, megalitogileen idoloaren begi handi borobilak interpretatzeko gaur egun proposa daitekeen ulerbiderik egokiena plazaratzeko behar adina ebidentzia eskaintzen digute.

Espekulazio hauek gogoan dantzatu ondoren, ikerketa honetako konklusio nagusiak eta hauetatik jalgitzen diren ondorioak laburbilduz, hitz bi baino ez.

Jentilen akaberaren mitoaren azpian zetzaten esanahi ezkutua ageriratzeko gure saio honetan erdietsi den arrakastari, ikerketa burutzen duen egokitzapen arkeologiko zehatz baten finkapena gaineratu behar zaio, hain zuzen ere mitoaren adina data zehatz batez emate-

150) K. HAUPT. "Sagenbuch der Lausitz". / 182 orr.



Bretainiako Morbihan eskualdeko idolo megalitiko ugarietako bat.

<http://rupestre.net/alps/ssaver/sld044.htm>

ko ahalbidea eskaini digun egokitzapen arkeologikoa, ikerbidearen hasieran ametsetan ere halako datatzearen aukera ikusten ez bagenuen ere.

Jentilen akabera eta mugimendu megalitikoaren arteko egokitzapenak, eta orokorki, erraldioen mitologia osoaren megalitismoarekiko loturak, jentilen eta erraldioen berberatasuna baieztatu eta zera ahalbideratzen du gainera, alegia, jentilak eta erraldoiak folkloreko fantasia funtsabakotzat jotzeari utzi, eta erlijio zehatz baten sarritan antzaldaturiko ordezkariatzat hartzea. Ikuspegi aldatuta honen ondorio nagusia, pertsonaia hauen azterketa serioa egiteko ahalbidea da. Azterketa honen oinarria, euskal jentilei buruz dakiguna izanen litzateke, hauek, indoeuropar kultura estalkirik gainera jausi ez zaielarik, bikain gorde baitute beren sena jatorra. Eta hauekin batera, arestian ikusi dugunez, indoeuropar estalki ideologikotik kanpo geratu diren beste zenbait eskualdetako jentilak ere. Honela, esate baterako, amaiburu gisa heroi batek zigortzen duen erraldoi ergel, enasa, itsusi eta ankerrak azaltzen dituen kontakizun mota aurkitzen dugunean, eta ondoan berriz, erraldoiak langile, eskuzabal eta lagunberatzat jotzen dituen leienda mota, jentilei buruz dakigunaren arabera zera erabaki ahal izanen dugu, alegia, azkeneko mota honetakoek adierazten dutela erraldioen ideologia jatorra, eta aurreneko motakoak ordea karikatura asmonekiko antzaldaketak direla, erraldioenaren ondorengo kulturek haiek barregarri uzteko asmatuikoak. Zenbait indoeuropar mitologietan, –zenbait indoeuropar gizartetako mitologietan alegia–, ageri den jainkozko eta erraldioen arteko auzia ikuspegi berri beronetatik begiraturik, bi kulturaren arteko auzi eta borroka historikoaren irudirabide ideologikotzat jo beharra dago, hain zuzen ere megalitismoa eta indoeuropar kulturen arteko auziaren adierazgarritzat.

Erraldioen mitologiaren identifikaketak folkloreaken baitan, eta baita indoeuropar gizartetako mitologian ere, zenbait bereizketa eragiteko ahalbidea dakar, hauen bitartez, "indoeuropar aitzineko geruza" kontzeptu zehazpakoaren suntsipena eragin beharko luketen zenbait

maila edo estalki ezberdin sortzen direlarik. Zabor sakela modura beste inon sartu ezin den guztia botatzeko erabili ohi den kontzeptu trakets horrena egin ezezik, bereizketa hauek zera galarazi beharko lukete gainera, alegia, indoeuropar mitologiak, indoeuropar hizkerez mintzatzen diren gizarte guztietako mitologietan dagoen guztia berarena bailitzan bereganatzeko duen joera. Irlandar mitologiaren baitan, –erabat irlandarra baina ez erabat zelta–, Partholon-en arrazaren, Fomore-en eta Balor-en senaren osagai bertakoaren identifikaketen bitartez burutu dugun zibilizazio maila ezberdinen bereizketa eta ordenaketa, jarrera honen lehen emaitzak ditugu, Moytura-ko gatazkaren kontakizun zeltaren egoera jatorraren gutxi gorabeherako berreraiketa erdietsi duten emaitzak gainera.

Euskal mitologiaren hesparru zehatzari dagokionez, ikerketa honen emaitzak, hura osatzen duten zikloen eta ziklo hauen asmatzaile diren kulturen sailkapen sistematikorako lehen urratsa dira.

Gure ikerketaren emaitzek agerian jartzen dute kristaturatu aurreko euskaldunen erlijioaren zutarr nagusienetako bat zuzenean mugimendu megalitikotik eratorritako dela.

Segurtasun hau halere, zalantza eta kezka berriak sorrarazten duten galdera berrien plazarazlea da: Jentilek beste leienda ziklo nagusietako pertsonaiekin dituzten loturei (Mari eta laminekin batik bat) buruzko, eta orokorkiago euskal kulturaren jatorriari buruzko galderak hain zuzen. Ikerketa honetan zehar ez dugu Mariren edo lamineen antzeko ezer topatu, hain zuzen ere jentilen erreferentzia argi eta ugariak agertu diren lekuetan, eta datu honek jentilen zikloaren burujabetza eta beste bielik loturirik ezaren hipotesiari eustera eramaten gaitu, honek orduan bi zikloon jatorburu historikoaren galdera plazaratzen duelarik.

Agian edozein iritzi emateko goizegi bada ere, lamineen zikloa jentilena baino berriagoa delakoan gaude. Zilegi begitu gai honi buruz dauzkagun argudioak sakelean gordetzea, lan bat amaitzeko garaia baita hau, eta ez beste berri bat hastekoa. Baina uste hau egiatzkoa probatuko balitz ere, hortxe geratzen da Mariren zikloa, eta horretan bai ez dugula iritzi edo uste bakar bat ere arrikatuko.

Euskal paganismoaren osotasunean osagai megalitikoak duen garrantzia ikusirik, korrante honen sarrerak aitzinagoko kulturekiko loturen etetea zenbateraino ote dakarkion Euskal Herriari galdegin liteke, alegia, euskal paganismo zaharra oso osorik megalitismotik eratorria ote den, megalitismoa baizik ez ote den, euskal paganismo zaharra eta kultura megalitikoak, –hizkuntza ere barne sartuko lukeen identifikazio oso batez–, gauza bat eta bera ote diren. Akulturazio megalitikoari buruzko galderak (hizkuntza aldatuta ala errito berriei loturiko hiztegi mailako mailegu bakanak), eta erlijio berriaren eraginpeko arloei buruzkoak (hildakoen kultuaren berrikuntza hein batean errespetatzen den aurreko kultur geruzaren gainean, ala kontzeptu antropologiko osoaren eraberritzea, ulerbide kosmologiko berria eta guzti) erantzunik gabe geratu beharrean daude. Badirudi, bai, erraldioen

mitologiak ez dakarrela inongo ulerbide kosmologikorik, eta bi arlotan mugatzen dela bere mezua, alegia, elkartasunaren arauak gizarte bizitzarako, eta hildakoen kultura errito hesparrurako. Honela balitz, erraldioen erlijioak zuzenean araupetzen ez dituen irudiramen antropologikoa- ren zenbait arlotan, –ulerbide kosmologikoa esate bate-

rako–, lekuan lekuko tradizioek aurrera irauteko ahalbi- dea ukan dutela imajina liteke, eta horren arabera ez ge- nuke alde zuzenetik euskal paganismoaren multzo osoa erlijio megalitikotzat jo beharko. Auzi mamitsuak bene- tan, lehen baitlehen bilakatuko al dira ikerketa berrien aztergai!

## LABURDURAK

ATP:	Pariseko Musée des Arts et Traditions Populaires museoko Liburutegia.	MHN:	Pariseko Musée Nationale d'Histoire Naturelle museoko liburutegi Zentrala.
BAA:	Pariseko Bibliotheque d'Art et d'Archéologie liburutegia.	MLGU:	Liburua Parisen aurkiezina zela eta, liburutegi arteko mail- legu zerbitzuaren bidez eskatu eta nondik heldu zaidan ja- kin ahal ezin izan dudana kasuetarako erreferentzia.
BM:	British Museum museoko liburutegia.	NN:	Neronena.
BN:	Pariseko liburutegi nazionala.	NSUG:	Niedersächsische Staats- und Universitätsbibliothek, Göttingen. Göttingen-go Udal eta Unibertsitat Liburutegi Niedersaksondarra.
BSM:	Bayerische Staatsbibliothek München, Munich-eko Udal Liburutegi Babariarra.	OSK:	Országos Széchényi Könyvtár. Széchényi Liburutegi Nazionala. Budapest.
EHESS:	Pariseko École des Hautes Études en Sciences Sociales Ikastetxeko liburutegia.	PEE:	Pariseko Eskual Etcheko liburutegia.
EUTG:	Estudios Universitarios y Técnicos de Guipúzcoa ikaste- txeko Liburutegia.	SB:	Staatsbibliothek Berlin, Berlingo Udal Liburutegia.
HUL:	Helsinki unibertsitateko liburutegia.	SOR:	Pariseko Sorbonako liburutegia.
ICL:	Irish Central Library for Students, Irlandar Liburutegi Zentrala Ikasleentzako.	STR:	Estrasburgoko Liburutegia.
LC:	Washington-go Library of Congress liburutegia.	TUL:	Tolosako Udal Liburutegia.
MH:	Pariseko Musée de l'Homme museoko liburutegia.		

## BIBLIOGRAFIA

AARNE A. & THOMPSON S. 1973	"The types of Folktales". Helsinki. NN	ARVE. 1898	"Le voeu de la peste à Noves (1720-21)". BN. Lk7 31055.
ABOT T.K. & GWINN E.J. 1921	"Catalogue of the Irish Manuscripts in the Library of Trinity College Dublin". Dublin (Aurkiezina).	AZKUE R.M. 1959	"Euskalerrriaren Yakintza". Madrid. EUTG.
AFANASIEV. 1973	"Contes Russes". EHESS.	BARANDIARAN J.M. 1972	"Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca". Obras Comple- tas I. alea, Bilbao. TUL.
ANDRÉ. 1989	"La Peste en Vivarais". BN. Lk2 4439.	1973	"Eusko Folklore". Obras Completas II. alea, Bilbao. TUL.
ARANZADI T. 1975	"Etnología Vasca". Donostia. NN.	BARRY G. 1808	"History of the Orkney Islands". MH.
D'ARBOIS DE JUBAINVILLE H. 1884	"Le cycle mythologique irlandais et la mythologie celti- que." Paris. ATP.	BARTHOLINUS T. 1588	"Antiquitatum Danicarum". Hafnae. BN M 6930.
ARNASON B. 1899	"Hellismanna Saga." Isafirdi. Aurkiezina.	BARTSCH K. 1879	"Sagen, Märchen und Gebräuche aus Mecklenburg". I. alea. Wien. BN 8° M 1496.
ARTAUD. 1906	"Menace à Lyon (1579)". BN. Lk7 31055.	BASCOME E. 1851	"A History of Epidemic Pestilences". London. BN. Td53 161.

- BAUGHAM E.W.  
"Type and motif Index of the folktales of England and North America". Bloomington (Indiana). ATP.
- BECKWITH M.  
1940 "Hawaiian mythology". New Haven. ATP.
- BEOTRA B.R.  
1905 "Gods and Temples of the Sukket State" in *Journal and Proceedings of the asiatic society of Bengal. ff. XXVII*. Calcuta. Aurkiezina.
- BERGIN O.J.  
1907-1913 "Anecdota from Irish Manuscripts" (5 ale) Halle. BN 8°Z 17147.
- BERNARD J.H. & ATKINSON R.  
1898 "Irish Liber Himmorum" (2 ale) London. BN B24925 (13-14).
- BERTELSEN H.  
1905-11 "Thiedriks Saga" in *Samfund nordisk Litteratur*. Aurkiezina.
- BEST R. & LAWLOR H.  
1931 "Martyrology of Tallaght". London. BN B24925 (68).
- BIDART P.  
1978 "Récits et Contes Populaires du Pays Basque" I eta II. Paris. NN.
- BIRCH-HIRSCHFELD.  
1900 "Juan Manuel ... conde Lucanor et de Patronio". Leipzig. BN 8°Yg. 219.
- BLANCHARD.  
1900 "Notes historiques sur la peste". BN Td53 322.
- BOBERG I.M.  
1956 "Motif index of early icelandic litterature". Kobenhavn. BN 4°Z 3565 (27).
- BOLTE J. & POLIKVA G.  
1913-31 "Anmerkungen zu den Kinder-und Hausmärchen Der Brüder Grimm" (5 ale). Leipzig. ATP.
- BOOTH G.  
1814 "The historiacal library of Diodorus the Sicilian..." (2 ale) London. BN J10455-10456.
- BOSCH-GIMPERA P.  
1925 "Recensió del llibre The Axe Age de Kendrick". Butlletí de l'Associació Catalana de Antropologia III. BAA.  
1932 "Etnología de la Península Ibérica". Barcelona. MH.  
"Two celtic waves in Spain". London. MH.
- BOSSU.  
"La prophylaxis de la peste en Barrois". BN Te30 254.
- BOSWELL J.  
1807 "The journal of a tour to the Hebrides". London. BN 8° Nr.8.
- BOUCHER.  
1896 "La peste à Rouen". BN Td53 290.
- BOUDET.  
1902 "Peste en Auvergne". BN Td53 323.
- BREUER H. & FOERSTER W.  
1908-1915 "Les merveilles de Rigomer par Jehan". Dresden (zweit auflage) (2 ale. Gessellschaft für rom. Litt. 8d. XIX, XX-XIX). BN 8°Z 16401 (19), (39).
- BRODERIUS J.R.  
1933 "The giant in germanic tradition". Chicago. BN.
- BRODEUR A.G.  
1916 "The prose Edda by Snorri Sturluson". New York (Scandinavian Classics vol.V American-Scandinavian Foundation). BN 8° Yl. 195 (5).
- BROWN A.C.L.  
1943 "Origines of the Grail Legend". Cambridge (Mass). BN 8°Z 8517.
- CAMBRENSIS Giraldu.  
1867 "Topographia Hibernica" (V. alea). London. BN 4°Na 388 (21-25).
- CARNOY A.J.  
1917 "Iranian Mythology" (The mythology of all races VI) Boston. MH.
- CAVANES.  
1920 "Moeurs intimes du passé". BN 8° Li2 173.
- CEDERSCHIOELD G.  
1884 "Fornaldsögur Sudrlanda". Lund. Aurkiezina.
- CHANEL.  
1910 "Une année de famine et peste à Bourg". BN 8° Lk7 38729.
- CHANTEPIE DE LA SAUSSAYE P.D.  
1902 "The religion of the teutons" Boston. BN 8°H 6262.
- CHAUVIN V.  
1892-1922 "Bibliographie des ouvrages arabes" (12 ale). Liège. Aurkiezina.
- CHAVANT  
1903 "La peste á Grenoble". BN Td53 326.
- CERQUAND M.  
1875 "Légendes et récits populaires du Pays Basque". Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau. NN.  
1881-82 "Légendes et récits populaires du Pays Basque". Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau. NN.  
1884-85 "Légendes et récits populaires du Pays Basque". Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau. NN.  
1886-87 "Légendes et récits populaires du Pays Basque". Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau. NN.

- CLARK J.G.D.  
1936 *"The mesolithic settlement of northern Europe"*. Cambridge. MH GN/768/C59.
- CLAVIER M.  
*"Description de la Grèce de Pausanias"* (V. alea). ABN J10022.
- CLYN Friar John.  
1849 *"Annals of Ireland"*. Irish Archaeological Society elkartearen aldizkarian. BN No 112.
- COURTY M.G.  
1924 *"Gargantua d'après la légende et les monuments Mégalithiques"*. Bulletin et mémoires de la société d'anthropologie de Paris, séance du 6 mars de 1924 MH. GN/469.99/ZC/M.
- CRAWFURD.  
1914 *"Plague and pestilence in literature and art"*. BN. Td53 356.
- CREIGHTON.  
1891-94 *"History of epidemics in Britain"*. (2 ale). BN Td53 113.
- CROSS T.P.  
*"Motif index of early irish litterature"*. Bloomington (Indiana). ATP.
- COOK A.B.  
1904 "... .." *Classical Revue XXIII (1904)*. BN 4°Z 485.  
1925 *"Zeus"*. Cambridge. BN 8°J 8082.
- CURTIN-HEWITT.  
*"Seneca fictions legends and myths"*. Annual Report of The Bureau of American Ethnology, 32 zb. MH E/51/895/v. 32.
- CURTIN J.  
1894 *"Hero Tales of Ireland"*. London. BM.
- DAEHNHARDT O.  
1909-1912 *"Natarsagen"* (4 ale). Leipzig. BN.
- DALLYELL.  
1835 *"Darker superstitions of Scotland"*. BN 8°Nk 106.
- DAUPHIN.  
1910 *"Sanctions prises à Angers contre la peste"*. BN 8° Tc30 252.
- DE FOE D.  
1835 *"A journal of the plague year"*. BN 8° Ns 915.
- DELOURMEL.  
1897 *"La peste à Rennes"*. BN Lk7 30628.
- DE SMET, Père Joseph Jean.  
*"Recueil des Chroniques de Flandre"* (4 ale). BN M8081 (III, 1-4).
- DETTET F.  
1891 *"Zwei Fornaldarsögur"*. Halle. BN 8° Y1 55.
- DE VRIES J.  
1937 *"Altgermanische Religions Geschichte"* (2. alea). Berlin, Leipzig. BN 8°X 20091 (12,II).
- DICKSON A.  
1929 *"Valentine and Orson: A study in late medieval romance"*. New York. BN 8° Y2 75658.
- DILLON M.  
1948 *"Early irish litterature"*. Chicago. BN 8°Z 9105.
- DIODORUS SICULUS.  
Ikus BOOTH G.
- DLUGOSZ I.O.  
1615 *"Historia polonica"*. Krakowia. BN M1157.
- DOELLINGER J.J.I.  
1872 *"Fables respecting the popes (Die Papst-Fabeln)"* New York. BN H14075.
- DOTTIN G.  
*"L'Épopée Irlandaise"*. MH.  
*"Divination (Celtic)" in Hasting's Encyclopedia*. ATP.
- DOWLING T.  
1849 *"Annales Hiberniae"*. Irish Archaeological Society elkartearen Aldizkaria, XIII. BN.
- DUMEZIL G.  
1930 *"Légendes sur les Nartes"* Paris. MH.  
*"Mitra-Varuna"*. MH.  
*"La saga de Hadingus"*. EHESS.  
1957 *"Contes et légendes des Oubykhs"*. Paris. MH. GN/2/P252/v.60.  
1962 *"Documents anatoliens sur les langues et les traditions du Caucase"*. II, Textes Oubykhs. Paris. MH GN/2/P252/v.65.  
*"Documents anatoliens... du Caucase"*. III. MH. GN/2/P252/v.71  
1973 *"Mythe et Épopée"* (3 ale). Paris. MH GN/469/D883/M.
- DU PREL K.  
1882 *"Das Zweite Gesicht"*. Breslau. (Deutsche Bücherei XIX). LC.
- DURHAM S. of.  
1867 *"Historia Regum"*. London. (Surtees Society 51. alea). BN 8°Na 303 bis (51).
- EBERT M.  
1913 *"Die baltischen Provinzen Kurland, Livland, Estland"*. Prähistorische Z. aldizkaria V. MH.
- EBSTEIN .  
1899 *"Die Pest"*. BN Td53 308.

- ELDERINK  
C.1924 *"Oet et Laand van Aleer"*. Twenter Vertelsels. Enschede. MLGU.  
1937 *"Twenter Laand en Leu en Leven"*. Enschede. MLGU.
- ELTON O.  
1894 *"The first nine books of the danish history of Saxo Grammaticus"*. London. BN 8°M 8634.
- ELWIN V.  
1939 *"The Baiga"*. London. BN 8°O2 k 2134.  
1949 *"Myths of middle India"*. Madras. BN 8°Z 32884 (I).  
1953 *"Tribal myths of Orissa"*. Bombay. Aurkiezina.
- ELWORTHY F.T.  
1895 *"The evil eye"*. MH.  
*"Evil eye" in Hasting's Encyclopedia*. ATP.
- ENTHOVEN R.E.  
1924 *"The Folklore of Bombay"*. Oxford. BN 8°O2 k 2281.
- ERIZZO S.  
1912 *"Le sei giornate..."*. Scrittori d'Italia Pt. II. Bari. BN 8°Z 19447 (40).
- ESTORNÉS LASA B.  
1981 *"Origenes de los vascos" (4 ale)*. Donostia. TUL.
- ETTMÜLLER E.M.L.  
1870 *"Altnordischer Sagenschatz"*. BN Y2 33277.
- FARAL E.  
1929 *"Historia Regum Britanniae"* (Geoffroy de Mornmouth). BN 8°Z 114 (256).
- FEILBERG H.F.  
1886-1914 *"Bidrag til en Ordbog over jyske Almuesmal"* (4 ale). Kobenhavn. BN 8°Z 11123 (13).
- FLOOD D.M.  
*"Ireland, its myths and legends"*. New York, London. MH DA/925.5/C5/F63/M.
- FOSSEYEUX.  
1913 *"Peste à Paris"*. BN 8° Td53 353.
- FOWLER W.W.  
1911 *"The religious experience of the roman people"*. London. BN 8°R 53701.
- FOX W.S.  
1916 *"Greek and Roman Mythology"* (The Mythology of all races I) Boston. MH.
- FRAZER J.G.  
1890 *"The golden bough"*. London. BN 8°H 6496.  
1898 *"Pausanias descriptio of Greece"* VI. alea. BN 8°J 6621.
- FRAZER J.G.  
1911 *"The magic art and the evolution of kings"* II. alea. London. Aurkiezina.  
1926 *"The worship of nature"*. London. MH GN/469/C3/F84.
- FRIDRIKSSON H.  
1848 *"Thordar saga hredu"*. Kobenhavn. Aurkiezina.
- GAFFAREL.  
1911 *"La peste de 1720 à Marseille"*. BN 8° Td53 346.
- GARSONNIN.  
1901 *"De la peste à Orleans"*. BN 8° Td53 355.
- GASKELL C.G.  
*"Divination (Teutonic)" in Hasting's Encyclopedia*. ATP.
- GASQUET.  
1893 *"The great pestilence"*. BN Td53 288.
- GASTER M.  
1924 *"The exempla of the rabbis"*. London, Leipzig. ATP.
- GASTER T.H.  
1952 *"The oldest stories in the world"*. New York. BN O2d 653.
- GAYANGOS P.  
1912 *"El libro de los enxemplos"*.  
*"El libro de los estados"*.  
*"Castigos e documentos del rey Don Sancho"* Biblioteca de autores españoles 51.alea. Madrid Rivadeneyra. BN Usuel.
- GERARD.  
1900 *"Peste à Sarlat"*. BN Lk7 32787.
- GOLTHER A.  
1895 *"Handbuch der germanischen Mythologie"*. Leipzig. BN 8°M 9471.
- GORDON E.M.  
1908 *"Indian folktales"*. London. Aurkiezina.
- GOUGAUD Dom Louis.  
1911 *"Les chrétientés celtiques"*. Paris. BN 8°H 7126.
- GRIMM Brüder  
1844 *"Deutsche mythologie"*. Göttingen. BN M 36773.  
1905 *"Deutsche sagen"*. Berlin. ATP 1°A/43/2.
- GRIMM J.  
1880-88 *"Teutonic mythology"* (4 ale). London. BN 8°M 5999.
- GROTE G.  
1888 *"History of Greece"*. London. BN 8°J 18735-18744.



- GUTCH Mrs.  
1901 *"Country Folk-lore"* (II.alea). London. BN 8°Nk 276.
- HAHN G. Von  
1918 *"Griechische und albanesische Märchen"*. Leipzig 1864. Neue Auflage München 1918 (2 ale). BN Y2 41281-41282.
- HALLIDAY W.R.  
*"Indo-European folktales and greek legend"*. New York, London. MH GN/469/H 183/M.
- HARTLAND E.S.  
1894 *"The legend of Perseus"* (3 ale). London. ATP.
- HARTNETT P.J.  
1940 *"The holly wells of East Muskerry"*, Bealoideas aldizkaria X. BN.
- HASTING J.  
*"Encyclopedia of Religion and Ethics"* (12 ale). ATP Usuel.
- HAUPT K.  
1862 *"Sagenbuch der Lausitz"*. SB.
- HECKER J.F.C.  
1846 *"The epidemics of the middle ages"* (II.alea). London. BN T22 35 (v. II).
- HENNE-AM-RHYN O.  
1879 *"Deutsche Volkssagen"*. Leipzig. BN m 13591.
- HENNESSY W.M.  
1866 *"Chronicum Scotorum"*. London. BN 8°Na 388 (46).  
1875 *"Book of Fenagh"*. Dublin. Aurkiezina.  
1887-1901 *"Annals of Ulster"*. Dublin. BN 4°No 528 (98).
- HENNIGER K.  
1927 *"Niederdeutsche volkssagen"*. Hannover. Aurkiezina.
- HERRMANN P.  
1901, 1922 *"Erläuterungen zu den ersten neun Büchern der Dänischen Geschichte des Saxo Grammaticus"* (2 ale). Leipzig. BN 8°M 12035.
- HERTEL J.  
1925 *"Indische Märchen"*. Jena. Aurkiezina.
- HERTZBERG R.  
1835 *"Kulturbilder fran Finlands Historia"*. Helsingfors. Aurkiezina.
- HOENIGER  
1882 *"Der Schwartze Tod in Deutschland"*. Berlin. BN 8° Td53 271.
- HOETTGES V.  
*"Typenverzeichnis der deutschen Riesen-und Riesische Teufelsagen"* FCC ald. 122 zb. Helsinky. MH GN 469/F66/v.51/n° 122/M.
- HOGAN  
1910 *"Onomasticus Goedelicum"*. Dublin. Aurkiezina.
- HOLDER A.  
1931 *"Saxonis Gesta Danorum"*. Kobenhavn. BN 8°M 4755.
- HOLLANDER L.M.  
1928 *"The poetic Edda"*. Austin (Texas). BN 8°YI 281.
- HOLMBERG U.  
1927 *"Finno-ugric mythology"* (The mythology of all races IV) Boston. MH.
- HOOPER A.G.  
1932 *"Bragtha Oelvis saga"* Leeds studies in english and kindred Languages I. BM.
- HOVEDEN R.  
*"Chronica Rogeri of Hoveden"*. BN 4° Na 338 (51).
- HYDE D.  
1910 *"Beside the fire"*. London. Aurkiezina.
- IRWING W.  
1829 *"Chronicle of the conquest of Granada"* (2 ale). Philadelphia. BN.
- JACOBS J.  
1892 *"Celtic fairy tales"*. London. BN 8° Y2 46069.
- JAHN U.  
1889 *"Volkssagen aus Pommern und Rügen"*. Berlin. BN 8°M 4761.
- JAKOBSEN J  
1902-3. *"Ausfirdinga sögur"* in Samfund... nordisk litteratur. Aurkiezina.
- JESSEPE A.  
1900 *"The coming of the triars"*. BN 8° Nf 717.
- JIRICZEK O.L.  
1893 *"Bósa saga"*. Strassburg. BN 8°M 8233.
- JOHNSON.  
1911 *"Documents iconographiques"*. BN 8° Td53 348.
- JOHNSON S.  
1775 *"A journey to the western islands of Scotland"*. London. BN 8° Nr 4.
- JONSSON F.  
1925 *"Landnamabok"*. Kobenhavn. Aurkiezina.
- JOYCE P.W.  
1903 *"A social history of ancient Ireland"*. London. BN 8° No 558.

- JÜLG B.  
1866 *"Die Märchen des Siddhi-Kür"*. Leipzig. BN Y2 3784.
- JÜNGER F.G.  
1944 *"Die Titanen"*. Frankfurt a.M. BN 8°J 2973.
- JUSTIN.  
1922 *"Oeuvres complètes de Justin"*. Paris. BN 8°J 8846.
- KAHLO G.  
1923 *"Sagen des Harzes"*. Leipzig-Gohlis. SB.
- KALUND Kr.  
1917 *"Kiralax saga" in Samfund... nordisk litteratur*, 1917. Aurkiezina.
- KAPFF R.  
1926 *"Schwebische sagen"*. Aurkiezina.
- KELLER J.E.  
1949 *"Motif index of medieval spanish exempla"*. Knoxville (Tenn.). MH.
- KIRBY W.F.  
1907 *"Kalevala, the land of heroes"* (2 ale). London. Aurkiezina.
- KJALN.  
1911 *"Jokuls saga buasonar"*. Groningen. Aurkiezina.
- KNOOP O.  
1925 *"Sagen und Erzählungen aus dem Kreise Neugard"*. Stargard. Aurkiezina.
- KNUTSON B.  
1910 *"A litil boke, the whiche traytied and reherced many gode Things necessaries for the ... pestilence ... made by the Bisshop of Arusiens"*. London 1485. Bn 8°Z 18257.
- KRAFFT-EBING.  
1899 *"Über die Pest in Wien"*. BN Td53 310.
- KRAMBEER K.  
1926 *"Mecklenburgische Sagen"*. Ribnitz. Aurkiezina.
- KRAPPE A.H.  
1927 *"Balor with the evil eye: Studies in celtic and french Litterature"*. New York. BN 8°Z 24291.  
1944 *"Artemis Mysia" Classical Philology ald. XXXIX*. BN 8°J 9462.
- KÜHN A.  
1859 *"Sagen, Gebräuche und Märchen aus Westfalen"*. Leipzig. BN M33081-33082.
- LAING.  
1844 *"Heimskringla saga"*. London. Aurkiezina.
- LARMINIE W.  
1893 *"West irish folktales and romances"*. London. ATP 1°D/175/129.
- LAUCHERT F.  
1893 *"La estoria del rey Anemur et de losaphat et de Barlaam" Romanische Forschungen ald. VII*, 1893. BN 8°Z 2606.
- LECUYER.  
1912 *"La peste à Laon au XVIIème siècle"*. BN 8° Td53 351.
- LEKUONA M.  
*"Ahozko literatura"*. NN.
- LESSMANN H.  
1914-20 *"Über der umständliche Tötung"* Mitra ald. I. STR.
- LETONNELIER.  
1911 *"Mesures pour éviter la peste"*. BN 8° Lk7 38742.
- LETURMY M.  
1958 *"Dieux, héros et mythes"*. Paris. MH GN/469/L65.
- LEUTHINGER N.  
1729 *"Nicolai Leutengeri opera omnia"* (2 ale). Frankfurt 1729. BN M5677-5678.
- LEVETT.  
1916 *"The black death"*. BN 8°G 8854 (5).
- LIMON.  
1905 *"Contre la peste à Besançon (XVIème siècle)"*. BN 8° Te30 248.
- LIZERAY H. & O'DWYER W.  
1884 *"Leabhar Gabhala Erenn, Livre des Invasions"*. Paris. BN 8° No 430.
- LOCCENIUS.  
*"Loccenii Historia Suecana"*. BN M7182.
- LOOMIS C.G.  
1948 *"White magic"*. Cambridge (Mass.). MH.
- LOOMIS R.S.  
1927 *"Celtic myth and arturian romance"*. New York. BN 8°G 11866.
- LOT F.  
1899-1900 *"Études sur Merlin"*. Annales de Bretagne ald. XV 1899-1900. BN 8°Z 10907.
- LOTH A.  
1962-65 *"Late medieval icelandic romances"* (I-IV al. 1962-65). Editions Arn magnaanae, Series B vol. 20-24. BN 8°Z 39038.
- LOTH J.  
*"Les Mabinogion"*. ATP.
- LÜTOLF A.  
1976 *"Sagen, Bräuche und Legenden aus den Fünf Orten"* Hildesheim, New York. SB.

- MACALLISTER & MACNEILL.  
1916 *"Leabhar Gabhala"*. Dublin. BN 8° No 640.
- MACCULLOCH J.A.  
1911 *"Religion of the ancient celts"*. Edinburgh. BN 8°G 9082.  
1918 *"Celtic mythology"* (The mythology of all races III). Boston 1918. MH.  
1930 *"Eddic mythology"* (The mythology of all races II). Boston 1930. MH.
- MACKENSEN L.  
1925 *"Niedersächsische sagen"*. Hannover-Oldenburg. Leipzig-Gohlis. Aurkiezina.
- MACRITCHIE D.  
*"Giants"* in Hasting's Encyclopedia. ATP.
- MACROPEDIUS.  
1897 *"Rebellas und Alluta"*. Berlin. BN 8°z 12121 (13).
- MAGNUSSON E. & MORRIS W.  
1888 *"The story of the Volsungs and Nibelungs"*. London. BN YI 727.
- MANSA F.V.  
1831 *"... de epidemiis quae in Dania grassatae sunt..."*. Halae ex Gebaueria. NSUG.
- MARKALE J.  
*"Les celtes"*. BN J936 MAR C.
- MARTIN M.  
1716 *"A description of the western islands of Scotland"*. London. BN 8°Nm 484.
- MAUREL.  
1908 *"La peste de 1720"*. BN 8° Lk4 2273.
- MAUSS M.  
*"Oeuvres"*. ATP 1°C/AET/135.
- MAYER.  
1887 *"Die Giganten und Titanen in der antiken sage"*. Berlin. BN.
- MEIER E.  
1852 *"Sagen Sitte und Gebräuche aus Schwaben"*. Stuttgart. Aurkiezina.
- MELLARS P.  
1977 *"Excavation and economic analysis of Mesolithic shell middens on the island of Oronsay (Hebrides)"*, Scottish Archaeological Forum 9, March 1977. MH.
- MICHON L.  
1860 *"Documents inédits sur la grande peste de 1348"*. Paris. BN 8° Td53 153.
- MINVIELLE P.  
*"Guide de la France souterraine"*. Les guides noirs. Tchou éditeurs. MH.
- MITCHELL A.  
1888 *"Past in the present"*. Edinburgh. BN 8°G 5877.
- MOE M.  
1926 *"Samlede skrifter"*. Oslo. BN 8°Z 23704-8 (6).
- MOEBIUS Th.  
1855 *"Blomstrvala saga"*. Leipzig. Aurkiezina.  
1860 *"Floamana saga"*. BN YI. 566.
- MOGK E.  
*"Human sacrifice (Teutonic)"* in Hasting's Encyclopedia. ATP.
- MOORE A.W.  
1891 *"Folk-lore of the isle of Man"*. BN 8° Nr 170.
- MORN MOUTH  
Geoffroy de. Ikus FARAL E.
- MORRIS A.  
1937 *"The glas gaibhleann"*, Bealoideas VII. BN.
- MOSSE F  
1914 *"Laxdoela saga"*. BN 8° M 17157.
- MÜLLER-LISOWSKI K.  
1923 *"Irische Volksmärchen"* Jena. LC.
- MUGARTEGUI J.J.  
*"Algunas noticias de la crónica de Juan Iñiguez de Ibar-güen..."* RIEV XXII, 34-43 orr.
- MUKHARJI R.S.  
1904 *"Indian folklore"* Calcutta. Aurkiezina.
- NEOGI N.D.  
1912 *"Tales sacred and secular"*. Calcutta. Aurkiezina.
- NEWSTEAD H.  
1939 *"Brann the blessed in arturian romance"*. New York. Bn 8°Z 28545 (141).
- O'CURRY.  
1878 *"Lectures on the manuscript materials of ancient irish history"*. Dublin. BN.
- O'DONOVAN J.  
1847 *"The book of rights"*. BN 8° No 291.  
1856 *"Annala rioghachta Eireann, annals of the kingdom of Ireland by the four masters"*. (6 ale). Dublin. ICL.  
1862 *"Topographical poems by John O'Dubhagain"*. Dublin. BN 8° Yn 29.

- O'GRADY S.  
1892 *"Silva Gadelica"* (2 ale). London. BN 4° Y2 5035.
- O'KELLEHER A.  
1918 *"Life of Collumcille"*. Urbana (Illinois). Aurkiezina.
- O'RAHILLY T.F.  
1946 *"Early irish history and mytology"*. Dublin 1946. BN 4° No 830.
- PAPON J.S.  
*"De la peste"*. BN 8° Td53 139.
- PARÈS.  
1919 *"Peste à Toulon"*. BN Lk7 39880.
- PARRY N.E.  
1932 *"The Lakhers"*. London. Aurkiezina.
- PAUSANIAS.  
Ikus CLAVIER M. eta FRAZER J.G.
- PEARSON A.C.  
*"Human sacrifice (Greek)"* in Hasting's Encyclopedia. ATP.
- PELLIZZARI P.  
1881 *"Fiabe et canzoni popolari del contado di Maglie"* (2 ale). Maglie. Aurkiezina.
- PENZER N.M.  
1923 *"The ocean of story"* (10 ale). London. ATP.
- PHILLIPPE A.  
*"Old age (Teutonic)"* in Hasting's Encyclopedia. BN 8° Td53 162.
- PLENZAT K.  
1926 *"Sagen und Sitte um Deutschherrenlande"*. Breslau. Aurkiezina.
- PLINIUS.  
*"Historia Naturalis"*. BN.
- PLUMMER C.  
*"Vitae Sanctorum Hiberniae"* (2 ale). Oxford. BN 8°Nx 3363.  
1922 *"Lives of irish saints"* (2 ale). Oxford. BN 8°Z O Oxf. 358.
- POLO M.  
*"Il milione"*. BN O2 1323.
- PONTANUS I.  
1631 *"Isacii Pontani Historiae Daniae"*. Amstelodami. BN M1254.
- POSTHUMUS J.A.H.  
1911 *"Kjalnesinga saga"*. Groningen. Aurkiezina.
- PRAJOUX.  
1911 *"Peste en Roannais"*. BN 8° Td53 349.
- PROEHLE H.  
1853 *"Kinder- und Volksmärchen"*. Leipzig. Aurkiezina.
- PUHVEL J.  
1970 *"Myth and law among indoeuropeans"*. Berkeley-Los Angeles-London. MH.
- RALSTON W.R.S.  
1873 *"Russian Folktales"*. London. SOR.
- RASMUSSEN K.  
1921-25 *"Myter ok sagn fra Grönland"* (3 ale). Kobenhavn. Aurkiezina.
- REEVES W.  
1857 *"Life of St. Columba"*. London. BN 4°Nx 406.
- REIMANN W.  
1882 *"Geschichten und Sagen der Burgen und Städte im Kreise Weldenburg"*. Friedland, Bez. Breslau. Aurkiezina.
- REURE.  
1910 *"La peste de 1628 dans le Forez"*. BN 8° Lk2 6029.
- RHYS, Sir John.  
1886 *"The Hibbert lectures"*. BN 8°H 704 (4).  
1901 *"Celtic folk-lore"* (2 ale). Oxford. BN 8°Nk 327.
- RINK H.  
1875 *"Tales and traditions of the eskimo"*. Edinburgh. ATP.
- S. RODRÍGUEZ, Hijos de.  
1942 *"Cien figuras españolas"*. Burgos. NN.
- RONA-SKLAREK E.  
1901, 1909 *"Ungarische Volksmärchen"* (2 ale). Leipzig. BSM.
- ROTUNDA D.P.  
1942 *"Motif index of the italian novella"*. Bloomington (Indiana). MH.
- RUDKIN E.H.  
1934 *"Lincolnshire foklore"* in Folk-Lore XLV. BN 8°G 15273.
- RUSSELL R.V.  
1916 *"The tribes and castes of the central province of India"* London 1916. BN 8° O2 k 1490.
- RYDBERG H.  
1917 *"Jarlmann saga ok hermanns"* in Eskilstuna Relaskolas arserdogörelse, Kobenhavn. Aurkiezina.
- SAEMUND.  
Ikus HOLLANDER L.M.
- SAHM.  
1905 *"Pest im Ostpreussen"*. BN 8° Td53 337.

- SAINTYVES P.  
1936 *"Corpus du Folklore préhistorique"*. Paris. MH.
- SAN MARTE.  
1847 *"Beitrage zur bretonnischen Heldensage"*. Leipzig. BN Z42509 (II,3).
- SAUVE.  
1905 *"Notices Aptésiennes..."*. BN Lk7 35011.
- SAXO GRAMMATICUS.  
Ikus HOLDER A.
- SCHARLING C.H.  
1927 *"Zur Neujahrszeit im Pastorat zu Nöddebo"*. Bremen 1896, Leipzig 1927. LC.
- SCHNURRER.  
1815 *"Des épidémies et des contagions"*. Paris. BN 8° Td48 11.
- SCHREIBER J.F.  
1750 *"Observationes et cogitata de pestilentia quae in Ucraina Annis MDCCXXXVIII & MDCCXXXIX grassata est"*. Petropoli, Anno MDCCL. BN Td53 193.
- SCHULTZ G.J. (Bertram).  
1872 *"Sagen von Ladogasee"*. Helsingfors. HUL.
- SELIGMANN S.  
1910 *"Der böse Blick und verwandtes"* (2 ale). Berlin. BN. 8°G 8819.  
1922 *"Die Zauberkraft des Auges und das Berufen, ein Kapitel aus der Geschichte der Aberglaubens"*. BN 8°R 31059.
- SEPHTON J.  
1895-99 *"The northern library"* (I. alea). London. BN 8°Z 29673 (1).
- SEPP J.N.  
1876 *"Altbayerisches Sagenschatz"*. München. SOR.
- SIEBER F.  
1925 *"Wendische Sagen"*. Jena. BN 8°M 24123 (4).
- SINNINGHE J.R.W.  
1933 *"Zeeuwsch Sagenboek"*. Zutphen. Aurkiezina.
- SINNINGHE J.R.W.  
1936 *"Overijselsch Sagenboek"*. Zutphen. MLGU.  
*"Katalog der niederländischen Märchen-, Ursprungssagen-, Sagen-, und Legendenvarianten"*. FFC 122 zb., Helsingky. MH.
- SJOESTEDT M.L.  
1926 *"Le siège de Druim Damghairé"*, Revue Celtique XLIII. ATP P2323.
- SNORRI STURLUSSON.  
Ikus BRODEUR A.G.
- SORAZU E.  
1980 *"Antropologia y religión en el Pueblo Vasco"*. Donostia. NN.
- STOCKS C. De Beauvoir.  
*"Folklore and custom of the Lap-chas of Sikhim"*, Journal and Proceedings of the Asiatic Society of Bengal, XXVII. Calcutta. Aurkiezina.
- STOKES W.  
1862 *"Three irish glossaries"*. London. BN X32626.  
1887 *"Tripartite life of St. Patrick"* (2 ale). London. BN 8° Na 388 (89).  
1890 *"Lives of the saints from the Book of Lismore"*. Oxford. BN 4°Z 222 (III,5).  
1901-3 *"Thesaurus Paleohibernicus"* (2 ale). Dublin. BN 4°Z 1409.  
1905 *"The martyrology of Oengus the culdee"*. London. BN B24925 (29).  
1868 (O'DONOVAN). *"Cormac's Glossary"*. Calcutta. BN 4° Res. X 1340.  
(WINDISCH E.). *"Irische Texte"* 3 Ser. I. BN 8°Z 1591.
- STRABO.  
1867-90 *"Geographia"*. BN G29459-29461.
- STRACKERJAN L.  
1909 *"Aberglaube und Sage aus Oldenburg"*. Oldenburg. ML-GU.
- STUART.  
1900 *"The bubonic plague"*. BN Td53 319.
- SUDHOFF K.  
*"Disease and medicine (Teutonic)"* in Hasting's Encyclopaedia.
- TATLOCK J.S.P.  
1950 *"Legendary history of Britain"*. Berkeley (Cal). BN 8°Nc 4503.
- TAYLOR R.  
1911 *"The political prophecy in England"*. New York. Aurkiezina.
- TEMME J.D.H.  
1840 *"Volkssagen von Pommern und Rügen"*. Berlin. wBN M34326.
- TEMPLE R.C.  
1884, 1885, *"The legends of the Punjab"* (3 ale). Bombay. BN 8° O2k 835. 1900.
- TETTAU & TEMME.  
1837 *"Die Volkssagen Ostpreussens, Lithauens und Westpreussens"*. Berlin. BN M34343.
- THOMS L.M.  
1977 *"Early man in scottish landscape"*, Scottish Archaeological Forum 9, March. MH.

- THOMPSON E.M.  
1899 *"Chronicon Galfridi le Baker"*. Oxford. BN 4°Nb 294.
- THOMPSON S.  
*"Motif index of folk literature"* (6 ale). Bloomington (Indiana). EHESS.
- THORSTEINSSON H.  
1858 *"Armanns saga"*. Akureyri. Aurkiezina.
- THURNEYSSSEN R.  
1921 *"Irische Helden-und Königsage bis zum Siebzehnten Jahrhundert"* (I. eta II. aleak). Halle a.S. Aurkiezina.
- THURSTON E.  
1909 *"Castes and tribes of southern India"* (7 ale). Madras. BN 8° O2 k 1329.
- TITE LIVE.  
1976 *"Ab urbe condita"*. Paris. EHESS.
- TOBLER O.  
1911 *"Die Epiphanie der Seele in deutscher Volkssage"*. Kiel. BN 8°0 Kiel ph. 779.
- TODD J.H.  
1848 *"Leabhar Breathnach, the irish version of the Historia Brittonum of Nennius"*. Dublin. BN 4°Nb 20.
- TORPHAEUS T.  
1711 *"Historia rerum norvegicarum"*. Hafnae. BN M1275.
- TOURS G. de.  
1886 *"Histoire des francs"*. Paris. BN 8° L45 60.
- URQUIJO J.  
*"La crónica de Iburgüen-Cachopín"* RIEV XIII. PEE.
- VAN SWIETEN G.  
1775 *"Comentaria in Boerhaave aphorismos"*. London. BN 8° Td7 18.
- VIGFUSSON G.  
1860 *"Bardar saga Snaefellsass"*.  
1860 *"Bergbua Thattr"*.
- VIGFUSSON G.  
1860 *"Viglundar saga"*. In Nordisk Oldskrifter XXVII, Kobenhavn. Aurkiezina.
- VINSON J.  
1976 *"Folklore du Pays Basque"*. Paris. NN.
- WARD H.L.D.  
1925 *"Lailoken"* Romania XXII. ABN 8°Z 498.
- WEBSTER N.  
1800 *"A brief history of epidemics and pestilential diseases"* (2 ale). London. BN 8° Td51 37.
- WEBSTER W.  
1879 *"Basque legends"*. London. MH GN/549/B3/W38.
- WEDDIGEN O. & HARTMANN H.  
1884 *"Westfälischer Sagenschatz"*. Hinden. Aurkiezina.
- WESSELSKY A.  
1909 *"Mönschlatein"*. Leipzig. LC.
- WESSMAN V.E.V.  
1931 *"Förteckning over Sagentyperna"*, Svenska Folkdiktnin II. BN 4°Z 1503 (226-227).
- WINSTANLEY L. & ROSE H.J.  
1926 *"Scraps of welsh folklore"*, Folk-Lore XXXVII. BN 8°G 15273.
- WISSOWA G.  
1912 *"Religion und Kultus der Römer"*. BN 8°Z 10849 (5,IV).
- WOLF J.W.  
1853 *"Hessische Sagen"*. Leipzig. Aurkiezina.
- WOOD-MARTIN W.  
*"Traces of the elder faiths of Ireland"* (2 ale). Kennikat press. Port Washington, New York, London. MH DA/925.5/C5/W88.
- WORTH R.N.  
1886 *"History of Devonshire"*. London. BN 8°Np 134 (1).
- YOUNGERT S.G.  
*"Sacrifice (Teutonic)"* in Hasting's Encyclopedia. ATP.
- ZAUNERT P.  
1927 *"Westfälischer Sagen"*. Jena. Aurkiezina.  
1924 *"Rheinland Sagen"* (2 ale). I. alea: BN 8°Z 30397. II. alea: SB.
- ZURBONSEN F.  
*"Die Sage von der Völkerschlacht der Zukunft am Birkenbaume"*. Köln. BN 8°R 1803.

## ADVERTENCIA A LOS AUTORES EN RELACION AL ENVIO DE ORIGINALES PARA LA REVISTA *MUNIBE (Antropología-Arkeologia)*

La redacción de los textos se hará en euskera, español, francés, inglés o alemán.

No se aceptará ninguna contribución que haya sido publicada en otra revista o vaya a serlo. Se emitirá una certificación de originalidad firmada por los autores del artículo.

El artículo será aceptado una vez haya sido revisado por distintos réferes.

El manuscrito, original y dos copias, deberá ser enviado también en soporte informático. Se incluirán estos datos:

– Título del trabajo y su correspondiente versión al inglés.

– Palabras clave. En la lengua del trabajo y en inglés.

– Resumen en la propia lengua del trabajo, otro en inglés y otro en euskera.

– Nombre del autor o autores y sus direcciones.

– Los nombres de los autores citados en el texto deben ir con mayúsculas. Los nombres científicos de las especies animales y vegetales deben ir en cursiva.

– Las figuras deben tener su referencia clara en el texto. Asimismo deben venir acompañadas de una página aparte dedicada exclusivamente a "pies de figuras". Lo mismo para las fotografías. Tanto unas como otras deben llevar escrito a lápiz el nombre del autor y el número de orden. El emplazamiento de estas figuras debe estar indicado claramente al margen, junto a su referencia en el texto.

– Respecto a las tablas, cada una de ellas llevará su pie explicativo. El emplazamiento debe también estar indicado al margen del texto junto a su citación en el mismo.

– Las figuras deben ser presentadas en papel vegetal o papel blanco y deben llevar escala gráfica cuando lo necesiten.

– Si las figuras están tomadas de otras publicaciones, deben ser citadas éstas.

– Se recomienda máxima calidad tanto en las figuras como en las fotos.

– Se recomienda, en la medida de lo posible evitar notas a pie de página. En caso de que existan, la numeración de las mismas no debe comenzar en cada página, sino ser consecutiva desde la 1 en adelante hasta la última.

– La lista bibliográfica debe ser citada de la manera siguiente:

– Autor, año, título del trabajo, título de la revista, tomo y páginas. El título de la revista y tomo deben ir en cursiva. Si en lugar de la revista es una obra, tras ésta (que irá en cursiva), debe ponerse la editorial y ciudad de publicación. Ejemplo:

LEROI-GOURHAN, A.

1959 Résultats de l'analyse pollinique de la grotte d'Isturitz. *Bulletin de la Soc. Preh. Française* 56, 619-624.

WINKLESS, N.B.

1975 *Climate and the affairs of men*. Harpers Magazine Press. New York.

Cada autor recibirá pruebas de imprenta para su corrección. En ellas se limitará a revisar posibles erratas. No se podrá añadir o suprimir párrafos extensos ya impresos. De cada artículo se confeccionarán 50 separatas, las cuales serán enviadas al autor del trabajo, así como un ejemplar de la revista. Si fueran varios los autores, estas 50 separatas serán remitidas al autor con quien se haya mantenido la relación. Si se necesitaran mayor número de separatas, éstas serán pedidas durante la corrección de las primeras pruebas y el coste adicional será facturado al autor que las haya solicitado.

Los trabajos serán remitidos a:

Secretaría de MUNIBE  
(Antropología-Arkeologia)  
Sociedad de Ciencias Aranzadi  
Alto de Zorroaga  
20014 Donostia-San Sebastián

**ALDIZKARIRA IGORTZEKOAK DIREN JATORRIZKO LANEI BURUZKO OHARRA,  
EGILEEI ZUZENDUTA**

Testuak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez edota alemanez idatzita egon behar dira.

Beste aldizkari batean argitaratua izan den edota argitaratzekotan dagoen lanik ez da onartuko. Jatortasun-egiaztagiria igorri beharko da, artikulua egileek izenpetuta.

Artikulua hainbat referek aztertu ondoren onartuko da.

Idazkia jatorrizkoa eta bi kopia bidali behar dira, era berean, euskarri informatikoan bidali behar da. Honako datuak bilduko ditu:

– Lanaren izenburua eta ingelesez dagokion bertsioa.

– Hitz gakoak. Jatorrizkoaren hizkuntza eta ingelesez.

– Laburpen bat jatorrizkoaren hizkuntza, beste bat ingelesez eta beste bat euskaraz.

– Egilearen/egileen izen-abizenak eta helbideak.

– Testuan aipatutako egileen izen-abizenak letra larriz idatziko dira. Animalien eta landareen izen zientifikoak letra etzanez agertuko dira.

– Irudiei dagokien erreferentzia argi azalduko da testuan. Gainera, "irudi-oineri" osorik eskainitako orri bereiz batean bilduko dira irudi guztiak. Argazkien kasuan ere berdin. Bai batzuek bai besteek egilearen izena eta ordena-zenbakia ekarriko dituzte arkatzez idatzita. Marjina, testuan daukaten erreferentziaren ondoan, irudi horien non agertzen diren adierazi beharko da argi eta garbi.

– Tauleri dagokienez, taula bakoitzak bere azalpen-oina izango du. Taulak non agertzen diren azalduta ere etorriko da testuaren marjina ondoan, horretxan aipamenaren ondoan.

– Irudiak landare-paperean edota paper zurian aurkeztu behar dira; eta behar izanez gero, eskala grafikoa ere izango dute.

– Irudiak beste argitalpen batzuetatik hartu badira, horien aipamena egin behar da.

– Kalitaterik handiena gomendatzen dugu bai irudietan bai argazkietan.

– Ahal den neurrian, orrialde-oineko oharrak saihestea gomendatzen da. Hala ere, mota horretako oharrak jarritz gero, ez dira orrialde bakoitzean zenbakitzen hasi behar, denak jarraian baizik: 1etik aurrera, azkenekoraino.

– Zerrenda bibliografikoa honela aipatu behar da:

– Egilea, urtea, lanaren izenburua, aldizkariaren izenburua, alea eta orrialdeak. Aldizkariaren izenburua eta alea letra etzanez jarri behar dira. Aldizkaria ez baizik liburua bada, honen atzean (letra etzanez beti) argitaletxea zein den eta zein hiritan argitaratua den jarri behar da. Esaterako:

LEROI-GOURHAN, A.

1960 Résultats de l'analyse pollinique de la grotte d'Isturitz. *Bulletin de la Soc. Preh. Française* 56, 619-624.

WINKLESS, N.B.

1976 *Climate and the affairs of men*. Harpers Magazine Press. New York.

Egile bakoitzak inprentako probak jasoko ditu, zuzentzeko. Egon litezkeen akatsak zuzentzeraz mugatuko da. Paragrafo luzeak eransterik edo ezabatzerik ez dago. Artikulu bakoitzeko 50 separata egingo dira eta lanaren egileari bidaliko zaizkio, aldizkariaren ale batekin batera. Hainbat egile izango balira, harremanetan jarritako egileari igorriko zaizkio 50 separata horiek. Separata gehiago behar izanez gero, lehenbiziko probak zuzentzean eskatu beharko dira eta horiek eskatu dituen egileari fakturatuko zaio separata horien kostua.

Lanak hona bidali behar dira:

MUNIBE (Antropologia-Arkeologia)-ren

Idazkaritza

Aranzadi Zientzi Elkarte

Zorroaga gaina, z/g

2014 Donostia-San Sebastián



## **ADVICE TO AUTHORS WITH REGARD TO SUBMITTING ORIGINALS TO THE *Munibe* MAGAZINE (*Anthropology-Archaeology*)**

The texts should be worded in Euskera, Spanish, French, English or German.

Contributions will not be accepted if they have already been published in other magazines, or are expected to be in the future. A certificate of originality shall be issued and signed by the authors of the article.

The article will be accepted once the referees have revised it.

An original and two copies of the manuscript, containing the following data, will be sent in on electronic formats:

- Title of the article and corresponding English version.

- Key words. In both the language of the work and in English.

- Summaries in the language of the work, in English and also in Euskera.

- Name of the author(s) and address(es).

- The names of the authors mentioned in the text must be in capital letters, the names of the animal species being marked in italics.

- Diagrams and photographs must be clearly referenced in the text. The corresponding descriptive text appearing at the foot of the diagram/photograph shall be detailed on a separate page, and shall bear the pencilled name of the author and the order of appearance. The location of the abovementioned figures must be clearly marked in the margin, alongside their reference in the text.

- Each of the tables shall bear an explanatory footing text, their location in the document being clearly indicated in the margin of the text, along with the corresponding quotation.

- Diagrams must be submitted on either cartridge or white paper, indicating a graphic scale, when necessary.

- The name of other publications from which diagrams have been taken must be stated.

- Diagrams and photographs must be of the highest quality.

- As far as possible, it is advisable to avoid inserting notes at the foot of the page. If this is unavoidable, they must be consecutively numbered starting from the first page onwards.

- The bibliography must be inserted in the following way:

- Author, year, title of the work, title of the magazine, issue and pages. The title of the magazine and the issue must be in italics. If, instead of a magazine, it is a literary work, this should be marked in italics and followed by the editorial and the town of publication. Example:

LEROI-GOURHAN, A.

1961 Résultats de l'analyse pollinique de la grotte d'Isturitz. *Bulletin de la Soc. Preh. Française* 56, 619-624.

WINKLESS, N.B.

1977 *Climate and the affairs of men*. Harpers Magazine Press. New York.

The printing proofs sent to the authors will be used for solely for correcting possible errors, and not for the purposes of adding or deleting extensive paragraphs that have already been printed. 50 offprints will be taken from each article and sent to the author of the work, along with a copy of the magazine. When there are various authors, the offprints will be sent to the author with whom contact has been maintained. Any additional offprints must be requested during the first trial correction period, the additional amounts being invoiced to the author who has requested the offprints.

Works will be sent to:

Secretaria de MUNIBE  
(Anthropology -Archaeology)  
Sociedad de Ciencias Aranzadi  
Alto de Zorroaga  
20014 Donostia-San Sebastián

